BEASAINGO PAPERAK

19 ZKIA.

Beasaingo Udalaren aldizkaria

2011ko azaroa



D. Martín García Garmendia
D. Igor García-Falces Poza

Beasain 1862
TRENAREN BIDEETATIK BARNA

Beasain 1862

TRENAREN BIDEETATIK BARNA

(Trenbidetik gertu dauden ibarreko eraikuntza eta bideak)

D. Martín García Garmendia
D. Igor García-Falces Poza

Beasaingo udala

Beasain 1862, Trenaren bideetatik barna
D. Martín García Garmendia, D. Igor García-Falces Poza.
Itzultzailea: Iker Zaldua Zabalua - Beasain (Gipuzkoa)
Beasaingo Udala, 2011
400 or.: (Beasaingo paperak, 19)
Testua euskaraz
L.G.: SS 1111-2011
ISBN.: 978-84-936700-8-5

Egileak: D. Martín Garcia Garmendia, D. Igor Garcia-Falces Poza

Itzultzailea: Iker Zaldua Zabalua

L.G.: SS-1111-2011

ISBN: 978-84-936700-8-5

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza komunikazio grafikoa. Lasarte-Oria

Liburu hau Ekhi García-Falcesi eskainia da

AURKIBIDEA

Irakurleek jakin bezate, lan hau zazpi "liburutxo" edo kapituluz osatzen dela adierazi nahi dugu, bakoitza aparteko kapitulutzat hartu behar delarik (nahiz eta fisikoki sektore bakoitza aurrekoaren segida izan).

Modu horretan, irakurleak gehien interesatzen zaion kapitulua irakur dezake, kontakizunaren ildoari jarraitzeko aurreko kapitulua irakurri beharrik gabe.

Honatx zazpi sektoreak:

AGURRA 7

HASIERA 9

SARRERA 11

1. - ANTZIZAR 17

2. - IGARTZA 55

3. - GELTOKIA 91

4. - HERRIGUNEA 129

5. - UGARTEMENDI ETA SENPERE 171

6. - FABRIKA HAUNDIA 211

7. - LAZKAIBAR 251

AGURRA

Urte bete pasa da aurreko liburua argitaratu genuenetik, eta hutsik egin gabe hemen dugu ohiturari jarraituz Beasaingo Paperak bildumako 19. alea. Liburu hau, Martin Garcia Garmendia eta Igor Garcia-Falces Pozak egin dute eta aldez aurretik, eurei eskerrak eman nahi nizkieke egindako lan eskergagatik.

Sarritan, ez gara konturatzen herriak zer nolako aldaketak izan dituen urte gutxiren buruan eta " **Beasain 1862, trenaren bideetatik barna"** liburuak, aldaketa hauen berri izateko balioko digu. Gure herriaren historia ezagutzeko eta orain dela 150 urteko egoera zein zen ikusteko ere bai. Trena ezarri zen garaiko planoei esker, garai hartako Beasain nolakoa zen azalduko digu liburuak, hau da, baserriak, fabrikak, bideak, etxeak, lursailak eta gainerakoak herrian non zeuden kokaturik.

Denok dakigu Beasain, trenarekin erabat loturik egon den eta dagoen herria dela. Gainera, garraio bide honek, industrializaziorako eduki duen garrantzia ere nabarmena da. Liburuak, garai bateko bidea zein zen eta gaur egungoa zein den adieraziko digu. Kontuan izan behar dugu, orain dela mende eta erdi ez zeudela gaur egungo aurrerakuntza teknologikoak honelako lanak egiteko eta horren zailtasuna kontuan izanda, zer nolako lana zen garai hartan planoak egin eta bideak egitea.

Amaitze aldera, "**Beasain 1862, trenaren bideetatik barna"** liburuarekin gozatuko duzuen esperantzarekin, berriz ere Martin Garcia Garmendia idazlea eta bere semea den Igor Garcia-Falces Pozak zoriondu nahiko nituzke lan hau egin eta herritarrei eskaintzeagatik, eta baita Beasaingo udaleko Kultura saila ere, urtea joan eta urtea etorri, literatura eta Beasaingo historia uztartuz ateratzen duen Beasaingo Paperak bilduma osatzeko egiten duen lanagatik.

HITZAURREA

"Beasain 1862, trenaren bideetatik barna" izeneko liburua irakurtzean eta, horrekin batera, Martin Garcia Garmendia eta bere seme Igor Garcia-Falces Pozak egindako "Trenbidetik gertu dauden ibarreko eraikuntza eta bideak" irakurrita, arreta ematen du Beasain eta haren inguru-mariak duela 150 urte zuten itxurari buruz dagoen informazio kopuru itzelak.

Ezinezkoa da albiste horiek guztiak bilatu eta egiaztatzeko eman behar izan den denbora aintzat ez hartzea, izan ere, lan hori borondate irmoa izanik soilik egin daiteke, jaioterriaren iraganari buruzko interesa akuilu. Halako ikerketak, ustez, Euskal Herriko Unibertsitateak egin beharko lituzke edo, behinik behin, tesiak egiten dituzten ikasleek. Gure herrialdean, ordea, hainbat egilek egiten dituzte halako ikerketak, aipatu berri ditugun horiek kasu. Haien eguneroko lanarekin tartekatu behar izaten dute ikerketa edo lan hori amaitu ostean. Horrenbestez, ahalegin oso garrantzitsua egiten dute eta aitortza publiko urrikoa.

Ikerketa hauek, zenbaitetan, zenbait adituen azterketen gaindik kokatzen dira eta, hala ere, arazoak izaten dira argitaratzeko. Dena den, aipagarri da Beasaingo Udala eredugarria dela halako lanen zabalkundeari dagokionez, eta hori txalogarria da oso.

Kontu berria da XIX. mendearen hirurogeiko hamarkadaren hastapenean Beasain eta haren inguruneak zuten itxura ezagutzeko Frantziako ingeniariek trenbidearentzat (orduan "burdinbide" gisa ezagutzen zena) taxututako planoetara jo izana. Trenbide hark antzinako Beasain horretan 5 kilometroko luzera zuen, Lazkaon sartu-irten txiki bat egiten zuelarik. Egileek zazpi zatitan banatu dute haren ikerketa. Bestelako informazio batzuekin batera, plano hauei esker, zehaztasun osoz koka daitezke, besteak beste, baserriak, garaiko fabrika zaharra (F.H.S.M.), errotak, bideak, zubiak, errepideak eta laborantza lurrak, guztiak aipatu trenbidearen bi aldeetara kokatuak. Planoak idazteaz arduratu ziren ingeniarien asmoa soilik trenbidea eraikitzeko ibilbide egokiena topatzea bazen ere, egiaz, puntu batetik besterako distantziaren froga utzi ziguten, 100 metrotik 100 metrorako eskalan adierazita. Horri esker, arestian esan bezala, duela ia 150 urte Beasainen ziren funtsezko lekuak lokaliza ditzakegu.

Egileek behatu behar izan duten dokumentazioa oso anitza eta zabala da, esate baterako, udalerroldak, artxiboak eta askotariko argitalpenak. Miatutako dokumentazio horretan nabarmengarri da, besteak beste, Sebastian Insausti Treviño presbiteroak Gipuzkoako parrokia guztien kokapen eta haien barneko baserrien inguruan egindako lana, hain justu, Frantziako ingeniariek Beasaingo trenbidea eraikitzeko planoak egin zituzten data berekoa, hots, 1862koa. Gainera, trenbidearen planoak eta ehun urte beranduago ateratako hainbat argazki baliatuz, egileek oso argi islatu dute iragandako denbora hori.

Gure zorionik beroenak eman nahi dizkiegu burututako lan baliotsuagatik, izan ere, Beasainek duela ia 150 urte zuen itxura ezagut dezakegu ia zehaztasun osoz, herriak izan duen bilakaeraz jabetzeaz gain. Beste herri eta, are, hiri batzuekin alderatuta, behin eta berriz aipatu nahi dugu Beasaingo Udalak lan hau argitaratzeko hartutako konpromisoa.

CARMELO URDANGARIN ALTUNA

SARRERA

Garai hauetan gure mendiak zulatzear den abiadura handiko tren moderno eta azkar hori mintzagai bihurtu da gurean. Horregatik, beste "burdinbide" zaharra oroitzeko momentu egokia izan daiteke, hasiera batean soilik errail batean barna zerbitzu ematen zuena.

Liburuaren hari eroale gisa trenbideak duela 150 markatu zuen xendra hori erabiliko dugu, Beasaingo udalerrian barna "bi bidetatik" zeharreko bidaia labur bat egingo bagenu bezala: Trenbidearen antzinako ibilbidetik eta egungo ibilbidetik, azken hori izango delarik, zehazki, guri gehien interesatzen zaiguna.

Ibilbideko tarte honetarako Frantziako ingeniariek taxututako planoak jarraituko ditugu zehatz-mehatz. Modu horretan, ibarraren hondotik garai hartan trenbidearen ezkerreko zein eskuineko aldean edota trenbidearen ibilbidean bertan paratzen zen guztiak erakutsiko dugu: baserriak, fabrikak (orduan bakarra zegoen, hain zuzen, F.H.S.M.), tunelak, errotak, bideak, zubiak, errepideak, basoak, xendrak, laborantza-lurrak, errekastoak, etab.

Plano zahar horietan aipatu ibilbideko ia bost kilometro barneratzen dira (trenak Lazkaoko jurisdikzioan egiten duen sartu-irtena barne) eta zazpi sektoretan banatu ditugu. Hala, normala denez, 1862an Oria ibaiaren alboan zegoen guztia dugu ikusgai, ibar honetako isurialde guztiek osatzen duten zerrenda zabal horretan barna ibaiak egiten duen ibilbidean zehar.

Lehen sektorea herriaren mendebaldera hasten da, Arriaran-Gudugarreta eta Beasain arteko mugan; azkena, beste mugan, hots, Lazkaibar auzoan dagoen mugan, auzoaren eta Ordiziaren artean zehazki esatera. Horrela, sartaldetik sortalderako irudizko bidaia egingo dugu.

Marrazkiak egin zituzten ingeniariek ez zuten trenbidearen azpiegituraz aparteko informazio sakonik eman nahi izan. Dena den, burutzen ari ziren ibilbidetik gertu samar zegoen guztia nahikoa zehaztasunez islatu zuten eta guk abagunea baliatuko dugu.

Haien zeregina beren ezagutza teknikoa erabiliz egitekoa zen trenbidea marraztea izan zen. Hala ere, trenak ukituko zuen zonalde ezberdinetan izango ziren aldaketa nabarmenak lokalizatu, kokatu, ordeztu eta garatzeko lagungarri izango zitzaizkien erreferentziak islatu behar zituzten ezinbestean; esaterako, zonalde horietan izango ziren oztopoak; bide-zortasun eskubidea ageri zuten bideak; zenbait bide edo xendratan derrigorrez egin beharreko aldaketak eta errepideetan egin beharreko hainbat adarkatze trenbidearen eraginpeko eremuan egoteagatik, etab.

Eta hori guztiori guretzat balio erantsia duen ñabardura batekin, izan ere, plano horietan puntu batetik besterako distantzia zehatzak adierazten zituzten beti. Azken xehetasun hori ehun metroz behin islatzen baitzuten.

Horrek balio handia du, gerora, eraitsitako baserri zaharren kokapen zehatza, aldatutako errepideen abiapuntuak, desagertutako bideak, errekak edota bidegurutzeak ezagutzeko. Izan ere, gaurdaino Beasaingo herrian trenaren jatorrizko ibilbidean ez da aldaketa nabarmenik gauzatu (ibilbideak oraindik ibai eta erreken gainean eraikitako zubi zaharrak zeharkatu behar dituelako ezinbestean), horrela, guk marrazkian ibilbide osoan zehar urratsez urrats eta eskalan adierazten diren erreferentziak erabili ahal izango ditugu.

Plano horietan guztietan agertzen den informazioa balio handikoa da dokumentazio gisa, hala lekuari begira nola sentimenduei so, baina...Zer-nolako itxura izango zuen 1862an Beasaingo herriak? Zenbaitek pentsa dezake hori jakitea kontu erraza dela, izan ere, hasteko nahikoa da urte horietako udal-erroldak hartzea, orokorki etxe zaharren izenekin osatzen baitira; ez dugu

ukatuko neurri batean arrazoia dutela, baina irakurle gehienentzat ezer gutxi balio du azaleko ezagutza horrek, ez baitituzte ezagutuko eraikuntza horien izenak ezta haien antzinako kokapenak ere.

Hein batean literalki eta birtualki bada ere, hain justu trenbidearen planoak sinatu ziren urtean, hau da, 1862an Gipuzkoako parrokia guztietan baserrien kokapenari buruz egindako ikerketa lagungarri izan daiteke, eskema orokor eta nahikoa zehatz gisa, Beasaingo jurisdikzioan zehar eraikuntzen finkatze sakabanatua nola antolatzen zen ikusteko.

Sebastian Insausti Treviño presbiteroak osatu eta argitaratu zuen ikerketa hori. Horretarako, Eliza Batzorde jakin batek landa-zonalde ezberdinetako auzotar barreiatuei gurtza-zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz prestatutako galdetegi bat erabili zuen oinarri gisa.

Hortaz, Gipuzkoako herrixka, auzo eta herri barruan nahiz kanpoan kokatutako baserri guztien premiak ezagutzeko, apaiz horrek parrokia bakoitzak bere garaian igorritako galdetegi horretako datuak aztertu eta osatu zituen. Galdetegi horretan, beste hainbat gauzen artean, Gipuzkoako herri ezberdinetako herrigunetan zegoen etxe edo baserri kopurua jasotzen zen nahikoa zehaztasunez. Horrez gain, herrigunearekiko ordu laurdenera, ordu erdira, ordubetera edota ordu eta erdira zeuden adierazten zen. Hori guztiori herriz herri, auzoz auzo eta baserriz baserri.

Horri esker, grafikoki ez bada ere, aurreko lerroaldean aipatutako distantzia edo denboren laguntzaz, probintziako etxe eta baserrien egiazko kokapena ezagutu dezakegu herri bakoitzeko herrigunearekiko; modu horretan, egile horrek 1862ko Beasain zahar horri buruz jakingarri zaizkigun zenbait datu interesgarri eskaintzen dizkigu, abiapuntu gisa baliagarri zaizkigunak urte horietan Beasainek eta hartako auzo nagusiek zuten itxura ezagutzeko, izan ere, beste gauza batzuen artean, zera aipatzen da:

> *"… el casco urbano de Beasain tenía solo 34 casas, a un cuarto de hora de camino se situaban 22 caseríos, a una media hora de distancia otros 26, a tres cuartos de hora 12 casas, y a una hora de camino nada menos que otras 18 casas más…"*

Nolanahi ere Aratz-Matxinbentari buruzko datu zehatzak ezin ditugu eskaini, izan ere, auzoko etxe guztiak zaku berean sartzen ditu eta, jakina denez, auzoa Beasain eta Azpeitiko udalerrien artean banatzen da besteak beste. Horrenbestez, kasu honetan datu horiek ez zaizkigu baliagarri.

Bestalde, Gudugarreta-Arriaran eta Astigarretari buruz aipatzen diren datuak ere ez ditugu islatuko, izan ere, gaur egun gure auzo direnak 1862an ez ziren gure herriaren baitakoak; hala ere, Ubillotz-Antzizar inguruneari dagokion lehen sektoreari buruzko historia txikian erabiliko ditugu horiek, garai hartan Loinazetik hain gertu zegoen zonalde horretan gertatzen ziren zenbait egoera endemiko hobeto ulertze aldera.

Beasaini buruzko datu horietan Igartza auzoa barneratzen zenez, Garin izango litzateke islatzeke geratzen zen auzo nagusi bakarra. Azken barruti horrek, aipatu egilearen arabera, eraikuntza hauek baino ez zituen orduan:

> *"…cinco casas en el casco urbano, una a un cuarto de hora y tres caseríos más a media hora de distancia…*

Garai hartan orotara 229 familia hartzen zituzten 121 eraikuntza paratzen ziren Beasain eta Garinen; horixe zen 1862an gure herri ñimiñoa, izan ere, gainerako auzo txikiak (Lazkaibar, Ezkiaga, Ugartemendi, Loinaz, Erauskin, etab.) herrigunetik distantzia jakin batera kokatutako etxe kopuru horretan barneratzen ziren. Auzo horietako etxeak ordun laurdenka zenbatzen ziren galdetegi horretan.

Egile horri jarraiki, orotara 1.494 biztanle zenbatzen dira (Aratz-Matxinbenta, Arriaran, Gudugarreta eta Astigarreta kontuan hartu gabe). Horietatik soilik 335 bizi ziren herrigunean kokatutako 34 etxeetan, hots, udaletxearen eta parrokiaren ondoan. Horixe da ibaiaren gaineko zubiak, tunelak, geltokia edota trenbidea (haren eraginpeko herri guztiak goitik behera aldatuko zituena) eraikitzen hasi ziren ingeniari, teknikari eta langileek aurkituko zutena.

1862ko irudirik ez dagoen arren (oso salbuespen gutxirekin, argazkilaritza asmatu berria baitzen), errepaso txiki bat egiten saiatuko gara denboran, garai hartan espazio horietan zegoena eta gaur egun dagoena ezagutzeko; urte horietan leku horiek zuten itxura eta ehun urte beranduago zutena ikusteko; horrez gain, planoek informazio asko eskaintzen badute ere, oso ho-

tzak dira, hori dela eta, hainbat argazki baliatuko ditugu, zaharrak zein berriagoak, zonalde horietan izandako eboluzio ikusgarria hobeto ulertze aldera.

1862az geroztik sortuko ziren aldaketa horiek guztiak bi eskala erabilita erkatuko ditugu; alde batetik, plano horiek taxutu eta ehun urtera ateratako airetiko irudiak erabiliko ditugu; eta, beste alde batetik, data zehaztua duten argazki ugari baliatuko ditugu, modu horretan, sektore bakoitzean behar dugun informazioa jasoko dugu, liburua behar bezala uler dezagun.

Halaber, jarraian ikusiko dugunez, planoetan hasiera batean dirudiena baino gauza askoz ere gehiago adierazten dira orokorrean; horregatik, egindako obren konplexutasuna ulertzeko, soilik gainditu behar izan zituzten eragozpenak azaltze aldera, esango dugu bost kilometro eskaseko tarte txiki horretan, ingeniariek bertan proiektatu zuten derrigorrezko bihurgunea (300 metroz azpiko erradioa duena) behar bezala egiteko, sekulako lanak egin behar izan zirela: lau baserri eraitsi ziren (horietako hiru berriz ere ondoan berreraikitzeko, baina antzinako kokapenaz aparte), trenbidearen azpiko hiru pasabide eraiki ziren, haien gainean bi zubi goratu altxa ziren, tunel bat eraiki zen (Iturrazpekoa, 77,12 metrokoa), errepidearen adarkatze bat egin zen (herrigunetik hurbil, 400 metroko luzera zuena gutxi gorabehera), hiru trenbide-pasabide ireki ziren, Oria ibaiaren gainean hiru zubi eraiki ziren eta beste bat Agauntza errekaren gainean, Eztanda errekan ere desbideratze txiki bat egin zen, hain justu, Iturrazpeko tunelaren irteeran, Gudugarreta aldera. Eta hori guztiori bost kilometro eskasetan…

Gudugarreta eta Arriarango jurisdikzio zaharretan sartzen bagara (egun Beasaingo udalerriaren baitakoak), beste hiru baserri eraitsi zirela ikusiko dugu, hain zuzen, Muxika, Iturralde eta Iturralde txiki. Horiek guztiak haietako egoileek berreraiki zituzten antzinako kokapenetik hurbil.

Jurisdikzio horietan ere beste tunel bat eraiki behar izan zen, dokumentuetan Orea izendatzen zena (agian, Oria da benetako izena), 153,6 metroko luzera duena (Angioko tunel gisa ere ezagutzen da); horrez gain, Angioko errotaren ubidea desbideratu egin behar izan zen eta baita Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban galtzada zaharra ere, azken horretan 200 metro inguruko desbideratzea egin zelarik.

Beraz, arrazoi osoz agertzen da Altsasutik Beasainera bitarteko tartea trenbidearen historian Irun-Madril (jatorrizko ibilbidean Avilako mendietako igarobidea eta Guadarramako mendikatekoa barneratzen dira) bitarteko tarterik zailena gisa.

Ingeniariek idatzietan "Pirinioetako" igarobide idazten zuten Aizkorriko mendikateak Gipuzkoako mendialdean zituen mendi-mazela malkartsuak aipatzeko. Mendigune horretan harkaitz ugari zeuden eta 23 tunel eraiki behar izan zituzten Altsasua-Beasain bitarteko tartean, eta beste bederatzi gure herritik mugaraino.

Gertu dagoenez, ezin dugu aipatzeke utzi, Beasaindik soilik bost kilometrora dagoen Ormaiztegiko herrian Madril-Irun ibilbide osoko zubi eder eta luzeena eraiki behar izan zutela. Zubi horrek 288,75 metroko luzera zuen, 32-34 metro bitarteko altuera eta haren egitura metalikoak 1.800.000 kg hartzen zituen. 1936ko gerran zubiaren zati bat bota zuten. Ordura arte, trenbidearen egitura guztia harlanduzko lau zutabez sostengatzen zen soilik. Ondoren, beste bost dorre osagarri eraiki behar izan zituzten, sendogarri modura.

Altsasutik Beasainera bitarteko tarte korapilatsu hori eraikitzeko XIX. mendearen bigarren erdiaren hastapenean egindako ahaleginak eta gainditutako zailtasun guztiak ikusi ostean, lasai esan dezakegu, orduko zailtasunak askoz ere handiagoak izan zirela (garai hartan zeuden baliabide tekniko urriak aintzat hartuz) Abiadura Handiko Trenaren (A.H.T.) ibilbide berriak gaur egun gainditu beharko dituen oztopoen aldean.

Bada, izan dezazuela denboran zeharreko bidaia on bat…

Duela mende eta erdi, liburu honetan kontatzen den historiaren garaiko janzteko modua goiko argazkiko bikotearenaren oso antzekoa izango zen. Garai horretan ez zegoen ez argindarrik ezta motordun ibilgailurik ere; eta animaliez gidatutako ibilgailuentzako Antzizar-Etxegaraterako bideak apenas eramango zituen hamar urte bukatuta. Autoentzako galtzada berri horrek gaurkotasuna eman zion Aizkorriko hegoekialdeko hegaletik doan Gaztelarako bideari; baita trenbideak ere hamahiru urte beranduago Otzaurtetik pasatzerakoan, beste pasabide batzuk, Berranoa, Lizarrausti eta Etxegarate aukeran izan bazituzten ere.

1. sektorea

Antzizar - Ubillotz

1 zenbakidun planoa



PLANOAN IKUS DAITEKEENA

Hasteko, hiru puntu zuri handirekin adierazten da proiektatutako trenbidearen ibilbidea.

A Hiru lerro zeihar finek Gudugarreta eta Beasain udalerrien arteko bereizketa egiten zuen lerro zaharra adierazten digute.

B Angeluzuzen beltzak Muxika baserriaren antzinako kokapena adierazten du, trenbidearen alboan; gezi zeihar zuri batez adierazten dugun puntu marroia da egun baserriak duen kokapena.

C Usurbeko mendebaldeko mendi-mazelatik jaisten den errekastoa.

D Gudugarretako Udaletxe zaharra (dagoeneko desagertua).

E Eztanda errekaren hegoaldeko ertzean lekutzen ziren baserri ugariak elkartzen zituen errepide zaharra.

F Loinatzazpikoa baserria.

G Eztanda erreka.

H Beasain-Ormaiztegi-Arlaban errepidea.

I Antzizar Etxea.

J Zegamatik datorren Oria ibaia.

K Iturrazpe tunelaren kokapena.

L Beasain-Etxegarate-Altsasu errepidearen adar berria, 1848-1851 artean eraikia.

M Urbizuko zonaldetik Zeraingo meategietara, Mutilora eta inguruko mendietara abiatzen den garraiobidea.

N Altamirako ipar-mendebaldeko mendi-mazelatik jaisten den errekatxoa.

Ñ Ubillotz baserria.

O Eztanda errekaren gainean eraikitako Ubillotzeko zubia.

P Beasain-Segura erdi aroko bide zaharra, Igartzan abiatzen dena, Oria ibaiaren ezkerreko ertzetik.

Q Oria ibaiaren ibilguaren gainean eraikitako hiru begiko zubi berria, 1848-1851 artean altxa zena.

R Iturrazpe baserri bien antzinako kokapena.

S 1862. urtearen bueltan "Segurako bide zaharrerantz" egindako desbideratzea, Igartzan trenbidearen gainean eraikitako zubia zela-eta.

T Gezi zuri batez adierazten da 1862. urtearen ostean "Piparrenea edo Gasparrenea" baserria kokatu zen gunea erakusten duen puntu marroia.

U Loinazko Andra Mariaren ermita eta Loinatzgaraikoa baserri zaharra.

V Urbitxipitik jaisten den Muxika errekastoa.

X Mendi-mazela honetako bidea, mendietara edota, besteak beste, Pagadizabal eta Errezkarate baserrietara joatekoa.

Y Zegamatik datorren Oria ibaiaren gaineko tren-zubia, Eztanda errekak eta Oria ibaiak bat egiten duten lekuan kokatzen dena ia.

Z "Katea" zonaldean kokatzen zen trenbide-pasabide zaharra, egungo kiroldegiaren atzealdean.

GUDUGARRETAKO MUGETAN BARRENA

Gudugarreta 1882. urtean pasa zen Beasaingo parte izatera, soilik jarraian erakutsiko ditugun Iparraldeko trenbidearen plano hauek sinatu eta 20 urtera.

Horregatik, eta herri ttipi hori ordura arte Beasaingo herriaren mendebaldeko muga zenez, hari buruzko datu interesgarri zenbait aipatuko ditugu; gauza bera egingo dugu, aurrerago, ibilbidearen amaieran Lazkaibar auzora iristen garenean, Beasaingo herrian barrena trenbideak egiten zuen ibilbideko ekialdera, Ordiziaren mugakide.

M. Ladame trenbidearen ibilbideko ingeniariak 1862an Gudugarretako mugatik hurbil kokatutako zenbait baserri marraztu zituen, esate baterako, Irigoien "Iruin", Angio errota eta hartako ubidea eta Gudugarretako benta zaharra. Azken hori XX. mendearen hasieran desagertu zen eta orduan Irigoien "Iruin" baserriaren parean kokatzen zen, Ormaiztegirako bidearen eta errekaren artean. Handitutako 1a plano-zatian haren kokapen zehatza ikus daiteke. Horretarako, gezi zuri bat ipini dugu benta zahar eta eztabaidagarri haren kokapena ezagutzeko asmo bakarrarekin gaineratu dugun sekzio txiki horretan. Bide batez, aipagarri da izerdi asko atera behar izan zela Probintziak Gudugarretari hura zabaltzeko baimena eman ziezaion, izan ere, urte haietan ez zen egokitzat ikusten populatu gabeko zonalde batean benta gehiago eraikitzea, segurtasun aldetiko arazoak zirela medio. Ikus dezagun Pablo Gorosabelek 1862an esandakoa:

> *"…por una ley recopilada del Reino, el establecimiento de ventas y mesones se hallaba prohibido en despoblado. En su cumplimiento, las Juntas celebradas en 1756, noticiosas de que la villa de Gudugarreta trataba de poner en su jurisdicción semejante casa en paraje no poblado, por causa de los inconvenientes que creyeron podían seguirse de ello, lo prohibieron…"*

Halaber, Gudugarretako Udaletxea hartzen zuen eraikin zaharraren kokapena ere ikus daiteke, 1c plano-zatian D hizkiarekin adierazi dugu hori. 1c plano-zatian eta baita 1. sektoreko plano orokorrean ere, ezkerrera, gaur egun auzo bilakatu den eremu horretan oraindik hainbat baserri kokatzen direla ikus daiteke, besteak beste, Saltsamendi (historialari zenbaiten arabera, erromesen ospitale tenplarioa izan zitekeena) eta Aztiazaran.

1a eta 1c plano-zati horietan dagoeneko desagertuta dauden Gudugarretako eraikin zaharretan erreparatzen badugu, oraindik haiek XIX. mendean zuten betekizun zaharrekin amets dezakegu, errekaren aldamenean isolatuta, ingurune ederraren altzoan. Erreparatu orain 1 zenbakidun irudi-plano multzo osoan, dagoeneko desagertuta dauden eraikin zahar eta kuttun horiek guztiak zonalde horri dagokion testuinguru orokorraren barnean kokatze aldera.

Trenbideak Beasaingo jurisdikzio zaharrean barrena egiten zuen ibilbideaz ari garenez, gure lurraldeari dagokion ezinbesteko sarrera honetan azaletik baino ez dugu aipatuko Muxika, ziur aski Gudugarreta herrixkako baserri historikoena zena; Angio, Arriaran-Gudugarreta zonaldean zegoen errota-industria bakarra; eta, azkenik, "Makinetxe" zentral elektrikoa, hau berriagoa. Azken hori, 1862an plano hauek marraztu zirenetik garai berrietara bidean, landa-paisaia horrek izan zuen aurrerabide motelaren adibide leial eta triste modura aipatuko dugu.

Azpiegitura garesti hori XX. mendeko bigarren hamarkadaren amaieran eraiki zen guztiz, eta zalantzarik gabe mende batean (1864an trenbidea inauguratu zenetik) zonalde horretan egindako inbertsio handiena izan zen. Jarraian ikusiko dugunez, energia sortzeko zentral moderno hori gauzatzeko 221.680 pezetako inbertsioa egin behar izan zen. Diru horrekin, garai hartan eta leku horretan bost hektarea lurrez hornitutako dozena bat baserri baino gehiago eros zitekeen, gutxi gorabehera.

Alboko herrixkan, Arriaranen, Iturralde eta Iturraldetxiki etxe zaharrak eraitsi behar izan zituzten trena pasa zedin. Gudugarretan, ordea, Muxika baserri historikoa izan zen eraitsi zuten baserri bakarra. **Dena den, etxe horietako egoileek hiru etxeak berreraiki zituzten beranduago, bakoitzaren antzinako kokapenetik berrogeita hamar metro eskasera;** zehazki esatera, Muxika eta Iturralde antzinako kokapenetik berrogeita hamar metrora trenbidetik gora, eta Iturraldetxiki (gerora gaiztoki "Lapurretxe" izendatu zena) kokapen zaharretik berrogeita hamar metrora, beherantz, Ormaiztegira zihoan errepidearen alboan, herri horrekin muga egiten zuelarik 2004an behin-betikoz eraitsi zuten arte.

Gudugarreta zen Gipuzkoan barrena trenbidearen ibilbideak zeharkatu beharko zuen hamargarren jurisdikzioa 1864an, zonalde horretako tartea inauguratu zen urtean. Gipuzkoako herrixka horretan trenbideak 600 metroko luzera zuen; 577,275 kilometro-harrian hasi eta 577,875 kilometro-harrian amaituz. Gudugarretan trenbidea eraikitzeko azkenean desjabetu behar izan ziren lurren azalera 16.295 m^2 koa izan zen.

Obrak ez ziren soilik trenbidea eraikitzekoak, izan ere, hain justu, 577,275 kilometro-harrian **burdinazko zubi bat eraikiko zen errekaren gainean, 16 metroko arkuargi batekin.** Horrez gain, 577,335 kilometro-harrian dokumentuetan "**del molino**" (errotarena) izenarekin agertzen den tunela eraikiko zen (izen hori hartzen zuen Angio irin-errota zaharraren parean kokatzen zelako, hain zuzen, haren irteeran, Ormaiztegiko norabidean), dokumentuen arabera, 77,63 metroko luzera izango zuena, mendiaren azpian eraikiak. (Sic)

Azkenean, 16 metroko luzera izango zuen zubi hori ez zen eraiki, izan ere, itxura batean, teknikariek puntu horretan Eztanda erreka desbideratzea erabaki zuten, leku horretan proiektatzen zen trenbideko bihurgunea errespetatze aldera, 300 metroak gainditzen zituen erradioa izango zuena. Eztanda errekaren ertzean kokatzen zen Ubillotz errotaren azken aztarnak obra horiekin desagertu zirela uste dugu.

Mendi zabal hau, bisitari gutxi izaten dituena, idatzietan beti Urbitxipi izenarekin agertzen da, itsasontzi baten branka lanputsa bailitzan. Izendapen berezi horrek badu bere arrazoia, izan ere, zonalde horretan bi haran banatzen dira, Oria ibaiarena eta Eztanda errekarena.

1862an dagoeneko amaituta zeuden hemen desjabetze-prozesu konplexuak, nahiz eta 1859. urte inguruan eskualdeko beste zonalde batzuetan artean erabat zehaztu gabe izan behin-betiko ibilbidea, hainbat dokumentutan irakur daitekeenez. Gipuzkoan asko izan ziren eraitsitako baserriak, haietako orubeak trenbideak egin beharreko ibilbidean kokatzen zirelako.

Gudugarretako Muxika baserriarekin hasi baino lehen, azalpen bat eman nahi dugu, Beasaingo ibilbidean barrena hemendik aurrera deskribatuko ditugun baserri guztietarako balio duena, hau da, baserri jakin baten antzinatasuna aipatzen dugunean sekula ez dugu irudikatu behar egun duen itxurarekin. Ikusiko dugunez, normalean denboran mantentzen zena eraikin zaharraren izena besterik ez da, izan ere, mendeetan zehar eraispenak, aldakuntzak, suteak eta berreraikitzeak ohikoak izan dira, haien bilakaera motela bezalaxe.

MUXIKA BASERRIA aurrez aipatutako guztiaren adibide egokia da, izan ere, eraikin historiko hori ere desagertu egin zen trenbidea iritsi zenean. Bertako egoileak izan ziren (egoera horretan normala denez) kaltetuenak baserri hori trenbidearen ibilbideari "erantsita" egoteagatik eraitsi zenean. Handitutako 1a eta 1b plano-zatietan haien kokapen zaharra ikus daiteke ederki eta, baita Trenbidearen Konpainiako ingeniariek marraztutako 1. sektoreko plano orokor honetan ere.

Lehen esan dugun moduan, 1a plano-zati horretan gezi batekin adierazten da, era berean, Gudugarretako benta ezagunaren antzinako kokapena, XIX. mendearen amaieran desagertu zena; eta, hain justu, plano horretan betan, azpialdean, Muxika baserri zaharraren kokapena ikus daiteke. 1b plano-zatiak Beasaingo herrirantz dagoen zonaldea erakusten du. Plano horretan ere gezi batekin adierazten dugu, trenbidearen alboan egoteagatik baserri zaharra eraitsi ostean, Muxika baserri berriaren kokapena erakusten duen zirkulu marroia. Kokapen zaharra B hizkiarekin adierazten dugu 1a eta 1b plano-zatietan.

Eta, inork jakin-minez edo, baserri hori bisitatu nahiko balu, esangarri da, halako eraikin askotan gertatzen den bezala, eraikin berriak ez duela mantentzen orube historikoan baserriak zuen armarri heraldikoa.

Zenbait dokumentutan zera irakur daiteke, beste gauza interesgarri batzuen artean:

> *"…los dueños de la propiedad demolieron la primitiva construcción y segregaron de sus pertenecidos los terrenos necesarios para la implantación del tendido ferroviario en esa zona…"*







Muxika baserri hori Gudugarreta herrixkako lehena zela adierazi ostean, dokumentu horretan bertan datu hauek gaineratzen dira:

> *"…la nueva casa, con su labranza, se edificaría aprovechando los materiales de la antigua casa de Muxica, aunque sería ahora de superficie más reducida que el anterior…"*

Baserri berria soilik 50 metro gorago eraiki zen, antzinako kokapenaren hegoaldera, hain zuzen, egun lekutzen den orubean. Ataurrea ekialdera begira eraiki zen. Egun etxeak 178 m²ko azalera du eta beheko solairuarekin, lehen solairuarekin eta ganbararekin osatzen da haren egitura. Hartako leihoetako kofadurak eta eskantzuak harlanduz eraiki ziren, hormak harlangaitzez eta, teilatuak, berriz, bi uretako estaldura ageri du. 2. argazkian berreraikitako baserria ikus daiteke.

Eraikin berria, gaur egun, errepide, autobia eta trenbidez inguratuta badago ere, baserriari dagozkion lursailak ditu mugakide lau puntu kardinaletan.

Berreraiki zen egunez baserriaren eta hartako etxaguntzen balioa 3.800 pezetakoa zen.

Gaur egun, Urbitxipi mendiaren mendi-mazelatik abiatuta mendira nahiz Pagadizabal eta Errezkarate baserrietara joateko bidea planoan X hizkiarekin adierazten den gunetik egiten da, Zumarragarantz doan autobia berriaren azpian (1997an inauguratu zena) eraikitako tunel batetik barrena.

V hizkiarekin adierazten da Muxika baserriaren albotik igarotzen zen errekatxoa. Plano horretan ikus daitekeenez, gaur egun, lurraren azaleratik barrena bideratuta dago, baserriaren goiko aldetik Eztanda errekara iristen den arte.

Muxika baserri berria, gaur egun, trenbidearen eta Zumarragara doan autobia berriaren artean sartuta badago ere, talaia paregabea da leku zoragarri hori ikusteko, batez ere urrutira ageri den Aralar mendikatea ikusteko.

Honatx, XIX. mendearen bigarren erdialdearen hastapenean baserri berriaren baitakoak ziren lursailen izenak eta ezaugarriak:

Etxeazpia, 4.515 m²koa, iparraldera trenbidea zuena mugakide. Baserriari atxikitako beste onibar bat, barazduna, 4.469 m²ko dituena eta muga hauek:

Ekialdera, "burdinbidea"; hegoaldera, etxe horren baitakoa den bide-zorra; mendebaldera, errepidea eta Muxika etxea; iparraldera, Urbitxipi menditik jaisten den errekastoa.

Otaegi izeneko lurra, 5.167 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Hegoalde eta iparraldera, Agirre baserriaren lurrak; mendebaldera, trenbidea; eta, ekialdera, Eztanda erreka.

Iribasbaso izena du beste onibar batek, zati bat haritz motz eta gaztainondoz beteta eta beste zati bat lur landuz beteta duenak. Zuhaiztiko aldeak 25.788 m²ko azalera zuen eta lur landuari zegokionak 546 m². Hauek ziren onibar horretako mugak:

Ekialdera, Muxikari zegozkion xendra eta onibarrak; hegoaldera Ubillotz eta Irigoien baserrietako lurrak; mendebalde edo goiko aldera, Ibulus baserriko hariztia eta Irigoien baserriaren zonaldeari dagokion mendia; iparraldera, Irigoien baserriko hariztia eta Urbitxipi mendiko zonaldea, antzina, sagarrondoz, haztegiz eta labore-lurrez beteta zegoena.

Bazen beste lursail bat, 48.821 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Ekialdera, Ubillotz; hegoaldera, Ubillotz, Pagadizabal eta Irigoien baserrietako lurrak; mendebaldera, Irigoien baserriko lurrak, Pedro Maria Lizarralde eta Ramon Mendiaren jabetzakoak; iparraldera, berri zere Irigoyen baserriko lurrak.

Maria Josepha Perea y Lareagak, 56 urteko alargun oñatiarrak, lanbidez nekazaria zenak, Madrileko Maria Josefa de la Cerda y Palafox andrearen (beste noblezia-titulu askoren artean Oñatiko kondesa, Montealegreko markesa eta Naiarako dukesa zena) ondasun eta errenten administrari modura, beste gai batzuen artean, jarraian adierazten duguna adierazi zuen Beasaingo Epaitegian Muxika etxe zahar eta historikoari buruz, aurreko lerroaldeetan hari buruz esandakoa berresten delarik:

> *"...que en dichos terrenos existía una casa llamada Muxica con sus pertenecidos, que muchos de esos terrenos fueron vendidos a la Compañía de Crédito Mobiliario Español para el ferrocarril en toda la parte necesaria, y que debido a ello se tuvo que derribar la antigua y construir una nueva casa que es la que describe a continuación y que ahora quiere acreditar…"*

Halaber, adierazi zuen, jabetza horiek aipatu andreak bereganatu zituela bere senar Luis de Guzman y la Cerdaren (beste titulu askoren artean, Vistalegreko markesa, Oñatiko kondea eta Naiarako dukea) legezko oinordeko bakar modura.

Orobat, aipatu zuen ez zuela jabetza horien gaineko idatzizko dokumenturik. Horrenbestez, Restituto Larrondobrunok, Agustin Mendiak eta Jose Domingo Mugicak deklaratu behar izan zuten, Beasaingo Alkate, sindiko eta idazkari modura, hurrenez hurren. Horiez gain, Gudugarretako Martin Ignacio Mendiak eta Francisco Murguiondok lekukotasuna eman behar izan zuten, azken horiek honakoa adierazi zutelarik:

> *"…les constaba de ciencia propia que la citada señora era dueña de las citadas propiedades descritas desde tiempo inmemorial…" (Qué otra cosa iban a testificar esos pobres colonos si eran renteros de dicha condesa de Oñati)*

Alkateak, Sindikoak eta Idazkariak, aldi berean, adierazi zuten andre hark, bere jabearen izenean, puntualki

ordaindu zituela derrigorrezko kontribuzio eta zerga guztiak. Halaber, adierazi zuten eskubide errealei zegokien zergarengatik eta ondareak eskualdatzeagatik ez zuela andre hark ezer ordaindu behar, izan ere, indarreko legeen arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Probintzietan ez zen ezartzen zerga horiek ordaintzeko betebeharra. Azkenean, Oñatiko kondesak jabetza berria bere izenean erregistratu zuen 1883ko urtarrilaren 29an.

Maria Josefa de la Cerda 1884ko uztailaren 23an hil zen Aranjuezen, bere senarraren aldetiko ondorengorik gabe. Horrenbestez, ondare guztiak Jose de Guzman y la Cerda, Guevarako markesaren eskuetan geratu ziren, baina baldintza batekin, hots, hura ondorengorik izan gabe hilko balitz, ondareak berriro Juan de Guzman y Caballerok bereganatuko zituen berriro, aurrekoaren lotura eta baldintza berdinetan.

75 urteko ezkongabe madrildar bati, Jose Reinero de Guzman y la Cerdari (Montealegreko markesa eta Oñatiko kondea) usufruktuz esleitutako ondareen herenak izugarrizko balioa zuen, zehazki, 1.977.394 pezeta. 1889ko azaroaren 25ean jabetza horiek erregistratu ziren.

Ataungo Sabina Zubizarreta Baztarrica, Zaragozara ezkondu zena, izan zen Muxika baserriaren azken jabea. Hark 1945eko irailaren 14an saldu zizkion baserria eta hartako etxaguntzak bertako egoile zen Jose Cruz Iraola Jaureguiri, zeinak 20.000 pezeta ordaindu zituen.

Jose Cruz Iraola eta Paula Aranburu Erauskin (hurbil zegoen Pagadizabal baserrian jaio zena) senaremazteek lau seme-alaba izan zituzten: Jose Francisco, Maricruz, Maria Jesus eta Jose Maria; horiek izan ziren baserriko azken egoileak, hemendik aurrera, "Muxika berri" izendatuko duguna, dagoeneko eraikin berria dela argi dagoelako.

Lope Martinez de Isastik, Serapio Mugicak eta Carmelo Echegarayk adierazitakoari jarraiki, esan dezagun Francisco de Avila y Muxika, Erromako kardinala, Gurutze Santu Jerusalemgoaren baitakoa, Gurutzadako Komisario Nagusi eta Toledoko Artzapeza izan zela.

Gudugarretan kokatutako Muxika oinetxeko semea zen hura. Dena den, Serapio Mugicaren arabera, aurreragoko ikerketek erakutsi dutenez, abizen hori hartzen zuen etxekoa izan arren Gudugarreta eta Ordizian, berez, Avilan jaio zen. Kardinalaren aita, Garci Ibañez de Muxica Lizentziatuak (1520an hil zen), Muxikako maiorazkoa sortua zuen Avilako hirian.

Beste pertsona batzuk era aipatzen dituzte abizen horrekin, esate baterako, Nuño de Muxica, aurrekoaren anaia eta prokuradorea Avilako Gorteetan; Alfonso de Muxica eta Martin de Muxica y Arrue. Azken bi horien inguruan zera adierazten dute:

> *"...de algunos de estos ilustres varones no se sabe con seguridad si eran oriundos de Gudugarreta ó de Villafranca, pero tenemos por cierto que los dos solares procedían del mismo origen, dado que hasta el escudo de armas de una y otra casa es el mismo. Lo constituyen tres franjas rojas en campo de oro, aunque después, por entronque con otros linajes, probablemente se hayan agregado nuevos atributos al escudo de Villafranca…"*

Beste historialari ospetsu batzuei so, gutxienez bitxia iruditzen zaigu Oñatiko konde boteretsuak, Beltran de Guevararen ondorengoak, artean Muxika baserriaren jabetza mantentzea Arriaran-Gudugarreta zonalde historikoan. Horretarako, gogoan izan behar da, hasiera batean, hark Sal Salvadorreko Monasterioa eta Arriaran herrixkako lur guztiak bereganatu zituela, Gaztelako Fernando IVak ondareak Tenpleko Ordenari kendu ostean.

Jakina denez, historialarien arabera Salbatoren Ordena horren Monasterio Tenplario bat egon zen eta Arriaranen zituzten jabetzak, behin Enrique de Trastamararen aukera gailenduta, xelebrea bada ere, haren "basailu leialak" eskuratu zituen 1367an, hots, Lope Lopez de Oriak. Jabe berria Oria etxe horretako kapare gipuzkoarra zen. Etxe hori, artean tente dago, Idiazabalen, Oria ibaiaren aldamenean dauden baserrietan erreparatze badugu ikus dezakegunez.

Beranduago, Gaytan de Ayala leinuarekin (dirudienez, jatorriz italiarrak ziren Gaetanotarren adar batekoak) ezkontza-ahaidegoa finkatuta, lur horiek aipatu abizenaren eskuetan geratu ziren. Leinu hark, 1624an Villafranca Gaytaneko kondearen titulua eskuratu zuen Felipe IV erregearen eskutik. Bere garaian etxe

hark Aravacako markes eta Tolako markes tituluak ere izan zituen.

Eta, Muxika baserria bere historiagatik garrantzitsua bazen, Angio errota zaharra ere oso garrantzitsua zen industriaren ikuspegitik (urte haietan hura zen inguruko errota bakarra). Errota hori ere Gaytan de Ayala leinuak eskuratu zuen 1862an. Zonalde horretan, Irigoien "Iruin" izenez ezagutzen denarekin batera, baserri-errota zahar hori izan zen XX. mendeko azken laurdenaren hastapenean eskualdean desagertu ziren baserri ugarietako bat. Angio izeneko errota bat idatziz aipatzen da, gutxienez, 1567az, geroztik.

ANGIO ERROTA errepidearen alboan zegoen, Ubillotz baserriaren eta Salbatore auzoaren artean, errepidearen ezkerreko aldean norabide horretan. Gaur egun, zementu-fabrikaren parean kokatuko litzateke, ehun metro gorago, Salbatore-Ormaiztegi norabidean. 3. argazkian errota hori ikus daiteke eta, era berean, gezi zuri batez adierazten da errotako ubideak egiten zuen ibilbidearen amaiera.

1883. urtean, Gudugarreta eta Arriaran jurisdikzio zaharrak banantzen ziren gunearen erreferentzia modura gogoratzen zen Angio errota artean, izan ere, eraikinetik eta teilape-errotatik bertatik pasatzen zen teorikoki bi herrixkak banatzen zituen irudizko lerroa. Gaur egun, bi herrixkak Beasaingo jurisdikzioaren baitakoak dira.

Eskualdeko biztanleen artean urte haietan mespretxuzko esaldi errimatu bat zebilen ahoz aho, herrixka horretan industriari eta zerbitzuari zegokienez zegoen urritasuna adieraztekoa: "Gudugarreta, ez eliza eta ez errota". Arriaran eta Beasain artean kokatutako herrixka horretako biztanleek horrela ematen zuten arrapostu herrixka defendatzeko: "Gudugarreta, ez eliza, baina bai errota", Angio izeneko errota bertako jurisdikzioaren baitan zegoela iradokiz.

Hauek ziren 1883an errotaren eta hartako etxaguntzen mugak:

Iparraldera, Autoen Errepide Nagusia; ekialde eta hegoaldera, Guillermo Arcelusen lurrak; mendebaldera, eraikinari zegozkion etxaguntzak.

Eraikina horrela egituratzen zen: beheko solairua, sukalde gisa baliatzen zuten pisua, azienda gordetzeko ukuiluak, pisu nagusia eta ganbara. Etxearen mendebaldera teilape-errota zegoen eta bertan ehoketarako bi harri zeuden, aurrerago xehetasun gehiagoz adieraziko dugunez.

Bi eraikin horien azalera 188 m²koa zen eta haietako ataurreen artean 231 m²ko azalera osatzen zuten. Etxeko baratzak **Bekosoro** eta **Goikosoro** izenez ezagutzen ziren eskuarki. Baziren bi sagasti baserritik hurbil; alde batetik, **Sagastitxiki** (trenbidera iritsi aurretik zegoena) eta, beste alde batetik, **Sagastiaundi** (trenbidea zeharkatu ostean zegoena). Azken horri "Karril aldea" ere esaten zitzaion, dokumentutan beti "camino de hierro" (burdinbide) izenez agertzen zen trenbidearen inguruan kokatzen zelako.

1862an lur hauek ziren baserriaren baitako jabetza nagusiak:

Etxeazpia, 2.683 m²ko azalera zuena. Hartako mugak hitzez hitz ematen ditugu irakurtzen ari garen dokumentu honetatik:

Iparraldera, Oria ibaia (idatzian Eztanda erreka aipatzen da, izan ere, hala izendatzen zuten orduan Eitzagatik jaisten zen errekatxoa); hegoalde eta ekialdera, Gudugarreta eta Arriarango jurisdikzioak banatzen zituen errekatxoa; mendebaldera, zati batean, Jose Maria de Camposen jabetzako lurra eta, beste zati batean, Ormaiztegira zihoan errepide nagusia.

Beste lursaila **Arkaldea** izendatzen zen eta aurreko dokumentu horren arabera, 3.101 m²ko azalera zuen. Honatx hartako mugak:

Iparralde eta mendebaldera, Oria ibaia (Eztanda, lehen aipatu dugun moduan); hegoaldera, errotaren teilapera bideratzen zen ubidea; ekialdera, Villafranca Gaytaneko kondearen jabetzakoak ziren lur gehiago.

Ur-emaria garraiatzen zuen errepideko arekaraino errotako presa mugakide zuen lurrak muga hauek zituen:

Iparraldera, Martin Gaitan de Ayalaren eta Nicolas Elizalderen lursailak, biak errepidearen eraginez zatituak; hegoalde eta ekialdera, errota-etxearen ataurreak; mendebaldera, Iparraldeko Trenbidearen Konpainiaren jabetzako lurrak.

1854ko abuztuaren 14an Candido Gaytan de Ayala (Villafranca Gaytaneko kondea) eta Mariano Luis Gaytan de Ayala bergararrek, zati berdinetan banatuta, errota bereganatu zuten aitaren herentzian.

Beste jabetza askoren artean, orduan Itxasoko Udalera atxikita zegoen Arriarango herrixkan kokatutako Etxeberri eta Mugartegi sagastiak ere eskuratu zituzten herentzian. Halaber, Gudugarretan (garai hartan, artean, herri titulua mantentzen zuena) Agirrebarrena baserria eta hartako etxaguntza guztiak jaso zituzten herentzian, eta, beste eraiki batzuen artean, Bergarako herrian kokatutako Rekalde jauretxea ere bai.

Bi anai horien artean, azkenean, Candido Gaytan de Ayala (Villafranca Gaytaneko kondea) izan zen Angio eta hartako etxaguntzen jabedun modura geratu zena.

Urte haietan, jabetza horietako zenbaitek eta errotak artean zentsu zahar baten karga zuten, hain zuzen, 4.900 beloi-errealeko kapitala, Arriaranen jaiotako Amador Lopezen kapilautzak jasotzekoa. Aipatu pertsona hori Alferiz Nagusi ospetsua izan zen.

1883an, Angioko errotak 20.000 errealeko hipoteka zuen, urtean %4ko interesa finkatuta zuena, Martin Gaytan de Ayalak Jose Antonio Aguirreri onartua. Urte hartako ekainaren 23an hipoteka hura eta zegozkion interesak bertan behera geratu ziren, kasu honetan, Jose Lorenzo Antiaren alde, Jose Antonio Agirreren testamentuaren onuradun izaki.

Orobat, Gaytan de Ayala anaiek eta haien amak, Maria Mercedes Lapizaran Olazabalek, lau anai-arrebe-

tako bati, Jose Maria Gaytan Lapizaran abokatuari, aitortutako ahalorde bat irakurtzen dugu, hark errota eta hartako lurrak saldu ahal izateko.

Ama eta Casilda, Rosario, Martin eta Jose Maria Gaytan de Ayala Lapizaran anai-arrebak (guztiak ezkongabeak) Bilbon bizi ziren orduan eta Angio errota saltzea erabaki zuten Martin Gaytan de Ayalaren (amaren senarra eta anai-arreben aita) herentzian jasotako jabetzekin batera.

Halaber, 1915eko urtarrilaren 20an Angio errotaetxearen baitako lurrak, 1.474,62 m^{2}ko azalera zutenak, zatitu egin ziren.

1915eko urtarrilaren 20an Gabiriako Andres Telleria Echalecu merkatariak 17.500 pezeta ordainduta erosi zituen errota eta hartako etxaguntzak. 1927ko abenduaren 20an, ordurako Ormaiztegin bizi zela, hil egin zen. Orduan, jabetza Telleria Sarasola abizena zuten bere zazpi seme-alabek jaso zuten herentzian.

Azkenik, 1933ko uztailaren 15ean zazpi anai-arreba horiek errota eta bertako etxaguntza zenbait besterentzea erabaki zuten eta, Segunda Iraetarekin ezkonduta zegoen Juan Bautista Telleria Ayestaranek bereganatu zituen 16.000 pezeta ordainduta. Familia horretako ondorengoak urte haietan Beasaingo Aranberriazpikoa etxean bizi ziren (plaza eta udaletxearen ondoan dagoen Telleri etxea eta haiek izan ziren Angio errotaren azken jabeak, oraintsu desagertu den arte.

1867an, hots, plano hau sinatu eta bost urte baino igaro ez zirenean, errota hartan bi familia bizi ziren; alde batetik, Miguel Ormazabal eta Maria Josefa Mendia senar-emazteak eta haien bi seme-alabak; eta, beste alde batetik, Jose Joaquin Mendia eta Maria Aldanondo senar-emazteak eta haien hiru mirabeak.

Mendia anai horiek, aldi berean, Agustin Mendiaren senitarteko ziren. Azken hori, garai hartan oso pertsona ospetsua zen Beasainen eta berea zen duela gutxi zaharberritu duten "Bonetxea edo Bonaetxe" etxe "berria". Etxe hori Kale Nagusiko 19. zenbakian dago oraindik.

Arrazoi hori zela medio, hots, haien senitartekoak zirenez, Agustin Mendiak Angioko errota horretan ezkutatu zuen hainbat egunez Lizarraga Jenerala 1873an, hirugarren karlistaldia hasi zenean. Jenerala Frantziatik Gipuzkoara zetorren probintzia horretan tropa karlisten gidaritza hartzeko.

Hain zuzen, ekialdean hasten den mendixka zabal eta ahaztu horretan, Urbitxipi izeneko zonalde horretan, liskar gogor eta ankerrak jazo ziren lehen karlistaldian. Dokumentazio ugaria bezain zehatza dugu gertakari haien inguruan. Halako gerra-gatazken eraginez, lurralde zabal horietan bizi ziren biztanle urriek kontakizun makabroak eskaini zituzten. Horren adibide da, Ignacio Iparraguirrek Idiazabal herriari buruzko liburu ederrean aipatzen duena:

> *"Mi madre me llevó una vez de Idiazabal a Ormaiztegui pasando por Urbizu y altos de Celandieta. Aquí el helecho era más alto y frondoso. A mi pregunta sobre ello, me respondió que allí el general Zumalacarregui había matado muchos <belchas> liberales, y que, enterrados, ellos eran la causa de la frondosidad del helecho"*

Egile berak dioenez, itzuli eta "La Batalla de Celandieta" izenburua zuen liburu ingeles batean irakurri zuenez, Zumalacarregi Jeneralaren tropek, lurra banatzeko hesian babestuta, hilketa asko eragin zituzten Lozano Jeneralaren ejertzito isabeldarrean.

Egile hori 1849an Zumalakarregi hil arte haren laguntzaile izan zen Henningsen ofizial ingelesak idatzitako liburuaz ari da. Liburu horretan gatazkan hildakoen kopurua nahiz soldadu karlistek lurralde horretan irekitako zuloetan hildako horiei lur ematerakoan egindako aipamen makabroak erakusten dira.

Utz ditzagun urte batzuk atzerago Angio errotaren atzealdean lekutzen den Urbitxipi izeneko mendixka zabal horretan izandako gorabeherak. Eta joan gaitezen berriz ere Angio errota horretara, hartako azken biztanleak Antonio Ayestaran eta Maria Ceberio senar-emazteak eta haien bost seme-alabak izan zirela adierazteko. 1966. urtera arte bizi izan ziren bertan, Beasainera aldatu ziren arte; ondotik, urte askoan, utzita egon zen errota, nahiz eta artean haiek zaintzen zituzten hainbat animalia baserrian izan. Azkenean, 1985ean eraitsi zen.

Irin-errota txiki horrek zonalde horretan interes handia sortzen zuenez eta azpiegiturari dagokionez hari buruzko erreferentzia askorik ez dagoenez, beha dezagun zehaztasunez XX. mendeko lehen erdialdean, artean ehoketarako bi gurpil mantentzen zituen errota-industria horren "teknologia": Honatx errotaren ezaugarri teknikoak:

17 metro luze eta 2,10 metro zabal zen presa bat zuen hornigai, Salbatoreko auzoan kokatzen zena, hain justu, egun Hotela dagoen lekutik 100 metrora ibaian behera, "Irurena" lantegiaren atzean.

Eskuineko estributik, erreka ibilguan behera so, 279,5 metroko luzera zuen kanal bat abiatzen zen, zati bat harlangaitzez gaineztatua eta beste zati bat inolako gaineztatzerik gabea. Kanal hori "aldaparo" edo errotako presaraino iristen zen. Kanal horrek errepide nagusia zeharkatzen zuen 247. metroan gutxi gorabehera. Hain zuzen, 12,50 metroko luzera duen tarte hori da ibilbide osoan estalia den bakarra.

Kanalaren sekzioa 1,20 metrokoa zen ohantzean eta metro bateko altuera zuen. Desnibela 1,17 metrokoa zen soilik, presan hasi eta antepara kokatzen zen errotaren zonalderaino. Antepara hori 16,5 metro luze eta 8 metro zabal zen eta 2,075 metroko altuera zuen. 274 m^{3}ko edukiera zuen eta 5,20 metroko desnibel edo jauzia zuen anteparatik hasi eta eragingailurako kapeteraino.

Urak errekara itzultzen ziren isurbide lanak egiten zituen beste kanal batetik. Kanal hori ere inolako gaineztatzerik gabe eraiki zen eta 78 metro luze eta 0,75 metro zabal zen ohantzean.

Desnibel osoa, Salbatoreko presan hasi eta urak errekara itzultzen zituen isurbideraino 7,12 metrokoa zen. Hala, multzo hidrauliko horren batez besteko kontsumo aitortua 250 litro/segundokoa zen gutxi gorabehera.

Errotaren historia luzean izandako istripu bat bailitzan, trenbide berria eraikitzeko obra izugarrien eraginez Angioko kanal zaharraren zati bat oztopatu eta suntsitu egin zuten, hori dela eta, kanal horren amaierako zatia aldatu eta berreraiki egin behar izan zen 1863 eta 1864 bitartean. Eragindako kalteen ordainetan edo, Iparraldeko Burdinbideen Konpainiak 712 m²ko lursail bat eskaini zion Luis Gaytan de Ayalari (hura baitzen orduan errotaren jabea), trenbidea eraikitzeko obren eraginez suntsitu zen kanalean, hain justu, "eustorma, areka eta ezponda" berreraiki behar izan zen zatian.

Lursail horren mugei erreparatuz zehaztasun osoz koka daiteke hura: Iparraldera, Villafuerteseko kondearen (Ordiziako Zabala Jauregikoa), Nicolas Elizalderen eta Martin Gaytan de Ayalaren lurrak; ekialdera, kanal zaharreko ibilguaren juntura; hegoaldera, Iparraldeko Burdinbideen Konpainiaren lurrak; mendebaldera, berriz ere, kanal zaharraren ibilguaren juntura eta Villafuerteseko kondearen lurrak.



Aipatu Trenbidearen Konpainiako goi-karguek ahalorde bat eskaini zioten Martin Urrestietari, orduan Gipuzkoako Foru Aldundiko Idazkari Nagusia zenari, trenbide berria eraikitzeko obren ondorioz eragindako kalteen ordainetan. 1864eko apirilaren 7an sinatu zen dokumentu hori. Hala, ahalorde hori baliatuz, hark mugatutako lursail hori laga zuen, hots, errotako ibilgua eta errotak hartzen zuen orubea, errota-multzo zaharrean eragindako kalteen ordainetan. Lagatako lursail berria 1868ko apirilaren 7an erregistratu zen.

Aprobetxamendu hidrauliko haren balioa, etxea, errota-eraikina eta aurrez deskribatutako etxaguntzak kontuan izan gabe, 3.500 pezetakoa zen 1926ko abenduaren 20an.

Errota hornitzen zuen Eztanda errekak karramarroen bizileku paregabe izatearen fama izan zuen beti. Bertan jaiotzen zen krustazeo kopurua ikusita, XX. mendearen hastapenean Foru Aldundiak beste zonalde batzuetako zenbait errekasto birpopulatzeko ahalegina egin zuen aipatu errekatik hartutako karramarroak haietara bidaliz. Ez zuen arrakastarik ukan, izan ere, erreka horretako konposizio kimikoa lagungarri zen animalia horien oskolak garatzeko eta beste errekatxoetan ez zegoen halako baldintza kimikorik. Hori dela eta, esperimentuak porrot egin zuen. Haien ugaritasuna berresteko, "Txesta" Ayestaranek (Angio bizi izan zen azken familiako seme-alabetako bat) honakoa kontatu zigun:

> *"Aunque el molino dejó de funcionar hacia 1.960, la compuerta por la que entraba el agua desde la presa se cerró con posterioridad, pues la familia continuó utilizando el agua de la antepara y del canal para el regadío de las huertas y plantaciones. Pasado algún tiempo la antepara se fue rellenando poco a poco de tierra, debido al abandono del complejo, y como contrapartida, según se iba reduciendo el volumen de agua, el número de cangrejos en la citada represa del molino aumentaba y aumentaba…".*

Angion bi harri erabiltzen ziren normalean ehotzea egiteko. Horietako bat garia ehotzeko erabiltzen zen eta bestea artoa ehotzeko. 1954. urtea izan zen Ayestaran familiak bere lurretan garia erein zuen azken urtea. Errota horretan, Euskal Herriko beste hainbatetan bezalaxe, ehotze-lanak ez ziren dirutan kobratzen, izan ere, bezeroek ehotzera eramaten zuten jeneroaren zati batekin ordaintzea zen ohitura, hots, laka zen kobrantza modura jasotzen zena.

Dagoeneko ikusiko ez dugun zerbaiti buruzko azken lekukotza modura, 1862ko 4. planoa dugu ikusgai. Bertan errotaren eta hartara atxikitakoen oinplanoko ikuspegia dugu eta, era berean, jarraian deskribatuko ditugun beste hainbat xehetasun ikus daitezke.

Errotaren marrazkian Luis Gaytan de Ayala izena agertzen da idatzita, orduan Bergaran bizi zen gizon hura baitzen hartako jabea urte haietan; azpian Jose Joaquin Mendia izena agertzen da, hau da, lehenengoaren errentaria zen beasaindarraren izena. Goiko aldean Ormaiztegira doan autoen errepide berriaren



ibilbidea agertzen da. Hartan ere 200 metroko desbideratzea egin behar izan zuten zonalde horri zegokion trenbidearen ibilbidea eraikitzeko. Planoaren erdialdera errotaren ibilgua ikus daiteke eta, ere berean, hartako presak zuen forma berezia marrazten da. Azpiko aldean, bi zirkulu zuriz adierazita, trenbideak eta mendirantz egiten zuen bide zaharra ikus daitezke. Berriz ere trenbideak erdibitu egiten du Beasainera begira dagoen mendiaren branka banatzailea, Urbitxipi izeneko mendi zabal eta ospe urriko horretan, ekialdeko aldean, sarritan gertatzen den bezala.

Maiorazkoen eta lursail-errentamenduen kontu korapilatsua zonalde horretan kudeatzeko moduari buruzko ideia bat izan dezagun, pixka bat gorago, Itola eta Saltsamendi baserri zaharren alboan kokatuta dauden eratxikitako lurrak "industrializatu" egingo zirenez, egoki deritzogu beste plano bitxi bat behatzeari, errepide zaharraren eta Eztanda errekaren artean dauden partzelen banaketa erakusten duena.

1862an lur horiek artean Villafuerteko kondearenak ziren. Aipatu kondeak jabetza asko zituen, horien artean, Zabala eta Aranburu jauregiak, Ordizia eta Tolosan kokatuta zeudenak, hurrenez hurren. Ikus dezagun:

1d plano-zatiko zonalde zabal honetan, Salbatore-Ormaiztegi aldera doan errepidearen iparraldera, lautadan batean kokatutako bederatzi lursail itzel ikus daitezke, Eztanda erreka-ibilguaren aldamenean. Laborantza-lur horiek errepide horren ertzean daude, Gatzaga-Arlaban norabidean (historialariek "**Camino Padre de Guipúzcoa**" (Gipuzkoako Bide Nagusia) izenarekin ere ezagutzen zuten).

1d plano-zatiak ederki ikusten da oraintsu galtzada zaharrerantz egin behar izan duten desbideratzea, guk N hizkiarekin adierazi duguna. Orobat, desbideratutako errepidearen paraleloan luzatzen zen Angio errotako ubiderantz egin behar izan duten desbideratzea ere ongi ikusten da. Bi kasuetan trenbidearen ibilbidea eraiki ahal izateko egin ziren desbideratzeak. Halaber, errepidearen C ibilbide berria ere ikus daiteke planoan, kasu horretan Villafuerteko kondearen jabetzakoak ziren lursail zaharrekiko perpendikularki luzatzen delarik ia, baina trenbideko linea berriaren paraleloan.

Laborantza-lur itzel horiek errepidearen alboan lekutzen ziren, Arriaran eta Gudugarreta herrixken jurisdikzio barruan, Itola eta Saltsamendi baserrien parean, gutxi gorabehera. Gaur egun zementu-fabrikaren lur zenbait eta errepidearen alde horretan eraikitako industria-pabilioien beste zenbait leudeke bertan, ia Salbatore Hotelera iristeraino.

Zonalde hori bakartuta eta ia aldagaitz mantendu zen berrogeita hamar urte baino gehiagoan. 1919. urtera arte ez zen ia eraikuntza berririk altxatu. Orduan, "Makinetxe" zentral elektriko zaharra eraiki zen, aurrez aipatu dugunez. Denboraren joanak ia ahazturik eta bakarturik utzitako landa-eremu hori izango litzateke, hain zuzen, bidaiari eta erromes urrikalgarriek

leku horretatik igarotzean ikusiko zutena, gure eskualdean puskaz puska trenbidea eraiki zuten ehunka langileek bezalaxe.

Hori ikusirik eta, garai hartan gure herrialdeko landa-ekonomiak artean zuen funtzionatzeko moduari buruzko adibide argigarri bat denez, azalpen labur bat ematen saiatuko gara:

XIX. mendearen erdialdera, eskualdeko etxe eta lur asko, artean, Markes, Bizkonde, Conde edo Dukeen jabetzakoak ziren, izan ere, urte haietan gailentzen zen gizarte-mota aurrez aipatu ditugun antzinako garaien isla argi eta zaharkitua zen.

Landa-mundu hori antolatzeko modua azaletik ikuste aldera, zera esango dugu, soilik Ordizia, Beasain eta Lazkao hartuta noblezia-tituluak zituzten hamabost Jaun inguru zenbatu ditzakegula ia, jabetza gehienen jabe zirenak.

Kasu gehienetan elkarren artean ahaidetuta izaten ziren eta, are, zenbaitetan pertsona berdinek (ez dugu uste haiek izendatzea beharrezkoa denik) hainbat titulu eskuratzen zituzten belaunaldiz belaunaldi haien gizarte-klase bereko pertsonekin ezkontzearen ondorioz, orokorki, Etxearen garrantzia, titulu kopurua eta, horrenbestez, ondorengoen ondarea areagotzeko xedez.

Jarraian ikusiko dugun 1d plano-zatian argi eta eskematikoki ikus daiteke aristokrazia hark bere jabetza eta maiorazkoak antolatzeko zuen modua, izan ere, errentatzaile izaki, beren jabetzakoak ziren baserri eta lurrak alokatu egiten zituzten, eskuarki, trukean dirua eta espezieak jasoz. Ahal zutenean lursailak ere banatu egiten zituzten, laborantza-lurren planoan ikusten dugun eran.

Laborantza-lur horiek, ongi adierazi eta esleituta ikus ditzakegunak, Eztanda errekaren hegoaldeko ertzean kokatzen ziren. Zonalde hori ere Villafuerteko kondearen administrariak kudeatzen zuen. Aipatu kondeak, esan bezala, jabetza ugari zituen, beste batzuen artean, Zabalaren maiorazkoak Ordizian, Alzolarenak Aian, Illunberenak Mutrikun eta Aburuzarenak Tolosan.

Marrazkiaren goiko aldean, artean Errege Bide izendatzen zuten errepide zaharrean egindako aldaketaren alboan (ez dezagun ahaztu gaztelaniaz errepide "carretera" dela eta haren jatorria gure gurdia "Carro" dela eta garai hartan autoak artean animaliak bultzatuta mugitzen zirela), lursail hori bederatzi partzela ezberdinetan banatzen zela ikus dezakegu, bikain zedarritu eta banatuta planoan ikus eta irakur daitekeenez.

Errepide hori, noski, artean berria zen Gatzaga-Arlaban galtzada da, Gaztelarantz egiten duena eta, Ibero eta Carrerak eraiki zutena, beste batzuen artean, XVIII. mendearen azken laurdenean burutu zelarik.

Aurrez aurre dugun plano-dokumentuan, lehenik eta behin, bederatzi partzela horietako bakoitzaren jabea agertzen da idatzita (guztietan Villafuerteko kondea agertzen da jabedun modura); bigarrenik, jabearen izenaren azpian, lursailaren errentariaren izena agertzen da. Partzela horiek 36tik 45era bitarteko zenbakiak erabiliz daude zenbatuta eta izen hauek agertzen dira Arriaran-Salbatore eta Gudugarreta zonaldeko errentari gisa:

> *Parcela nº 36, D. José Otaño; Parcela nº 37, D. Pedro Ignacio Aramburu; Parcela nº 38, D. Esteban Mendizábal; Parcela nº 39, D. José Otaño; Parcela nº 41, D. Ignacio Otaño; Parcela nº 42, D. Pedro Ignacio Aramburu; Parcela nº 43, D. Esteban Mendizábal; Parcela nº 44, D. José Otaño; Parcela nº 45, D. Ignacio Otaño.*

1865ean (plano hori urte hartan marraztu baitzuten) inguruko baserrietan bizi ziren pertsonen izenei erreparatzen badiegu, aurrez aipatu ditugun pertsonak beste baserri batzuen artean, Iturralde, Itola, Irigoien edota Saltsamendin bizi zirela ikusiko dugu.

Azpiko aldean, ere berean, errepide zabal bat zedarritzen dela ikus daiteke. Hala, errentariek beren gurdiekin zedarritutako lursail horietan lan egitera eta eskuratutako produktuak jasotzera joan zitezkeen errepide horretatik barna. Eztanda errekaren ibar emankor horretan kokatutako lautada guztien artean, Villafuerteko kondeak errentan emandako lursailek 30.000 m²ko azalera zuten ia.

Ikus berriz ere 1d plano-zatian Ordiziako Villafuerteko konde hark errentan emandako lursail horietako bakoitzaren kokapena. Orain, plano horretako azpiko aldean paratzen ziren lurrei so eginez, Angio ubideko ibilgua eta inguruko lursail guztiak Villafranca Gaytaneko kondearen jabetzakoak zirela ikusiko dugu, hots, Arriarango Jaunaren jabetzakoak. Gizon hori, aldi berean, Aravacako markesa ere bazen, Gaytan de Ayala familiako adar batek baitzuen titulu horren eskumena.

Arriaran-Gudugarreta zonalde historiko horretan kokatutako lurrak bi Etxe garrantzitsu horietako arbasoen artean banatu zituzten. Nola eta noiz gertatu ote zen "lurren banaketa" hori?

Alde batetik, Villafuerteko kondearen arbasoak ditugu, jatorria Ordiziako San Juan auzoan kokatutako Zabale baserri zaharrean zuen Ordiziako Zabala jauregikoak, aberastasunaren zati bat urte batzuk lehenago landu zutenak Indietako kontratazio-etxearen eta Amerikako abenturaren altzoan; beste alde batetik, Lopez de Oria familia ageri zaigu Arriarango haraneko Jaun modura eta, beranduago, Gaytan de Ayala familiarekin ezkontza bidez ahaidetu ostean, Villafranca Gaytaneko kondeak agertzen dira, aurrerago 1. sektore honetan azalduko dugunez.

GUDUGARRETAN ELEKTRIZITATEA SORTUZ

Aurrez aipatu bezala, Beasaingo etxe zahar bat ez bada ere, merezi du "Makinetexe" gogoratzea garai hartan izan zuen garrantzia dela medio, besterik ez bada ere, Arriaran-Gudugarreta zonalde horretan izan zen bilakaera motela egiaztatzeko.

Herrian eraikuntza ezaguna izan zen hura, izan ere, XX. mendeko lehen erdialdera artean ibilgailu motordunik ezagutzen ez zuen errepide bakartu horretan zehar egiten ziren igandetako osteratxoen geldiunea eta itzulia emateko toki egokia izaten zen: "Goazen <Makinetxeraino>, esaten zen" (ikus 5. argazkiko eraikina, haren beheko solairuan lekutzen baitzen zentrala).

5

Gipuzkoa beti izan da probintzia garrantzitsua aprobetxamendu hidraulikoari dagokionez. Zentral hidroelektriko txikiek (agian, antzina errota eta burdinolak ezarri zirelako) tradizio luzea izan duten Euskal Herrian, nahiz eta, hasiera batean, industria-finkapen zaharrekin lotzen ziren. Gainera, beranduago, zentral elektriko txiki horiei esker, hedatu zen argindarra landa-eremu gehienetan.

XX. mendeko lehen erdialdean zehar, Beasaingo udal-barrutian soilik Bernedo eta CAF fabrikakoak ziren Oria ibaiaren ibilguak hornitzen zituen zentral hidrauliko bakarrak. Bi enpresa horiek "Basakaitz" (La Peña) eta "Ezkiaga" zonaldetan kokatutako presetatik hartzen zuten ura eta fabrika barrura eramaten zuten ubideetan barrena. Han, lantegi haietarako elektrizitatea sortzen zuten Francis sistemako turbina batzuen bidez. Bi presak 1950/1960 hamarkadaren amaieran utzi zioten antzinako funtzio hura betetzeari, duela ia 30 urte inguru eraitsi ziren arren.

6

Beasaindarrek "Makinetxe" izenez ezagutzen zuten zentral hidrauliko hori Eztanda errekaren ertzean kokatzen zen, errepidean zehar Itola eta Saltsamendi baserrietarako bide zaharra abiatzen den galtzadaren alboan (egungo zementu-fabrika baino apur bat lehenago). Zentral txiki horren gauzarik bitxiena zera da, ez zuela Eztanda ibaiko ura erabiltzen (aspaldidanik Arriarango jaunak erailtzen zuena), aitzitik, Murumendiko mendebaldeko mendigunean zehar sakabanatutako errekatxo eta iturrietako urarekin funtzionatzen zuen, gaur egun urtegiak egiten duen moduan. Orduan, ordea, ura kanalizatu egiten zen eta, azkenean, kanal hori beste ertzera eraman.

Hornigai gisa erabiltzen zituen iturburuetako batzuk zentraletik urrun samar kokatzen ziren, Arriarango egungo urtegia baino are urrunago, Motekopunta izeneko muinoaren iparraldera, Garin eta Astigarretaren baitako antzinako lurretan. Bertatik, zenbait gunetan bertako arbela klasikoa erabiliz eraikitako 4.896 metroko kanal bate bidez, Murumendiko mendialde kondairazkoaren mendebaldera zeuden errekatxo eta iturri guztiak aprobetxatzen ziren.

Hasierako puntua **Iturbeltz** izeneko lekua zen, **Iturbeltzaldea** izenez ezagutzen zen lur batean kokatzen zena, dagoeneko Astigarretako herrixka zaharraren baitako jurisdikzioan. Bide batez, esangarri da herrixka horretako parrokiaren patroi banatzailea Villafranca Gaytaneko kondea zela.

1916ko urriaren 14an Andres Telleria Echalecuk iturburu hori eta hartako zorrak bereganatu zituen Mariano Garin Larrañagaren eskutik, jarraian urratsez urrats deskribatuko dugun akueduktu konplexu, ahaztu eta bitxia eraiki asmoz. Berez, Andres Telleria Echalecuk bereganatu nahi zuena Leasain errota zaharra hornitzen zuen errekatxoa erabiltzeko eskubidea zen, urte haietan artean lanean zena Astigarretako zonaldean.

6. planoan kanal zahar eta konplexu haren ibilbide osoa ikus daiteke, jomuga "Makinetxe" zentral elek-

trikoko turbinak zituena. Ikus dezagun Murumendiko mendigunearen mendebaldean dagoen isurialde luzanga horretatik jaisten ziren isurketa-urak tantaz tanta aprobetxatzeko asmoz ingeniariek egin behar izan zuten lan fin, arretatsu eta korapilatsua.

Astigarretako herrixka horretan aipatutako lehen iturburuko urak eta **Erdierreka** errekatxoko urak nahasten ziren. Horretarako, zementuzko kanal bat eraiki zen, 0,15 x 0,20 metroko sekzioa eta 530 metroko luzera zuena.

Antzera eraikitako 340 metroko beste kanal batean barrena (kasu honetan 0,20 x 0,25 metroko sekzioa zuena) egiten zuten bidea errekatxo haietako urek, **Motxoerreka** izeneko errekatxora iritsi arte, urte haietan Astigarreta eta Beasaingo jurisdikzioak banatzen zituena.

Errekatxo hartako ura deskribatu dugun eroanbide nagusiarekin nahasten zen 45 metro luze zen beste kanal baten bidez. Azken kanal horretatik barrena igarotzen zen eroanbide nagusia errekastoaren barrena.

Segidan, dagoeneko Garinera iritsita, ur horiek 361 metroko luzera zuen tunel-galeria batetik igarotzen ziren. Tunel hura haitz bizi gainean induskatuz eraiki zen eta hartako barne-sekzioa 1,50 x 1,10 metrokoa zen, aldi berean, hein handi batean zementuz gaineztatua.

Urek 150 metro luze zen sifoi txiki batetik egiten zuten aurrera, 0,25 metroko diametroa zuen asfaltatutako altzairuz egindako hodi baten barrena. Hodi hori aldapan zegoen paratuta eta lurrez estalita. Sifoi horri zegokion ibilbidea zeharkatuta, **Tellerierreka** errekatxoko urekin nahasten zen eroanbide nagusia. Horretarako, beste kanal bat eraiki zen, 0,15 x 0,20 metroko sekzioa eta 520 metroko luzera zuena.

Bertan pilatutako ur guztiak, estalitako fabrika-kanal batetik igarotzen zirenak (3.000 metroko luzera eta 0,30 x 0,40 metroko sekzioa zuena), azkenean, **Zabalondo** errekatxora iristen ziren; puntu horretan hartako urekin eta beste errekasto eta adar txiki batzuetako urekin nahasten ziren.

Zabalondora iritsi ondoren, urek **urmael edo depositu** bateraino jarraitzen zuten bere bidea. Horretarako, 0,35 x 0,45 metroko sekzioa eta 460 metroko luzera zuena kanal bat zeharkatzen zuten. Urmael horretan amaitzen zen "Makinetxe" izeneko zentralera ailegatzeko bidea, ia bost kilometroko ibilbide luzea egin ondoren, zehaztasun osoz deskribatu dugun moduan, dokumentu horietan ikus daitezkeen grafikoak lagun.

Forma irregularra zuen urmael horretan **(115 metroko luzera, 8 metroko zabalera eta 2,50 metroko altuera zuena)**, 2.000 m^3 ur pilatu zitezkeen guztiz betez gero (2.000.000 litro). Tuparrizko lurraren gainean hormigoiz gaineztatutako depositu handi horretatik (ahaztutan amilduta Itola baserriaren gainean kokatzen dena) abiatzen zen "Makinetxe" zentraleraino iristen zen hodia, ixteko giltzaz, garbiketarako sistema mekanizatu batez eta aire-zuloz hornitzen zena.

Azken hodi horrek 0,30 metroko diametroa zuen eta asfaltatutako altzairuz egina zen. Hodia 600 metroko luzera zuen estalitako zulo batean paratzen zen, zentraleko turbinara iritsi arte, orotara 177,80 metroko jauzia gainditzen zuen. Zentralean Pelton sistema alemaniarra zuen turbina batekin (Aume-Pesebeh B. Konegn markakoa) lotzen zen, 120 HP-ko potentzia zuena eta "Makinetxe" zentraleko beheko solairuan kokatzen zena. Turbina hori marka bereko erreguladore batez hornitzen zen, zeina, aldi berean, potentzia bera zuen ASEM markako alternadore elektriko batekin lotzen zen.

XX. mendearen erdialdera, zentral txiki hori modu iraunkorrean zaintzeaz arduratzen zena Vicente Ruiz de Egino Lahidalga zen, Azparrenako (Araia) jurisdikzioan kokatzen zen "La Leze" (La Sima) auzoan jaio zena 1908an. Bere gurasoak Rufino eta Juliana ziren, Arabako lautadatik Beasainera jo zutenak lanera 1912an, beste hainbat arabarrek egin zuten moduan. Rufinok ofizioa ikasia zuen "Makinetxe" zentralean lanean hasi aurretik, izan ere, bere herrian "La Leze" izeneko zentral txikian ere aritua zen lanean.

Vicente Ruiz de Egino 1922an hasi zen aitarekin lan egiten, 14 urte besterik ez zituela. 7. argazkian eskuinean azaltzen da. Urte batzuk geroago Afrikara joan zen soldadutza egitera eta handik itzultzean Ordizian bizi zen Pilar Garcia Gazeta beasaindarrarekin ezkondu zen. "Makinetxe" zentral horretan, makinaaretoaren gainean, etxebizitza bat zegoen eta han finkatu ziren. Bertan jaio ziren beren alabak, Maria Jesus eta Maria Teresa.

Andres Telleria Echalecuk Joaquin Gaytan de Ayalari erositako lurren gainean kokatzen zen "Makinetxe" eraikina. Eraikinak 12,5 metroko luzera zuen eta 8,60 metroko zabalera, hau da, 106,64 m^2ko azalera zuen. Beheko solairuan zentraleko makina guztiak zeuden eta lehen solairuan arduradunarentzako etxebizitza. Horrez gain, ganbara ere bazuen.

Etxebizitzarako sarbidea eraikinaren atzealdean zegoen, etxearen kanpoaldetik. Kanpoalde hartan, era berean, etxeko lorategia zegoen. Halaber, makinaaretoaren barruan egurrezko eskailera txiki bat zegoen eta bertatik igoz ere sar zitekeen lehen solairuan kokatutako etxebizitzara.

Zentrala hartzen zuen lurra 260 m^2ko azalera zuen hiruki formako lursaila zen, muga hauek zituena:

Iparralde eta ekialdera, errepidea eta Itola baserriari zegokion lursail zatitu bat; hegoaldera, Salbatore-Ormaiztegirantz zihoan errepide nagusia; mendebaldera, Jose Agustin Salsamendiren lurrak.

Azken urmael hura mendialdearen beste aldean, Itola baserriaren gainean, zegoenez (eta oraindik bertan dago, nahiz eta hutsik eta sasiak hartuta egon), edukiera bertatik kontrolatzen zen eta zentralaren beheko solairuan zeuden Pelton sistemako bi turbinetarako batera (edozeinetara) bideratzen zen ura. 5. irudian etxearen beheko zonaldea ikus daiteke. Bertan egoten ziren makinak, turbinak, sorgailua eta baita energia elektrikoa sortu eta bideratzeko beharrezkoak

ziren gainerako mekanismo, armairu eta kontrolak ere. Modu horretan, handik hurbil zegoen Zelaikoa Zeramika funtzionarazi egiten zen "Ormaiztegiko Teileria" izenez ere ezagutzen zena).

Ur nahikoa izaten zen garaian (urtean ia sei hile), zentrala gau eta egunez izaten zen lanean, etenik gabe. Gainerako bospasei hiletan presan nahiz kanalizazioak hartzen zituen errekatxo ugaritan izan zen emariaren arabera egin ohi zen lan. Garai horretan elektrizitate gutxiago sortzen zen, ur nahikoa izaten zen garaian sortzen zenaren laurdena.

Energia ekoizteko zentro horretatik Zelaikoa fabrikara (Ormaiztegiko Teileria) ia bi kilometro zeuden. Distantzia horretan egurrezko zutabez sostengatutako linea elektrikoa luzatzen zen, errepidearen ertzetik.

Baina beste hainbat tokitan ere jasotzen zen zentral txiki hartan sortutako energia, besteak beste, Gudugarretan, Salbatoren, Itolan, Saltsamendin, Irigoien en edo Angion. Angio "Makinetxe" zentraletik 200 metro ingurura zegoen, Salbatorera bidean, baina errepidearen beste aldean. Kurioski, 1920an bi eraikuntzek jabe bera zuten. Andres Telleria Echalecu.

1916ko urtarrilaren 26an Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aurrean aipatu zentral hidraulikoa erabiltzeko eskaera aurkeztu zen. Espediente hori izapidetu eta azaroaren 22an, azkenik, eskaera onartu zen. 1921eko abuztuaren 13an aipatu proiektuaren arabera obrak egitea onartzeko akta sinatu zen. Dena den, ordurako, "Makinetxe" lanean zen. Andres Telleria Echalecuk gauzatutako proiektu hark obra eta inbertsio handia eragin zuen garai hartan, aurreko lerroaldeetan adierazi dugun moduan.

Kurioski, zentrala zaintzeaz arduratzen zenak ere bertako izena hartu zuen bizi osorako, izan ere, hura ere "Makinetxe" zen ezizenez. 1969an Ormaiztegin "Zelaikoa Teileria" behin-betikoz itxi zenean erretiroa hartu zuen eta Irunera joan zen bizitzera familia hartuta.

Ziur aski urri samarra iruditu bazaigu ere, lerro labur hauen bitartez zonalde horrek ia mende batez izan duen bilakaera ezagutu dugu, 1862an trenbidea eraiki zenetik XX. mendeko erdialderaino, alegia; izan ere, denbora-tarte horretan ahanzturan amildutako Arriaran-Gudugarreta zonalde horrek ez zuen aparteko aurrerabiderik izan. Paradoxikoki, neurri batean trenbideak eragin zuen zonaldean industriari zegokionez egindako inbertsio handia, izan ere, garai hartako beste merkatari askok bezala, Andres Telleria Echalecuren arbasoek ere, berrogeita hamar urte lehenago, trenbideak ematen zuen aukera ekonomikoa probestu zuten merkataritzan arrakastaz aritzeko.

Pello Jose Aranburuk "Lizardi" poetak esandako esaldi eder bat aipatu zuen egokiro, tren berriaren barruan bidaiatzen zuelarik sentitzen zuena deskribatzeko lerro labur hauek erabili zituenean:

> *"…percibía en esos momentos como viajando en ferrocarril a gran velocidad observaba un mundo campesino sin apenas movimiento"*

Hori da hain zuzen adierazi nahi genuena, baina ez genituen hitz egokiak topatzen zonalde horrek ia mende batez izandako bilakaera urria aipatzeko. Hitz gutxitan bikain azalduta dago landa-inguruneko biztanle babesgabeek jasan beharreko "geldialdi ezinbestekoa".

1960ko hamarkadan hasi ziren agertzen lehen industria-lantegiak 1d irudi-planoan ikusi dugun zonalde zabal horretan.

Lerro hauekin Beasaingo jurisdikzio zaharretik egingo dugun ibilaldi berezirako sarrera osatu dugu. Hemendik aurrera, ibilbide hori trenbideari jarraiki urratuko dugu, ezker zein eskuinetik, M. Ladame ingeniariak 1862an ikusi, marraztu eta sinatuta bezala.

Has dezagun bada bidaia, artean inauguratzeke zegoen ibilbidean barna.

EZTANDA ERREKAREN IBARRETIK ORIA IBAIKO HARANERA

Has dezagun Beasaingo barruti zaharrean barrena egingo dugun bidaia.

1864tik aurrera gure irudizko bidaiaria "eroso" eserita joango zen hemeretzigarren mendeko lurrunezko trenaren barruko egurrezko eserlekuetan. Halaber, neska baserritarrek eskualdeko feriara eramaten zi-

tuzten oilasko, oilo eta untxiak izango zituen bidelagun; Hans Christian Andersen idazleak kontatu zuenez, baserritar haiek, 1863an, neguko hiletan tren berria Ziordian gelditzen zenean (artean bukatzeke zegoen Ziordia-Altsasu-Beasain tartea), aitaren egiten zuten sutsuki "infernuko makina" hura hartzerakoan, hots, lurrunezko tren beltz hura hartzerakoan.

Era berean (garai hartan taxutzen ziren bidaia-kroniketan bitxikeria modura aipatzen zenez), zenbait erabiltzailek errespetuz eta mesfidati begiratzen zituzten makina haiek. Halakoa zen mesfidantza, ezen bidaiari aberats batzuek "ogerleko bat" ematen zioten treneko makinistari abiadura gehiegi har ez zezan.

1864an tarte hori inauguratu zenean, balizko bidaiari hark Angio, Muxika, Irigoien , Itola eta Saltsamendi baserriak atzean utzi eta pixka bat aurrerago, ibilbidearen ezkerrera, Gudugarretako herrixka osatzen zuten zenbait baserri zeharkatu ondoren, Ubillotz baserriaren soslaia ikusiko zuen (baserri hori 2003an eraitsi zen).

Ikusgai dugun planoan eta garai hartako zenbait dokumentu militarretan baserri hori, ziurrenera oker baten ondorioz, beti Egiluz izenarekin agertzen zen (ikus 8. argazkian Gudugarretako herrixka hori; 9. argazkian Itola baserria; 10. argazkian Saltsamendi; eta 11. irudian Eztandako ibar eder horretatik sartuz Beasain zaharrean zegoen lehen eraikuntza hura, hots, Ubillotz izeneko etxea).

Apur bat urrutirago, trenbidearen ezkerrera, bidaiari harritu hark Loinatz ermita historikoa eta Ama Birjin beraren izena zuten bi baserriak (azpikoa eta garaikoa) ikusiko zituen gora begiratuz gero, ia Txindoki mendiak (paisaiaren hondoan kokatzen zena) egiten zuen soslaiaren azpian. Baserri horien argazkiak kronika honetan ere ikusiko ditugu, aurrerago.

Trenaren eskuinera (landarediak eragotziko ez balio) Iturrazpe baserri biak ere ikusiko zituzkeen, izen bereko tunelera sartu aurretik. Eta, urte horietan, trenbidearen inguruan, errailaren ezker-eskuinera, bidaiari txundituak ez luke beste eraikuntzarik ikusiko, ez baitzegoen besterik. Bidaiariren batek esan ohi zuenez, *"Beasain paisaia bakarti eta berde bat zipriztintzen zuten baserri zurien segida etengabea baino ez zen…"*.

Jadanik Ubillotz baserria aurrez aurre zuelarik (ibilbidearen ezkerrera, Eztanda errekaren alboan), baserri hori, orduan, Eztandako ibarretik Oriako haranera sartzeko atari gisa har zitekeela esan daiteke. Gaur egun, Ibulus izenarekin ezagutzen dugu baserri hori, hizkuntza modu okerrean erabiltzeak eragindako aldaera fonetikoa dela-eta.

Erreferentzia historiko modura, Martin Mendizalek aipatzen duenez, 1500. urtean jadanik aipatzen zen Ubillotz izeneko errota bat, gutxi gorabehera Igartzako ugazabandre ahaltsuak hura eraikitzeko agindua eman zuenean. 1637an Igartzako etxearen jabetzakoa zen errota zahar hura aipatzean, artean Ubillotz izenarekin azaltzen zen dokumentuetan. Halaber, 1684an Ubillotzandi izeneko baserri bat aipatzen zuten eta 1673an Ubillotzxiki izeneko beste bat. Zein izango ote zen handia? Eta zein txikia? Zehazki non lekutzen ote ziren Ubillos errota zahar hura eta hartako kanala?

1567an, era berean, aurrez aipatu dugun Angio errotari buruzko idatzizko aipamenak agertzen dira; errota hura Ubillos izeneko errotatik 500 metrora kokatuko zen, errekan gora. Bata, Igartzako jaunarena; bestea, Arriarango jaunarena; bakoitzean bertako egoileentzat ehotzen zen nagusiki eta, berriz ere, nagusiaren patrika zen gizentzen zena. Zenbat denboraz bizi izan ote ziren elkarrekin errota horiek Eztandako ibar horretan?

Garaiko errota guztiak bezala, Ubillotz egungo Eztanda Fundizio Fabrikaren atzealdean legokeen presa zaharretik, gutxi gorabehera 250-300 metrora legoke, errekan behera, errekak leku horretan egiten duen bihurgune handian, ia fabrika zeharkatzen duena; izan ere, aurreko egileak aipatzen duenez, bertakoek "errota zarko buelta" izenarekin ezagutzen zuten leku hori.

Hori hala izanik eta, aurrez esan bezala, kontuan hartuta 1863. urtean trenbidea eraiki ahal izateko Eztanda errekan desbideratze bat egin behar izan zutela, ziur aski, antzinako errota hartako eta harako kanalaren edozein aztarna deuseztatu egingo zen, izan ere, oraindik jakinkizun dago haren kokapen zehatza.

Orain leku hori ikuskatuz, Antzizar auzoan dauden **Ibulusaldea** izeneko lurrak, Eztanda errekaren er-

tzean daudenak, duela bost mende errota bat hartzeko egokiak liratekeela pentsatzen dugu. Lur horiek erabili behar izan zituzten 1933an Antzizarretik Iurreko gasolindegiraino zihoan errepideko desbideratzea egiteko. Halaber, lur horietan eraiki behar izan zuten auzo-tunel txiki hori, errekaren ertzeko bide-zorra errespetatzen aldera; izan ere, Antzizar auzoko bizilagunek artean bide hori erabiltzen zuten errepidearen beste aldean, Eztanda Fundizioko norabidean, errekaren mendebaldeko ertza jarraituz zituzten jabetzetara joateko.

Guztiok ezagutu dugun UBILLOTZ BASERRIAK, gutxienez, hiru etxebizitza hartzen zituen XIX. mendeaz geroztik. Urte horietan honela banatzen zen etxea:

Beheko solairuan sukaldea, animalientzako ukuiluak eta gelaren bat; goiko aldean zeuden logelak eta ganbarak. XIX. mendearen erdialdeko idatzi hauetan errekaren gertutasungatik baserriak zuen egoera txarra eta hari buruzko balioespen ekonomikoa aipatzen da:

> *"…atendiendo a la antigüedad y malas condiciones del edificio y a la precaria situación que ocupa por la proximidad del río que baja de Ormaiztegi y que en sus crecidas invade la planta baja, se aprecia el mismo solo en la cantidad de 2.147 pesetas…"*

Baserri hori Igartza etxearena izan da betidanik, aldi berean, izen bereko errota desagertuaren (Ubillotz) jabe zelarik.

XIX. mendeko amaiera aldera, Fermin Zunzunegik, UBILLOTZ etxe horretako administrari modura, Beasaingo Epaitegira jo zuen, 1857tik Ubillotz baserriaren jabea Pilar de Idiaquez y Corral andre txit gorena zela adierazteko, haren aita Francisco Javier Idiaquez y Carbajalen herentziaz jaso ostean.

Garai hartan ohikoa zen jabetzari zegozkion idatzizko titulurik ez izatea. Dena den, andre hura probintziako "Lurralde Aberastasunaren Erregistroan" agertzen zen, aipatu lursailen jabedun modura, harri zegozkion kontribuzioak garaiz ordaindu ostean. Hala, 1887ko abuztuaren 12an Beasaingo Epaitegiak jabetza horien gaineko onarpen-autoa eman zuen.

XIX. mendeko azken laurdenean Ubillotz baserria haren jabetzako lurren erdian zegoen. Honela banatzen ziren aipatu lurrak: Trenbidearen eraginez Ubillotz baserriari desjabetutako lurrak aparte utzita, baserriko lehen lursailak 45.708 m²ko azalera zuen; beste lursaila are handiagoa zen, izan ere, 146.400 m²ko azalera izugarria zuen. Dokumentuen arabera, bigarrenaren barnean mendialdeko zenbait elementu zeuden, esate baterako, gaztainadiak, otadiak, ezpondak, larre-sailak, otalurrak eta belardiak.

Aurrez aipatu dugun egoera txarra zela medio etxearen balioa 2.147 pezeta eskasekoa zen. Aitzitik, urte horiexetan, goran deskribatutako lursailen balioa 23.495 pezeta eta 70 zentimokoa zen, hots, eraikuntzak halako hamaika balio zuten lursailek.

Baserria eta hartako jabetzak ere ez zeuden kargarik gabe urte horietan, izan ere, Igartzako etxeak jabetza horien gainean, Beasaingo jurisdikzioan zituen jabetza ugariekin gertatu bezala, 3.850 pezetako kapilautza baten karga zuen. Horrez gain, bi urteurren-eta eskaintza-meza zeuden jabetza horien baitan, zeintzuen artean, guztira, 3.882 pezeta eta 70 zentimo eragiten zuten.

Ikus multzoa osoa erakusten duen sektorean eta 1g plano-zatian hari buruz agertzen diren xehetasunak:

Ñ hizkiarekin Ubillotz baserria marrazten da (planoan Egiluz gisa idazten dena), errekaren eta errepidearen artean; O hizkiarekin Eztanda errekaren gainean dagoen zubia adierazten da, izen bera duena eta 20. argazkian ere ikusten dena; E hizkiarekin zonaldeko baserri garrantzitsuenak elkarlotzen dituen errepidea ikusten da; Ormaiztegi-Arlaban norabidean luzatzen den errepidea H hizkiarekin adierazten da; trenbidearen ibilbidea zirkulu zuri txiki batzuekin adierazten da, eta halaxe adieraziko da hemendik aurrera liburu honetan; Gudugarreta eta Beasain arteko muga hiru lerro zeiharrekin adierazten da, 1g planozatiko goiko aldean beren muturretatik abiatuta elkarlotzen direnak.

Azkenik, trenbidearen konpainiak ibilbidearen azpian 4 metroko zabalera duen oinezkoentzako tunel bat eraiki zuen, pertsonak eta animaliak igaro zitezen.

Modu horretan, E hizkiarekin adierazten dugun bide nagusiarekin lotura egiten zen. Horrela, bide horrek Urbitxipi mendialdera zuen bide-zortasuna errespetatzen zen. Ikus 1g plano-zatian eta 21. argazkian gezi zuri batez adierazita.

Hauek ziren urte horietan Ubillotz baserrian bizi ziren hiru familietako kideak:

Jose Ignacio Jauregi eta Margarita Amiano senar-emazteak, haien bi semeak eta hiru mirabe; Antonio Gabilondo eta Josefa Ignacia Lasa senar-emazteak eta haien lau seme-alabak; eta, azkenik, Maria Ollaquindegui, bere bi semeorde eta alaba batekin.

Eztandako ibar horretatik sartuta Beasain zaharrean lekutzen zen lehen baserri hori igarota, gure trenbideko bidaia jarraituko dugu. Gure aldirietako bidaiariak, Ubillotz igarota eta, era beran, Angioko tunela eta aipatu ditugun Gudugarretako baserriak atzean utzita, Iturrazpe izenez ezagutzen den tunel ezagunean sartu aurretik, tunelaren izen bera duten bi etxetzarrak begiztatuko zituen (planoan Iturrazpebekoa eta garaikoa izenez adierazten dira, 12. eta 13. argazkietan ere ikus daitezkeen baserri horiek).

1864. urtean hasi zen trena zonalde horretan ibiltzen. Garai horretan, gure irudizko bidaiariak Iturrazpe bekoa eta garaikoa baserri berriak ikusiko zituen, jadanik eraikita, izan ere, bi eraikin zaharrak eraitsi egin behar izan zituzten izen bereko tunel labur hori eraikitzeko, Eztandako ibarretik Oriako haranera igarotzekoa.

RENFEren Ondasun Funtsetik ateratako plano-dokumentu interesgarri bat ekar dezakegu hona, oso ongi mantenduta ez badago ere. Bertan Iturrazpe baserri zaharrak nola eraitsi ziren eta haietako lehen nola berreraiki zen adierazten da hitzez hitz. Ikus 14. plano txikian nola aipatzen diren literalki: *"**nuevo caserío Iturrazpe" eta "caseríos demolidos de Iturrazpe**"*.

Plano txiki horretan ikus daitekeenez, baserri horietako lehena mendi-mazela berean eraiki zen, baina apur bat gorago, Eztandako ibarraren barrualdean. 1e zati hori hartu eta 14. planoarekin alderatzen badugu, 1e plano-zati horretan ikusten diren eraikuntzak antzinako lekuetan kokatutako baserri zaharrak direnaz ohartuko gara, izan ere, marrazkian tunelaren erdialdean kokatzen dira. Tunel horren luzera argi adierazten da, hartako bi ahotan iraulitako bi "parentesi-ikur" marrazten baitira. Aitzitik, 14. planoan eraikita ikusten dugun baserri berria, tunelaren ahoz kanpo kokatuta dagoela ikus daiteke argi eta garbi, mendebaldera begira, Gudugarreta-Salbatore aldera; marrazki horretan, era berean, Iturrazpe baserriaren kokapen aldetiko aldaketa adierazten duten hizkiak irakur daitezke.

Beste xehetasun bitxi batzuen artean, 1e plano-zati horretan Antzizar baserria ere ikus daiteke, I hizkiarekin adierazita eta, baita Oria ibaiaren gainean altxatutako tren-zubi berria ere, Y hizkiarekin adierazita. Horiez gain, K hizkiarekin adierazita, tunelaren gainetik ezinbestean egin behar izan zuten desbideratzea ikus daiteke, guk E hizkiarekin adierazi dugun bide zaharrari jarraipena emateko egin zena. 15. argazkian ere tunelaren gainetik (E2 ikurra erabiliz adierazten duguna) egindako "desbideratze" hori adierazten dugu, gezi horizontal zuri txiki bat baliatuz.

Halaber, 15. argazki horretan lotura, bigarren mailako bidexka, bidegurutze eta saihesbidez osatzen den anabasa adierazi dugu. Haien helburu eta ibilbideak urratsez urrats eta xehetasunez azalduko ditugu jarraian.

Bi tunelak, hala Beasaingoa nola Gudugarretakoa, teknika bera erabiliz eraiki ziren: Lehenik eta behin, Urbi txipi mendi-mazela sakon "ebaki" zen, gero tunela aire zabalean eraiki zen eta, azkenik, hutsuneak "doitu eta bete" egin ziren lur-erauzketa egitean ateratako lurra erabiliz.

Iturrazpe etxe-txalet berria kokatzen den beheko zonalde horretan oraindik ikus daitekeenez, tunel hori lurrez estali zutenean, aldapa horrek hasiera batean zuen pikoa ez zen mantendu, tunela bete besterik ez zuten egin; hori dela eta, zonalde batean aldapa txikiagoa antzematen da mendi-mazelako gainerako zonaldetan baino. Lurra nahikoa solte zegoenean ohikoa zen teknika hori baliatzea, izan ere, garai hartako beste hainbat tunel ere modu berean egin ziren. Horien artean, askoz ere berriagoa den bat, hots, XX. mendearen hasieran Donostian egindako Ondarretako tunela. Azken haren gaineko irudi zaharrak oraindik baditugu gure artxiboetan.

Dokumentu askotan hala irakurri arren, Muxikako baserriko Jose Maria Iraolak ere hala berretsi zigun, izan ere, guk akuilatu gabe aipatu zigun tunela eraikitzeko moduari buruzko pasartea *"aitari entzuna ziola, zeinak, aldi berean, aitonari entzuna zion; hark, ziur aski, eraikuntza bertatik bertara ikusi zuen baten batek kontatuta baitzekien"*.

Eta, eskuarki, memoria kolektiboa nahikoa ahula eta ahanzkorra bada ere, kasu honetan salbuespen baten aurrean gaudela aitortu behar dugu, izan ere, Muxika baserriko gizon hark Gudugarretako herrixkako udaletxe modura ere baliatzen zen eraikin zahar eta apal haren kokapen zehatzari buruzko erreferentzia gordetzen zuen artean. Dena den, kokapena haren berri aitak ere emana zion ahoz.

1c plano-zatian, D hizkiarekin adierazita, antzinako kokapena ikus daiteke, Usurbeko atzealdeko zonaldetik jaisten den errekatxoak (plano horretan C hizkiarekin adierazten duguna) ibilbidea amaitzen duen lekutik 100 metro ingurura. Orobat, 16. argazkian antzinako kokapena adierazten dugu gezi bertikal zuri batekin. Argazki horretan, erreferentzia modura, Saltsamendi baserria lekutzen dugu, ezker aldean. Esan beharrik ez dago Jose Maria Iraolak udaletxe haren antzinako kokapenari buruz esandakoak 1 zenbakidun eta 1c zenbakidun planoetan ere egiazta daitezkeela. Guk, ibilbidean zehar paratutako kilometroharrien bidez ebatzi dugu hori.

Eta, gure irudizko bidaiaria berriz hartzen badugu, ikusiko dugu RENFEk bere terminologia teknikoan 24 zenbakiarekin markatutako Iturrazpe tuneletik irten ostean, Oriako haran itzela izango lukeela aurrez aurre, betiere, goialdean Txindoki edo Larrunarri zaindari modura agertzen zelarik.

Aurrez Ubillotz Eztanda ibarretik sartuta Oriako haraneko ataurrea dela esan dugunez, Antzizar atari nagusitzat hartu beharko dugu. Antzizar aipagai dugula, bada argitu beharreko kontu bat, izan ere, beti pentsatu izan dugu, gauza hauekiko interesa duen jende gehienak bezalaxe, antzina Antzizarrandi eta txiki izenez ezagutzen zirenak, Antzizar eta "Piparrenea" izeneko benta zirela. 1851n, Etxegarate-Altsasurako norabidean, inauguratutako errepide-adar berriaren eskuinera kokatuta bata eta ezkerrera bestea. Oker geunden ordea.

Izan ere, zenbait dokumentu zaharretan Antzizartxiki izenarekin izendatzen zena Antzizar multzoaren barruan lekututako eraikin zahar bat zen, guk ezagutu ez duguna. Artxibo horretan bertan, ikusi genuen, beranduago, "Piparrenea edo Gasparrenea" izeneko benta nola eta noiz sortu zen. 1862. urteko 1. sektoreko plano orokorrean eta 1f plano-zatian ere ez da "Piparrenea, edo Gasparrenea" marrazten, hamarkada bat lehenago Etxegarate-Altsasurako norabidean eraikitako errepide berriaren ertzean. Haren ondorengo kokapena T hizkiarekin, gezi zuri batekin eta zirkulu marroi txiki batekin adierazi dugu 1f plano-zatian. 1867ko udal-erroldan ere ez da "Antzizartxiki" agertzen. Leku horretan Antzizar etxea besterik ez da aipatzen, hartako hiru etxebizitzekin.

1864. urtetik aurrera kokatu zen leku horretan beste eraiki txiki bat. Kasu honetan, trenbidearen alboan kokatzen zen etxetxoa izango litzateke, hesi-zainaren eta bere familiaren bizilekua, alegia. 1f plano-zatian banderatxo batekin markatutako trenbide-pasabide berrian (guk Z hizkiarekin adierazten duguna) dagoena. 17. argazkian (1960/1970 hamarkaden amaierakoa), eskuinera, mende bat igaro ostean han zegoen etxetxoa adierazi dugu gezi bertikal zuri txiki batekin.

1f plano-zatian 1985. urtera arte guztiok ezagutu dugun "Piparrenea" bentaren ondorengo kokapena adierazi dugu T hizkiarekin, gezi horizontal zuri batekin eta zirkulu marroi batekin. Ikus ditzagun, halaber, 1f plano-zati horretako beste zenbait kontu interesgarri: P hizkiarekin "Segurako bide zaharraren" ibilbidea adierazten da; S hizkiarekin adierazten da erdi aroko bide horren gainean bertakoek zituzten igarotze-eskubideak mantentze aldera aurreko bidean egin behar izan zuten desbideratzea; Q hizkiak Oria ibaiaren ibilgua adierazten du soilik eta gezi bertikal zuriak, beranduago, "Kaminpea" lursailari dagozkion mugak deskribatzean, erreten modura identifikatzen zutena. Hain zuzen, aipatu lursailaren iparraldera finkatu zuten azkenik "Piparrenea" etxea.

Erreten izendatzen zuten hori Oria ibaiaren adar itsu txiki bat besterik ez zen, ziurrenera, 1848-1851 bitartean eraiki zen hiru begiko zubi berriaren eragi-





nez sortzen zena (zonalde horretan oraindik ibaiak bihurritzeko joera du), Kaminpea lursailari dagozkion mugak deskribatzean aurrerago ikusiko dugunez; N hizkiarekin adierazitako xirripa Basozabaleko zonaldearen iparraldeko mendi-mazelatik jaisten den errekatxoa da, gaur egun dagoeneko kanalizatuta dagoena.

Jarrai dezagun "Piparrenea" etxetzarra ezagutzen. XX. mendeko lehen erdialdean Antzizarreko Benta (Piparrenea) izenez izendatzen zutena ezin da, inolaz ere, 1862. urteko planoan marraztuta agertu, izan ere, eraikitzeke zegoen, beranduago altxa baitzen.

Antzina Antzizar txiki bat aipatzen bazen "**beti**" zonalde horretako benta gisa, hori ez zen guztiok "Piparrenea edo Gasparrenea" izenez ezagutu duguna, izan ere, benta zahar hura desagertu egin zen eta ez dakigu nola eta noiz. Geroago, beste askotan gertatu izan denez, hemen ere beste benta berri bat eraiki zen errepide berriaren ertzean; aurrez aipatu dugun errepide berriaz ari gara, 1851n inauguratu zena. Bada, "Piparrenea" Antzizarren hasi eta Altsasuraino iristen zen bide garrantzitsu hura eraiki ondoren altxa zen.

Desbideratze moderno haren bidez nabarmen laburtzen zen Arabako lautadarako bidea eta Nafarroako Arkurutzetan (beranduago Altsasun "Irubide" izenarekin ezagutu zena) Iruña eta Gasteiz hiriak batzen zituen errepide nagusiarekin bat egiten zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bileretan suharki eztabaidatu zen hainbat urtez desbideratze haren inguruan. Dena den, azkenean, probintzia hori estatuarekin lotzen zuen bide nagusia zena osatu eta modernizatzen zen haren bidez.

Gaztelarako pasabidea dagoeneko ez zen San Adrian, Etxegarate baizik. Hala ere, Aizkorriko hegoekialdea berriz ere garraiobide nagusien erdian ageri zen. Gatzaga-Arlaban aldetik aurrez egindako desbideratzea soilik berrehun urte baino zertxobait gehiagoz nagusitu zen.

Beste kontu bat da, gerora, Zegama, Segura eta Idiazabal herrien artean izan zen lehia, Gaztelara zihoan bide nagusia haietako jurisdikzioetatik pasa zedin libratu zutena. Hori, ordea, beste kontu bat da. Izan ere, Antzizar, orduz geroztik, Gipuzkoako lurreko garraiobideen historian agertzen zen eskubide osoz, bidegurutze garrantzitsu modura.

Beste bitxikeria bat aipatzearren, esango dugu Frantziatik zetorren bidea laburtzeko premia zela-eta, Estatuak, azkenik, Altsasurako bide arras garrantzitsu hori eraikitzea erabaki zuela. Errepide berri hartako ibilbidea ejertzitoko soldatuek gauzatu zuten, kilometroko 29.333 pezetako kostu partziala izan zelarik. Beranduago, 1869ko azaroaren 27an, Sustapen Ministerioaren aginduz, Gipuzkoatik igarotzen zen tarte hori probintziaren eskuetara pasa zen.

Beste dokumentu batzuk hartzen baditugu, zonalde horri dagozkion beste zenbait bitxikeria ikus ditzakegu, izan ere, Martin Jose Ibarrolaburuk 1869ko ekainaren 3an "Kaminpea" izeneko lursaila eskuratu zuen Ramon Ibero lizentziatuari erosita eta, ondoren Jose Ignacio Aizpuru Maquibar Gudugarretako semeari saldu zion, 880 zortzerlekotan.

Hori oso interesgarria da, izan ere, lur hori "Kaminpea" izenarekin aipatzen dute argi eta garbi eta, hala ere, "Piparrenea" etxea ez dute aipatu ere egiten, eraikita egotekotan, urte haietan jabetza horren iparraldean egon beharko lukeena. Urte haietan lursail hura kontrolatzea oso garrantzitsua izango zela pentsatzen dugu, izan ere, lur horiek orduan "Probintziako Arielen Katea" zegoen lekuan kokatzen ziren. Horrela esanda ez da aparteko gauzarik iradokitzen, baina zerbait gehiago asma dezakegu zera argitzen badugu, hots, aurrez aipatu dugun Martin Jose Ibarrolaburu Galarraga merkataria (Beasaingo Bidearteandi etxeko jabea), era berean, garraiobide ugariren jabea zela eta, horrez gain, urte askoan Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdeko zenbait "ordainsari-kate" alokatzen zizkiola.

Aipatu dugun bestea Ramon Ibero lizentziatu da, Josefa Martina de Maiz (plazan zegoen Etxeberri etxeko Martina Maiz Bagazgoitiaren senitartekoa) bere emazte defuntuarekin batera, Beasaingo Zufiaurreandi eta txiki etxeen jabe izan zena, 1851ko urtarrilaren 15ean, jadanik alargun zela, Juan Jose Zunzuneguiri saldu zion arte. Zufiaurreandi etxe eder hori, urte askoan Maiz familiako aipatu beste adar horrena izan zena, XVIII. mendeko bigarren erdialdean "Casa Maiz" izenarekin agertzen zen jadanik, Iberok Gatzaga-Arlaban alderako errepide berriaren planoak marraztu zituenean.

Zufiaurreandi eta txiki, aldi berean, Ibarrolabururen jabetzakoa zen Bidearteandi etxearen alboan lekutzen ziren; biak Lazkaorantz zihoan errepide zaharraren ertzean kokatzen ziren, bidearen ezkerraldean bat eta eskuinaldean bestea, plazaren pareko bidegurutzean. Urte haietan bide hori Beasain-Senpere-Lazkao ibilbidea egiteko errepidea zen. Errepide horri buruz, Beasaingo herriguneari dagokion 4. sektorean hitz egingo dugu xehetasun gehiagoz.

1869ko azaroaren 2an (trenbidearen ibilbidea inauguratu eta bost urte eskasera) Estatuak Gipuzkoako Foru Aldundiari eman zion errepide-tarte hori dohaintzan eta aduanak Etxegaratera mugitu zituen. Horren ondorioz, 1869ko ekainaren 3an (soilik bost hile lehenago), "Kaminpea" izeneko lurrak (gutxi gorabehera Antzizarreko aduana zaharra paratzen zen lekuan zeudenak), jadanik galdua zuten, neurri batean, haien balio estrategikoa. Horrenbestez, "Katea" izenez ezagutzen den aduana hori 17 urtez baino ez zen erabili.

Aurretiazko beste aipu batzuek "Katea" Kaminpea izeneko lurretan kokatu zela berresten dute, esate baterako, 1865eko honek:

> *"…los terrenos Caminpea que hoy en día se sitúan bajo un coto se ubican en jurisdicción de Beasain…"*

Deskribapen laburra bada ere, esaldiak gauza gehiago iradokitzen ditu, izan ere, badirudi izkribuaren egileak "coto" (zedarri) aipatzean, lur hori "zedarrituta" zegoela esan nahi zuela. Hau izan daiteke "coto" (zedarri) hitzaren beste definizio bat: "lurra zedarritzeko jartzen den zedarri". Nahikoa argi dago Antzizar izeneko zonaldean zegoen Kaminpea lursailaren barruan kokatutako "Kateako" aduana zuela aipagai.

Lur horien neurriak deskribatzerakoan, horietako batek 70 ondo ereite-lur eta 9,5 ondo belardi-lur zituela aipatzen da; bestean, ordea, 32 ondoko azalera aipatzen da. Horrenbestez, hiru lursailen artean 111,5 ondoko edukiera izango zuketen.

Haietako mugak ere argiak dira, halaxe adierazten baitira:

Ekialdera, Fernando Barrenechearen lurrak; mendebaldera, Antzizar etxearen baitako onibarrak; iparraldera, errepide nagusia (Ormaiztegitik barrena Arlaban aldera doan bidea); eta, hegoaldera, erreten bat (ikus bada, 1f plano-zatian, ezkerrera, guk gezi bertikal zuri txiki batekin adierazi dugun ibaiadarra).

Garai hartan artean Piparrenea eraiki gabe zegoela berresten duen froga argiena Kaminpea lursaila inskribatzen dutenean (1871ko maiatzaren 5ean) aurkitzen dugu, izan ere, etxerik gabe erregistratu zuten, soi-

lik "lurralde solte" modura. Beranduago, azken bi zenbakiak behar bezala ikusten ez direlako data zehatza eman ezin badugu ere, Martin Andueza Kaminpea lursailen jabedun gisa agertzen da, bere aita defuntuaren herentzian jaso ostean.

Orain ziur gaude, M. Ladame ingeniariak ez zuela "Piparrenea" planoan sartu, gerora Piparrenea izenez ezagutuko zen benta hori 1862. urtean artean eraiki gabe zegoelako.

XIX. mendeko azken laurdeneko hastapenean honela deskribatzen zen "Piparrenea" etxe hori:

> *"…está construida en la heredad llamada Caminpea, en el empalme de dos carreteras, las de Idiazabal y Ormaiztegi, que se unen en el punto de Anzizar, en el Cuartel de Poniente de Beasain…"*

Nagusiki Ibero eta Carrerak marraztutako bide zahar hartako adar berri hori, jakina, "Katea" izenez ezagutzen zen lekuan paratutako hiru begiko zubiaren parera eraiki zen (ikus zubiaren zonaldea gaur egun, 17, 18a eta 18b argazkietan). Bide batez, aipagarri da hiru begiko zubi hau eta bere bikia, 2003an eraitsi zen Lazkaibarreko zubi zaharra, antzera eraiki zirela. Antzekotasun hori diseinuari, erabilitako harri-motari, egiturari eta, are, eraikuntza-urteari so ere ikus daiteke. Bigarren zubiak bi begi besterik ez zituen eta apur bat beranduago eraiki zen, zehazki esatera, 1854-1857 bitartean. Aurrerago ikusiko dugu hori, liburuko azken atalean, Lazkaibarreko zonaldeari buruzkoan.

"Piparrenea" izeneko eraikinarekin jarraituz, geroago, horrela deskribatu zuten eraiki berria zen etxetzarra: Aipatu eraikinak 170 m²ko azalera zuen bere oinean, teilapea, labea eta komuna barne; horrez gain, ataurrean beste 30 m²ko azalera baitaratzen zuen. Horrenbestez, bi azalera-eremu barneratzen zituen (ikus 19. argazkian aipatu etxetzarra, zeina, aldi berean, kiroldegi berria eta lehen igerileku estalia eraikitzeko eraitsi zen).

Hasiera batean beheko solairuak, solairu nagusiak eta ganbarak egituratzen zuten etxea, beheko solairu horretan atondoa, sukaldea, denda edo bulegoa eta jangelak lekutzen zirelarik; solairu nagusian bi bulego, harrera-gela eta beste bi gela lekutzen ziren; ganbarak forma jarraitua zuen, hartako hormak kare eta harribilez zeuden eraikiak, "haritz sendoko armaduraz, nahiz eta makalaren egurra ere izan, eta bi uretako teilatu sendoa". XIX. mendearen amaieran etxetzar horren balioa 4.680 pezetakoa zen.

Jabetza horren deskribapenean, halaber, Kaminpea izeneko partzelak 3.252 m²ko azalera zuela eta etxeaz aparte 1.430 pezetako balioa zuela irakur daiteke (urte horietan jadanik indarrean zen Sistema Metriko Hamartarra, beraz, jabetza hori metro koadrotan zenbatzen zen eta ez ondotan.).

Hauek ziren lursail horren mugak:

Iparraldera, etxea eta ataurrea nahiz errepide nagusia (izan ere, desbideratze berria eta Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban alderako galtzada zaharra hartzeko bidegurutzean kokatzen zen); hegoaldera, hasieran aipatutako teilapea; ekialdera, Fernando Barrenechearen onibarra; mendebaldera, Antzizar etxeko onibarrak.

XIX. mendeko azken laurdenean 6.110 pezetako balioa batzen zuten etxeak eta hartako etxaguntzek. Ia beti egiten zen moduan, bidegurutze berri batean eraiki zuten "Piparrenea" benta. Azkenean, 1985. urtean eraitsi zuten Antzizar kiroldegia eraikitzeko.

ANTZIZARREKO BIDE ZAHARRETAN BARRENA

Antzizar hitzaren esanahiari eutsiz, hizkuntzalariek aintzira izenarekin lotzen dute, hots, eremu lohitua, lupetza. Irudimen pixka batekin nahikoa erraza da interpretazio hori leku horrekin lotzea, batez ere, ibaiak eta errekak bat egiten duten gunean finkatzen dela ikusten badugu.

1. sektoreko plano orokorrean eta 1e plano-zatiko marrazkiari dagokion zatian arretaz erreparatzen badugu, hain justu, I hizkiaren eta Antzizar hitzaren azpian, zonalde zorrotz bat nabari daiteke, Oria Ibaiaren eta Eztanda errekaren goraldietan urak hartuko zuen lehen zonaldea izango zena zalantzatik gabe, izan ere, artean ez zen eraiki Antzizar etxea eta ingurumariak inguratzen zituen hormatxoa. Etxea ibaia eta erreka batzen diren lekuan kokatzen zenez eta haren ingurumarian ezkutuarena egingo zuen hormarik ez zegoenez, argi dago zonalde hori lohitu egingo zela goraldi handietan.

Hasiera batean, zail samarra suertatzen da 1863/1864 urteetan, hau da, trenbidea ezarri baino lehenago eta hura ezarri ondoren, zonalde horretan barrena bideak nola egituratzen ziren jakitea. Hala ere, 1. sektoreko plano orokor honekin, 1e, 1f, 1g eta 1h plano-zatiekin nahiz aurrez aipatutako 14, 15, 17, 18a eta 18b argazkiekin, 1862 eta 1864 bitartean zonalde horri zegokion funtzionamendu osoa zailtasun handirik gabe ulertzea espero dugu.

1864an lurrunezko trenean bidaiatzen zuen gure irudizko ibiltariak ez zuen beta askorik izango leku horretako bideetan erreparatzeko. Nolanahi ere, orain oinezko ibiltari bat irudikatzen badugu XIX. mendearen hasiera aldera Antzizarreko zonalde konplexu eta bakartu hori zeharkatzen (aurrerago ikusiko dugu Igartzako eremu nagusia, bi zonei buruzko baterako plano itzel baten laguntzaz), ziur paisaia hau izango zuela begien aurrean:

Bide nagusi gisa, ibiltari hark soilik errepide bat ikusiko zuen, hain zuzen, Ormaiztegikoa (Gatzaga-Arlaban aldera), hau da, Ibero eta Carrerak sortu eta modernizatu zuten galtzada. Ondoren, larre eta laborez betetako zonalde bakartu eta zabal baten barruan, ibai eta erreka horien alde batera eta bestera, errepide multzo bat baino ez zuen ikusiko; horietatik ezagunena ziurrenera "Segurako Bide Zaharra" izango zen, aldi berean, Idiazabalera urreratzeko galtzada izango zena, egun Segurara hartzeko dagoen bidegurutzea dagoen lekuraino (gaur egun biribilgunea) luzatzen dena. Han, XIX. mendearen amaieran "Geronimoenea" izenarekin ezagutzen zen Postetxea ikusiko zukeen (gerora gasolindegi izango zena).

Zonalde horretan zeuden gainerako errepideen funtzioa bertako auzo txikiak, baserriak, mendiak eta laborantza-lur ugariak elkarlotzea izango zen, jarraian ikusiko dugunez.

Hori horrela izango zen XIX. mendearen hasieran, Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban aldera zihoan errepidea amaitu ostean. Dena den, gauza jakina da, errepide horren aurretik bazela beste errepideren bat Eztanda errekaren ibilbide sigi-sagatsua jarraitzen zuena, ibarraren beheko zonaldean barna. Noski, aurrez aipatu ditugun errepideez eta Eztanda errekaren esker-eskuin kokatutako hegal hauetan zeuden errepideez aparte. Azken horiek jarraian deskribatuko ditugu.

Ziur itxura hau izango zukeela, izan ere, bide zahar askok errekaren bidea jarraitu ohi zuten ibarren sakonean; gainera, egungo errepidearen alboan oso ba-

serri zaharrak kokatu dira "betidanik", esate baterako, Ubillotz, Angio, Irigoien ("Iruin"), Iturralde, Salbatoreko Benta, etab. Hori guztiori ezin dugu irudi bidez erakutsi, izan ere, leku horri buruz ezagutzen dugun mapa zaharrena Iberok errepide berria islatzeko marraztu zuena da eta bertan ez da aparteko ezer, berak marraztutako errepide berria ez bada.

Beste bitxikeria bat aipatzearren, 16 legoa luze zen galtzada luze hark (gaur egungo 5,5 kilometro lirateke) zeharkatzen zituen lekuen izenak emango ditugu. Hasiera batean Gatzaga-Arlaban bidea zeharkatzen zuen. Datuok Jose Angel Atxon Insaustik Gipuzkoako bideei buruz osatu zuen liburutik atera ditugu. Liburu horretan, lehenik eta behin Eztanda errekatik behera eta, ondoren, Oria ibaian behera Lazkaibarrera iritsi arte, denbora askoren ostean amaitu zen galtzada berriak zeharkatuko zituen lur ezberdinak izendatzen dira. 1863/1864. urtea igarota, bide luze hark, hainbat gunetan, trenaren ibilbide berria izango zuen alboan. Ikus dezagun:

Salbatore-Arriaran zonaldean **Domingiru** izenarekin aipatzen zuten errepide berriak zeharkatuko zuen paisaia; aurrerago, dagoeneko Beasaingo jurisdikzioan sartuta, errepideak zeharkatzen zituen onibarretan lekututako etxeen izenez aipatzen da ibilbidea; horrela, lehenik eta behin, **Ibulus-Antzizar** aipatzen da, gero, **Errekaetako** (Errekarte) "**estrata", Igartuako zubia** (Igartza), **Dolare** (Dolarea), **Barrundi** (Barrendain), **Tapia** nahiz **Etxaluze** zeharkatzen zituela aipatzen da eta, azkenik, Mariaratzeko zubia aipatzen da (agian Mariaratzeko zubia da aipatu nahi dena eta ez Lazkaibarkoa, izan ere, zubi horren zati bat Beasaingo jurisdikzio barruan lekutzen zen izen bereko errekaren gainean, Oria ibaiaren gainean dagoen beste zubi handiagotik berrogeita hamar metro eskasera).

Aurrerago, dagokion atalean, ikusiko dugu zergatik aipatzen diren Tapia eta Barrendain baserri zaharrak, teorikoki, trenbidearen beste aldean kokatuta beharko luketenak, itxura batean, Autoentzako errepide zahar horretatik aparte samar.

Jakin-minak bultzatuta zonalde horri buruzko beste aipamen bat hartuko dugu, askoz ere zaharragoa, Martin Mendizabalek jasotakoa:

> *"…hacia tiempo que las dos Anzizar vivían de los transeúntes por esta ruta minera. A los dueños de la mayor se les concreta el capero aunque cosieran mucha más sacos. La menor siempre fue Venta, adquirida por la Señora de Igartza antes de 1.495. Siempre aparece alquilada, con o sin tierras, a basteros, pellejeros, zapateros… El propósito comercial de Dª María al instalar el molino a solo 100 metros (el de Ubillos) es demostrativo de la vitalidad del paso. Anzizar fue pues durante siglos parada y fonda de los arrieros y trajineros, bien abastecida de piensos y repuestos para bípedos y cuadrúpedos…"*

Egoki laburtuta dagoen lerroalde horrekin egileak igarotze-zonalde hori oso ongi zehazten duela uste dugu, eta baita Antzizarrandi eta txiki eraikinak hartzen zituen kokapen zahar horrek merkataritzari zegokionez betetzen zuen funtzioa ere.

1862an zuen itxura islatu nahirik deskribatzen ari garen leku hori aipatuta, oinezko gure ibiltariak ikuspegi hau izango zukeen errekaren zein ibaiaren gainean zeuden harrizko zubi iraunkorrekin: Ibaian behera, 200 metro ingurura, erdi aroan Oria ibaiaren gainean altxatutako Igartzako zubia legoke; Ubillotz baserriaren parean, gaur egun bezalaxe, Eztanda errekaren gainean eraikitako Ibulus zubi sendoa legoke, 20. argazkian ikusten duguna. Arku bakarra zuen eta, orain bezalaxe, 8,75 metroko arku-argia izango litzateke. Horrez gain, 2,60 metro zabal izango zen. Honatx zer dioten aditu batzuk zubi horri buruz: *"zubi handiegia dirudi leku horretan kokatuta dagoen Ibulus errota zaharrera sartzeko baino ez izateko".*

Apur bat urrunago, Gudugarretako bentaren alboan (lehen Eztanda errekaren eta errepidearen artean zegoena), 1a plano-zatian gezi zuri batez adierazi dugun moduan, beste zubi bat paratuko litzateke, hau ere harrizkoa, Iberok eraikia Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban norabiderantz egiten duen errepide berriaren gainean (zubi berria egungo Makinetxe industrialdearen parean egongo litzateke, errekak eta galtzadak bat egiten duten gunean, zeina 1a irudi-plano horretan gezi zuri bertikal batekin adierazten dugun).

Antzina, gutxi gorabehera zonalde horretan, Iberok marraztutako ibilbidearen aurretik, beste zubi zahar bat legoke (ez dakigu harrizkoa ala egurrezkoa izango zen), idatzietan "Lamiategi" izen iradokitzailearekin agertzen dena; azkenik, dagoeneko Salbatoren, Arriaran alderantz zeharkatzen zen zubi zaharra legoke, egun oraindik zutik dagoena, ahanzturan amilduta eta landarediak hartuta badago ere. Zubi zahar hori zen, antzina, Salbatoretik Arriaran, Garin eta Astigarreta zeharkatu ostean, Matxinbentatik barrena kostalderantz abiatzeko bide bakarra, baina ez egun Mandubia zeharkatzen duen errepidetik (hura 1851-1854 bitartean amaitu baitzen), baizik eta ibarraren sakonera sartu eta Arriaran, Garin eta Astigarreta zeharkatuz, Mandubiko Benta dagoen lekura iritsi arte. Ibilbide ezagun hori garai hartako bidaiari, mandazain eta garraiolariek "kostalderako infernuko bide" gisa ezagutzen zuten neguko hiletan.

Zergatik egin dugu atzera lekuari buruzko deskribapen honetan? Errekaren beste aldean, Eztandaren mendebaldeko ertzean kokatuta zeuden baserri horiek guztiek Antzizarreko zonaldean zuten kokapena islatu nahi dugulako.

Baliteke, antzina, erreka zein ibaiko ibiren batean egurrezko zubi ezegonkor batzuk egotea, esate baterako, Antzizarrekoa, duela ia mende bat zementuzko batekin ordezkatu zena, 18a, 18b eta 22 argazkietan ikus daitekeen moduan. Nolanahi ere, ez dugu halako ezagutzarik eta haien erreferentziarik ere ez dugu aurkitu, eta 1. sektoreko plano orokorrean ez da halakorik agertzen, ezta Iberok Gatzagara aldera zihoan errepidea eraikitzeko marraztu zuen marrazki zaha-

rrean ere. Guk 1 zenbakidun plano horretan E hizkiarekin adierazi dugun bide zaharra besterik ez da marraztuta agertzen, Ermitara eta Loinatz baserri bietara doana, Antzizar parean erreka zeharkatuz.

Guk gogoeta modura zera esan nahi dugu, Iberok XVIII. mendeko bigarren erdialdean gerora "Makinetxe" izenarekin ezagutuko zen zonaldean kare eta harribilezko zubi bat eraiki bazuen, urte horietan Eztanda errekako mendebaldeko ertzean kokatutako (Urbitxipi mendiko mazela aldapatsurantz) baserrietako biztanleek, ziur aski, Eztanda errekak gainezka egiten zuenean Ibulus izeneko zubi hori baino ez zutela izango harrizko igarobide iraunkor modura, baldin eta ez bazuten atzera egiten Salbatoreko zubi zaharreraino. Igartzako zubira ere ezingo ziren urreratu, izan ere, Idiazabaldik zetorren Oria ibaiak hesi naturala egingo luke eta igarobidea oztopatuko luke, baldin eta ez bazuten beste tarte handi batez ibai horretan atzera egiten.

Ubillotz errota zaharrera sartzeko "zubi handiegia" zela zioten egileei dagokienez, baliteke berrespen horren atzean harrizko zubi sendo bat gordetzea, Eztanda errekaren zonaldean legokeena, izan ere, hala ez balitz, orduan Urbitxipi mendiaren mazelan eta beheko aldean kokatutako zazpi baserriak bakartuta eta isolatuta geratuko lirateke goraldi handiak izaten zirenean.

Baina utz ditzagun antzinako kontuak eta ikus dezagun zer-nolako paisaia izango zuten bidaiari, itzain eta garraiolariek trenbide berria egiteko marrazkia egin zen garaian. Orain bai, 1862ko plano horretan agertzen den bidexken nahasmena uler dezakegu. Has gaitezen, bada, Eztanda errekako hegoaldeko ertzean kokatutako errepideekin, Urbitxipi mendiaren mazelarantz egiten zutenak, non, ia tontorrera iritsita, oraindik Pagadizabal eta Errezkarate (hau erortzear) baserriak ageri diren, Beasaingo jurisdikzioan beraz. Zonalde horretako errepide garrantzitsuena guk E hizkiarekin adierazi duguna da. Bide hark, besteak beste, Antzizar, Iturrizpeazpikoa eta garaikoa, Muxika, Irigoien eta Angio baserriak eta Ama Birjinaren ermitako aldean zeuden Loinatz bi baserriak elkarlotzen zituen eta, ondoren, aurrera egiten zuen Gudugarretako herrixka inguratuz.

Garai hartan Eztanda erreka ibitik igaroz egin zitekeen bide hori edo, lehen esan dugun moduan, erreka Antzizar parean kokatutako egurrezko zubi ezegonkorren batetik zeharkatuz (egungo ibilbide bera egingo luke, 1. sektoreko plano orokorrean eta 1e plano-zatian adierazten diren bide zaharrek dituzten norabideen arabera). Ziurrenera, bigarren aukera da baliatuko zutena.

Hirigoien eta Angio atzean utzi ondoren, 1. zenbakian E hizkiarekin adierazten den bidea (15. argazkian E1 modura adierazten dena), aurrerago, Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban aldera egiten zuen bidearekin topatzen zen Salbatoren, Iturralde aundi baserriaren parean. Lotura hori egun trenbidearen azpitik dagoen pasabidearen parean egiten zen, ia Irurena lantegien parean. Pasabide hori, hain zuzen, tokiko bidezorra errespetatzeko eraiki zen. Bide horretatik, trenaren ibilbidea gauzatzeko eraitsi zen Iturralde zaharra igaro eta 50 metro eskasera eraikitako baserri berrira irits zitekeen.

Aipatu bidearen kontrako aldean, dagoeneko Loinazko Ama Birjinaren ermitan kokatuta, bidexka horretako zati batek Gudugarretatik jarraitzen zuen ia hura inguratuz, Salbatore-Arriaran zonaldera iritsi arte. 1862ko planoaren egileak 1. sektoreko plano orokorrean ez du bide horrek Loinazko ermitatik Gudugarretara egiten zuen tartea marraztu (agian trenbideari buruzko lanetik kanpo geratzen zelako). Iberok, ordea, mende bat lehenago islatu zuen bide hori, Loi-



nazko ermitako mazela horretan barrena, Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban aldera egiteko proiektatutako errepidera iristen zena.

Irigoien baserriaren paretik igaroz marraztu zuen bide hori eta, gaur egun, hortik igarotzen da gutxi gorabehera, zonalde horretan kokatutako etxetxo berrira ailegatu baino pixka bat lehenago, zeina oraindik "Makinetxe" izenarekin ezagutzen den (ikus 1m plano-zati handitua, argi ikusten baita planoaren egileak ez zuela bide horren segida marraztu).

E1 bide hori, 15. argazkian Ibulus zubirantz ikusten duguna, orain bide asfaltatua da eta Muxika baserrira bideratzen da, berriz ere, Ormaiztegirantz egiten duen errepidera iritsi arte, zementu-fabrika berriaren parean. Dena den, Ibulus parean, trenbidearen azpiko oinezko pasabidearen ezkerrean ezkutatua dago egun. Pasabide hori antzina Iturrazpegaraikoa eta azpikoa baserrietara iristeko ere erabiltzen zen (ikus berriro 21. argazkian, errepidearen azpiko tunel hori).

1. planoan eta 1e plano-zatian ikus daitekeenez, Iturrazpe baserri horietatik bidea Antzizarreraino jaisten zen (edo handik igotzen zen baserri horietara). Handik Loinazko ermitaraino jarraitzen zuen bideak "estrata" delakoan barrena. Estrata hori, zati batean, asfaltatutako galtzada bilakatu dela ikus daiteke Angel Garmendia eta bere familia bizi ziren txaleterantz egiten zuelarik. Aipatu familiaren arbasoak, Iturrazpe azpikoa baserriko egoile eta, beranduago, jabeak izan ziren, 1997an Ormaiztegi-Zumarraga norabidean autobia berria eraiki zen arte.

E1 bidearen egungo tarte hori, oraindik Antzizar etxearen alboan ikus daitekeena (ikus 18a argazkian bi gezi zuriz hartatik gelditzen dena), E1 "estrata" zahar haren abiapuntua (edo segida) da, ermitara eta Loinatz baserrietara egiten zuena. E1 bide hori ere, erditik moztu zuen XVIII. mendearen amaieran Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban aldera egiten zuen bide berriak.

Dagoeneko mentalki badakigu nolakoa zen urte haietan leku hori eta neurri batean eman dugu haren deskribapena. Horrenbestez, Loinazko Ferietara bertaratzen ziren pertsona guztiak irudikatu behar ditugu orain, XVIII. mendearen hastapenean aipatu bidetik joan-etorrian ibiltzen zirenak, oinez edo haien zaldi eta gurdiekin. Hori guztiori Feria lekuz aldatu baino lehen, izan ere, eliza aginpideak "gomendatuta" eta agintari zibilek aginduta, Beasaingo herrigunera mugitu zen aipatu feria. Ez dugu ahantzi behar, orduan, Loinazko Feria ospetsuenetako bat zela, Santa Luzia, Iturrioz eta Elosuakoarekin batera.

XX. mendearen erdialdera ateratako 15. argazkian Iturrazpe azpikoa eta garaikoa baserri biak ikus daitezke, ia argazkiaren erdian, E1 hizkien artean. Aitor Garmendiak aipatu zidanez, "Loinazko ermitako estrata" izenez ezagutzen zen bide estu hartako hormetatik, bere amonak, Gudugarretako Josefa Goitia Osinaldek, oreganoa biltzen zuen eta bere eskuz egindako odolki ospetsuak gozatzeko erabiltzen zuen, ondoren azoka ezberdinetan saltzeko. Ikus 29. argazkian ezkerretik eskuinera Alejandro Garmendia, Josefa Antonia Goitia Osinalde, Rafaela Goitia eta Liborio Goitia, haien odolki-postu entzutetsuan.

Aitor Garmendiaren aitona-amonek ere etxe bat eraiki zuten XX. mendeko lehen laurdenean Antzizar etxetzarraren parean, gutxi gorabehera, zirkulu gorriaren azpian; gaur egun, 31. argazkian bi galtzaden artean kokatuta ikusten den eraikina (1975ean eraiki zena) dagoen lekuan. Eraikin zaharra Antzizar berri izenekoa da, "Casa de Anselmo" (Antselmoren Etxea) izenarekin ere ezagutzen zena. Han bizi izan zen bere familia 1950/1960 bitarteko hamarkadaren erdialdera arte.

15. argazkian ere ikus daiteke aipatu etxea, argazkiaren erdialdera, azpialdean, leku horretako "irla bailitzan", izan ere, metro gutxira Arbitrioetako Etxe zaharra zegoen. Aurrerago ardura gehiagoz ikusi eta azalduko dugu hori, XX. mendeko erdialdera arte Antzizar etxeak eta hartako etxaguntzek izan duten bilakaerari buruzko deskribapena egitean.

31. argazkian agertzen den zirkulu gorriak, Arbitrioetako eraiki zaharraren kokapena adierazten du,



gutxi gorabehera. 15a. argazkian etxe horiek ikus daitezke Luis Mendizabal eta Jose Mendia txirrindularien atzean, eskuinera. Luis Mendizabal ezkerrera dagoen txirrindularia da, Ubillotz baserrian amaren aldetiko senitartekoak zituena; Jose Mendia da bigarren txirrindularia, eskuinera dagoena eta, beranduago, Beasaingo Erdikoetxearen jabedun izan zena, hots, gaur egun Kale Nagusiko 17. zenbakian dagoen eraikinarena. Pixka bat atzerago, ezkerraldean, Piparrenea benta zaharra ikus daiteke, Altsasura zihoan errepide zaharraren alboan. Zoritxarrez ezin izan ditugu argazki horretan agertzen diren beste bi txirrindulariak identifikatu.

1. sektoreko planoan eta 1e plano-zatian K hizkiarekin adierazi dugun Antzizarreko ibi horretan (edo, ziurrenera, egoera txarrean zegoen egurreko zubian) ikusten dugunez, Iurrera bidean erreka zeharkatu ondoren, aipatu bideak adar bikoitza jarraitzen zuen. Horietako batek aurrez E hizkiarekin adierazi dugun bidetik jarraitzen zuen, Iturrazpe aldera, 15. argazkian E1 hizkiarekin adierazi dugun moduan. Beste adarra, Oria ibaiaren gainean eraikitako tren-zubia alboan zuela, orduan ibaiaren ertzean zehar aurrera eginez, garraioetako bide izenez ezagutzen zen M1 ibilbidetik (Zerain eta Mutiloko meatzetara eta inguruko mendietara joateko bide zaharretako bat) urruntzen zen gero, 15. argazkian ikus daitekeenez.

M1 errepide horretatik abiatuta Errezkarate eta Pagadizabal baserrietara ere irits zitekeen hainbat bidexka hartu ostean. 22. eta 23. argazkietan errepide horiek egiten zuten ibilbidea ikus daiteke eta, era berean, haietakoren batean antzinako trazuak nabari daitezke.

15. Argazki orokorrean ere M1 bide hori adierazi dugu, oraindik Iurreko zonaldearekin identifika daitekeena argi eta garbi, 24. argazkian ikus daitekeen bezala. Bere garaian M1 errepide hori moztu egin zuten, hain zuzen, 1933. urtean Antzizar-Iurre desbideratzea egin zenean, Iturrazpeko tunel arriskutsu hori gainetik gainditzeko xedez. Errepide hori, beraz, urte hartan aldatu zen Etxegaraterantz, izan ere, "Kateako" trenbide-pasabidea zeharkatzean maiz gertatzen ziren istripu eta sustoak, ezkutuan zegoen tunelaren irteeratik 100 metro eskasera baitzegoen.

Trenbidea eta Ormaiztegi-Arlaban aldera egiten zuen errepide berria eraiki aurretik, erraz irudika ditzakegu bide horiek guztiak, haien jomugetara luzatzen zirenak tartean trenbide edo bestelako biderik topatu gabe. Era egokian Antzizar izendatutako puntu estrategiko honetan elkartzen ziren arte, Oria ibaiak eta Eztanda errekak osatzen zuten hesi naturala zen bide horiek topatzen zuten oztopo bakarra.

1e plano-zatian E bidean Iturrazpe aldera egindako nahitaezko desbideratzea ikus daiteke, trenak zeharkatzen zuen tuneleko ahoaren gainean egin behar izan zutena. Halaber, 15. argazkian, ikusmena pixka bat behartu behar den arren, 1862an bide horretara egindako desbideratzea ikus daiteke. Gezi horizontal zuri txiki batekin eta E2 hizkiarekin adierazi dugu aipatu desbideratzea, izan ere, gezi horren gainean, ia

E2 hizkia ukituz, tuneleko ahoa ere ikus daiteke. Eta oraindik jende askok ezagutzen ez duenez, 25. argazki hau ere ekarri dugu. Bertan, egungo errepidearen azpian dagoen tunel horretako ahoa ikusten da, San Cristobal garajearen parean.

Iturrazpe baserrietatik abiatuz, mendi-mazelaren erdialdera dagoen bide horretatik, hots, argazkian E4 hizkiarekin adierazten dugun bide horretatik (oraindik erabil daiteke bide hori ongi zainduta baitago), Urbizuko goiko zonaldera, eta Pagadizabal eta Errezkarate baserrietara ere irits zitekeen.

Bitxikeria modura, era berean, aipagarria da ibaiak eta errekak bat egiten duten lekuan dagoen urmael handia, 26. argazkian ikus daitekeena; halaber, 1e plano-zatian ere suma dezakegu hura, Y hizkiaren gainean, Antzizar baserriaren azpian, hain justu; izan ere, urte haietan artean eraikitzeke zegoen Antzizar bi ibilgu haietatik babesten duen horma. Orduan hegoaldeko ertza biluzik zegoen eta ibaiak eta errekak bat egiten zuten lekuan putzu handiak sortzen ziren. Hala, egun ia laurogei urte izango dituzten adineko pertsona batzuk leku paregabe horretan hartzen zuten bainua (horien artean, Arizmendi baserriko Paulino Aranburuk). Hori dela eta, "La Playa" (Hondartza) izendatu zuten.

15. argazkian E3 hizkiarekin adierazten dugun bidea, 1933an tren-zubiaren gainetik egin zuten desbideratzea da. 1. sektoreko plano orokorrean eta 1h plano-zatian L hizkiarekin adierazten den errepidea, plano horietan ikus daitekeenez, Altsasura egiten zuen errepide berria da, 1848-1851 bitartean eraiki zutena eta Antzizar parean abiatzen zena. 15. argazki horretan eta 17, 18a, 18b eta 27 argazkietan L1 hizkiarekin adierazi dugu. Planoetan agertzen den Z hizkiak zonalde horretan ia mende oso batez funtzionatu zuen trenbide-pasabide zaharra adierazten du.

1. planoan eta 1h plano-zatian P hizkiarekin adierazten den errepidea Segurara egiten zuen erdi aroko galtzada da, hau da, betidanik "Segurarako Bide Zaharra" izendatu izan den bidexka. Aurrerago, hurrengo sektorean, Igartzari buruzkoan, XX. mendearen erdialdera bide hartaz geratzen zena ikusiko dugu argazki zahar batean. Halaber, 17, 18b eta 27 argazkietan P1 hizkiarekin adierazten da Iurre-Idiazabal-Segura ibilbide horretan erdi aroko bide hark egiten zuen bidea, abiapuntutik hasita, hots, Igartzako burdinola eta errotako kanalaren gaineko zubitxoa igaro ostean hasita.

ANTZIZARREKO BIDEEN BILAKAERA

XIX. mendearen erdialdera aurrez aipatu dugun oinezko bidaiari hark artean oso "bakartuta" ikusiko zuen Antzizar baserria, ibaiaren eta errekaren artean kokatuta, erabat isolatuta eta lau aldeetara etxeari zegozkion lurrez inguratuta. Lursail horietatik gertuen zeudenak, egun etxearen ekialde eta hegoaldera dauden lurrak kokatzen diren lekuan leudeke, gutxi gorabehera. Horrenbestez, Antzizar isolatuta eta bakartuta egongo zen, "Beasaingo zonalde urrun" horretan kokatutako gainerako baserriak urte haietan zeuden bezalaxe.

Aurrez esan dugun moduan, 1862an, baserri zahar horrek beheko solairua eta lehen solairua baino ez zituen eta hari zegozkion lurrez inguratuta zegoen lau aldeetatik. Halaber, egun etxerako sarbide moduan erabiltzen den bidea ere izango zuen urte hartan, Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban aldera egiten zuen galtzada zaharretik desbideratu zena; izan ere, galtzada hori eraikitzearen ondorioz, 1. sektoreko plano orokorrean E hizkiarekin adierazten den bidea erditik moztuta geratu zen, "estratatik" barrena Loinaz baserrietara eta ermitara egiten zuen tartean.

Orduan, Ormaiztegira egiten zuen galtzada hark soilik iparraldeko zonaldetik zeharkatuko zituen Antzizar eta hari atxikitako lurrak, izan ere, 31. argazkian gezi zuriz adierazten diren Iurrerako bi adarrak artean eraikitzeke zeuden. Aurrerago azalduko dugu hori.

1864an gure bidaiariak ia gauza bera begiztatuko zuen lurrunezko tren berri eta dotoretik. Guk asmatutako bi bidaiariek, oinezkoak eta trenean bidaiatzen zuenak, Antzizar baserri hori zonaldean "irla bailitzan" kokatzen zela ikusiko zuten eta Loinatzazpikoa eta garaikoa baserriekin baino ez zela komunikatzen, iparraldetik, "ermitako estratan" barrena; mendebaldera, errepidearen alboan kokatutako lehen baserria Ubillotz izenekoa zela ikusiko zuten; eta 1. planoan E hizkiarekin adierazitako bideari jarraiki, Iturrazpe baserri biak ikusiko zituzten; Igartzara bidean, Telleri baserri zaharra izango litzateke 1862an ikusiko zuten le-

hen eraikina, bigarrena Errekarteaundi izango zen; azkenik, hegoaldera, ziur aski bi bidaiari horiek Beasaingo jurisdikzio horretan, trenbidetik gertu ez zuten beste eraikinik begiztatuko, izan ere, zertxobait urrun izango ziren eraikinak.

Urte haietatik aurrera, Antzizarren hainbat bide nahasiko ziren pixkanaka, datu, jazoera eta dataz hornitutako lerroalde hauetan ikusiko dugunez:

1848-1851 bitartean "Segurako bide zaharra", planoan P hizkiarekin adierazten dena (17 eta 18b argazkietan P1 hizkiarekin adierazten delarik hartako ibilbidea), Beasaindik Iurre, Idiazabal, Segura edota Zegamara joateko bide nagusia zen artean. Lau urte horietan eraiki zen Antzizarretik hasita Etxegarateko mendatetik barrena abiatzen den adar modernoa, "Frantziatik" zetorren "Bide Gailena" laburtu asmoz.

Kontuan hartu behar da, 1859an (askoz ere egoki eta laburragoa den desbideratze berri hau inauguratu eta zortzi urtera) Compañía Norte y Mediodía de España delakoaren ibilgailuek "**soilik bi egun eta erdi ematen zutela Baiona-Madril ibilbidea osatzeko**", hain zuzen ere, Antzizarren kokatutako hiru begiko zubi berrian abiatzen den errepide dotore eta moderno horretatik.

1851tik aurrera "Segurako bide zahar" hori Etxegarate aldera luzatzen zen bide berriarekin gurutzatzen zen, 18b argazkian zirkulu zuria kokatu dugun tokian, gutxi gorabehera. 1. plano orokorrean eta 1h plano-zatian ere adierazten da gune hori, Z eta L hizkiekin, hurrenez hurren.

Puntu edo gune horretatik aurrera, Segurarako bide zaharra artean gertuago zegoen Oria ibaiaren ezkerraldeko ertzetik (ibaia kontrako korrontean begiratuz) Etxegarate aldera egiten zuen bidea baino; bigarren bide horrek duela berrogeita hamar urte ingurura arte Iurre auzotik barrena ezagutu dugun ibilbide bera egiten zuen orduan, "Iurreko zuzengune" izenekotik zehar Etxegarateraino iristeko, Idiazabalgo herria erdierditik zeharkatuz.

Adin nagusiko askok oraindik oroituko dute ibilbide horretan zegoen eraikin ezegonkorra, "Casa Tablas" (Ohol Etxe) izenarekin ezagutzen zena, errepidearen ezkerrera kokatzen zena, Olaberrira sartzeko bidegurutze zaharraren ondoan. Orobat, gogoratuko dituzte leku horretan XX. mendearen erdialdera egin zituzten petrolio-prospekzio "ospetsuak".

Iurreko petrolio ezagunari buruzko istorio hori bertatik bertara kontatu digute birritan. Esan digutenez, Lazkaoko beneditar bat izan zen, pendulua hartuta, zonalde horretako zorupean petrolioa zegoela ziurtatu zuena, tresna horrek bere eskuan egiten zituen mugimenduak zirela eta. Hark esaten zuenez, penduluak erlojuko orratzen kontrako mugimendua egiten bazuen, ura zegoen; aitzitik, orratzen noranzkoan mugitzen bazen, zorupe horretan gordetzen zena petrolioa zen. Ez zen txantxatzat hartu, izan ere, ehun metroko zuloa egin zen. Hala ere, emaitzak negatiboak izan ziren. Hain negatiboak, ezen zulaketa bertatik bertara ikusi zuen lekuko batek dioenez, Iguain familiaren gasolindegi modernoa lekutzen zen zonaldean, zorupean zeuden erregai-gordailuak ere ez zituen hauteman penduluak.

1864ko abuztuaren 15ean, Etxegarateko adar berri hori ireki eta hamahiru urtera, Altsasu-Beasain trenbide-tartea inauguratu zen. Mugarri bat izan zen hori bertako jendearentzat, izan ere, zonaldeko biztanleek errotik aldatu zituzten antzinako "usadio eta azturak", batez ere, mendi, baserri edota laborantza-lurretara ailegatzeko erabiltzen zituzten ohiko igarobideei zegokienez. Ohituta zeuden bide horietatik libreki ibiltzen; orain, ordea, hesi artifizial handi bat zegoen, trenbidea, alegia; eta zonalde horretan hesi hori bi lekutatik baino ezin zuten zeharkatu, Z hizkiarekin adierazten dugun trenbide-pasabidetik eta 21. argazkian ikusten den trenbide azpiko lurrazpiko pasabidetik, Ubillotz baserriaren parean; izan ere, trenbideko araudiaren arabera, trenbidetik zeharkatzea debekatuta izateaz gain, hura eraikitzean balastoari altuera jakin bat eman behar zitzaion (60/70 zentimetro). Balasto horrek, trenbidea ziurtatzeaz gain, hura zeharkatu ahal izatea eragozten zuen.

Arriaran aldera kokatuta zegoen lurrazpiko hurrengo pasabidea Iturralde aundi baserri berrirako sarbidean zegoen, Salbatoren; hala ere, Beasain aldera joz, Oria ibaian behera, trenbidearen beste aldera joateko, Igartzako goiko zonaldean, errailen gainean altxatutako zubi goratua zeharkatu behar zen derrigo-

rrez, hain zuzen, Olaberrira zihoan bide zaharreko eta "Segurako bide zaharreko" ibilbideak mantentzeko eraiki behar izan zutena. Segurako bide hori ere desbideratu egin zen 200 metroko tartean, Igartzan trenbidearen gainean eraikitako zubi hori aprobetxatuz.

Hori guztiori sakontasun gehiagoz ikusiko dugu Igartzari buruzko 2. sektorea deskribatzen dugunean. 2003an eraitsitako tren-zubi hori Lazkaibarreko zonaldean dagoen tren-zubiaren bikia zen. Bigarren hori Upabia baserritik igaro ostean kokatzen da, San Isidro Granja aldera joanez (orduan Arranomendia izena zuena). Bi zubiak Ordiziako jurisdikzioaren barruan zeuden.

Gainera, kontuan izan behar da 1863/1864tik aurrera Zerain eta Mutilora zihoan garraioetako bide zaharrak Antzizarren, Oria ibaiaren gainean eraikitako tren-zubi berri horren eskuineko aldea ukitzen zuela ia (zubi hori ibaian gora begiratuz). 24. argazkiko M1 bidea, beraz, bide zahar horren luzapen naturala da, 1933an tunelaren gainean eraikitako saihesbide berriak erdibitu zuen arte.

Trenbidea iritsi aurretik, Iturrazpe baserrietarako igoera, E bide horretatik egiten zen baina, gerora tuneleko sarreraren (edo irteeraren) ahoa izango zena zeharkatu bezain pronto eskuinerantz 90 graduko bihurgunea hartuz, 1862ko planoetan ikus daitekeenez.

15 eta 18a argazkietan E2 hizkiarekin adierazten da aipatu saihesbidea, zeina, E1 bidetik barrena tunela gainetik igaro eta ondoren 15, 18a, 22 eta 23 argazkietan M1 hizkiarekin adierazten den garraioetako bidexkara itzultzean zetzana. Arestian esan dugunez, bidexka horren luzapen naturala 24. argazkian ikus daiteke. 1. sektore orokorrean eta plano horretako 1e plano-zatian, tunelaren gainetik egindako desbideratze hori argi eta garbi marrazturik agertzen da eta, horrez gain, "desbideratze" hitza irakur daiteke argiro, M1 garraioetarako bidexkara nola itzultzen den ikusteaz batera. M1 bide hori 1. sektoreko plano orokorrean "mendirako bide" modura idazten da.

Tunelaren gainean egindako desbideratze horri esker, ondoren, Iturrazpe baserrietara jo zitekeen, 1. plano orokorrean, plano horretako 1e plano-zatian nahiz 15 eta 18a argazkietan ostera ere ikus daitekeenez. Argazki horietan bide horiek E1 eta E2 hizkiekin adierazi ditugu.

1911n hasi ziren erabiltzen trenbidearen bigarren erraila, berrogeita hamar urte lehenago proiektatu bazuten ere. Horrenbestez, are zabalagoa eta zailagoa zen gurdi, zaldi eta animaliek Antzizarreko trenbide-pasabidetik gainditu behar zuten tartea. Jakina, trenbidea trenbide-pasabide bat ez zegoen lekutik zeharkatzea are zailagoa zen gurdi eta animaliekin igaroz gero.

Denbora batera are gehiago zaildu zen ekintza hori, izan ere, 1929an trenbide-tarte horretan argindarra sartu zen, horrenbestez, metalezko dorreak altxa zirelarik. Nolanahi ere, 1960ko hamarkadaren hastapenera arte lurrunezko makina zaharrak erabili ziren.

1933an Antzizarretik Iurreko gasolindegi berrirainoko desbideratzea burutu zen, Iturrazpeko tunelaren ahotik horren gertu zegoen trenbide-pasabide arriskutsua saiheste aldera. Iurrera bidean, Eztanda errekaren gainetik eta Antzizar etxearen aldamenetik, igarotzen den galtzadaz ari gara, hormigoizko barandaz hornituta dagoena.

Saihesbide hori eraikitzean, aldi berean, beste bi "etxe-zubixka" eraiki ziren, Antzizar etxearen gainean eraiki ziren etxebizitzetara sartzekoak. Zubixka horiek 18. argazkian, ezkerrera, ikusten ditugu, bi gezi zuriz adierazita. Errepide horrek laurehun metro inguru izango ditu Iurreko gasolindegi berrira iritsi arte. Nahikoak bezain beharrezkoak leku arriskutsu hori saihesteko.

1955ean (beste hogeita bi urte igarota) Ordiziako jurisdikzioan hasten den tuneletik abiatzen den ingurubide-errepide berria inauguratu zen, Iurreko auzoarekin lotura zuzena egiten duena, Igartzako "txara" izenez ezagutzen den zonaldetik. Horretarako, Igartzatik Olaberrira zihoan bide zaharra moztu egin zen erditik, 1864tik aurrera Igartzan, trenbidearen gainean, eraikitako zubi goratu berriaren gainetik igaroko zena.

Hona dakarkigu, ia beti gertatu ohi den moduan, aurrez aipatu dugun merkataritzarekin lotutako legea bete zelako zonalde honetan ere, izan ere, antzinako bide nagusira egindako desbideratze handi hori sortu ostean, "Benta" moderno bat ireki zen bidea besarkatuz.

1851n desbideratze hori zabaldu ostean, gerora Piparrenea izenarekin ezagutu zen Benta eraiki bazen, orduko horretan, Castillo ostatua da ireki zena errepide-adar moderno horren alboan. Hari buruzko irudi honetan ikus daitekeenez, errepide berriaren eta "Antzizar-Iurreko Gasolindegia" (aurrez aipatu duguna eta gaur egun Etxegarate aldera autobia hartzeko irteera nahiz Castilloko zonaldetik Beasainerako sarrera baitaratzen dituena) saihesbide berriaren arteko lotunea, oraindik lurrezko errepide kaskarra da. 28. argazkian Castillo ostatua adierazten dugu, lotunebide hori gezi zuri batekin adierazten delarik.

Urte horietan zonalde horrek zuen itxurari buruzko ideia oso bat egiteko xedez, baina Urbitxipi muinotik kontrako aldera beha, 17. argazkia hartu behar dugu berriz ere, Antzizarretik Igartzara zabaltzen den zonalde hori ikusteko. Argazkia 1862an trenbidea eraikitzeko planoak sortu eta mende batera aterea dago eta hari begiratuz gero, gauza asko aipa daitezke. Lehen planoan Oria ibaiaren gainean eraikitako tren-zubia ikus daiteke, landarediak hartuta badago ere ia goitik behera. Ibilguan 16 metro argi dituen zubi hori egoki marraztuta ageri da 1. plano orokorrean, Y hizkiaren gainean, hain justu.

Horrenbesteko irrikaz zain izan ostean, azkenik, **1997ko ekainaren 27an** ireki zen Antzizar-Ormaiztegi autobia-tarte hori, 18b eta 27 argazkietan ikusten duguna. Hasiera batean, aipatu herrira arte iristen zen. Beste ia zazpi urte behar izan ziren Zumarragara iris-

teko eta, egunen batean, Bergara eta Durangoraino helduko dela espero dugu.

Pentsatzen dugu XXI. mendeko bigarren hamarkada honetan autobia berriaren batez besteko kostua "apur bat handiagoa" izango dela 1851. urtean Antzizarretik Etxegaratera luzatu zen adar zaharrak balio izan zuena baino, orduan kilometro bakoitzeko 29.333 pezeta ordaindu baitziren. 150 urte baino gehiago igaroak izango dira Etxegaratetik egindako desbideratze zaharra indarrean sartu zenetik, izan ere, XIX. mendearen erdialdera Antzizar jadanik hainbat bide batzen zituen bidegurutze berri eta garrantzitsua zen.

URTE HAIETAKO ANTZIZAR ETXEA

Aurrez aipatu dugu filologoek Antzizar hitzaren inguruan egiten duten interpretazioa, ziur aski, putzuak eta uholdeak izateko joera zuen zonalde batean kokatzen zelako. Etxea eta hartako lurrak antzina Igartza jauregiko Jaunen jabetzakoak izan ziren.

Udal-errolda zaharretan erreparatzen badugu, Antzizar etxea Mendebaldeko Zatiaren 28. zenbakian kokatuta zegoela ikus daiteke eta beheko solairua eta lehen solairua baino ez zituela; 1933an Iurreko gasolindegiraino iristen zen saihesbideak etxean ere izan zuen eragina, izan ere, etxebizitza garaienetara iristeko sarbide berriak egin ziren, sarbide independenteak, etxearen kanpoaldetik, ibaiaren gainean eraikitako saihesbide berritik abiatuta, errepide horretatik etxeko atera eraiki ziren zubixkak zeharkatuz, 18a eta 18b argazkietan ikusten dugunez.

XIX. mendearen azken laurdenean etxeak 353 m²ko azalera zuen eta norabide guztietan hartako etxaguntzak zituen mugakide, aurrez esan dugun moduan. XIX. mendeko bigarren erdialdean 2.500 pezeta balio zituen etxeak, alboan zegoen Ubillotz baserriak baino apur bat gehiago. Azken hori, Igartzako jauregiaren baitakoa izan da "betidanik".

Honatx Antzizarren baitako lurrak:

Ataunsoroa, ate eta ataurrea kontuan hartuz 3.184 m²ko azalera zuena. Lursail hori erraz identifika zitekeen eta muga hauek zituen:

Iparraldera, errepidea; hegoaldera, errepidea; ekialdera, probintziako "Ate-zergaren" ("Katea" zeritzona) lurrak; mendebaldea, Oria ibaia. 1862an lursail horren balioa 30 pezetakoa zen area bakoitzeko, beraz, guztira 954 pezetan zegoen balioetsita, hau da, etxeak balio zuenaren herena, gutxi gorabehera.

Zanjaldea, izeneko beste onibar bat, 2.600 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparralde eta mendebaldera, errepidea; hegoaldera, Oria ibaia; ekialdera, Martin Anduezaren lurrak. Haren balioa 34 pezetakoa zen areako, horrenbestez, guztira 884 pezeta balio zuen.

Kataburua soroak izeneko beste bi lursail, 11.900 m²ko azalera zutenak. Lursail bakoitzak bere balioa zuen, 30 eta 10 pezeta areako, hurrenez hurren, bien artean 3.600 pezeta zirelarik.

Ibulusaldea izeneko beste lursail bat, 4.840 m²ko azalera zuena. Kasu horretan hiru balioespen ezberdin barneratzen ziren lur haietan: belardiak 28 pezetako balioa zuen areako, beste lur-eremu batek 25 pezeta balio zuen areako eta, azkenik, otadiaren balioa 10 pezetakoa zen areako. Hiruren artean 1.611 pezeta eta 20 zentimo egiten zuten.

Etxeberrialdea lursaila, 4.000 m²ko azaleraduna, areako 25 pezeta balio zuena; 28.500 m²ko azalera zuen beste eremu bat ere bazen bertan, zuhaizti eta belardiz josia eta areako 5 pezetako balioa zuena. Multzo osoaren balioa 2.425 pezetakoa zen.

Tunelgaiñe izeneko lursaila, 1.350 m²ko azalera baino ez zuena. Haren balioa areako 4 pezetakoa zen eta guztira 54 pezeta balio zuen lursail hark.

Azkenik, Magdalena basoa izeneko gaztainadia, 18.800 m²ko azalera zuena. Haren balioa 11 pezeta areako, horrenbestez, 2.068 pezetako balioa zuelarik.

1894ko azaroaren 2an etxeak eta hartako etxaguntza guztiek 14.186 pezeta eta 20 zentimoko balioa hartzen zuten.

Urte haietan etxeak bazituen bere kargak, izan ere, 100 dukateko zentsua zuen urteko 5 dukateko korritu batekin, Fermin Anzizarrek Jacobe de Alzaren alde irekia; zentsu hori, azkenik, Miguel Abaliak Juan de Saleteri saldu zion, antzeko beste zentsu batekin batera (100 dukatekoa eta urtean 5 urteko korritu batekin). Arriarango kabildoak lehen zentsuari zegozkion 75 dukat jaso zituen.

Halaber, urte haietan beste zentsu bat zuen 233 dukat gehi hiru erreal eta hogei zentimokoa, urteko zazpi beloi-dukateko korritu batekin, Jose Echeverriak irekia Urrestillako Parrokiako bikarioaren alde.

Beasaingo eskribaua zen Jose Hilarion de Maizek eta Maria Magdalena de Echeverriak esandakoaren arabera, 1781eko uztailaren 27ko data zuen eskritura publikoan Juan Antonio Maizen alde 1.692,5 beloi-errealeko kopurua ordaintzeko betekizuna ezarri zen, ondasun bidez gauzatzekoa, batez ere, zenbaki honetako lursailarekin.

Eta, 1864. urtean etxe hartan jadanik egoileak bazirenez, trenbideko funtzionarioa eta haren familia ere aipatu behar ditugu, izan ere, zonalde hartan bizi ziren, hain zuzen "guardabarreras" (hesi-zain) izeneko etxebizitzan, trenbide-pasabidearen alboan zegoena; honatx urte haietako egoileen izenak:

Eduardo Rodrigo eta Santos Arriba senar-emazteak eta haien semeak, Felix eta Gregorio Rodrigo Arriba. Ehun urte beranduago ateratako 17. argazkian "guardabarreras" izeneko etxebizitza ikus daiteke, jadanik birmoldatua. Hasiera batean, 36 m²ko azalera zuen. Etxea gezi bertikal zuri batez adierazi dugu.

Aurrez Antzizar berri eraikina aipatu dugu, XX. mendearen erdialdera artean Anselmo Garmendiaren etxe gisa ezagutzen zen eraikina, 15. argazkiko E3 hizkiaren azpian ikus dezakeguna, azpialdean erdiratua. Jarraian eta bukatzeko, Antzizar izeneko gunean zuen finkapenari buruzko hainbat xehetasun emango ditugu.

ANTZIZAR BERRI Antzizar aldea izeneko lursailean 183 m²ko lur-banaketa egin ostean sortutako eremua da, Antzizar etxe nagusiaren iparraldera kokatzen zena. Antzizar etxearen baitako onibar horretan egindako zatiketaren ostean, aipatu eremua Andres Goya Goitiak eskuratu zuen 1899ko maiatzaren 29an.

Urte haietan, lursail osoa Martin Manuel Asurmendiren jabetzakoa zen. Hark, aldi berean, bere gurasoen herentziaz jaso zuen (Jose Maria Asurmendi eta Margarita Amiano).

Azken etxe hori senitartekoen "auzolanaren" ondorioa izan zen; urte batzuk geroago, erreketeek Beasaingo udalerrian okupatu zuten lehen eraikina izan zen hura, 1936. urtean Altsasutik etorrita herrian sartu zirenean.

Gogo-ariketa bat egiten badugu, 31. argazkian bi gezi zuriz adierazten ditugun bi desbideratzeak ez zeuden garaian zonaldeak zer-nolako itxura zuen interpretatze aldera, ulertu ahal izango dugu 1899. urtean elkarren hurbilean zeuden lur horiek guztiek lursail bakarra osatzen zutela, Antzizar etxea inguratzen zuena. Denak etxearen maila berean kokatzen ziren, argazki horretan **3** zenbakiarekin adierazten den lursailean ikus daitekeenez.

1933an, lehen desbideratzea egin zutenean, errepide berria goratu egin behar izan zuten pixkanaka, ibaiaren eta Iturrazpeko tunel arriskutsuaren gainetik pasa zedin. Gaur egun ere, gainetik pasatzen da leku horretan.

Hobeto ulertze aldera, 1899an Antzizar berri etxe berria eraikitzeko zatitu zuten 183 m²ko lur-eremu horri garai hartan zegozkion mugak ikusiko ditugu. Honatx:

Iparraldera, Erret Bidea (Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban aldera egiten zuen errepidea); ekialdera, errepide publikoa (egun oraindik etxera sartzeko erabiltzen den bidea), aipatu Erret Bidetik Antzizar baserrira bideratzen zena; hegoalde eta mendebaldera, Jose Maria Asurmendiren jabetzakoa zen baserriari zegokion gainerako lur-eremua.

Hobeto ulertze aldera, 31. argazkian **1** zenbakiarekin adierazten da artean Erret Bide izendatzen zena; **2** zenbakiarekin adierazten da, bide horretatik Antzizar etxera abiatzen zen errepidea (1. planoan E hizkiarekin markatu dugun bidearen zati bat da); eta **3** zenbakiarekin adierazten da Asurmendik hasierako lursailetik beretzat gorde zuen zatia.

Zonalde horretan ikusten den beste eraikin txikia Martzialenea izenekoa da, 1851n eraikitako errepide zaharraren eskuinera lekutzen dena, gaur egun, oraindik, Kiroldegiaren atzealdean lekutua, Oria ibaiaren gainean eraikitako hiru begiko zubi zaharra zeharkatu baino lehenago. Etxe hori XX. mendeko lehen erdialdera eraiki zen, Antzizar etxeari "kendutako" beste lur baten gainean. 31. argazkian ME hizkiekin adierazten dugu. Dena den, esangarri da, haren jatorrizko izena ez dela egun ateburuan agertzen dena.

Honatx, XIX. mendeko bigarren erdiaren hastapen haietan Antzizarren bizi ziren hiru familiak:

Martin Jose Aranburu eta Francisca Maiz senar-emazteak eta haien semea; Antonio Gaztañaga eta Josefa Barandiaran senar-emazteak eta haien lau seme-alabak; azkenik, Juan Ignacio Usabiaga eta Josefa Gaztañaga haien lau seme-alabekin.

Sektore honetan ikus daitekeenez, mende oso bat igarota, hain zuzen, 1862. urtetik XX. mendearen erdialdera arte, leku horretan aldaketa gutxi izan ziren (Beasainen zeuden gainerako landa-eremuetan bezalaxe), bilakaera aipagarririk gabe. Gabeziak ziren nagusi, era guztietako baliabideak falta ziren eta gauza guztiak oso motel egiten ziren. Agian, horiek dira XIX. mendeko bigarren erdiko eta XX. mendeko hasierako ezaugarri nagusiak.

Aurrerago, atal ezberdinetan ikusiko dugun moduan, XIX. mende amaierako Beasain landatar horretako etxe eta lur gehienak pertsona gutxi batzuen eskuetan zeuden artean, orokorrean, titulu aristokratikoen jabe zirenak. Pertsona horietako gehienak Madrilen bizi baziren ere, artean nahieran menderatzen zuten zonaldea, bereziki landa-eremuetan.

Ia mende oso bat igaro behar izan zen, 1957an Antzizar-Ubillotz zonaldean enpresa bat finkatzeko; Eztanda Fundazioak izeneko enpresaz ari gara, 12.420 m²ko azalera hartzen zuena Eztanda errekako meandro

handiaren gainean, antzina Ubillotz errota ahantzia kokatu zen lekutik hurbil. Dagoeneko gure garaian paratu gara, izan ere, ordutik aurrera bertan gertatu dena herritarren oroimenean oraindik gori-gori dagoela uste dugu.

1940 inguruan zonalde eder hori ezagutzeko beste bitxikeria bat aipatzearren, errepara dezagun 30. argazkian. Bertan, Azpeitia familia ikus daiteke eserita, artasoroz inguraturik askari alaian. Eremu horretan Eztanda errekak osatzen zuen meandro handian daude, bertan izen bereko enpresa finkatu baino askoz lehenago.

ITURRAZPE BASERRIAK

XIX. mendeko gure bidaiariek Iturrazpe eraikin biak Urbitxipi mendiko mazelaren erdialdera ikusiko zituzten, Oria eta Eztandako haranetako bi zaindari nekaezin izango balira bezala.

Iturrazpe baserri zaharrak ere 1862an eraitsi ziren, baserrien izen bera hartu zuen tunela eraikitzeko. Angioko tunelean gertatu bezala, mendi-mazela horretan "ebakidura handi bat egin zuten eta horrek asko arindu zituen hura aire zabalean eraikitzeko lanak. Muxika baserriarekin egin zuten moduan, bertako egoileek etxeak berreraiki zituzten bidearen ertzean, eraitsitako eraikinetik 100 metro eskasera, Eztandako ibarrean gehiago barneratuta, apur bat gorago, 14. argazki-planoan ikusi dugun eran. Javier Jauregik ateratako 12 eta 13 argazkietan azken aldiz ikusi ahal izango ditugu, 1997ko ekainaren 27an Ormaiztegi aldera inauguratu zen autobia berria egiteko lur-erauzketen ondorioz eraitsi zituzten arte.

Urrun eta altuen zegoena, noski, Iturrazpe garaikoa zen eta Mendebaldeko Zatiko 30. zenbakia zuen Beasaingo zenbakikuntza zaharrean. Baserri berriak hartako lurrak zituen mugakide iparralde, ekialde eta mendebaldean; hegoaldera, hartako ataurreak ziren mugakide. Etxe hartako orubeak 273 m²ko azalera zuen eta horrela banatzen zen: beheko solairua, ekialdeko fatxada "oholez apaindua zuen goiko solairua eta, kanpoan, ogia egiteko labea.

1865eko maiatzaren 6an etxearen balioa 10.087 erreal eta 35 zentimokoa zen soilik. Datari erreparatuz, tasazio hori Iturrazpe garaikoa izena mantendu zuen eraikin berrikoa dela ulertzen da, bertako egoileek apur bat gorago eraiki zutena.

Berreraiki ostean, ataurreko lurrek 321 m²ko azalera zuten eta haien balioa 317 erreal eta 90 zentimokoa zen. Jarraian haietako onibarrak aipatuko ditugu:

Echeazpia, 6.358 m²ko azalera zuen lur-eremua, muga hauekin:

Iparraldera, "burdinbideari zegokion ibilbidea egiteko desjabetutako lursaila; ekialde eta hegoaldera, baserriari zegozkion lurrak; mendebaldera, baserriari zegokion beste lursail bat eta Igartzako etxearen jabetzakoa zen Ubillotz baserriko lurrak. Lur-eremu horren balioa, bertan zegoen zuhaiztia barne, 5.916 beloi-errealekoa zen 1865ean.

Etxeazpia izen bera zuen beste partzela bat, "burdinbidea baino beherago" lekutzen zena eta 10.012 m²ko azalera zuena. Azalera horretatik, 223 ondo eta 43 ehunen ereiteko lurrak ziren; gainerako lur-eremua belardi eta ezpondaz beterik zegoen. Haren balioa, zuhaiztia barne, 8.411 errealekoa zen.

Etxeburua izeneko lur-eremua, 38.144 m²ko azalera zuena. Horietatik 50,9 ondo gaztainadi helduz osatutako arboladi bati zegozkion. Lursailaren balioa ez da zehazten.

Aranbeltxa izeneko beste jabetza bat, 28.936 m²ko azalera zuena eta 5.531 beloi-erreal balio zuena.

Elordi izendatutako lursaila, 55.055 m²ko azalera zuena eta 9.438 beloi-erreal balio zuena.

Igoieta izeneko lur-eremua, bi oin haztegi barneratzen zituena 26.285 m²ko azaleraren barruan. Horrez gain, 178 haritz sendoz hornitutako arboladia zuen. Lur-eremu horren balioa 3.970 beloi-errealekoa zen.

Urbitxipialdea izeneko beste onibar bat, 399 ondoko edukiera zuena. Hedadura horretatik herena baino ez zen etxearen baitakoa (gainerako bi herenak Telleria eta Iturrazpe azpikoa baserrien artean banatzen ziren). Haren balioa 266 beloi-errealekoa zen.

1865ean, Iturrazpegaraikoa etxearen balioa, deskribatu ditugun etxaguntzak barne, 51.340 erreal eta 3 zentimokoa zen.

1867an hauek ziren baserrian bizi ziren pertsonak:

Alde batetik, Antonio Maiz eta Maria Ignacia Goiburu senar-emazteak; beste alde batetik, Martin Jose Loinaz eta haren arreba Maria del Carmen Loinaz.

Iturrazpe etxe bien eta haietatik gertu zegoen Telleria (Errekarteaundi parean kokatua) baserriek bazuten berezitasun bat, hots, haien orduko jabea ez zela beasaindarra, Legorretakoa baizik. XIX. mendearen erdialdera Juan Ignacio Argaya zen hartako jabea, Maria Josefa de Camiorekin ezkondua. Biak herri horretako herritar dirudunak ziren. 1857ko urtarrilaren 28an Juan Ignacio zendu zelarik, hots, soilik trenbide-tarte hori inauguratu baino zazpi urte lehenago, jabetza hori alargunak eta haien lau seme-alabek (Bartolome, Juan Jose, Jose Florencio eta Sabina Argaya) jaso zuten herentzian.

Antzeko zerbait gertatu zen urte haietan Mendebaldeko Zatiko 29. zenbakia zuen Iturrazpe azpikoa baserriarekin, izan ere, aurrez aipatutako Legorretako senar-emazteak ziren haren jabedun. Arestian esan bezala, baserri hori ere eraitsi egin zuten trenbideko tunela eraikitzeko, Urbi txipi mendialde horretako beheko zonaldean lekutuko zena, eraitsitako eraikin zaharren altzoan ia.

Azken etxe hori balioesteko xedez, hartako jabeak, Juan Ignacio Argayak, 1856ko azaroaren 6an kontularitza egin zezala eskatu zion Tolosako historialari ospetsua zen Pablo Gorosabel abokatuari, zeinak, besteak beste, "Las Cosas Memorables de Guipuzcoa" izeneko liburu ezaguna argitaratu zuen.

1857ko urtarrilaren 28an, era berean, baserri horrek 195 beloi-dukateko zentsua zuen kargan. Iparralde, ekialde eta mendebaldera hartako etxaguntzak zituen mugakide; eta, hegoaldera, hartako ataurreak, 218 m²ko azalera osatzen zutenak.

Orduan beheko solairuak eta oholez apaindutako lehen solairuak osatzen zuten etxea eta, horiez gain, kanpoaldean ogia egiteko labea zuen. Oholez apaindutako zatia etxearen mendebaldeko horma da egun. Hartako etxaguntzak aintzat hartu gabe, baserriaren balioa 6.711 erreal eta 99 zentimokoa zen orduan.

Ataurrean hiru ondoko edukiera zuen lur-eremu bat zegoen, hots, 103 m²ko azalera zuena. Haren balioa 108 beloi-errealekoa zen 1865ean.

Aipagarri da baserriaren mugakide zen **Etxeazpia** izeneko lursaila; lur-eremu horrek Iparraldeko Trenbidearen Konpainiaren ibilbidea egiteko hartutako "burdinbideko" lurrak zituen mugakide iparraldera. Onibar horrek 595 m²ko azalera zuen eta haren balioa 625 erreal eta 32 zentimokoa zen.

Etxeazpia izeneko beste lur-eremuak, hegoaldera "burdinbidea" eraikitzeko aipatutako desjabetutako lurrak zituena mugakide, 1.838 m²ko azalera zuen eta 1.925 erreal eta 68 zentimo balio zuen.

Sorotxo izeneko lursaila, 2.182 m²ko azalera zuena eta 1.191 erreal balio zuena.

Motxorro izenez ezagutzen zen lur-eremua, 245 ondoko edukiera zuena eta 1865ean 8.330 balio zituena.

Aranbeltxa lursaila, 59.278 m²ko azalera zuena. Haren baliorik ez da zehazten.

Elordi izendatutako lur-eremua, 8.595 m²ko azalera zuena eta 3.000 beloi-erreal balio zuena.

Jabe bera zuen aurreko baserriari bezala, baserri honi ere **Urbitxipialdea** izeneko irasailaren herena zegokion, 399 ondoko edukiera zuena. Esan bezala, etxe horri lur-eremu horren erena zegokion, hots, 133 ondo, 296 errealeko balioa zuena.

Baserriaren balioa, deskribatutako etxaguntza guztiak barne, 34.152 erreal eta 95 zentimokoa zen 1865ean.

Eraikin horrek ere 195 dukateko zentsu bat zuen kargan, urtean %2ko korritu batekin, Juan Antonio Irimok ezarria Beasaingo Parrokia Kabildoaren alde. Halaber, 140 dukateko hipoteka zuen beregain, urtean 7 dukateko korritu batekin, kasu horretan Martin Anzizarrek ezarria Beasaingo Kabildoaren alde. Zentsu horiek guztiak berdin mantentzen ziren 1865eko maiatzaren 6an.

Hauek ziren urte haietan Iturrazpe azpikoa baserrian bizi ziren pertsonak:

Esteban Garmendia eta Brigida Zabala senar-emazteak, haien seme Jose Garmendia bere emazte Martina Insaustirekin, eta azken bien seme-alabak, Antonio, Jose Ignacio eta Josefa Antonia Garmendia Insausti.

Lur-eremuen izen eta mugei so ohartu garenez, Iturrazpe garaikoa eta Iturrazpe azpikoa baserriak ez ziren bikiak soilik jabe bera izateagatik, horrez gain, zenbait onibar ere partekatzen zituzten.

LOINATZ IZENEKO BASERRI BIAK ETA ERMITA

Hauek lirateke gure ibiltariek trenbidearen ezkerrera, ermitaren alboan, begiztatuko lituzketen bi baserriak. Loinatzazpikoa baserriak Beasaingo Mendebaldeko Zatiko 27. zenbakia izango zuen urte haietan.

Baserri zaharrak 219 m²ko azalera zuen. Horrela egituratzen zen: Beheko solairuan animalientzako ukuiluak, atalondo bat, sukalde bat eta logela bat; goiko solairuan, hots, solairu nagusian, bi logela eta etxeko ganbarak. Lau aldeetara baserriari zegozkion lurrak zituen mugakide. 1865ean baserriak bakarrik 11.236 erreal balio zituen.

32. argazkian Loinatz baserri bien eta izen bereko ermitaren kokapen zoragarria ikus daiteke. Loinatzazpikoa etxea da, noski, beherago dagoen eraikina, egun txalet bihurtu dena.

Etxetzarraren alboko lursailak 4.271 m²ko azalera zuen eta 5.113,30 beloi-errealeko balioa.

Baserritik gora ere bazen haren baitako beste lur-eremu bat, muga hauek zituena:

Iparraldera, "bide-zorra"; hegoalde eta ekialdera, errepide publikoa; eta mendebaldera, Villafuerteko kondearen lursail bat. Konde hura Ordiziako Zabala Etxearekin lotzen zen. Soro landu haren azalera 142 m²koa zen eta 170,40 beloi-erreal balio zituen.

Bazen sagastiz betetako beste lur-eremu bat, 300 m²ko azalera zuena eta 252 erreal balio zituena.

XIX. mendearen azken laurdenean, etxearen balioa, deskribatutako etxaguntza guztiak barne, 16.771 beloi-erreal eta 60 zentimokoa zen.

Urte haietan baserriak hainbat karga zituen beregain. Karga hori fidantza kontzeptuan mantentzen zen, 65 zilar-dukateko zentsu batekin. Horrez gain, urtean moneta bereko 5 dukat eta 36 errealeko korritu bat zegoen baserriaren baitan, Pedro de Loinazek Ordiziako Ospitale Santuaren alde ezarria. Zentsu hori, azkenik, kapilautza batek jaso zuen, Teresa Peña zelarik hartako onuradun.

Bazen beste zentsu bat 60 dukatekoa, erdia beiloi eta erdia zilar, urtean hiru dukateko korritu batekin, kasu horretan ere Pedro de Loinazek ezarria Francisco Cortaberriaren alde. Azkenik, Lazkaoko Bernardako Mojen Komentuak jaso zuen zentsu hori.

Beste zentsu bat, 1.500 dukatekoa eta urtean 75eko korritu batekin. Hau ere, Pedro de Loinazek ezarria Francisco Ibarzabalen alde.

Beste zentsu bat, fidantza kontzeptuan, 220 beloi-dukatekoa urtean 11 dukateko korritu batekin, kasu horretan Pedro Garcia Albisuren alde.

Beste zentsu bat, 660 beloi-errealekoa urtean 6,5eko korritu batekin, Torrepinareseko kondearen alde. Aipatu kondea, orduan, Floreaga edo Mutegienea etxeko jabedun ere bazen eta Nicolas Eugenio Gomez de Teran zuen izena. Los Santoseko herrian (Badajoz) bizi zen. Konde horrek Abariatarrekin nolabaiteko harremana izan zuela uste dugu, izan ere, Floreaga, Mutegienea edo Mintegienea izeneko etxea hartako adar baten eskutik esleitu zen Beasainen, baina maiorazkotik at.

Prudencio Zunzunegik beste jabetza baten truke eskuratu zuen Loinatzazpikoa etxea. Truke hori hartako jabe zen Miguel Antonio de Loinazekin egin zuen. Hala ageri da Beasaingo hirugarren liburu zaharraren 324. idazpeneko 174. orrialde iraulian.

Behin ondasunetako herena eta bostena hobetuta, azkenik, haren semeak, Juan Jose Zunzunegik eskuratu zuen jabetza hori herentzian. Horrenbestez, hark jaso zuen jabetza hura herentzian baina baldintza batekin, hots, ondare hartako ondasun gehiago agertuko balira bere legezko oinordekoen artean banatuko ziren. Azkenik, testamentua osatu zuten Prudencio Zunzunegi eta haren emazte Maria Josefa Mugicak, Beasaingo eskribau Manuel Martin de Unsainen aurrean. 1847ko urtarrilaren 8an gauzatu zen egintza hori, Igartzako errota-etxe zaharrean.

Trenbidea eraiki zuten garaian Jose Martin Aranburu eta Juana Martina Iraola senar-emazteak, haien seme-alabak, Josefa eta Pedro Jose eta, azkenik, Jose Maria Eguren morroia bizi ziren Loinaz azpikoa baserrian.

Baserri horren gainean kokatzen zen baserria, Loinaz garaikoa izenez ezagutzen zena, 26 zenbakiarekin agertzen zen Mendebaldeko Zatian. Etxe hori "Loinazko ermitauaren etxetxo" gisa agertzen da idatzietan.

Horrek badu azalpen logiko bat, izan ere, etxe haien (eta haietako lurren) eta Loinazko Ama Birjinaren Ermita Arriarango Etxeko Jaunaren jabetzakoak izan dira betidanik; eta historialari ospetsu batzuen aburuz, ez horren aspalditik Lopez Lope de Oriaren jabetzakoak izango ziren, hots, lehenengoz Arriaran abizena hartu zuen Jaunarenak. Gaur egun zaila da sinesten Arriarango Jaun hark izan zuen garrantzia, Arriaran-Gudugarreta eta Astigarretako parrokien jabe ere bazuenak.

Bestalde, parrokia horien baitako jarraitzaileen kopurua arretaz aztertzen badugu (Gaytan de Ayala sendia zelarik jabetza haien onuradun, Arriarango Jaun modura), ohartuko gara ez dela garrantzia urriko kontu bat.

Sarrera hori egin ostean, jakin dezagun 1862an Arriaran, Gudugarreta eta Astigarretan zenbat biztanle batzen ziren eta aldera dezagun biztanleria hori Beasain, Garin eta Aratzeko populazioarekin. Liburuaren sarreran aipatu ditugun zenbait datu osatuko ditugu, bi herrixka horien artean urte haietan alde handirik ez zegoela ohar gaitezen. Familia eta herritar kopuruan erreparatuko dugu soilik, izan ere, haietatik eratortzen ziren 1862 aurreko urte horietan parrokietako onuradunek jasotzen zituzten hamarrenak eta hasikinak.

Gure herriak, orduan, 1.494 biztanle baino ez zituen izango, Garin auzoa barne, 229 familia eta 121 eraikinetan banatzen zirenak; hori izango litzateke Beasaingo herri ñimiño eta sakabanatua, izan ere, Sebastian Insausti Treviñoren arabera, Igartza eta gainerako auzo txikiak (besteak beste, Lazkaibar, Ezkiaga, Ugartemendi, Loinatz eta Erauskin) 1862an etxe horien artean zeuden, herrigunetik distantzia ezberdinetara

kokatuta. Hasieran esan dugun eran, estatistika horretan ez da barneratzen Beasaingo jurisdikzioan sartzen zen Aratz-Matxinbenta auzo txikiari zegokion zatia, orduan, 88 biztanle eta 11 baserri izango zituena gutxi asko.

Arriaran-Gudugarreta eta Astigarreta berriro hartuz, hiru komunitate horietan 680 biztanle bizi zirela ikus daiteke, 106 familia eta 65 baserritan sakabanaturik. Haranean zehar sakabanaturik bazegoen ere, biztanleria handia zen, izan ere, hiruren artean Beasain, Garin eta Aratzen bizi ziren familia, baserri eta biztanleen erdia osatzen zuten.

Ulergarria da Arriarango Jaunarentzat horrek zuen garrantzia, izan ere, Villafranca Gaytaneko kondeak, parrokia horietako titular "dibisadun" modura, hartako hamarren eta hasikinak jasotzen zituen antzinatik. Horrenbestez, aipatu jaunak Arriaranen jasotako hamarren guztien laurdena eskuratzen zuen eta Astigarretan jasotakoen erdiak. Herri horretan, beraz, Villafranca Gaytaneko kondea zen jabedun "dibisaduna". Aratz-Matxinbenta eta Garinen, aldiz Granada Egako dukea (Igartza Etxea) zen jabeduna, hau ere, "dibisadun" modura. Beasain parrokiaren gainean zuen jabetza "dibisadun" eta "mere legoa" (kontzejuak edo udalak hartzen zuen patronatuaren ardura) zen eta, era berean, haren gainean zuen aurkezpen-eskubidea mistoa zen kontzejuko biztanleekin, nahiz eta Igartzako Jaunak kalitateko botoa izan.

1837ko uztailaren 20ko lege batek debekatu egin zuen probintzia guztietan elizari hamarrenak eta hasikinak ematea. Dena den, Gipuzkoan lege hori artean ezin izan zen aplikatu, izan ere, orduan probintzian karlistaldiaren gatazka zen nagusi. Beranduago, Bergarako Besarkadaren ostean, 1841eko urriaren 29ko dekretua finkatu zen, foru-erregimena ezereztatzekoa. Hala ere, liberalak edo isabeldarrak gutxiengoa ziren herrietan, leialek (gehienbat nekazariek) beren errenten %10 ematen jarraitu zuten zintzo, gurtzarekin eta kleroarekin lotutako gastuetarako.

1862an, ikergai ditugun Arriaran-Gudugarreta, Astigarreta eta Beasaingo zonalde hauetan horrela banatzen zen sasoi hartan "Diruzko emakida edo hamarren" izendatzen zena:

Astigarretan parrokoari 6.000 erreal zegozkion hamarrenetan eta 3.000 erreal hasikinetan.

Arriaran-Gudugarretan parrokoari 6.438 erreal zegozkion hamarrenetan (3.110 erreal onuradunarentzat kontzeptu berean) eta 3.406 erreal hasikinetan.

Beasainen parrokoari 10.920 erreal zegozkion hamarrenetan (onuradun bakoitzak 5.460 erreal jasotzen zituen, 2.730 kapilauek) eta 6.093 erreal zegozkion hasikinetan.

Oso urrun (eta baita agian lauso) begiesten da Arriaran etxeak herri horretatik nahiz Gudugarretatik kanpo zituen jabetzen proiekzioa, hain zuen, gutxi gorabehera historialariek antzina "Loinazko Unibertsitate" izenez izendatzen zuten ingurunean. Hori dela eta, Loinatzgaraikoa baserria eta Loinazko Ama Birjinaren ermitatik gertu kokatutako zenbait jabetzen deskribapenean, Gaytan de Ayala familiako zenbait jabetza ere ikusten dira. Leinu hori izan zen, ezkontza bidez, haranean Arriaran Etxe zaharrean ordura arte gailendu zen abizen zaharra ordeztu zuena.



Urruneko gorabehera horien inguruan gehiago jakin nahi duen irakurlea asetzeko, jakin dezagun nola eta noiz gertatu zen Arriaran eta Gaytan de Ayala familien arteko ezkontza-ahaidegoa. Berez, bi familien arteko elkartzea gauzatu zenerako bi familiak Madrilen bizi ziren eta maiz ibiltzen ziren Gortean. Azpian aipatuko ditugun pertsonak izan ziren bi familien arteko lotura gauzatu zutenak:

> *"…Dª Teresa María de Arriaran, Marquesa de Tola y Señora del Palacio de Arriaran, nacida en Madrid en el año 1.652, casó con D. Luis Diego Gaytan de Ayala, hijo segundo del Conde de Villafranca de Gaytan, a su vez Marqués de Aravaca, también nacido en Madrid durante el año 1.653…"*

Horrenbestez, ezkontideen ondorengoekin iritsi zen Gaytan de Ayala abizena leku hauetara, Arriaran abizena ordeztuz. Gudugarretak lotura estua izan du betidanik Arriaran Etxe horrekin, jabetzei dagokienez; horregatik, ez dugu ahantzi behar Gudugarretako herritarrei (berezko parrokiarik ez zutenez) Arriarango San Pedro elizan lekua gordetzen zitzaiela elizkizunetara bertaratzen zirenerako.

Dena den, herritarrek eta probintziako estamentuek ahaleginak eta bi egin zituzten Aravacako markesak Arriaran eta Gudugarreta herrixkei zegokien Jaun titulua erabil ez zezan. Ikus dezagun Pablo Gorosabel historialariak horri buruz aipatzen duena:

> *"…respecto a que por parte del marqués de Aravaca se utilizaran los títulos de Señor Solariego de la iglesia y patronato del valle de Arriaran y de la villa de Gudugarreta. Demandósele sobre este particular ante el Consejo de Castilla el año de 1.729; pleito que se falló declarando por sentencia de vista y revista conformes que no podía usar de aquellos dictados, y se abstuviese de hacerlo. La Real carta ejecutoria de esta declaración, librada el 22 de Diciembre de 1.739, se conserva en el archivo de la provincia..."*

33. argazkian Loinatzgaraikoa baserriaren hegoaldeko aldea ikusten da, eraitsi hurren, aurriak baino ez daudelarik. Loinazko Amaren ermitauaren basetxe zaharrak mendebaldetik zuen sarrera, eta dimentsioa kontuan izanik, fatxada nagusitzat hartu beharrekoak ere berdin mantentzen ziren, ekialde-mendebalde orientazioa izanik.

Ez dugu Loinatzgaraikoa baserri zaharrari buruzko datu gehiago lortzerik izan; agian, "ermitauaren etxe" izaki, eliza txiki horrekin lotzen zelako, ez da urte haietako erregistroetan agertzen. Betidanik Loinazko ermita horrekin lotuta egon denez, litekeena da Gasteiz edo Donostiako elizbarrutiko artxibategian zenbait datu berri topatzea (izan ere, 1950. urtera arte ez zen azken elizbarruti hori sortu). Dena den, ezin izan dugu halakorik egiaztatu. Eta hori guztiori, baserri hori ere Gaytan de Ayalaren jabetzakoa izan arren (aurretik Arriaran familiaren jabetzakoa), aurrerago aipatuko dugunez.

Bestalde, Loinazko ermitaren mendebaldeko fatxadan Arriaran etxearen armarri eder bat ikus daiteke argi eta garbi, harrian dotoreki zizelkatua. Horrek abizen horren baitako patronatuak hainbat mendetan zehar leku horretan eta Arriaran, Astigarreta eta Gudugarretan izan zuen jatorri "dibisaduna" adierazten du, aurretiaz adierazi dugun eran. 34. argazkian Loinazko ermitak XX. mendearen erdialdera zuen itxura ikus daiteke. Bestalde, 35. argazkian mendebaldeko fatxadako arkupearen azpian, ermitara sartzeko ate txikiaren gainean paratuta, Arriaran Etxeko armarria ikus daiteke.

Honaino iritsita, ezinbestean galdera pare bat luzatu behar dugu ostera: Noiz eta nola heldu ote zen leku horretara Loinazko Ama Birjinaren tailu eder hori? Noiz eraiki ote zen ermita zahar hori? 36 eta 37 irudietan Loinazko Ama Birjinaren bi argazki ikus daitezke: Lehenengoan, jantzita ageri da, 1897an San Martin Loinazkoaren Martiritzaren hirugarren Mendeurrena ospatzeko egindako ospakizunetan atera zen moduan; bigarren argazkian, artzapez-barrutiak erlijio-irudiak erakusteko modu berriari buruz emandako manuen arabera, inolako jantzirik gabe. Donostiako Elizbarrutiko Museotik jasotako datuen arabera, aurrez aurreko tailu gotiko eder hori (bere dimentsioak: 19x80x17 zm), **itxura batean, XIV. mendekoa da**.

Loinatzgaraikoa baserria ermitarekin lotuta egon da betidanik eta, horren ondorioz, zailagoa da hari buruzko datuak topatzea. Hori dela eta, aurrekari gertukoenak bildu ditugu, XX. mendeko bigarren laurdeneko erdialdeari dagozkionak; hauek ziren orduan baserriaren ezaugarriak:

Alde batetik beheko solairua eta lehen solairua eta, beste alde batetik, bi solairu. Beti "Ermitauaren etxe" izendatu izan den baserriak 135,20 m^2ko azalera zuen sasoi hartan eta lau aldeetara bere baitako lurrek inguratzen zuten.

Baserri horren onibarrak 8.210,5 m²ko azalera zuen eta muga hauek:

Iparraldera, Juan Cortaberriaren lursailak; hegoaldera, errepide publikoa; ekialde eta mendebaldera, Abariako maiorazkoarekin lotzen zen Tirso de Olazabal y Lardizabalen jabetzako lurrak.

Aipatu "Ermitauaren etxe" horrek, aurrez deskribatutako etxaguntzak barne, 5.000 pezeta balio zituen XX. mendeko lehen laurdenaren amaiera aldera.

Ermita, baserria eta hartako etxaguntzak orain arte Arriaran Etxe zaharrarekin lotu izan direla esan dugu aurrez. Hori berresteko esan dezakegu Mercedes Montemayor y Gaytan de Ayalak, Arriarango Etxe horrekiko nolabaiteko lotura zuen azken jabedunak, "Ermitauaren Etxetxo" hori eta aurrez deskribatutako etxaguntzak bereganatu zituela, **Loinazko Ama Birjinaren ermitarekin batera**, bere ahizpa nagusiak, Maria de Montemayor y Gaytan de Ayalak 1946ko urriaren 31n legatu modura utzita.

Beranduago, 1948ko irailaren 16an hark etxea eta deskribatutako lur-eremuetako batzuk Jose Maria Irastorza Galparsorori saldu zizkion, Donostian bizi zen merkatari-harakin ezkongabeari. Jarraian jabedun berriaren eta baserriko azken maizterren arteko zenbait erregistro, auzi eta tirabira ikus ditzakegu.

Lehen sektore honi amaiera emateko, zera aipa dezakegu, 1864an Loinatzgaraikoa baserrian ("Ermitauaren etxetxo" izendatzen zena) Rezusta familia bizi zela, zehazki esatera, Esteban Rezusta eta Maria Juana Echeverria senar-emazteak, eta haien seme-alabak, Isidra, Vicente, Juan Martin eta Juan Felipe Rezusta Echeverria. Loinazko basilikan Ibarbia sendiak santu-egileen lanbide ona mantendu bazuen lau belaunalditan, Loinazko ermitan Rezusta sendia zen 1842az geroztik lanbide horretan ziharduena.

2. sektorea

Igartza

2 zenbakidun planoa



PLANOAN IKUS DAITEKEENA

Hasteko, hiru puntu zuri handirekin adierazten da proiektatutako trenbidearen ibilbidea.

A Errekartetxiki bidea mendi aldera.

B Loinazko San Martin edo Malezako (Sastraka) errekatxoa.

C Telleri baserria (agian akats batek eraginda, planoaren egileak Mekola izendatzen du).

CH Oria ibaiaren gainean eraikitako tren-zubia.

D Errekarteaundi baserria.

E Gaztelu baserria (Gaztelumuino ere izendatzen dena).

F Errekartetxiki baserria.

G Beatxurreta edo Bidatxurreta baserria (antzina Bereziartu edo Beraziartu).

H Agirreaundi baserria (antzina Arramendi ere izendatzen zena).

I Agirrezabal baserria.

J Errekarteko bidea (antzinako errepide nagusia).

K Oria ibaiaren ibilgua.

L Presa eta antzinako burdinolaren eta errotaren kanaleko bokalea.

LL 1863an "Segurako bide zaharrera" egindako desbideratzea, igarobide horretan zegoen bide-zorra mantentzeko egin zena.

M Igartzako jauregia.

N Dolaa baserria (Dolarea).

Ñ Olaberrirako bide zaharra.

O Maizenea edo Muruena eta Zapatari baserriak.

P Usategi baserria.

Q Segurako bide zaharra.

R Erementari baserria ("Igartzako Sutegia").

S Igartzako burdinolaren eta errotaren multzoa.

T Altamirako zonaldetik jaisten den errekatxoa.

U Trenbidea.

V Burdinola eta errotaren kanala.

X Olaberrirako bide zaharrean trenbidearen gainean zegoen zubi goratuaren kokapena.

Y Igartzako Erdi Aroko zubia.

Z Belengo ermita.

"ERREKARTEKO ESTRATA" BEGIZTATUZ

"Camino de hierro". Burdinbide izendatu dugu, dokumentuetan sarritan hala idazten baita. 1864an trenbide-tarte hori inauguratu zenean, Antzizar igaro ostean, trenbidearen ezkerrera gure irudizko bidaiariak ikusiko zukeen lehen gauza Telleria (Telleri) baserria da.

1862an plano hauek marraztean M. Ladamek Telleri baserria izendatzeko "Mekola" izena erabiltzen du. Agian akatsa da hori, izan ere, bostehun metro beherago Nekola izeneko baserria dago eta Ladamek erabilitako izenak antza handia du harekin. Horretaz aparte, ibilbidearen barnean agertzen diren gainerako kokapen eta izenak zuzen jarrita daude eta zehaztasun eta xehetasun handiz islaturik.

2. plano hau mendebaldetik ekialdera jarraituz (Lazkaibar aldera), zera ikus dezakegu, trenbidearen alboko zonaldean egileak ez duela beste baserririk marraztu trenbide berriaren eskuinaldera. Beasaingo baserri gehienak trenbidearen beste aldean daude, Oria ibaiaren iparraldeko ertzean. Aurrerago ikusiko dugu hori.

1864tik aurrera trenbidearen eskuinera altxa zen lehenengo eraikina Antzizarreko "hesi-zainaren" etxebizitza zaharra da, soilik 35 m²ko azalera zuena (aurrez esan dugunez). Gainerakoan, ordea, alde horretan ez zegoen beste eraikinik trenbide alboko zonalde horretan.

Egilearen arabera, zonalde horretan, goialdean eta behealdean, Beasaingo jurisdikzio barruan kokatuta zeuden baserriak, besteak beste, Zuntzunegi (antzina Gomendiadigoikoa izendatzen zena), Altamira, Txintxurreta (antzina Gomendiadi bekoa izendatua) edota Atari eder planoak aztertzen duen eremutik at kokatzen dira eta, agian, horregatik, proiektua sinatzen duen ingeniariak ez ditu inauguratzear zen ibilbideko 2. sektoreari dagokion plano honetan aipatu eta marraztu.

Askok pentsa dezakete Barrendain baserri zaharra eta Tapia baserri "bikiak" (txikiak taberna ere bazuen) urte horietan trenbidearen eskuinera lekutzen zirela. Dena den, aurrerago, geltokiari dagokion atalean ikusiko dugunez, hori ez da zuzena. Gero argi eta garbi ikusiko dugunez, bi eraiki zahar horiek trenbidearen ezkerrera kokatu ziren, betiere, mendebaldetik ekialdera, Lazkaibar aldera, hots, Beasaingo udalerriaren barruan ekialderago dagoen auzo aldera.

Guk, ordea, trenbidetik "Errekarteko estrata" izendatzen zutena begiztatzen jarraituko dugu. Dokumentuetan irakur daitekeenez, estrata hori Antzizarretik abiatu eta Telleri (planoan "Mekola" izendatzen dute) eta Errekarteaundi (Oria ibaiaren aldameneko errepide nagusi zaharretik auzora sartzeko egungo sarrera, ondoren, Loinazko San Martin basilikaraino luzatzen dena) baserrietara jotzeko bidegurutzea pasa arte luzatzen zen.

41. argazkian Errekarteaundi baserriko karobi zaharra adierazten da gezi zuri batekin, aipatu bidegurutzearen ondoan dagoena. Halaber, Errekarteaundi baserrirako sarbidea ere (aurreko lerroaldean esan dugunez, egun errepide bihurtu dena) ikus daiteke. 42. argazkian "igandezale" dotore batzuk ikus daitezke haien "lur orotarako ibilgailua" paseatuz, Errekarten dagoen karobi horren gibeleko sarreraren parean. Autoaren erdian dagoen pertsona Jose Luis Lasa da, orduan Zaldizurreta baserrian bizi zena.

Karobi hori 1862an artean martxan zegoen jakin nahi izan dugun arren, ez dugu argitzerik izan; 2. sektoreko plano orokorrari so eginez, eraikin hori artean eraikitzeke zegoela pentsatzen dugu, izan ere, marrazkiaren egileak ez du eraikin hori islatu. Hala ere, aieru hutsa da, ezin izan baitugu dokumentu bidez egiaztatu.

Orobat, 2. plano horretan 1970. urtera arte karobi horrek izan zuen kokapen zehatza adierazi dugu gezi zuri txiki batekin, hain zuzen, errekatxoaren eta Basilikara sartzeko errepide zaharraren artean.

41. argazkian B-B´ hizkiekin adierazten da San Martin edo Maleza izenez ezagutzen zen errekatxoaren ibilbidea, lurrazaletik Oria ibaiarekin nahastu arte, errepidearen azpitik. Errepidearen azpiko lehenengo lurperatze hori Ibero arkitektoak gauzatu zuen, XVIII. mendeko bigarren erdialdean Gatzaga-Arlaban alderako errepidearen ibilbide berria proiektatu zuenean.

Iberoren jatorrizko proiektuan errepidearen azpian paratutako eroate-gangek izan behar zuten zabalera eta altuera zehazten zen, hala Maleza izeneko errekatxo horretan nola aurrerago zegoen errekatxo txikiagoan, hau da, Errekartetxiki izenekoan. Azken hori aurrekotik 100 metrora zegoen soilik (eta halaxe dago oraindik, nahiz eta orain goitik lurrez estalia igarotzen den), betiere, Igartzako zubirantz. Gaur egun, jauregiaren parean dagoen kontrako ertzetik ibaira nola irteten den ikus daiteke oraindik.

2a plano-zati handituan zonalde hori guztiori ikus daiteke, inguru horretako baserrien kokapen zehatza adierazita. Baserri horiek banan-banan aipatuko ditugu jarraian. Plano handian errepidetik aurrez aipatutako bi baserrietara doan bidearen hasiera ikus daiteke. Halaber, ikus daiteke sarbide hori antzina bitan banatzen zela ia amaiera aldera. Horietako bat, C hizkiarekin adierazten dena Telleria aldera zihoan eta, bestea, D hizkiarekin adierazten dena Errekarteaundi aldera.

2a plano-zati handituan ere agertzen da San Martin edo Maleza izeneko errekatxoa, B hizkiarekin adierazita; bestalde, E hizkiarekin Gaztelumuino adierazten da, F hizkiarekin Errekartetxiki eta A hizkiarekin adierazten da Errekartetxikiren eskuinaldetik Arrieta baserrirantz igotzen zen bide zaharra.

Orduan errepide nagusi zena, hain zuzen, Irun-Madril errepidea, 2. plano honetan J hizkiarekin adierazten da. Planoaren egileak ez zuen marraztu San Martin Loinazkoaren basilikarantz abiatzen zen bi-

dearen segida hori. Ziurrenera, ez zitzaion beharrezkoa irudituko trenbidearen ibilbidea ezagutzeko gerora egin zuen lanari so.

Baina utz ditzagun itzuli-mitzuliak eta egin dezagun atzera ehun eta berrogeita hamar urtez, urra dezagun gogamenean aipatu bide hori, hots, sarbide gisa erabiltzen zena Telleri, Errekarteaundi, Errekartetxiki, Gaztelumuino baserrietarako eta planoaren egileak zonalde horretan adierazitako gainerako baserrietarako, besteak beste, Beatxurreta (planoan Beachuerreca agertzen da eta antzina Bereziartu edo Beraziartu izendatzen zen), Agirreaundi (zenbaitetan Arramendi izendatua, hartako antzinako jabeduna bezalaxe) eta Agirrezabal.

Usurbe mendiaren azpialdeko mazelan kokatutako (dagoeneko Igartzako gunearen parean) baserriei dagokion atal honetan banan-banan gainbegiratuko ditugu.

"ESTRATAREN" EZKERRERA KOKATUAKO BASERRIAK

TELLERI izango litzateke gure bidaiariek urte haietan trenbidearen ezkerrera ikusiko luketen lehen eraikina, orduan "Errekarteko estrata" izeneko zonaldean. Gauza bera ikusiko luke galtzada bakartu hori urratuz Antzizarretik Igartzarantz zihoan irudizko oinezkoak, hark ere ezkerrera ikusiko bailuke.

Baserri horri buruz badira idatzizko aipamenak, gutxienez, 1567az geroztik. Hala, haren historia xume eta apalean murgilduz goazen heinean ikusiko dugu sekula ez zela izan Igartzako jauregiko jaunen jabetzakoa. 1862. urtean artean ez zegoen Beasaingo jabedun baten eskuetan, izan ere, XIX. mendearen erdialdera Juan Ignacio Argaya, Legorretako seme ahaltsu eta diruduna, zen haren jabea.

Hura eta haren emazte Maria Josefa de Camio (hau ere Legorretakoa) Beasaingo zonalde horretan gutxienez hiru baserriren jabe ziren urte haietan: Iturrazpeazpikoa, Iturrazpe garaikoa eta Telleri izeneko hau, aurrez aipatu bezala. Hiru baserri horietako bakoitzari zegozkion etxaguntzei so, argi ikusten da haietako zenbait lur, aldi berean, heren batean, aipatu hiru etxeetako lursailekin partekatzen zirela.

Erreparatu berriro 12 eta 13 argazkietan Iturrazpe garaikoa eta azpikoa baserriak ikusteko azken urteetan. Halaber, begiztatu 44. argazkian Telleri baserri zaharra, haren alboan XX. mendeko lehen laurdeneko amaiera aldera eraikitako beste eraikin txiki bat ageri dela, bi solairu eta ganbara dituena.

Gizon hura hil zenean jabetza hori emazteak eta haien lau seme-alabek (Bartolome, Juan Jose, Jose Florencio eta Sabina Argaya Camio) jaso zuten herentzian. Herentzia hori 1857ko urtarrilaren 28an jaso zuten, trenbideari dagokion plano hau sinatu baino bost urte lehenago. Gogoan izan, gure oinezko bidaiariak trenbidearen irudizko ibilbide hori egiten ari direla.

1857an Juan Ignacio Argaya zenduaren abokatu pertsonal ziren Pablo Gorosabel eta Miguel Garmendiak Argaya familiak zituen jabetza guztien kontularitza egin behar izan zuten. Horien artean zeuden Beasainen lekutzen ziren aipatu hiru baserriak. Inbentario burutzen ari zirela seme nagusiena, Juan Jose Argaya ere hil egin zen. Horrenbestez, eta Jose Florencio eta Sabina Argaya Camio anai-arrebek artean 25 urte ez zituztenez, ondasunak banatu egin behar izan ziren. Banaketa haiek Tolosako Epaileak onetsi zituen, 1857ko urtarrilaren 28an sinatutako ebazpen bidez.

Telleri baserriak 195 beloi-dukateko karga besterik ez zuen garai hartan.

Telleri baserri zaharra (44. argazkian ikusten den txikiena) Beasaingo Mendebaldeko Zatian zegoen kokatuta, 20 zenbakian. Eraikuntzak 255 m²ko azalera zuen. Mendebalde, iparralde eta hegoaldera, etxeari zegozkion etxaguntzak zituen mugakide eta etxearen ataurreak ekialdera begira zeuden.

Eraikin zaharrak beheko solairua eta goiko solairuaren fatxada "oholez itxita" ageri zen, orduan ohikoa zen moduan. Antzeko oholezko itxitura ageri zuten Antzizarreko goialdeko zonaldean kokatutako Iturrazpe azpikoa eta garaikoa baserriek. Hauek ere Argaya familiaren jabetzakoak.

Telleria etxearen hegoaldeko fatxadan aparteko teilape bat zegoen ogia egiteko labe batekin. Beste bi baserriek ere antzeko teilapea zuten. Baserriaren balioa, hartako etxaguntzak aparte utzita, 9.459 beloi-erreal eta 64 zentimokoa zen 1862an.

Telleria baserriaren ataurrean, era berean, baziren zenbait lur. Ataurreko lur-eremu horrek etxeari zegozkion lurrak zituen mugakide iparralde, hegoalde eta mendebaldetik; ekialdetik, berriz, errepidea zuen mugakide. Lur-eremu horren hedadura sei ondo eta 58 ehunenekoa zen eta 276 beloi-erreal eta 36 zentimo balio zuen.

Horiez gain, etxearen baitakoak ziren **Etxeburua** eta **Etxeazpia** izeneko lurrak. Lur horien azalera 13.093 m2koa zen eta ekialdera errepidea eta etxea zituzten mugakide.

Jabetza horretakoa zen, halaber, **Loinatzaldea** izenekoa, 94 ondoko edukiera zuena (56 ondo ereiteko lurretan eta beste 38 ondo lugorritan), hots, 3.230 m^{2}ko azalera zuen. Haren balioa 2.132 errealekoa zen.

Orobat, **San Martin aldea** izeneko lursaila etxearen baitakoa zen. Honek 5.945 m^{2}ko azalera zuen eta haren balioa 1.903 errealekoa zen, bertako zuhaiztia barne.

Baserri honi **Urbitxipialdea** izeneko lursailaren herena zegokion. Gauza bera gertatzen zen Juan Ignacio Argaya eta Maria Josefa de Camio senar-emazteen jabetzakoak ziren beste bi baserriekin, hots, Urbitxipialdea izeneko lursailaren 399 ondoak Telleria eta Iturrazpe baserrien artean banatzen ziren. Lursail horrek, horrenbestez, 13.711 m^{2}ko azalera zuen orotara. Haren balioa 286 beloi-errealekoa zen.

Zonalde horretan trenbidea eraiki zen garaian Jose Antonio Lasa eta Maria Lucia Arteaga senar-emazteak eta haien seme-alabak, Jose Martin, Maria Martina eta Maria Antonia Lasa Arteaga bizi ziren Telleria baserri zaharrean.

Igartzako jauregitik hurbil egon arren, esan dugunez, Telleria baserria ez zen Igartza etxearen baitakoa; bada, harrigarria bada ere, aipatu baserriaren ekialdera zeuden Errekarteaundi, Gaztelumuino, Errekartetxiki eta Beatxurreta ere ez ziren Igartzaren baitakoak.

Har dezagun lehenik eta behin, Errekarteaundi etxea, aipatu ditugun bost baserrien artean garrantzitsuena baita, eraikuntzak eta etxaguntzek hartzen duten azalerari dagokionez, behinik behin; 43. argazkian baserri hori ikus daiteke, zaharberritu aurretik.

Jakingarri da, orduan Tolosan bizi zen Jose Manuel Barrenechea Lapazak, Vargasko markes izan zenak, bereganatu zuela lursail hori Zeraingo maiorazko zahar eta ugariaren ondorengo modura. Maiorazko hori haren senitarteko Jose de Chiribogak sortu zuen. Azken hura aipatu baserriaren jabedun gisa azaltzen zen 1642ko uztailaren 11ko eskritura publiko batean. Eskritura hori Diego Martinez de Vienna eta Domingo Arrimasagastik onetsi zuten, Zeraingo eta Segurako eskribau zirenek, hurrenez hurren.

Beranduago, Errekarteaundi etxea errentan izan zen Fernando Barrenecheak (Jose Manuelen anaia eta ordezkoa Vargasko markes modura) Jose Manuel Ubillosen alde "bizi artean" errendatu ostean. Azken hori ordiziarra zen. Hori guztiori inskripzio orokorretako zazpigarren liburuko, zazpigarren folioan, bosgarren inskripzioan jasotzen da, jabetza horren gainean beste betekizunik izan gabe.

ERREKARTEAUNDI izango zen Telleria baserria igaro ostean gure bidaiariak ikusiko lukeen hurrengo etxea, bigarrengotik ehun metro eskasera. Etxetzar horri buruz ere aspaldidanik jasotzen dira idatzizko aipamenak, hain zuzen, XVI. mendearen lehen erdialdetik, gutxienez. Honatx XIX. mendeko bigarren erdialdera Errekarteaundi baserriari buruz egindako deskribapena:

420 m^{2}ko azalera eraikia zuen eta haren egitura beheko solairuak, lehen solairuak eta ganbarak osatzen zuten. Iparralde, ekialde eta hegoaldera etxearen jabetzak zituen mugakide; mendebaldera, orduan San Martin Loinazkoaren basilikara abiatzen zen errepide publikoa zuen muga(orain errepidea).

43. argazkian gezi zuri batez adierazten da dagoeneko errepide bihurtu den errepide zahar hori. 1877an balioetsi zen etxea, eta eraikina soilik aintzat hartuta, 14.353 erreal eta 20 zentimoko balioespena egin zen.

Honatx hartako etxaguntzen zerrenda:

Etxeazpia lur-eremua eta hartako ataurreak, 15.600 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta beste 800 m²ko azalera belarditan; hauek ziren lur-eremu hartako mugak:

Iparraldera, Gaztelumuino baserriaren jabetzako lursail baxua; ekialdera, Errekartetxikiren jabetzako lureremu bat, izen bereko errekastoa zuena; hegoaldera, Erret bidea; eta mendebaldera, etxea eta errepidea.

Lursail hori zen, ziur aski, baserriak zuen garrantzitsuena eta 1877an, balioespena egin zenean, 28.560 beloi-errealekoa zen haren balioa (etxeak balio zuenaren bikoitza ia).

Ugarka izeneko lur-eremuak 8.300 m² zituen ereiteko lurretan eta beste 1.315 m² belarditan. Honatx haren mugak: iparraldera, Erret Bidea; ekialdera, Igartzako jauregiko lursail bat; hegoaldera, Oria ibaia; mendebaldera, Martin Ibarrolaburu Galarragaren lureremua. Aipatu gizonak, urte haietan, jabetza ugari zituen, horien artean Kaminpea lursaila, Antzizar etxearen alboan kokatua (aurrez, Antzitzar-Ubillotz sektorean sakon aztertu dena), eta baita Bidearte handi etxea ere, Beasaingo herrigunean lekutua. Lursail horren balioa 15.772 erreal eta 20 zentimokoa zen.

Telleriazpia lursaila, 6.000 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta beste 620 m² zituena belarditan. Honatx haren mugak:

Iparraldera, Telleria baserriko lursaila bat; ekialdera, errepide publiko bat; hegoaldera, Igartza Jauregiko lursail bat eta Erret Bidea; eta mendebaldera, Gaztelumuino baserriko lurrak. Aztertu berri dugun lursailak 11.060 beloi-erreal eta 40 zentimo balio zuen.

Etzaga izeneko gaztainadia, 1.692 m²ko azalera zuena eta muga hauek: iparralde, mendebalde eta hegoaldera, San Martineko Amunabarro baserriko lurrak; eta ekialdera, Loinatzazpikoa baserriko lursail bat. Lur-eremu horrek 406 beloi-erreal eta zortzi zentimo balio zuen.

Iñasti izeneko lur-eremua, 11.350 m²ko azalera zuena eta muga hauek: iparraldera, "Beachurta-Muñoa" baserriko (Beatxurreta edo Bereziartu baserria, zeinaren egoile eta familia-buruak Muñoa abizena zuen orduan) lursail bat; ekialdera, Arrieta baserriko lurrak; hegoaldera, Agirreaundi baserriko (zenbaitetan Arramendi izenez ere agertua) lursail bat; eta, mendebaldera, San Martin edo Maleza izeneko errekatxoa. Jabetza horren balioa 1.497 beloi-errealekoa zen.

Barrutitxo eta **Sagastizar** izeneko lursaila, 3.000 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta beste 13.540 m² gaztainadi eta hariztiz beteta. Muga hauekin: iparraldera, San Martin edo Amunabarro baserriko beste lursail bat; ekialde eta mendebaldera, errepidea; hegoaldera, Loinatzazpikoa eta Telleria baserrietako lurrak eta errepidea. Lur-eremu horren balioa 6.971 beloi-erreal eta 20 zentimokoa zen orduan.

Ibaiondo onibarra, 534 m²ko azalera zuena haitzez beteta eta muga hauek: iparralde eta mendebaldera, San Martin edo Maleza izeneko errekastoa; ekialde eta hegoaldera, errepidea. 127 beloi-erreal eta 16 zentimo balio zuen.

Ibaiondo izen bera zuen beste lursail bat, 522 m²ko azalera zuen, hau ere harkaiztia. Muga hauekin: iparraldera, Erret Bidea; ekialdera, San Martineko errepidea; hegoaldera, Oria ibaia; eta mendebaldera, Errekartetxiki errekastoa. 1.235 beloi-erreal eta 28 zentimo balio zuen.

Lur-eremu horiei buruzko deskribapena egin ostean, etxetzar horren baitako onibarrak zehaztasun gehiagoz koka ditzakegu. Berriz esango dugu Errekarteaundi baserria zela aipatu ditugun bost baserrietan garrantzitsuena (bere balio historiko ukaezina aparte utzita). Kasu honetan, eraikinaren eta hartako etxaguntzen gainean egindako tasazioa oinarritzat hartuta, izan ere, orduan 79.873 beloi-erreal eta 52 zentimoko zenbatekoan balioetsi ziren. Hala ere, ezin izan dugu Errekarte izeneko oinetxe historikoari buruzko deskribapenik topatu, nahiz eta funts eta artxibategi askotan arakatu dugun. Argi dago, dena den, ez zuela egun duen itxura izango.

Etxe hau, esan bezala, ez zen Igartzako jauregiaren baitakoa. Dena den, noble-titulua zuen beste Etxe garrantzitsu baten baitakoa zen, zeinaren baitan dagoen, aldi berean, beste jabetza batzuen artean, Tolosako herrigune historikoan dagoen jauregi ezaguna. Halaber, ezkontzaz, bazuen nolabaiteko lotura Seguran zegoen beste Etxe batekin, hots, herri horretan kokatutako Zurbano jauregiarekin. Gaur egun, eraikin historiko osoa Kultura-etxe bihurtu da.

Ikus ditzagun Errekarteaundi baserriak izan zituen jabedun ezberdinak: XIX. mendearen erdialdera Jose Manuel Barrenechea Lapaza, Vargasko markesa, zen etxearen jabea, 1848ko urtarrilaren 19an Tolosan hil zena. Testamenduari zegokion auzia Jose Manuel Aguirre Miramonek gidatu zuen, Tolosako Lehen Auzialdiko Epaileak. Hark, 1849ko martxoaren 31an ebazpena eman eta Fernando Barrenechea Lapaza Segurako semea izendatu zuen zendutako anaiaren oinordeko modura, aipagai dugun Vargasko maiorazkoaren loturari dagokionez soilik.

Baina, berriz ere pertsona hau agertu denez: Nor zen Tolosan bizi eta hil zen Vargasko markes hori? Etxeari buruzko hainbat dokumentu aztertu ostean, noble-titulu hori 1700. urteko otsailaren 2an Carlos IIak onartu zuela irakur daiteke; titulua, orduan, Bizkaiko jaurerriko noble batek jaso zuen, hain zuzen, Antolin de Vargas y Lezamak. Hortik aurrera titulua besterendu egin zen pertsona hauengana iritsi arte, ordurako Tolosako Vargas Jauregian finkatuta.

Hala ere, kasu honetan, herentzia hori bi zatitan banatu behar izan zen eta notario aurreko zozketa egin; zati bat, Maria Luisa Zurbanok (Segurako Zurbano Etxekoa) jaso zuen, Juan Manuel Barrenechea Lapaza, Vargasko markesaren alarguna baitzen; beste zatia, Fernando Barrenecheak eskuratu zuen, aipatu andrearen koinatuak. Azkenik, Errekarteaundi jabetza bigarrenak bereganatu zuen, probintziako hainbat jurisdikziotan sakabanatutako beste zenbait jabetza bezala.

Halaber, Epaile hark gidatuta kontularitza egin zen. Hark, 1849ko azaroaren 19an eman zuen ebazpena, horrenbestez, 1850eko otsailaren 21ean Zerainen jaso zuen Fernando Barrenecheak mintzagai dugun jabetza, Jose Ignacio Aguirrezabala eskribauaren aurrean, Zeraingo plazan.

Braulio Alustiza eta Juana Aranburuk, Fernando Barrenechea Lapazaren "kausadun" zirenek, haren alde erregistratu zuten aipatu oinordetza-titulua. Dena den, erregistro horretan, hasiera batean, ez zen aipatu lursail hori Jose Manuel Barrenechea Lapazaren jabetzakoa zenik. Hori guztiori, 1851ko irailaren 1ean egindako Kontularitzari dagokion lekukotzan jasotzen da, Tolosan, herri hartako eskribauak, Jose Vicente Soseagak, idatzi zuenez.

1853an Braulio Alustiza eta Juana Josefa Aramburuk jaso zuten jabetza herentzian, baldintza batekin, hau da, lursail horretako zati bat Braulio Alustizaren iloba zen jaraunskide baten alde utz zedila "bizi artean".

Azken hori Segurako jabedun eta herritarra zen orduan, ezkondua eta 32 urte zituena; Juana Josefa Aramburu Iturzaeta ere segurarra zen, alarguna eta 62 urte zituen. Hori guztiori 1866ko irailaren 6an erregistratu zen, trenbidearen ibilbidea sinatu eta soilik lau urtera.

Aurrerago, "Fabrikari" dagokion sektorean, (orduan F.H.S.M. izena zuena, geroago Goitia y Compañía, Maquinista Guipuzcoana eta S.E.C.M. izenak hartu zituena eta beranduago Bagoi Fabrika ere izendatu zena) ikusiko dugunez, 1892an Braulio Alustiza jadanik Goitiarren Maquinista Guipuzcoana fabrika berriko akziodunen artean agertzen zen eta, era berean, jabetza ugari zituen Senpere-Lazkaibar zonalde horretan, horietako asko Torretagleko markesarengandik jasoak.

1932ko maiatzaren 2an Errekarteaundi baserriaren erdia Braulio Alustizaren semearen izenean erregistratu zen, hots, Cornelio Alustiza Domereqen izenean. Orobat, ekitaldi hartan ukatu egin zen jabetza horren banatu gabeko beste erdia erregistratzea. Errekarteaundi baserriarekin lotuta ikusten dugun azken erregistroa berriagoa da, ia gure garaikoa, izan ere, 1976ko maiatzaren 16an gauzatu zen eta Alejandro Barandiaran Alustiza izan zen onuraduna.

XIX. mendeko bigarren erdialdearen hastapenetan bi familia bizi ziren Errekarteaundi baserrian:

Alde batetik, Jose Maria Dorronsoro eta Josefa Berasiartu senar-emazteak eta haien alabak, Dominica eta Antonia bizi ziren, Francisca Ignacia Eleicegui amarekin eta aitaren anaia zen Jose Joaquin Dorronsororekin batera; beste alde batetik, Martin Jose Larrea eta Josefa Antonia Ayarza senar-emazteak bizi ziren, haien bost seme-alabekin: Casilda, Jose Maria, Pedro, Maria Antonia eta Manuela Larrea Ayarza.

43, 44, 45, 46 eta 47 argazkietan Errekarteaundi, Telleria, Errekartetxiki, Gaztelumuino eta Beatxurreta baserriak ikusten dira hurrenkera horretan. Azkena, hala ere, aurrekoetatik hurbil egon arren, Agirreaundi eta Agirrezabal baserriekin batera deskribatuko dugu. Horrela egingo dugu, hiru baserri horiek mendiaren azpialdeko hegalaren parera lekutzen direlako, hain justu, "Igartzako iparraldeko mendi-mazelaren er-

dialdera", begiratu ditugun dokumentuetan irakurri dugunez.

Beste argazki batzuetan ikusiko dugunez, Gaztelumuino baserri zaharra Errekarteaundi baserriaren gainean zegoen, egun, Dorronsoro-Ibarbia eta Elosegi-Ibarbia sendien bi familiako txaleta dagoen lekuan. Luis Maria Mugicak baserri horren esanahiari buruz dioenaren arabera: Gaztelu (gaztelua) - muño (muinoa), dena den, gaineratzen duenez "gaztelu hitza ez dugu ulertu behar Gaztelako lurretan ematen zaion esanahiarekin". Loinatzetik gertu paratzen den baserri zahar horri buruz ere badira idatzi zaharrak, 1637an geroztik gutxienez. Ikus 48. argazkian Errekarteaundi eta Gaztelumuino baserriak, beste angelu batetik.

Beasaingo baserriak kokatzen asmatzen ez dutenentzat, 49. argazkian lau baserri horiek adieraziko ditugu eta, horiez gain, Beatxurreta (Beraziartu edo "Bereziartu), Dolarea, Agirreaundi (zenbaitetan Arramendi izendatua) eta Agirrezabal ("Artzal").

Modu horretan, urte asko igaro ostean, leku polit horretan aldaketa handi eta atzeraezinak gertatu diren honetan, "Beasaingo zonalde hain apartatu" horretan lekututako baserri bakoitzaren kokapena ikusi eta oroitzeko abagunea izango dugu. Hobeki ulertze aldera, irudi argigarri horretan jarraibide hauek adieraziko ditugu:

1 zenbakiarekin adieraziko dugu Dolarea; 2 zenbakiarekin Telleri; 3 zenbakiarekin Errekarteaundi; 4 zenbakiarekin Gaztelumuino; 5 zenbakiarekin Errekartetxiki; 6 zenbakiarekin Beatxurreta; 7 zenbakiarekin Agirreaundi eta 8 zenbakiarekin Agirrezabal.

50. argazkia aurrekoa baino apur bat beherago eta ezkerrerago aterea dago. Bertan Dolarea etxetzarra ikusten da oso-osorik eta aurreko baserrien zenbakikuntza bera mantentzen da, izan ere, haietako batzuk argazki honetan ere ikusten dira. 50. argazkian agertzen zaizkigun eraikuntza berriak horrela adieraziko ditugu:

9 zenbakiarekin Igartzako jauregia; 10 zenbakiarekin errota hartzen duen eraikina; 11 zenbakiarekin Igartzako Maizenea edo Muruena; 12 zenbakiarekin Errementari etxeko teilatuaren zati bat.

Zapatari eta burdinola ezin dira argazki horretan agertu, izan ere, ezkerreko ertzetik haratago daude finkatuta. Azpialdean, ezkerreko erpinean Matiasenea txaletari dagokion zati bat ikusten da, hau ere 2005ean eraitsia.

Bi argazkiei arretaz begiratuko diegu, izan ere, Igartza-Loinatz zonaldeko landa-paisaia zahar hori, 1862an gure irudizko oinezko edo bidaiariek ikusiko zutenaren antzekoa izango zena, dagoeneko argazkietan baino ez ditugu ikusi ahal.

Bi argazki horietan argazki askotan agertzen diren laborantza-lur horietako asko ikusten ahal dira. Bi argazki horietan agertzen diren baserrien etxaguntza ugarien deskribapena arretaz irakurtzen badugu, oso ongi identifika daitezke lur horietako asko.

Zonalde horretako etxaguntza ezberdinetara iristeko zeuden errepide ugarien arteko lotuneak ere oso ongi ikusten dira, beste argazki batzuetan ere egokiro ikusi ahal izango dugunez. Horiek aurrerago ikusiko ditugu, bai sektore honetan eta baita gainerakoetan ere.

Aurreko bi argazki horiek bata bestearen alboan jarrita, nahikoa ongi osa eta uler daiteke Igartzako zonaldeak gordetzen zuen landa-paisaia zaharra. Halaber, baserri bakoitzaren kokapen zehatza ikusi ahal da. Baserri horietako batzuk eraldatu eta etxe erosoagoak eraiki dira, beste batzuk, ordea, zoritxarrez desagertu egin dira edo eraistear daude, ezelako errespeturik ez duten eta eremu oro inbaditzen duten hormigoi eta adreiluak janda. Usurbe mendiaren ingurumarietan dagoen hegoaldeko hegal luzea zementuz betetzea besterik ez da falta.

Jarraian, zonalde zabal eta enblematiko horretan kokatutako eraikuntzak aipatu eta erakutsiko ditugu banan-banan. Planoaren egileak, egitear zen trenbidearen ibilbidetik urrun zegoela iritzita, San Martin zonaldea marraztu ez bazuen ere, 51 eta 52 argazki zatituak erakusgarri direla usten dugu. Horietan XX. mendearen hasieran (lehen hamarkadaren amaiera aldera ustez) ospatutako prozesio bat ikusten da. Horiei so eginez, bide bazterretan San Martineko ibar nahasi eta malkartsu hori (Maleza izenez ere ezagutzen dena) famatu zuten gaztainondo itzeletako batzuk antzeman daitezke.

53. argazkian San Martineko aldare zaharra dugu ikusgai, 1897an; eta 54. argazkian, manifestaldi musikal eta gastronomiko bat, ostatu zaharraren eta basilikaren artean dagoen atariaren barruan. Gastronomiko hitza gaineratu dugu, argazkian hainbat zerbitzari ikusten direlako haien lanerako tresnak hartuta mahaiak zerbitzatzeko eginkizunean.

Argazkia ekarri dugu, aurpegi ezagun asko agertzen direlako, esate baterako, Telleria maisua pianoan, Cerrajeria zirelakoak, Herrera, Olano, Mendia, Oyarbide, Arguiñano, Aranburu, Aguirre, Bueno argazkilari profesionala, La Salle ikastetxeko anaiak eta, baita apaiz gazte bat ere, beranduago idazle ospetsu izan zena eta "Juan de Iturralde" ezizena hartu zuena. Azken hori Altamira baserrian jaio zen 1897ko maiatzaren 20an. Sotilki markatzen dugu bera, bere gorputzera zuzendutako gezi horizontal zuri batekin.

Baina egin dezagun atzera eta har dezagun orain 46. argazkia. Bertan, Gaztelumuino baserria eskuinera agertzen da, horrela izendatzen dena muino txiki horretan finkatuta dagoelako. Aurrerago jarraituko dugu Igartzako auzo handi bezain berezi honetako gainerako etxetzarrekin, 1862. urtean sinatutako 2. sektorearen plano orokorrean horren argi islatzen direnak. Modu horretan, gogoa pittin bat astinduz, gure irudizko bi-

Loinazko basilikaren aldarea.

daiariek zonalde hori guztiori duela ia 150 urte nola hautemango zuten ulertuko dugu.

Lehen lau baserriak adierazita eman ditugu antzinako eraikuntzek hartzen zuten kokapenean. Errekartetxiki eta Gaztelumuino barne (txalet bihurtu aurretik). Nekez ulertzen dugu, zonalde horretan zeuden lursail onenak, errepidearen alboan zeudenak, hots, lau baserri horietako etxaguntzak, Igartza etxe ahaltsuaren kontrolpean ez izatea, izan ere, aipatu Etxeak Beasaingo lurraldearen ia laurdena menderatzen zuen artean XIX. mendearen erdialdera.

Baina halaxe da, izan ere, Telleria (Iturrazpeazpikoa eta garaikoa baserriekin batera), Legorretako Argaya-Camio sendien jabetzakoa zen eta aurreko lerroaldeetan aipatu ditugun beste hiru baserriak Segurako Zurbano jauregiko leinu ahaltsuaren adar ezberdinen baitatik igaro ziren gerora.

Horietako zenbait, esate baterako Errekarteaundi, gutxienez 1642az geroztik Zeraingo maiorazko zaharraren baitakoa, Segurako jauregi horretako oinordekoen eskuetan egotera pasa zen zuzenean, aurreko lerroaldeetan aipatu dugunez. Segurako jauregiko Zurbano Etxe horretan oso ongi islatzen dira Gipuzkoa zahar honetako familia ahaltsuenetako batzuen artean sortutako ezkontza bidezko ahaidetasunak, gehienetan tituluak, boterea, prestigioa eta ondasuna areagotzeko xedez. Gipuzkoan eragin handia izan duten familiez ari gara, besteak beste, Zarauz, Cerain, Zurbano, Monzon, Otazu, Alcibar, Altuna, Zabala edo Olaso sendiak.

Aurrerago xehetasun gehiagoz mintzatuko gara horiei buruz.

GAZTELUMUINO urte horietan Beasaingo Iparraldeko Zatian zegoen, 25. zenbakian. Eraikinak muga hauek zituen:

Hegoalde, ekialde eta mendebaldera, hartako etxaguntzak; iparraldera, etxeko teilape-estalpea, logika handiz Etxeordeko izendatzen zutena, eta ogia egiteko kanpoaldeko labea. Azken muga hori, besteak beste, Arrieta eta Otaño baserriak kokatzen ziren zonalderantz igotzen zen errepideari eta Maleza inguruko mendiei beha zegoen. Gaur egun, errepide hori auzo-bide estu bat besterik ez da.

Eraikin zaharrak beheko solairua eta goiko solairua zituen. Behekoan atalondoa, sukaldea, bi gela eta animalientzako ukuilua barneratzen ziren. Goikoan, berriz, ganbarak lekutzen ziren. Baserriaren oinak 170 m²ko azalera zuen eta hartako jabeak baserriko egoileak mantentzeko esleitutako lurrek 5 hektareako (50.000 m²) hedadura hartzen zuten.

Etxeordeko (orduan teilape-estalpe izendatzen zena) etxeari erantsita zegoen iparraldeko fatxadatik (Maleza eta mendietara begira). Haren azalera 36 m²koa zen.

Etxeingurua izeneko lurra, izenak esaten duen moduan, etxearen inguruan zegoen. Hauek ziren onibar horretako mugak:

Iparraldera, Amunabarro baserriko etxaguntzak eta Pedro Joaquin Lizarralderen lursailak; hegoaldera, Errekarteaundi baserria eta hartako lurrak; ekialdera, Errekartetxiki etxea eta mendirantz egiten zuen bidea; ekialdera, bestalde, Maleza edo San Martin izeneko errekatxoa zen mugakide.

Muga horien barruan **Errekartetxikialdea** izeneko erein-lurra zegoen, 2.017 m²koa. Horrez gain, bazen beste erein-lur bat ere, 2.044 m²koa.

Gainera, **Sanmartinaldea** izeneko lursaila, 1.239 m²ko azalera zuena.

Etxeburua, etxearen aldamenean kokatutako etxea, 359 m²koa.

Errekaaldekosorotxikia, errekatxoaren ondoko onibarra, 800 m² azalera zuena.

Sanmartinaldea izen bereko beste lursail bat, belazea, 979 m²ko azalera zuena.

Izen gabeko beste lur bat, 3.810 m²ko azalera zuena, aldi berean, gaztainondo helduak barneratzen zituena.

Mintegiondo, 200 m²ko azalera zuena eta haritz helduak barneratzen zituena.

Beste 5.112 m² ere baziren, lur mistoak horiek, otadi eta otalurrez osatua.

Horri guztiorri honakoa gaineratu behar zaio: ezponda, bide eta errekasto zonalde batez osatutako 720 m²ko azalera, ataurreen 468 m²ak eta beste 1.460 m², horiek bidez beteta ia osorik.

Bekosoroa da etxeari zegokion azken lursaila, errepidetik hurbil kokaturikoa eta muga hauek zituena:

Iparralde, ekialde eta mendebaldera, Telleri baserriko lurrak; hegoaldera, Igartzako etxeko jauna zen Granada Egako dukearen lursail batzuk, 3.627 m²ko azalera zutenak, orain ereiteko lur. Lursail horrek 7.500 pezeta balio zituen gutxi gorabehera.

Garai hartan, Gaztelumuino baserriko jabedunak ere Beasaingo jurisdikzioaz kanpokoak ziren, izan ere, haien ohiko bizilekua Segurako herria zen. Esteban Zurbano Monzon (1820-1890) dugu mintzagai kasu honetan, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia izan zena. Seguran jaio eta hildakoa, bere izen bereko jauregian (egun Kultura-etxe izateko zaharberritu dena). Gizon hark bere arreba Maria Luisa Zurbanoren (Tolosako Vargasko markesaren alarguna) eskutik jaso zituen Gaztelumuino baserriko jabetzak. 1856ko ekainaren 29an (trenbidearen ibilbideari dagokion plano hau egin baino soilik sei urte lehenago) Beasainen Melchor Ezcurdia herriko eskribauaren aurrean egindako eskritura publikoak berretsi zuen hori.

Gerora, Luis eta Maria Dolores Zurbano Alcibarrek heredatu zituzten jabetza horiek. Anai-arreba horiek ezkongabeak ziren biak eta urte horietan Seguran bizi ziren. 1938ko martxoaren 21ean Luis Zurbano hil egin zen aipatu herrian eta haren arrebak eskuratu zituen jabetza guztiak. Azkenik, Maria Doloresek jabetza horiek urte hartako urriaren 5ean erregistratu zituen Segurako herrian.

Jabetza horiek Beasaingo Ibarbia sendiaren eskuetara noiz igaro ziren jakite aldera (familia horretako zenbait kide "Santu-egile" izan ziren Loinazko basilikan lau belaunaldiz jarraian), 1940ko maiatzaren 24an paratu behar gara. Egun hartan Maria Dolores Zurbano Alcibarrek Gaztelumuino baserria eta deskribatutako jabetzak Dolores Ibarbia Urquiari saldu zizkion 11.000 pezetaren truke. Ibarbia anderea ezkongabea zen, adinez nagusia eta Beasainen bizi zen, eta eskudirutan egin zuen ordainketa.

1862an, hain zuzen, jarraitzen ari garen trenbidearen ibilbideari dagokion planoa sinatu zen urtean, hauek ziren Gaztelumuino baserrian bizi zirenak: Jose Antonio Maiz eta Francisca Zurutuza senaremazteak, haien semea, Jose Domingo Maiz Zurutuza, aitaren bi anaia ezkongabe eta morroia, Jose Domingo Aranburu.

Leku enblematiko hau ezagutzeko gure bidaiarekin jarraituz, Igartzako jauregiaren baitakoa ez zen azken baserrian jarriko dugu orain arreta. 45. argazkian ikusten da Errekartetxiki izeneko baserri hori, beheko aldean paratzen da errepiderantz, Gaztelumuino etxetzarraren ostean. Argazkietan argi ikusten denez, bi baserriak elkarlotuta zeuden ekialdetik, errepide zabal baten bidez, Malezako goiko zonalderantz jarraitzen zuena.

Zonalde hori hobeto ulertze aldera, errepide horiek gezi horizontal zuriz adierazten dira 49. eta 50. argazkietan.

ERREKARTETXIKI baserriari buruzko idatziak 1567. urteaz geroztik aurki daitezke gutxienik. XIX. mendearen erdialdera baserriaren jabegoa Zurbanotarren adar ezberdinetako jabeen artean banatuta zegoen herentziaz, guztiak ere Segurako jauregiko oinordekoak.

Jarraian aipatuko duguna agian nahasgarri samarra egingo zaigu hasieran. Dena den, soilik idazteko modua da nahasmena sor dezakeena, amaiera beti berdina baita. Lehenik eta behin, Errekartetxiki herentzian hartu zuten lau adarren itzalpean gordetzen diren pertsonak ikusiko ditugu. Gogoan izan, esan bezala, guztiak Segurako Zurbano jauregiaren oinordeko zirela: Honatx bada:

Javiera Zurbano, Lopez Dovalosen alargun modura, bere bi seme-alabekin, hots, Jose Maria eta Casilda Lopez Dovalos Zurbanorekin. Arreba bere senarrak, Domingo Salazarrek, "onetsita" 1856ko ekainaren 19an horretarako onartutako ahalorde baten arabera.

Halaber, Jose Maria Zurbano segurarra; eta haren onespen eta baimenarekin bere bi alaba ezkongabeak, Juana eta Concepcion eta bere semea, Esteban Zurbano Monzon, gerora, Gipuzkoako Probintziako Ahaldun Nagusi izan zena hainbat urtez.

Telesforo de Monzon (aurrerago izen berarekin politikari nazionalista izan zenaren aitona, aldi berean, Olasoko maiorazkoaren titularra), urte horietan Bergaran bizi zena (herri hartako alkate ere izan zen), berez eta bere ama alargunaren izenean, hots, Maria Antonia Zurbanoren izenean, horretarako 1856ko ekainaren 23an Bergaran onartutako ahalordearen arabera.

Eta, azkenik, Prudencio Vinuesa donostiarra, bere emazte Maria Nieves Zurbanoren izenean, 1856ko ekainaren 20an horretarako onartutako ahalordearen arabera.

Ikus daitekeenez, guztiek zuten loturaren bat Segurako Jauregiko Zurbano familiarekin. Haiek, Maria Luisa Zurbano, Vargasko markesa alargunaren, haren ahizpa zenduaren eta izebaren oinordeko unibertsal bakarrak izaki, testamentuaren arabera heredatutako ondareen banaketa eta zatiketari zegokionez, ondare

horien jabetza osoa izateko urtean 8.465 errealeko korritua eta zentsu modura beste hiru kapital ordaindu zituzten. Ikus ditzagun horiek:

Lehena, urtean 462 errealeko korritu batekin, Maria Josefa Zarauz Cerainek (Zarautzeko Narros Jauregiko oinordekoa) sortutako kapilautzaren alde; hurrengoa, 265 dukateko eskubide hobera, urtean 428 errealeko korritu batekin, Javiera Altunaren baitara; eta azkena, urtean 13 errealeko korritu batekin, Berrobiko parrokia-elizako kapilautza baten alde, aldi berean, Domingo Garaicoecheak ezarria.

Azkenik Jose Maria Zurbanori esleitutako zatia, hau da, Beasaingo Errekartetxiki jabetzaren erdia, haren seme Esteban Zurbano Monzonen alde esleitu zen azkenik usufruktuan "bizi artean". Aurrez aipatu bezala, semea Gipuzkoako Diputatu izan zen 1848., 1850., 1854., 1855. eta 1867. urteetan. Garai hartako pertsona liberal ezagun hura, aldi berean, Diputatu izan zen Isabel II erreginaren Gorteetan Madrilen (1866-1868) eta baita, Gipuzkoako Ahaldun Nagusi ere 1875ean (hirugarren karlistaldian zehar).

Hark eskuratu zuen azkenik, 1856an, Errekartetxiki. Orduan 36 urte zituen Esteban Zurbano Monzonek, ezkonduta zegoen eta Seguran bizi zen artean. 1820an jaio zen harresidun herri hartan eta bertan hil zen 1890ean.

1862an bi familia bizi ziren Errekartetxiki baserrian:

Lehen sendia Ignacio Jose Ocariz eta Dominica Andueza senar-emazteek eta haien seme Jose Mariak osatzen zuten; beste familia, berriz, Pedro Murua eta Gracia Maria Orue senar-emazteek, haien seme-alaba Josefa, Josefa Antonia, Josefa Ignacia, Isidro eta Jose Agustinek, aitaren anaia Martin Luis Muruak eta Dolores izeneko haur abandonatuak osatzen zuten.

"IGARTZAKO PLAZARANTZ"

Gure irudizko bidaiariak 1862an trenbidearen ibilbide horretan barna, "Igartzako plaza" izenekoan ikusiko lituzkeen eraikinak hauek lirateke:

Jauregia (urte horietan Idiaquez sendiaren baitakoa), Errota, Usategi, Burdinola, Errementari, Dolarea, Zapatari eta Igartzako Maizenea edo Muruena (azken bi hauek elkarri erantsitako etxeak, aurrerago ikusiko dugunez). Guztiak Igartzako jauregiko jaunen baitakoak "betidanik". 1862an ez legoke beste eraikinik Igartzako behealde horretan, errepidearen eta Oria ibaiaren alboan.

Orain 2b plano-zatia hartuz, errepara dezagun handitutako marrazkian. Bertan aipatu eraikinen kokapena eta inguru horretan garrantzia gehien zuten erreferentziak adierazten dira. 2. sektore honetako gainerako baserriak (horietako zenbait Igartzako Jauregiaren baitakoak) aurrerago ikusiko ditugu, "Igartzako ipar-hegalean" (halaxe izendatzen zen Usurbe mendiaren atzeko hegala) kokatutako baserriei buruzko atalean. Kasu honetan Beatxurreta (Beraziartu edo Bereziartu), Agirreaundi (zenbaitetan Arramendi



izenez agertzen da) eta Agirrezabal ("Artzal") ospitale zaharra ditugu mintzagai.

2b plano-zati horretan ederki islatzen da Igartzaren egitura jauregiaren parean lekutzen ziren haren baitako eraikin guztiak; Belengo Ermita, Burdinola, Usategi, Errementari, Dolarea, Maizenea edo Muruena edota Zapatari, Agirrezabaleko errepide zabala ia "Igartzako plazaraino" iristen zelarik.

Kanalak eta "Segurako bide zaharrak" (hor kokatzen da errotaren kanal zaharraren gainean eraikitako zubi txikia) bat egiten zuten gunea, V hizkiarekin adierazita; erdi aroko zubia, Y hizkiarekin adierazita; burdinolako ikaztegiak, kanalaren eta Segurara egiten zuen "bide zaharraren" artean marraztuta; CH puntuarekin adierazten da Oria ibaiaren gainean eraikitako bi begiko tren-zubia; eta, planoaren eskuinera, U hizkiarekin 2. sektore honen amaiera adierazten da.

Orain, Angel Pirala kronikari eta marrazkilariak XX,. mendearen hastapenean (1906. urtean gutxi gorabehera) taxututako 55. marrazkia hartzen badugu, 1862an "Igartzako Errepublika Independente" historiko horrek zuen egitura eta funtzionamendua ikus dezakegu, izan ere, ezer gutxi aldatu baitzen orduz geroztik.

Aldi berean, 55a argazkia dugu ikusgai, aurreko marrazkia baino urte batzuk geroago aterea (uste dugunez 1915 aldera, izan ere, beranduago irin-multzoaren moto-sorgailu elektrikoa kokatzeko eraikitako atala ikus daiteke dagoeneko, errotaren ekialdeko fatxadan). Bi irudi horiek bata bestearen ondoan paratu ditugu, biak egoki ikus daitezen. Modu horretan, Pirala artistak luma-mutura erabiliz egindako marrazki

ederra (Koldo Mitxelenako funtsetan agertu zena) zer-nolako zehaztasun eta xehetasunez landu zuen ikus dezakegu.

JAUREGIA. Izenak berak asko esaten du, izan ere, Beasaingo eraikin ezagun, ikertu eta komentatuena izan da. Jauregiaren antzinako historiari buruz asko idatzi da hainbat liburu, argitalpen eta hari buruzko ikerketetan. Halaber, haren erdi aroko zubia eta hari atxikitako eraikinak ere arras ikertuak izan dira. Dena den, hari buruzko beste zenbait kontu ekarriko ditugu hona. Atzera egingo dugu, baina soilik 1862. urtera arte, trenbidearen planoa taxutu zen urtera arte, alegia, gainerako eraikinen deskribapenekin bezala jokatze aldera.

Ikuskatu ditugun zenbait dokumentutan halaxe definitzen da jauregia:

> *"…está situado en el Cuartel del Mediodía extramuros de la Villa…". (Sic)*

1887. urtean honakoa aipatzen da:

> *"…el palacio es un edificio antiquísimo y bastante deteriorado, residencia habitual ahora del señor Administrador de la Hacienda del Palacio de Yarza…"*

Ikus dezagun zer zioten haren eraikuntzari buruz:

> *"…está construido de mampostería hasta el primer piso, con entramados de madera y argamasa en adelante (a partir de dicho primer piso), conteniendo en todo el armazón excelente maderamen de roble aunque los entarimados de la casa son muy medianos…"*

Eta bareko gelei buruz:

> *"…la distribución interior se reduce en la planta baja a cuadras con un patio central adoquinado, y en el alto se sitúan las habitaciones, graneros y desvanes. Confina por sus cuatro lados con pertenecidos de su propiedad, ocupando el solar a una con el patio, e incluido todo su perímetro de corredor y galería, una superficie de 407,12 m²…"*

Halaber, 1887an Jauregia eta orubea horrela balioesten dira:

> *"…que atendiendo a su estado, así como a su actual situación de finca improductiva, se aprecia el mismo Palacio sólo en la cantidad de 13.625 pesetas…"*

Garai hartan jauregiaren alboan, hegoaldera, baratze bat lekutzen zen, 788 m²ko azalera zuena perimetroan, hartako pareta eta hesitura barne. 1887an baratzearen balioa 2.850,40 pezetakoa zen.

Ipar-ekialdera Belengo ermita kokatzen zen, soilik 37,24 m²ko azalera zuena barruan. Orotara, jauregiaren ataurrea, teilapea eta ogia egiteko labea barne, 155,60 m²ko azalera hartzen zuen ermitak.

Baziren jauregiaren baitako beste bi onibar ere, haren segidan lekututa mendebaldera. Haietako lursailek onibar bakarra osatzen zuten 10.795 m²koa.

Honatx onibar horren mugak:

Ekialdera, jauregia, hartako baratzea eta errotaren baratzea; hegoaldera, burdinola eta errotaren ibilgua; iparraldera, Oria ibaia; eta, mendebaldera, burdinolako presa eta errota. 1887an onibar horren balioa 2.200,24 pezetakoa zen.

Azken lerroalde horiek irakurri ostean erraz antzeman daiteke jauregiaren atzeko lur-eremua dela hor aipatzen dena, errota-burdinolaren eta Oria ibaiaren artean kokatzen dena.

Har dezagun orain 56. argazkia. Bertan jauregia artean zaharberritu gabe dagoela ikus daiteke eta, horrez gain, artean antzinako lekuan paratzen zen gurutzea zaharra, Zapatari-Muruena eta Dolarea artean. 57. argazkia ere zonaldeari buruzkoa da eta gutxi gorabehera XX. mendearen erdialdera ateratakoa.

58. argazkia airez ateratakoa da. Bertan Igartzako zonaldea ikus daiteke Indar enpresa finkatu ostean, duela urte gutxira arte paisaia hori begiztatu ahal izan dugun moduan. Azken argazki horretan, zonalde osoa angelu berri batetik erakusteaz gain, Zuntzunegi (Gomendiadigoikoa), Atarieder, Txintxurreta (antzina Gomendiadibekoa izenez ere ezagutzen zena) edota Altamira baserriak zeharkatuz Olaberriraino luzatzen zen errepide zaharrean erreparatuko dugu, urte haietan oso garrantzitsua zelako eta argazkian oso ongi ikusten delako. Argazkian, zeharreko angelu batetik, ederki ikusten da haren ibilbidea, Ñ-Ñ-Ñ´ hizkiekin adierazten duguna. Hain zuzen, bide hori eta Segurako bide zaharra errespetatzeko eraiki behar izan zen 1863an Igartzan trenbidearen gaineko zubi goratua, 2004an eraitsi zena.

59. argazkian bide horrek Olaberrirantz marrazten zuen ibilbide sigi-sagatsua ikus daiteke bertikalki,

1955ean inauguratutako ingurubide-errepide berria zeharkatu ondotik. Galtzada hori ere Ñ´ hizkiarekin adierazten da, 2. sektoreko plano orokorrean eta 2d plano-zatian bezalaxe. Argazki horretan, era berean, Oria ibaiaren gainean eraiki behar izan zituzten bi zubiak ikus daitezke; bi begiko tren-zubia 1862-1863 aldean eta ingurubide-errepide berriari dagokiona 1955. urtean gutxi gorabehera, hots, ia mende bat beranduago. Despistatuenentzat, horietako bat oso argiro ikusten ez denez, bi gezi zuriz adierazten dira.

Beranduago, tren-geltokiari dagokion sektorean, berriro erabiliko dugu 59. argazkia, izan ere, lagungarri izango zaigu eraitsitako baserri zahar askoren antzinako kokapena zehazteko. Baserri horiek hortik aurrera paratutako ZERO-puntutik distantzia jakin batera lekutzen ziren. 3. sektorean azalduko dugu hori zehaztasun osoz.

Igartzako etxeak Beasainen zituen jabetza guztien artean, jauregia eta hartako etxaguntzak kapilautza batekin grabatuta zeuden, urtean 30 dukateko korritu bat zuena, Martin de Idiaquezen aldetik. Kapilautza horren helburua urteko aste bakoitzean Beasaingo parrokian eta Igartzako kaperan (sarrerako atearen ezkerrera) hiru meza irakurri ospatzea zen, Beasaingo lehen liburu zaharreko 118 folio itzuliko 165. zenbakian adierazten denez. Aipatu kapilautza horrez gain, jauregia eta Igartza etxeak Beasainen zituen gainerako etxe eta jabetzak antzeko beste kapilautza batekin zeuden grabatuta.

Kapilautza hori Maria de Yarza arras ezagunak ezarri zuen antzina 3.850 pezetako kapital batekin; aldi berean, jabetza guztiak beste bi urteurren- eta eskaintza-mezekin zeuden grabatuta. Hala, orotara, 3.882 pezeta eta 60 zentimoko kapitala zegokion kapilautza horri.

Jarraian izendatuko ditugu horiek, Igartzako jauregiaren baitako etxe eta etxaguntza bakoitza begiztatzen dugun heinean, Beasaingo jurisdikzio zaharrean barna trenbidearen ibilbidean zehar bidaiatzen dugularik.



Fermin Zunzunegui beasaindarrak, Igartza etxearen administrari modura, urte horietan Epaitegira jo behar izan zuen Maria del Pilar Idiaquez y Corral andre arras ezagunaren ahalorde batekin. Azken hura jabetza hartako jabedun osoa zen, izan ere, 1857an Francisco Javier de Idiaquez y Carvajalek haren alde esleitu zituen jabetza guztiak, aitaren heriotza zela-eta egin beharreko ondareen banaketan. Jabetza horien gainean ez zegoen idatzizko titulurik. Baina, "Probintziako Aberastasunen Erregistroan" jabetza horiek agertzen ziren eta bertan adierazten zenez, jabeak lursail horiek sortutako kontribuzioak garaiz ordaindu zituen. Hori dela eta, aipatu administrariaren bidez jabetza horien gaineko jabetza-autoa eskatzen zuen.

Pablo Chinchurreta bake-epaileak eta bere idazkari Domingo Mugicak jabetza horiei zegozkion legeak bete zirela ikusirik, 1887ko abuztuaren 12an jabetza horien gaineko onarpen-autoa ebatzi zuten.

Maria del Pilar Idiaquez 1887eko urriaren 2an zendu zen Azkoitiko Idiaquez jauregian. Dena den, hil aurretik testamentua egina zuen bere senar Jose Aguilerarekin batera. Testamentu horretan elkarri lagatzen zizkieten beren ondareak, bizirik gelditzen zenaren oinordekoa izango zelarik indarreko legearen arabera eskubide gehien zuena.

Jose Aguilera izan zen hiltzen lehena. Beranduago hil zen haren emaztea, Igartzako Andrea. Horren ostean, hauek izan ziren oinordekoak zati berdinetan:

Francisco Javier Azlor Aragón e Idiaquez, Granada Egazo dukea;

María del Carmen Aragon de Azlor e Idiaquez, Guaquiko kondesa;

Francisco María Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez;

Enrique Pablo Augusto Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez;

Eta, jakina, guk jauregiari dagokion atal honetan soilik aipatu arren, Igartza etxeko maiorazkoaren gainerako jabetzak ere modu berean banatu ziren, oinordeko eta azken hartzaileei zegokienez. Lau zati horien ahalordedunek kontularitza egin ostean, azkenik, **Enrique Pablo Augusto Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak** eskuratu zituen lursail horiek eta beste hainbat.

Horrela agertzen da 1889ko abenduaren 27an lau oinordekoen ordezkariek onartutako ondareen kontularitza, zatiketa eta esleipenari dagokion idatzian, Madrilen onartu zena 1890eko martxoaren 24an Francisco Tovar Viton notarioaren eskutik.

Igartza etxea eta hartako etxaguntzak bereganatzeaz gain, aipatu bizkonde frantziarrak, beste 23 jabetza bereganatu zituen Beasaingo herrian, guztiak titulu beraren baitan. Jabetza horiek ere, aurrez esan dugun moduan, berriki deskribatu ditugun ondareak zatitu eta esleitzeko erabili ziren formalismoen arabera besterendu ziren. Noski, jabetza diogunean, beti etxeak eta haietara esleitutako etxaguntza guztiak ditugu aipagai.

Garai hartatik aurrera hasi zen Igartza etxearen baitako ondasun ugarien banaketa, behin "frantsesak" herentzian jaso ostean. Ezizen hori jarri zioten herritarrek Enrique Pablo Peites de Montcabrier e Idiaquez, edo Montcabrierreko bizkondeari.

Ikus dezagun orain nola jazo zen ondare horien besterentze "eskasa" Montcabrier bizkondearen ("frantsesa") eskutik, mendez mende Igartzako jaunek pilatutako jabetza eta lur horien besterentzea, hain zuzen.

Aipatu jaraunsleak mintzagai dugun jauregia, Beasaingo beste 22 jabetza (berriz diogu jabetza esatean baserria eta hari atxikitako lurrak ditugula aipagai) eta Matxinbenta-Beasain zonaldeko beste hiru jabetza (Igarzaola, Endrio eta Benta haietako etxaguntzekin) saldu zituen 250.000 pezetan.

Honatx 1919an gizon hark saldu zituen 23 etxeetako (haietako etxaguntzekin) zenbait:

Igartzako jauregia, Igartzako errota, Dolarea, Igartzako Maizenea edo Muruena, Erementari, Zapatari, Usategi, Aguirrezabal, Zelaetazar, Ibulus, Ugartemendiazpikoa, Barrendain, Arrieta, Loinatz, beste bat Malezako zonaldean, Otaño aldean, era berean, Altamirako zonaldean, Aranburu eta Abarizketako inguruneak edota Basarteko hegalak. Horrela 23 etxe zenbatzen dira haietako etxaguntzekin soilik Beasainen, aipatu maiorazkoarenak. Antzina Igartza etxearen baitakoak ziren hainbat etxe (esate baterako, Antzizar edo Urbiñarte), aspaldi irten ziren haren jabetzatik.

1919an merkataritza-transakzio izugarria zena, aipatu bizkondeak zati berdinetan eta pro indiviso moduan gauzatu zuen Leonardo eta Alberto Zunzunegi Gabilondoren alde, biak beasaindarrak; beste herena Eugenio Aseguinolaza Azurmendiren (aurrez aipatutakoen koinatua) jabetzara pasa zen, azken hau zegamarra. Hala jasotzen da 1919ko abuztuaren 17an onartutako eskrituran. Azken hori Leonardo eta Alberto Zunzunegiren arreba batekin ezkondua zegoen eta senar-emazteak Zegaman bizi ziren.



Beasaingo Zuntzunegi sendiaren adar batek aspaldidanik administrari lanak egin zituen Igartza etxearen baitako ondare eta interes askoren inguruan. Aipatu gizonek 1919ko irailaren 8an erregistratu zituzten jabetzak, banatu gabeko moduan.

Aurreko lerroaldeetan "frantsesak" egindako jabetzen besterentzeak aipatzerakoan "eskas" adjektiboa erabili dugu, izan ere, 1919an 250.000 pezeta horien benetako balioa erkatzeko erreferentzia on bat dugu.

Aurreko sektorean, Antzizarri buruzkoan, trenbideak Gudugarretako auzoan egiten zuen ibilbideari buruzko sarreran, Makinetxe zentral zaharra aipatu dugu eta beste gauza batzuen artean hau aipatu dugu hari buruz: ***"que recibió el acta de reconocimiento para su funcionamiento el 13 de Agosto de 1.921 y que costo la cantidad de 221.680 pesetas".***

Bada, kopuru eta jabetza horiek alderatu baino ez dugu egin behar; Gudugarretan "Makinetxe" izeneko zentral txikia egiteagatik, 5 kilometroko kanalarekin batera, 1921ean 221.680 pezeta ordaindu ziren eta soilik bi urte lehenago Beasaingo 23 jabetza eta Matxinbentako beste hiru jabetza (gogoan izan, berriz ere, jabetza esatean, beti baserria eta hartara atxikitako lurrak ditugula mintzagai) saldu ziren 250.000 pezetaren truke, hau da, "Makinetxe" zentral elektrikoarengatik ordaindutako kopuru bera ia.

Lazkaon ere bada horri buruzko beste erreferentzia bat, Infanterriko jauregiko jabeen inguruan, 1898ko abuztuaren 8koa. Orduan, Igartzako jaunaren salmenta hori baino 21 urte lehenago, Lazkaoko etxe hark ere hainbat jabetza saldu zituen, kasu hartan eroslea Lazkaoko Bernardako Mojen Komentua (klausurako moja izendatzen direnak) izan zen eta 190.500 pezeta ordaindu zituen. Nolanahi ere, jabetzen azken besterentze hori ez da erkagarria, izan ere, Senpereko Errekalde etxeari eta Lazkao inguratzen duten mendietako lur-eremu handi bati dagokio. Aurrerago ikusiko dugu hori, 5. sektorean, hain zuzen, Ugartemendi-Senpere zonaldeari dagokion sektorean.

Aurreko kasura itzuliz, hau da, Igartzako salmenta horretara itzuliz, uste dugu garai hartan milioi laurden pezeta kopuru ikaragarria zela, ohiz kanpokoa, eskualdeko familia oso gutxik ordain zezaketena. Baina, aldi berean, oso merkea deritzogu besterendutako jabetza kopurua aintzat hartuta.

Maiorazkoaren jabe berriaren ondasunetan arazo ekonomiko handiak izango ziren garai hartan, izan ere, Frantzia orduan lehen mundu-gerran sartuta zegoen bete-betean eta, horrenbestez, diru premia larria izango zuen. Gure ustez, hori izango zen Montcabrierreko bizkondeak (Beasainen "frantsesa" izendatzen zutena) Igartza etxetik jasotako herentzia handi hura horrenbesteko presaz besterendu izanaren arrazoi nagusia.

1862an, trenbidearen planoa sinatu zenean, Juan Jose Zunzunegi eta Martina Baztarrica senar-emazteak eta etxeko zerbitzaria, Maricruz Ibarbia bizi ziren Igartza Jauregian.







Gure irudizko ibiltariek 1862an artean "Igartzako plaza" osatzen zuten ehunka urteko eraikin zahar horiek ikustean zer pentsatuko ote zuten asmatuz amaituko dugu jauregiari buruzko deskribapen labur hau.

Deskribapenarekin jarraitzeko, jauregitik gertuen zeuden eraikinak hartuko ditugu lehenik eta behin. Hiru hauek izango lirateke; burdinola, errota eta Usategi baserria, hurrenkera horretan.

Urte haietan BURDINOLA ZAHARRA artean osorik egongo zen, behin-betikoz ixtetik gertu egon arren. Haren teilatua ere osorik legoke, nahiz eta eraikinaren elementu hura izan jarduerarik eza gehien pairatu zuena. Orduan horrela deskribatzen zuten aipatu eraikina:

> *"…contigua al molino se halla la Ferrería paralizada desde hace algunos años por haber cesado la Industria de las Ferrerías Catalanas con la aparición de los Altos Hornos…"*

(Kasu horretan Labe Garaietan altzairu industriala lortzeko egur-ikatzaren bidezko sistema berritzaileari buruz ari dira, izan ere, 1862. urtearen amaieran, Beasainen jadanik martxan zen F.H.S.M. fabrikan Gipuzkoako lehen Labe Garaia eta, hiru urte beranduago, bigarrena abiaraziko zen).

Horrela jarraitzen zuten:

> *"…conserva la antepara o depósito de agua en regular estado con una sólida construcción en piedra de sillería y enlosado de bóveda, en una extensión de 143,67 m² de superficie…"*

Erreparatu orain 60. plano bitxian, hau ere 1862koa. Bertan ongi antzematen da Igartzako burdinola-multzo osoaren oinplanoko ikuspegia, goiko aldean jabetzen administrariaren izena adierazita. Azpialdean Usategi baserrira eta burdinolara atxikitako lur-eremu horien errentarien izenak idazten dira. Burdinolaren eskuinera, planoaren erdian, burdinolara sartzeko eta ekoitzitako materiala ateratzeko garraioetako bide zabala adierazten da.

Jabeak izendatuta, plano horretan Igartzako administraria agertzen dela ikusten da, Juan Jose Zunzunegi beasaindarra. Administrari hori ere urte horietan jauregian bizi zen, aurrez esan dugun bezalaxe. Ezkerreko lur-eremuan Antonio Alustiza agertzen da errentari gisa; eskuineko onibarrean, berriz, egoile modura Jose Francisco Pildain agertzen da, hau ere Igartza auzoko herritarra.

Gezi zuri txiki batekin adierazten da bi lur-eremuen arteko sarbide zabala. Ziurrenera, urte batzuk lehenago bertatik sartuko ziren "garraiolari eta itzainak", hain justu burdinolaren

atzetik, gerora eraikiko zen trenbidearen beste aldetik.

61. argazkia ehun urte beranduago 1862ko planoan agertzen den ibilbideari ateratakoa da. Bertan, oso ongi ikusten dira, besteak beste, multzoaren kanala eta aldaparoa (beste gezi horizontal zuri batekin adierazita), antepararen atzeko ikaztegiak, errota edota errotariaren etxea. Kasu horretan, "industriaren susperraldi" izenekoaren ostean, urte horietan eraikitako Indar enpresako industria-eraikinen artean nahasita agertzen dira aurrez aipatutako eraikin guztiak.

Multzo horri buruzko deskribapenak horrela jarraitzen du:

> *"…sigue el acueducto o cauce por terrenos de la misma propiedad en una longitud de 725 metros, (Sic) con un ancho medio del canal de dos metros, en cuyo extremo se halla la presa o toma de agua, que está construida con solidez y sin tocar ninguna propiedad ajena…"*

(Uste dugu kanalari ematen zaion luzera okerra dela. Gure ustez 250 metrokoa zen, baina guk irakurrita bezala islatzen dugu).

Harrizko presaren luzera 106 oinetakoa zela kalkulatzen zen, desnibelak edo ur-jauziak, hala burdinolaren kasuan nola errotaren kasuan, 6,10 metroko altuera izango zukeen. Horrez gain, Igartzako kanal horretan industria-matrikulari dagokionez deklaratutako uribilgua 1.000 litro segundokoa zelarik.

Ikus kuriositatez 62. argazkian harrizko presa, eta 63. argazkian egurrezkoa; bigarrena lehenengotik 25/30 metro eskasera paratua, ibaian gora. 64. argazkian egurrezko presa zaharraren sarrera-ahoa ikusten da, harriz eraikia. Egurrezko presa horren bokalea haren bikia zen harrizko presaren oso antzekoa zen. 62. argazkian ikusten den bigarren presa hura 1983an eraitsi zen. Halaber, gezi zuri batez adierazten da egurrezko presa horri dagokion ur-hartunea.

Orobat, 2c plano-zatia dakusagu, 1862koa hori ere. Bertan harrizko presaren eskema zaharra ikus daiteke handituta, eta baita burdinolara eta errotara bideratutako kanala ere.

L hizkiarekin adierazten da presa bera eta burdinolak eta errotak osatutako industria-multzoa hornitzeko presako bokalearen eskema; V hizkiarekin adierazten da kanalaren ibilbidea; K hizkiarekin Oria ibaiaren ibilgua ikus daiteke; J hizkiarekin orduan Irun-Madril errepide nagusi gisa ezagutzen zena; B hizkiarekin Maleza edo San Martin errekatxoa Oria ibaiarekin bat eginez, aurrez ikusi dugun moduan; eta B´ hizkiarekin adierazten da, errepide nagusi horretatik Errekarteaundi, Telleri eta Gaztelumuino baserrietara nahiz Loinazko San Martineko basilikara edota Amunabarro baserrira sartzeko errepidea (gaur egun asfaltatua).

Orobat, merezi du 65. argazkian erreparatzea. Bertan Igartzako atzealdearen ikuspegi orokorra daukagu, beste gauza interesgarri batzuen arten, presa eta kanalaren zonalde hori ikusten delarik. Panoramika horretan eskuineko ertzean karobi zaharra ikusten da, arestian aipatu duguna. Errepidearen beste aldean harrizko presa eta errota-burdinolaren kanal aipatua ikusten dira. Guk beste bi gezi zuri txikiz adierazi ditugu.

65. argazkiarekin jarraituz, aipagarri da argazkilariak bikain islatu zuela presako kanalaren bokaleak hasiera batean zuen forma eta ibilbidea. 1862ko planoaren egileak ere zehaztasun handiz marraztu zuen eskemati-

koki, 2. sektorean eta 2c plano-zati handituan ikus daitekeenez. Argazkian eta planoetan ikus daitekeenez, kanalaren ahoratzea ez da zuzenki egiten. Aitzitik, konponbide burutsu bat emanez, atzerantz egiten du tarte batean. Modu horretan uraren indarra baretu egiten da eta kanalaren zonalde horretako harlandua kaltetzea ekiditen da.

65. argazkian, goialdean Q-Q´ hizkiak ikus daitezke. Horien esanahia aurrerago azalduko dugu, 2d plano-zatian. Plano hori Igartzaren atzeko zonaldetik igarotzen ziren bideei buruzkoa da, hots, etxearen baitako txaratik gertu dauden errepideei buruzkoa.

Irakurtzen ari ginen dokumentuarekin jarraituz, aipagarri dira erdi aroko industria-multzo horri buruzko beste zertzelada txiki batzuk, esate baterako:

> *"…la parte de la ferrería mantenía tres cuerpos; el primero se mantenía en contacto con la antepara, los otros dos cuerpos servirían de carboneras hallándose todos paralelos y contiguos entre si…" (Tal y como ha quedado restaurada en la actualidad)*

Horrela osatzen da burdinolari buruzko informazioa:

> *"…los muros de la ferrería están en buen estado pero sus tejados se resienten por la continua humedad y la falta del humo que antes recibía..."*
>
> *"…estos tres cuerpos con la tejabana y el horno de calcinación ocupan una superficie de 611,50 m², y sus antepuertas con la plazuela de cantería ocupan otros 872 m²…"*
>
> *"…confina todo este grupo, al Norte con el río Oria; al Oeste con el cauce del canal y el camino antiguo hacia Yurre (el primitivo de Segura); por el Sur y el Este con terrenos de Usategi, de igual propiedad que la Ferrería…"*

Eta bukatzeko urte horietan zukeen balizko balioa aipatzen da:

> *"…el valor de la misma atendiendo a su estado de conservación y paralización, condiciones actuales del salto y cantidad de agua de que se dispondría para poner otra industria, se aprecia en la cantidad de 20.250 pesetas…"*

Ikus daitekeenez, burdinola antzuak ia bikoiztu egiten zuen Igartzako jauregiari eta haren orubeari zegokion prezioa.

1887ko abuztuaren 2ko deskribapenak ditugu mintzagai, hots, Angel Piralak egindako Igartzari buruzko 55. marrazkia baino 19 urte lehenagokoak, hura 1906koa baita. Marrazki hori arreta gehiagoz begiztatzea ere ez litzateke txarra. Aurreko deskribapenak, 1887koak, 2. sektoreari dagokion plano orokor hauek taxutu eta 25 urtera baino ez ziren egin.

Har dezagun bada, Angel Piralak egindako 55. marrazki zehatza eta ikus ditzagun antzinako burdinolaren aztarnak. Bertan Igartza auzoko herritar nagusienek, apika, zenbait xehetasun bitxi hautemango dituzte. Halaber, marrazki horretan ikus daiteke burdinolaren teilatua dagoeneko behera etorri dela, hura ezinbestean behin-betikoz gelditu ostean igarotako denbora dela-eta.

1862an, trenbidearen ibilbideari dagokion marrazki hau sinatu zutenean, Gipuzkoan artean 20 burdinola inguru baino ez ziren martxan ozta-ozta. 25 urte beranduago, 1887ko Igartza hori deskribatzen den garaian, horietako bakarra ere ez zen lanean.

Marrazkiaren egileak harrapatu dituen xehetasun txiki horien inguruan luze hitz egin dezakegu, baina uste dugu interesgarriagoa dela irakurleek haietan erreparatzea; esate baterako, errotariaren etxea artean ez zegoen zaharberritua (1911n egin zen hori), izan ere, Oria ibaira begira dagoen fatxadan leiho zaharrak ikus daitezke oraindik.

Ibaira begira zegoen errotako zatia artean eraikitzeke zegoen, hots, ibaiaren eta burdinolaren arteko zatia, burdinolaren mendebaldeko hormara itsatsitako zonaldean, non, gerora, errotaren funtzionamendurako "motor-sorgailua" instalatu baitzuten, aurrerago esan bezala. Hala ere, burdinola zaharraren eraikinean tximinia luze bat agertzen da; errota-etxearen ukuilu zaharrak ere ikusten dira, Oria ibaiaren ibilguaren alboan lekututa, ehoketan erabilitako ura ateratzeko erabiltzen ziren bi arku-gangei atxikita ia; jauregiaren ekialdeko fatxadan ere ezberdintasun handiak hautematen dira, burdinolaren aurreko murruetan bezalaxe. Azken horietan zenbait arku ikusten dira, harrigarria bada ere ez datozenak bat egun ikusten diren arkuen altuera eta kokapenarekin. Aitzitik, badirudi zubia idealizatu egin dela, izan ere, forma nahikoa makurrarekin islatzen da, eta egun ikusten diren bi begi asimetrikoak ez dira ageri.

Oso interesgarria da 55. marrazkiaren eta 1915ean ateratako 55a argazkiaren arteko baterako ezaugarriak erkatu ahal izatea. Hala marrazkia nola argazkia antzeko perspektiba batetik ikusten dira, nahiz eta 55a argazkian ez den ikusten orduan errepide nagusi zenaren alboan kokatutako zubiaren arkua.

IGARTZAKO ZUBIA da multzo oso horri dagokionez aktiboki irauten duen azken elementua. Hasiera batean, honakoa soilik aipatzen da haren gainean:

> *"…está situado contiguo a la Ferrería del mismo nombre…"*

Dokumentuetan errota modu labur horretan aipatzen da eta, horrekin batera, bi eraikinek presa eta kanala aprobetxatzen zutela aipatzen da.

Hala ere, errotaren inguruan 1887an egiten duten deskribapen orokorrean zerbait gehiago aipatzen da. Beste gauza interesgarri batzuen artean, honakoa:

> *"…el molino de Igartza se sitúa próximo al Palacio, consta de un par de piedras para moler trigo y dos*

más para el maíz movidas por rodeznos horizontales que se comunican entre si por medio de un árbol o eje vertical…"

Bertan aipatzen dena transkribatzen jarraituz:

"…cuenta con un buen salto y suficiente cantidad de agua durante casi todo el año. Consta del cuerpo del edificio contiguo al molino propiamente dicho, edificio habitación anejo al molino, y entre ambos ocupan un solar de 149,76 m²; también de otro edificio contiguo al molino y hecho como aditamento de él, sin que en el día de hoy conste más que de paredes exteriores y armaduras del tejado y primer piso, que ocupan un solar de otros 126,74 m² de superficie…"

Dokumentuan islatzen denez, errotari atxikitako erakinaren handitzea artean bukatzeke zegoela ikus daiteke.

Errota eta burdinolaren anteparak dimentsio irregularrak ageri zituen, gutxi gorabehera, 8,5x8,5x5 metro.

61. eta 67. irudietan (batean bestean baino apur bat urrunagotik ikusten da) aipatu kanalaren zati bat ikus daiteke eta baita antepara inguruko zonaldea ere, non ura pilatzen zen. Horiez gain, errota, errotariaren etxea, burdinola, azken horren paraleloan eraikitako ikaztegiak, Usategi baserria eta hartako lurrak eta, baita trenbidea ere, eskuinera. Ziur aski, azken irudi horri esker, 1966an eraitsitako Usategi baserriaren kokapen zehatza oso ongi oroituko dugu.

Errotaren mugak eta urte horietan zuen balioa horrela deskribatzen ziren:

"…todo ello linda al Oeste con el camino de Yurre (el que llaman "Camino Viejo de Segura"); al Sur con su antepara y de la ferrería; al Norte y Este con el río Oria. Como industria que era el citado complejo molinero, el 2 de Agosto de 1.887, solo el molino tenía asignado un valor de 28.044 pesetas con 30 céntimos"

Errotak industria-negozio errentagarriak ziren antzinatik. Hori dela eta, multzoko burdinolak baino tasazio askoz ere handiagoa zuen eta Igartza Jauregiak eta haren orubeak balio zutenaren bikoitza baino gehiago balio zuen. Burdinola, gainera, gelditua zen behin-betiko.

Ikus orain 66. argazkia. Bertan Igartzako errotaren iparraldeko fatxada ikus daiteke, eta hari erantsita errotariaren etxea. Parez pareko irudi horretan argi ikusten da 1911n etxeko leihoetan egin zuten konponketa. Hala, etxean egindako beste konponketa batzuen artean, "leihotxo" txikiak balkoi bilakatu ziren. On da, berriz ere, 66. argazkia Angel Piralaren 55. marrazkiarekin eta 1915ean ateratako 55a argazkiarekin alderatzea.

Errotari zegozkion eraikinez gain, jauregiari atxikita baratze txiki bat ere bazegoen, hegoalde eta mendebaldera, jauregia bera eta hartako ataurreak zituena mugakide; ekialdera, Igartzako zubiaren mutur bat; eta, iparraldera, Oria ibaia. 350 m²ko azalera zuen eta bere balioa 522 pezeta eta 50 zentimokoa zen. Errotaren baratze hori gaur egun aise koka daiteke, hain zuzen, ermitaren eskuinera hura parez pare begiratuz.

Errota horren baitakoa zen, era berean, antzina "de pan llevar" (ogia eroateko) izendatzen zuten beste onibar bat, sagarrondo gaztez hornitua. Sagarrondo horiek Igartzako "txara" izeneko zonaldean lekutzen ziren (trenbidearen beste aldean, Txintxurreta, Zuntzunegi, Atarieder eta Altamira baserrietatik igaro eta Olaberrirantz abiatzen zen errepidearen eskuinera).

Onibar horrek ekialdera, hain zuzen, Altamiraldea eta Olaberriakoa izeneko errepidea zuen mugakide; gainerako puntu kardinaletan ere Igartzako txara izeneko hori zuen mugakide. 4.544 m²ko azalera zuen eta bere balioa 1.590 pezeta eta 40 zentimokoa zen.

Igartzako jauregiaren baitakoa izaki, errotak ere kapilautza hori zuen grabatuta, jauregiaren jabetza guztiei eragiten baitzion Maria de Yarza andre arras ezagunak gauzatutako kapilautza hori, 3.850 pezetako kapital bat zuena. Halaber, jauregiari buruz arestian aipatutako atalean adierazi dien bi urteurren- eta eskaintza-mezak ere ageri ziren grabatuta. Hala, horri aurreko kapitala gaineratuta 3.882 pezeta eta 60 zentimoko kapitala zegokion.

Jauregiarekin lotuta hainbat kontu aipatu dira lehenago, esate baterako, jabetzen egiaztatzea, onarpen-autoak, Pilar de Idiaquezen heriotza, testamentuak, oinordekoak, kontularitza eta Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak egindako salmentak. Horiek guztiak errotari buruz ere esan daitezke, izan ere, Beasainen besterendutako 23 etxe horietako bat izan zen. Aurrez esanda bezala, jabetza horiek guztiak "frantsesa" delakoak saldu zituen, Igartzako jabe berriak (1890-1919 bitartean izan zen hartako jaun eta jabe).

Salmenta hori gauzatu eta bederatzi urte baino igaro ez zirenean, zehazki esatera, 1928ko urriaren 20an, Leonardo Zunzunegi Gabilondo eta Eugenio Aseguinolaza Azurmendi Igartzako errota horren ja-

bedun ziren, erdibana; izan ere, errotari zegokion beste herena bataren anaia eta bestearen koinatuari erosi zioten 84.000 pezeta ordainduta.

Bitxia da soilik bederatzi urte igarota errotaren heren hori 84.000 pezetatan balioestea, izan ere, hori kontuan izanik, errotaren prezioa 252.000 pezetatan balioetsi beharko litzateke, hau da, 1919an 26 etxeen eta hartako etxaguntzen truke ordaindu zuten kopuru bera ia (23 Beasainen eta beste hiru Matxinbenta aldean, lehen esan bezala).

1942ko azaroaren 3an, aurreko bi horiek, errotaren jabe zirenak zati berdinetan, berriz ere herena saldu egin zuten. Gauza bera egin zuten 1919an Igartza etxeko jabearen eskutik eskuratutako 23 etxe eta lur horietako 17rekin. Kasu horretan Josefa Arruzazabala Echaburu koinata izan zen jabetza horien eroslea.

1951ko otsailaren 22an Leonardo Zunzunegik errota horretatik berari zegokion herena saldu zuen eta gauza bera egin zuen aurreko lerroaldean aipatutako 17 etxe eta lur horiekin ere. Erosleak bere sozio eta koinatu zirenak izan ziren, hau da, Eugenio Aseguinolaza eta Josefa Arruzazabala, azken hori Alberto Zunzunegi Gabilondoren alarguna. Heren horren salmenta kasu horretan 130.000 pezeta ordainduta gauzatu zen. Jadanik 32 urte igaroak ziren Montcabrierreko bizkondeak lehen erosketa egin zuenetik.

Pixkanaka errotari buruzko deskribapen laburraren amaierara iristen ari gara, izan ere, 1971ko uztailaren 8an, Josefa Arruzazabala hila zelarik, haren hiru semealabek, Maria Isabel, Juan Jose eta Maria Luisa Zunzunegi Arruzazabalak jabetza horretatik zegokien zatia eskuratu zuten herentzian. Zati berdinetan banatu zen herentzia, kasu horretan erdiaren herena eskuratu zuten (osoaren seirena anai-arreba bakoitzarentzat), izan ere, hori zen haien ama zenak errotaren gainean zuen partaidetza.

Eugenio Aseguinolazari zegokion beste erdiarekin gertatu zena ezagutze aldera, ikus dezagun 1980ko otsailaren 14an, hura hil ostean, bere oinordekoek nola jaso zuten herentzia; kasu horretan, erdi hori hamar zatitan banatu zen, izan ere, haren hiru seme eta zazpi alabak ziren jaraunsleak.

USATEGI BASERRIA errotaren eta burdinolaren atzean zegoen kokatuta, 50 metro eskasera. 67. argazkian eraikin horiek guztiak ikus daitezke, Indar enpresak berrogeita hamar urte baino gehiagoan leku horretan pixkanaka lekutu zituen industria-eraikuntzak barne.

Baserri zahar hori burdinolari zegozkion ikaztegien atzean lekutzen zen eta olagizonen ostatu ere izan zen hainbat mendez. Burdinolara sartzeko bide zaharra Usategi baserriaren mendebaldetik igarotzen zen eta aurrera jarraitzen zuen burdinolako ateraino, eraikinaren ekialdera zegoena, gaur egin bezalaxe.

Usategi baserriak, orduan, bi etxebizitza gordetzen zituen eta biak egitura bera agertzen zuten, ikusgai ditugun argazkietan ikus daitekeenez: beheko solairuan ukuilua eta sukaldea paratzen ziren; goiko solairuan gelak eta ganbarak lekutzen ziren; eta, gorago, bi teilatuen erpinean, goitegi bat, "goi-ganbara" izendatzen zutena.

Baserria 252,38 m^{2}ko orube baten gainean zegoen, haren inguruko teilape guztiak barne; ataurreen azalera 155,60 m^{2}koa zen. Hauek ziren baserriaren mugak:

Iparraldera, baserriaren ataurreak eta Igartzako burdinolara sartzeko bidea; hegoalde, ekialde eta mendebaldera, baserriaren etxaguntzak.

1887ko abuztuaren 2ko beste dokumentu baten arabera, eraikuntza zahartuta zegoela aintzat hartuz, apur bat hondatuta baitzegoen, baserriaren balioa soilik 2.263 pezeta eta 14 zentimokoa zen.

68. argazkiak Usategi baserriaren gertuagoko ikuspegi bat eskaintzen du. Bertan, hartako bi maizterren baratzeak, etxera atxikitako teilapeak, zenbait bide, trenbidearen errail berriak eta trenbidearen mugakide zen lur-eremua ikus daitezke.

Eraikuntzaren aldamenean bi onibar zeuden. Horien azalera, haietako bi baratze txikiak barne, 3.156 m^{2}koa zen, ereiteko lurretan; azalera horri beste 315 m^2 gaineratu behar zitzaizkion, ezponda modura. Honatx aipatu onibarren mugak:

Hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Oria ibaia; iparraldera, baserria, hartako ataurreak eta burdinolarenak; mendebaldera, Iurrerako bidea ("Segurako bide zaharra" izendatzen zuten erdi aroko bidea) eta Olaberrirako bidea (aurrez aipatu duguna eta lehen tartean Altamiraldea izenarekin ezagutzen zena). Bere orduko balioa 1.119 pezeta eta 20 zentimokoa zen.

Horiez gain, bazituen beste sei onibar izenik gabeak, aipatu bi haien segidan eta perimetro jakin baten barruan. Sei onibar horien azalera 10.401 m^{2}koa zen ereiteko lurretan eta, horrez gain, 930 m^{2}ko ezponda barneratzen zuten.

Hauek ziren onibar horien mugak: ekialdera, Iurre-Segura eta Altamiraaldea izeneko bideak; hegoaldera, bide horiek berak eta Igartzako txara; mendebaldera, Oria ibaia; iparraldera, burdinola eta errota elikatzeko ibilgu luzea. Deskribatu berri dugun jabetza hori guztiok aise koka dezakegu. Bere balioa 1887an 4.192 pezeta eta 10 zentimokoa zen.

Baziren beste bi lursail, bata bestearen alboan, Oria ibaiaren eta Madrilera egiten zuen errepide nagusi zaharraren artean. Lursail horietako lurrekin ereiteko lurrez eta otalurrez osatzen ziren bi lur-eremu osatzen ziren, aipatu errepidearen kontrako aldean lekutuak. Guztien azalera 4.407m^{2}koa zen ereiteko lurretan eta 3.206 m2koa belardi, ezponda eta otalurretan. Hauek ziren lursail horien mugak:

Hegoalde eta ekialdera, Oria ibaia eta Maleza edo San Martin izeneko errekatxoa; iparraldera, errepide nagusi zaharra eta Errekarteaundi eta Gaztelumuino baserrietako lurrak; mendebaldera, Igartzako Maizenea edo Muruena etxeko onibar bat. Azken etxe horren jabea Usategi baserriko jabea zen. 1887an horien balioa 1.797 pezeta eta 30 zentimokoa zen.

Beste lur-eremu bat, 8.488 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan, trenbidearen goiko aldean kokatutako bi onibarretan; Lehen lursaila belardiz betea eta sagarrondo helduz hornitua; bigarrena, gaztainadi, txaraka eta otadiz hornitua.

Hauek ziren onibar horien mugak:

Iparraldera, trenbidea eta Oria ibaia; ekialdera, Oria ibaia eta Barrendain etxearen (hau ere Usategi baserriko jabearena) baitako larre-saila; hegoaldera, Juan Cruz Aranburuk Zunzunegi baserrian zuen lursail bat eta Olaberrirantz egiten zuen bidea (Altamiraldea izendatua); mendebaldera, aurreko bide hori. Bere orduko balioa 3.719 pezeta eta 60 zentimokoa zen.

Magdalenabasoa izeneko beste larre-lur bat, gaztainondo, haritz eta irasailez hornitua; 55.820 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera, Vicente Mendiaren jabetzako beste mendialde bat; ekialdera, Telleria baserriko lur-eremu bat eta Barrendain baserriko beste bat; mendebaldera, Dolarea etxeko lursail bat; hegoaldera, Valmedianoko markesaren beste lur-eremu bat (Ordizia eta Lazkaoko etxeetakoa). Bere orduko balioa 2.363 pezeta eta 40 zentimokoa zen.

Usategi etxea eta haren etxaguntzak jauregiaren baitakoak zirenez, aurrez deskribatu dugun kapilautzarekin zegoen grabatuta, hots, Maria de Yarza ezagunak sortutakoa, hain zuzen, 3.850 pezetako kapitala zuena; horrez gain, kapilautza horren barneko bi urteurren- eta eskaintza-mezak. Hala, orotara, 3.882 pezeta eta 60 zentimoko kapitala zegokion.

Jauregiarekin lotuta hainbat kontu aipatu dira lehenago, esate baterako, jabetzen egiaztatzea, onarpen-autoak, Pilar de Idiaquezen heriotza, testamentuak, oinordekoak, kontularitza eta Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak egindako salmentak. Horiek guztiak Usategi baserriari buruz ere esan daitezke; izan ere, 1919an zehar jabe berri hark Beasainen 23 etxe besterendu zituen eta beste hiru Matxinbentako zonaldean, eta aipatu baserria izan zen horietako bat, hain justu, Beasainen besterendutako 23 horietako bat.

Trenbidea finkatu zeneko urte haietan hauek ziren Usategi baserrian bizi ziren bi familiak: alde batetik, Antonio Alustiza eta bere seme-alabak, Jose, Juan eta Dolores; beste alde batetik, Jose Domingo Mugica eta Micaela Salsamendi senar-emazteak, emaztearen alaba Martina Pildain eta, neskamea, Juana Maria Sarriegi.

Olagizon eta errotarien lanbide zaharrak, jakina, bazuen bere lekua multzo hartan. Baina, horiez gain, beste hainbat jarduera eta ogibide batzen ziren "Igartzako plaza" izen orokorrarekin ezagutzen zen zonalde horretan. Hala, ezin ditugu ahantzi Dolarea, Zapatari, Maizenea edo Muruena eta Errementari etxeak, guztiak beheko zonaldean kokatuak, plazaren izen bera zuen jauregiaren inguruan.

67

68

69

70

Orain, Igartzako zubiaren zonaldea erakusten duten 69. eta 70. argazkiak begiztatuko ditugu. 69. argazkia bestea baino zaharragoa da erruz. Bertan, ezkerreko zonaldean, "Errementari" etxe bakartua ikusten da errekaren ertzean; hondoan ikusten dira Basakaitz mendia, trenbide-linea eta trenbidearen eskuinera, etxetxo bat. Etxetxo hori trenbidearen ibilbide zaharreko eraikuntza bat izango zela pentsatzen dugu. Lehen planoan, eskuinera eta zubirantz, antzina errotako baratzea izan zena, jauregiaren eta ibaiaren aldamenean kokatzen zena, hari buruzko atalean deskribatu den moduan.

Beste irudia berriagoa da eta zubiaren ikuspegi klasikoa ikus daiteke. Halaber, Belengo ermitak eta jauregiak XX. mendean zuten itxura ikus daiteke, azken hori zaharberritu aurretik. Lehen planoan, era berean, zubiaren alboko oilategi zaharra ikus daiteke, Luis Irizar errotariak eratu zuena.

DOLAREA ETXEA da Igartzako zonaldean paratzen diren etxetzarretan handiena, jauregia baino areago. Eraikinaren funtzioa, izenak adierazten duen eran dolarearena zen. Antzina hiru etxebizitza hartzen zituen etxetzar horrek eta Irun-Madril errepide nagusi zaharraren altzoan zegoen lekutua.

Beheko solairuak eta lehen solairuak osatzen zuten eraikinaren egitura. Behekoan ukuilua, sukaldea eta gelaren bat lekutzen ziren. Lehen pisu horretan, berriz, ganbarak eta logelak paratzen ziren. Etxetzar handi horren azalera 485,27 m²koa zen eta hartako ataurreen azalera, berriz, 158 m²koa.

Hauek ziren 1862an etxearen mugak, hots, gure irudizko bidaiariek ikusiko zituztenak: Hegoaldera, Madrilera zihoan errepidea; iparralde, ekialde eta mendebaldera, etxearen etxaguntzak.

Apur bat beranduago, 1887ko abuztuaren 22an horrela deskribatzen zuten etxea

> *"…la casa es de buena construcción pero antigua y destartalada, y por estas circunstancias solo se aprecia en 3.784 pesetas con 50 céntimos…"*

Etxearen ondoan hiru onibar zeuden baratzez hornituak. Onibar horien azalera osoa 6.329 m²koa zen eta muga hauek zituen:

Iparraldera, Errekartetxiki eta Aguirreaundi (zenbaitetan Arramendi izendatzen zena) baserrietako lurrak; mendebaldera, Errekartetxikirantz egiten zuen errepidea; hegoaldera, Irun-Madril errepide nagusia; ekialdera, Agirrezabal baserrirantz eta mendietarantz luzatzen zen errepidea, 49. argazkiaren beheko zatian gezi bertikal zuri batekin adierazten dena. 71. argazkian ere antzeko beste gezi batekin adierazten da bide hori. 1887an horien balioa 3.162 pezetakoa zen.

Eraikinaren parean kokatzen zen lur-eremu txiki bat, muga hauek:

Hegoaldera Oria ibaia; iparraldera, Irun-Madril, errepide nagusia; ekialdera, Errementari sutegiko baratzea; mendebaldera, Igartzako zubia. Bere azalera 259 m²koa zen soilik. Hori dela eta, bere orduko balioa 27

pezeta eta 50 zentimokoa zen. Zubiaren eta espaloiaren aldamenean zegoen lur-eremu txikiaz ari gara, hain justu Errementari etxearen eskuinera eta Dolarea etxearen parean lekutzen zena, garai batean aziendarentzako aska txiki bat eta beranduago iturri bat zeuden lekuan.

Beste hiru lursail ere baziren etxetik metro gutxira, muga hauekin:

Hegoaldera, errepide nagusia; mendebaldera, Aguirrezabal baserriko lursailak; iparraldera, Aguirrezabal baserriko lursail gehiago; ekialdera, Zelaeta etxeko lurrak, guztiak Dolarea eta Agirrezabal etxeetako jabearenak. 11.310 m²ko azalera zuen eta bere balioa 5.672 pezeta eta 20 zentimokoa zen.

Beste bost onibar aurrekoen parean, Irun-Madril errepide nagusiaren kontrako aldean kokatuta, 9.941 m2ko azalera zutenak eta muga hauek:

Iparraldera, aipatu errepide nagusia; hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Errementari etxeko lursail bat; mendebaldera, Igartzako Maizenea edo Muruena etxeko beste lursail bat, guztiak Dolarea etxeko jabearenak. 1887an bost onibar horien balioa 4.952 pezeta eta 30 zentimokoa zen.

Dolarea etxearen baitako lur urrunenak Beasaingo Erruki-etxe edo Ospitale zaharra lekutzen zen zonaldean zeuden. Guztien artean 5.086 m²ko azalera osatzen zuten, bertako ezpondak barne.

Hauek ziren lur-eremu horien mugak:

Iparraldera, Arizmendi baserriko lursailak; ekialdera, Arangoiti Ospitalearen baitako beste lur-eremu zenbait; hegoaldera, Aranezarra etxearen etxaguntzak; mendebaldera, Barrendain baserriko lursailak (hauek ere Dolarea etxeko jabearenak). Lur horien balioa 2.245 pezeta eta zazpi zentimokoa zen.

Larre-sail eta hariztiz betetako beste hiru lursail Basozabaleko zonaldean, trenbidearen beste aldean, Iurrerako norabidean. Hauek ziren lursail horien mugak "Segurako bide zaharra" (Iurreko bidea izenez ere ezagutzen zena) eta Idiazabalerantz zihoan errepide berria aparte utzita, horiek aipatu lursailak zeharkatzen baitzituzten:

Iparraldera, trenbidea; mendebaldera, Oria ibaia; hegoaldera, Beaskin iturri errekatxoa eta Basakoa izeneko beste lur-eremu bat; ekialdera, Igartzako txara,

Igartzako Maizenea edo Muruena etxearen baitako belardia eta Idiazabalerantz zihoan bidea, aurrez aipatu duguna. Lursail horien guztien balioa 3.435 pezeta eta 70 zentimokoa zen orduan.

Beste larre-sail bat **Magdalenabasoa** izeneko zonaldean. Lur-eremu hori harizti, pagadi eta irasailez hornitzen zen eta 13.267 m^2 zituen, muga hauekin: iparralde eta ekialdera, Vicente Mendiaren onibar bat; mendebaldera, Valmedianoko markesaren beste lursail bat (Ordiziako Barrena jauregikoa); hegoaldera, Usategi baserriko beste lur-eremu bat, hau ere Dolarea etxeko jabearena. Bere orduko balioa 792 pezeta eta 30 zentimokoa zen.

Dolarea jauregiaren baitakoa zenez, aurrez deskribatu dugun kapilautzarekin zegoen grabatuta, hots, Maria de Yarza ezagunak sortutakoa, hain zuzen, 3.850 pezetako kapitala zuena; horrez gain, kapilautza horren barneko bi urteurren- eta eskaintza-mezak. Hala, orotara, 3.882 pezeta eta 60 zentimoko kapitala zegokion.

Jauregiaren baitako jabetzekin lotuta hainbat kontu aipatu dira lehenago, esate baterako, jabetzen egiaztatzea, onarpen-autoak, Pilar de Idiaquezen heriotza, testamentuak, oinordekoak, kontularitza eta Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak egindako salmentak. Horiek guztiak Dolareari buruz ere esan daitezke; izan ere, 1919an zehar jabe berri hark Beasainen 23 etxe besterendu zituen eta beste hiru Matxinbentako zonaldean, eta aipatu etxea izan zen horietako bat, hain justu, Beasainen besterendutako 23 horietako bat.

Dolarea etxean bost familia bizi izan ziren. Ikus dezagun trenbidea egin zuten garaian nor bizi zen bertan:

Jose Izaguirre eta Josefa Antonia Aramburu senar-emazteak eta haien seme-alabak, Martina eta Jose Maria Izaguirre Aranburu; Angel Gonzalez eta Francisca Arratibel senar-emazteak eta haien semea, Gregorio Gonzalez Arratibel; hirugarren familia osatzen zuten Francisco Antonio Urquia eta Maria Bautista Garmendia senar-emazteek eta Jose Maria eta Vicenta Urquia Garmendia seme-alabek, haiekin batera bizi zirelarik aitaren ama, Maria Concepcion Jaca, eta izeba, Francisca Jaca; Jose Ignacio Peña eta Josefa Artazcoz senar-emazteek eta haien seme-alabek, Esteban eta Josefa Peña Artazcozek osatzen zuten laugarren familia, Juan Francisco Peña aitonarekin batera; azkenik, Isidoro Puder eta Juana Maria Canto senar-emazteak eta haien semea, Enriquet Puder Canto.

1862an, trenbidea eraiki zuten urtean gure bidaiariek ikusiko zutena ari gara deskribatzen eta, egiaz, 49, 50, 55 eta 55a argazkietan ikusi ahal izan dugunaren antzeko paisaia ikusiko zuten haiek, izan ere, Jauntxo gutxi batzuen jabetzako landa-zonaldea zenez, trenbidea ikurtzat zuen aurrerabideak ez zuen eragin handirik izan bertan. 49. eta 50. argazkiak trenbideko planoak taxutu eta ehun urtera aterata daude.

Erreparatu, halaber, XX. mendearen erdialdera ateratako 72. eta 73. argazkietan. Bertan, Dolarea etxetzarra ikus daiteke hondoan, gurutzea ere hor ageri delarik, urteetan aurrera goazenok betik ikusi izan dugun tokian. Prozesioaren argazkian Jose Luis Lasa ikusten da lehen planoan, Zaldizurreta baserrikoa; haren atzean dagoen andazaina Jose Zaldua da, Ubia edo Urbi etxetzarrekoa. San Isidro egunez, hots, nekazarien egunez egiten zen antzinako prozesioa da ikusgai dagoena. Gaur egun, antzinako tradizio hori ere galdu egin da.

ERREMENTARI, IGARTZAKO SUTEGI ZAHARRA.- Trenbidearen barna abiatu dugun bidaia txikiarekin jarraituz eta begirada Dolarea baino apur bat beherago jarriz, Igartzako errementariaren sutegiaren alboan kokatuko gara. Bertan, gutxienez XIX. mendearen hastapenetik Enparanza sendiko kideren bat lekutuko zen, baina beranduxeago mintzatuko gara horretaz.

Agian egongo da etxe horietakoren bat ezagutu ez duenik. Hori dela eta, 74. argazkia hartu eta horrela adieraziko ditugu etxeak bertan:

1. zenbakiarekin Errementari; 2 zenbakiarekin Igartzako Maizenea edo Muruena; 3 zenbakiarekin Zapatari; eta, 4 zenbakiarekin Matiasenea, 1928an eraiki eta 2005ean eraitsi zena.

Bi etxeen arteko bidea argi ikusten da, zeina azienda ibaira eramateko erabiltzen zen bertan edan zezaten, errepidearen ertzean zubiaren iparraldeko muturrean kokatutako arrapala bezalaxe. Errepidetik bertatik ikus

daitekeenez, bide hori Errementari eta Matias enea etxeen artetik igarotzen zen Oria ibaiaren ertzean kokatutako arkuraino. Azken hori ere 2007az geroztik ez da bertan azaltzen.

Ikus dezagun gure ibiltariak proiektatutako ibilbidetik barna bidaiatzen jarri ditugun urtean nola deskribatzen zuten Igartzako errementariaren etxe hori. Horrela deskribatzen zuten bada etxe hori 1865ean:

> *"…Errementari está próxima a Dolarea (Dolaa la denominan en la porción de plano 2b), es de tan solo una vivienda y consta de planta baja, en donde se situaban las cuadras, la cocina y el taller de herrería; en el primer piso estaban las habitaciones y en la segunda altura el desván. Su superficie alcanzaba los 128,83 m², y a una con su tejabana de trabajo y las antepuertas mantenía otros 63 m² de superficie…"*

Haren mugak berdin mantendu ziren azken urteetan ere:

Iparraldera, Irun-Madril errepide nagusia; hegoaldera, Oria ibaia; ekialdera, ibairantz zihoan bidea (Oria ibaiaren ertzeko arkuraino iristen zena, 74. argazki horretan ikus daitekeen moduan); eta, mendebaldera, etxearen baratzea. 1887n 2.730 pezetakoa zen haren tasazioa.

Etxearen mendebaldera kokatutako baratzea 241 m2koa zen eta muga hauek zituen:

Ekialdera, Errementari etxea; iparraldera, errepide nagusi zaharra; hegoaldera, Oria ibaia; eta, mendebaldera, lur-eremu bat, ezponda, Dolarearen baitakoa (259 m²ko lur-eremu txikia, lehenengo aska eta gerora iturria lekutzen zen zonaldean zegoena). Gogoan izan Dolarea eta Errementari etxeak jabe berarenak zirela. Baratzeak 217 pezeta balio zituen.

Etxearen parean beste lur-eremu bat zegoen, errepide nagusiaren beste aldean. Lur-eremu horrek 1.238 m² zituen eta muga hauek: iparraldera, Aguirrezabal baserriko lurrak; mendebaldera, Dolarea etxeko baratzeko bidexkak; ekialdera, Maizenea edo Muruena etxea eta hartako lurrak; eta, hegoaldera, errepide nagusi zaharra. Lur-eremu horrek 743,50 pezeta balio zituen.

Azkenik, 1887an artean bazuen ereiteko beste lur-eremu bat ere, 751 m² zituena eta muga hauek:

Iparraldera, errepide nagusi zaharra; hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Zelaetazar baserriko lursail bat; eta, mendebaldera, Dolarea baserriko beste lursail bat (biak Igartza etxearen baitakoak). 1887ko abuztuaren 22an 414,50 pezetakoa zen haren tasazioa.

Martin de Idiaquezek Beasaingo elizan eta Igartzako kaperan astero hiru meza irakurri ospatzeko Igartza Jauregiari ezarritako kapilautza izan ezik (urtean 30 dukateko korritu batekin), gainerako kargak berdinak dira Errementari etxearen kasuan ere, izan ere, Igartzako jauregiari buruzko atalean aipatutako Beasaingo 23 baserrien (haietako etxaguntzak barne) artean zegoen hura.

Jauregiari buruz esandakoak, hots, jabetzen egiaztatzea, onarpen-autoak, Pilar de Idiaquezen heriotza, testamentuak, oinordekoak, kontularitza eta Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak egindako salmentak, Errementari etxeari buruz ere esan daitezke; izan ere, aurrez aipatu dugun eran, zentsu horiei zegokienez, adierazitako jabetza guztiak Igartzaren baitako ondareekin lotuta zeuden.

Azkenik, kasu zehatz honetan, esangarri da etxea, hartako baratzea eta Errementari etxearen parean, errepidearen beste aldean zegoen onibarra Rosa Arcelusekin ezkonduta zegoen Jose Antonio Enparanza Lasari saldu zizkiola Zunzunegi familiak, 10.000 pezetaren truke. Jabetza horien eskualdatzea eta erregistroa 1938ko apirilaren 20an gauzatu zen.

Bukatzeko, etxetzar horren epitafio modura, aipagarri da haren historia luzea 2005ean amaitu zela, orduan eraitsi baitzuten 1970/1980 bitarteko hamarkadaren erdialdera Enparantza sendiak zaharberritutako eraikina.

Trenbidea eraiki zuten urtean hauek ziren Errementari baserriko egoileak: Martina Josefa Lasa alarguna eta haren seme-alabak, Francisca eta Miguel Enparanza; halaber, Petra Lasa (azkenaren emaztea) eta Manuel Aranburu (lehenengoaren iloba). Orobat, errementari-mutil bat ere bizi zen etxean. Dena den, haren izen-abizenak ez ditugu ezagutzen.

Igartzako multzoa mintzagai dugunez, 65. irudia hartzea komeni da. Argazki hori XX. mendearen erdialdekoa bada ere, argi ikusten da oraindik "Segurako bide zaharra". Horrez gain, beste hainbat xehetasun ere antzeman daitezke bertan. Horiek denak pixkanaka aipatuko ditugu 2d plano-zatiaren laguntzarekin. Ikus dezagun dena orokorki:

65. irudia hartzen badugu Q-Q´ hizkiekin adierazitako bidea "Segurako bide zaharraren" (aurrerago Iurre edo Idiazabalerako bide gisa ere izendatuko dugu) bariazio bat dela ikus dezakegu, 2d plano-zatian Q hizkiarekin adierazi duguna. 2c plano-zatian V hizkiarekin adierazten da burdinola-errotaren kanalak egiten duen ibilbidea. 65. argazkian bi gezi bertikal zuriz adierazten dugu.

2d plano-zati handituan desbideratze hitza agertzen da eta LL hizkiekin adierazten da. Hori trenbidearen sustatzaileek bide horretan egindako aldaketa da. Bizilagunek bide horien gainean zituzten zortasun-eskubideak mantentzeko eraiki behar izan zuten, hain justu, bertan adarkatzen baitziren. Modu horretan, bide horietako bat hartuta Olaberrirantz eta Zuntzunegiko zonaldean kokatutako baserri eta lurretara joan zitezkeen artean; eta, beste bidea hartuta, lehen bezalaxe, Segura eta Idiazabal aldera joan zitezkeen "Segurako bide zaharretik" barrena. Hain zuzen, horretarako eraiki zuten trenbidearen gaineko Igartzako zubi goratu zaharra. Hura 2004an eraitsi zuten eta, orduan, haren ordez eskailera eta pasabide bat egin zuten A-1 autobidearen beste aldean dauden mendietarako sarbide modura.

Ez zuten pasabide askorik utzi baserritarrak beren gurdi eta ferraz hornitutako animaliekin igaro zitezen, izan ere, bidean gora, 300 metro ingurura, Antzizarreko trenbide-pasabidea baino ez zegoen eta, azken horretatik 250 metrora, Ibuluseko oinezkoentzako tunela, trenbidea azpitik zeharkatzekoa. Dena den, beherantz joan nahi bazuten, trenbidea gurutzatzeko pasabide gertukoena Zaldizurreta aldean zegoen, hots, Igartzatik ia kilometro batera.

58. eta 59. argazkiak berriz hartzen baditugu, bikain islatzen da Olaberrira egiten zuen bide zaharraren ibilbidea. Lehenengo Zuntzunegi, Atarieder, Txintxurreta edota Altamira etxeetara iristen zen. Horiek, aurrez esan dugun moduan, ibilbidearen beste aldean paratzen ziren, urruti samar.

Zonalde hori goitik behera ezagutze aldera, 2d plano-zatia hartuko dugu ostera ere. Hor LL hizkiekin adierazitako desbideratzeaz batera, Ñ hizkiarekin adierazten da aipatu baserrietara eta Olaberrira iristeko galtzada hori; K hizkiarekin Oria ibaiaren ibilgua adierazten da; T hizkiarekin errekastoa adierazten da, gaur egun kanalizatua dagoena eta Altamirako zonaldetik gertu dagoen mendi-mazela horretan behera egiten duena; U hizkiak 1862an M. Ladamek marraztutako trenbidearen ibilbidea adierazten du; X hizkiarekin adierazten da Igartzako zonaldean trenbidearen gainean eraiki zuten zubia lekutzen zen puntua, 2004an eraitsi zutena. Zubi horrek zuen itxura ikusteko, egun San Isidro Granja kokatzen den zonaldera (antzina Arranomendia baserria lekutzen zen tokira) iristeko Lazkaibar-Upabia inguruan dagoen zubia begiztatu besterik ez dugu egin behar, biak berdinak baitziren. Azken sektorean, hots, zazpigarrengoan, Lazkaibarri buruzkoan ere ikusiko dugu hori.

ZAPATARI.- Hala izendatzen zen Errementari etxearen ia parez pare paratzen zen eraikin luzexka eta baxua. Errepidearen altzoan kokatutako baserri zaharrari buruzko idatzi batean zera adierazten da, beste gauza batzuen artean,

> ***"…confina por el Oeste con las casas Maizenea y Muruena…".***

Antza denez, hala izendatzen zuten ondoan zegoen Igartzako Maizenea etxea. Bitarteko hormak batek bereizten zituen biak eta Maizenea Zapatari baino apur bat altuagoa zen. Lehenengoaren egitura luze eta eskasa beheko solairuak eta ganbarak osatzen zuten.

74. argazkiak ezohiko ikuspegi bat eskaintzen digu. Hala, Igartzako Maizenea edo Muruena eta Zapatari etxeak ikusten dira, 2 eta 3 zenbakiekin adierazita, hurrenez hurren.

Lehenengo aldiz ikusten dugu Igartzako Maizenea hori Muruena izenarekin. Dokumentuotan topatu ditugun datuen arabera, badirudi Maizenea etxe hori bi zonaldetan bereizia zegoela; eta, hain zuzen, sartaldera beha zegoena, murruaren aldamenean, Muruena izendatzen zuten.

Francisco Albisuk hala izan daitekeela adierazi zidan, izan ere, haren aitona izan zen eraikinaren azken jabea eta oso ongi oroitzen du etxearen antolamendua. Ez dakigu zehazki noiz eraiki zen. Hala ere, trenbidea eraiki zuten urtean jadanik udal-erroldan ageri zen.

Matiasenea izeneko etxe ederra ere haren familiak eraiki zuen XX. mendean, zehazki esatera, 1928an. Hala ere, 2005ean eraitsi egin zuten. 76. irudian haren egitura itzela ikus daiteke parez pare eta 74. argazkiak airetiko ikuspegia eskaintzen digu. Horiei esker, lau eraikuntza horiei buruzko erreferentzia zehatzak oroit ditzakegu kokapenari gagozkiola.

Matiasenea etxea aipatu dugunez, hari buruz kontu gehiago aipatuko ditugu, izan ere, Igartza etxearen jabetzako lurretan eraiki zuen hura ere, eta lur horiek XX. mendearen hastapenean, artean, Igartzako maiorazkoaren jabetza ugariek zituzten zentsu eta kapilautzak zituzten.

Matiasenea etxea 1.238 m²ko lursail baten gainean eraiki zen eta muga hauek zituen:

Mendebaldera, ibaira jaisteko bidea; iparraldera, errepide nagusia; ekialdera, banatutako lursailaren gainerako eremua (gerora Indar enpresara sartzeko ataria izango zena; hegoaldera, Oria ibaia.

Garai hartan hauek ziren lursailaren jabeak: Alberto Zunzunegi Gabilondo, urte horietan Udaleko idazkari zena eta Maria Josefa Azurzarekin ezkonduta zegoena; Leonardo Zunzunegi Gabilondo, ezkongabea eta Beasainen lekututako bankuko langilea; eta Eugenio Aseginolaza, Teresa Zunzunegirekin (aurreko

bien arreba) ezkonduta zegoena. Azken horiek lureremu hori saldu egin zuten eta Matias Albisu Iztueta beasaindarrak, adin nagusiko azienda-tratulariak eskuratu zituen, 8.666 pezeta ordainduta.

1928ko otsailaren 18an egitura hau zuen etxeak: beheko solairua, bi pisu eta ganbara. 12,80 metro zituen aurrealdean eta beste 13 metro sakoneran. Eraikina 166,40 m²ko azalera gainean eraikita zegoen eta lursailak beste 1.071,60 m²ko azalera zuen. Lur-eremu horrek guztiorrek, artean, Igartza etxearen kargak mantentzen zituen. Lursail horretan eraikitako eraikinak, ordea, ez zuen kargarik, izan ere, kargarik gabe eraiki zen. 1928an 40.500 pezetakoa zen etxe horren balioa.

Baina jarrai dezagun Zapatari etxearekin, hori baita leku horretan eta une honetan dagokiguna. Baserri hori Igartza etxearen jabetzakoa izan da "betidanik"; eta, izenari erreparatuz ez da zail asmatzen bertan bizi zirenek Igartzako auzoan antzina zuten lanbidea.

Etxe hori harlangaitzezkoa zen erdiz. Egiturari dagokionez, berriz, baxua eta luzexka zen eta, orokorki, eraikuntza apala zen; Ormaiztegi-Gatzaga-Arlaban aldera zihoan galtzada zaharrak puntu horretan egiten zuen bihurgune luzearen ertzean lekutzen zen eta 148 m2ko azalera hartzen zuen.

Hauek ziren Zapatari etxearen mugak 1862an:

Iparraldera, hartako onibarrak; hegoaldera, errepide nagusi zaharra; ekialdera, hartako baratzea; eta, mendebaldera, aurrez aipatu dugun eraikin bat, Igartzako Maizenea edo Muruena izenekoa.

Zapatari etxeak beheko solairua eta ganbara besterik ez zituen eta horrela banatzen zen: Beheko solairuan sukaldea, jendaurreko denda, artisautza-jardunaren ondorioz sortutako bezeroak hartzekoa, eta animalientzako ukuilua; goiko zonaldean logelak eta ganbara paratzen ziren. Antzinako idatzi horretan adierazten denez, haren "egitura ertaina" aintzat hartuz, 1887an 1.452 pezeta eta 65 zentimo baino ez zuen balio.

Etxearen ekialdera lekutzen zen baratzea 167 m²koa zen, paretak barne. Honatx baratze txiki horren mugak:

Mendebaldera, etxea; hegoaldera, Irun-Madril errepide nagusi zaharra; iparralde eta ekialdera, Aguirrezabal (Artzal) baserriaren onibarrak, horiek ere Zapatari etxeko jabearenak. Baratze horrek 264,50 pezeta balio zuen.

Etxea (eta etxaguntzak) Igartza etxearen baitakoa izaki, aurrez deskribatu dugun kapilautzarekin zegoen grabatuta, hots, Maria de Yarza ezagunak sortutakoa, hain zuzen, 3.850 pezetako kapitala zuena; horrez gain, kapilautza horren barneko bi urteurren- eta eskaintza-mezak. Hala, orotara, 3.882 pezeta eta 60 zentimoko kapitala zegokion. Jauregiarekin lotuta hainbat kontu aipatu dira lehenago, esate baterako, jabetzen egiaztatzea, onarpen-autoak, Pilar de Idiaquezen heriotza, testamentuak, oinordekoak, kontularitza eta Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak egindako salmentak. Horiek guztiak Zapatari etxeari buruz ere esan daitezke, izan ere, Beasainen besterendutako 23 etxe horietako bat izan zen.

Montcabrierreko bizkondeak Zunzunegi familiari salmenta egin zionean, 1919an, 1.502 pezetatan tasatu zen Zapatari etxea, lurrak kontuan hartu gabe. Aurrez 1887an egin zen hari buruzko balioespena eta orduan 1.452,65 pezetatan balioetsi zen; hau da, 32 urte igaro baziren ere, soilik 49,35 pezetan handitu zen haren balioa.

1919an aipatu familiak jabetza horien erosketa gauzatu ostean, 1942ko azaroaren 3an Josefa Arruzazabala y Echaburuk, aldeetako baten ezkontide zenak, arestian esan bezala, Zapatari etxearen heren bat bereganatu zuen, aipatu 17 jabetzekin batera. Beranduxeago, andre hark eskuratu zuen baserriaren erdia, zegozkion etxaguntzekin batera; kasu horretan herentzia bidez.

1970eko abuztuaren 10ean, andre hori hil zelarik, haren hiru seme-alabek, Maria Isabel, Juan Jose eta Maria Luisa Zunzunegi Arruzazabalak eskuratu zuten erdi hori. Horrenbestez, 1971ko uztailaren 8an jabetza eskualdatu zen. Gainerakoa guztiok dakigu, izan ere, 1977an etxetzar hori eraitsi egin zen, errepide nagusi zaharrak puntu horretan zuen bihurgune arriskutsua kentzeko lanak zirela-eta.

Trenbideari dagokion planoa marraztu zen urtera itzuliko gara, 1862. urtera alegia. Orduan Martin Antonio Aranburu, Vicente Orbegozo eta Josefa Martina Unsain senar emazteak eta, hauen semea, Tomas Orbegozo Unsain bizi ziren Zapatari etxean.

IGARTZAKO MAIZENEA EDO MURUENA zen Zapatari etxearen mendebaldeko paretaren alboan kokatutako eraikin garaiena. Aurrez Zapatari etxea arakatu dugunez, kasu honetan haren anaia "bikia" ikusiko dugu, Igartzako Maizenea edo Muruena etxea.

75. argazkia hartuko dugu ostera ere. Hor eraikin zaharraren mendebaldeko pareta ikusten da eta puntu horretan galtzadak zuen bihurgune itxia ere bistan da. Ezkerrera, nahikoa argi ikusten dira atzealdeko baratzera eta atzealde horretako murrura iristeko eskailerak. Ikus hari buruz ematen den deskribapena, non guztia eraikin berari zegokiola argitzen baita:

> *"…se situaba a continuación de Errementari hacia abajo, pero en el lado opuesto de la calzada, la cual, aunque con dos nombres diferentes, constituyen un solo arriendo…" (Se refieren ahora a los dos nombres Maizenea y Muruena que hemos citado anteriormente)*

Etxetzar horren beheko pisuan ukuilua eta sukaldea paratzen ziren, beheko solairuan bereizketa batekin, goiko pisuan gelak eta gorago ganbarak. Etxearen atzealdean teilape bat, 206,32 m²ko azalera zuen orube baten gainean.

1862an hauek ziren baserriaren mugak:

Hegoaldera, Irun-Madril errepide nagusia; ekialdera, Zapatari etxea; iparralde eta mendebaldera, hartako etxaguntzak. Alboan zuen Zapatari etxeari buruz bezala, 1887an zera esaten zen hari buruz:

> *"…que atendiendo a su mediana clase de edificación, se aprecia la misma en tan solo 1.480,50 pesetas…".*

Igartzako Maizenea etxeak Igartza etxeak hari esleitutako jabetza ugari zituen:

Etxea ukitzen bi onibar, 1.390 m²ko azalera osatuz, muga hauekin:

Hegoaldera, Irun-Madril errepide nagusia eta Zapatari baserria; ekialde eta iparraldera, Aguirrezabal baserriaren lurrak, guztiak jauregiaren baitakoak; mendebaldera, beste onibar bat, garai hartan Errementari etxeari esleitua. 1862an horien balioa 723 pezeta eta 15 zentimokoa zen.

Beste bi jabetza errepidearen beste aldean, etxeen parez pare, 2.604 m²ko azalera zuen baratze batekin. Hain zuzen, lur-eremu horietako zenbait baliatu zituen 1926an Albisu sendiak Matiasenea etxea finkatzeko. Beranduago, 1940an Indar enpresa finkatu zen, lur-eremu horietako zenbait hartuz.

Hauek ziren orduan lur-eremu horien mugak:

Iparraldera, Irun-Madril errepide nagusia; hegoaldera, Oria ibaia; mendebaldera, Oria ibairako jaitsiera (Errementari eta Matiasenea etxeen arteko bidea, Oria ibaiaren alboko ertzeraino iristen zena); ekialdera, Igartzako "nagusiek" Dolareari esleitutako onibar bat eta Trenbidearen Konpainiari saldutako lurrak. Bere orduko balioa 1.318 pezeta eta 20 zentimokoa zen.

Antzizarreko zubi berriaren inguruan kokatutako beste onibar bat, 4.229m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta 749 m²koa belardi eta ezponda-lurretan.

Honatx lursail horretako mugak:

Iparraldera, Irun-Madril errepide nagusia; hegoaldera, Oria ibaia; ekialdera, Usategi baserriari esleitutako onibar bat; mendebaldera, Errekarteaundi baserriko jabetza bat. Bere orduko balioa 2.152 pezeta eta 45 zentimokoa zen.

Antzizarreko gurutze delakoan kokatutako beste lursail bat, 2.764 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta 116 m2koa ezponda-lurretan. Honatx hartako mugak:

Hegoaldera, Irun-Madril errepide nagusi zaharra; mendebaldera, Loinatzazpikoa baserrira zihoan bidea (Loinazko estrata izenekoa); iparralde eta ekialdera, Errekarteaundi baserriko onibar bat. Bere orduko balioa 1.424 pezeta eta 60 zentimokoa zen.

Antzizarreko zubiaren ondoan zegoen beste onibar bat, ezponda aintzat hartuta, 3.389 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Igartzako txara izenekoa; iparraldera, Oria ibaia; mendebaldera, Idiazabal aldera zihoan errepidea (kasu horretan Antzizarreko puntu horretan 1851n Idiazabal eta Etxegarate aldera egindako desbideratzea da aipagai, gerora, aipatu herriaren barrenetik igaroko zena). 1887an haren balioa 1.532 pezeta eta 30 zentimokoa zen.

Azkenik, beste onibar bat Basozabaleko zonaldean (zenbaitetan Basazabal ere izendatzen da), 422 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Ekialdera, Idiazabalera zihoan bide berri hori; hegoalde eta mendebaldera, Dolarea etxearen baitako larre-sailak; iparraldera, Iurreko bide zaharra ("Segurako bide zahar" ere izendatzen dena). Bere orduko balioa 73 pezeta eta 50 zentimokoa zen.

Aurreko jabetzekin lotuta hainbat kontu aipatu dira lehenago, esate baterako, jabetzen egiaztatzea, onarpen-autoak, Pilar de Idiaquez andre ezagunaren heriotza, testamentuak, oinordekoak, kontularitza eta Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak egindako salmentak. Horiek guztiak Igartzako Maizenea edo Muruenari buruz ere esan daitezke; izan ere, urte horietan Igartzako jabe berri hark, herrian "frantsesa" ezizenarekin ezagutzen zen jaraunsleak, Beasainen besterendu zituen 23 etxeetako bat zen hura.

Trenbidea eraiki zen garaian pertsona hauek bizi ziren Igartzako Maizenea edo Muruena etxean:

Matias Iztueta eta Juana Luisa Lasa senar-emazteak eta haien seme-alabak, Juan Maria eta Concepcion Iztueta Lasa, horiekin batera bizi zirelarik Juan Jose Ganzarain eta Maria Juana Oria mirabeak.

MENDI-MAZELA ERDIRA LEKUTZEN ZIREN HIRU BASERRIAK

Zapatari eta Maizenea edo Muruena baserriak igaro ostean, 1862an trenbidean zehar oinez jarri ditugun ibiltariek Agirreaundi eta Aguirrezabal baserriak ikusiko zituzten Usurbe mendiaren inguruko mendi-mazela erdira. Atzean utzi dugu Beatxurreta berariaz, bi horiekin batera aipatzeko, izan ere, mendi-mazela berdinean lekutzen da, pixka bat atzerago egon arren, ia Errekartetxiki baserriaren gainean.

Beatxurreta (urte horietan Beraziartu edo Bereziartu izenez ere ezagutzen zena) aurreko biak baino pixka bat atzerako ikusiko zuten, mendebaldera. Dena den,

mendi-mazela horretan lekutzen zen, aipatu bien altuera bertsuan. 49. irudian ikus dezakegu hori 6, 7 eta 8 zenbakiekin adierazita, hurrenkera horretan. Igartza izeneko lekuari buruz aurrez egindako deskribapenean Aguirre baserri biak "Igartza auzoko iparraldeko hegalean" lekutzen ziren baserri gisa izendatzen dira.

Kapitulu hau ixteko hiru baserrietan urrunen zegoena aipatuko dugu, antzina Igartzako zonalde horretan ospitale funtzioa betetzen zuena. Bertako azken egoileek, Jauregi anaiek, artean, "Artzal" izendatzen zuten, bere izena azken bi silabetara mugatuz ia. 77. eta 78. argazkietan baserri hori erakusten dugu oroimenean iltzatuta gera dadin. Lehen argazkia aski ezaguna da, 1980ko hamarkadaren hasiera aldera aterea, etxetzarra oraindik zutik erakusten duena. Bigarren argazkia 2005eko udaberrian ateratakoa da eta baserriaren aurriak baino ez dira ikusten.

XX. mendearen erdialdean eskuratutako 71. argazkian ere oso ongi ikus daitezke bi baserriak: Agirreaundi irudiaren ezkerreko aldean (irudian AA hizkiekin adierazia) eta Aguirrezabal (Artzal) eskuineko aldean, A hizkiarekin adierazia. Argazkia oso goitik ateratakoa denez, oso ongi antzematen dira laborantza-lur ugariak, bideak eta beste zenbait eraikin berriago. Azken horiek baliagarri zaizkigu erreferentzia gisa, izan ere, orduan ia ez zegoen beste eraikuntzarik.

1862ko plano zahar horretan Igartzako zonaldean izendatzen ziren baserriak deskribatzeko hiru baserri horiek baino ez zaizkigu falta. Honatx bada:

BEATXURRETA (planoan Beachurreca aipatzen da) antzina Bereziartu edo Beraziartu ere izendatzen zen. Igartzaren parean, mendi-mazela horretan hegoaldera begira kokatutako baserrietan lehena da.

Baserri horri 1862an 19. zenbakia zegokion Beasaingo Mendebaldeko Zatian. 47. irudian baserri horren argazki berriago bat ikus daiteke.

Etxea 288 m²ko azalera zuen orube baten gainean eraiki zen. Dokumentuetan irakurtzen denez, "eraikin sendoa da, hainbat zatitan banatuta egon arren". 1877an baserriaren balioa 1.800 pezetakoa zen.

Hauek ziren urte horietan Beatxurreta baserriko etxaguntzak:

Etxearen alboko lursailak muga hauek zituen:

Iparraldera, Errekartetxiki eta Olazar baserrietako lurrak; hegoaldera ere Errekartetxiki baserriko etxaguntzak; ekialdera, Agirreaundi eta Aguirrezabal baserrietako lurrak; azkenik, mendebaldera, Errekartetxiki baserriko etxaguntzak eta izen bereko errekatxoa.

Onibar horren azalera 10.520 m²koa zen, ia dena ereiteko lurretan. Dena den, azalera horretan zenbait ezponda eta frutarbola ere barneratzen ziren. Areako 18 pezeta balio zuen lur-eremu horrek. Horrenbestez, orotara, 1.893 pezeta eta 60 zentimoko balioa zuen.

Baserriaren baitako beste lur-eremu batek 14.000 m²ko azalera zuen. Lursail hori otadia zen gehienbat eta bere balioa 5 errealekoa zen areako, orotara, 175 pezetatan balioesten zelarik.

Halaber, aipagarri da gaztainadi bat, izenik gabea, Malezako zonaldean lekutzen zena eta muga hauek zituena:

Iparraldera, Gabriel Mugica eta Jose Maria Amundarainen lursailak; hegoaldera, Tirso de Olazabalen (Abariako maiorazkokoa) lurrak eta Aranburuazpikoa baserriko beste hainbat onibar; ekialdera, Arantzamendiko etxaguntzak; mendebaldera, Aranburuazpikoa baserriko lur gehiago. 11.548 m²ko azalera zuen eta areako 8 pezetatan balioesten zen. Horrenbestez, bere balioa 923 pezeta eta 84 zentimokoa zen, zuhaiztia barne.

Beste lursail misto bat, hau ere izenik gabea, aurrekoa lekutzen zen zonalde berean. Kasu honetan, otalur eta gaztainadiz betea eta muga hauekin:

Iparraldera, J. J. Zunzunegiren lurrak eta Arrieta baserriko beste zenbait lur; hegoaldera, Errekartetxiki baserriko lursailak; ekialdera, Zuntzunegiren lur gehiago; mendebaldera, Maleza edo San Martin izeneko errekatxoa. Hartako azalera 11.304 m²koa zen eta 4 pezeta balio zuen areako. Horrenbestez, orotara, 454 pezeta eta 56 zentimotan balioesten zen.

1877an 4.527 pezetakoa zen Beatxurreta baserriaren balioa, deskribatutako etxaguntza guztiekin.

Hauek ziren jabetza horri zegozkion kargak: zilarrezko 100 dukateko kapitala zuen zentsua, urtean 5 dukateko korritu batekin, 1661eko abuztuaren 5ean Domingo Ercillaren aurrean Martin de Arramendia (Agirre aundi baserrikoa) eta haren emazte Maria Anzizarrek ezarria, nagusi modura. Zentsu horretako fidatzaile gisa agertzen ziren Antonio Olano eta Maria Alustiza senar-emazteak. Hainbat gorabehera eta eskualdatzeen ondotik, zentsu hori Ignacio Mayora presbiteroaren alde jazo zen, Segurako parrokiako onuradun zena. Beasaingo lehen liburu zaharreko 32. folio iraulian, 48. zenbakian jasotzen da hori.

1612ko urtarrilaren 1eko eskrituran, Juan de Pagadizabalek ere urteurren-mezen kargak ezarri zituen Felipe Ercillaren aurrean, Diakonotza-mezak ospatze aldera. Kasu horretan, urtean 11 errealekoa zen ordaina, Beatxurreta baserriko defuntuen alde.

40 beloi-dukateko beste zentsu bat nagusi modura, urtean 2 dukateko korritu batekin, 1637ko urtarrilaren 21ean ezarria Juan Aracama eta Pedro de Loinazen aurrean, kasu horretan Beasaingo parrokiako kabildoaren alde.

10 beloi-dukateko beste zentsu bat nagusi modura, urtean 5,5 errealeko korritu batekin, Juan de Loinatz Bereziartuk 1648ko irailaren 29an ezarria Felipe Ercillaren alde, hori ere Beasaingo parrokiako kabildoaren alde.

Beste zentsu bati aurre egiteko fidantza bat, kasu horretan 160 beloi-dukateko zentsua, urtean 8 dukateko korritu batekin, 1720ko irailaren 18ko eskritura bidez ezarria Juan Garcia Arangurenen aurrean, Juan de Loinaz, haren seme Juan de Loinaz eta Simona de

Lasa izanik nagusiak. Kasu horretan Pedro de Loinaz eta Magdalena Bereziartu izanik fidatzaileak. Kasu horretan Segurako parrokiako kabildoaren alde gauzatu zen zentsua.

Baserri horretako jabegoa ere kontu nahasi samarra zen orduan. Lehen jabea Maria Agueda Balancegui izan zen, dokumentuetan irakurri dugunez. 1846ko urtarrilaren 29an andre hura hil ondotik, baserriaren jabetza Enrique Otazu y Altuna bilobaren eskuetan geratu zen. Gizon ezkongabea zen, 41 urtekoa, aldi berean beste zenbait jabego zituena eta Madrilen bizi zena. Hildako andre hark jabetzari zegokion idatzizko titulurik ez zuenez, Martin Jose Ibarrolaburu eta Francisco Aldanondok jardun zuten lekuko gisa. Neke ugariren ostean frogatu ahal izan zuten haiek zendutako andre hura zela Beatxurreta baserriko legezko jabea.

Jose Martin Arana (Iturrondo etxekoa) alkate izanik, Jose Manuel Goena (Ezkiatxiki baserrikoa) errejidore izanik eta Jose Domingo Mugica (urte horietan Usategi baserriko egoilea) idazkari izanik, jabetzaren titulartasuna onartu zuen, aldi berean, sortutako kontribuzioak garaiz ordaindutzat azalduz.

Aurreko espedientea erregistrorako aurkeztu ostean, antzina baserria jadanik Magdalena Pagadizabalen jabetzako gisa agertzen zela frogatu ahal izan zen, Beasaingo lehen liburu zaharreko 94. folio irauliko 136. zenbakian adierazten denez.

Magdalena Pagadizabal andrearen oinordekorik ezagutzen ez zenez aipatu liburuan erregistratu zenetik urte asko igaro zirela-eta, Joaquin Urteaga epaileak, Restituto Larrondobruno idazkariaren aurrean, aurreko autoa berresteko erabakia hartu zuen, erregistratzeko agindua emanez.

Jabetza Enrique Otazu y Altunaren alde erregistratu zen 1877ko urriaren 1ean, eskubide hobeko besteren bat agertzearen kalterik gabe. Beranduago, jabetza bere lehengusuak, Nicolas de Otazu Echeverriak eskuratu zuen, usufruktu modura. Geroago haren semeak, Jose Maria Otazu Arralabek bereganatu zuen jabetza, bere aitak Arabako probintzian zituen lursail guztiekin batera, herentziatik at geratu zen etxe bat izan ezik.

1914ko urtarrilaren 7an Ignacio Lardizabal Altuna eta Josefina Valenzuela Aiako bizilagunak geratu ziren gozamendun oinordeko gisa, legezko ezkontide eta lehengusu zirenak. Azkenik, jabetza haien semeak eskuratu zuen, hots, Jose Maria Lardizabal Valenzuelak, gerora Ziburun hil zenak.

Dagoeneko gehiena aipatua da, izan ere, 1946an eskuratu zuten jabetza hori aurreko pertsonaiaren seme-alaba ziren Maria Luisa, Ramon Maria eta Maria Josefa Lardizabal Silvak. Hiru horiek ere Seguran bazituzten sustraiak.

Lehen alaba, etxekoandrea, Bagneux kondearekin zegoen ezkonduta. Kondea "Cotes du Nord" eskualdekoa zen, Frantzian; bigarrena, Aian bizi zen; eta hirugarrena, alaba, Ziburura ezkondu zen Saint Pereko Carlosekin.

Hiru oinordekoek 1951ko irailaren 21ean erregistratu zuten jabetza. Azkenik, Bagneux kondeak eta haren emazteak bereganatu zituzten etxea eta hartako etxaguntzak, jabego bakar modura.

1862an familia bakarra bizi zen baserrian: Martin Jose Muñoa eta Joaquina Loinaz senar-emazteak eta haien semea Juan Bautista Muñoa Loinaz. Horiez gain, semearen emaztea zen Rufina Aranburu eta azken hauen semeak, Jose Pedro Ignacio eta Martin Jose Muñoa Aranburu.

AGIRREAUNDI da Beasaingo herrigunera abiatu ahala mendi-mazelaren erdialdera kokatzen zen hurrengo eraikina. Baserri hori beste izen batekin ezagut zezaketela iradoki dugu eta halaxe da, izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, jabearen (Felipe Arramendia) abizenarekin ere izendatzen zen. 71. argazkian ezkerraldean ikus daiteke.

Baserri horri buruzko informazio gehiegirik ez dugu. Dena den, zentsu eta fidantza ugari hautematen dira antzinako jabea zen Felipe Arramendiak ezarritakoak, zonaldeko baserri gehienek zituztenak baino askoz gehiago.

Agirreaundi Beasaingo Mendebaldeko Zatiko 9. zenbakian lekutzen zen. Beheko solairuan aziendarentzako ukuilua eta sukaldea zeuden. Baserri gehienetan bezala, lehen solairuan paratzen ziren etxeko logelak eta ganbara.

Hauek ziren etxearen mugak:

Iparraldera, hartako ataurreak; hegoalde, ekialde eta mendebaldera, gainerako etxaguntzak. Etxeari erantsita teilapea zegoen eta haren azpian ogia egiteko labea. Teilapearen alboan bazen beste eraikin bat, 193 m²ko azalera zuena. Baserriaren balioa 3.680 pezetakoa zen orduan, hartako etxaguntzak kontuan hartu gabe.

Honatx ataurrearen mugak:

Hegoaldera, etxea; ekialde, mendebalde eta iparraldera baserriko etxaguntzak. Ataurreen azalera 144 m²koa zen eta 36 pezeta balio zuten.

Etxeko baratzea hari atxikita zegoen, ekialdeko aldean. Honatx baratzearen mugak:

Iparraldera, orain bezalaxe, errepidea; hegoaldera, etxeari zegokion lursaila; ekialdera, Granada Egako dukearen (urte haietan Igartza etxeko Jauna) etxaguntzak; mendebaldera, Agirreaundi baserria. Baratzearen azalera 234 m²koa zen eta 175 pezeta balio zuen.

Baratze horrez gain, lur-eremu hauek ere etxearen baitakoak ziren:

Etxeazpia, iparraldera baserria zuena mugakide; ekialde eta hegoaldera, Igartza etxeko lurrak; mendebaldera, Esteban Zurbanoren jabetzak. Aipatu gizona zonaldeko beste zenbait etxeren jabea izateaz gain, Segurako Zurbano jauregiaren jabea ere bazen. Lursail horrena zalera 4.943 m²koa zen eta bere balioa orduan 3.089 pezeta eta 25 zentimokoa zen.

Etxeburua, 5.790 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta 510 m²koa sagastietan, aldi berean muga hauek zituelarik:

Iparraldera, errepidea; hegoaldera, Segurako Zurbano etxearen baitako etxaguntzak; ekialdera, baserria, etxeko ataurreak eta errepidea; mendebaldera, Beatxurreta baserriko lurrak. 1877an haren balioa 2.946 pezetakoa zen.

Andraiturrialdea, 2.757 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera, errepidea; hegoalde eta mendebaldera, Granada Egako dukearen etxaguntzak, urte horietan Igartzako maiorazkoaren titularra baitzen; ekialdera, Andraiturri (Andramendi) baserriko onibar bat. Lur horren balioa 1.240 pezeta eta 65 zentimokoa zen.

Zenbait dokumentutan ikusitakoaren arabera, Andraiturri etxea antzina Andramendi izenez ezagutzen zen etxetzarra da. Etxetzar hori 1847an jadanik zonaldean zegoen, nahiz eta garai hartan Andraiturri izendatzen zuten sarritan. Maiz Andramendi izendatzen zutena etxearen baitako lur-eremu bat zen. Hori 3. sektoreari dagokion deskribapenean azalduko dugu, Geltokiko zonaldeari buruzkoan.

Etxeburuko barrutia gaztainadi eta hariztiz betetako lursail bat da, 1.176 m²ko azalera zuena. Haren orduko balioa 2.951 pezeta eta 47 zentimokoa zen. Honatx hartako mugak:

Iparraldera, Jose Martin Lasaren jabetzako lursail bat; hegoaldera, errepidea; ekialde eta mendebaldera, Igartza etxeko etxaguntzak.

Beste lursail bat **Aranburubasoa** izeneko zonaldean, otadi, gaztainadi eta intxaurrondoz betea eta muga hauekin:

Iparraldera, Ramon Mendiaren eta Zunzunegiren etxaguntzak; ekialde eta hegoaldera, Ramon Mendiaren (Aranezarra baserrikoa) lurrak; mendebaldera, Aranburugaraikoa baserriko lursail bat eta inguru horretatik jaisten den errekastoa. Lur-eremu horrek 25.008 m²ko azalera zuen eta bere balioa 1862an 832 pezetakoa zen.

Inbuto izeneko onibar bat, 5.500 m²ko azalera zuena gaztainadiz hornitua eta beste 3.612 m² otaditan. Honatx onibar horren mugak:

Iparralde eta ekialdera, Arrietako baserriko etxaguntzak; hegoaldera, Beatxurreta baserriko lurrak; mendebaldera, errepidea eta Beatxurreta baserriaren baitako beste lursail bat. Haren balioa 1862an 502 pezeta eta 30 zentimokoa zen.

Serotegi basoa izeneko gaztainadia, 4.590 m2ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera, Errekarteaundi baserriko lurrak; hegoaldera, San Martin edo Amunabarro baserriko lurrak; ekialdera, errepidea; mendebaldera, Maleza edo San Martin izeneko errekatxoa. Urte horietan haren balioa 570 pezeta eta 65 zentimokoa zen.

Agirreaundi (antzina Arramendia izenez ere ezagutzen zena) baserriaren balioa 1877an 16.027 pezeta eta 68 zentimokoa zen, deskribatutako etxaguntza guztiak barne.

Ikusten denez baserri haren balioa garrantzitsua zen eta hortik datorkio Agirreaundi izen egokia. Nolanahi ere, ikus ditzagun jarraian urte horietan haren baitako zentsu guztiak, horietako zenbait hartako jabe zenak, Felipe Arramendiak ezarriak.

Lehen zentsua 200 dukateko kapital batekin, urtean 5 dukateko korritua zuena, Felipe de Arramendiak ezarria Antonio Joaquin Ustarteren alde; gerora, Juan Santos Elduayenen alde geratu zen eta, azkenik, Martin Aguirre Garagarzaren alde.

Beste zentsu bat 100 dukateko kapitala zuena eta urtean bost dukateko korritu batekin, Martin de Arramendiak ezarria Pedro Bereziarturen alde. Azken horrek Pedro Mayora presbiteroari saldu zion gerora.

42 dukateko kapitala zuen zentsu bat, urtean 13 erreal eta 20 marabediko korritu batekin, orduan Antonio Urtesabalek ezarria Zumaiako moja komentuaren alde.

Beste zentsu bat, 1.400 dukateko kapitala zuena, ostera ere Felipe de Arramendiak ezarria Lazkaoko Bernardako mojen komentuaren alde (klausurako mojak).

200 dukateko kapitala zuen beste zentsu bat, urtean 66 errealeko korritu batekin, Teresa de Arramendiak Azkoitiko kabildoaren alde ezarria.

70 dukateko kapitala zuen beste zentsu bat, urtean 23 erreal eta 2 marabediko korritu batekin, aurrez aipatutako andreak ezarriak kasu honetan Ordiziako parrokiako kabildoaren alde.

300 dukateko kapitala eta urtean 9 dukateko korritua zuen zentsu bat Polonia Elosegiren alde, fidantzan eta ebikzioan Lazkaoko Juan Ceberioren alde ezarria. Azken horrek urte horietan hainbat jabetza zituen herri horretan, besteak beste, Lazkaomendiko Zeberioenea.

Beranduago, Prudencio Zunzunegik erosi zuen baserria aipatu zentsu horietako zenbaiten karga izanik: 1.400 beloi-dukat Lazkaoko Komentuari zegozkionak; zilarrezko 300 dukat Maria de Lazcanok (herri horretako Infanterriko Jauregikoa) komentuan sortua mezak ospatzeko xedez eta, horiez gain, zilarrezko beste 40 dukat Lazkaoko parrokiako kabildoari zegozkionak.

1887ko maiatzaren 17an, Juan Jose Zunzunegi y Mugicak (Prudencio Zunzunegiren semea) Beasaingo Epaitegira jo zuen bere esanetan 1849az geroztik bere baitan zegoen aipatu jabetza egiaztatzeko xedez. Egiaztapena lortuta, 1861eko ekainaren 9an azkenik bere izenean erregistratu zuen jabetza (trenbidearen ibilbideari dagokion planoa sinatu baino urtebete lehenago soilik).

Baserri horri dagokion historia xumearekin amaitze aldera, esangarri da 1905eko abenduaren 26an Juan Bautista Aguirre Urteagak aipatu gizonari erosi ziola etxea hartako etxaguntzekin. Horretarako, 14.000 pezeta ordaindu zituen, horrela banatuta: 9.000 pezeta eskura eta gainerako 5.000 pezetak urtebeteko epean ordaintzekoak, 1905eko abenduaren 26an zenbatzen hasita. Bigarren zati horren ordainketa egitearen berme modura, Juan Bautista Aguirrek eskuratutako jabetza hipotekatu behar izan zuen.

Idatzietan Arramendia izena nahikoa maiz agertzen denez, hala jabe batzuen kasuan nola identifikatzen asmatzen ez genuen baserriren baten kasuan, zera oroitu dugu, Antxon Aguirre Sorondok Beasaingo baserriei buruz idatzitako "Primeras Menciones" delakoan Arramendia baserri bat aipatu zuela, 1661ekoa eta, ziur aski, mintzagai dugun hauxe izango zen. Arramendia abizeneko zenbait pertsona nahikoa maiz agertzen dira lurren desamortizazio eta merkataritza-akordio batzuekin lotuta. Oso litekeena da horiek aipatu berri ditugunen arbasoak izatea, baina ezin izan dugu egiaztatu.

Irakurri ditugun beste zenbait idatziren arabera, litekeena da Arramendi horien sustraiak Ordizian kokatutako izen bereko etxeetan izatea, Arantzegi baserri biak baino apur bat beherago, eskuinera, ia San Juan auzoaren gainean. Nolanahi ere, Lazkaoko jurisdikzioan ere bada izen bereko beste baserri bat.

71. argazkia berriz ere hartuta, Agirreaundi eta Agirrezabal baserrietan erreparatuko dugu. Ezkerrera, aurretiaz esan bezala, AA hizkiekin adierazten da Agirreaundi baserria, txalet bihurtu baino lehen; eskuinean agertzen dena, A hizkiarekin adierazi duguna, Agirrezabal ("Artzal", hala izendatzen baitzuen artean Jauregi sendiak, hainbat belaunalditan bertan bizi izandakoak) baserria da noski.

1862an familia bakarra bizi zen Agirreaundi baserrian:

Martin Aranburu eta Maria Juana Jauregi senaremazteak eta haien hiru alabak, Maria Concepcion, Josefa eta Maria Aranburu Jauregi, haiekin batera bizi zirelarik mirabeak, Mateo Murua eta Rosa Insausti.

AGIRREZABAL izango zen gure bidaiariek trenbidetik ikusiko zuten hurrengo baserria. Bi etxebizitza hartzen zituen baserri hark eta 264,98 m²ko orube gainean eraikia zegoen. Baserri gehienen antzera banatzen zen etxearen barrutia:

Beheko solairuan sukaldea eta aziendarentzako ukuiluak zeuden, nahiz eta kasu honetan bigarren solairuan bazen beste sukalde bat ere, logela eta ganbarekin batera.

Etxeak hartako ataurreak eta etxaguntzak zituen mugakide alde guztietan. 1887an etxearen balioa (eraikina bera soilik) 2.456 pezetakoa zen.

77. eta 78. argazkietan ikus daiteke baserria. Lehenengo argazkia 1980. urtearen bueltan ateratakoa da eta baserria artean zutik ageri da. Bestea 2005eko udaberrian ateratako argazkia da eta baserriaren aurriak baino ez dira ikusten.

Honatx jabetza horri zegozkion lursailak: Izenik gabeko lursail bat, ereiteko lurrez betea, 32.207 m²ko azalera zuena.

Beste onibar bat, hau ere izenik gabea, sagasti zahar eta belardiz betea, 2.858 m²ko azalera zuena.

Lur-eremu bat, izenik gabea hau ere, 51.100 m²koa. Haren barnean gaztainadiak, otadiak eta askotariko ezpondak lekutzen ziren. Hauek ziren lur-eremu horren mugak: hegoaldera, Dolarea baserriko lurrak, Irun-Madril errepide nagusia eta Zapatari, Maizenea edo Muruena eta Errementari baserrietako etxaguntzak (guztiak jabe berarenak); mendebaldera, Olazar, Abarizketa, Barrendain eta Andraiturri (Andramendi izenez ere ezagutzen zen etxe zaharra) baserrietako lurrak; ekialdera, Andraiturri etxe horretako lurrak. 1887an 14.284,70 pezetakoa zen lur horien guztien balioa.

Larre-sail eta gaztainadiz betetako beste lur-eremu bat **Andramendialdea** izeneko gunean, 6.618 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparralde eta ekialdera, Arizmendi baserriko lursail bat (Abariako maiorazkoaren baitakoa); hegoaldera, Andraiturri edo Andramendi baserriko lursail bat; mendebaldera, errekatxo txiki bat. Lursail horren balioa 346,40 pezetakoa zen.

Larre-sail eta gaztainadiz betetako beste lursail bat, izenik gabea, aurrekotik gertu kokatua. Kasu honetan zenbait pago ere barneratzen ziren 6.852 m²ko lursail horretan. Honatx hartako mugak:

Iparraldera, Olazarreko bidea; ekialde eta hegoaldera, Arizmendi baserriko lurrak; eta mendebaldera, Andraiturri edo Andramendi baserrikoak. Lursail horren balioa 385 pezeta eta 15 zentimokoa zen.

Larre-sail, irasail eta otadiz betetako beste lureremu bat, **Bereziartuburua** (Beatxurretaburua) izenekoa, 3.208 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Hegoaldera, Malezako bidea; mendebaldera, Bereziartu (Beatxurreta) baserriko lursailak; iparraldera, Olazar baserriko lursailak; eta ekialdera, Zuntzunegikoak. Haren balioa orduan 127 pezeta eta 10 zentimokoa zen.

71. argazkia hartuko dugu berriro, izan ere, aurreko lerroaldeetan deskribatutako zenbait lur-eremu lekutu ditzakegu bertan.

Etxe hori beti Igartza etxearen baitakoa izan denez, auzo handi horretan kokatutako etxe gehienekin gertatzen zen moduan, Igartzako maiorazkoaren baitako beste zenbait jabetza deskribatzean aipatu ditugun karga berdinak (kapilautzak, urteurren-mezak eta eskaintza-mezak) zeuzkan Agirrezabal baserriak.

Halaber, prozesu bera errepikatzen da etxe honetan herentzia, onarpen-auto eta abarrei dagokienez. Horiek denak Igartza Jauregia deskribatzean xehetasun osoz deskribatu ditugu eta ez dugu beharrezkotzat ikusten hemen errepikatzea.

Azkenik, etxearen azken jaraunslea Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondea izan zela gogoratu behar da. Hark, arestian esan bezala, Beasainen 23 jabetza eta Matxinbentako zonaldean beste 3 besterendu zituen 250.000 pezetaren truke. Aipagai dugun baserria Beasaingo 23 jabetza horietako bat da.

1862an, trenbidearen planoa taxutu zenean, bi familia bizi ziren Agirrezabal baserrian: alde batetik, Jose Joaquin Jauregi eta Antonia Echezarreta senaremazteak eta haien lau seme-alabak, Tomasa, Josefa Antonia, Margarita eta Martin Jauregi Etxezarreta, haiekin batera bizi zirelarik emaztearen ama, Martina Albisu eta Juan Ignacio Albisu morroia; beste alde batetik, Jose Maria Mugica, haren arreba Mariana Mugica, bien ama, Justa Zabala eta etxeko morroia, Juan Jose Usabiaga.

Agirrezabal (Artzal) baserriko lurren inguruan azpimarragarri deritzogu, bukatze aldera, 1951ko otsailaren 22an hartako zenbait lur banatu egin zituztela, zehazki esatera, errepide nagusiaren alboan lekutzen ziren zenbait lursail, Zunzunegi familiak saldu zituenak. Erosleak Luis eta Jesus Larrañaga izan ziren alde batetik, eta Jose Ormazabal bestetik. Erosle horiek bertan txaletak eraiki zituzten Indar fabrikaren ondoan (fabrika hau haien jabetzakoa zen).

Horietako bat 1990eko hamarkadaren hastapenera arte fabrikaren ia parez pare eraikitako bi familiako txaleta zen; bestea, Jesus Larrañagarena, aurrekoa baino askoz txikiagoa, errepide nagusiaren alboan kokatu zen baita, orduan Zelaeta hilerriraino iristen zen bidearen eskuinera, aurrekotik 300 metro ingurura errepidean behera. Azken hori 1970eko hamarkadan eraitsi zen leku berean kokatzen den etxebizitza-etxea eraikitzeko.

1940an finkatu zen leku horretan Indar fabrika zaharra. Horrenbestez, Zunzunegui familiak lursailen salmenta egin zuen arte hamaika urte baino ez ziren igaro.

1. sektorean deskribatutako Gudugarreta eta Antzizar-Ubillotz zonaldean mende baten barruan aldaketa gutxi izan zirela aipatu dugu. Orobat, antzina "Igartzako Plaza" izenarekin ezagutzen zen leku horretan ere 1930/1940 hamarkadak iritsi arte ez ziren asko izan egindako aldaketak (1919an jabetza ugari saldu baziren ere), nahiz eta ordutik aurrera zonalde horretan zenbait aldaketa sozial garrantzitsu gertatu.

Apur bat beherago ere antzeko zerbait gertatu zen. Hala, beste zenbait enpresa finkatu ziren inguru horretan, esate baterako, Industrial Ferretera 1936an, Garaje Moderno, Azpeitia Hermanos edota Transportes Azkar. Indar enpresa ere Igartzako jaunaren lur zaharretan altxatu zen, nahiz eta, ordurako, azken urteetan Marcelino Mendizabalek zuzendutako fabrika-zerrategia martxan zen leku horretan, Indar enpresaren parean ia. Zerrategi hori 1980ko hamarkadan eraitsi zen. XX. mendearen erdialdeko 79. argazkian Garaje Moderno delakoaren ikuspegi berezi bat ikus dezakegu.

Deskribatu berri ditugun 1. eta 2. sektoreak (Antzizar-Ubillotz eta Igartza izenekoak) nagusiki Granada Egako dukearen (Igartza etxea), Villafuerteko kondearen (Ordiziako Zabala etxea) eta Villafranca Gaytaneko kondearen (Arriarango Gaytan de Ayala Etxea) menpean zeuden, beste batzuen artean, eta trenbidea iritsi ostean zonalde horietan ia ez zen aldaketarik izan, bertako jendeak eta lurrak ia bilakaerarik gabe bizi izan baitziren ia mende batez. Sektore horiei dagokion deskribapena ixteko, 80. argazkian Antzizar-Igartza planoen baterako ikuspegi bat ikus daiteke. Bertan argi ikus daiteke orokorki Igartza izenez ezagutzen zen gune horretan har zitezkeen zazpi norabideak. 1851tik aurrera hauek ziren aipatu norabideak:

A – Etxegaratetik barrena Gaztelara zihoan Autoen Errepide Nagusia; B - Olaberria eta Lazkao aldera zihoan galtzada; C - San Adrianetik barrena Gaztelara zihoan Segurako bide zaharra; D - Frantziara zihoan Autoen Errepide Nagusia aurreko bidearekin batzen zen gunetik; E - Bergaratik barrena Bizkaia aldera zihoan errepidea; F - Zerain eta Mutiloa aldera egiten zuen garraioetako bidea; G - Azkenik, Loinazko bidetik Arriarango haranerantz bidea laburtuz, Azpeititik barrena Gipuzkoako kostaldera zihoan bidea.

Jarrai dezagun horien ibilbidea bi sektoreak uztartzen dituen plano zehatz honetan.

3. sektorea

Geltokia

3 zenbakidun planoa



ALDERATU IRUDI HONEK 109 ZENBAKIA DUEN ARGAZKIAREKIN DUEN ANTZEKOTASUNA

PLANOAN IKUS DAITEKEENA

Lau puntu zuri handirekin adierazten da proiektatutako trenbidearen ibilbidea.

A Arangoitiko zonaldetik Andraiturri edo Andramendira egiten zuen bide zaharra.

B Barrendain baserri zaharra, trenbidearen ibilbidea dela-eta eraitsia.

C Zeharkako errepidea.

D Ubia edo Urbi baserria.

E Andraiturri edo Andramendiko zonaldera egiten duen errepidea.

F Zelaetazar baserria.

G Zelaetaberri edo Zelaetatxiki baserri zaharra.

H Nekola baserria.

I Kotxera eraikin zaharraren (gerora Kantoikoa izango zena) atzealdea.

J Sorobilletas edo Ubiako xendrako bide partziala.

K Autoentzako errepidearen ibilbide zaharrean egindako aldaketa.

L Autoentzako errepide zaharraren jatorrizko ibilbidea.

M Tapia handia eta txikia baserrietatik Oriarantz egiten duen bide-zorra.

N Herritik eta Zaldizurretatik mendietara egiten duen errepidea.

O Kale Nagusitik trenbidearen hegoaldera dauden laborantza-lurretara egiten duen errepidea.

P Oria ibaiak leku horretan egiten dituen hiru meandro dotoreak.

Q Lau begiko tren-zubia Zaldizurreta zonaldean.

R Bi begiko tren-zubia Igartzako zonaldean.

S Bidegurutzea Sorobilletako (Ubiako xendra) bidea batzen zen zonaldean.

T Tapia handia eta txikia baserri “bikiak”.

U Trenbidearen ibilbidea eskalan.

V Tapia baserrietatik errekara egiten duen alboko bidea.

X Basakaitz inguruko mendialdea.

Y Zagaitz errekatxoa.

Z Errege Galtzadatik Nekola eta Zelaetaberri baserrietara egiten duen errepidea.

IGARTZATIK ZELAETARANTZ KALBARIOETATIK

Beti izan dugun zalantza da, Igartzako gurutzeria edo kalbarioaren jatorrizko kokapena guztiok ezagutu dugun hori izan ote den hasieratik, hots, Errementari etxearen parean eta Dolarea etxetzarraren ekialdeko fatxadaren alboan. Orain aipatzen dugu hori, izan ere, Ormaiztegi-Zumarraga-Bergara-Gatzaga-Arlaban zeharkatzen zituen Autoentzako errepidearen ibilbide berriari dagozkion planoetan Francisco Ibero arkitektoak hiru gurutze edo guruztoki marraztu zituen Zelaetazar eta Zapatari artean, plano horietan "Kalbarioak" (pluralean) izendatu zituenak.

1912an, Jose Miguel Iturrioz Arinek (artean alkate zela) Igartzako etxera gutun bat bidali zuen, Zelaetako hilerri berria (1989an eraitsi zen hilerri zaharra izango zena) eraikitzeko baliatu nahi zituen lursail batzuen salmenta eskatzeko. Igartzako maiorazkoaren administrariari helarazi zion gutuna, horretarako "Kalbario zelaieko zonaldean" kokatutako lurrak interesatzen zitzaizkiola adieraziz. Izen horrekin "Kalbario" horien atzean kokatutako belardiak aipatzen zituen. Hain zuzen, ziurrenera, kalbario horietatik eratorriko zen sail horren izena. Bost urte baino ez ziren igaro leku horretan Zelaeta hilerri berria eraiki zenean, 1917an inauguratu zena.

Isabel Astiazarainek ere pasarte hori aipatzen du "Gipuzkoako Errege Bideen Eraikuntzari" buruzko liburu ederrean; hain zuzen, Francisco Ibero arkitektoak proiektatutako 16 legoatako bidea "Kalbarioen" zonalde horretatik igarotzen dela adierazteko egiten du aipamen hori. Ikus dezagun historialariak nola transkribatzen duen jatorrizko dokumentuan:

> *"…junto al cual (se refiere ahora al caserío Zapatari) están* ***los Calvarios*** *y al lado el caserío Celayeta (Zelaeta zar). Siguen a su derecha los de Barandiaran (Barrendain) y Tapia, al otro lado del último otro Celayeta (Zelaeta berri) y en los confines los de Necola y Hubia (Urbi). En el monte hacia donde va un camino, el caserío Arizmendi, y cercano el de Arangoyti. Llegando a Beasain percibimos unas cuantas casas entre dos regatas (las de Muru erreka e Igarza), destacándose en el conjunto la Parroquia y las casas Olaso (Abarinea, después Doñamarinea y "Karmelitas") y Floreaga (después Mutegi enea o Mintegi enea)…"*

XVIII. mendeko bigarren erdialdean egiten duen deskribapen horren inguruan (liburuan islatzen den modu berean transkribatzen duguna) xehetasun bat barnera daiteke, izan ere, oso deskribapen egokia ez bada ere, une hartan ikusiko zuten errealitatea islatzen du nahikoa ongi.

Argi egiazta daitekeena zera da, Iberok planoan, zonalde horretan eta urte haietan islatzen dituen baserriak 1862an zeuden berberak direla ia. Gehienak, tren-geltoki berriaren inguruko zonaldeak erakusten dituen 3. sektoreko plano orokor honetan ikus ditzakegu.

Iberok marrazkian islatu zuena eta ondoren egin zuen aipua, hain zuzen, "Zapatari eta Zelaetazar" arteko hiru "Kalbario" horien kokapenari buruzkoa da. Maria Isabel Astiazarainek bere liburuan hark idatzitako moduan izendatu baino ez zituen egin. XVIII. mendearen amaieran "Kalbarioak" hain justu puntu horretan kokatuta zeudenez, 3. sektoreko atal hau halaxe izendatu dugu. Argituta geratzen da atal honi dagokion sarreraren titulua. Ez dakigu noiz desagertu ziren "Kalbario" haiek handik, baina kokapen zaharraren oroigarri halaxe titulatu dugu sektore hau. Luis Maria Mugicak Beasaingo toponimoei buruz editatutako liburuan ere izen hori agertzen da, hots, "Kalbario zelaia".

Liburu honetan duen interesa dela medio, haiek errepasatzean trenbidearen ibilbideko 3. sektore hau hiru zonaldetan azpibanatuko dugu. Zonalde horiek goitik behera deskribatuko ditugu, hau da, planoa hartuz, iparraldetik hegoaldera. Ikusiko dugun lehen zonaldea, noski, Autoentzako errepide zaharra barneratzen duen zatia izango da, hartako iparraldera kokatutako inguruko baserri eta bideekin; bigarrena, XIX. mendeko bigarren erdialdeko obra zibil gorena izango da, hau da, tren-geltokia, garai hartako azpiegitura guztiarekin; eta, hirugarrena, Basakaitz mendiaren parean lekutzen den toki eder hori, irudietako batean ikusiko dugunez, antzina Oria ibaiaren iparraldeko ertzean errekak hiru meandro berezi horiek osatzen zituen leku hori.

Guztia argi eta garbi uler dezagun, urratsez urrats eta sakon azalduko dugu. 3. sektoreko zati txikiarekin hasiko gara, zeina hobetu ulertze aldera, 3a izendatuko dugun. Zati horretan barneratzen dira 1862ko planoaren egileak sektore horren gainean marrazten dituen lau baserriak, zehazki esatera, Igartzako auzo garrantzitsua atzean utzi ostean agertzen diren lehen lau baserriak.

Zonalde horretan kokatuta zeuden lau baserri horiek Zelaetazar, Barrendain etxe zaharra, Nekola eta Zelaetaberri o Zelaetatxiki baserri zaharra dira. Dena den, azken hori izendatzeko, sarritan, Zelaetaetxeberria ere aipatzen da.

3a plano-zati txiki hau handitu egin da eta gauza asko ikus daitezke bertan. Aurrerago ere hartuko dugu plan hau leku horri dagozkion beste hainbat kontu argitzeko. Baina utz dezagun hori aurreragorako eta pentsa dezagun geltokiaren inguruko zonalde guzti horretan, hau da, "Igartzako Errepublika Independentetik" behera Autoentzako errepidearen ezkerraldean, 1862an artean ez zegoela beste eraikinik, gure balizko oinezko bidaiariek ikus zitzaketenik etorkizunean eraikiko zen trenbidetik.

Gure oinezkoak Zelaetazar parera iristean, haren gainetik apur bat begiratuz, paretik so eskuinaldera, idatzietan Andraiturri izendatzen den baserria (egun Andramendi izenarekin ezagutzen ditugun etxeak) ikusiko zuten. Hala ere, aipatu planoaren egileak ez zuen marraztu, agian trenbidearen ibilbide berri horri dagokion proiekturako beharrezkoa ez zela iri-



tzita. Irakur daitezkeen dokumentu guztietan orduraco etxe hori hor zegoela adierazten da argiro. Dena den, bitxia da dokumentu horietan Andraiturri izendatzen dela eta ez Andramendi. Azken izen hori, gutxi batzutan baino ez da erabiltzen, haren inguruko lurrak izendatzeko, aurrerago, dagokion atalean ikusiko dugun moduan.

Etorkizunean tren-geltokia eraikiko zen lekutik gertu kokatzen den 3. sektoreko iparraldeko zonaldeko baserritarrek orduan zortzi eraikin hauek baino ez zituzten ikusiko: Zelaetazar, Zelaetaberri, Nekola, Andraiturri (nahiz eta planoan ez den marrazten, agian trenbidetik urrun samar zegoelako), Barrendain zaharra, elkarren ondoan lekutzen ziren Tapia baserri bikiak, Iurrita fonda (aurrerago aipatuko dugunez, 1860an jadanik galtzadan kokatua) eta, azkenik, Ubia edo Urbi. Ziur aski guztientzat astindu handia izango zen trenbideak egiteko obra handi hauen eraikuntza. Gogoratu, obra hauen ondorioz, probintziako zati handi bat erditik moztu zutela, erruki izpirik gabe.

Obra erraldoi guzti horien artean, ziurrenera geltokiari eta hartako azpiegiturari zegozkion eraikuntzak, Oria ibaiaren gainean harlanduz egindako bi zubien eraikuntzak (batetik bestera 875 metro inguru baino ez daude), Barrendain baserriaren nahiz Tapia baserrien eraisketak eta errepide nagusia 400 metro desbideratzeko lanek (hain zuzen, Zelaetazar lekutzen zen puntutik Urbi baserria zegoen lekuraino) eragingo zuten inpaktu handiena Beasainen, Iurrita fondaren eraikina (gerora Urteaga izendatu zena) eraikitzeko lanekin batera.

Entzuteko modukoak izango ziren 1862ko beasaindarren aipu eta esanak (liburuaren sarreran ikus dai-

tezkeen "modeloen" antzera jantziak) "haien lursail onenak inbaditu zituzten obra erraldoi" haiek ikustean, izan ere, obra haien ondorioz, beren bizimodu eta ohiturak aldatu egingo ziren ziurrenik.

Baina utz ditzagun alde batera hinki-hankak eta erreparatu dezagun apur batez 1862an, ingeniariek proiektatutako trenbide hartako ibilbidean (Norteko Ferrokarrila izendatu zena) zehar gure oinezko bidaiariek ikusiko zuten hartan.

Gure bidaiariek Igartza auzotik irtetean begiz ikusiko zuten lehen eraikuntza ZELAETAZAR baserria izango zen. Etxe hura Igartza jauregiarena izan zen "betidanik" eta orduan autoen errepide zaharraren ertzean lekutzen zen, ezkerrera, etorkizunean eraikiko zen tren-geltoki horretara bidean. Zelaeta toponimoari dagokionez ezagutzen dugun lehen idatzizko aipua XVI. mendeko lehen erdialdekoa da.

80a argazkian baserri zahar haren fatxada nagusia ikus daiteke, errepide nagusira (antzina "Autoen errepide" ere izendatzen zena) begira dagoena. Jarraian xehetasun gehiagoz gogoratuko dugu:

3. sektoreko planoan eta 3a plano-zatian F hizkiz adierazten den baserria Zelaetazar baserria da, 1956an eraitsi zena. 80a irudian ikus daitekeenez, artean Gaztela eta Frantziarako bidean errepide nagusi zen galtzada zaharraren zoladura nahikoa eskasa zen. Halaber, etxearen atzealdetik igarotzen zen errepidea ikus daiteke, 80a irudian gezi zuri bertikal batez adierazten duguna. Bide horrek, era berean, azken urteetan baserriak zituen lursail urrien iparraldeko muga egiten zuen, 1946. urtean Zunzunegui familiak egindako azken salmentaren ostean geratu zirenak.

80a argazkian gezi zuri batez erakusten dugun errepide hori Arangoitiko zonaldetik zetorren A bide handiaren beste adar bat da. Aipatu A bide hori, era berean, S hizkirantz adarkatzen zen (Sorobilletas edo Ubiako xendra amaitzen zen gunean, hain justu) 3. sektoreko planoan. Orobat, bide hartako beste adar bat Nekola baserriaren azpitik igarotzen zen eta, baita Zelaetazar baserriaren gainetik ere, 80a irudian gezi zuri batez adierazten dugun moduan, eta Igartza auzoraino luzatzen zen. 80a argazkiaren goialdean, eskuinera, Andraiturri etxearen (egun Andramendi izenez ezagutzen duguna) estalpea eta zati bat ikus daiteke. Horren arabera, Zelaetazar baserriak antzina

aipatu etxearekiko zuen kokapena irudika daiteke nolabait.

Historiari helduz, baserri hori, gutxienez, XVI. mendeko lehen erdialdetik Igartza etxearen jabetzakoa zela esan dezakegu. 1612an jadanik Zelaetazar baserri horretan bizi zen Martin de Abaria Azkarate (hargintzako maisuen Beasaingo saga abiatu zuena), Maria de Oriar bere emaztearekin batera. Alokairu modura urtean hamar dukat ordaintzen zioten Igartzako jaunari. Garai hartan Martin de Abaria Igartzako Burdinolako administraria ere bazen.

Ia etxe guztietan bezala, beheko solairuan sukaldea, ukuiluak eta gelaren bat paratzen ziren. Goiko partean, berriz, gainerako gelak eta ganbarak zeuden. Etxearen orubeak 118,10 m²ko azalera hartzen zuen eta ataurrean beste 46,30 m² zituen XIX. mendearen erdialdera. Honatx etxearen mugak:

Hegoaldera "Autoentzako errepide" edo errepide nagusia; ekialdera, iparraldera eta mendebaldera bertako etxaguntzekin egiten zuen muga. 1887ko abuztuaren 12an 1.814 pezeta eta 20 zentimokoa zen etxearen balioa, orubea barne.

1887an Zelaetazar baserriak artean lur dezente zituen Igartzako maiorazkoko jabeak esleituak. Honatx lur horiek: Atxikitako bi onibar baserriaren aldamenean, izenik gabeak. Horien azalera, haietako ezpondak barne, 10.049 m²koa zen. Onibar horien mugak hauek zirelarik:

Hegoaldera, baserria bera; mendebaldera, Igartzako etxearen jabetzakoa zen Dolarea etxetzarraren onibar bat; iparraldera, Andraiturri baserriaren etxaguntzak; ekialdera, Nekolatik zetorren aipatu bidea, aurrez aipatu dugun eta 3a plano-zatiak ikus daitekeen moduan. Bere orduko balioa 4.930 pezeta eta 50 zentimokoa zen.

Izenik gabeko beste onibar bat trenbidearen alboan, errepideaz beste aldean, aurrez aipatutako onibarren parean. Kasu honetan, 694 m²ko ereiteko lur-eremua lekutzen zen bertan, zeina, halaxe mugatzen zen:

Iparraldera, Autoentzako errepidea; hegoaldera, trenbidearen linea; mendebaldera, Errementari etxeko onibar bat; ekialdera, Barrendain etxearen beste lursail bat. Azken bi baserri horiek ere Igartza etxearen jabetzakoak ziren. Lur horren balioa 345 pezeta eta 15 zentimokoa zen.

Nekola baserriaren gainean lekututako beste lursail bat, 1.494 m²ko azalera baitaratzen zuena, ereiteko lurretan. Horrez gain, beste 1.000 m² belarditan. Lursail hau guztiau honela mugatzen zen:

Hegoaldera eta ekialdera, Nekola baserriko lurrak; iparraldera eta mendebaldera, Andraiturrira egiten zuen bidea. 81. argazkian aipatu bidea adierazten dugu gezi batez. Gainera, aipatu etxea ere ikusgai dago bertan, egun Andramendi izendatzen dena. 653 pezeta eta 20 zentimo balio zituen.

Izenik gabeko beste onibar bat, aurrekotik oso hurbil, larre eta otadiz betea, eta 2.676 m²ko azalera zuena. Onibar horren mugak hauek:

Hegoaldera, Andraiturri baserrira egiten zuen bidea; mendebaldera, Andraiturri etxe horretako lurrak; iparraldera eta ekialdera, Barrendain baserriko larreak. Lur horren balioa 192 pezeta eta 15 zentimokoa zen.

Beste lursail bat Bistalegre zonaldearen alboan (hain justu, Iurrita fonda berriaren segidan, Beasaingo norabidean), 3.058 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta beste 167 m² zituena, ezpondetan. Honatx bere mugak:

Hegoaldera, Bistalegre izeneko zonalde zabalean lekutzen ziren lurrak eta Urbi edo Ubia baserrikoak; mendebaldera, Barrendain baserriko onibarrak; iparraldera, Dolarea baserriaren beste lursail bat; ekialdera, Andre Mari kalean zegoen Aranezarra etxetzarraren lursail bat. Lur horren balioa 1.572 pezeta eta 30 zentimokoa zen.

Zelaetazar baserria eta hartako lurrak Igartza jauregiaren jabetzakoak zirenez, Maria de Yarzak sortutako kapilautza horrekin lotuta zeuden, aurreko bi sektoreetan ikusi dugunez. Haien kapitala 3.850 pezetakoa zen. Baita Igartza jauregiaren jabetzakoak ziren etxe guztietarako aipatu Urteurren-meza eta Eskaintza ugariak ere, zeintzuen zenbatekoa 3.882 pezetako zen.

Hainbat dokumentutan ikus daitekeenez, Zelaetazar jabetza horrek ez zuen aurreko etxeek izan zuten prozesua mantendu Idiaquez familiaren (orduan Igartzako jabe zirenak) jaraunspenei zegokienez, izan ere, itxura batean, 1857. urtean, trenbidea egiteko plano hauek taxutu baino soilik bost urte lehenago, Fermin Zunzunegi Urdangarinek, merkatari-gozogile zenak eta Poniente kaleko 15. zenbakian bizi zenak (Igartza jauregian bertan), orduan Igartzako maiorazkoaren titular zen Francisco Javier Idiaquez y Carvajalen eskutik eskuratu zuen mintzagai dugun jabetza.

Azken hori Maria Pilar Idiaquez y Corralen aita zen, zeina, aldi berean, Jose Aguileraren emaztea zen, aurrez ikusi dugunez eta, era berean, aurrerago deskribatuko dugun moduan. Nolanahi ere, Igartzako jauregiaren aurreko jabetzekin gertatu bezala, Fermin Zunzunegik Beasaingo Epaitegira jo behar izan zuen, jabetza horren gainean idatzizko titulurik ez zuelako. Epaitegian haren gaineko jabetza-autoa eskatu zuen.

Gauza bera egin zuen beranduago, jauregiaren baitako gainerako jabetzen ahalordedun modura, 1887ko urriaren 24an Azkoitian Maria del Pilar Idiaquez hil ostean. Hain zuzen, orduan deklaratu ziren jaraunsle unibertsal aurrez aipatutako lau pertsonak, bi Azlor Aragon e Idiaquez abizenekin eta beste biak Peites de Montcabrier e Idiaquez abizenekin. Azken biak Frantziako Bezieres herriko semeak.

Orduan Zelaetazar baserriari eta aurreko lerroaldeetan aipatu ditugun bertako etxaguntzei esleitutako balioa 6.855 pezetakoa izan zen.

Beranduago, jabe berriak, Fermin Zunzunegik, banantze garrantzitsuak gauzatu zituen Zelaetazarreko lurretan, arestian esan dugunez. Lur horien salmenta pixkanaka egin zuen, jarraian adierazten diren egunetan: 1928ko urriaren 20an, 1929ko azaroaren 18an, 1931ko abenduaren 23an eta 1942ko urtarrilaren 10ean.

Jabetzaren barneko lur garrantzitsuenak banatu ostean, zehazki esatera, 1946. urtean, saldu zuten Zelaetazar baserria Leonardo Zunzunegi Gabilondo, Eugenio Aseguinolaza Azurmendi (Teresa Zunzunegirekin ezkondua) eta Josefa Arruzazabala Etxaburuk. Miguel Arancegi Amundarain beasaindarra izan zen eroslea.

Ibarrako Josefa Antonia Amundarain (Jose Unsainen alarguna) eta matrimonioaren bi seme-alabak (Antonio eta Felisa Unsain Amundarain) izan ziren baserri hartan bizi izan ziren azken pertsonak. Ondoren, Josefa bigarren aldiz ezkondu zen Jose Maria Arancegirekin. Azken hura trenbideetako langilea izan zen, eta ezkondu ostean, Zelaetazar baserri zaharrean jarri zen bizitzen. Seme bat izan zuten, Miguel Arancegi Amundarain, baserri zaharra eraitsi aurretik bertan bizi izan ziren azken bost pertsonen zerrenda osatzen duena.

Seme hori, Miguel Arancegi Amundarain, ezkondu egin zen Murua-Imiategi baserriko Rosario Peñagaricano Garinekin. Baserri hori errepidearen eskuinera kokatzen da, Erauskin auzora iritsi baino lehentxeago.

Miguel Arancegiren alarguna zelarik, Rosariok kontatu zigunez, baserri txikia zen eta Zunzunegitarrei ia lurrik gabe erosia. Etxearen alboan metro gutxi batzuk eta atzealdean baratze bat baino ez zituen. Hori dela eta, ezin izan zuten azienda asko eduki han bizitako urte gutxi haietan. Behor bat, behin bat eta zekor bat edo beste, besterik ez. Baserriak hartzen zuen azalera osoa, deskribatutako salmenten ondoren geratu ziren lur gutxi horiekin, eraikinaren atzealdean kokatutako baratze txiki hori barne, 446 m2koa zen gutxi gorabehera.

Zelaetazar eraistean geratu zen orubearen gainean pisu eta etxabez osatutako etxe hori eraiki zen, gaur egun, Nafarroa Etorbideko 39. zenbakian kokatzen den eraikinean. Eraikin horrek, hain zuzen, beheko bi solairuek eta haien atzealdean zeuden biltegiek hartutako espazioa betetzen du. 82. argazkian Zelaetazarreko orube zaharrean altxatutako etxea ikus daiteke, zirkulu zuri batekin markatuta. Irudi berean, gezi bat eta Z hizkia baliatuz, 3. sektoreko planoan eta 3a plano-zatian (hor ere Z hizkiarekin adierazita) agertzen den errepidea ikus daiteke. Gaur egun, errepide hori guztiok ezagutzen dugun Zelaeta izena mantendu duen zeharkako kale bilakatu da.

Zonalde horretan kokatutako baserri horien irudiei begiratzen jarraituko dugu, 1862. urteko aldirietako irudizko bidaiariek ikusiko zituztenak, alegia.

ANDRAITURRI edo ANDRAMENDI izango litzateke, gutxi gorabehera, Beasaingo hirigunera hurbildu ahala gure lagunek ikusiko zuten hurrengo eraikina, Zelaetazar baserriaren goialdean eta ezkerrera kokatuta, Usurbetik jaisten den mendi-mazela luzearen hasieran ia. Gaur egun guztiok Andramendi baserri izenarekin ezagutzen badugu ere, guk Andraiturri izendatzen jarraituko dugu, izan ere, horrela azaltzen da XIX. mendeko dokumentuetan.

Ikus berriro Andraiturriko etxeak erakusten dituen 81. argazkia, hain justu, trenbideko plano horiek sinatu eta mende bat beranduago egina. Bitxia da plano-marrazkiaren egileak ez zuela baserri hori jaso, baina Arangoiti eta Arizmendi jaso zituela, mendi-mazela horretan bertan kokatzen direnak, gutxi gorabehera zonalde berean.

Halaber, harrigarria da XIX. mendearen erdialdeko Beasaingo udal-erroldan ere ez agertzea. Agian Andraiturrik garai hartan ez zuen izango zenbakirik Mendebaldeko Zati horretan kokatutako etxeen artean, jarraian irakurriko dugunez. Azalpen sinpleena izatea litekeena bada ere, udal-errolda horiek egin zirenean bertan inor ez zen bizi.

Ziurtasun osoz esan dezakeguna zera da, baserri nahiko berri bada ere, hari buruzko idatzizko erreferentziak, gutxienez, 1847tik hona ikus daitezkeela. Zenbait dokumentutan hala irakur daiteke hari buruzko deskribapenean:

Andraiturri etxea (Andramendi) Beasaingo Mendebaldeko Zati delakoan kokatzen da; baserri horrek, *"artean zenbaki esleiturik ez zuenak"*, urte horietan jadanik bazituen beheko solairua, solairu nagusia eta ganbara, 126 m²ko azalera zuen orube eraiki batekin.

Iparraldean sarbideko errepidea zuen mugakide (81. argazkiak oso ongi ikus daiteke); ekialdean, hegoaldean eta mendebaldean berriz, hartako etxaguntzak. Bakarrik baserriak 3.595 pezetako balioa zuen.

1862an hauek ziren etxe horren jabetzak:

Etxeazpia, iparraldean etxea eta errepidea zituenak mugakide; hegoaldera, Granada Egako dukearen (garai hartan Igartzako jauna zena) lursail bat; ekialdera, berriz ere errepidea; eta, mendebalde edo sartaldera, Agirre baserriaren lurrak. Lur horrek 9.350 m²ko azalera zuen eta 4.227 pezetako balioa esleitzen zitzaion.

Sagastisudoa, 1.443 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera eta hegoaldera errepideak; ekialdera Andraiturri izeneko sagastia; mendebaldera, orduan Igartzako maiorazkoaren jabe zen Granada Egako dukearen beste lursail bat. Bere orduko balioa 613 pezeta eta 28 zentimokoa zen.

Andramendialdea, 690 m²ko azalera zuen gaztainadia, non urkiak ere baziren. Honatx hartako mugak:

Iparralde eta mendebaldera, berriz ere Granada Egako dukearen Igartzako jauregiko lursailak; hegoalde eta ekialdera, errepideak. Bere orduko balioa 169 pezetakoa zen.

Butranegi edo **Sagastiburua**, 15.960 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera, errepidea; hegoaldera Zunzunegui jaunaren lurrak; ekialde eta mendebaldera Granada Egako dukearen lursailak. Bere orduko balioa 1.197 pezetakoa zen.

Iturtxoaldea, Maleza izeneko zonaldean kokatzen zen pagadi eta hariztiz beteriko lursaila. Honatx hartako mugak:

Iparraldera, Zuntzunegi jaunaren lursaila; hegoaldera, Aranburugaraikoa eta azpikoa baserrietako lurrak; ekialdera, Maleza errekastoa eta Aranburugaraikoa baserriko lurrak; mendebaldera, errepidea. 15.464 m²ko azalera zuen eta bere balioa 829 pezeta eta 90 zentimokoa zen.

Serotegi, 8.550 m²ko azalera zuen gaztainadia, muga hauek zituena:

Hegoaldera, San Martinzarra baserria; ekialdera, Arrieta baserriko lursailak; mendebaldera, errepidea; iparraldera, Errekarteaundi etxeko etxaguntzak. 625 pezeta eta 25 zentimo balio zituen.

Andraiturri, 10.512 m²ko azalera zuen sagasti oneko lursailez eta urki-landarez hornitutako 400 m²ko azalera zuen lursailez osatzen zena. Hauek ziren lursail horien mugak:

Iparraldera, Zunzunegui jaunak eta Granada Egako dukeak Igartzako jauregian zituzten lurrak; hegoaldera, errepidea; ekialde eta mendebaldera, berriz ere Granada Egako dukearen lursailak. Bere orduko balioa 3.893 pezetakoa zen.

Jabetza-zerrenda honetan ikusi ahal izan dugunez, Andraiturri edo Andramendi baserriaren baitako lurrak asko ziren, izan ere, orotara 61.969 m²ko azalera hartzen zuten. 1862an etxea eta hartako lurrak Zunzunegi familiaren beste adar baten jabetzakoak ziren.

Etxearen balioa, hartako etxaguntzak barne, ordurako 15.146 pezeta eta 43 zentimokoa zen.

Ikus dezagun orain zein zen haren jabea XIX. mendearen erdialdera, izan ere, idatzi baten arabera, Juan Jose Zunzunegi y Mugicak, 68 urte zituen jabedun eta Beasaingo seme ezkonduak, 1881eko maiatzaren 17an herriko udaletxera idatzi bat igorri zuen, deskribatutako lursailen jabe zela adieraziz. Halaber, bere guraso zirenen herentzian jaso zituela adierazten zuen bertan. Idatziaren arabera, Prudencio Zunzunegik eta Maria Josefa Mugicak herentzian utzi zizkioten lursail horiek hil zirenean, 1847ko apirilaren 21ean eta 1849ko otsailaren 23an, hurrenez hurren.

Garai hartan ohikoa zen jabetzaren idatzizko titulurik ez izatea eta hori zen bere kasua. Hori dela eta, hainbat agiri aurkeztu behar izan zituen lekuko-froga horiek jabetzaren egiaztagiri modura onar zitezen. Epaitegiaren oniritzia jaso zuen, han zirelarik Martin Lasa eta Juan Felipe Larrea jabedun beasaindarrak, lekuko gisa. Udalaren aldetik Joaquin Ayestaran alkatea, Jose Martin Arana errejidorea eta Jose Domingo Mugica idazkaria bertaratu ziren.

Aipatu gizonek, ondoren, aipatu jabetzetatik sortutako zergak puntualtasunez ordainduak izan zirela adierazi zuten, kasu horietan legeak eskatzen zuen zehaztasuna betez. Horrenbestez, 1881eko maiatzaren 20an onarpen-autoa eman zen, Juan Jose Zunzunegi y Mugicak jabetza horiek inskribatu ahal zitzan.

Gauza gutxi geratzen zaizkigu jakiteko baserri anonimo horren inguruan, izan ere, 1903ko martxoaren 14an aipatu gizonak etxea eta bertako etxaguntza guztiak saldu zituen, **Arriluneko** bidebea izeneko atxikitako lursail batekin batera. Jose Ignacio Rezabal y Arrillaga, adinez nagusikoa eta ezkongabe tolosarra izan zen erosketa gauzatu zuena, 20.000 pezeta ordaindu ostean. Salmenta egin zenean jabetzak ez zuen kargarik. Hala ere, azken erosle hark, beranduago, eskuratutako jabetza guztiak hipotekatu behar izan zituen, erosketa hartatik eratorritako ordainketa guztiak betetze aldera. Ondoren, baserria Dorronsoro familiak eskuratu zuen eta gaur egun familia hori da lursailaren jabea.

Baserri hori orduko udal-erroldan agertzen ez denez, agian ez zuelako zenbakirik esleituta, edo apika bertan inor bizi ez zelako, ezinezkoa da jakitea nor bizi zen bertan 1862an, trenbidearen ibilbideari dagozkion plano hauek sinatu zirenean.

ZELAETABERRI izango litzateke Beasainerantz hartuta ikus zitekeen hurrengo eraikina. Baserri zahar hori Andraiturri edo Andramendi baserriaren azpian eta Nekolaren aldamenean zegoen lekututa, haranaren beheko partean. Bere kokapena ederki ikus daiteke 3 zenbakidun plano orokorrean eta, baita 3a plano-zatian (G hizkiarekin) ere. Haren inguruan bide eta erreferentzia andana ere ikus daiteke, pixkanaka azaltzen saiatuko garenak geltokiko zonalde honi dagokion 3. sektorearen barruan.

Irakurri ditugun 1861/1862 bitarteko idatzi guztietan Zelaetaetxeberria izenarekin agertzen da. Urte haietan gauza bitxi bat ikus daiteke jabetzarekin lotuta, izan ere, Maria Pastora Perez Vargas y Castrillo andrearen jabetzakoa zela ikus daiteke, zeina ezkondua zegoen eta Granadako probintziako Andujar herrian bizi zen.

Hark, aldi berean, herentzian jaso zuen ama hil zitzaionean, hau da, Maria Agustina Castrillo y Bernuy ezaguna hil zenean, Merced eta Vargasko markesa alarguna. Hura 1861eko urriaren 7an hil zen, trenbidearen plano hauek sinatu baino urtebete lehenago.

Hainbat ikerketa egin ostean jakin dugunez, hasiera batean baserria Cuevas Becerroko markesaren Marcos Castrillo y Medinaren jabetzakoa zen, Gorteetan biziarteko senataria zena, 1693ko otsailaren 22an Carlos IIak Cristobal del Castrillo y Fajardoren alde igorritako tituluaren arabera.

Ez dakiguna zera da, nola iritsi ote zen etxe hori bere eskuetara, arrunt bitxia baita Andaluziako aristokraziaren familia hura Zelaetaren jabe izatea, bere garaian Ordiziako Gurutze, Upabia, Garagartza eta Imentzionea baserrien jabe ere bazirela jakin genuenean bitxia iruditu zitzaigun bezalaxe, izan ere, 1861ean jabetza horiek Granadako probintziako Andujar herrian bizi zen familiarenak ziren.

Ikus ditzagun orain, jarraian ikusiko dugunez, urte haietako dokumentu askotan "etxetxo eskas" gisa izendatzen zen eraikin apal horri buruzko hainbat datu. Familia hark Ordizian zituen lau etxeetako batzuk oso apalak baziren, Zelaetaetxeberria izeneko hori are apalagoa zen.

1861eko zenbakikuntzari jarraituz, aipatu etxeak Mendebaldeko Zatiari zegokion sei zenbakia zuen, eta honela deskribatzen zen urte haietan:

> *"…se sitúa en una suerte de tierra de 21 áreas y 60 ca. (2.160 m² de superficie), en las que hay una huerta y una casería ante dicha huerta citada. El caserío se halla enclavado en la propia huerta de la casa, se compone* ***de planta baja y un suelo*** *y su valor se estima en la cantidad de 2.500 reales" (Se valoraba la casa en tan solo 625 pesetas).*

Hauek ziren jabetzaren mugak 1861ean:

Iparraldera, hainbat baserritara egiten zuen bide-zorra; hegoalde eta mendebaldera, orduan Igartzako jauregiaren jabea zen Granada Egako dukearen lurrak; ekialdera, Abariako maiorazkoko titularra zen Olazabal jaunaren lurrak. Urte horietan Zelaetaetxeberria lursailen balioa 1.020 errealekoa zen. Horri etxeari zegozkion balioa erantsi behar zitzaion eta, horrenbestez, 3.520 errealekoa (880 pezeta, gutxi gorabehera) zen multzo osoaren balioa. 1861/1862 bitartean jabetza horrek ez zuen inolako kargarik.

Merced eta Vargasko markesa hil zenean, jabetzaren kontuak egin ziren. Hala, beranduago, jabetza hori hiru zatitan banatu zen, izan ere, aipatu markesak hiru alaba zituen: Ana Maria, Rosario eta Maria Pastora de Vargas y Castrillo. Ondasunak, azkenik, Antonio Candalija Uribek bereganatu zituen, Merced eta Vargasko markesaren alaba zaharrenaren (Maria Pastora) senar eta, aldi berean, administraria ere bazenak.

Alde guztiek zera erabaki zuten, ondasun edo zor berriak agertuz gero, horiek ere hiru zatitan banatuko zituztela, elur-zuloetako etxaguntzak bezalaxe. Azken horiek jabetza indibiso modura geratu ziren Marcos Castrillo y Navaren testamentuan; eta, karga berriak sortuko balira, proportzionalki banatuko ziren.

Azkenean, jabetza horiek Andujarren esleitu ziren 1864ko abuztuaren 2an hiru zatitan. Azken hori, familia hark Granadan jarauntsitako elur-zuloekin lotutako banaketa izan zela usten dugu. Elurtegi haiek urte haietan artean sarri erabiltzen ziren, nagusiki helburu terapeutiko eta sendagarriekin. Familia dirudunek elur hori (denbora batez forma solidoan mantentzen zuten baliabide kimikoak baliatuta) sukaldean erabiltzen zuten elikagaiak kontserbatzeko, edariak hozteko eta, batez ere, izozki, izotz-edari edota sorbeteak egiteko.

Antonio Candalija Uribe politikari ezaguna izan zen Maria Pastora de Vargas y Castrillorekin ezkonduta egondako garaian. Karlista eta liberalen arteko hirugarren gatazkak eragindako garai ilunetan, kargu garrantzitsuak izan zituen liberalen bandoan, izan ere, urte askoan Zaragoza eta Valentziako plazetako buru izan zen.

1864ko urriaren 31n Zelaetaetxeberria etxeak beheko solairua eta goiko solairu bat baino ez zituen. Orduan, Nicolas Eleizalde y Unsain beasaindarrak erosi zituen baserria eta hartako etxaguntzak. Erosleak orduan 70 urte zituen, ezkongabea zen eta azienda-tratularia zen ogibidez. 15.000 erreal ordaindu zituen jabetza hori eskuratzearren, eskudirutan; 10.000 erreal etxearengatik eta gainerako 5.000 errealak aurrez deskribatu dugun baratze modura atondutako lursail txikiarengatik. Salmenta-eskritura Ataunen gauzatu zen, 1864ko urriaren 20an, Miguel Dorronsoro notarioaren aurrean.

Garai haiek sozialki eta politikoki gogorrak eta zailak zirela usten dugu, izan ere, urte gutxi batzuk baino ez ziren falta hirugarren karlistaldia has zedin. Agian horregatik saldu zituen Maria Pastora de Vargas y Castrillok eskualdean zituen jabetza guztiak. Horien artean, arestian aipatutako Ordiziako lau etxeak. Salmenta guztiak 1864an gauzatu ziren Ataunen, Miguel Dorronsoro notarioaren aurrean.

Guztiok ezagutzen ditugun abizenetara gerturatzen ari gara, Zelaetatxiki edo Zelaetaetxeberria baserri txikiarekin lotutakoak. Saga hartako ondorengoak bizi izan ziren, gerora, etxe hartan, izan ere, 1865eko martxoaren 14an aurreko erosleak haren banaezinezko erdia Juan Maria Peña y Ordogoiti beasaindarrari saldu zion, 30 urteko jornalari ezkonduari.

Salerosketa aurrez ordaindutako prezioaren erdian gauzatu zen, izan ere, aipatu jabeak bere erdia 7.500 errealetan saldu zuen, eskudirutan kobratu zuelarik. 15 urte igaro ziren Nicolas Eleizaldek beste erdia Juan Maria Peña y Ordogoitiri saldu zionean. Salerosketa hura ere zenbateko berean gauzatu zen, hau da, 1.875 pezetan (7.500 erreal). Kasu hartan, horrela egin zen ordainketa: 1.625 pezeta eskudirutan; beste 250 pezetak epe ezberdinetan, 12 hilabetetan ordaintzekoak %5eko urteko interes batekin.

Eroslearen kontura geratzen zen, era berean, Beasaingo Parrokian egiteko Urteurren-meza bat. Harengatik hamaika erreal ordaindu beharko zituen urtean, 366 erreal eta 60 zentimoko kapitala kalkulatzen zelarik. Bestalde, jabetzaren saltzaileak adierazitako zenbatekoaren ebikzio eta saneamendua egin beharko zuen derrigorrez.

Orduan Juan Maria Peña Ordogoiti eta Juana Maria Mugica senar-emazteak bizi ziren Zelataberri, Zelaetatxiki edo Zelaetaetxeberria baserrian (hiru modutara izendatzen baitzen). Haiekin batera bizi ziren haien seme Martin Peña eta haren emaztea, Maria Aguirre Mugica, lehen matrimonioko beste bost seme-alabez gain. 1862an, trenbidearen ibilbide zaharreko planoa sinatu zen urtean, bi familia hauek bizi ziren Zelaetaetxeberria baserrian:

Alde batetik, Angel Zulaica eta Manuela Arteaga senar-emazteak eta haien alaba Candida Zulaica; beste alde batetik, Juan Maria Peña eta Juana Maria Mugica senar-emazteak, haien alaba Francisca Ignacia eta Josefa Antoniarekin batera. Angel Zulaica, aldi berean, Tapia handia baserriko jabeetako bat zen. Baserri hura desagertu egin zen trenbidea iristean, aurrerago azalduko dugun bezala.

Beasainen beste baserri askorekin gertatu bezala, Zelaeta txiki baserri txikiak su hartu zuen. 1910. urtean gertatu zen hori. 83. argazkian erakusten dena aurreko eraikinaren izena mantendu zuen azken etxea da, suak kiskalitako baserri zaharraren orube gainean eraiki zena. Azken eraikin hori 1996ko irailaren 24an izan zen eraitsia.

NEKOLA da 1862ko planoaren egileak 3a plano-zati horretan marraztu zuen hurrengo baserria, hain zuzen, gure oinezkoak ikusiko zuten hurrengoa Zelaetatxiki atzean utzi ostean, galtzadaren ezkerraldean Igartzatik beherantz abiatuta. 3. sektoreko plano orokorrean eta 3a plano-zatian (H hizkiaz) ikus daiteke eta, baita 84. argazkian ere. Halaber, aipagarri da 1862an Nekola Abariako maiorazkora lotuta zegoela artean.

82. argazkia planoa taxutu eta mende bat beranduago atera zen. Bertan, Z hizkiarekin sarbideko galtzada zaharra adierazi dugu, 3a plano-zatian bezalaxe. Argazki horretan, era berean, Zelaetazar baserriaren kokapen zaharra adierazi dugu zirkulu zuri batekin. 3a plano-zatian "bide" hitza agertzen da bertikalki idatzita, Zelaetaberri eta Nekola baserrietara egiten zuen errepide zaharra adierazten da horrela. Bide hori eta Barrendain baserri berriaren atzean zegoena (hain justu, gaur egun Garmendia Otaola kalea abiatzen den lekuan zegoena) dira, oraindik nabari daitekeen Errege Galtzada zaharrarekin lotzen ziren zeharkako bidexka bakarrak. Hala ere, gaur egun, bide horiek asfaltatuta daude eta, aski zabaldu eta urbanizatuta.

Planoan Z hizkiarekin markatuta ikus dezakegun bideak oraindik Zelaeta toponimoa mantentzen du, haren alboan, galtzadarekin besarkatuz, zegoen baserri zaharraren ohorez. 3. plano orokorrean eta 3a plano-zatian (H hizkiarekin) adierazten den baserria da Nekola izenekoa. Hari buruz ezagutzen dugun idatzizko lehen aipua 1567koa da. Dokumentu askotan ikusi ahal izan dugunez, Nekola etxea eta hartako lursailak Abaria/Olazabal jabetzaren baitakoak izan ziren ia 300 urtez.

1643-1670 bitartean Miguel de Abaria lan-maisua herriko jabedun nagusia izan zen, Igartzako Jaunaren ostean. Urte haietan, jadanik hamar etxe eta lursail ugari zituen bere jabetzan Beasaingo udal-barrutiaren barruan. Abariatarrak, beranduago, hainbat etxe eta etxaguntza bereganatu zituzten Arabako zenbait herritan eta, baita alboko herri batzuetan ere, esate baterako, Lazkao, Gudugarreta eta Ordizian.

1877ko abenduaren 17ko idatzi batean irakur daitekeenez, 1620ko irailaren 18an Nekola etxeak jadanik 170 beloi-dukateko kapitala zuen eta 8 dukateko urteko errenta. Zentsu hori eskritura publikoan erregistratu zuten Juan de Loinaz eta Domingo Ayestak, beste ezarle batzuen artean, Juan Garzia de Aranguren-en aurrean.

1722ko urriaren 10eko antzeko beste idatzi batean, Martin de Abariak Francisco Arizkorretari aitortu zionez, Beasaingo parrokian urtero betiereko bederatzi urteurren-meza egiteko betebeharra zuen, horietako bakoitzaren ordainetan honakoa eskaini eta ordaindu beharko zuelarik: **"11 panes de á cada dos libras, un retuerto de cera torcida de un cuarterón, y un real y 16 maravedíes de vellón en dinero, imponiendo estos nueve aniversarios sobre diferentes fincas y entre ellos uno al año al caserío de Necola"**.

Halako eskaintzak ez dira arraroak, kontuan hartzen badugu XVIII. mendearen amaiera arte ohikoa zela hildakoak elizetako gangen azpian lurperatzea. Defuntuak, bizi ziren artean, mezetara edo errezatzera joaten ziren parrokia horietan ospatzen ziren sarritan. Haien ondorengoak ere eliza horietara joaten ziren defuntuen omenez errezatzera. Euskal Herrian oso ohitura errotua zen (elizetara joaten ziren familia elizkoiek zuten ohitura), tenplu horretako toki jakin batzuetan (etorkizunean beren hilobi gisa ikusten zuten tenplu hori) zapi beltz bat zabaltzea eta haren gainen eskaintzari egunetan eskainitako ogiak paratzea. Zapi beltz horren gainean, era berean, elizkizun ezberdinetan sutan egoten zen argizaria pizten zen.

1877ko abenduaren 17an 4.914 pezeta ingurukoa zen Nekola baserriaren balioa, hartako etxaguntza guztiak barne.

Nekola baserriak oin angeluzuzena zuen, lau erpin, hainbat ateburu eta ate-zangoak harri landuz eginak, harlangaitzez beteak eta lau uretako teilatua zuen estalkia. Hori guztiori diogu, antzina, lau fatxadaz osatutako eraikinaren kanpoaldean, egurrezko armazoi eder bat zuelako, "harlangaitzez betea". Azkenik, Nekola baserriaren hormak pixkanaka higatu egin zituzten egurrezko armazoi hura ia ezkutuan geratu zen arte, iparraldeko fatxadan izan ezik, 84a argazkian ikus dezakegun moduan.

Baserriaren azalera eraikia 220 m²koa zen. Beheko solairu batez, solairu nagusi batez eta ganbarez hornituta zegoen. Eraikina etxearen etxaguntzez inguratuta zegoen alde guztietan. Etxaguntza horien azalera 5.910 m²koa zen. Hauek ziren XIX. mende amaieran etxearen eta hartako etxaguntzen mugak.

Iparraldera, errepide publikoa; hegoaldera, Barrendain eta Zelaetaberria etxeetako onibarrak; ekialdera, berriz ere Barrendain baserriko lursailak; mendebaldera, errepide ertzean kokatutako Zelaetazar izeneko baserri zaharraren etxaguntzak.

Landa giroko Beasain hartako azken urteetako bitxikeria modura, esan dezagun, oraindik hogeita hamar urte ez direla, Victor Azurmendik, Nekola baserriko anaien artean zaharrenak, behiekin gurdia eramanez Basakaitz aldera zihoalarik, Oria ibaia ibitik igarotzeko ohitura zuela distantzia gutxiago egin eta lur malkartsu horretara errazago sartze aldera. Honatx egiten zuen ibilbidea: Nekola baserria, antzinako N-1 errepidea Kantoikoara iritsi arte ("Barras Doradas"), "La Calleja" izeneko gunean tren-zubia azpitik zeharkatzen zuen bide publikoa, errepiderako irteera egun Suministros Loinaz dagoen zonaldetik, hura gurutzatu eta ibaira jaitsi Oria alboan kokatutako baratzez hornitutako zonaldetik, betiere, Bernedoko presa zaharraren azpitik.

Bernedo fabrika ezarri zenean desbideratu zen bide zaharra da. Aurrerago 3. sektorean ikusiko dugun fabrika hori markatzen dugu hemen. Aurrerago aipatuko ditugu errepide hori eta Basakaitzeko lurrak, Abariako maiorazkoak Igartza etxea, Nekola eta Urbiñarte etxeetara atxikitako lur modura zonalde hartako zati handi bat aipatzean. Lerroalde honetan aipatutako etxeak maiorazko horren baitakoak ziren.

Nekola etxea Abaria familiako kide ezberdinen jabetzara igaro zen herentzia ezberdinen bidez, jarraian ikusiko dugunez. Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Olaso (Irungo Arbelaitz jauregiaren jaraunslea, 1863an hil zena) zenduaren testamentu-onuradun zen Lazaro Egaña Beasaingo Epaitegian aurkeztu zen esanez Jose Joaquinek zuela deskribatutako lursail hori jabedun modura, 1804an Joaquin Olazabal y Murgia aita zenduaren eskutik jasotako herentzian.

Horretarako, Fermin Zunzunegik eta Francisco Aldanondok eman zuten testigantza, Francisco Telleria alkatea, Jose Martin Arana alkate-errejidorea, Jose Manuel Goena sindikoa eta Jose Domingo Mugica herriko idazkaria aurrean zirela. Testigantza horretan zera adierazi zuten: *"que se han guardado las formas de*

la Ley y que se han pagado puntualmente las contribuciones devengadas".

Joaquin Urteagak aldeko epaia eman zuen 1877ko azaroaren 28an, Jose Domingo Mugica idazkaria aurrean zela. Dena den, Tirso de Olazabalen ahalordedun zen Santiago Elicegui y Mugicak 1892ko urriaren 10ean aipatu jabetzaren jabegoa egiaztatzeko aurkezten zuen lekukoen informazioa onar zezala erregutu zuen Beasaingo Epaitegian. Horretarako, Udalaren ziurtagiria aurkeztu zuen, non berak ordezkatzen zuen pertsona jabetza horren jabea zela adierazten zen.

Jadanik XX. mendean, Tirso de Olazabal y Lardizabal, aldi berean, Arbelaizeko konde eta Cantillanako markesa zena (hautagai karlistak aitortutako tituluak) eta, Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Olaso aitaren eskutik etxe eta jabetza horiek herentzian jaso zituena (horregatik, zenbaitetan, Beasaingo Abarinea etxe berri hori Olaso etxe gisa izendatzen da), testamenturik egin gabe hil zen Donostian 1921eko azaroaren 25ean (ikus Tirso de Olazabalen erretratua 84b argazkian, XX. mende hasieran artean Beasaingo jabedun nagusienetako bat zena).

Tirso de Olazabal hil zenean, Lehen Auzialdiko Epaitegiak irizpena eman zuen 1922ko maiatzaren 20an, bere hamar seme-alabak jaraunsletzat hartuz: Maria Mercedes, Margarita, Ramon, Tirso, Rafael, Ignacio, Pelayo, Vicenta, Lorenza eta Blanca Olazabal y Eulate. Testamentuaren legezko usufruktudun modura haren emaztea, Ramona de Eulate y Moreda, geratu zen. Horretarako, dagozkion eskriturak jaso ziren 1921eko abenduaren 8an. Dokumentuaren atal batean zera adierazten da:

> *"...la mayoría de los hijos son vecinos de Beasain, una de ellas, D.ª Vicenta, casada con el abogado D. Julio de Urquijo e Ibarra, vive no obstante en la ciudad de San Sebastián" (Este señor era el conocido vascófilo, propietario de uno de los Fondos históricos más extensos e importantes del País).*

Beste alaba batek, Mercedes de Olazabal y Eulate ezkongabe eta etxekoandreak, aitaren herentzian jasotako jabetzaren banaezinezko erdia bereganatu zuen, orduan 14.000 pezetako balioa zuena. Mercedes 1930eko urriaren 12an hil zen Donostian, eta haren jaraunsleak hauek ziren: *"herederas a su madre Dª Ramona de Eulate Moreda y a su hermana Dª Margarita Olazabal y Eulate si le sobrevivieren, quedando el resto como únicas herederas en caso del fallecimiento de alguna".*

Azkenik, Ramona de Eulate y Moreda hil zenean, Nekola baserriaren eta hartako etxaguntza guztien jabedun modura, haren alaba Margarita de Olazabal y Eulate geratu zen. Margaritak 1931ko ekainaren 19an erregistratu zituen jabetza horiek bere izenean.

1867an bost senide bizi ziren Nekola baserrian:

Francisco Antonio Aramburu eta Josefa Odriozola senar-emazteak eta haien semea, Juan Aranburu Odriozola; Maria Blasa Zumarraga eta haren alabak,

Josefa eta Ursula Aranburu Zumarraga; Juan Olasagasti eta Candida Zurutuza senar-emazteak, bietako baten ama, Clara Usabiaga eta matrimonioaren hiru semeak, Manuel, Isidro eta Jose Olasagasti Zurutuza; Ascensio Zuriarrain eta Catalina Ayestaran senar-emazteak eta Maria Bengoechea; eta azkenik, Catalina Arregui eta haren semea, Juan Martin Unsain.

Baserriaren azken sasoira iritsi gara, izan ere, 1931ko ekainaren 25ean Beasaingo Paulino Azurmendi Aranburu adin nagusiko nekazariak, Marcelina Echeverriarekin ezkonduta zegoenak, jabetza bereganatu zuen, 16.000 pezeta ordainduta.

1990eko urriaren 29an jabetza horretatik **Basakaitz izeneko lursaila** bereizi zen, 9.910 m²ko azalera zuena **(Abariako maiorazkoak Nekola baserrira atxikitako izen bereko mendiaren zati bat zena).**

Nekola baserria, Azurmendi familiak bereganatu eta hirurogei urtera, jadanik alde guztietatik hiri-eraikinez inguratuta zegoela, eraitsi egin zen 1991ko abenduaren 28an.

BARRENDAIN BASERRIA. Ohar modura esan dezagun, kasu honetan Barrendain zaharra soilik aipatu nahi dugula, izan ere, 1972. urtera arte ezagutu duguna, 1863 inguruan eraiki zen.

Lehenik eta behin, azal dezagun antzina trenbidearen eta Autoentzako errepide zaharraren artean kokatzen zela, nahiz eta egungo errepideak ez duen jarraitzen Iberok marraztutako galtzada zaharraren ibilbidea, jarraian, xehetasun gehiagorekin, ikusiko dugunez. 1862ko planoaren egileak 3a plano-zatian, galtzada zaharraren eta trenbidearen artean marraztten duena Barrendain baserri zaharra da, guk B hizkiarekin adierazi duguna.

Errege Galtzadari eta Geltokiari dagokion zatian hobeki azalduko dugunez, Oria ibaiaren gainean altxatutako Igartza tren-zubitik 300 metrora kokatzen zen

zehazki. Aipatu Errege Galtzada eta artean errail bakarra zuen trenbidearen artean, zeharkako norabidean.

Orobat, 3a plano-zati horretan ikus dezakegunez, guk Z hizkiarekin adierazitako bidetik behera luzetara eginez 50 metro ingurura kokatzen zen Barrendain. Bide hori, antzina, Nekola eta Zelaetaberri baserrietara egiten zuen errepidea da. Arestian esan dugun moduan, gaur egun bide hori Zelaeta zeharkako kale berritik igarotzen dena izango litzateke.

Esan dugunez, Barrendain egungo Zelaeta kaletik 50 metrora lekutzen zen kalean behera luzetara eginez. Bada, eskalan ikusten ditugun 3. planoan eta 3a plano-zatian, 2 eta 3 zenbakiak adierazten dira ibilbide horren gainean, horrek zera esan nahi du: *"que están ubicados a 200 y 300 metros respecto al punto CERO situado a la salida del puente anterior sobre el Oria para el ferrocarril en la zona de Igartza"*. 3. sektoreko lerroalde hauetan hobetu azalduko dugu hori.

3a plano-zatiari ongi erreparatzen badiogu, "Autoentzako errepide" zaharrera egindako 400 metroko errepide-desbideratzea, zehazki Barrendain zaharraren parean hasi zen. Aurreko lerroaldearekin batera, 3. sektore honetako hurrengo atalean ere azalduko dugu hori.

Baina itzul gaitezen mintzagai dugun Barrendain baserri zaharrera, hau da, 1863an eraitsitako baserrira. Hari buruzko argazkirik ezin da erakutsi, izan ere, artean argazkilaritza ia asmatzeke egoteaz gain, urte haietan erabiltzen zituzten argazki-euskarri zaharretatik abiatuta ezinezkoa zen kopiak ateratzea.

Hau izango litzateke Barrendain baserri zaharraren kokapen zehatza (ikusi dugun 3a plano-zati txiki horretan agertzen diren bost baserrietan azkena), izan ere, guztiok ezagutu dugun Barrendain eraikin berria, Igartzako jaunak Geltokiko plaza berrian eraiki zuena, hain justu desbideratutako errepide berriaren ertzean, aurrerako ikusiko dugu; Iberok marraztutako ibilbide zaharraren gainean egindako galtzada-aldaketa horren ondorioz altxatutako eraikin berriei buruzko atalean.

AUTOENTZAKO ERREPIDE ZAHARRETIK

Beti harritu izan gaitu duela berrehun urte Beasainen ospe asko zuten tabernetako bat (hala zioten) Autoentzako errepide berritik aparte kokatzen zelako kontu hark. Tapia baserri "bikietan" kokatutako tabernari buruz ari gara, 1863an desagertu zena beste eraikuntza batzuekin batera, hain zuzen, gure irudizko bidaiariak ikusten ari diren trenbidearen ibilbide berriaren eraikuntza zela medio.

Arrazoi zehatza zein den ez dakit, baina taberna hura trenbidearen beste aldean kokatuta zegoela esaten zutenean, gure golkorako zerbait oker zegoela pentsatzen genuen beti, izan ere, hori hala izatekotan urte haietan "Autoentzako errepide" zaharrak ustez zeharkatzen zuen ibilbidetik urrun samar kokatuko zen. Halaxe da, gerora, 1862an sinatutako plano zaharrak ikusi ahala jakin genuen trenbidearen beste aldean kokatuta ez egoteaz gain, antzina benta eta taberna guztiak kokatzen ziren lekuan zegoela, bide eta galtzada zaharren ertzean; eta kasu zehatz honetan, **Tapia baserri biak ere, Autoentzako errepide zaharraren ibilbidearen ertzean zeuden kokatuta.**

3. sektoreko plano orokor honi so eginez ikus dezakegunez, hala Tapia baserri biak nola Barrendain etxetzar zaharra trenbidearen eta **"Autoen galtzada" zaharraren artean** kokatzen ziren (ez trenbidearen beste aldean beti uste izan den moduan). Planoan haien kokapen zehatza ikus dadin bi eraikuntza haien gainean haietako lehen hizkiak idatzi ditugu, hau da, B (Barrendain) eta T (Tapia baserriak). Halaber, mende bat igarota ateratako argazkian hizki horiekin adierazi ditugu trenbidea iritsi arte Tapia eta Barrendain baserri zaharrek izango zuten kokapena.

Aurrerago azalduko dugu xehetasun gehiagoz nola lortu dugun ia 150 urte igaro ondoren haien antzinako kokapena halako zehaztasunez hautematea. Plano horretan ikus daitekeenez, inork gogoratu ez arren, zera gertatu zen, tren-geltokia, hartako lan-zonaldeak, karga eta deskargarako esparruak, biltegiak, konponketa-nabeak, errail hilak edota "Fabrikako" errailak gaitzeko behar zuten espazioa izugarria zela eta, horrenbestez, Ibero eta Carrerak marraztu eta eraikitako autoen galtzada zaharraren ibilbidea desbideratu egin behar izan zuten 400 metroz.

Errepidearen desbideratzea aurrez deskribatutako Zelaetazar baserriaren parean abiatu zuten (soilik 50 metrora planoetan Z hizkiarekin adierazitako errepidetik behera) eta Ubia edo Urbi izenez ezagutzen den beste etxetzar zaharra igaro eta berehala amaitu zuten desbideratze hori. Normala eta logikoa zenez, Tapia baserri biak eta hartako taberna ezaguna Autoentzako errepide zahar horren ertzean kokatu ziren beraz, Ormaiztegi-Zumarraga-Gatzaga-Arlaban norabidean. Halaxe ikus daiteke 3b eta 3c plano-zatietan. Barrendain baserriari dagokionez, 3. sektoreko plano orokorrean eta 3a plano-zatian ere ikus daiteke hori.

Ikus, kuriositatez, 85a argazkian Autoentzako errepide zaharra Arlabandik igarotzean, A hizkiarekin adierazia. Ikusten den bigarren errepidea San Adriandik igaroz Gaztelarantz abiatzen zen bide zaharraren ibilbidea da, zeina B hizkiarekin adierazten den. Bi



ibilbideetan ikus daitekeenez, zehaztasunez marraztu dituzte bi galtzadak, ibaien ertz batetik besterako igarobideak, zergadun errekatxoak, etab. Ederki ikusten da San Adrianerantz abiatzen zen galtzada zaharra Beasaindik igarotzen zela Segura herrira iritsi arte, betiere, Oria ibaiaren ezkerreko ertzetik. Orobat, ongi adierazita dago, azken herri horretatik Zegamara iritsi arte, galtzadak zenbat aldiz eta nondik zeharkatzen zuen ibilgua. Gaur egun ere ibilbide hori egin daiteke, izan ere, Oria ibaiaren gainean eraiki ziren zubi zaharrak zutik daude oraindik.

"Autoentzako errepideak" Beasainen izandako desbideratze ahaztua berriro hartuz, 3b plano-zatian Zelaetazar eta Urbi baserriak zirkulu marroiekin adierazten direla ikus daiteke. Baserri horiek eskematikoki marraztu zituen planoaren egileak. Halaber, antzeko zirkuluekin markatzen dugu etxe horien kokapena 85. argazkian, mende bat igarota ateratakoa.

Zelaetazar egun Nafarroa Etorbidea deritzon kalean kokatuko litzateke, 39. zenbakian dagoen eraikineko orubean, gutxi gorabehera egun Cuesta Farmazia dagoen lekuan, 82. argazkian markatutako zirkulu zuriaren parean. Urbi baserria ere, airetik ateratako 85. argazkian oraindik ikus daitekeena (1975. urtera arte ez baitzen eraitsi), Nafarroa Etorbidearen hasieran kokatzen dela ikus dezakegu.

Hirurogeitaka urte dituzten irakurleek bi eraikinak gogoratu ahal ditzaten, alde batetik, Zelaetazar erakusten duen 80a. irudia beha dezatela iradokitzen diegu; eta, beste alde batetik, 86. argazkian errepara dezatela, Urbi baserriaren hegoaldeko fatxada ikusgai baitago, ataurre eta guzti. Urbi baserria 1975eko udaberrian eraitsi zen, Urbi etxea izenez egoki bataiatutako etxebizitza eraikitzeko xedez.

Mende bat igarota airez ateratako irudietan bi baserrien antzinako kokapena ikusi ondoren, plano hotz bezain praktikoak hartuko ditugu berriro. Horrela, 3b plano-zati horretan bikain marraztuta ikus dezakegu trenbideko ingeniari frantziarrek taxututako desbideratzearen nahitaezko proiektua. Guk ibilbide hori gezi marroi txiki batzuekin jarraitzen dugu, kalean behera. Zati horretan L hizkiarekin adierazten dugu, beste batzuen artean, Ibero eta Carrerak eraiki zuten autoen galtzada zaharra. Halaber, K hizkiarekin adierazten dugu 1862ko marrazki zaharrean aipatu ingeniariek argiro adierazten duten saihesbide ahaztu eta derrigorrezkoa.

Plano hori taxutu eta mende bat igarota ateratako 85. argazkian, era berean, leku horretan "Autoentzako errepide" zaharraren barneko ertzak izango lukeen bihurgune luzea adierazten dugu beste marra marroi lodi batekin (are itxiagoa izango litzateke, ia zamaketa-moila zaharraren zonaldera iritsi arte), Beasainen trenbidearen obra itzel hori hasi baino apur bat lehenago zegoena.

Trenbidearen obra "itzel" diogu, izan ere, halako obrak orduko jende gajoengan eragindako inpaktu bisuala, ziur aski abiadura handiko tren berriaren azpiegiturak egiteko obra modernoak gugan eragin dezakeena baino askoz handiagoa izango zen. Azken azpiegitura horri dagokionez, Gipuzkoan egingo den lehen tramuaren obrak Mariaratz zonaldean hasi ziren 2008ko apirilean.

Beranduago, urte haietan zeuden baliabide urriekin jende haiek egin behar izan zituzten obra, zubi, desbideratze, tunel, bide berri edota eraisketak zerrendatuko ditugu. Orduan konturatuko gara obra haren benetako tamainaz eta konplexutasunaz.

Ikuspegi ezberdin batetik ateratako 87. argazki bertikalean are argiago asma daiteke zein izango zen

Errege Galtzadaren ibilbide zaharra, oraingoan bihurgune itxiago hori marraztu beharrik gabe. Errepide berrian egindako atzeraemangune nabarmena bikain ikus daiteke, modu horretan, Iparraldeko Trenbideen Konpainiak bereganatutako lur horiek ibilbidez aparteko edozein eraginetatik at geratzen dira, hala geltokiko eraikina hartzekoak, nola eraikin, nabe, moila eta behar zituzten azpiegitura handiak hartzekoak.

85. argazkiarekin alderatuta, ikuspegi ezberdin batetik ateratako irudi honetan (hura ia 90º biratuta), berriz ere, T eta B hizkiekin adieraziko dugu 1860an bi baserri horiek zuten kokapena; T hizkiarekin Tapia baserri "bikiak" eta hartako taberna; B hizkiarekin, aldiz, Barrendain baserri zaharra, beranduago berreraiki zena bertako etxaguntzetatik ehun metro eskasera. Barrendain zaharra nahiz berria Igartza Etxearen jabetzakoak ziren.

XX. mendearen hasieran ateratako 88. argazkiko zatian, oraindik Zelaetazar baserria igaro eta berehala galtzada zaharrean egindako desbideratze handi hori antzeman daitekeela uste dugu, izan ere, hondoan ikusten den eraikina, erdian eta zeharka, Zelaetazar etxetzar zaharra da hain justu. Guk errepidearen gainean gezi makur txiki bat marraztuko dugu, irudi ho-



rretan oraindik antzeman daitekeela uste dugun desbideratzea adierazteko. CO hizkiekin adieraziko dugu Barrendain berriaren estalpea, 89. argazki ezagunean hizki berdinak erabiliz erakusten duguna. Kasu honetan parez pare aterara dago eta kamara 90º biratuta, aurreko irudiarekin alderatuta.

Pixka bat aurrerago, geltokiari dagokion sektorean, argiago azalduko dugu nola kokatu ahal izan ditugun horrelako zehaztasunez Barrendain eta Tapia baserri zaharrak.

Hurrengo atalean deskribatuko ditugu zonalde horretan izan ziren lehen aldaketa nagusiak; orain herrian "Geltokiko auzo" izenarekin ezagutzen den zabalgune berri handiaren sorrera aipatuko dugu.

LEHEN ERAIKUNTZAK GALTZADA BERRIAREN ERTZEAN

90. eta 91. irudietan Urteaga fonda ikus daiteke, bi angelu ezberdinetatik. Beherako bidean kokatuta zegoen, Barrendain etxe berriaren ondoan. Hasiera batean Iurrita izena hartu zuen, eraikuntza gauzatu zuen gizonaren omenez, zeinak ordurako bazuen beste fonda bat herriguneko zonaldean. Barrendain baserri berri horren kokapenari dagokionez ere aurrerago hitz egingo dugu.

Gaur egun gertatzen den bezala (eta orduan arrazoi gehiagorekin, izan ere, ferraz hornitutako animaliek bultzatutako ibilgailuak arras motelak ziren), fonda eta ostatuak ibilbide eta bide ezberdinen ertzean kokatzen ziren. Kasu honetan, eta 1862an egindako errepidearen desbideratze berria aintzat hartuta, logika hori mantendu egin zen, izan ere, abandonatutako galtzada zaharraren ertzean kokatzen zen eta planoan T hizkiarekin adierazten den Tapia baserriko taberna zaharra eraitsi egin behar izan zenez, orduko merkatari burutsuek Iurrita fonda eraiki zuten, desbideratze berri horren ertzean. Eta, guztien antzera, leku horretan tren-geltokiak negozio oparo ziurra sortuko zuelakoan eraiki zuten.

Horrenbestez, irakurritako dokumentuen arabera, urte haietan jadanik desbideratutako autoen galtzada berriaren ertzean eraiki zen lehen eraikina Iurrita fonda izan zen, 1.860an altxatua, nahiz eta 1862an sinatutako planoetan artean ez zen marraztu. Ziur aski, urte batzuk lehenago hasiko ziren planoa marrazten, ondoren, egiaztatu eta, beranduago, ibilbidearen behinbetiko planoak sinatuko ziren eta, horregatik, litekeena da planoan gune hori marraztu zenean artean fonda eraikitzeke egotea. Barrendain etxetzar zaharrak esleituta zituen lurren gainean eraiki zen Barrendain baserri berria, Igartzako jaunak lur haiek besterendu ondoren. Hala ere, kasu hartan, orubearen erosleak zenbait baldintza ezarri zituen.

Orduan saldutako lursailak 357 m2ko azalera zuen eta 1.500 pezetan gauzatu zen salerosketa; lursail horretara atxikitako 50 m²ko lauza, proiektuari so zuen kokapena zela-eta, soilik 125 pezetan saldu zen. Martin Urteagak orubearen erosle modura ezarri zuen baldintza izan zen eraikinaren ekialdean, orubearen bazter batean zegoen aziendaren uraska eta harako sarrera errespeta zitezela. 91. argazkian, XX. mende erdialdean ateratakoan, gezi marroi batez adierazten dugu uraskarako sarbide horrek antzina zuen kokapena, salmentaren baldintzetan xehetasunez agertzen den moduan.

Esan beharrik ez dago orduan uraska hori ezinbestekoa zela lekuan etengabe geratzen ziren gurdi, diligentzia eta zalgurdietako zaldientzat. Bestalde, erosle hark, era berean, 407 m²ko lur haietan sarrerak, irteerak eta haietako erabilera eta ohiturei zegozkion gainerako eskubideak errespeta zitezela eskatu zuen, 90. eta 91. argazkietan ikus ditzakegun ataurreei zegozkien eskubideekin batera.

Martin Urteaga Aizkorreta eta bere emazte Maria Otegui ziren orubearen jabeak. Baina han fonda eraiki zutenak Manuel Yurrita eta bere emazte Mikaela Azpitarte izan ziren.

Beranduago, 1881ean, Martin Urteagak epaitegira jo zuen aipatu orubearen jabetza aitor ziezaiola eskatuz. Urteagak orube haren gaineko salerosketa-kontratua izan arren, ez zuen zegokion eskritura publikoa.

Testu horretan Iurrita fonda ustez eraiki zeneko data zehatza agertzen da argiro, izan ere, hala irakur daiteke kontratu horretan:

> *"Que D. Manuel Yurrita y su esposa eran los dueños y poseedores de la Fonda por haberla adquirido con excepción del solar,* ***donde edificaron de nueva planta en 1.860*** *la citada y sus adherentes descritos…"*

Aurreko lerroaldeetan esan dugu moduan, dokumentu horretan argi azaltzen bada ere, 1862ko planoan ez da oraindik Iurrita fondaren marrazkirik agertzen, aipatu ditugun arrazoiak direla medio. Aurreko idatzi horretan, era berean, zera adierazten da:

> *"…que los citados señores la poseyeron como dueños hasta el 3 de Mayo de 1.882, cuando fallecieron". (Sic)*

Harrigarria badirudi ere, orduan ez zen horren ezohikoa orubearen jabea pertsona bat izatea eta bertan eraikitako higiezinaren jabea beste bat izatea. Hori, ikusi dugunez, maiz gertatzen zen XX. mende hasieran Beasaingo hainbat etxetan. Hori da, besteak beste, Aranegaraikoa eta Baraikoa handiaren kasua.

Argi dagoena zera da, Iurrita fonda izan zela "Autoentzako errepidearen" saihesbide berriaren iparraldeko ertzean eraikitako lehen eraikina, zeina, 1882tik aurrera "Urteaga fonda" izendatu zen, kasu horretan, jabe berriaren izena hartuta.

Iurrita fonda zaharrean, urte haietan Manuel Yurrita eta Micaela Azpitarte senar-emazteak eta haien semealabak (Isidoro, Francisca eta Maria Yurrita Azpitarte) bizi ziren.

Iurrita fondaren ostean altxatu zen hurrengo eraikina Barrendain baserri berria izan zen, hura ere errepidearen desbideratze berri horren ertzean kokatuta. Baserri horren jatorrizko kokapena trenbidearen alboan zegoen eta berreraikitze horretan kokapen hori ehun metro mugitu zen iparralderantz. 85. eta 92. argazkietan Barrendain baserri berriaren kokapena adierazten da, haren teilatu gainean gezi zuri bat eta zirkulu zuri bat adierazita; halaber, bigarren irudian, Nekola ikus daiteke H hizkiarekin adierazita eta, baita Zelaeta txiki ere, G hizkia paratuta, aurrez deskribatu ditugun planoetan adierazten den antzera. Barrendain berriaren ikuspegi horretan baserriaren antzinako kokapenaren eta kokapen berriaren arteko distantzia laburra ikus daiteke.

Orobat, 92. argazkian Nekola eta Zelaeta txiki baserrietarantz abiatzen zen bide zaharra ikus daiteke. 3. sektoreko planoan eta 3b plano-zatian ere argi ikus daiteke haren ibilbidea. Bide horri buruz zenbait aipamen egingo ditugu hurrengo lerroaldeetan.

BARRENDAIN BASERRIA, hots, Barrendain berria izan zen, beraz, trenbidearen erruz desbideratutako 400 metroko galtzada berri horren ertzean sortu zen bigarren eraikina; eta, ibilbidearen behin-betiko planoak zehazteko behar izan zen denbora aintzat hartuta logikoa denez, baserri hori ez da agertzen bere kokapen berrian, trenbidearen alboko antzinako etxetzarra baita marrazten dena.

Arestian aipatu dugunez, denbora gutxira izan bazen ere, Yurrita fonda eraiki eta gero altxa zen baserri berria, izan ere, fonda 1860an eraiki zen. Igartza Etxeko jabeak, orduko horretan ere ez zuen leku txarrena hautatu eraikin berria altxatzeko, orduan Postetxe eginkizunetarako erabiliko zena. Eta, jakina, bere jabetzako lurretan eraiki zuen, geltokiaren parean sortu zen plaza berriaren parean, hain justu.

Yurrita fondak eta Barrendain berriak zapaltzen zituzten lursailak ere Igartzako Etxearen baitako etxaguntzak ziren, eraitsitako baserri zaharrari atxikiak.

Barrendain berriaren inguruabarrak zehazki nola egituratzen ziren jakiteko hartako mugak ikusiko ditugu zehaztasunez:

Hegoaldera, "Autoen Errepide Nagusi" berria; ekialdera, Yurrita fondaren orubea eta hartako etxaguntzak; mendebalde eta iparraldera, berezko etxa-

guntzak. Postetxea bi etxebizitzekin eraiki zen, halaxe banatzen zirenak: Sukaldeak, gelak eta ukuiluak beheko solairuan; gainerako logelak eta ganbarak baserriaren goiko aldean. Eraikina harlangaitz ertaina erabiliz eraiki zen eta, estalki modura, bi uretako teilatua. Eraikitako orubeak (teilapeak eta ataurreak barne) 551,43 m²ko azalera hartzen zuen. Barrendain baserri handia izan zen azalerari beha.

Dokumentuen arabera, urte haietan eraikinaren balioa, "atendiendo a su buena situación y reciente construcción", 5.480 pezeta eta 40 zentimokoa zen. Etxe hartan, artean, aspaldidanik Igartza etxeak hari esleitutako lursail ugari eta handiak mantentzen ziren. Guztietan garrantzitsuena jarraian deskribatuko duguna da, zeinaren inguruan aurrerago hitz egingo dugun sakonki.

Lerroalde batzuk ekarriko ditugu komatxo artean. Horrela, ikusiko ditugun planoen bidez identifikatu ahal izango ditugu; ikus dezagun bada:

> *"…terrenos montazgos cercanos a la casa y bajo un perímetro, a los cuales justo les atravesaba el camino carretil que venía desde Vista Alegre en dirección al caserío Andraiturri…"*

Onibar zabal hark 27.117 m²ko azalera zuen ereiteko lurretan; bazen beste lursail bat 1.552 m²koa, sagasti gazte eta ereiteko lurrez osatua; eta, azkenik, bazen beste lursail bat, 11.193 m²koa, larre, gaztainadi eta otadiz osatua, zeintzuk, aldi berean, modu honetan mugatzen ziren:

Hegoaldera, errepide nagusi berria, Barrendain baserri berria, Iurrita fondako orubeak eta Bistalegreko teilape eta etxaguntzak; ekialdera, Zelaetazar eta Dolarea baserrietako onibarrak; iparraldera, Arizmendi baserriko lurrak; mendebaldera, Andraiturri, Nekola eta Zelaetatxiki baserrietako onibarrak eta haietara egiten duen errepidea. Lur horren balioa eta soilik lurrarena, orduan 14.963 pezeta eta 40 zentimokoa zen. Garai hartarako kopuru handia zen hori, eraiki berria zen etxetzar berriaren balioa hirukoizten baitzuen ia.

3. sektoreko plano orokorrean eta 3b plano-zatian erreparatzen badugu, nahikoa zehaztasunez asma daiteke haren kokapena eta baita bere azalera osoa ere (38.662 m², hau da, ia lau hektarea). Horri esker, mugak argi adieraz ditzakegu. Onibar horrek informazio asko ematen digu atalaren hastapenean, izan ere, besteak beste, hau irakur daiteke:

> ***"…terrenos montazgos cercanos a la casa y bajo un perímetro, a los cuales justo les atravesaba el camino carretil que venía desde Vista Alegre en dirección al caserío Andraiturri…"***

Jabetza zabal hori, 100x100 metroko ia "lau futbolzelai" hartzeko moduko azalera zuena, 3. sektoreko plano orokorrean mugatzen dena da. Plano horretan, lurraren zati handi bat **ertzatuta** agertzen da (deskribapenean **perimetro baten azpian** aipatzen da), K, C, Z eta H hizkiek plano horretan erakusten dutenez. Halaxe egiaztatu ahal izan dugu ondoren irakurri eta alderatu ditugun eskritura batzuetan.

Aurrerago, Bistalegre etxeari dagokion atalean, sakontasun gehiagoz azalduko dugu hau guztiau, izan ere, orokorki Bistalegre izendatzen zena ia Ubia edo Urbi baserritik Iurritako fonda berriraino zegoen erabili gabeko lurra da, leku horretatik eratorrita hala izendatzen ziren zenbait etxe berri salbuetsita.

Barrendain baserri berriak beste hiru onibar zituen, errepide berriaren eta trenbidearen artean kokatzen zirenak eta, orotara 4.462 m²ko azalera hartzen zutenak. Honatx horien mugak:

Iparraldera, errepide nagusi berria eta **"probintziaren lurra"** (horrela izendatzen ziren geltokiaren zonaldean zeuden lurrak eta haren barnean erabilera ugari izan zituen orubea, izan ere, orube horretan lehenik eta behin Mikeleteen Kuartela kokatu zen, gero Probintziako Aurrezki Kutxa zaharra, 1952tik aurrera Udal Liburutegia eta, orain, neurri batean, zuhaiztiz betetako Xerbera kafetegiko terraza); mendebaldera, Zelaetazar baserriko lurrak; hegoalde eta ekialdera, trenbidearen lurrak eta Barrendain baserriarenak. Lursail horren guztiorren balioa 1.314 pezeta eta 30 zentimokoa zen orduan.

Andanea izeneko gunean kokatutako larre, alubioi eta gaztainadiek 12.174 m²ko azalera hartzen zuten, horrela mugatuak:

Iparraldera, Oria ibaia; hegoaldera, Juan Cruz Aranburuen lursailak; mendebaldera, Usategiko sastraka; ekialdera, Altamirako larreak. Lur horien balioa 605 pezeta eta 15 zentimokoa zen.

Magdalena basoan lekututako irasaila, gaztainondo eta haritzez hornitua, 12.500 m²koa zen, muga hauekin:

Iparralde eta ekialdera, Usategi baserriko lurrak; hegoaldera, **Iturrizpe** eta Telleri baserrietako lursailak; mendebaldera, Pagadizabal baserriko lursailak. 757 pezeta eta 40 zentimo balio zituen.

Bazen beste orube bat, Barrendain berria ukitzen zuena, *"donde tiene la fonda Manuel Yurrita"*, eta 357,88 m²ko azalera hartzen zuena, erakina, ukuilua eta ataria aintzat hartuta. Lursail horren hegoaldeko mugakidea errepidea zen eta gainerakoan Barrendain baserriko lursailak zituen mugakide. Lur horren balioa 2.330 pezeta eta 15 zentimokoa zen.

Bazen 100 m²ko azalera zuen beste barraka edo teilape bat (*"barraca o tejabana"*), ia Iurrita fonda ukitzen zuena, Ordiziako Nicolas Aguirrek eraiki zuena egurra pilatzeko asmoz. Honatx hartako mugak:

Hegoaldera, errepide nagusia eta Barrendain baserriko lursailak. 871 pezeta eta 50 zentimo balio zituen.

Halaber, Barrendain etxe horri dagokionez aurrez Maria de Yarzaren kapilautzari (3.850 pezetako balioa zuena eta, horrez gain, bi urteurren- eta eskaintzameza, 3.882 pezetan baloratuak) buruz esan dugun

guztia errepikatzen da, Igartza etxearen jabetzakoa baitzen.

Logikoa denez, Zunzunegi familiak 1919an Montcabrier bizkondeari erositako 23 jabetzen artean Barrendain baserria zegoen eta, baita Fermin Zunzunegik, Igartza etxearen izenean, 1887ko abuztuaren 12an egindako formalismoetan ere. Formalismo horien helburua, lehenik eta behin Igartzako maiorazko zaharraren jabetza guztiak egiaztatzea zen eta, gero, haiek inskribatzea.

Barrendain berrian Jose Maria Eleicegui eta Josefa Ignacia Goitia senar-emazteak eta haien seme-alabak, Baltasar, Josefa Antonia, Pedro eta Josefa Martina Eleicegui Goitia bizi ziren lehen urteetan, Tomasa Albisu neskamearekin eta Julian Elorza eta Manuel Fernandez apopiloekin batera; baserriaren beste erdian Martin Ignacio Unsain eta Juana Francisca Erausquin senar-emazteak eta haien semeak, Jose Antonio, Jose Martin eta Jose Joaquin Unsain Erausquin bizi ziren, Josefa Antonia Chinchurretarekin batera.

Ziurtasun osoz esan dezakeguna zera da, hau zela 1862. urtea igaro eta bost urtera, Beasaingo herrigunera bidean, beherantz, desbideratutako autoen errepide berriko ezkerreko aldean, paratzen ziren eraikinen hurrenkera:

Barrendain berri, Iurrita Fonda, Bistalegre eraikin txikia (solairu bakarrekoa), eta Bistalegre izeneko beste etxea (etxebizitzak hartzen zituena eta aurrerago aipatuko dugun bizilagun-zerrenda luzea barneratzen zuena); ondoren, mendialde handi bat legoke eta, azkenik, Ubia edo Urbi baserri zaharra.

Eraikin horiei esleitutako antzinako zenbakikuntza hau izango litzateke, goitik behera emanda:

Barrendain etxeak 4 zenbakia, Iurrita fondak 3 zenbakia, 2 bis zenbakiarekin Bistalegre etxe txikia, 2 zenbakia izango luke Bistalegre izeneko etxe handiak (etxebizitzak hartzen zituena) eta 1 zenbakia izango luke Mendebaldeko Zatia izenekoari hasiera ematen zion Urbia edo Ubia baserri zaharrak, Lazkaoko Infanterriko etxearen baitakoa zena.

Denboraren poderioz, XX. mendean aurrera eginez, etxe horiekin eta errepidearen alde horretan sortuko ziren beste batzuekin, "Geltokiko Pasealekua" izenekoa sortuko zen pixkanaka, zeinak 1928. urteaz geroztik horren ezaguna den zuhaiztia izango duen.

Aurrez aipatutako mugak ikusirik, Bistalegre izeneko etxeak Iurrita Fondaren ostean kokatzen ditugu guk, gutxi gorabehera, Nafarroa Etorbideko 13. eta 15. zenbakietan kokatutako etxebizitza-etxe zaharren (egun eraitsita daudenak) parean. Ikusi dugunez, Bistalegre etxebizitza-etxea, hein handi batean, trenbidearekin lan egitera etorritako jende andana hartzeko zegoen premia asetzeko sortutako eraikina izango litzateke. Eta, orduan, zer da Bistalegre etxebizitza-etxe hori baino apur bat gorako, 2 bis zenbakian, kokatutako beste etxe txikia? Plano hau sinatu eta bost urte baino igaro ez zirela, 1867an, horrela deskribatu zuten:

> *"…Casa pequeña situada en el Cuartel de Poniente próxima a la Estación del Norte, que consta de un piso, principal y una cuadra en toda su extensión y desván…"*

Aurrerago ikusiko dugunez, mendirantz atzeraemana zen pixka bat, izan ere, Bistalegre handi izendatzen zuten etxebizitza-etxearen mendebalde eta iparraldera kokatzen zela ere esan izan da. Ekialdera aipatu etxe hori zuen mugakide; iparraldera, bidexka bat; mendebaldera, baserri eta mendirantz abiatzen zen errepidea; eta, hegoaldera, *etxe txikiaren eta errepidearen artean zegoen plaza txiki bat*, zeinaren azalera ez den adierazten, etxearen ataurre gisa hartu ezin delako.

Garai hartan Vicente Val y Valgañon zen etxearen jabea, ordurako alargun zegoen beasaindarra. 200m²ko azalera zuen orubea zuen eta 1.200 zortzerleko balio zuen. Era berean zera ikus dezakegu, 1870eko urtarrilaren 14an, soilik hiru urte beranduago, Vicente Val y Valgañonen hartzekodun Vicente Gonzalez Ortizek albazea izendatu zituela Jose Antonio Jauregui eta Jose Maria Mendia. Urte haietan, ordiziar haiek, Lehen Auzialdiko Epailearen eskutik Vicente Val y Valgañonen ondasunen aurkako egikaritze-auto bat erdietsi zuten, jabe horri jabetzak enbargatu zizkietelako.

Baina, nor bizi zen Bistalegre etxe txikiaren azpian kokatuta zegoen izen bereko etxebizitza-etxean? Ikus dezagun lehenengo, 1867an nor bizi zen Bistalegren, izan ere, Beasain-Donostia trenbide-zatia inauguratu eta lau urte baino igaro ez zirela, jadanik 13 familia eta 45 pertsona bizi ziren bertan; ikus dezagun zeintzuk ziren:

Bizilagunen zerrendan, lehenik eta behin, Vicente Val y Valgañon (izen bera zuen aurreko etxe txikiaren jabe enbargatua) eta haren emazte Martina Arregui (1867an artean hil ez zena) agertzen dira haien seme Jose eta Jesus Val Arreguirekin batera; gero ageri dira Jose Gros eta Joaquina Oyarbide senar-emazteak, haien biloba Francisca Larrea eta apopilo modura Francisco Zabaleta eta Latorre abizeneko gizon bat; ondoren, Ramon Suarez eta Francisca Justos senar-emazteak eta haien seme Jesus, Antonio eta Enrique; ostean, Florencio Ernares eta Francisca Alvarez senar-emazteak, haien alaba Isabel Ernares eta emaztearen ama, Bernarda Gonzalez; ondoan, Francisco Orbegozo eta Josefa Arregui senar-emazteak eta haien seme Escolastico eta Ascensio Orbegozo Arregui; gero, Zacarias Gomez eta Manuela Jauregui senar-emazteak haien seme Angel Gomez Jaureguirekin; ondotik, Antonio Suarez eta Antonia Garcia senar-emazteak eta haien alaba Rosa Suarez Garcia; jarraian, Juan Bengoechea Lecuona eta Dolores Lecuona senar-emazteak haien seme Jose Maria Bengoechea Lecuonarekin; Francisco Pelaez eta Evarista Navarro senar-emazteak; Jose Abasoloeta Josefa Celaberria senar-emazteak haien biloba Jacinto eta Joaquín Abasolorekin; eta, azkenik, Pedro Varela eta Micaela Apalategui senar-emazteak haien alaba Francisca Varela Apalateguirekin.

Trenbideko lanak eraginda etorritako abizen horietako zenbait, gerora itzal handiko pertsonak izan ziren, herrian ekimenak proposatu zituztenak.

1867an "Autoentzako errepide" zaharrean egindako 400 metroko desbideratze berri horren (hain justu, Zelaetazar baserritik Urbi baserriraino, arestian esan bezala) ezkerrera kokatutako etxeen kontua argitzen ari garenez, agian orain behar bezala ulertuko dugu zergatik zuen halako forma eta halako dimentsioa geltokiko moila zaharra osatzen zuen "etorbide zabal eta luzeak", hain zuzen, duela soilik 25 urte ateratako 93. argazkian ikus daitekeena.

Trenbidearen planoak aintzat hartuz, leku horri buruz gogoetan ari garelarik, pentsa dezakegu, zamaketarako zonalde zahar horrek itxura eta hedadura hori zuela, neurri batean abandonatutako errepide zaharra 1863an zamaketa-moila modura aprobetxatu zelako, behin guk gaur egun oraindik erabiltzen dugun nahitaezko saihesbidea eraiki ondoren, egun Nafarroa Etorbidea izena duena.

Leku horretan egindakoa (besteak beste, merkantzien biltegi zaharrak eraiki eta aparkatzeko errailak ezartzeaz aparte), agian, galtzada zaharreko tramua merkantziak kargatu eta deskargatzeko zonalde modura egokitu eta zabaltzea baino ez zen izango. Zonalde hori argi marraztuta ageri da 3. planoan, 3b plano-zatian eta 85. argazkian. Neurri handi batean abandonatutako galtzada horretan kokatu zen haren zabalera, kokapena eta trazatua zirela medio; eta, baita haren luzera zela medio ere, izan ere, iparraldeko ertzeko barne-bihurgunea, 85. argazkian gutxi gorabehera marrazten dena, apur bat itxiagoa izango litzateke barne-erradio horretan. Antzinako galtzadaren itxura du, ezta?

Bestalde, 3b plano-zatian T hizkiaren adierazten diren Tapia baserrien ezkerrera ikus dezakegunez, marrazkian "zortasun" hitzarekin bertikalki adierazten den bide hori bat dator pergolen pasealekuaren amaieran, Mikeleteen eraikina (gerora Probintziako Aurrezki Kutxa eta beranduago Liburutegia izan zena) baino lehentxeago, zegoen geltokirako "igarobide zaharrarekin". Hain justu 3. eta 4. eraikinen artean legoke, eta gerora ikusiko dugun estazioari buruzko 103. aireko argazkian 15. zenbakiarekin agertzen den eraikinari lotuta. 103. argazki horretan bi gezi zuriz adierazten dugu guztiok sarritan erabiltzen genuen bidezidor zahar hori, gezi horiek lagungarri zaizkigu haren ibilbidea hobeki ikusteko. Horrela, ziur guztiok hobeto gogoratuko dugula.

ORIA IBAIA ZEHARKATUZ

Beasaingo jurisdikzioan hiru zubi eraiki behar izan ziren Oria ibaiaren gainean eta beste bat Agauntza errekaren gainean beste bat, trena pasa zedin. Jarraian adieraziko ditugun arrazoiengatik, oraingoz, soilik bi aipatuko ditugu, hain zuzen, Igartzatik irtetean dagoen bi begiko tren-zubia eta Zaldizurreta baserri zaharraren inguruan kokatutako lau arkukoa. Azken horretan eraiki ziren alboko bi igarobide txikiak, hain zuzen, errepide zaharretako bide-zorrak errespetatzeko eraiki ziren.

3. sektoreko plano orokorrean erreparatzen badugu, 1862. urtean Oria ibaiaren gainean, Igartzan, eraikitako lehenengo tren-zubiaren eta Zaldizurreta inguruko beste zubiaren artean zegoen benetako distantzia agertzen dela ikus dezakegu trenaren trazatuaren gainean bikain adierazita. Distantzia hori, marrazkian agertzen den eskalaren arabera eta egun dauden kilometro-harrien arabera, 875 metro pasatxokoa zen (eta da), izan ere, orduz geroztik, ibilbide horretan ez da haren luzeran eragina izan duen norabide aldetiko aldaketarik izan. Horregatik, 1862ko plano honetan adierazten den distantzia bat dator bi puntuen artean dagoen tartearekin.

Horri esker, egoki paratu ahal izango ditugu Barrendain zaharra eta Tapia baserri "bikiak" (baserri txikia handiari lotuta zegoen). Bi tren-zubien artean dagoen aldaezinezko distantzia hori, gaur egun ere ibilbidean zehar dauden metalezko zutabeen gainean jarritako seinaleztapen-kartel bidez adierazten da. Horregatik, eta 150 urte igaro badira ere (baita trenbideen kasuan ere), nahikoa erraza da dagoeneko desagertuta dauden Barrendain baserria eta Tapia baserri biak ostera ere zehaztasunez kokatzea, irudizko eran bada ere. Lehenengoa Igartzako maiorazkoaren jabetzakoa zen; Tapia handia Zulaika anaien jabetzakoa zen (horietako hiru bertan bizi ziren artean); azkenik, Tapia txikia, taberna zuena, Miguel Aranbururen jabetzakoa zen 1863an.

Berriz ere 85. eta 87. argazkiak hartuko ditugu eta B eta T hizkiekin adierazten diren baserrien kokapenari egingo diogu so. Modu horretan, geltokiaren inguruko zonalde horietan, urteen poderioz eraikitako urbanizazio eta eraikinen artean kokatu ahal izango ditugu buruz. Gero azalduko dugu nola neur daitekeen orain Oria ibaiaren gaineko bi tren-zubien arteko distantzia hori. Gaur ikusten diren zubi horiek, aurrez esan bezala, 1862an eraikitakoak dira. Eman dezagun azalpena:

Luzetarako norantzan ikus dezakegunez, M. Ladame ingeniariak, 3. sektoreko plano orokorra ma-

rraztean, distantzia horiei buruzko idatzizko erreferentzia argiak utzi zituen, izan ere, ehun metroz behin, Oria ibaiaren gaineko bi tren-zubien arteko luzera markatu zuen eskalan. Ibilbide horrek Oria ibaia moztu egiten zuen (eta mozten du) errukirik gabe bi tren-zubien artean, soka geometriko handi bat bailitzan. Modu horretan, trenbidearen hegoaldera bereizita geratzen ziren trenbideaz beste alde kokatutako lur zabalak, ibaiaren zonalde horretan sortzen ziren hiru meandroekin batera.

Orain, atal honi dagokion 3b plano-zatiko aurreko zatia hartzen badugu, eskalan emanda, trenbidea islatzen duen lerroaren gainean 2, 3, 4, 5 eta 6 zenbakiak idatzita daudela ikus daiteke. Aurrez esan dugun bezala, hain zuzen, lerro hori da Oriaren gainean eraikitako bi zubien artean zegoen (eta dagoen) distantzia adierazten duena. Eta lehen aipatu dugun moduan, ibaiaren gainean, Igartzan, paratutako tren-zubiaren eta Zaldizurretako tren-zubiaren arteko distantzia 875 metrokoa da.

Berriz ere 3b plano-zati horri jarraituz, Barrendain baserri zaharra, horrenbestez, Igartzako tren-zubitik 300 metrora kokatzen zela ikus daiteke; Tapia baserriak urrunxeago zeuden, 400 metro ingurura, izan ere, kasu honetan, Igartzan eraikitako tren-zubiaren bigarren arkua pasa ondoren jasotako lehen zutabetik aurrera hasten da planoaren egilea eskalako zenbakikuntza adierazten eta, baita Beasaingo norabidean dagoen zubiko azken begia neurtzen ere. Horrenbestez, hemendik aurrera, gune hori Zero-puntu edo hastapen-puntu izendatuko dugu. Hori guztiori, ederki ikusten da 3. sektoreko plano orokorrean, batez ere, Zero-puntuaren hasiera hori, ez zubiaren amaieran, baizik eta apur bat geroago (30 metrora gutxi gorabehera). Distantzia hori zehaztasun osoz eman daiteke, izan ere, planoa eskalan dago.

Igartzan eraikitako tren-zubi horretaz oroitzeko, ezinbestekoa da aurreko sektoreko 59. argazkiari berriro erreparatzea, izan ere, goiko aldean, ezkerrera, zubi horiek ikus daitezke. Horietako bat, 1955ean egindako ingurubide-errepide berriari dagokiona da; bestea da guri interesatzen zaiguna, izan ere, trenbidea paratzeko eraiki zen 1860-1863 bitartean.

3a plano-zati horretan, era berean, Autoentzako errepide zaharreko desbideratzea Barrendain baserri zaharra kokatu zen lekuan abiatu zela ikus dezakegu. Baserri hori, gutxi gorabehera, 1863. urtean eraitsi zen eta mende bat beranduago haren kokapena adierazi dugu 85. eta 87. argazkietan, hurrenez hurren. Antzinako kokapena zehazteko, bada erreferentzia zehatz bat, hain zuzen, Z hizkiarekin izendatu dugun bidean, egun Zelaeta kaleko zeharkako kalezuloa izango litzatekeen horretan (hain justu, Fremap parean dagoena, Nafarroa etorbidea eta Oriamendi ukitzen dituena). Ederki ikus daiteke Barrendain baserri zaharra luzetara kokatuko litzatekeela kalezulo horretatik behera abituz, 50 metro baino gutxiagora, izan ere, ongi neurtu eta aldera dezakegu, plano horretan ibilbidearen distantziei dagozkien kotak ezarztean adierazita agertzen diren 100 metro x 100 eskala txikiekin.

Baserriak trenbidearekiko zuen zeharkako kokapenari dagokionez, gaur egun, Fremap baino apur bat beherago dauden etxeetako garajeetara sartzeko eskailera-sarbide horren parean kokatuko litzateke gutxi gorabehera, baina kalearen atzealdean, trenbidearen albotik eta ibilbidearen paraleloan luzatzen den "Trenbide kalea" izendatu den autoentzako bide berriaren erdian. Ikus 3a plano-zatia marraztu zuen ingeniariak kalezulo hori luzetara kokatzen duela, hain justu, eskalan marrazten diren 2 eta 3 zenbakien artean. Zenbaki horiek, aldi berean, Igartzan eraikitako zubiko azken arkuaren irteeratik dauden berrehun eta hirurehun metroak adierazten dituzte (adi, zubiaren eta trenbideko metalezko lehen zutabearen artean dauden 30 metroak gaineratu behar dira, 3. sektoreko planoaren egileak hastapen gisa hura adierazten baitu).

Gaur egungo trenbide-seinaleztapenean, 100 metroko distantzia errailen alboan kokatutako metalezko hiru zutabe ipinita kalkulatzen da modu zehatz eta orokortuan, izan ere, seinaleztapen-karteletako lehen hiru zenbakiek Madrilen kokatutako **ZERO-puntu OROKOR**retik zenbat kilometro igaro diren adierazten dute. Kartel horiek metalezko hiru zutabez behin kokatzen dira eta, lehenik eta behin, kilometroak adierazteko hiru zifra horiek agertzen dira; beranduago 1 eta 9 arteko zifra bat paratzen da, ehunekoak adieraziz; eta, ondoren, zenbaki txikiago batzuk, metroak adierazteko. Modu horretan, Estatuko **ZERO-puntu OROKOR**rarekiko dagoen distantzia zehatza jakin dezakegu kilometro, hektometro, dekametro eta metrotan adierazita. Puntu hori Madrileko Pio Printzearen Geltoki zaharraren barruan kokatu zen bere garaian.

Metalezko zutabeak zenbatuta neurketa bera egin daiteke gutxi gorabehera, izan ere, hiru zutabe 100 metroko distantziaren baliokide dira eta, horrenbestez, elkarren arteko distantzia 33,3 metrokoa da teorian. Banaka hartuta, zenbaitetan metro inguruko nahasmendua izaten da, linearen zailtasunak direla eta, baina karteldun zutabean agertzen den irakurketa zuzen dago. Hori guztiori hobeki ulertu ahal izango da Beasaingo jurisdikzioaren barruan dauden metalezko zutabetan zintzilikatutako kartel horietan idatzita agertzen diren zenbakiei so. Zenbaki horiek, ziur aski, aurrez askotan ikusi ahal izango zenituen (guk bezalaxe) haien esanahi zehatza jakin gabe.

Guztia hobeto ulertze aldera, kontuan izan behar dugu trenbidea ez dela lerro zuzen bat. Madrildik abiatzen den ibilbidea, beti Avila, Valladolid, Burgos eta beste hainbat gune zeharkatuz luzatzen da. Hori dela eta, ez da harritzekoa Madrildik Beasaina 580 kilometro egotea. Antzina, Madrileko Puerta del Sol ezagunean N-1 errepideko Zero-puntua kokatzen zen bezala, Madrileko Pio Printzearen Geltokian ere Irunera bidean luzatzen zen trenbide zaharreko ZERO-puntua kokatzen zen.

Barrendain baserrira itzulita, errepide zaharraren desbideratzea eraikinaren parean luzetara abiatzen bazen, eta erakin hura, planoaren arabera, antzeko distantziakidetasunean kokatzen bada "Autoentzako errepide" zaharrarekiko eta trenbidearekiko zeharka paratuta, orduan, Barrendain baserri zaharra ere nahikoa zehaztasunez koka dezakegu, trenbidearekiko perpendikularrean. Izurra izurtzen hasita, are zehaztasun gehiagoz adieraz dezakegu haren zeharkako kokapena, 1863. urtearen erdialdera zerbitzua eman zuen lehen erraila bidaiarien terminaleko eraikinerantz dagoena dela jakin ostean. Horrenbestez, urte haietan baserria **egungo geltokiaren eraikinetik gertuen dagoen errailaren (Donostiarako norabidean dagoen andena) eta Autoen Errepide Nagusi zaharraren artean egongo litzateke, bien erdian.** Errepide nagusi horrek puntu horretan hasi zuen saihesbiderako atzeraemangunea.

Sektore orokorrari dagokion 3 zenbakidun planoan eta 3a plano-zatian xehetasun osoz ikus daiteke, izan ere, ederki antzematen da non gauzatu zen errepide horretako aldaketa. Gau egun, inguruko etxebizitzetako bateko pisu batetik, altuera pixka bat hartuta, begira jartzen bagara, oraindik hasierako eta amaierako puntuak ikus daitezke eta, baita galtzada zahar horretan egindako 400 metro inguruko desbideratzearen hasiera eta amaiera ere.

Geltokiko bigarren errail edo hegoaldeko andena (Zumarragako norabidean dagoena) ez zen 1991. urtera arte gaitu nolabaiteko maiztasunez, hots, ia berrogeita hamar urte beranduago. Ordutik, etengabe ibiltzen dira trenak batetik bestera, Ingalaterrako estilora, hau da, beti ibilbidearen ezkerraldetik. Ziur inoiz galdetu diozula zure buruari zergatik ibiltzen diren trenak beti trenbidearen ezkerraldetik.

Orain zerbait gehiago dakigu Tapia baserri bikien (handia eta txikia) benetako kokapenari buruz (taberna eraikin txikian kokatu zen, zeina baserri handiaren luzapena baitzen). Halaber, badakigu Barrendain berria errepide berriaren ertzean berreraiki zela, **baina ibilbide zaharra aldatu ostean**, 85. eta 87. argazkietan ikus daitekeenez.

Jakina denez, etxetzar berri hori egun Garmendia Otaola deritzon kalea hasten den puntuan kokatu zen 1972. urtean eraitsi zuten arte, hain justu, 94. argazkian ikus daitekeen geltokiko plaza txikiaren aurrean. Trenaren konpetentzia izugarria bazen ere, Barrendain baserriak Postetxe eginkizunak bete zituen mende erdia baino gehiagoan, ia 1920ko hamarkadara arte. Orduan kamioiak eta bidaiarientzako motordun autoak ugaldu ziren Gipuzkoan, horietako asko amaitu berri zen lehen mundu-gerratik ekarriak.

Aurrez diligentziak birmoldatu egiten ziren trena irits ezin zitekeen lekuetara heltzeko. Autoentzako motorra iritsi zenean, ordea, hori ere amaitu egin zen. Animaliak bultzatutako ibilgailu guztien amaiera iritsi zen, merkataritzarako ibilgailu modura. Era berean, Barrendain baserriaren Postetxe eginkizun zaharra desagertu egin zen.

95. argazkian Segurako Imaz autobus-enpresaren lehen ibilgailuetako bat ikus daiteke, hain zuzen, Beasain-Segura-Zegama ibilbidea egin zuena geltokiko plaza txiki horretatik abiatuta. Halaxe esan zigun Manuel Imazek Segurako bere etxean 1999ko udaberrian.

ZONALDE HONETAKO MENDIETARAKO BIDEAK

3b plano-zatia berriro hartuz, Z hizkiarekin adierazitako bidea ikus daitekeen lekuan, Barrendain berria marrazkian C hizkiarekin adierazitako beste bidearen alboan dagoela ikus dezakegu. Bigarren bide horrek S hizkiarekin adierazitako Sorobilletas bidearekin bat

egiten du eskuinaldetik; eta ezkerraldetik eta, gorantz, aurrez Z hizkiaz adierazi dugun bidexkarekin. Bidexka horrek Zelaetazar baserritik abiatu eta ezkerraldetik Nekola baserrirantz jarraitzen zuen, aldez aurretik, Zelaetaberri, Zelaetatxiki edo Zelaetaetxeberria (hiru modutara idatzita ikus daiteke) zeharkatu ondoren.

Denboraren poderioz, Z hizkiarekin adierazitako errepide hori izango zen Fausto Perez de Lazarragaren garaje zaharraren aldamenean kokatutako "kalezulo" estuarekin bat egiten zuena. Kalezulo hori, gaur egun, Zelaeta kale izendatzen da, 82. argazkian, Zelaetazar baserriari dagokion atalean ikusi ahal izan dugunez.

Gogoratzen duguna eta irudi eta plano ezberdinetan ikusitakoa aintzat hartuz, C hizkiarekin adierazitako bide horrek Barrendain etxe berriaren eskuinaldean zegoen igarobidearekin bat egiten zuen (baserri hori Xerbera ere izendatzen zen, bertan bizi zen familia bati aipamena eginez). Igarobide zahar hori, azkenik, ate batekin itxi eta ahanzturan murgildu zen. Errepide horretatik abiatuz, ere berean, antzina, goitik, Sorobilletasetik, Nekola eta Zelaetaberri baserrietarantz abiatzen ziren bideak urratzen ziren. Hori, 92. argazkian eta 3. sektoreari dagokion plano orokor honetan ikus daiteke. Airetik ateratako argazki hori desitxuratu antzean dago, ikuspegi nabarmenak eraginda.

Ziur aski, Barrendain baserri berria errepidearen alboan eraiki zelako, Igartza etxe handia errepide horren "hegala" hartuz kokatu zen eta eraikuntzaren zati handi bat bidexkaren gainean eraikitako pasabide baten gainean paratu zen. Pasabide hori, agian, errepidean zegoen bide-zor zaharra mantentzeko asmoz eraikiko zen, "birtualki" bazen ere. Orain, erreparatu 96. argazkian gezi zuri batekin adierazita dagoen bidexka zaharrean, 3b plano-zatian C hizkiarekin ikus daitekeena, zeina, ordutik aurrera, Barrendain etxe horren eskuinera zegoen hegalaren azpitik igaroko zen.

Antzeko zerbait gertatu zen berrogeita hamar urte geroago, 1913. urtean gutxi gorabehera, Sorobilletas pasabidearekin Andre Mari kaleko Aranezarra etxean. Hori beranduago azalduko dugu, 4. sektorearen barnean, herriguneari dagokion atalean. Herrigunean, Bideburu izeneko lurretarako sarbidea eraikinaren azpiko antzeko tunel batetik egiten zen. Tunel horrek Sorobilletas edo Ubiako xendra izendatzen zen bidezorra zeharkatzen zuen, orduan, Andre Mari kalearen 11. zenbakiko etxebizitza-etxeen azpitik.

Hemen eta orain aipatzen dugu hori, S hizkiarekin adierazi dugun bidea, hain zuzen, Sorobilletas edo Ubiako xendra bidearen kale-ahoa delako. Bide hori Andre Mari kalean abiatzen zen eta XX. mendearen erdialdera Irizar-Zaballos familien "Majonea" etxearen eta Gabriel Murguiondoren (orduan defuntuentzat egiten zituen "egurrezko jantzien neurriak hain ongi hartzen zituen" artisau-zurgina) etxearen artera irteten zen.

97. argazki honetan, "Autoen Errepide Nagusi" zaharrerako saihesbidea egin ostean, Sorobilletas bide horren lotura non gauzatzen zen ikus daiteke. Orobat, beste gezi batekin eta S hizkiarekin adierazten dugu errepide horren amaiera. 1862ko 3. sektoreko plano orokorrean, M. Ladame ingeniariak berariaz eten zuen J hizkiarekin adierazten dugun bidexka hori. Etena, Errepidera irten aurretik gauzatu zuen, hain zuzen, guk S hizkiarekin adierazi dugun puntuan.

Nolanahi ere, XVIII. mendearen bigarren erdialdean Ibero arkitektoak egindako planoari erreparatuz, bidexka horren ibilbide osoa ikus daiteke, "Autoen Errepide Nagusi" zaharrarekin bat egiten duen arte. Aitortu beharra dago, egun ikus daitekeenez, "aurrerabideak" pixkanaka zeharkako bide guztiak irentsi dituela, Barrendain etxeko C bide "erdi estalia" (96. argazkiak ikusten dena) eta Nafarroa etorbidetik Oriamendi kalerantz hartzeko Z zeharkako bidea (82. argazkian ikusten dena) salbuetsita. Azkenik, Barrendain baserriaren zonaldean, eraiki hori eraitsi zenean, etorbide handi bat zabaldu zen goiko aldean dagoen Foru kalerantz.

Sorobilletas edo Ubiako xendra bideari ez zitzaion asfaltatutako galtzada bihurtzeko aukera ere eman. Aitzitik, leku horretan, bazter guztietan altxatutako eraikinetako adreilu eta zementuak "xurgatu" zuen hura, arrastorik utzi gabe, ahanzturaren amildegian murgilduta.



BASAKAITZ PAREAN KOKATUTAKO MEANDROAK

Geltokiari dagokion atalean xehetasun gehiagoz ikusi eta azalduko dugun arren, egoki deritzogu 3. sektoreko plano orokor horretan ikus daitekeen beste bide bat aipatzea, Tapia baserri bikien ezkerrera dagoena (ibaiaren zonaldetik beha), non, bertikalki eta garden "zortasun" hitza irakur daitekeen.

Bide-zor batez hornitutako bidexka zabal bat da, "Autoentzako errepide" zaharretik Tapia baserrietarantz egiten zuena eta handik, zuzenean, Oria ibaiaren ertzeraino jaisten zena, hain justu, Basakaitz parera (geltokiari dagokion atalean ibilbide osoa ikusiko dugu). Ikus orain 3c plano-zatia, Tapia baserriak eta bide-zor horrek ibairantz hartzen zuen norabidea ikusteko handitu dena. Ibaia M hizkiarekin adierazi dugu.

Oraingoz, 3c plano-zati hori alde batera utziko dugu, izan ere, geltokiaren eraikin zaharra kokatu zeneko orubea (berria ere hortxe kokatu zen) zuriz markatuta adierazten da eta hori baliagarri zaigu erreferentzia modura, goiko C bide hori eta Tapia baserrietako bidexka zehaztasunez lekutzeko.

Bidexka hori Tapia baserrietatik behera abiatzen zen ibairantz eta, azkenik, kale Nagusitik abiatzen zen beste errepide batekin bat egiten zuen. Hala, ibaiaren aldamenetik luzatzen zen, tren-zubi berriaren oinezkoentzako tunel txikia igaro ondoren. Zaldizurreta baserriaren beste aldetik, Oria ibaiaren ertzetik luzatzen zen, Tapia baserrietatik jaisten zen beste bidearekin batu arte. 3. plano orokorrean O hizkiarekin adierazi ditugu ibilbide zaharraren hasiera eta amaiera.

1859an Zaldizurretako zubia Oria ibaiaren gainean eraiki zenean, trenbideko langileek bide-zor horiek errespetatu beste erremediorik ez zuten izan, izan ere, herritarrak bide horietatik sartzen ziren orduan trenbidearen hegoaldeko zonalde horretan zituzten laborantza-lurretara. Hain zuzen, horregatik eraiki zituzten Oria ibaiaren gaineko zubi eder horren aldeetan, trenbidearen azpialdetik, oinezkoentzako bi pasabide estu, 4 metroko zabalera zutenak.

Askoz ere beranduago "La Calleja" izenez ezagutu zen errepide zaharraz ari gara. Bide hori, hastapenean, Bernedo enpresa ezarri zenean, fabrika horretara sartzeko bide gisa ere erabilia izan zen ia berrogeita hamar urtez, 1967an fabrikak ateak behin-betikoz itxi zituen arte. 98. argazkian errepide garrantzitsu horien ibilbidea ikus daiteke, hasiera-hasieratik.

Argazki horretan, orduan Bernedo Echeverria y Elorza izena zuen fabrika Oria ibaiaren iparraldeko ertzean kokatu zenean (1920), ibaiaren aldamenean, bide zahar horretan egindako aldaketa ikus daiteke berdez trazatuta. Gorriz trazatuta ageri da bide zaharrak ibaiaren ertzetik zehar egiten zuen ibilbidea, Tapia baserrietatik (handia eta txikia) bertikalki jaisten zen bidearekin batu arte, 3. sektoreko plano orokorrean ere trazatuta ikusten dugunez. Lerro zuri batekin adierazten da Zuntzunegi mendietarantz luzatzen zen beste errepidea, zeina Zaldizurretako zonaldean, era berean, trenbidearen azpiko oinezkoentzako beste tunel txikitik igarotzen zen (tunel hori 1990ean aldatu egin zen, autoak autobiarantz eramateko obrak zirela-eta), mendietarantz.

Orobat, ibaiaren ertzean lur-mugimendu handiak ikus daitezke TTT hizkiekin adierazten direnak, eta 1952-1955 bitartean ingurubide-errepide berria egiteko gauzatu zen lur-erauzketaren ondorioz, kendutako lurrei dagozkienak.

Irudia ikusita, orain ongi irudika dezakegu nola iristen ziren mendiko malda horiek Oria ertzeraino errepide berria egiteko "mozketa" sakon hori gauzatu zuten arte. Errepide berri horrek, aldi berean, Zaldizurretan abiatzen zen bide zaharra (98. argazkian kolore zuriz adierazten dena) ere erditik moztu zuen.

Bitxia da 98a argazki hori beste angelu batetik ikustea, non Oria ibaiaren gainean eraikitako zubiaren aldeetako tunel txikietatik zehar egiten zuten ibilbidea ikus daitekeen. Errepide horiek, 98. argazkian kolore gorriz eta zuriz adierazten dira.

98b argazkian, era berean, Bernedo fabrika ezarri zenean errepide zaharrean egindako desbideratzea ikus daiteke, beste angelu batetik; izan ere, 1920an bide hori desbideratu egin behar izan zuten, gerora, trenbidearen paraleloan luza zedin. Orain puntu berde handiz adierazten den ibilbide hau, 98. argazkian kolore bera erabiliz marrazten den ibilbidea litzateke.

Tapia baserrietara itzuliz, 1863an trenbidea eraiki zen arte, errepidearen zonalde jakin horretan zegoen benta-taberna bakarra Tapia baserrietakoa bazen, ez da



neurriz kanpokoa pentsatzea hartako bezeroek ere guk 3. sektoreko plano orokorrean eta 3b eta 3c plano-zatietan M hizkiarekin adierazitako bidea erabili zutela, beste gauza batzuen artean, haien zaldiak Oria ibaiaren ertzera hurbiltze aldera, handik edan zezaten.

Tapia baserri horietan, apika, bideak hor hartzen zuen atsedena hornitzea zen eguneroko eginkizuna, berez zegozkion laborantza-lanez gain, baserri ondoan kokatutako laborantza-lur bikainetatik eratorriak. Bide batez, aipagarria da urte haietan Oria ibaian eta zonalde horretan zeuden meandro ederrak ikusgarriak izango zirela, basatiak, gardenak, bi ertzetan landarez beteak eta ibilgu arras garden batekin leku pribilegiatu hori luzatzen den ia bostehun metroetan zehar.

Aurretiaz esan dugunez, gerora trenbidea egiteko Tapia baserriak (handia eta txikia) eraitsi zirenean, Manuel Jose Ibarbia Goenagak Loinazko San Martin basilikari atxikitako etxean "santu-egile" lanak egin zituen; horrela hasi zen Ibarbia familiako santu-egileen lau belaunaldietako lehena, zeintzuk 1955eko azaroaren 3ra arte, ia mende batez, mantendu zuten eginkizun hori etenik gabe; orduan, Manuel Zaldua Urkiolak hartu zuen eginkizun hori eta 1972. urtera arte aritu zen lan horretan, Loinazko San Martin basilika frantziskotarrek hartu zuten arte.

Hauek ziren XIX. mendearen erdialdera bi baserri horietan bizi ziren pertsonak:

Tapia handian bizi ziren Ramon de Leunda, Ramona Aranburu, Jose Antonio Zulaica, Maria Miguel Aldasoro, Jose Francisco Zulaica, Angel Maria Zulaica (gero Zelaetatxiki baserrian biziko zena), Jose Manuel Ibarbia, Francisca Ignacia Albisu, Jose Manuel Ibarbia (semea), Mariana Anaia eta Miguel Oñatibia.

Tapia txikian bizi ziren Juan Jose Larrañaga, Josefa Teresa Ibarguren, Martin Jose Aranburu, Juana Larrañaga, Maria Josefa Larrañaga, Maria Antonia Larrañaga eta Teresa Larrañaga.

Tapia baserriak (handia eta txikia izendatzen zirenak, azalerari eta antzinatasunari zegokionez ezberdinak izateagatik) trenbidearen eraginpeko eremuan lekutzen zirenez, desagerrarazi egin ziren halabeharrez. Tapia handia eta hartako lurrak, Zulaika anaien jabetzak, Trenbidearen Konpainiak erosi zituen 26.355 beloi-erreal ordainduta. Tapia txikia eta hartako taberna ere, orduan Miguel Aranbururen jabetzak zirenak, erosle berdinak bereganatu zituen 3.390 beloi-erreal ordainduta.

Airetik ateratako 99. argazkian Nekola baserriko zonaldetik Andraiturri edo Andramendi eraikinerantz igotzen zen bideari erreparatuz, geltokiaren zonalde horretan, eskuinera, bide eta bidexka ugari ikusten dira, baserri ezberdinetako laborantza-lurrak elkarlotzekoak. Era berean, basobera eta tantaidiak ikus daitezke, armiarma-sarea bailiran. Gaur egun, hala ere, horietako gehienak iraganezinak dira eta, asko desagertuta daude.

99. argazkian agertzen diren bidexken artean, Pilar Arratibel eta Paulino Aramburuk "bideerrota" izendatzen zen bidea erakutsi didate. Bide horrek haien baserritik jaitsiz, mendi-mazelatik behera egiten zuen pixkanaka, argazki horietan ikus dezakegunez, hain justu, Igartzako errotaren parera iritsi arte (ikus 100. argazkian puntu zuriz markatutako ibilbide horrek, Arizmendi baserritik behera nola egiten zuen, aipatu senaremazteek adierazi bezala).

Bide horren lehen zatia beranduago ere ikusiko dugu, Beasaingo herriguneari dagokion 4. sektorean. Plano horretan Arizmendi baserria islatzen da, orduan Abariako maiorazkoaren jabetzakoa zena.

Orain, Igartzako zonaldearen eta Beasaingo herrigunearen artean zegoen tartea oroitu ostean, ikus dezakegu 1862an, aurrez aipatu dugun Igartzari buruzko 2. sektorearen eta aurrerago aipatuko dugun "herrigune-

ari" buruzko 4. sektorearen artean, hots, "Igartzako Errepublika Independentearen" eta herrigunearen artean luzatzen zen ia 2 kilometroko ibilbidean dozena bat eraiki soilik zeudela errepidearen bi aldeetara.

Irudiak baliatuz dagoeneko ez dauden eraikin zaharrak oroitzen jarraituko dugu eta, aldi berean, haietako laborantza-lurrak, belardiak, mendiak, otalurrak eta eremuak aipatuko ditugu. "Autoentzako errepide" zahar hura aldatu zenean, Zelaetazar baserritik Ubia edo Urbi baserrira bitartean luzatzen zen errepide berriaren ibilbideko iparraldeko ertzean etxebizitza-etxeak eraiki ziren pixkanaka. Horren ondorioz, etorbide berri bat zabaldu behar izan zen, egun "Geltokiko pasealekua" izenarekin ezagutzen duguna.

Zabalgune horretan zuhaiztia landatu ostean, artean pergoletako zonaldean geltokiko zamaketa-moilaren eta paseo berriaren arteko bereizketa egiteko xedez paretak eta hesiak eraiki aurretik, trenbidetik hurbil zeuden baratzetara eta Bernedoeneara sar zitekeen hainbat bide hartuta trenbidea igarota, 101. argazkiak ikus daitekeenez. 1928an "Geltokiko Zabalgune" izendatutakoaren lehen fasea amaitutzat eman zen, inolako zalantzarik gabe, beasaindarrek ia mende batez paseatzeko gehien erabili duten zonaldea. 1930eko hamarkadan ateratako 101. argazkian bide horietako bat ikus daiteke lehen planoan, hain zuzen, "La Calleja" izeneko zonaldetik trenbidearen eta geltokiaren beste aldean zeuden baratzetara luzatzen zena.

Argazki horri apur bat erreparatzen badiogu, ikus daiteke nola, beste eraikin batzuen artean, jadanik Irizar-Zaballos familien "Majoenea" etxea eta Gabriel Murguiondo zurginaren etxea eraikita zeuden. Biak errepidearen alboan eraiki ziren eta 1975ean eraitsi. Argazkiaren eskuinean Urbi edo Ubia baserria ikus daiteke, eraiki zenetik eraitsi zen arte (hau ere 1975eab) Lazkaoko Infanterriaren jabetzakoa izan zena. Argazkiaren erdialdera, ia geltokiko zamaketa-moilaren barruan, garai hartan "La casita de la Carola" edo trenbideko langileen "geraleku edo fonda" izenarekin ezagutzen zen eraikina ikus daiteke, 1945ean eraitsi zena.

Bere garaian Cesareo Ugartek esan zigunez, etxe horretako sotoan kirol-elkarte bat paratu zen, Trenbidearen konpainiako elkartearekin zerikusik ez zuena. Trenbidearen elkarte hura, hain zuzen, kirol elkartearen parean kokatzen zen, errepidearen beste aldean.

XX. mendearen lehen erdialdean, "La Calleja" izeneko zonalde horretatik geltokiko moilara sar zitekeen Periko Gorrotxategiren (A), "El albarquero" ezizenez ezagutzen zen Jauregiren (B), eta "El hojalatero" ezizenez ezagutzen zen Ayestaranen etxeen (C) eta orduan "moderno" izenez ezagutzen zen eraikinaren (D) atzealdetik, hain justu, 102. argazkian trenbidearen alboko pabilioia hartzen duen lurretatik. Iguain eraikitzaileak Ayestaran familiaren orube baten gainean eraikitako D eraikin "berri" horretan (2009an eraitsi zena), gerora, Agirre taberna ireki zen. 1961ean ateratako 102. argazkian haren teilatu eta atzealdeko lurrak ikus daitezke. Gaur egun, gutxi gorabehera, Kale Nagusiko 34, 36, 38 eta 40 zenbakidun eraikinek zapaltzen dituzten orubeak egongo lirateke bertan. Halaber, "La Calleja" errepide zaharra gezi txuri batez markatzen dugu.

Argazki horretako goialdean ikus daitezkeen etxetxo guztiak, Kale Nagusitik barrena aipatu bide horretatik jaitsiz eskuinera lekutzen direnak, eraitsi egin ziren 1989tik aurrera. Gehienak, XX. mende hasierako eraikuntzak ziren. Horiek airetik ateratako 102a argazkian ere ikus daitezke, beste ikuspegi batetik. "Calleja" delakoan kokatutako etxetxo eta lokaletan herrian oso ezagun eta ospetsuak izan ziren pertsonak bizi eta lan egin zuten, besteak beste, Leon Lasaren familia, Herrera sendia, Jose Begiristain apaiza, Jose Agirre "Errege txiki" eta Segundo Garcia "El Saquero". (Azken horrek bere negozioa soto horietako batean zeukan). Halaber, 1925etik aurrera soto horietako batean "Nekazarien Sindikatua" lekutu zen.

Atzean agertzen den eraikina, 102a argazkian puntu zuri batez adierazten duguna, "Las Casas Quemadas" izen plurala hartzen duen eraikina da (erretako pisuak gogoratu nahirik), izan ere, gerra zibilean zehar suak hartu zuen Olaberritik jaurtitako obus batek jota. 1940ko hamarkadaren amaierara arte eraikin hori erortzeko zorian izan zen. Orduan eraitsi zen behin-betikoz Beasaingo azken gurdizain Martin Etxezarretaren zaldiaren laguntzarekin. Eraikin horrek Bideluze eta Iturriotz kaleetan oraindik zutik dauden etxe zaharren eraikuntza-mota bera zuela ikus daiteke argi eta garbi.

1862. urteko 3. sektoreko plano orokorrean ikus daitekeenez, Beasaingo herrigunea, mendebaldera, Kotxera izendatzen zen eraikinaren parean amaitzen zen. Aipatu eraikinak bere izenak adierazten duen funtzioa betetzen zuen alboan zuen "Mendiaenea" etxearentzat. Aipagai dugun eraikin-motari buruz zertxobait gehiago jakite aldera, zera esan dezakegu, zenbait idatzitan mespretxuz aipatzen dutela: "pequeña casuca habitada llamada Kotxera". Haren eraikuntza apala, apika, ez zen oso ezberdina izango 4. sektorean deskribatuko ditugun beste hiru kotxe-tokien (hauetan inor ez zen bizi) aldean. Beste hiru horiek ere Kale Nagusian zeuden, baina Etxaluze etxe zaharraren parean (gaur egun, 8. zenbakian lekutzen den ataridun etxebizitza-etxearen orubea).

XIX. mendearen amaiera aldera Kantoikoa etxe zaharrak hartu zuen Kotxera etxe horren lekua. Bigarren hura 102b argazkian ikus daiteke trenbidetik beha eta beheko solairua eta lehen solairua baino ez zituen. 1912an saldu zuten Mendia Garin anaiek Kotxera izendatzen zen lehen etxe hura. Juan Cruz Elicegi eta Miguel Ayestaran izan ziren erosleak. Agustin Mendia eta Benita Mendiak, ia sei urte beranduago, etxe hori Miguel Ayestarani erosi zioten ostera ere, modu horretan, 1920. urtearen bueltan, hiru solairu zituen Kantoikoa etxe berria ("Las Barras Doradas") jadanik eraikita zegoen, 102c argazkian ikus daitekeenez. Etxe berriaren ataurrean agertzen diren bi andreak, hain zuzen, Eladia Ayestaran eta Benita Mendia dira, bigarren hori



1897an jaioa; haren jaiotza-data aipagarri deritzogu, izan ere, andre hori 1999. urtean hil zen Beasainen, 103 urte betetzear zela.

3. sektoreko plano orokorrean eta 3d plano-zatian I hizkiarekin erakutsi nahi dena, hain justu, Kotxera etxe zaharra da. Orobat, plano horretan "La Calleja" bidea oso ongi marraztuta ageri da, zeina O hizkiarekin adierazten den.

TRENBIDEAREN SORRERA

Gipuzkoan kostu handiak egin eta zailtasun handiak izan ziren trenbidea eraikitzeko. Hori dela eta, probintzia horretan XIX. mendeko inbertsio handi gisa oroitzen da, beste probintzietan baino arras gehiago. Adituen arabera, inflexio-puntu bat izan zen, bizimodu nekazal eta, agian, zaharkitu batetik, jite industriala zuen gizarte-mota berri baterako jauzia.

Frantziarekin lotura egiteko trenbidea Alduitetik (Nafarroako Pirinioak) igarotzeko aukera alde batera utzi eta Gipuzkoako ibilbidearen alde egin zen. Hautu horrek hainbeste promesten zen industria-gizarte horren alde egitea eragin zuen Gipuzkoaren kasuan eta, baita, garraiobide iraultzaile horren alde egin zuten gainerako herrien kasuan ere. Nolanahi ere, gure zonaldean teknikariak hainbat erabaki hartu behar izan zituzten. Besteak beste, Gaztelarako bidea egiteko Berranoa (Ataun), Lizarrausti, Etxegarate edo Otzaurte arteko aukera egin behar zuten.

Aukera horietako bitan Lazkao tren-geltoki izateko gunetzat hartzen zen, Senperen kokatuta, zehazki esatera, Infanterriko dukearen jabetzakoa zen Betenasagasti edo Beltransagasti baserri zaharraren lurretan. Agauntzako ibar horretan lur zabal eta lauak zeuden eta, hartako azalera eta baldintzak azkenean Beasaingo geltokia ezartzeko aukeratu zen lurren parekoak ziren. Hori dela eta, aukera hori serioski aztertu zen.

Kontuan izan behar da, gainditu beharreko desnibela osoa antzekoa zela kasu guztietan, Berranoako ibilbidea salbuetsita, izan ere, azken horretan 850 metroko desnibela gainditu beharko zen. Ataungo zonalde horren alde eginez gero, teorikoki, zailtasun gehien ageri zituen eta, aldi berean, aldapatsuena zen ibilbidea eraiki beharko zen, izan ere, Senpere-Lazkao eta Ataungo Lizarrausti edo Berranoa mendateen artean zegoen distantzia txikiagoa zen beste ibilbide batzuekiko distantziarekin alderatuta, esate baterako, Beasain-Otzaurte zatiarekin alderatuta.

Alderdi tekniko eta ekonomiko asko behatu ondoren eta, kontuan izanik, 15 milarenekoa zela ibilbideak gehienez har zezakeen pikoa (zenbait gunetan 18 milaren ere bai), Ataungo ibilbidea oso korapilatsua zen. Hori dela eta, azkenik, Otzaurteko zonaldearen aldeko aukera egin zen.

Obren lehen faseari aurre egiteko, hasiera batean, 25 milioi pezeta behar ziren. Diru hori berehala eta irrika handiz sinatu zen Gipuzkoaren kasuan. Horrek argi erakusten du probintziako askoren nahimena. Urte haietan Beasain baino garrantzitsuagoak eta populatuagoak ziren herri batzuk gogo txarrez hartu zuten proiektua, besteak beste, Segurak (1.800 biztanle), Idiazabalek (2.800 biztanle) edota Zegamak. Hori dela eta, Araba eta Gaztelara iristeko, azkenik Pirinioen Gipuzkoako igarobidea hautatu zen, hots, Aizkorri mendikatea eta bertako ingurumaria.

Arrazoi hori zela medio buelta handia egin behar izan zen, Zumarraga, Legazpia, Brinkola eta Otzaurte zerharkatuz, Altsasura iritsi arte. Gipuzkoako ibilbideko geltoki garrantzitsuenen artean hautatu zuten Beasain. Hautu hori, lehenik eta behin, ia 300.000 m²ko azalera zuen erabili gabeko lautada handi horrek eragin zuen; bigarrenik, lehen esan dugun moduan, Gaztelara bidean, isurialdeen banalerrora iristeko trenbidearen malda handia bertan hasten zen.

Horri aurre egiteko lautada handia behar zen, trenbidearen azpiegitura hori hartzeko modukoa: merkantzia-tren luzeak aparkatzeko ibilbidearen parale-

loan paratutako tramuak, karga eta deskargak egiteko bigarren mailako errailak, produktuz betetako biltegiak, lokomotora laguntzaileen aparkalekuak eta haiek konpontzeko nabeak, ibilbidearen mantenu-lanak egiteko lantegiak, etab. Ibilbideko 112. geltoki horretan, itsasoko mailatik 159,2 metrora abiatzen bazen Otzaurtek zituen 688 metro arteko igoera handia, orduan, hor lekutu behar zen trenbide-azpiegitura hori guztiori. Horrek, aldi berean, Otzaurtera arteko igoera lokomotora laguntzaile baten laguntzaz egitea eskatzen zuen, soilik 38 kilometrotan gainditu beharreko 530 metroko desnibela lurrunezko makinaz egin ahal izateko.

Trenbidea Tolosa, Beasain, Zumarraga, Irun eta Legazpitik igarotzen zen, besteak beste. Horrek, denbora gutxian Gipuzkoako inguralde industrializatuenak bilakatu zituen onerako eta txarrerako. Alderdi ekonomikotik so arras onuragarria izan bazen ere, ordainetan bizimodu aldaketa handia eragin zuen; hizkuntzari eta usadioei dagokienez nabaritu zen aldaketa hori gehienbat, izan ere, beste eskualde batzuetatik jende andana iristen zen, jarraian ikusiko dugunez.

Iparraldeko Trenbidearen Konpainiak orduan Beasainen ezarri zuen azpiegitura ezdeusa irudituko litzaiguke egun, baina garai hartarako, bost urteren buruan egin behar izan zituzten obrak oso handiak izan ziren. Gaur egun, zonalde hura 1863an, hau da, Beasain-Donostia trenbideko tramua inauguratu zutenean, ikusi ahal izango bagenu, ziurrenik leku bukoliko eta atsegina irudituko litzaiguke oraindik. Gure arbasoei, ordea, ziur onartzen zaila egingo zitzaiela aldaketa hori, izan ere, soilik bost urteren buruan "ferraren troska moteletik lurrunezko makinaren abiadura bizira igaro ziren".

Kronika zaharretan irakurriz jakin dezakegu jendea, orduan, jaiegunetan ibilbidean zehar egin ziren obra handiei beha egoten zela jakin-minez; zalantzarik gabe, eraikuntza kuttuna Ormaiztegiko zubi itzela zen, 288,75 metroko luzerari eusteko soilik lau zutabe zituena. Modu horretan, trenbidearen ibilbideak eraginda, Gipuzkoa bi zatitan banatuta geratu zen errukirik gabe, garai hartan bertako populazioa zegoen bezala, izan ere, karlista eta liberalen arteko gatazkak konponezina zirudien.

TRENAREN IBILBIDEA UDALERRIAN BARRENA

Egokia da orduan Beasain udalerria zenetik trenbideak egiten zuen ibilbidea deskribatzea, izan ere, geltokia ibilbidearen bihotza izaki, uste dugu hari dagokion atalean islatu behar direla, besteak beste, proiektuari, desjabetutako azalerari eta trenbidearen ibilbidean zehar ageri diren tramu ezberdinei dagozkien datuak. Hitz batean esanda, "burdinbidetik" zehar egindako irudizko bidaia horretan urratutako ibilbidea.

Hasi aurretik, azalpen bat eman behar da, izan ere, Gudugarreta eta Arriaran ez ziren Beasaingo jurisdikzioaren baitakoak izan 1882. eta 1927. urteak iritsi arte, hurrenez hurren. Hori dela eta, hemen ezin ditugu deskribatu, horregatik, haietan ibilbideak hartzen zuen luzera soilik aipatuko dugu.

Halaber, aipagarri da, ondoren Lazkaori dagokion Senpereko zonaldea deskribatuko dugulako, jende askoren belarrietara "astakeria" bada ere, herri horretatik ere trenbidea igarotzen dela, eta halaxe dago marraztuta, aurrerago, 5. sektoreko atalean ikusiko dugunez. Teorikoki, soilik 152 metro igarotzen dira bertatik (dokumentu batzuetan 115 metro ageri dira, beste batzuetan, aldiz, 155 metroko luzera adierazten da), hain justu, Beasaingo Hiltegi zaharreko zonaldean kokatuta dagoen burdinazko zubiaren erditik Beasain eta Lazkaoren arteko mugaraino, hots, Agauntza errekak Oria ibaiarekin bat egiten duen lekuraino.

Ibilbide labur horretan zehar trena Lazkaotik pasatzen da, izan ere, leku horretan bi udalerriak banatzen dituen lerro ikusgaitza, gutxi gorabehera Agauntza eta Oriak bat egiten duten lekuan, Agauntza errekaren erditik luzatzen da mugaren beste aldean dagoen Beasaingo hiltegi zaharrerantz. Hori geroago ikusiko dugu, 5. sektoreari dagokion atalean, Ugartemendi-Senpere zonaldea deskribatzean.

Trenak zeharkatzen dituen jurisdikzio batzuetan ibilbidearen luzerak nahasgarriak dira, izan ere, 1862an herri batzuk artean beste jurisdikzio batzuen baitakoak ziren, esate baterako, Arriaran orduan Ezkioren baitakoa zen. Eta, jakina denez, trenbidearen ibilbidean, bi udalerri horien artean (Beasain eta Ezkio) Ormaiztegiko herria ere kokatzen zen. Hemen arazo burokratiko horiek argitzen saiatuko gara, nahiz eta zenbaitetan irakurtzen ditugun datuak antolatzera mugatuko garen.

Dokumentu horietan irakur daitekeenez, Beasaingo udalerriak egun hartzen duen jurisdikzioaren barruan trenbideak 363.155 m^2ko azalera hartzen du. (Sic) Datu horretan Arriaran-Ormaiztegiko mugatik Arriaran-Gudugarreta mugaraino dagoen azalera sartzen da. Lehenengo muga, orduan, Iturralde txiki baserri zaharrean kokatzen zen eta, bigarrena Angio errota zaharraren parean. Hiru zonalde ezberdin bereizten dira eta, aitzitik, Gudugarretako jurisdikzioa ez da agertzen, hori dela eta, guztien batura egin eta zehaztu egin beharko ditugu.

Berriz ere, irakurleari esan behar diogu, aipatzen ditugun lehen hiru zifrak beti Madrilen kokatutako ZERO-puntutik trenbidean zehar abiatuta dauden kilometroei dagozkiela (ahaztu errepidez dagoen kilometro kopurua, autoen ibilbidea zuzenagoa baita); komaren ostean agertzen den hurrengo zenbakiak metro-ehunekoa adierazten du, hurrengo zenbakiak metro-hamarrekoa, eta, azken zenbakiek, noski, metro-unitateak.

Aipagai dugun lehen zonaldea 576,025 kilometro-harritik 577,275 kilometroa adierazten duenera dagoen tartea da. Horrenbestez, 1.250 metroko luzera da, zehatz-mehatz. Ulertze aldera, esan dezagun aurrez aipatu dugun distantzia dela, tarte hori Arriarango ju-

risdikzio zaharretik burutzen duena, Iturralde txiki baserri zaharretik ("Lapurretxe" izenez gaiztoki izendatua) Gudugarretako herri zaharrean zuen mugarainokoa, hain justu Angio errota zaharraren parean. Itxura batean zonalde hori oso zabala da, izan ere, dokumentuan argi adierazten denez, 225.247 m²ko azalera dauka. (Sic)

Hurrengo zonaldea, aipatzen ez dena baina guk adieraziko duguna (ibilbide osoa etenik gabe irudika dezagun), Gudugarretari dagokiona da, 577,275 kilometro-harritik 577,875 kilometro-harrirainokoa. Beraz, soilik 600 metroko tartea da eta 16.295 m²ko azalera duena, egun, 27,16 metroko batez besteko zabalera desjabetua duena.

Haiek bigarren zonalde gisa aipatzen dutena, noski, Gudugarretako mugatik (577,875 kilometro-harria), 582,100 kilometro-harria dagoen lekurainoko tartea da, hau da, beste 4.225 metro. Haren muga, Lazkaoko jurisdikzioaren sarreran lekutzen da zehazki, Beasaingo hiltegi zaharraren zonaldean. Horrenbestez, lehen aipatu dugun burdinazko zubi horren erdian hasten da trenak Lazkaon barrena egiten duen ibilbidea, izan ere, zonalde horretan Beasain eta Lazkaoren arteko muga teorikoan, Agauntzaren erditik igarotzen da trena. Burdinazko zubi horren erditik hasiko dira Lazkaoko herriaren barrutian zehar trenak egiten dituen ustezko 152 metroak.

Beasain-Gudugarreta muga zaharretik, hau da, 577,875 kilometro-harritik, aurrez aipatu dugun Beasain eta Lazkaoren arteko mugaren hasiera bitartean (gure jurisdikzioaren barnean bigarren zonalde gisa izendatzen duten tartea), 126.248 m²ko azalera kalkulatzen da.

Lazkaoko jurisdikziotik ustezko 152 metroak igaro ostean, trenbidea berriro Beasaingo lurretan sartzen da; hirugarren zonalde hori 582,215 kilometro-harritik 582,670 kilometro-harrira artekoa da, hau da, beste 455 metro, hain justu, Agauntzak Oriarekin bat egiten duen gunetik Lazkaibar auzoa Ordiziako udalerriarekin mugatzen den gunera arte dagoen distantzia. Dokumentu horien arabera, hirugarren zonalde horrek 11.660 m²ko azalera du.

Dagoeneko baten bat ohartuko zenez, hemen akats txiki bat hautematen dugu, azaltzen asmatzen ez duguna, izan ere, halaxe dago idatzita; 582,100 kilometro-harritik 582,215 kilometro-harrira, hots, ustez trenbideak Lazkaoko jurisdikzioaren barruan egiten duen ibilbide horretan, 115 metro besterik ez daude, eta ez aurrez irakurri dugun 152 metroko datua edo, beste dokumentu batzuetan agertzen den 155 metroko datu hori.

Gera bedi, bada, legelarientzat bi mugen arteko arazo hori, hau da, 37 edo 40 metro inguruko nahasmendu hori. Agian, ezberdintasun hori Agauntzak Oria ibaiarekin bat egiten duen puntu zehatza kokatuz argi daiteke. Ikus, bitxikeria modura, 102d argazkian, Galardi muinoan kokatutako mugarria, egungo N-1 errepidearen tunelaren gainean jarrita dauden telefonia mugi-

korren dorreen alboan. Bertan, lerro ikusezin horren norabide bertikala ikusten da, zeina ekialde-mendebalde noranzkoan jaisten den, Beasain eta Lazkaoko jurisdikzioak banatuz, Agauntzak Oriarekin bat egiten duen lekuraino.

Arriarango zonaldeari esleitutako azalera oso handia iruditzen zaigunez (idatzi horien arabera 225.247 m²), zonalde horretan Ezkiokoak diren trenbideko lurrak barneratzen direla usten dugu, izan ere, 1862an Arriaran Ezkioko jurisdikzioaren barruan zegoen. Dena den, hala irakurri dugu dokumentuetan eta halaxe transkribatzen dugu.

Hala izatekotan, lur horietako zenbait gaur egun Ezkio-Itxasoko jurisdikzioan proiektatuta dagoen AHTko geltoki berria hartzeko baliatuko dira. Modu horretan, argituta geratzen da Iparraldeko Trenbideen Konpainiaren barnean orotara 363.155 m²ko azalera dagoela (halaxe agertzen da dokumentuetan behintzat), Arriaran ere hartzen duen zonalde hori barne eta arestian aipatutako Lazkao eta Gudugarreta herriak barneratu gabe.

Aipatu, halaber, trenbidearen ibilbidearen luzera osoa, idatzi horien arabera, horrela banatzen dela: 1.250 metro Arriarango jurisdikzioan, 600 metro Gudugarretan; eta, azkenik, 4.785 metro Beasaingo jurisdikzio zahar horretan, kasu honetan Lazkaoko herriaren barrutik trenbideak egiten duen ibilbidea dela-eta barneratzen ez diren bi tarteak gehituta, zeinak kasu honetan 115 metroko luzera izango lukeen, idatzi honetan aipatzen denez.

Trenak Beasainen eta Arriaranen hartzen duen azalerari Gudugarretako azalera batzen badiogu (dokumentu horietan ez baita aipatzen), orotara 379.450 m²ko azalera izango genuke. Berriro diogu Arriarani esleitutako azalerari dagokionez zalantzak ditugula, izan ere, orduan Ezkioren jurisdikzio zaharraren baitakoa zen. Azalerari dagozkion neurri horiekin ohituta ez dauden pertsonentzat, hizkera arrunta erabiliz esango dugu, deskribatu dugun azalera handi hori, gutxi gorabehera, 100x100 metroko dimentsiodun 38 futbolzelai hartzeko adinakoa dela.

Trenbidearen hizkerarekin ohitu ez garenontzat, esan dezadan berriro trenbide konpainiaren kilometro-harrietan, estatuko ZERO-puntua Madrileko Pio Printze



geltoki zaharrean kokatzen zela. Eta, hori abiapuntutzat hartuta, kontuan izan behar dugu hasierako ibilbide horrek, besteak beste, Guadarrama, Avila, Valladolid, Burgos eta Gasteiz zeharkatzen zituela. Horregatik agertzen da Madrileko ZERO-puntu hori horren urrun Beasaingo geltokitik, zehazki 581,114 kilometrora. Distantzia berdina da geltoki zaharra ala geltoki berria hartu, izan ere, biak orube beraren gainean eraiki ziren.

Arriaran-Ormaiztegi mugatik Lazkaibar zonaldera dagoen trenbideko tartean, jarraian aipatuko ditugun ibilbideko elementuak eraitsi edo aldatu ziren. Hemen zerrendatuko ditugu horiek trenbideko obren tamainaz jabetzeko, izan ere, horietako zenbait aurrez, liburuaren sarreran, aipatu ditugu azaletik bada ere. Honatx bada:

Hiru trenbide-pasabide solairu bateko etxeak zituztenak alboan bertako langileentzat, bakoitza 35 m2ko azalerarekin; oinezkoentzako lurrazpiko sei pasabide (halakotzat hartzen dira, zubitik aparteko gisa, Zaldizurreta eta Bernedoenearako pasabideak), denak 4 metroko zabalera estandarra dutenak; errailen gainean kokatutako bi gaineko pasabide (Igartzakoa, 2003an eraitsi zena eta Lazkaibarrekoa, Ordiziako jurisdikzioaren barruan), biak berdinak, 12 metroko arku-argidunak; Oria ibaiaren gainean bi arkutako hiru zubi, hamabi, hamar eta zortzi metrokoak, hurrenez hurren; burdinazko beste zubi bat Agauntza errekaren gainean, Beasaingo hiltegi zaharraren zonaldean; bi tunel, Iturrizpekoa, 77,15 metroko luzera duena eta Oreakoa Angion (agian benetako izena Oria izango da), 153,6 metroko ibilbidea ezkutatzen duena; eraitsitako zazpi baserri, aldatutako bi errepide, desbideratutako erroten bideak, desagerrarazitako auzo-bideak, horien ordez bide modura eraikitako beste bidexka batzuk, etab.

Ikus dezakegunez, trenbideko obra horien tamaina, hala eraikuntzak altxatzekoak nola elementuak desagerrarazi edo eraistekoak, ikaragarria izan zen; eraitsitako eraikinen artean daude Arriaranen kokatzen ziren Iturraldetxiki eta Iturralde, Gudugarretako Muxika eta, horiez gain, Iturrazpegaraikoa, Iturrazpeazpikoa, Barrendain eta Tapia baserri bikiak (handia eta txikia); horietako sei berriz eraiki ziren jabe berdinen jabetzakoak ziren orube ezberdinetan, Tapia baserriak izan ezik, izan ere, baserri handia Zulaika anaien jabetzakoa zen eta txikia Miguel Aranbururena. Baserri biki horiek saldu eta betiko desagertu ziren. Baserri berri gehienak bertako kolonoek berreraiki behar izan zituzten, jabeek emandako argibideei jarraituz. Eta, jakina, trenbidearen ingeniariek egitera zihoazen ibilbidearen barruan sortutako gorabehera eta aldaketa horiek guztiak islatu behar izan zituzten beren planoetan zorroztasun osoz, eta ez dugu uste hemen haiek berriz aipatu behar ditugunik.

Hori esanda, urte haietako Beasaingo geltoki zaharra deskribatuko dugu jarraian. Kasu honetan ere mende bat geroago ateratako irudien laguntza izango dugu; eta, ikusiko dugu, nola, denbora asko igaro arren, 1876. urtean idatzitako dokumentu horietako edukia, ehun urte beranduagoa ateratako argazkiekin bat datorrela. Horrekin zera adierazi nahi dugu, Beasaingo geltokian ez zela obra zibil berri baten inbertsio handirik izan ia mende batez.

Nabarmentzeko modukoa da, era berean, gure ibilbideko ibiltariek, trenbidearen proiektu horretako bazter guztien behatzaile finek, 1862. urtean artean ibilbide hori amaitzeke ikusiko zutela. Horrez gain, 1876ko dokumentu horietan ez da benetako egoera bete-betean islatzen, izan ere, instalazio zaharretako zenbait zati erre egin zituen Santa Cruz Apaizak 1873. urtean, hirugarren karlistadaren barnean.

Ikus dezagun zein xehetasunez deskribatzen diren dokumentu horietan 1876an ageri ziren instalazio berriak, sutea gertatu eta hiru urte baino igaro ez zirela eta Beasain-Donostia lehen tartea inauguratu eta hamahiru urte pasata.

GELTOKIA XIX. MENDEKO AZKEN LAURDENAREN HASTAPENEAN

Arestian esan bezala, 103. argazki eder hori 1961ean ateratakoa da, baina bertan agertzen diren instalazioak, irakurri duguna oinarritzat hartuta, 1876ko deskribapenekin bat datoz erabat, frogatu ahal izan dugun moduan.

Deskribapena 1876ko azaroaren 27ko data duen dokumentu batetik abiatuz eginda dago, Santa Cruzek 1873an geltokiari su eman eta hartako kalteak berreraiki ostean. Argazkiak maketa bat dirudi, baina geltokiko zonalde nagusiaren aireko ikuspegia da, 1862an taxututako planoa sinatu eta mende bat igarota aterea.

1876ko dokumentu horretan horrela hasten da instalazio horiei buruzko deskribapena:

> *"…la estación de Beasain se sitúa a 159,2 metros de altura sobre el nivel del mar en Alicante, y se halla situada exactamente en el piquete kilométrico* ***581,114*** *metros…" (A 581 kilómetros 114 metros de distancia del punto CERO situado entonces en la antigua estación Príncipe Pío de Madrid).*

Gure begiz frogatu izan ahal dugunez, kilometro-harri hori, gaur egun, geltokiaren alboan dago kokatuta (zutabe batean irakur daiteke), 1980. urtean bertatik erretiratu zen kilometro-harri zaharra kokatu zen leku berean.

> *"…comprende en esta zona 3.314 m² solo de vías de apartadero y las instalaciones comprendidas dentro de la propia estación del tren, que se conoce como la* ***número 112*** *de la red general de los Ferrocarriles del Norte…"*

Aurrerago ikusiko dugunez, 688 metroko garaieran dagoen Otzaurtera iristeko aldapa gogorra gainditzen laguntzeko gure geltokiari esleitutako lurrunezko lokomotora ere 112. zenbakiarekin dago markatuta, hau da, geltokiari emandako zenbaki berarekin.

Ikus dezagun orain, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak baliatuz, 1876. urtean orduko instalazio berrien gainean egindako deskribapena, izan ere, gainerakoak, hau da, 10etik 17ra bitartekoak, deskribapen berriagoak dira:

1 - **"BIDAIARIEN ERAIKINA"**, 243 m²ko azalera zuena. 103. argazki orokorrean zenbaki horrekin adierazte dugu eta, 104 zenbakidun xehetasunezko argazkian ere ikus daiteke.

Dokumentu hauekin erkatu ditugu azalera hori eta 1876ko idatzietan deskribatzen den bidaiarien eraikina, eta 103. eta 104. argazkietan ikusten den eraikinarekin bat dator erabat.

Geltokiko eraikina aipatzean ez dugu ahaztu behar goiko etxebizitza, non geltokiko burua eta haren familia bizi ziren. Ikus dezagun nor bizi zen etxebizitza hartan 1867an: Antonio Moro geltokiko burua, haren emazte Saturnina Fernandez eta bien semeak, Emilio, Antonio, Enrique, Perfecto, Atilano eta Feliz Moro Fernandez, eta haiekin batera neskamea, Micaela Porte.

2 - **"BIDAIARIENTZAKO KANPOKO BABESLEKUA"**, 75 m²ko azalera zuena. Burdinazko bi zutaberen gainean eraikitako estalpeaz ari gara, 103. argazki orokorrean eta 104. argazkian ederki ikusten dena.

Estalpe hori zenbaki berdinarekin adierazten dugu geltokiari buruzko argazki orokorrean.

1876an deskribatutako estalpearen azalera eta 103. eta 104. argazkietan ikusten den estalpearen azalera bat datozela ikus daiteke.

3 - **"KOMUNAK"**, 17 m²ko azalera zutenak.
Eraikin hau ere zenbaki berdinarekin adierazten dugu geltokiari buruzko 103. argazki orokorrean. Kasu honetan ere bat dator dokumentuetan deskribatzen den azalerarekin.

4 - **"ESTALITAKO MOILA"**, merkantziak sartzekoa. 664 m²ko azalera zuen eta alboan plataforma estali bat merkantzien biltegira sartzeko.
Geltokiari buruzko 103. argazki orokorrean zenbaki berdinarekin adierazten dugu eta, era berean, 93. argazkian ere ikus daiteke eraikin hori. Dokumentu hauetan adierazten den azalera bat dator 93. argazkian gezi zuri batez adierazten dugun eraikinarekin, zeina duela hogeita hamar urtera arte ikusi ahal izan dugun bertatik bertara.
Leku horretan izan zuen eragin gehien 1873an Santa Cruz apaizaren aldeko karlistek eragindako suteak. Dena den, ziur aski, garai hartan egurrezkoak izango ziren instalazio horiek.

5 - "MAKINEN GORDAILUA", 583 m²ko azalera eraikia zuena. Zenbaki berdinarekin adierazten dugu geltokiari buruzko 103. argazki orokorrean. Halaber, 105. eta 106. argazkietan ere ikus daiteke eraikina. Lehenengoa makinen gordailu horri airez ateratako argazkia da; bigarrenean eraikin horren mantenu-lanaz arduratzen ziren langileak ageri dira. Sei langile erakusten dituen argazkia 1940ko hamarkadakoa da; eta, haien atzean, ezkerretik hasita bosgarren eta seigarren langileen artean, eraikin horietako lehenengoaren sarrera ikus daiteke.
105. argazkia hartzen badugu, gordailu horren ekialdera, etxebizitza bat ikusten da, 1876an egoile hauek zituena: Alde batetik, lantegiaren arduraduna, Victor izena zuena, eta harekin batera beste zazpi pertsona; beste alde batetik, barruti berean kokatzen zen ponpa-aretoko arduraduna, L´Grand izena zuena. 105. argazkian gezi zuri txiki batekin adierazten dugu etxebizitza hori.
Eraikin horren azalera ere bat dator 1876ko dokumentuetan deskribatzen denarekin.

6 - "ESTALI GABEKO MOILA", merkantziak sartzekoa, 435 m²ko azalera zuena. Eraikin hau ere zenbaki berdinarekin adierazten dugu geltokiari buruzko 103. argazki orokorrean.
Bat dator, aurrez aipatutako gordailuaren kanpoan kokatutako merkantzien deskargarako zonaldearekin.

7 - "UR GORDAILUA", hasiera batean 48 m2ko azalera zuena zirkulu formako bi tangen oinarrian. Eraikin hau ere zenbaki berdinarekin adierazten dugu geltokiari buruzko 103. argazki orokorrean. Gordailu hori, hasiera batean, Mariaratz errekako urarekin hornitzen zen, horretarako eraikitako hodi baten bidez; beranduago, Igartzako zubiaren inguruan egindako hargune batetik jasotzen zen hura, kasu horretan ponpa elektrikoen laguntzarekin.
Eskuinera pertika forma duen tramankulu birakor bat ikus daiteke. Tramankulu hori erabiltzen zen egunero lurrunezko lokomotora zaharren gordailuak betetzeko.

8 - "HORNIDURARAKO MAKINERIA FINKOAREN ERAIKINA", 60 m²ko azalera zuena eta geltokiari buruzko 103. argazki orokorrean zenbaki berdinarekin adierazten duguna. Kasu honetan energia sortzen zuen "motor-sorgailu" zaharra kokatzen zen lekua dugu aipagai. Hori ere bat dator dokumentuetan deskribatzen denarekin.

9 - "EGURREZKO ERAIKINA", trabesen injekzioa gauzatzeko lantegia kokatzen zen 72 m²ko azalera zuen eraikin horretan.
Hori da mende bat igaro ostean identifikatzen asmatzen ez dugun eraikin bakarra, izan ere, ez dakigu zehazki non kokatuko zen lantegi txiki hori. Bertan, nagusiki, egurrezko trabesak lantzen ziren, trenbidean konponketak eta aldaketak egiteko erabiltzen zirenak.
Balizko kokapen modura 9. zonaldea aipatzen zaigu. Dena den, harridura ikurrez adierazten dugu zonalde hori, izan ere, XX, mendeko lehen erdialdearen amaiera aldera artean erortzear zegoen eraikin bat edo beste ikusten bada ere, oinarri sendorik gabeko ustea besterik ez da. Ezin izan dugu geltoki zaharrean zuen kokapena zehaztu.

1876ko dokumentuan adierazten diren eraikin horiez gain, 103. argazki orokorrean beste eraikuntza edo tramankulu batzuk ere adierazi ditugu zenbaki bidez. Horietako asko trenbidearen lehen urteetan bertan izango ziren, baina aurrekoak ez bezala, ez dira aipatzen, agian haiek gauzatzeko obra zibila ez zelako handiegia izan. Ikus ditzagun bada, geltokiaren azpiegituraren barruan leudeken elementu horiek:

10 - "LOTARAKO ETXEA", hasiera batean, Iparraldeko Trenbideen Konpainiako langileentzat.
Dakigunez, eraikin berri hori XX. mendearen lehen laurdenean eraiki zuten, dokumentuari dagokion data baino askoz ere beranduago beraz. Hori dela eta, 1876ko dokumentu horretan ez da agertzen.

11 - "PLATAFORMA BIRAKORRA", tramankulu oso garrantzitsua, orduan tren eta lokomotora batzuei buelta emateko erabiltzen zena, egoki zenean.

Normalean materia motordun mugikorrak eta atoian eramatekoak 180º biratzeko erabiltzen zen. Eskuz egiten zen lan hori, "maniobratakoak" izenarekin ezagutzen ziren trenbide-langile batzuen eskutik. Haiek bultza egin eta plataforma birarazi egiten zuten makina gainean zela.

Aurrez esan dugunez, litekeena da ez aipatzea obra zibil handirik eskatzen ez zuen eraikuntza izateagatik. Hala ere, ia ziurtasun osoz esan daiteke hastapeneko lekuan mantenduko zela beti, izan ere, garai hartan ez zegoen atzera-martxarik gabeko ibilgailu horien norantza aldatzeko beste modurik.

Halaber, Bereziartu familiak lagatako XIX. mendearen amaierako beste argazki arras interesgarri batzuetan ere ikusi dugu tramankulu hori. Nolanahi ere, argazki horiek ez ditugu argitaratu egoera txarrean zeudelako.

12 - "KANTINA", bidaiari eta langileek erabiltzekoa, 103. argazki orokorrean zenbaki berdinarekin adierazi duguna. 107. argazkian hobeto ikusten da. Bertan ohiko bezeroak ageri dira, hau da, urte horietan geltokian lan egiten zuten trenbide-langile ugariak.

Irudian agertzen den andrea kantinako "Maria andrea" da, XX. mendearen erdialdeko trenbide-langileen artean oso pertsona ezaguna izan zena. Makurtuta dagoen langilea Maximo Cueva da, 106. argazkian eserita agertzen den bera. Trenbide-langile hori oso ezaguna zen XX. mendeko lehen erdialdean.

Ezin izan dugu jakin noiz eraiki zen kantina ezagun hori, izan ere, dokumentuetan ez da agertzen. Dena den, 1900eko industria-matrikuletan "ardo eta pattarra" banatzen zituela irakur daiteke. Orduan Petra San Antolin zen kantinako titularra.

13.- Trenbide-langileen baratzak eta bigarren mailako bazterbideak.

14.- Merkantziak deskargatzeko plazatxoa eta autobus eta taxi zerbitzu ezberdinen geraleku ofiziala.

15.- Estali gabeko moilatik merkantziak deskargatzeko garabia.Haren egitura eta diseinu zaharra aintzat hartuz (pinoi bakar batekin eutsitako engrane ikusgarri bat eskuz mugituz erabiltzen baitzen, biradera handi batekin eragiten zirenak), litekeena da hura ere hasieratik izatea geltokian.

16.- Linea elektrikoaren dorreak, 1928-1929 bitartean instalatu zirenak. Orain, kilometro-harrien plakak ipintzeko erabiltzen dira. Gaur egun, hiru dorrek ehun metroko distantzia adierazten dute, eta kartel bat ipintzen da dagokion kilometro-puntua adieraziz.

17.- Airez ateratako argazkian ez da agertzen, baina geltokiaren historia luzeko osagai modura barneratu behar da. 112 zenbakidun lokomotoraz ari gara, hasieratik Beasaingo geltokiari esleitutako makina, Iparraldeko Trenbideen Konpainia zaharreko argotean "112a" modura ezagutzen zena. "Makinen gordailuan" gordetzen zen. Ikus XX. mendearen hasierako 108. xehetasunezko argazkia, non hainbat langile agertzen diren lokomotorara igota. Argazkian, makinaren goiko aldean, eskuinera eserita agertzen den pertsona Lozares abizena zuen langile ezagun bat dela ziurtatu digute.

Mende bat beranduago, 1955ean, ingurubide-errepide berriak trenbidearen hegoaldera kokatutako lurazalera handi hori erdibitu egin zuen berriz ere. Errepidearen hegoaldera kokatutako zonalde horretan, orokorrean, industrializazioa ez zen 2003. urtera arte iritsi (Basakaitzera doan zonaldeaz ari gara, 3. planoan eta 109. argazki orokorrean ikus daitekeenez, Oria ibaiak hiru meandro eder horiek egiten dituen lekuan). Dena den, zonalde horretan ezarri zen lehen fabrika, Talleres Urbi izena zuena (gaur egun Tximela), 1960koa da. Zuntzunegi bide zaharraren alboan lekutu zen hura. Hurrengo hamarkadan trenbidearen alboan Suministros Loinaz finkatu zen, errepidearen beste aldean eta Bernedo fabrika zaharraren segidan, nahiz eta bigarren horrek ordurako ateak itxita zituen, lanabesak fabrikatzen hainbat urtez aritu ondoren, hain zuzen, 1920tik 1967ra.

2003an zonalde berri hori industria-pabilioiz betetzen hasi zen eta gaur egun industria jardunetarako lur modura aitortua dago. Zonalde berri hori N-1 autobia berriaren hegoaldeko aldean kokatzen da. Horrenbestez, ia hogeita hamar urte behar izan dira, baina azkenean hainbat urtez hondakindegi modura erabiltzen zen leku hori bete egin da. Aurrerantzean ezinezkoa izango da 109. argazkian zuen itxurarekin ikustea. Argazki hori 1862an sinatutako 3. sektoreko plano orokor hori baino ehun urte beranduago atera zen.

109. argazki orokor hori sektore honetako 3. plano orokorrarekin alderatzen badugu, 1862an teknikari-marrazkilari hark ibaiak Basakaitzeko zonaldetik egiten duen ibilbidea erakusten duten lerroak, hiru meandroak edo Oriak leku horretan egiten duen bihurgunea bikain marraztu zituela ikus daiteke,



plano horretan aipatzen diren gainerako puntu garrantzitsuak bezalaxe.

109. argazkian oso ongi ikus daiteke zonalde hori eta, baita Bernedoko presak atxikitzen zuen ur kopurua ere. Presa hartako dikea eta atzealdea gezi zuri txiki batzuekin adierazi ditugu.

Gure aldetik, ezin izan diogu Tapia baserrietatik ibairantz jaisten zen bidearen ibilbidea, ustezkoa izan arren, markatzeko tentaldiari eutsi; izan ere, beste xehetasun batzuen artean, Oriak egiten zituen hiru meandroen tarte hori lagungarri zaigu bide horren amaiera kokatzeko. Ibaiaren beste aldean kokatutako bi errekastoak ere lagungarri zaizkigu. Dena den, erreferentzia onena zera da, bidea bigarren meandroaren tontorrean amaitzen dela ia.

Berriro diogu 109. argazki horretan egindako bidearen marrazki hori gutxi gorabeherakoa dela. Hala ere, abiapuntua nahikoa zehatza da, zeina 1862an metro batzuen gorabeheran inguru horretan kokatuko litzatekeen, Tapia baserrien (handia eta txikia) alboan, gutxi gorabehera T hizkiarekin adierazi dugun zirkuluaren parean. Halaber, marroi koloreko puntu txiki batzuekin ibaiak leku horretan egiten dituen hiru bihurguneak markatu ditugu, 3. sektoreko plano orokorrean eskuz marraztutakoekin erkatze aldera. Merezi du 1862ko marrazkia zer-nolako xehetasunez eginda dagoen ikustea.

Lur horietan industria-pabilioiak instalatu ziren. Horren ondorioz, bertako eraikuntza eta zerbitzuek xurgatuta bezala, XIX. mendearen amaiera aldera udalerrian barrena Oria ibaiak zuen zonalde eder eta basatienetako bat desagertu egin zen. Gaur egun lertxun hauskaren kolonia bat bizi den leku horretan hainbat urperaldi eta atsedenaldi egin zituzten beasaindar belaundaldi askok. Ibaiaren iparraldeko aldean segurtasun-murrua eraiki ondoren, hurrengo urratsa ibaiaren beste aldea "zementatu edo asfaltatzea" izango da ziurtasun osoz. Eta are gehiago, kontuan hartzen badugu, ia Basakitz gainean dagoeneko Indar enpresaren hedapena kokatzen dela.

GELTOKIKO SEKTOREKO AZKEN ERAIKINA

UBIA edo URBI baserria izango litzateke gure ibiltariek 1862an, geltokiko 3. sektore honetan, bidean behera ikusiko luketen hurrengo eraikina. Etxetzar horrek ere aurrez aipatu dugun Sorobilletas bideari eman zion izena, izan ere, XIX. mendearen erdial-



dera, bide hori idatzita agertzen zenean, izena gaztelaniaz ematen zuten, "Senda de Ubia" (Ubiako xendra) izenarekin. Horrekin zera adierazi nahi zuten, bide hori Andre Mari abiatu eta laborantza-lur horietatik igarotzen zela, Ubia edo Urbiko zonaldera iritsi arte.

Baserria bi izenekin izendatzen zen idatziz, Ubia eta Urbi; 3. sektoreko plano honetan eta 3e plano-zatian ikus daitekeen moduan, baserria pasa eta metro gutxira hasi zen (edo amaitu zen, nahi bezala) Francisco Ibero azpeitirarrak marraztu zuen autoen galtzada zaharrera derrigorrez egin beharreko desbideratzea. "Autoen Errepide Nagusian" egindako desbideratze horren amaiera gezi zuri batekin adierazi dugu. Desbideratze hori Zelaetazar parean hasi eta 400 metroz luzatzen zen ia. 3e plano-zati honetan D hizkiarekin adierazi dugu Urbi edo Ubia baserria. Autoen galtzada zaharra L hizkiarekin eta aldatutako errepide berria K hizkiarekin. Halaber, ikus Urbi 600 eta 700 metro artean kokatzen zela (3. sektoreko plano orokorrean agertzen diren 6 eta 7 zenbakien artean, alegia) Zero-puntutik abiatu ostean, hau da, Igartzako tren-zubiaren amaieran kokatutako lokal horretatik abiatuta. Eta, 3. sektoreko honetan hasieran aipatu dugunez, airez ateratako 85. eta 87. argazkien laguntzaz errepidean egindako aldaketa hori antzeman daiteke oraindik.

Udaletxe zaharreko burokratek orduan herria banatuta zuten modua aintzat hartuta, Urbi edo Ubia baserria Mendebaldeko Zatiaren 1 zenbakian zegoen; horrenbestez, Lazkaoko Infanterriko etxearen jabetzakoa zen etxetzar horretan hasten zen "Igartzako Errepublika Independenterantz" zihoan Mendebaldeko Zatia.

Baserri zahar hori Infanterriko dukea zen Lazkaoko jaunaren jabetzakoa izan zen beti, nahiz eta orduan, 1862an, jadanik paseak ziren bi mende Lazkaoko Infanterriko etxea eta Ordiziako Valmedianorena bateratu zirenetik. Bi etxeak, ezkontza batek eraginda, 1692an batu ziren herentzian.

Bide batez, aipagarri da Lazkaoko jaunak etekin handia atera ziela trenbidea egiteko desjabetu zitzaizkion Zaldizurreta eta Urbi baserrietako lurrei, izan ere, bi etxe horiei kendutako lurrengatik 263.532 beloi-erreal jaso zituen. Igartzako jaunak jasotakoa baino gehiago beraz, izan ere, hark 185.740 beloi-erreal jasota saldu zizkion bere lurrak trenbidearen konpainiari. Bi jauntxo lur-jabe horien artean Beasaingo jurisdikzio zaharrean egindako desjabetza guztien %55a jaso zuten.

Dokumentuen arabera, urte haietan Ubia edo Urbi baserriko orube hartako azalera 583 kana karratukoa zen; eta, normalki Gipuzkoan erabiltzen zen kana 0,837 m²ren baliokidea zenez, eraikuntzak 487,97 m²ko azalera izango zukeen. 1862an baserriak beheko solairua eta lehen solairua baino ez zituen, kalitate ertaineko harlangaitz-hormez egina eta lau uretako teilatu batekin estalia.

Honatx etxearen mugak:

Iparraldera, ekialdera eta mendebaldera baserriari zegozkion ereiteko lur-eremuak; eta hegoaldera, hartako ataurreak. Etxeak 36.440 beloi-erreal balio zituen orduan.

Haren ataurreko (7 ondoko edukiera zutenak) mugak, aldi berean, hauek ziren: Iparraldera, etxea; hegoaldera, "Autoentzako errepidea"; ekialdera eta mendebaldera, etxeari zegozkion ereiteko lur-eremuak. Ataurre haien balioa 14 erreal eskasekoa zen.

Hauek ziren 1862an Ubia edo Urbi baserriari atxikitako lur nagusiak:

Etxeondokosoroa, 6.066 m² zituena gutxi gorabehera (176 ondo eta hiru arra) eta muga hauek zituena: iparraldera, Granada Egako dukearen eta Jose Ramon Mendiaren lurrak (bigarrena Arane zarra baserriko jabea zen orduan); hegoalde eta mendebaldera, hainbat errepide; ekialdera, Jose Ramon Mendiaren lursail gehiago. Orduan 6.640 beloi-errealeko balioa zuen.

Errezkarate (izen bera zuen baserritik gertu kokatua, Urbi txipi izeneko zonaldean), 11.505 m²ko azalera zuen (335 ondo eta arra bat) hariztia, muga hauek zituena:

Iparraldera, Domingo Zumalacarregui de Idiazabalen lurrak; hegoalde eta ekialdera, Granada Egako dukearen oinordekoek Igartzako jauregian zituzten lursailak; mendebaldera, Juan Francisco Aranbururen lurrak. Jabetza horren balioa 2.682 beloi-errealekoa zen orduan.

Orobat, baserri horren baitan lursail gehiago ere baziren, urte haietan Ordiziako Barrena maiorazkoaren jabetzakoak (Valmedianoko markesgoa) zirenak;

izan ere, orduan lur haiek Lazkaoko maiorazkora ere pasa ziren, Ordiziako Barrena etxea eta Lazkaoko Infanterrikoa batu egin zirelako, aurrez esan dugun moduan.

Urte haietan Urbi baserriak bazuen beste karga bat, hau da, Ordiziako Kabildoan egin beharreko urteurren-meza bat, urte bakoitzeko otsailaren 22an ospatu beharrekoa. Meza horretan bi beloi-erreal gastatzen ziren, eta %3an ezarritako kapital ezezagun batekin, 66 erreal eta 22 marabedi xahutzen ziren.

Halaber, bazen Ordiziako Kabildo horretan egiteko beste urteurren-meza bat, urte bakoitzeko uztailaren 20an egitekoa, Amador Acharan eta Gracia de Sasiolak sortu ostean. Meza horretan 24 libera ogi eta 8 argizari ontza gastatzen ziren eta, horrez gain, 60 txakur txiki dirutan. Guztira, 26 erreal eta 28 marabedi, zeintzuk, aldi berean, %3an ezarritako kapital ezezagun batekin, beste 894 erreal xahutzea eragiten zuten.

Ordiziako Parrokiako San Miguel kaperan urtero argizaritan 91 erreal eta 27 marabedi xahutzen ziren, zeintzuk, aldi berean, kapital ezezagun batekin, urtean 3.059 erreal eta 27 marabedi xahutzea eragiten zuten. Dokumentu horien arabera, Urteurren- eta Eskaintza-mezak egiten zirenean Ordiziako Juana Machain zen behar zen argizari guztia hornitzeaz arduratzen zena (elizetan egurrezko argizaiola artistiko horien inguruan kiribiltzen zen argizari fina). Hala Infanterriko Etxeari zegozkion mezen kasuan, nola Ordiziako Barrena Jauregiari zegozkion mezen kasuan (azken horiek Valmedianoko markesek aginduta). Machain andre hark garai hartan kontratu bat zuen Barrena etxearekin, hala, hura bakarrik izan zitekeen gurtzarako material horren hornitzaile. Erlijio-ospakizunetan erabiltzen zen argizari mota hori artisau gozogileek egiten zuten orduan.

Kabildo horretan bazen beste urteurren-meza bat, urte bakoitzeko uztailaren 26an egitekoa. Kasu honetan 24 libera ogi eta 8 argizari ontza gastatzen ziren, 56 txakur txiki dirutan ordaintzeaz gain. Guztira 26 erreal eta 12 marabedi, zeintzuk, %3an ezarritako kapital ezezagun batekin, beste 868 erreal eta 14 marabedi xahutzea eragiten zuten.

Ordiziako Kabildoan egitekoa zen beste urteurren-meza bat urte bakoitzeko uztailaren 27koa zen, aurrekoa bezalaxe, Juan Antonio Arteaga eta Francisca Acharanen sortua. Meza horretan 12 libera ogi eta 4 argizari ontza gastatzen ziren, 20 txakur txiki ordaintzeaz gain. Guztira 12 erreal eta 8 marabedi, %3an ezarritako kapital ezezagun batekin, 407 erreal eta 28 marabedi xahutzea eragiten zutenak.

Bernardino Arteaga eta Margarita de Arnao Bidaok sortu zuten kabildo berean irailaren 8an egiteko beste bat. Hartan 12 libera ogi eta 4 argizari ontza gastatzen ziren, 22 txakur txiki ordaintzeaz gain. Guztira, 12 beloi-erreal, %3an ezarritako kapital ezezagun batekin, 415 erreal eta 23 marabedi xahutzea eragiten zutenak.

Bernardino Arteaga eta Margarita de Arnao Bidaok beste urteurren-meza bar ere sortu zuten kabildo berean, urte bakoitzeko irailaren 14an egitekoa. Hartan 12 libera ogi eta 4 argizari ontza gastatzen ziren, 20 txakur txiki ordaintzeaz gain. Guztira, 12 erreal eta 8 marabedi, %3n ezarritako kapital ezezagun batekin, 407 erreal eta 28 marabedi xahutzea eragiten zutenak.

Urteurren-meza horiekin batera, Ubia edo Urbi baserriak bazituen antzeko baldintzak zituen beste zazpi egiteko betebeharra, aipatu etxeetako titularrek aginduta. Dena den, ez dugu uste meza horietako baldintzak hemen zerrendatzen jarraitzea merezi duenik, azpian aipatzen duguna salbuetsita, baldintza bereziak eta kopuru handiak baitaratzen zituelako. Halaber, Urbi edo Ubia baserriak beste grabamen hau ere bazuen beraz: 157.599 erreal eta 8 marabediko zentsua eta 3.150 erreal eta 32 marabediko urteko korritua, 1755eko irailaren 22an sortua. Kopuru hori Barrenako maiorazkoak Arnao Bidaori ordaintzekoa zen, bestelako betebeharrik izan gabe. Argigarri, aipa dezagun 157.599 erreal eta 9 marabediko zentsu izugarri handi horren barnean Ordiziako Valmediano Etxearen (Barrena jauregiaren) gainerako jabetzak ere sartzen zirela, izan ere, aipatu loturak eskualdean zituen jabetza guztietarako zentsua zen.

Manuel de Egoscozabal, Barrena jauregiko administrari modura eta, aldi berean, hauek ordezkatuz:

Andres Avelino Arteaga y Silva, beste titulu batzuen artean, Lazkaoko Jauna nahiz Valmediano, Ariza eta Estepako markesa zena, 30 uteko ezkongabea; halaber, Josefa Arteaga y Silva, Narciso Salazar y Pinedorekin ezkondua, 32 urtekoa; Isabel Arteaga y Silva, 25 urtekoa, Ricardo Martel, Torre Cabrerako kondearekin ezkondua; eta, azkenik, Fernando Arteaga y Silva, ezkondua eta jabeduna. Guztiak anai-arrebak eta Madrileko bizilagunak. Haien izenean Beasaingo Bake Epaitegian bertaratu zen Ubia edo Urbi onibar hori Andres Avelino de Arteaga y Silvaren jabetzakoa zela egiaztatzeko eskatuz.

Era berean, administrari hark adierazi zuenez, bere ordezkatuen aita, Ignacio Ciro de Arteaga izan zen, lursail horren jabea 1817an hil zen arte. Orduan bereganatu zutelarik ordezkatuek herentzian. Halaber, azaldu nahi izan zuen aipatu jaunak jabetza hori herentzian hartu zuela inolako dokumenturik bete gabe, izan ere, Ubia etxeko jabetzaren titulua *"en las vicisitudes políticas de la anterior guerra de la independencia"* (independentziako gerran izandako gorabehera politikoen ondorioz) galdu egin zen, Infanterriko dukearen artxibo pertsonalarekin batera.

Aurkeztutako lekukoen dokumentazioa onartu ostean, Jose Francisco Arana eta Pedro Ignacio de Leunda bertaratu ziren lekuko modura, biak Beasaingo jabedunak.

Azkenik, dagokion onarpen-autoa eman eta Ubia edo Urbi jabetza hori 1865eko uztailaren 6an inskribatu zen hartako etxaguntza guztiekin, hau da, esku artean dugun plano hau sinatu eta hiru urtera baino ez.

157.599 erreal eta 8 marabediko zentsua Andres Avelino de Arteaga y Palafoxen baitara pasa zen,

zeina 1864ko otsailaren 5ean hil zen Madrilen. Haren semea, Andres Avelino de Arteaga y Carvajal, Correseko kondea, bere aita baino lehen hil zen Madrilen, hots, 1850eko abenduaren 29an.

Bestalde, zentsu hori 1912ko martxoaren 23an artean Arteagatarren eskuetan zegoen.

Beste bitxikeria bat aipatzearren, esan 1940eko azaroaren 19an, 1942ko irailaren 9an eta 1943ko uztailaren 7an Ubia edo Urbi baserriko **"Etxeondoko"** jabetza hainbat zatitan banatu zela. Hain zuzen, 6.066 m2ko azalera zuen onibarraz ari gara, baserriaren etxaguntzak deskribatzerakoan ikusi dugun moduan.

Izen hori zuen lursailaren alboan, gaur egun, aurrerago Erauskin plazaren hasieran "Casa de D. Eulogio" izenez ezagutzen den eraikuntza kokatzen da, egun plazaren ekialdera lekutua (Kale Nagusira ematen duen etxea, orain Banco Guipuzcoano dagoen lekuan) eta, horrez gain, puntu horretan Erauskin auzora joateko abiatu zen errepidea hasten da. Hori horrela izanik, ez da zaila asmatzen Lazkaoko Infanterriko dukearen jabetzakoa zen **"Etxeondoko"** izeneko lur horietako zenbait zatitzea eragin zuen arrazoia.

Orain 1927an ateratako 110. argazkian erreparatuko dugu. Argazkilaritza aldetik kalitate handiegirik ez badu ere, dokumentu grafiko garrantzitsua da, izan ere, argi ikusten da bertan 1927an, artean, Usurbe mendiaren inguruneak "Autoen Errepide Nagusiraino" jasiten zirela.

Lehen planoan ageri den baserria Ubia edo Urbi da; eta eskuinera, zirkulu zuri batez adierazi ditugun mendiko aldapa piko horiek aipatu lursailari dagozkio, geroago, Erauskin auzora joateko auzo-bidea egiteko erabili zirenak (1947-1950). Zirkulu zuri horrek harrapatzen duen zonaldea, aldi berean, urte batzuk geroago Erauskin plaza izango zenaren barruan gelditzen da. Aipatu plaza, gaur egun, Loinazko San Martinen estatuaren parean dago, Beasainen dauden Banku eta Aurrezki Kutxa gehienek kokapen estrategiko modura aukeratu duten merkataritza-zonalde horretan.

Eta, berriz atzera jotzen badugu, ostera ere trenbidearen urteetara itzuliz, ikusiko dugu ordurako Urbi edo Ubia baserriak trenaren inguruan biltzen zen jendea apopilotzan hartzeko zerbitzua eskaintzen zuela, izan ere, etxetzar horretan zortzi familia bizi izan zi-

ren, horietako zenbait ezagunak eta beste zenbait ez hainbeste. Ikus dezagun nor bizi zen bertan 1862an:

Ignacio Chinchurreta eta Magdalena Goitia senar-emazteak eta haien alabak, Maria Antonia eta Juana Antonia, eta familiako ama, Josefa Altolaguirre; Joaquin Aranburu eta Concepcion Elosegi senar-emazteak; Jose Maria Aranburu eta Maria Urdanpilleta senar-emazteak eta haien seme Jose Vicente Aranburu Urdanpilleta; Magdalena Yarzabal eta haren seme-alaba Maria, Rosa eta Enrique Begas Yarzabal, eta haiekin batera Maria Andresa Lasa neskamea; Ramon Teres eta Carlota Chiribella senar-emazteak, emakumearen semea zen Luis Llorens eta senar-emazteen alaba zena, Carmen Teres Chiribella; Fructuoso Garcia eta Maria Echaire senar-emazteak eta haien alaba Soledad Garcia Echaire; Josefa Galparsoro; Floro Viña eta Escolastica Lozano senar-emazteak eta haien seme-alabak, Luis, Bonifacio eta Catalina Viña Lozano.

Trenbidearen ezarpena hurbil zegoela nabaria zen gure herrian, "herrigune hasiberri" txiki horretako etxebizitza urrietan bizi zirenei so. Aurreko lerroaldean izendatu ditugun pertsona horietako batzuk, agian, jadanik inauguratzear zen trenbideko teknikari eta langile izango ziren.

Baserria etorkizunean geltokia kokatuko zen lekutik gertu zegoen, izan ere, errailen eta "Autoentzako errepidearen" ezkerrera zegoen, Lazkaibarreko norabidean. Tartean, gure ibiltariek herrigune izango zenean etxe-multzo apal bat ikusiko zuten jadanik. Etxe horiek 4. sektorean izendatuko ditugu banan-banan. 1862an 36 eraikuntza zeuden Parrokiaren inguruan, Udaletxea, Apezetxea eta Seroretxea barne. Jarraian ikusiko dugu hori guztiori.

4. sektorea

Herrigunea

4 zenbakidun planoa



PLANOAN IKUS DAITEKEENA

Bi puntu zuri handirekin adierazten da proiektatutako trenbidearen ibilbidea.

A Arizmendi baserria.

B Arangoiti baserria

C Elizalde edo Martiñenea etxea, "Amerikarraren etxea".

D Hilerri zaharra parrokiaren alboan.

E Sorobilletas bidea edo Ubiako xendraren marrazkia.

F Parrokiako kabildoaren baitako multzoa, eliza, Erretoretxea eta Seroretxea.

G Igartza etxea baserri zaharra aurrealdeko estalpearekin.

H Errege galtzadara zihoan bidea.

I Muruerrekatxoaren ibilbide zaharra.

J Etxaluze etxeko baratze zaharra.

K Errege galtzadaren gaineko lur-eremu libreak.

L Zaldizurreta baserriko lurrak bi familien banaketarekin.

M Zaldizurreta baserria.

N Zuntzunegiko mendietara zihoan errepidea.

Ñ Olaberriko bide zaharraren jarraipena Oria ibaira iritsi arte.

O Herriaren hegoaldera kokatutako laborantza-lurretara zihoan errepidea.

P Baraikoa etxearen atzeko zonaldean paratutako onibarra.

Q Argidun zortasuna ageri duen orube hutsa gerora Zubimusu plaza izango den gunean.

R Oria ibaiaren gaineko bi begiko zubia Senpere eta Lazkao aldera.

S Lazkaora zihoan errepidea.

T Etxeberriaerrekalde edo Donmigelenea etxearen baratze nagusia.

U Aranezarra etxearen atzeko zonaldean kokatutako laborantza-lurrak.

V Bideburu etxearen atzeko zonaldean kokatutako laborantza-lurrak.

X Abariatarren Azpikoetxea etxe zaharra lekutzeko probestu zen orube hutsa.

Y Abarinea edo Abariatarren "Etxe Berria".

Z Floreaga edo Muteginea etxea eta hartako lurrak.

GURE HERRIGUNE ÑIMIÑOA

Hasi aurretik atal honi buruzko azalpen bat eman behar dugu. 2002an "Beasain, leiho bat iraganari" izeneko liburua argitaratu zen. Liburu horretan San Martin Loinazkoaren Martirioaren III. Mendeurrenari zegokion ospakizunetan, 1897an, ateratako argazki bat erakusten zen eta bertan ikusten ziren herriguneko 40 etxeen historia labur bat idazten zen; orain zona horri dagokion bilakaera deskribatzea dagokigu 1862ko planoa oinarri hartuta, zeina soilik 35 urte lehenago taxutu baitzen. Hori dela eta, bi lanetan deus ez errepikatzen saiatuko gara, aurrez kontatutako ezer berriro ez azaltze aldera.

Liburua osatzen duten zazpi sektoreen artetik zonalde hau da populatuena. Hori dela eta, bertan nabaritu dira aldaketa gehien 1862tik hona eta, apika, apur bat gehiago luzatuko gara, gauza bera errepikatzearen beldurrik gabe.

Argazkian ezkutuan izateagatik edo irudi hori jasotzeko hartu zen ikuspegia zela-eta argazkitik at geratu zirelako, edota argazki hori atera ostean eraiki izanagatik 1897ko argazkian agertzen ez diren bide, lur, kale eta etxe zahar batzuen bilakaera ezagutu ahal izango dugu.

Aurrez nonbait aipatu dugun moduan, planoekin soilik informazioa ateratzea konplexua suertatzen da zenbaitetan, horrenbestez, ezinbestean irudiak ere baliatuko ditugu. Horietako asko airez ateratakoak izango dira, modu horretan, ikuspegi argi, zehatz eta, are, berezi eta ezberdinak ukango ditugu egunerokotasunean ikusten dugunarekin (ia denak lurzoruaren parera) alderatuta.

Irudi nahiko berriak badira ere, herrigunearen goitik beherako ikuspegi hori ere lagungarri izango zaigu 1862tik hona izandako bilakaera hori hobeto ulertzeko. Horrez gain eta aireko argazki guztiak ia garai berean ateratakoak direnez, hain justu, trenbidearen plano hau sinatu eta ehun urte beranduago, erreferentzia hori ere baliagarri izango zaigu igarotako mendearen ostean leku horiek alderatzekoan ikuspegi uniforme bat izan dezagun.

Dokumentu asko irakurri ondotik, ziur gaude gure herrigune ñimiñoa arras itsusia izan behar zuela hainbat urtetan eta, aldi berean, xumea, etena eta oso luzea; hala ere, edonork aitor dezake hartako ingurunea oso bestelakoa zela.

Jarraian 1862an bertan zeuden etxeak izendatuko ditugu, besterik gabe gure herrigune txikitxoaren benetako tamaina irudika dezagun. Udalerriko errolda eta nomenklaturak erkatu ditugu Trenbidearen Konpainiako ingeniaria zen M. Ladamek 1862ko abenduaren 22an sinatuta aurkeztu zuen planoarekin. Arretaz aztertu ostean zera ondorioztatu dugu, dokumentuetan agertzen den grafia errespetatuz, jarraian izendatzen ditugun etxeak zirela herrigunean zeudenak; aurrerago azalduko dugu eraikin horiek guztiak izendatzearen arrazoia:

Arizmendi, Arangoiti, Bidearteandi, Bidearteetxiki, Igartzaetxe, Zufiaurreandi, Zufiaurretxiki, Abarinea, Floreaga edo Muteginea, Zubimusu, Zaldizurreta, Etxeluze, Etxetxoak, Baraikoandi, Kale Nagusiko Mendiaenea, Kotxera, Bideburu, Simonanea, plazako Mendianea, Mendianeatxiki, Etxeberria Karrera (gerora "Donjuanenea"), Donmigeleneako sutegia, Etxeberriaerrekalde (gerora "Donmigelenea"), Araneako sutegia, Aranezarra, Aranetxiki, Etxeberri, Maizenea edo Hilarioenea, plazako Arantxiki, Seroretxe, Aranberri (ostatua), Erretoretxea, Aranberriazpikoa, Martorena, Elizalde (gerora "Martiñenea") eta Udaletxea.

Guztira 36 eraikin zenbatzen dira herriguneko zonalde horretan, zeina "kaleko zonaldea" izendatzen zuten. Ez ditugu "herrigunekotzat" hartzen: Ubia edo Urbi mendebaldera; Urbiñarte hegoaldera; eta Ezkiabasokoa ekialdera; haatik, Arizmendi zerrendan ematen dugu, hiru baserri horiek baino urrunago egon arren, planoaren egileak hala marraztu zuelako trenbideko planoan parrokiatik hurbil dagoen zonalde horretarako.

Sebastian Insausti Treviño presbiteroak ezagutarazi eta sakondu zuen ikerketan (hau ere 1862koa), liburu honen sarreran aipatu duguna, egileak 34 etxe baino ez ditu aipatzen Beasaingo herrigunean.

Ez da harritzekoa bi dokumentazioetan bi etxeko aldea izatea, izan ere, interpretazio edo irizpide kontuak eragindako aldea izan daiteke; azal dezagun: Kontu jakina da badirela zenbait etxe beste etxe batzuetara atxikitako zati gisa har daitezkeenak, izan ere, eraikin nagusiarekin eraikuntza oso bat osatzen dute, horren adibide dira, Araneako sutegia, Donmigeleneako sutegia, plazako Mendianea txikia edota Aranetxiki, azken horren kasuan Aranezarra eraikinarekiko. Horrez gain, litekeena da ez agertzea, hori izan daiteke Donmigelenea etxeko sutegi ñimiño eta apalaren kasua, normalean zegokion erementariaren etxea izaten zena. Litekeena da, halaber, etxe bakar modura zenbatu izana berez bi eraikuntza zirenak, hori da "Etxetxoak" direlako etxe txikien kasua. Guk horiek eraikin bakar modura zenbatu ditugu eta bi jabe ezberdin izan dituzte. Horrek guztiorrek, apika, herriguneari dagokion multzo honetan bi etxeren alde hori egotea azal dezake.

Edozein kasutan ere, zifra hotz horiek kontu argi bat adierazten digute, izan ere: Gure orduko herrigune apalean zeuden etxeak 34 izan edo 36 izan, kleroak egindako ikerketaren arabera, etxe horietan soilik 335 bizilagun bizi ziren 1862an; hots, Beasain herrixka txiki bat zen, herrigunea izateko irrika gordetzen zuena.

Beste kasuetan egin dugun modura, herriguneari buruzko 4. sektore honi dagokion planoan interesgarrien iruditzen zaizkigun zatiak hizkiekin adierazi ditugu, goitik behera, hain justu, trenbidearen ibilbideko bi puntu zuri handien artean marrazten den banalerroraino. Trenbidearen beste aldea 5. sektoreari



dagokio, ibilbidearen hegoaldera kokatutako zonaldea baita. Bertan lekutzen dira Urbiñarte, Ugartemendigoikoa eta Ugartemendibekoa baserriak eta Lazkaoko Senpere auzoaren zonaldea.

Liburuan hastapenetik errepikatu dugun moduan, gure irudizko bidaiariek egurrezko trabes eta harrikoskorrez betetako burdinazko xendra berri horren ezker-eskuin ikusiko duten oro gure ibilbidea izango da. Has gaitezen, bada, herriguneari dagokion zonaldearekin. Gainera, 1862ko 4. plano horretan urrutien marraztuta ageri den zonaldearekin hasiko gara, guk jarraian adierazten dugun moduan izendatzen dugun mendi-mazela eder horretaz ari gara:

ARIZMENDIKO GAINA

4. planoan A hizkiarekin adierazten den baserri hori 2002an argitaratutako liburuan sakon deskribatzen da. Hortaz, beste zenbait kontu interesgarri aipatuko ditugu hemen, argazkiak ematen digun informazio zabala adierazteaz batera. Kiribil handi hori (guk A1 hizkiz adierazi duguna eta 120. argazkian, goiko aldean, eskuinera, Arizmendi baserriaren gainean ikusten duguna), hain zuzen, Erauskin auzora zihoan errepidea da, 1947-1950 bitartean eraiki zena.

Irudiaren erdian, gorantz eta errepide berri horretatik abiatuz ikusten den A2 errepidea, antzina hegal honetako ezkerraldetik Olazar aldera eta Otaño baserrietara zihoan bidea da, nahiz eta eskuinera, besteak beste, Basartebekoa, Basartegoikoa, Untsain edota Abarizketa baserriekin elkarlotzen zen. Gaur egun, errepide horren ibilbideko zati handi bat zementuz estali da.

A1 kiribil hori goitik behera begiratzean, Pilar Arratibel eta Paulino Aramburuk aipatu zidatenez, artean nahikoa argi ikusten da irudi horretan A3 hizkiz adierazi dugun "gurdi bidea", Arizmendi baserria zeharkatzen zuena Basarte eta Abarizketa baserrietara bidean; ondoren, Usurbeko ezkerreko mendi-mazela horretatik zehar zati bat egin eta mendi horren gibelaren eta Azti muinoaren (ezkerrera kokatua) artean luzatzen zen, Agortako (orokorki Usurbeko "txabola" izenez ezagutzen zena) bidegurutzera iritsi arte. Ondoren, bideak mendirako norabidea hartzen zuen, Murumendirantz.

Berez, mendira egiten zuen bidexka publiko hori antzina Kale Nagusian, Bideburu izen egokiarekin ezagutzen zen etxearen parean, abiatzen zen bidearen adar bat da (garrantzi gehien zuten hiruetako bat agian); aldapan gora luzatzen zen Andre Mari kalean barna parrokiaraino iritsi arte eta 1905etik aurrera Seroretxea eta Elosegienea (Artzaienea) etxeen artetik iragaten zen, Muruerrekatxoaren ezkerraldetik.

Ehun metro aurrerago ezkerrera egiten zuen bortitz, egun Dr. Fleming kalera doan errepidetik aurrera jarraitzeko, hain justu, Arangoitiko atalari dagokion 121. argazkian gezi txuriz batez eta A3 hizkiz adierazten dugun bidegurutzeraino. Hortik aurrera Arizmendi baserriraino iristen zen, 120. argazkian ikus dezakegun moduan. Hortik Abarizketa baserrietara joateko ibilbide nagusia 120. argazki horretan A3 hizkiz adierazi duguna da. Hortik aurrerako ibilbidea aurreko lerroaldean deskribatu dugu.

Paulino Aranburu eta Juan Lasak (azken hau Basarte bekoa baserrikoa) adierazi zidatenez, 120. argazki horretan A2 eta A3 hizkiz adierazi dugun zonaldearen gainetik "frantses bide" izendatzen zen bidea ere iragaten zen. XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran frantziarrek hainbatetan egindako inbasioak oroitzen dira izendapen horrekin.



Egun bide hori sasien artean galdu da eta baita gure oroimenean ere.

Bide "entzutetsu" hori hasiera batean Matxinbentako zonaldetik zetorren eta, Urolako arroa horretatik Oriako arroara iritsi arteko ibilbidea nahikoa zehaztuta geratzen da irakurri ditugun dokumentuetan. "Entzutetsu" diogu nahikoa normala delakoa lureremu ezberdinen jabeek (baita mendigunearen beste aldean ere, Matxinbenta aldera) edota Oto baserrietako jabeek haien onibarrak deskribatu eta mugatzerakoan sarritan "frantses bide" hori aipatzea, beren lurretako mugakide gisa.

Adibide batera, aipagarri da XIX. mendearen amaiera aldera Gregorio Irastorzaren jabetzako 4.030 m²ko lur-eremu bati buruz esandakoa: *"…que el **frantses bide** confinaba al Norte justo con el caserío Oto goena de Matxinbenta"*. Halaber, bestelako muga batzuk irakurtzen dira Mandubia mendatearen iparraldera kokatutako zonalde horretan. Horietan Jose Maria Lasa eta Felipe Aranaren jabetzako hainbat lur izendatzen dira, aipatu bidearen beste sektore baten mugakide zirenak. "Frantses bide" hori Frantziako militar inbaditzaileek garai hartan eratutako bidea zen, kostaldetik hurbil dagoen zonalde horretatik Goierriko haran honetaraino dagoen distantzia murrizteko xedez.

Juan Lasak adierazi zidanez, era berean, bere baserria zen Basarte bekoaren gainetik beste bide bat igarotzen zen, bere arbasoek beti "oleabide" (aipatzen duen moduan idazten dugu hemen) izenez ezagutu izan dutena. Igartzako burdinola gertu zegoen eta, itxura batean, hara egurra eramateko erabili ohi zen aipatu bidea. Hark esandakoaren arabera, egun ez da ia garraioetarako bide horren aztarnarik geratzen. Dena den, berak oraindik oso argi oroitzen du. Guk hartuta bezala ematen dugu, baina biek emandako azalpenekin ere ez gara gai ibilbide horiek osatzeko, ez "frantses bide" horrena ezta "oleabide" izendatutako bidearena ere.

120. argazkiaren beheko zatian, eskuinera, A5 hizkiz bide zuri bat adierazten da. Bide horrekin erakutsi nahi den galtzada ez da errepide berria, hala badirudi ere, baizik eta Goikoetxea edo Santi baserrira (Pilar Arratibelen arabera, haiek "Auzkoetxe" izenarekin ezagutu izan duten beti baserri hori) zuzenean abiatzen zen bidea. Baserri hori antzina Aierdi izendatzen zuten zonaldean lekutzen zen (eta lekutzen da oraindik), hain zuzen, "Egibide" izenarekin (agian Egileorreko bide esan nahiko zuten?) ere ezagutzen den paisaiaren erdian. Bide horrek aurrera jarraitzen zuen Egileor (egun aiurriak baino ez dira geratzen) eta Untsain baserrietara iristeko.

Bide hori bat letorke 122. irudian F1 hizkiz adierazitakoarekin. Jarraian ikusiko dugu hori. Bide batez esan, 122. irudian agertzen den Goikoetxea edo Auzkoetxe etxea (Santi baserria) nahikoa berria dela, izan ere, 1919an eraiki zen. Baserri horretara zihoan bide zaharraren adar hori egun Dr. Fleming kalera eramaten gaituen bidegurutzea baino berrogeita hamar metro gorago abiatzen zen gutxi gorabehera, zehazki esatera, Erauskin auzorantz luzatzen den errepidearen ezkerrera paratzen den etxea baino apur bat lehenago.





120. argazkian A6 hizkiz adierazi dugun bidea Pilar Arratibel eta Paulino Aranburuk "errotabide" izendatu izan dute beti etxean. 123. argazkian ere ikusten da bide hori. Argazkia beste angelu batetik aterea dago (90º baino gehiagoko bariazio batekin), ia Igartzako zonaldetik ikusten delarik. Paulinok esandakoaren arabera, 120. irudian A7 hizkiz adierazten den bidexkari "elizbide" edota "kanpusantobidea" esaten zioten etxean.

1961. urteko argazki hori paregabea da eta nekez aurkituko da Arizmendiko zonaldean zeuden bide zaharrei buruzko informazio gehiago eskainiko duen garai horretako argazkirik.

Ia Igartzatik aterea dagoen 123. argazkiari heltzen badiogu, ikuspegi berezi horretatik gauza oso bitxiak ikus daitezkeenaz ohartuko gara. Esate baterako, goiko aldean, ia ertzean, F2 bide ikus daiteke, hasiera batean Martoenaldeako bide gisa ezagutzen zena eta Erretoretxean, hain justu, parrokiaren atzean, desbideratu egiten zena. Bide hori lehenengo ezkerrera okertzen zen, Martorena baserri zaharrera bidean; ondoren, Muruazpia, Murugoena eta Murua-Imiategi baserrietara jotzen zuen ia zuzenean. 124. argazkian ikus daiteke hori guztiori.

Urte batzuk geroago bide hori "Garineneako bide" izenarekin ezagutzen zen. Dena den, bide hori ere moztu egin zuten Ganzarain etxea igaro eta apur bat gorago, 1950. urtean Erauskinera zihoan bide berria eraikitzeko. 123. irudian goitik behera so eginez ikus daiteken eraikina, F2 bi ikurren artean dagoena, Gantzarainenea etxea da. Eskuinera, ia goiko ertzean, Garinenea etxea ikus daiteke, 1931n eraiki eta 1999an eraitsi zena. Azkenik, irudi horretan aurrekoaren alboan lekutzen dena Arizmendi baserria da, argazkiaren goiko aldean, ia eskuineko erpinean.

Kontu jakina da baserri hori aurrez aipatutako bi eraikinak baino 100 metro gorago kokatuta zegoela. Argazkiaren aireko ikuspegi nabarmena dela-eta, ordea, zonalde hori perspektiba lau batetik ikusten dugu eta baserria beste bi eraikinen ia parera kokatuta, baina hori ikuspegi horrek sortzen duen efektuaren ondorioa da.

123. argazkian ere 120. irudian erabilitako A1 hizkiak paratu ditugu Erauskinerako bideak leku horretan egiten duen kiribil eder hori islatzeko. Kiribil hori 120. argazkian oso ongi antzematen da. Hemen, ordea, begirada apur bat gehiago nekatu behar dugu. Halaber, beste ikuspuntu batetik "errotabide" izeneko bide zaharrak Igartzara bidean marrazten zuen ibilbidea ere adierazi dugu, Pilar Arratibel eta Paulino Aranburuk Arizmendi baserriari dagokion argazkiko kopiaren gainean adierazi bezala. Horretarako, aurreko irudi batean erabili dugun A6 ikurra ipini dugu.

Geltokiari dagokion 3. sektorean, 100. argazkian "errotabide" bide horrek egiten zuen ibilbidearen zati bat adierazi dugu, Arizmendi baserritik hasi eta lehenengo bidegurutzera iritsi arte, Andraiturri edo Andramendi baserriaren zonaldean.

XXI. mendeko bigarren hamarkadan mintzagai dugun gain honetaraino ere iritsi zen "aurrerabidea", izan ere, badirudi etxez hornitutako urbanizazio berriek Arizmendiko mendimazela (oso beheran ez dagoena) hau kolonizatuko dutela. 120. argazki berezi horri helduko diogu berriz ere, Arizmendi baserriaren zonalde guztia duela berrogeita hamar urte ikusten zen moduan ikusteko. Noski, Oriako haranaren gaineko talaia paregabe hori, dagoeneko ezin dugu ikusi 20. argazki eder horretan ikus daitekeen moduan.

Aireko irudi itzel horietan gauza ezberdin asko ikus daitezke, ezta?

MURU ERREKATXOARI JARRAITUZ

4. planoan eta 4a plano-zatian I hizkiarekin bi bider adierazita ikusten dugun lerro bikoitza ez da bidexka edo bide bat; aitzitik, "Muruerrekaren" (Sangroniz) ibilbidea da, hots, egun ibilbidearen azken 250 metroak lurpean egiten dituen errekatxoarena.

Ikusgai dugun zati horretan errekatxoaren balizko ibilbidea marrazten da, izan ere, 125. argazkian I2 hizkiz adierazi dugun moduan, errekatxoaren ibilguak Etxeberria Karrera etxearen (gerora Donjuanenea izenez ezagutuko zena) iparraldera paratutako baratze-zonalde hori zeharkatzen zuen. Eta 125. argazkian ikus daitekeenez, XX. mendearen erdialdera, artean, landu egiten ziren parrokiara igotzeko murru altuaren alboan zeuden baratzeak.

Argazki horretan hiru zirkulu zuri txiki marraztu ditugu teilatuetan; hori izango zen gutxi gorabehera Sorobilletas edo Ubiako xendra zaharraren ibilbidea. Dena den, xendra edo bidexka hori aurrerago deskribatuko dugu Iguain familiaren Arane garakoa etxeari dagokion atalean. Etxe hori izan zen XX. mendearen hastapenean **"Goikosoro"** izeneko lurretan (garai hartan Aranezarra baserriaren baitakoa) altxatutako lehen eraikuntza.

Aurrez aipatu dugun Etxeberria Karrera etxea (edo Donjuanenea) Aranezarra baserri zaharra baino apur bat gorago zegoen. 125. argazkian Muru (Sangroniz) errekatxoaren norabidea adierazteko ipinitako I2 bi hizkien eskuinera kokatutako eraikina da. 4. planoan eta 4a plano-zatian U hizkiaren eskuinera marrazten da eraikin hori.

Badirudi 4. plano horretan errekatxo hori parrokiara igotzeko bide zaharraren azpian sartzen dela zu-

zenean, diagonalean, itzulinguru edo bira handirik gabe. Baina ez dakigu errekatxo hori ordurako diagonalean lurpetik igarotzen ote zen, 1862. urteko 4a plano-zatian itxura batean islatzen den moduan, ala 126. argazkian I2 hizkiz eta puntu zuriekin adierazten dugun ibilbidea egiten ote zuen. Hau da, 1862. urtean Etxeberria Karrera edo Donjuanenea izeneko etxearen ekialdetik igarotzen bazen, parrokiara igotzen zen bide zaharra bortizki zeharkatuko zuen galtzadaren azpiko tunel batetik barna, ekialdeko fatxada horren amaiera aldera, ondoren, Etxeberria errekalde edo Donmigelenea etxearen (La Salle ikastetxe zaharra) baratzeko ipar eta ekialdeko pareta inguratuko zuen, eta, gero aurrera jarraituko zuen libreki Oria ibaira iritsi arte.

Ibilbide bera egiten jarraitu zuen Donmigelenea etxe hori La Salle ikastetxe zaharra zenean, 1964an egungo eraikuntza altxatu zen arte. Donmigelenea etxeko baratzea izan zena eta beranduago ikastetxe zaharraren jolaserako ataria izan zena inguratzen zuen harrizko pareta luze hori 1879an jadanik eraikia zegoen, izan ere, urte horietan, eraikina eta hartako etxaguntzak horrela balioesten zituzten:

> *"…solo a su huerta, a la tapia que contornea a ésta, y a los árboles frutales comprendidos en dicha finca, se le estima un valor de 3.358,8 reales de vellón…"*

Guk "Muruerreka" errekatxoak ibilbide diagonala egiten zuela pentsatzen dugu, 4. planoan eta 4a plano-zatian iradokitzen den moduan, izan ere, Ibero arkitektoak XVIII. mendearen erdialdera marraztutako zonaldearen inguruko plano zaharra hartzen badugu, hark ere modu bertsuan marraztu zuela ikus daiteke, Etxeberria Karrera o Donjuanenea etxe hori saihestuz argi eta garbi. Parrokiara igotzeko bide berrian egindako hormadun eraikuntzak ziur aski Muru errekatxo hori birbideratzea eragin zuela pentsatu nahi dugu, deskribatu dugun ibilbidea hartuz, 125. eta 126. irudietan islatzen dena eta hirurogei urtetik gorako beasaindarrok ezagutzen duguna.

Bestalde, badakigu, halaber, orduan Miguel Arrue onuradunaren jabetzakoa zen Donmigelenea etxetik ere bazela sarbide zuzena Muru errekatxora, zaldiei

edaten emateko, hain zuzen, aipatu etxearen sarrerako ate zaharretik luzatzen zen kalezulo batetik barna. 127. irudian Donmigelena etxera (hasiera batean Etxeberria errekalde izen egokia zuena) sartzeko atea ikusten da. Argazkian gezi zuri batekin adierazten dugu Muru errekatxorantz jotzeko bidea. Gerora, errekatxorako sarbide hori horma batekin itxi zen, hura desagerraraziz.

4a. plano-zatian ikus daitekeenez, "Muruerreka" errekatxoa Donmigelenea etxearen baratzeko ekialdetik ere igarotzen zen, hartako hegoaldeko teilapearen eta sutegiaren paraleloan; horietatik distantzia jakin batera, hala ere. Orobat, errekatxoaren beste aldean kokatzen zen etxetzarraren albotik igarotzen zen. Guk Y hizkiarekin adierazi dugu Abariatarren "Etxeberria" izenez ezagutzen zen eraikin hori. Beranduago, etxe hori Olaso, Abarinea edo Doñamarinea (karmeldarrena zenean) izenekin ere ezagutu izan da, garaiaren arabera.

1862an errekatxoa lurrazaletik igarotzen zen, hain justu, kotxe-tokien zonaldera iritsi arte. Udaletxearen alboan, Autoen Errepide Nagusiaren ertzean kokatzen ziren hiru teilape/kotxe-toki horiek, bata besteren ondoan. Gero azalduko dugu zer ziren kotxe-toki izendatzen ziren egoilerik gabeko hiru eraikuntza horiek. Gaur egun Kale Nagusiko hiru etxe kokatzen dira bertan, zehazki esatera, kale horretako 5, 7 eta 9 zenbakietan, hurrenez hurren.

4a plano-zati hori berriro hartu eta gezi marroi txikian erreparatuko dugu, izan ere, bertan Arantxiki eta Donmigelenea etxeetako teilatuak "oso bat" bailiran marrazten dira. Horren arrazoia zera da, orduan etxe guztiek beren teilapea izaten zutela, horien artean zegoelarik "Donmigeleneako sutegia". Errementariaren sutegi horrek ere Donmigelenea izena zuen (eraikin nagusiak bezalaxe), izan ere, etxearen lurretan lekutzen zen, baina, aldi berean, plazan zegoen Arantxiki etxearen iparraldeko paretari atxikita (Usurbe mendira eta parrokiara begira) zegoen.

Sutegi hori gordetzen zuen etxetxoak 71 m²ko azalera zuen. XIX. mendearen azken laurdenean 4.108 beloi-erreal balio zuen eraikin horrek. Kale berean bazen beste errementeria handiago bat, "Araneako Sutegi" izenekoa. Azken hori, gainera, errementariaren bizileku iraunkorra ere bazen. Galtzadaren beste aldean lekutzen zen, apur bat gorago, parrokiarantz, baina Andre Mari kale berean.

Etxeberria errekalde edo Donmigelenea (gerora La Salle) etxearen hegoaldeko horman, alde horretan bertan eta izen bereko sutegia zegoen lekuaren parean, era berean, orduan etxeko teilape nagusi izendatzen zutena kokatzen zen. Hegoaldeko teilape edo estalpe nagusia hartzen zuen orube horren gainean, urte batzuk geroago, sukalde berria eta terrazadun ikasgela bat eraiki ziren, antzinako ikastetxearen lehen solairuan. Horrenbestez, argi dago 4. plano orokorrean eta 4a plano-zatian bi etxeak elkarri lotuta marraztu baziren bakoitzari atxikitako eraikuntzengatik zela, izan ere, orduan eraikin guztiek teilape edo estaldurak zituzten atxikita.

1862. urteko 4. plano horren arabera, errekatxoak Etxeberri etxeko, Hilarionenea edo Maizenea etxeko, Aranberri ostatuko eta Udaletxeko (egun plazan dagoen Udaletxeko eraiki berriak hartzen dituzte orube horiek) eraikinen atzetik jarraitzen zuen gero, beti lurrazaletik, errepidearen ondora iritsi arte, 4. planoan eta 4b plano-zatian X hizkiarekin adierazitako zonaldearen parean ia. Zonalde hori, garai horretan, Aranberriazpikoa (Telleria etxea antzina) etxe berritik oso hurbil zegoen, zeina, aldi berean, aurrez aipatu ditugun hiru kotxe-toki horietatik gertu baitzegoen. Kotxe-toki horiek, beraz, etxe horretatik gertu zeuden, baina Kale Nagusian behera.

4. planoan eta 4b plano-zatian plazako zonaldeak luzexka eta ezberdina dirudien arren, berez ez zen ho-





rrela, izan ere, urte horietan Udaletxe zaharreko eraikinak eta haren aldameneko etxeak askoz aurrerago lekutzen ziren, plazaren erdialdera. 1924. urtean Udaletxea hartzeko eraikinak atzerago proiektatu ziren plazari zabalera handiagoa emateko, izan ere, urte batzuk lehenago plazak 4-5 metroko luzera irabazi zuen bertako "hormatzarra" bota ostean. "Hormatzar" hori hamar urte lehenago bota zen hartako arbelezko teilapeekin batera, plazak gerora erakutsi izan duen itxura modernoarekin eraiki zenean. Orduan "plaza arriba y plaza abajo" (plazape eta plazagain) izendatu zen bertsio moderno hori. Ikus hormatzar horren eskema, 4b eta 4c plano-zatietan gezi zuri bertikal banarekin adierazten dena.

4c plano-zatian, halaber, argi ikusten da Etxeberri etxearen iparraldeko muturra, Udalaren antzinako eraikinarekin lerrokatuta kokatzen zena, Arantxiki etxearen hegoaldeko fatxadaren erdialdera amaitzen zela ia. Horrela, orduan plazak ageri zuen itxura luzatu eta estua ikus daiteke. Hobeto ulertze aldera, bi etxeen antzinako kokapena lauki zuri batean sartu dugu. Horrez gain, 127a, 127b eta 127c argazkiak erakusten ditugu. Lehenengo bi argazkietan (Arantxiki etxearen hegoaldeko fatxada ikusten da horietan), oso argi ikusten da plazako eraikin zaharrak eta Udaletxe zaharra 6-7 metro aurrerago paratzen zirela. Gainera, Udaletxe zaharraren ertza bi zirkulu zurirekin adierazi dugu, erkaketa egin ahal izateko. 127c irudian 1924an eraikitako eraikin berriak ikus daitezke, dagoeneko oso atzera, plazari zabalera handiagoa emateko.

Muru errekatxoaren lehen lurperatzea Ibero arkitektoaren marrazkia aintzat hartuz egin zen, XVIII. mendearen bigarren erdian. Orduan tunel-zubi bat eraiki zen Autoen Errepide Nagusiaren (Madrildik Frantziarako errepide gisa ere ezagutzen zena) azpitik, Udaletxearen alboan. "Muruerreka" gutxi gorabehera X hizkiaren parean iristen zen ibaira, 4. planoan eta 4b plano-zatian ikus daitekeenez.

1924an Udaletxeko eraikin berriak altxatzeko obra egin zenean, errekatxo hori askoz ere gorago lurperatu zen, plazako Arantxiki etxearen (Santi etxea) inguruan, hain justu, Etxeberri eraikin zaharra (plaza zaharrean zegoen bost arkupeko etxea) zenaren atzetik. Hortaz, 1924an goragoko zonalde batean lurperatu zen Muru errekatxoa, 4a plano-zati horretan gezi zuri horizontal batekin adierazten dugu inguru hori.

Udaletxearen atzeko zonaldetik ezinbestez egindako lurperatze horren erruz "Muruerreka" errekatxoa nabarmen kaltetu zen, izan ere, XX. mendearen hasieran libreki jaisten zen lurrazaletik errepide nagusiraino eta, urte gutxiren buruan, 150 metro lehenagotik lurpetik igarotzera pasa zen. Ezagutzen ditugu Garineneako, "Igartetxeko" edota Andre Mari kaleko pertsona batzuk Muruerrekan karramarroak harrapatu izan dituztenak. Galdetu bestela Jose Asla, Jose Maria Ortega Lekue, Jose Mendizabal, Paulino Aranburu edota Urretabizkaia anaiei.

KABILDOAREN ERAIKINAK ETA LEHEN HILERRIA

Planoan F hizkiaren ondoan lekutzen diren lehen hiru eraikinak, hots, parrokia, Erretoretxea eta Seroretxea, dagoeneko deskribatu dira "Beasain, leiho bat iraganari" izeneko liburuan.

Gogoan izan, berriz ere, trenbidearen ibilbideari buruzko plano hau zehaztasun handiz taxutu zuen inge-

niariak ibilbidearen ezker-eskuin soilik trenbidetik gertuen zeuden zonaldeak islatu zituela, horiek baitira gehien interesatzen zitzaizkionak (4. sektoreko plano orokor honetan bi zirkulu zurirekin adierazten dugu trenbidearen ibilbidea). Hortaz, trenbidearen ibilbidetik urrunen zeuden gauzak, interesgarritzat jotzen ez zituenak, ez dira bertan islatu.

Hori dela eta, planoan ez da jasotzen Erauskin aldera zihoan harrizko galtzada, parrokiaren atzetik igarotzen dena. Martoenaldea bidea, izenak adierazten duenez Martonea edo Martorena baserrira abiatzen dena eta urte batzuk geroago "Garineneako bide" izenarekin ezagutuko zena, ere ez da jasotzen. Gaur egun, azken bide hori asfaltatutako errepidea da, Erretoretxearen atzean lekutzen diren etxe adosatuetara sartzeko baliatzen dena.

Antzina, bide horrek Muruazpia, Murugoena eta Murua-Imiategi baserrietara egiten zuen, aipatu mendi-mazelaren beheko aldetik, Goikoetxea edo Auzkoetxe baserri berriaren eskuinera. Bide hori (1950ean Erauskinera zihoan errepide berria egiteko moztu zena) "Fundiciones del Goierri" izeneko lantegi zaharraren (XX. mendeko bigarren erdiaren hastapenean, jadanik industria jarduna betetzen zuena) ezkerreko aldetik igarotzen zen. Eraikuntza hori oraindik errepidearen ertzean dago, bihurgune berean, "Gantzarainenea" etxea eta Tubos Arrizabalaga delakoaren lehen lantegiak kokatzen ziren gunera (egun Udaletxearen biltegiak daude bertan) iritsi baino ehun metro lehenago.

122. argazkia hartuko dugu berriro. Bertan, F2 hizkiz adierazten da Muruazpia, Murugoena eta Murua-Imiategi baserrietara doan bidea. Halaber, F1 hizkiz adierazten dugu Egileor eta Untsain etxeetara zihoan bide zaharra, "Egibide" izeneko paisaia zeharkatzen zuena, Goikoetxea edo Auzkoetxe etxearen ondotik, halaxe izendatzen baitute oraindik Arizmendi baserriko jabeek. F1 hizkiz adierazitako bide horren azpiko zatia A5 hizkiz adierazten da 120. argazkian, zeina Arizmendiri buruzko atalean ikusi dugun. F2 bidea ere F1 hizkiz adierazi dugun bidearekin elkartzen zen. 122. irudian oso ongi ikusten da "birtualki" nola elkartzen ziren, hain zuzen, Garinenea etxearen teilatu gainetik, irudi horretan bost puntu zurirekin adierazi dugun moduan.

Usurbe mendiaren hegoaldeko zonalde horretan errepide eta bidexkek armiarma-sarea osatzen zuten. Hala, bide batetik bestera pasa zitekeen sarri, aurreko bidexkaren kasuan ikusi dugun eran. Esan dugu F1 bide hori Egileor eta Untsain baserrietara bideratzen zela Goikoetxea edo Auzkoetxe (Santi baserria) igarota. Bada, bide hori, Untsain baserritik gora, Abarizketa baserrietatik zetorren bidearekin elkartzen zen eta, ondoren, Usurbe mendiaren atzealdetik luzatzen zen Agortako leporaino iritsi arte.

Sektorearen hasieran azaldu dugunez, plano orokor honetan hainbat gauza ez dira islatu. Horiek oroitu ostean, zonalde horretako beste bide batzuetatik barna abiatuko gara. Kasu honetan, ingeniariak parrokia inguratuz parrokia-etxera abiatzen zen bidea soilik marraztu du, izan ere, M. Ladamek hor eman zion amaiera 4. sektoreko lanketa honi. Antzeko zerbait egin zuen Arizmendi baserriko zonaldearekin, izan ere, hara sartzeko bide bakar bat ere ez zuen marraztu, baserriaren kokapena zehaztera mugatu baitzen.

Guk hutsune hori bete nahi dugu eta, horretarako, 124. argazkia hartuko dugu berriz ere, beste angelu batetik aterea dagoena. Argazkia 90º biratuta dago mendebaldera eta oso ongi ikusten dira bide horiek, mende oso bat igaro arren. F2 hizkiz adierazita Martoenaldea bidea ikusten da. Arestian esan bezala, Erretoretxearen aldamenetik igarotzen zen bide hori, hasiera batean, Martorena baserrirako desbideratzea zuelarik. Baserri hori XX. mendearen bigarren hamarkadaren amaiera aldera desagertu zen sute batek kiskalita. Argazkian azpiko zonaldean paratu dugu. Modu horretan, argazki horretan Ordiziarekiko muga berria ikus daiteke, Mariaratz inguruan. F3 hizkiz adierazi dugu parrokiaren atzealdetik Erauskin auzora, Usurbeko zonaldera, Murumendi aldera eta, ondoren, Matxinbenta eta Azpeitia ere luzatzen zen "harbidea".

Irudian harbide zaharrean Letemendi baserrirantz zegoen desbideratzea ere antzematen da. Horregatik, F3´ hizkiz adierazi dugu adar hori, gaur egun, auzobide estu bihurtu dena, zorua asfaltatuta. Gaur egun, Letemendi aldera doan zementuzko bide hori askoz ere beheragotik abiatzen da, Gantzarain etxetik ehun metro ingurura. Kasu honetan, aurrez aipatu dugun "Fundición Goierri" zahar horren eskuineko aldetik.

Zementatutako azken sarbidea nahikoa berria da, izan ere, antzina parrokiaren atzealdean zegoen "harbide zaharretik" barna igaro behar zen. F3 hizkiz adierazi dugu azken harbide hori.

F4 hizkiz adierazi dugu Letemendi baserritik igarotzen den bidea, hori ere Erauskin aldera doalarik. Baserri horretara heldu baino apur bat lehenago Ezkiagako zonaldetik (zehazkiago esatera, Ezkiabasokoa edo Ezkiabasotik) zetorren errepide zaharra "Igartetxeko" zonaldetik, hau da, ur-depositu zaharra lekutzen zen gunetik, zetorren bidearekin elkartzen zen. Argazkia airetikoa denez, perspektiba oso laua da, nahiz eta oso garden ikusten den guztia. Hala, F4 horretatik ezkerrera, Letemendi baserria ikus daiteke, ezkerreko ertzean finkatua. Ikus 124a irudian, gezi batez adierazita (azpialdeko galtzada baita), XX. mendearen erdialdera Ezkiagako zonaldetik Letemendirantz abiatzen zen errepide zahar hori nola igarotzen zen bi lur-ezponda handiren artean artekatua.

Izurra izurtzeko, 124. argazkian Mariaratzerako sarbideetako bat ere ikus daiteke, hasiera batean, Gantzarain zonalderako sarbide ere bazena. Goiko aldean, era berean, Idoiagako (Iyoia) zonalde garaiera bideratzen den galtzada ere ikusten da, Ordiziako jurisdikzioan. Ondoren bide bihurtzen da Murumendirantz abiatzeko. Hartako adar bat Zubiaurre edo Bentazuri eta Bentaberri etxeen artetik abiatzen zen, zehazki adieraztera, Lazkaibar zubiaren parean. Bidezidor zahar hori "Eperbide" baserrira zihoan, nahiz eta aurretik, eskuinera adarkatzen zen Sagastizabal garaikoa (Potxo) baserrira iristeko. Puntu horretan Idoiagako galtzadarekin ere elkartzen zen, zeina Ordiziako Garagartza plazatik abiatzen zen. Bide horiek adierazteko bi gezi bertikal zuri eta gezi horizontal zuri bat erabiliko ditugu, hurrenez hurren.

Orain hilerri zaharrera egingo dugu jauzi, 4. sektoreko plano orokorrean D hizkiarekin adierazten dena.



Nolanahi ere, 4d plano-zatian xehetasun gehiagoz ikusi ahal izango dugu. Hura izan zen Beasainen tenplutik at kokatu zen lehen hilerria eta 1917. urtera arte parrokiaren atzean egon zen finkatua. Egungo hilerriaren aurrekoa "Kalbario zelaia" izeneko zonaldean (Zelaeta) eraiki zen, urte hartako uztailaren 16an inauguratu zen eta 1989an eraitsi.

Kanpoaldeko lehen hilerria dimentsio apalekoa zen, izan ere, 350 m² eskaseko azalera zuen, Jose Martin Imaz Ibarbiak eskuzabaltasunez laga zigun 1/500 eskalako kopian ikus daitekeenez. Kopia hori, berez, aitonarena zuen, "El Americano" ezizenez ezagutzen zena. Hura izan zen Elizalde etxe zaharra bereganatu zuen azken pertsona. Gerora, etxe hori "Martiñenea" izendatu zen, 2001ean eraitsi zena.

1922ko plano horretan gutxi gorabeherako partzelatan banatutako lur-eremu handi bat ikus daiteke, 15.972 m²ko azalera zuena. Lur eremu hori izan zituen erabilpen zaharren arabera antolatzen zen, hala, besteak beste, baratzeak, laborantza-lurrak, hariztiak, sagastiak eta belardiak barneratzen zituen. Halaber, partzela garrantzitsuenetako jabeen izenak aipatzen

dira: Tirso de Olazabal, "Igartetxe" baserriaren atzean kokatutako lurren jabe modura (3. sektorean aipatutako 84b irudian ikusten den gizona); Jose Francisco Arana, Igartza errekatxoaren eskuinera kokatutako onibarren jabe modura; bidearen azpialdean, hilerriaren alboan, lekutzen ziren lurrak Udalarenak ziren; horiez gain, hainbat baratze ikusten dira, besteak beste, Elizalde edo Martiñenea, Igarzaetxea eta Ugartemendi etxeetakoak.

4. plano orokorra eta 4e plano-zatia hartuko ditugu berriro. Horiek aurrez aurre ditugula zera esango dugu, Donmigelenea etxeko goiko baratzea osatzen zuen lur-eremu berezi hori, T hizkiarekin adierazi duguna, XX. mendearen erdialdera oraindik landuta ikusi ahal izan dugula, kasu horretan, La Salle anaien eskutik. Jose Mendoza hura landuz oroitzen dugu. Gizon hura Cornagokoa zen (Errioxa) jatorriz eta bere emazte Rosa Laborde Abasolo eta bere familiarekin bizi zen Elizalde edo Martiñenea etxe horretan ("El Americano" zelakoaren etxe modura ere ezagutzen zen eraikina, hartako jabeak Puerto Ricon egonaldi luzea egin zuelako.

126. argazkian ere T hizkia erabili dugu Etxeberria errekalde (gerora Donmigelenea) etxeko baratzeak zuen itxura berezia erakusteko. 1862an taxututako 4 eta 4e planoekin erkatzen badugu (hura begiratzean, kontuan izan behar da argazkia 90º biratuta aterea dagoela, planoaren egileak erakusten duen ikuspuntuarekin alderatuta), 126. argazkian agertzen den harresitutako baratzeak mende bat igarota antzeko itxura zuela ikus daiteke. Aurreko lerroaldeetan aipatu dugunez, eskuinera ikusten den etxea Elizalde edo Martiñenea da, 2001ean eraitsi zena.

4e plano-zatian Arangoiti baserria ere ikus daiteke, B hizkiarekin adierazita; I hizkiarekin adierazten da aurreko lerroaldeetan aipatu dugun Muruerreka; Sorobilletas edo Ubiako xendra E hizkiarekin adierazten da; T hizkia du Etxeberria errekalde edo Donmigelenea etxeko baratzeak; eta, azkenik, U hizkiaren eskuinera, geziaren azpian, Etxeberria Karrera edo Donjuannenea etxea agertzen da.

1970eko hamarkadan zehar Andre Mari kalean hainbat eraikin altxa ziren eta horrek zonalde osoa berregituratzea ekarri zuen. Horren ostean, kalearen goialdeko zonalde horrek egun ezagutzen dugun itxura hartu zuen. Azkenik, Donmigelenea etxearen goiko baratze zabal hori kendu, lurrez bete eta lur-eremu hori lautu egin zen. Horrekin batera, ikastetxeko horma sendotu egin zen eta egun bertan eskailerak lekutzen dira. Eta, jakina, motordun ibilgailuentzako bide berri bat sortu zen, Urbialde izen egokiarekin izendatzen den zonalde berrira irtetekoa. Lekuan "autoentzako beste bide" bat ere sortu zen.

Zonalde horretan zeuden antzinako etxeetatik hiru baino ez dira geratzen egun, erabat zaharberrituta badaude ere. Parrokia, Seroretxea eta Erretoretxea.

ARANGOITIKO BEHEKO ZONALDEA

Asko hitz egin izan da Arangoiti baserriari buruz; eta, guk ere 2002an argitaratutako "Beasain, leiho bat iraganari" liburuan ere sakon deskribatu genuenez, herrigunetik hurbil eta aurrez izen bereko ospitale zaharra hartzen zuen orubean zegoelako, hemen ez dugu baserri horri buruz deus errepikatuko.

Arangoiti, hartako lur eta bideen inguruko 4e plano-zatiarekin batera 121. argazkia ere paratzen dugu hemen. 4. plano orokorra eta 4e plano-zatia taxutu eta ehun urtera atera zen argazki hori. Modu horretan, ondorio nahikoa zehatzak atera ditzakegu zonalde horri buruz eta mende horretan izan duen bilakaerari buruz.

Lehenengo irudiak behatuko ditugu eta ondoren hartuko ditugu 4 eta 4e planoak. 121. argazkian gezi batekin adierazten da Etxeberria Karrera edo Donjuanenea etxeko baratze txikietara zihoan "bidetxoa". Kurioski, irudi horretan, ehun urte beranduago, oraindik bidetxo hori ikus daiteke "denbora hartatik pasako ez balitz bezala". 4 eta 4e planoetako marrazkien egileak zehaztasun handiz jaso zuen bidetxoa. Etxeberria Karrera edo Donjuanenea etxetik hartako baratzera zihoan bidetxoaz ari gara. Baratzeak ere anitz ongi bereizita agertzen dira 121. argazkian.

1862an etxea eta argazkian ikusten den baratzea bi zatitan banatzen ziren: eskuineko aldeak 180 m2ko azalera zuen soilik; beste zatia etxearen alboan lekutzen zen eta 205 m2ko azalera zuen. Baratze bi horien iparralde eta mendebaldera zeuden lurrak 1862an, artean, Jose Ramon Mendia Ibarbiarenak ziren. Hura alboan zegoen Aranezarra etxeko jabea zen. Gizon haren baitan garai hartan lur-eremu asko zeuden udalerrian barna.

Ikusgai dugun zati txiki hau marraztu zen garaian Joaquin Maria Urdangarin ataundarra zen Echeverria Carrera edo Donjuannenea etxeko jabe berria.

121. argazki horretako azpialdean, Donjuanenea etxearen ezkerrera Aranetxiki agertzen da lehenengo. Azken etxe hartako jabea "Marimotz" ezizenarekin ezagutzen zen XX. mendearen erdialdera; ezkerrerago, hari atxikita Aranezarra etxe zaharretik geratzen zen erdia ikusten da; halaber, ezkerraldean, irudiaren azpialdeko erpinean, Andre Mari kaleko 11 zenbakiko atarian lekutzen den etxebizitza-etxea ikusten da, 1913. urtean eraiki zena, Aranezarra baserriaren ezkerreko erdiaren gainean. Etxebizitza-etxearen ezkerrera tunel bat kokatzen zen. Handik abiatzen zen Sorobilletas edo Ubiako xendra, baina aurrerago aipatuko dugu bide hori. Orobat, ezkerrera, irudiaren azpiko ertzean, Donmigelenea etxearen teilatua ikusten da doi-doi. Aurrez Etxeberria errekalde izena zuen etxe hori Miguel Arrue presbiteroarena izan zen XIX. mendearen erdialdera. Oso antzina, orube horretan Sagastigoitia de Yuso izendatu zuten etxea lekutzen zen, gorago lekutzen zen Sagastigoitia de Suso izeneko baserria (gerora Igartza etxea edo "Igartetxe") zela-eta; horregatik, Juan Calvete eta Catalina de

Sagastigoitiaren semea Esteban de Igarza izenarekin ezagutzen zuten 1556an.

Elizako dorrearen eskuinera, erpinean bertan, Erretoretxea azaltzen da; irudiaren erdialdera, parrokiaren ezkerrera, Elosegienea (Artzaienea izen okerrarekin ezagutzen dena) etxea ikusten da, 1905ean eraiki zutena; azpialdean, eskuinaldean, muga-mugan, hain justu, parrokiako sakristia berriaren azpian, Elizalde edo Martiñenea etxeko teilatuaren zati bat ikus daiteke.

Etxeberria Karrera edo Donjuanenea, Etxeberria errekalde edo Donmigelenea eta Aranetxiki etxeak nahiz Aranezarra baserri zaharretik geratzen zena hobeto ikuste aldera, 128. eta 129. argazkiak har daitezke. Bi argazki horiek berdin-berdinak dira ia, baina bata 180º biratuta bestearekiko. Modu horretan, eraikin horien aurreko fatxadak ez ezik, atzealdeko zonaldeak ere ikus ditzakegu. Bigarren argazkian Echeverria Carrera edo Donjuanenea etxeko baratzea eta bien arteko bidetxoa ikusten da argi. Etxe hori, ehun urte lehenago, 4 eta 4e plano zaharretako egileak oso ongi jaso zuen. Etxea eta bidetxoa gezi bertikal zuri banarekin adierazten dira.

121. argazkian ikusten diren bide nagusiekin hasiko gara orain. Ukaezina da, irudia eta 4e plano-zatia erkatzean, M. Ladame frantziarrak bikain marraztu zuela Arangoiti baserrira sartzeko bidea. Halaber, zeharka, baserri zaharraren orientazioa ere ikus daiteke bertan. Hala, ederki irudika dezakegu baserriaren fatxada nagusiak iparralde eta hegoaldeari begira zeudela, gutxi gorabehera.

1961eko 121. argazkian B2 hizkiz adierazten da artean etxe zaharrerako sarbide naturala zena. Era berean, ikur bera erabiliz adierazten da sarbide hori XIX. mendearen amaierako 130. argazkian. Sarbide hori eraikinaren atzealdetik igarotzen zen, hau da, iparraldera beha zegoen fatxadaren atzetik (egun Arangoiti Egoitza berrirako sarbide asfaltatua da). 121. argazki horretan azpialdean, eskuinera, Erauskin zihoan bidearen hastapen-puntua ikus daiteke (XX. mendearen hasierara arte Martoenaldea aldera ere bideratzen zena), Erretoretxerako adarkatzea ere agerian delarik. Irudi horretan aipatu bidea adierazten dugu berriz ere gezi horizontal zuri eta txiki batekin.

B3 hizkiz adierazten dugu Erauskin aldera zihoan bidea, 1947-1950 bitartean eraiki zena. Badirudi, bide horrek 4 eta 4e planoetan U hizkiaren gainean marrazten den azpialdeko errepidearekin bat egiten zuela zonalde honetan. Lanketa hau osatzen duten plano ezberdinak behatuz ikus daitekeenez, azken bide hori, akaberan, Andraiturri (Andramendi) zonalderaino iristen zen. Zonalde horretan lekutzen ziren Dorronsoro familiaren eraikin zaharrak, hain zuzen, geltokiari dagokion 3. sektorean ikusi dugun mendi-mazela horretan. Eraikin horiek oraindik atzealdean kokatzen dira, hots, mendialdean; gaur egungo Foru Kaleko 15. eta 17. atarietako etxebizitza-etxeen parean ia.

121. argazkiko B1 bide hori egun Dr. Fleming kalera sartzeko luzatzen den errepidea da. Kale horretan gora, gezi horizontal zuri batekin adierazten dugun gunean, antzina Arizmendi baserrira zihoan A3 errepidea iristen zen perpendikularki. Argazkian bide hori antzeman daiteke. Gaur egun ere bide hori bertan da, sasi eta landarediak hartuta. Leku horretan, ia mirakuluz, gaztainondo zahar eta eri batek bizirauten zuen artean, urtez urte bere fruituak ematen zituena opari, auzoko bizilagunen pozgarri.

Paulino Aranbururen arabera, A7 bidexka "elizbide" izeneko bidea da, hasieran esan dugun eran. Bide hori 120. argazkian ere ikus daiteke apur bat gorago. Argazki horretan Arizmendi baserria ere agertzen da. Aipagai dugun argazki hau ere dokumentu ederra da artean aldaketa gutxi erakusten zituen XX. mendearen erdialdeko Beasain zahar hori oroitzeko. Aldaketa gutxi diogu, izan ere, artean lur-eremu libre eta landutako baserri asko eta larre-sail ugari ikusten dira, mendietara abiatzen ziren ondo zaindutako landa-bideekin batera.

Amaitzeko, Etxeberria Karrera edo Donjuanenea etxearen (121. argazkian B3 ikurraren azpian kokatutako eraikina eta 128 eta 129 argazkietan guzi zuri banarekin adierazten dena) gainean kontu garrantzitsu bat aipatu nahi dugu, "Beasain, leiho bat iraganari" izeneko liburuan jaso ezin izan genuena, orduan ez genuelako datua ezagutzen. Beti harritu izan gaitu Carrera arkitekto ospetsuek beren jaioterrian eraiki ahal izan zituzten balizko eraikinei buruz ezer ez irakurtzeak. Bada, orain badakigu, 128 eta 129 argazkietan ikusi eta gezi zuri banarekin adierazi dugun etxe eza-

gun hori Pedro de Carrera y Arana arkitekto beasaindar ezagunak eraiki zuela.

Historialarien arabera, maisu horrekin abiatu zen Carrera arkitektoen historia luzea. Eta, dokumentuetan agertzen dena aintzat hartuz, hura eraiki zuen *"…después de casado para vivir en ella con su familia…"* (ezkondu ostean eraiki zuen bertan bere familiarekin bizitzeko). 1704ko apirilaren 30ean ezkondu zela jakinik, ez da zail asmatzen etxe hori eraiki zen urtea.

Beasainen eraiki zuenaren inguruko zertxobait dagoeneko badakigunez, agian esangarri da, amaitze aldera, ustekabean hil zela bere jaioterrian 52 urte baino ez zituelarik (1679an jaio zen Errekarte aundin eta 1731n zendu zen). Uste dugun egokiro Etxeberria Karrera izendatutako bere familia-etxe horretan hil zela, Aranea etxetzar zaharraren alboan. Dena den, azken datu hori ezin izan dugu egiaztatu.

Etxeberria Karrera etxearen kokapenari buruzko edozein zalantza uxatzeko, hala irakurtzen da erabili ditugun dokumentuetan:

> ***"…la nueva casa se construyó enfrente de la del beneficiado de la Parroquia D. Miguel Arrue…"*** *(ésta última casa llamada Donmigelenea precisamente por el nombre de dicho sacerdote, más tarde se llamó Sangroniz por otro nuevo propietario, al tiempo que fue después antiguo colegio La Salle)*

Etxeberria Karrera etxe berria eraikitzeko asmoz (gerora Donjuannenea izango zena), Pedro Carrerak XVIII. mendearen hastapenean Pedro de Aranaren lurrak bereganatu behar izan zituen, garai hartan hura baitzen alboko Arane zarra etxeko jabea. Guztiok dakigunez, bi etxeok 20/25 metroko distantzian paratzen ziren. Antzina, etxera sartzeko atea beheko aldean zegoen, etxearen hegoaldeko aldean, bi eraikinen artean lekutzen zen belarrezko plazatxoaren alboan. Beranduago, eraikinean lau maizter bizi zirenez, sarrera aldatu egin zen eta parrokiako aldapa berritik abiatzen zen zubixka bat zeharkatuz moldatu zen.

Orain badakigu zergatik izena zuen etxe horrek Etxeberria Karrera. 2002an argitaratutako "Beasain, leiho bat iraganari" izeneko liburuan, 263. eta 264. orrialdeetan ere aipatu genuen etxea, baina artean ez genuen ezagutzen Carrera izenaren egiazko jatorria.

Guk dakigunez, Martin de Carrera y Aranburuk, aurrekoaren semeak, eraikitako beste eraikinen bat ere bazen. Hori dagokion atalean aipatuko dugu. Nolanahi ere, gaurdaino ez dugu ezagutzen Pedro de Carreraren bilobak, Manuel Martin de Carrera y Arzadunek (hirugarren belaunaldiak) Beasainen eraikitako eraikinik. Adituek diotenez, azken hori izan zen Carrera sendian prestakuntza onena zuen arkitektoa. Francisco Carrera birraitona ere maisu-hargin famatua izan zen Beasainen eta eskualdean barna.

Bide batez, ziur ez zenekitela Etxeberria Karrera edo Donjuannenea etxeko azken jabeak Guridi anaiak izan zirela. Bada, halaxe da eta horren nondik norakoak ezagut ditzazuen eta, aldi berean, 1982an eraitsitako Etxeberria Karrera etxearen epitafio modura, ezinbestekoa da bere 300 urtetako azken garaiari buruzko datuak azaltzea; ikus dezagun:

Maria Concepcion Irazusta Larreak, Aiako bizilagunak, etxe hori eta hartako baratzeak jaso zituen herentzian Jose Maria Azkue y Arretxerekin ezkonduta zegoen Josefa Larrea amaren eskutik. 1918ko maiatzaren 5ean etxea eta hartako lursailak Jose Guridi Balanzategi beasaindarrak erosi zituen. Ezkondutako hargin-igeltsero hura Alkate ere izan zen 1923-1930 bitarteko urteetan. Gizon hura, orduan, plazaren goialdeko muturrean, Andre Mari kalera sartzeko eskaileren parean eraikitako Guridi enea eraikineko jabea zen. Etxea 1905ean amaitu zuen, 10.500 pezeta xahututa. Hori guztiori aurrerago aipatuko dugu, 4. sektore honetan bertan.

1966ko maiatzaren 6an, Juan Jose eta Jesus Guridi Aldanondo anaiek, aldi berean, Concepcion eta Isabel Unzueta Herrera arrebekin ezkonduta zeudenak hurrenez hurren, etxe hori eta hartara atxikitako baratzeak bereganatu zituzten zati berdinetan, kasu horretan ere herentzian.

Azkenik, Guridi anaiek Agustin Irazustabarrena Ayestarani saldu zioten etxea (hartako lurrekin) 1969ko apirilaren 10ean. Gainerakoa guztiok dakigu, izan ere, etxe hura lekutzen zen tokian gaur egun Andre Mari kaleko 13. atariko eraikina dago. Hemen amaitzen dugu, bada, Etxeberria Karrera edo Donjuanenea etxeari buruz esan beharrekoa. Gogoan izan, hala ere, Pedro de Carrera y Arana maisu eraikitzaile entzutetsuak eraiki zuela eta bera bertan bizi izan zela.

Vargas Ponce historialariak bere arrazoibide ezagunetako batean ezarritakoa aintzat hartzen badugu, agian gai izango gara Errekarte aundi etxean jaiotako arkitekto hark urte haietan izan zuen garrantzia onartzeko. Ikus dezagun bada, aipatu historialariak harri buruz idatzitakoa:

> *"¿Quién sabe si en este Pedro Carrera, cuyo aprendizaje pudo subir a no muy mediado del siglo XVII, acabaron aquí las buenas máximas de la Arquitectura de que dan tan gentil testimonio sus obras anteriores?"*

Eta, Oñatiko San Miguel elizako portada begiztatzen badugu, agian gure egingo ditugu Varga Ponce jakintsuak esandakoak.

ARANEAKO JABETZEN BARNA - ARANE GARAIKOA ETXEA

Ikusgai dugun 4f plano-zatian hainbestetan aipatu dugun Sorobilletas edo Ubiako xendra ikusten dugu, E hizkiarekin adierazten duguna. Plano-zati hori kontuan izanez gero, bidea, hasieran, nahikoa zabala zen; egoera txarrean zeuden eraikinak lekutzen ziren zonalde horretan abiatzen zen, Mendiaenea handi etxearen iparraldeko teilapearen alboan (teilape hori goitik beherako gezi zuri batekin adierazten dugu 4f plano-zati honetan); behetik gorako gezia Araneako





Sutegi izeneko etxeari dagokio, Arane zarra baserriaren hegoaldeko fatxadari "itsatsita" zegoena.

Bidenabar esan, Luis Maria Mugicak Beasaingo toponimoei buruz argitaratutako liburuan, sakon bilatu badugu ere, ez dugula Sorobilletas izena aurkitu. Esku artean ditugun dokumentuetan ere ez dugu izen hori topatu, izan ere, bide hori "Senda Ubia" gaztelaniazko izenarekin agertzen da beti.

1862ko herriguneari buruzko 4. plano orokor honetan ikus daitekeenez, Iraola familiaren Arangoiti baserriaren azpian, artean, ez zegoen beste eraikinik belardi eta ereiteko lurrez betetako zonalde zabal horretan. Sorobilletas bide horren ibilbidea, ordea, partzialki marraztuta agertzen da. Dena den, planoaren egileak etenak egin ditu bide horretan nahieran eta haren amaiera ere ez da ikusten "autoen errepide berri" izeneko gunean.

Hemen ematen dugun 4f plano-zatian, E hizkiarekin adierazten den Sorobilletas bidearen goiko aldean, U hizkia ere ikus daiteke eta haren azpian V hizkia ere bai. Bada, esan dezagun U hizkiarekin markatutako zonaldean kokatutako lur-eremu gehienak Goikosoro eta Ubialdea izendatzen zirela; haatik, V hizkiarekin adierazitako zonaldean lekutzen ziren lur-eremu gehienak Bideburu izenez ezagutzen ziren.

4. sektoreko planoan V hizkiaren azpian agertzen den bidea egungo Kale Nagusia da; 1862an errepidearen iparraldeko ertzean, Bideburu etxe zaharraren ezkerrean, ez zegoela eraikinik ikus daiteke (egoera horrek asko iraun ez bazuen ere). 4. plano horretan eskema modura ematen da etxe hori, zeina 4f plano-zatian zeiharreko gezi marroi batekin adierazten dugun. Egun, kale horretako 13. ataria dago bertan, hots, Olave izeneko etxea, 2009. urtera arte Isabel Martinez Sarasolaren tabako-denda hartu zuena.

Kalearen iparraldeko zonalde horri dagokion oro ere aurrerago aipatuko dugu. Aurreko kapituluan ikusi dugun aireko 121. argazkian, zeina plano hauek marraztu eta ehun urtera atera zen, Arangoiti egoitzara eskuinaldetik sartzeko B2 bidea ikus daiteke, eta baita Erauskin aldera abiatzen zen B3 errepide berria ere.

1862ko 4 eta 4f planoetan oraindik ez da etxe bakar bat ere ikusten U hizkiarekin markatzen diren Goikosoro eta Ubialdea izeneko lurretan. XX. mendearen hasieran, ordea, lehen etxea agertzen da herriguneko mendebaldeko zonalde hori "kolonizatuz". Irakurri ditugun idatzi guztietan Aranegaraikoa izenez agertzen da etxe berri hori. Beasaindarrek, ordea, XX. mendearen erdialdera, artean, "Iguain Etxea" izendatzen zuten hura, izan ere, familia hark bereganatu zuen gerora, jarraian deskribatuko dugunez. 130. argazkian etxe hori ikus daiteke ospitalearen azpian lekutua.

Etxe hori izan zenez XX. mendearen hasieran Beasaingo zonalde horretan eraikitako lehena, eta 2002an argitaratutako "Beasain, leiho bat iraganari" liburuan 1897. urtean herrigunean zeuden 40 etxeei buruz egindako deskribapenean aipatzen ez denez, artean eraikitzeke zegoelako, hari buruzko deskribapen eta historia laburrean apur bat gehiago sakonduko dugu irakurleen baimenarekin.

130. argazkiko etxe hori ikustean, era berean, Sorobilletas edo Ubiako xendra hori E1 hizkiz horizontalki adierazten dela ikus daiteke. Beste bidea, E2 hizkiz adierazten dena, oso ongi ezagutu dezakegu gaur egun, izan ere, hartatik geratzen den tartea moldatu egin da Arangoiti egoitza berrira sartzeko eskailerak egiteko, zahar-etxearen eta Urbialden eraikitako etxebizitza-etxe berrien artetik abiatzen dena.

Halaber, ez da zail kokatzen irudiaren eskuinera B2 hizkiz adierazten den beste sarbidea; antzina Arangoiti baserri zaharrera sartzeko bide zaharra zen hori eta, gaur egun, egoitza berrira sartzeko bide asfaltatu modernoa da. Sarbide moderno hori beste argazki batzuetan ere markatu dugu, esate baterako, kapitulu honetan erakutsi dugun 121. argazkian. 4. sektoreko plano orokorrean ere eskema modura ematen da.

XX. mendearen hastapeneko 130. argazki horretan, noski, ezin da Arangoiti ospitalearen ezkerrera finkatutako eraikina agertu, 131. argazkian ere gezi batekin adierazi duguna, izan ere, 1918an eraiki zen kutsatuen pabilioi delakoa da hori. Ospitalera atxikitako pabilioi hori, hain zuzen, urte haietan herria astintzen zuten tifusak eta gripeak jotako gaixoak bertan sartzeko eraiki behar izan zuten. 60 pertsona hil ziren Beasainen izurrite horiek eraginda.

Bitxia da gaur egun dagoeneko urbanizatuta dagoen zonalde horren barruan "gertu eta urrun" terminoak zehaztea, Aranegaraikoa etxea kokatzen zen leku horretan (orduan horren urrun) egun San Inazio kaleko 6. 8. eta 10. atarietako etxebizitza-etxeak kokatzen direla aintzat hartuz (horren gertu egun). Hain justu 130. irudiko zonalde ilun horretan, Aranegaraikoa etxearen atzealdetik iragaten da egun 1947-1950 bitartean Erauskin auzorantz egin zuten errepidea.

Etxe hori deskribatzean Goikosoro izeneko lur-eremu baten gainean eraiki zela esan ohi da. Lur-eremu hori banatu egin zen eta izen bereko beste lursail bat eratu zen bertan, 8.472 m²koa. Lursail horren mugei dagokionez, zera irakurri dugu dokumentuetan: Iparraldera, Mendia jaunen lur-eremuak ditu mugakide; hegoaldera, "Ubiako xendra" delakoa; ekialdera, Goikosoro izeneko onibar horren zati bat; mendebaldera, Arangoiti baserriko Felipe Iraolaren lurrak.

Bide batez, aipagarri da ekialdera mugakide ziren lur horiek antzina Goikosoro izena zuen lursail nagusi hartako aztarnak zirela. Lursail hori Marcelino Olanok bereganatu zuen 1904ko abenduaren 3an, Ubialdea izeneko beste lur-eremu batekin eta Aranezarra baserri zaharraren ezkerreko aldearekin batera. Gizon hori Senpere auzokoa zen, hain zuzen, Senpereaundi edo Senpereburu baserrian jaioa, zeina urte horietan Bernarda Garmendiaren (Ibarrako Ramon Mendizabal Azkueren alarguna) oinordekoen jabetzakoa baitzen. Gerora, 1904an baserria S.E.C.M. enpresak (Bagoi Fabrika) eskuratu zuen eta txaleta egin zuen haren tokian.

XX. mendearen hastapenean Aranegaraikoa etxea eraikitzeko erabili ziren lur horiek Guillermo, Jose Maria, Miguel eta Dolores Mendia y Aranburuk saldu egin zituzten. Guztiak ezkongabeak ziren, lehen hirurak apaizak eta arreba etxekoandrea. Lau anai-arreba horiek Jose Ramon Mendia Ibarbia eta Blasa Aranbururen seme-alabak ziren, orduan Aranezarra etxe zaharraren eta hartako etxaguntzen jabe zirenak. Gizon hark Beasain eta Arriarango zonaldean zituen bere jabetza gehienak.

Lau anai-arreba horiekin Mendia sendiaren zuzeneko adarra galdu egin zen, zeina XIX. mendearen bigarren erdialdean Beasaingo ondare handi baten jabe baitzen. Mendia anaiek, hurrenez hurren, Azpeitia, Irun eta Itxasoko parrokietan betetzen zuten beren jarduera eliztarra, benefiziodun gisa.

Ikus dezagun orain Aranegaraikoa etxearen ibilbide historikoa. Gogoan izan baserri hura izan zela herrigunearen mendebaldeko zonaldean eraiki zen lehena, artean bertan ez baitzegoen inolako eraikuntzarik. 1898ko urriaren 13an Mendia anai-arrebek 2.000 pezetaren truke saldu zuten lursail horren zati bat, 8.472 m²koa. Antonio Atorrasagasti Arregui beasaindarra izan zen eroslea, saskigilea eta Marta Oyarzabalekin ezkonduta zegoena. Gizon hark 1905eko urtarrilaren 12an erregistratu zuen lursaila eta, aldi berean, 109,50 m²ko orube baten gainean 130. irudian ikus daitekeen etxe berria eraiki zuen nahi izan zuen eran.

Orduan beheko solairuak, solairu nagusiak, lehen pisuak eta ganbarak osatzen zuten Aranegaraikoa; sarrera hegoaldetik zuen, hau da, Sorobilletas edo Ubiako xendratik barrena iristen zen etxearen sarrerara, argazki horretan E1 hizkiz adierazita ikus dezakegun moduan. Urte horietan haren balioa 8.200 pezetakoa zen.

Ez da hor bukatzen etxe horren historia laburra, izan ere, 1907ko maiatzaren 3an Jose Atorrasagastik eraikuntzaren %19,68 saldu zion Elias Apalateguiri, 1.361 pezetaren truke; higiezinaren %28,48 Jose Goicoechea Urdangarinek eskuratu zuen 1.969,9 pezeta ordainduta; eta, azkenik, etxearen %51,84 Jose Angel Berecibarrek erosi zuen, 3.586,18 pezetaren truke. Kasu zehatz hartan eraikitako eraikina baino ez zen saldu, izan ere, etxe hura hartzen zuen lur-eremua haren jabetzako gisa mantendu zen.

Gizon horien ostean, etxea Jose Maria Lasa Aranburu eta Jose Vidal Aguirre Gaztañagak (barauts helikoidalen fabrika ezagunekoa. Gerora, Andoaingo Laborde Hermanos enpresak jarraitu zuen produktu hura ekoizten) eskuratu zuten.

Erakusten hasita, 132. argazkian Arane garacoa etxea izan zenaren teilatua antzeman daiteke, 1936an Ibulus baserriko Candida Jauregiren despedidara bertaratutako festazaleen artean. Hori aipagarri deritzogu, har-

tako etxabeetan ere estatuan barauts helikoidalak ekoizten lehenengoa izan zen fabrika ezagun hura ezarri zelako denbora batez. Lantegi hartako teilatua zirkulu gorri batekin adierazten dugu. Irudiaren eskuineko ertzean, halaber, Elosegienea (Artzaienea) etxea, Seroretxe eta orduan eraiki berria zen Garinenea etxea ikus daitezke.

Azken buruan, Miguel Andres Iguain Irazustabarrena igeltseroak bereganatu zuen etxe hori aipatu gizonen eskutik, jarraian deskribatuko ditugun hiru lursailekin batera: Aranegaraikoa 163,88 m²koa (hor 109,50 m² dituen etxeko orubea ere barneratzen da), Goikosoro izeneko ereiteko lur-eremua, 2.036 m²koa eta izen bereko beste lursail bat, 664 m²ko azalera duena. XX. mendearen bigarren hamarkadaren amaiera aldera etxeak eta hartako lurrek jadanik 26.098 pezeta balio zuten gutxi gorabehera.

1928. urtean gaude jadanik. Maiatzaren 18an Miguel Iguain Irazustabarrena eta Maria Josefa Telleria Iza senar-emazteek testamentua egin zuten, haien bederatzi seme-alabak izan zirelarik onuradunak. 133. irudian haietako lau seme agertzen dira. Irudiaren egile anonimoak 1941ean atera zuen argazkia. Ezkerretik eskuinera hauek dira anaiak: Jesus, Jose Cruz, Nicomedes eta Angel Iguain Telleria.

Urte horietan izan zen aldaketarik, izan ere, jabetza hori deskribatzean hala esaten da: Etxea eta hartako lurrek hegoaldera "Ubiako xendra" izenekoa dute mugakide; iparraldera, Benefizentziaren baratzea; ekialde edo eskuinera, Marcelino Olanoren Goikosoro lurrak; mendebalde edo ezkerrera, Benefizentziara doan bide zuzena (130. argazkian EZ hizkiz adierazi duguna). Deskribapen horretan aipatzen denez, lursailaren aurrealdean (hegoaldera begira zegoen aldean) burdinazko hesi bat zegoen eta, era berean, horma batek inguratzen zuen perimetro osoa.

Historiaren amaieran gaude ia, izan ere, 1950. urteko ondar egunez Pedro Jose Iguainek Argentinarako bidea hartu zuen. Pertsona famatua izan zen, izan ere, Udal Musika Bandako Zuzendari izan zen 25 urtean eta, horrez gain, berak sortu zuen Loinaz Abesbatza. Hamaika egun lehenago, 1950eko abenduaren 20an Pedro Jose Iguain Telleriak Natalia Azurzarekin ezkonduta zegoen Ramon Ormazabal Erauskini (orduan Indar fabrikako nagusietako bat zena) saldu zion etxea. Salmenta 50.000 pezeta ordainduta gauzatu zen.

Hura izan zen leku pribilegiatu horretan eraiki zen lehen etxearen azken jabea. Ondoren, eraikina eraitsi egin zuten 134, 135 eta 136 argazkietan ikus daitekeen txalet ederra eraikitzeko, 1990eko hamarkadaren hasierara arte San Inazio kalean ikusi ahal izan genuena. Gazteagoak direnentzat txalet hori gezi zuri banarekin adierazten dugu aipatu hiru irudietan.

Argazki horietako lehenengoan, irudiaren ezkerraldean, Ormazabalen txalet berria ikus daiteke. Bigarren argazkia airetikoa da eta txalet hori goialdean dago bertan; irudiaren azpialdean, ezkerrera, Haur Eskola orduan berria ikus daiteke, 1944an eraiki zutena. Egun San Jose ikastetxe zaharberritua dago bertan, San Inazio kalean ikus dezakeguna. Hirugarren irudian San Inazio kaleko zabalgune berriaren hasiera ikus daiteke, artean orube asko eraikuntzarik gabe daudela. Halaber, Kale Nagusian finkatutako eraikuntza askoren atzealdeak ikus daitezke. Horien

artean, batzokiko pilotaleku luzearen (2006an eraitsi zena) kanpoaldeko silueta antzematen da, egun San Inazio kaleak hartzen duen orube huts horretatik hurbil.

Berriz ere 135. eta 136. argazkiak hartuz zera ikus daiteke, Sorobilletas edo Ubiako xendra zaharraren ibilbidea bi irudi horietan hiru zirkulu zurirekin adierazten dena dela; gutxi gorabehera, txaletaren erdialdetik igaroz, gero ikastetxeko espaloiaren albotik Urbi baserrirantz eta, azkenik, baserri horren goiko aldetik, garai hartan Bistalegre izendatzen zen zonaldera iristeko. Leku horretan, XX. mendearen bigarren erdialdean, aipatu bidea autoen errepidera iristen zen (ordurako N-1 Errepide Nazionala deitua) artean, Irizar-Zaballos sendien baitako Majonea etxearen eta Gabriel Murgiondoren etxearen (bertako etxabetan kokatu zen beranduago Martin Ehunak) artetik. Geltokiari dagokion 3. sektorean azaldu dugu hori.

136. argazkian, goiko aldean, ezkerreko erpinean Urbi baserriaren atzeko estalpea agertzen da. Hori Aranburu familiak animaliak gordetzeko erabiltzen zuten eraikina da. Era berean, hortxe kokatu zuten 1940-1950 bitarteko hamarkadaren erdialdera galdara-lantegia Aranburu anai biek. Hori gezi marroi batekin adierazten dugu.

Lerroalde horiek irakurri ostean, egun San Inazio kalea begiztatzean jakingo dugu Aranegaraikoa izeneko lehen etxearekin hasi zela herriaren mendebaldera kokatutako lur-eremu erabili gabeetan gauzatutako inbasioa. Aipatu etxea 1905ean erregistratu zuen Antonio Atorrasagastik.

"IGARTETXE" ZONALDEA, HURBILEKO MENDI HORI

Herriguneari dagokion 4. plano orokor horretan islatzen denez, 1862an lau etxe baino ez zeuden Beasaingo zonalde horretan, izan ere, 4g plano-zatian G hizkiarekin adierazten dugun eraikuntza ez zen bizitegi bat, baizik eta Igartetxetxe baserri zaharraren baitako estalpe bat. 137. argazkiko goiko aldean, estalpe horren teilatua adierazten dugun gezi bertikal zuri txiki batekin eta G hizkiarekin. Teilatu hori aurrean agertzen den Floreaga edo Mutegienea etxearen (gerora Estebanen etxe izendatu zena) gainetik altxatzen da.

4g plano-zatiaren goiko aldean, halaber, Igartetxe baserria ere ikus daiteke, aipatu estalpearen ondoan. Plano-zati horretan Z hizkiarekin adierazten dugun etxea, hain zuzen, Floreaga edo Mutegienea etxetzarra da, urte horietan Nicolas Eugenio Gomez de Teran, Torrepinareseko kondearen jabetzakoa zena. Aipatu kondea Los Santos izeneko herrian (Badajoz) bizi zen orduan. 1880an hark saldu egin zuen etxea, bertako etxaguntza guztiekin batera. Jose Lasa Irastorza izan zen eroslea, Esteban Lasa apaiz erudituaren aita. Apaiza izan zen, etxearen azken jabea.

XIX. mendearen erdialdera etxe eder horren jabe ezezaguna nor zen jakin genuenetik, jabetza horren arrazoia ezagutu nahi izan dugu, izan ere, gizon hark, itxura batean, ez zuen inolako sustrairik lurralde hauetan. Gai horretan sakontzearen sakonduz Abaria sendiaren adar batetik eratorritako herentzia bat topatu genuen, azkenik aipatu gizonaren arbasoetako batek bereganatu zuena.

Gure lurraldean (lur, mendi eta etxe gehienak beti garaiko konde, duke edo markesen eskuetan izan diren arren) ez zen ohikoa gure lurren jabeek euskal sustrairik ez izatea. Nahiz eta aristokraziako klase horietako asko Madrilen bizi eta Gipuzkoara uda partean soilik etorri, sasoi horretako oporraldiak pasatzera "Erregearen Familiarekin" Donostiara hurbiltzen zen Gorte handiaren babesean.

Hori horrela izanik azal daiteke agian, Beasaingo Ubiñarte, Floreaga eta Nekola etxeak Abaria sendiak beren ondorengoentzat eraiki edo proiektatu (sendi horretako zenbait kide arkitekto garrantzitsu ere izan



baitziren) izana. Etxe horiek, gainera, oso antzekoak ziren elkarren artean eta oso egitura berezia zuten.

Ubiñarte eta Nekola baserriak Abariatarren baitakoak izan ziren ia 300 urtez; eta, dakigunez, Floreaga edo Muteginea etxea ere Abaria sendiko kide baten baitakoa izan zen. Dena den, azken hori ezgaitua izan zen, izan ere, ez zen familia horretako adar nagusikoa eta ez zuen maiorazko horren baitako ondareen gaineko eskuduntzarik. Esan bezala, hiru eraikuntzek antzeko egitura zuten eta, maiorazko horren baitako laugarren eraikin batek ere bazuen antzekotasunik, plazako Arantxiki etxeak alegia. Azken hori besteak baino handiagoa zen, 325 m²ko azalera baitzuen. Horrez gain, bazuen beste alde nabarmenik fatxadetako batzuetan.

Arantxiki alde batera utziz, beste hiru etxeen dimentsioa antzekoa zen. Guztiek lau uretako teilatua ageri zuten eta eraikuntzen egitura ere berdintsua zen horietan. Aurreko lerroaldean izendatutako hurrenkeran 234, 250 eta 220 m²ko azalera zuten eraikin horiek.

Gai erakargarria da, zalantzarik gabe, etxe horien eraikitzailea nor zen asmatzen tematu eta guk baino zorte hobea izan dezakeenarentzat. Gaur egun bakar batek ere ez du antzinako egitura hura mantentzen, izan ere, Ubiñarte baserria goitik behera berregituratu zen 1990ean txalet bilakatzeko. Floreaga, berriz, 1988an eraitsi zen. Azkenik, Nekola baserria ere bota egin zuten 1991ko abenduaren 28an.

Baina, jarrai dezagun Floreaga, Muteginea eta Minteginea izendatu izan den etxe itzel horren ingurumariak deskribatzen. 4g plano-zatian eta 4. sektoreko plano orokorrean arretaz erreparatzen badugu, Z hizkiaren ezkerrera, "estrata" izeneko igoera estua ikus daiteke, Kale Nagusian abiatzen zena (gerora Raimundo Suarezen "harrizko kalezulo" izenez ezagutuko zen gunean). Bide hori 137. argazkian H2 hizkiz adierazi dugu.

Irudi eta plano horietan, Z hizkiaren eskuinera, bi horma edo pareta islatzen dituen marrazkiaren inguruan ere parrokiara igotzen den bide hori ikus daiteke. Parrokia ere adierazi dugu 137. argazki horretan, kasu honetan H1 hizkiz. Etxearen parean inguralde bat ikus daiteke eskema modura, Floreaga etxearen aurrealdeko baratzea izango zena urte horietan. 4g plano-zati horretan gezi zuri batekin adierazten dugun aipatu etxeak 240 m²ko azalera zuen orduan.

Baratzeari atxikita, era berean, aldamenean zegoen Abarinea etxearen bolaleku ezaguna finkatzen zen. Bolaleku horri izen berezia ezarri zitzaion azkenik, izan ere, XX. mendearen erdialdera, artean, zera esaten genuen: Vamos a jugar al "bolaleku" (goazen "bolalekuan" jolastera).

Z hizkia dagoen lekuan, aurrez aipatutako bi bideen ezker-eskuinera, etxearen alboko beste bi lursailak kokatzen ziren orduan, 1.794 eta 110 m²ko azalera zutenak, hurrenez hurren.

1862ko 4. sektoreko plano orokor horretan, Z hizkiarekin adierazitako etxearen ezkerrera, goiko aldean, antzina "Muruerreka" errekatxora zuzenean egiten zuen beste bide horizontal bat ikus daiteke. Errekatxo hori, gerora, Sangroniz errekatxo izenez ezagutuko zen, errekaren aldamenean finkatutako etxeetako baten jabea gogoratuz. Urte horietan bide hori animalia eta gurdiak errekatxora eramateko erabiliko zutela pentsatzen dugu. Errekatxo izendapenarekin agian gutxietsi egiten zen hura, hartako jarioa aintzat hartuta, izan ere, horrela jasotzen zuten zenbaitetan idatziz Muru izeneko ubide naturala.

4. sektoreko plano orokorrean askoz hobeto ikusten da bide hori, hain justu, Y hizkiaren azpian. Nolanahi ere, 1897. urtean ateratako 137. argazkian bide horizontal hori jadanik desagertuta zegoela ikus daiteke. Irudi horretan, halaber, Abarinea etxeko (Abariatarrek dokumentu batzuetan "Etxe Berria" idatzi izan dute) lursail hori guztiori dagoeneko hormaz inguratuta dagoela ikus daiteke, 35 urte lehenago errekatxoraino luzatzen zen bide hori zegoen zonaldean. Bestalde, 137. irudi horretan beste gezi horizontal zuri eta txiki batekin aipatu bideak igarotzen zuen lekua ere adierazten dugu. Irudi horretan Abariatarren onibar osoa inguratzen duen hormak itxita ikus daiteke gune hori.

Floreaga eta Abarinea eraikinek bazuten beste bitxikeria bat, hain zuzen, ur-putzuak, bi gezi zuri txikirekin adierazi ditugunak. Floreaga edo Muteginea etxean bertikalki marraztu ditugu, 137. irudi horre-

tako eskuinaldean; Abarinean, zeiharka taxutu ditugu geziak, 138. argazkian, erdialdean, goiko aldean. Azken horretan, halaber, 1957an Karmeldarrek etxea berreraiki ostean baratze edo atari hori abandonaturik geratu zela ikus daiteke. 138. argazkian gertutik ikus daiteke putzu eder hori. Aranburu anaiek bertan freskatu ohi zituzten edariak egiten zituzten bilkura gastronomikoetan edateko. Aranburu sendia zen Abariako maiorazkoaren titular zen Tirso de Olazabalen ondareak administratzeaz arduratzen zena.

1862an Abarinea etxeko jabea Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Olaso zen artean (bere amarengandik datorkio Olaso deitura eta, antzina, zenbaitetan abizen horrekin izendatzen zuten etxea); artean diogu, izan ere, hura plano hauek sinatu eta hurrengo urtean hil zen eta haren semeak, Tirso de Olazabal y Lardizabalek hartu zuen bere tokia maiorazkoan. Azken hori 3. sektoreko 84b argazkian ikusi dugu. Tirso de Olazabal Beasaingo "Etxeberri" horretan bizi izan zen denbora batez, nahiz eta bere ohiko bizilekua bere sendiaren baitako Irungo Olazabal Jauregia izan.

Arretaz begiratzen badugu, 137. argazkiko eskuineko zonaldearen erdian beste errepide baten norabidea adierazten da H hizkiarekin. Halaxe azaltzen da bai 4g plano-zatian eta baita argazkian ere. Orobat, planoan parrokiaraino nola luzatzen zen ikus daiteke. Tarte hori C hizkiarekin adierazi dugu, izan ere, apur bat lehenago bitan adarkatzen zen; batak parrokiarantz egiten zuen eta besteak eskuinaldetik jarraitzen zuen Letemendiko zonalderantz. Hurrengo lerroaldeetan azalduko dugu hori guztiori.

139. argazkia 4. sektoreko plano hau marraztu eta ehun urte beranduago atera zen. Bertan Sagastiguti izeneko mendi-mazela (1909an inauguratutako Letemendiko depositu zaharra kokatzen zen zonalde horretan) kolonizatzen hasitako etxe berriak ikus daitezke. Ikusiko dugunez, hemen nahikoa ongi errespetatu ziren errepide zaharren ibilbideak, H eta C hizkiz adierazten ditugunak oraindik. H bidea antzina Autoen Errepide Nagusia zegoen zonalderaino iristen zena da. Beranduago, 1956an Telefonicako lehen eraikina altxatu zen bertan. Gaur egun oraindik, agian bideak antzina zuen zortasuna dela medio, leku horretatik etxe horietara iristeko eskailera kaskar batzuk mantentzen dira, guztiak mendiaren hegoaldeko mazelan eraikiak. 137. eta 139. argazkietako hizkiak bat datoz 4 eta 4g planoetan agertzen diren ikurrekin.

139. argazkiko ezkerraldeko ertzean gezi bertikal batekin adierazten dugu C eta H hizkien artean kokatzen den bidea, bi lerroalde gorago aipatu duguna; goranzko bidexka hori Letemendi baserrira ere iristen zen, bai ezkerraldetik, F3´ ikurrarekin adierazi dugun bide naturalean zehar (aurrez 124. argazkian erakutsi duguna), bai eskuinaldetik ere, argazki berean ageri den F4 bidearekin bat eginez, zeina, halaber, Ezkiabasoko zonaldetik igotzen zen. 124a irudian askoz hobeto ikusten da aipatu bidearen jarraipena, kasu honetan Ezkiagatik igotzen zen beste batekin elkartuta. Egun leku horri erreparatzen badiogu, Letemenditik hurbil bide horien bidegurutzea ikusten da oraindik. Ezkiagatik zetorren sarbide zaharra oso argi antzematen da, egun baserrira doan zementuzko errepidearen eskuinera, ur-depositu zaharra dagoen hariztitik metro gutxira. Gaur egun landarediak hartuta eta erabat ahantzia dago.

Arestian "bolaleku" aipatu dugunez, on da 140. argazkia gainbegiratzea. Bertan Abarinea edo Doñamarinea (1957an berreraiki zen Karmeldarren ikasturtea hasteko) etxea ikusten da eta, era berean, gerora Leon Aranburu Gurruchagak espartinak egiteko fabrika lekutu zuen pabilioiaren teilatuko zati bat ikus daiteke. Urte horietan aipatu gizona plazako Aran txiki etxearen jabea zen jadanik. Aurrez Abariatarren baitakoa izan zen. 140. argazki horretan, halaber, gezi bertikal batekin adierazi dugu Leku Alai etxea, Ramon Oñatibiak bolalekuaren aldamenean eraiki zuena 1928-1929 bitartean. Leku Alai etxea ere bota egin zuten 2006an.

Azken etxe hori 1.368 m²ko lur-eremu baten gainean eraiki zen. Lursail hori, hain zuzen, "bolalekualdea" izenarekin ezagutzen zuten (horrelaxe idatzita). Hasiera batean (Zunzunegi familiak Ramon Oñatibiari saldu aurretik) Jose Aguileraren jabetzakoa zen. Azken hori Maria Pilar de Idiaquez y Corral, Igartzako Andrearen ezkontidea zen. Andre hark bere aita Francisco de Idiaquez y Carvajalengandik jaso zuen 1857an, herentzian. Hori horrela jasotzen dugu, izan ere, aipagai dugun guztia trenbidearen ibilbidetik hasi dugun irudizko bidaia baino soilik bost urte lehenago jazo zen.

Plano horretatik deskribatu ditugun irudietara ehun urte igaro ziren eta denbora horretan zonaldeak izandako bilakaera ezagutu dugu jadanik. Orain, auzo horretako biztanleei oroitzapen onak ekarriko dizkien argazki bat hartuko dugu, nahiz eta irudi horretan agertzen diren etxe guztiak dagoeneko ez dauden. 141. argazkiaz ari gara. Bertan "intxaurrondo" itzelaren inguruan ikus daitezke etxe zahar guztiak. Aipatu zuhaitza beste gezi horizontal zuri batekin adierazten dugu.

Ezkerrera, Y hizkiarekin, Olaso, Abarinea edo Doñamarinea (Karmeldarrak) izeneko etxearen teilatuko zati bat ikusten da eta haren alboan Leku Alai eraikina, 2006an eraitsi zutena; azken horren atzean Etxeberriaerrekalde edo Donmigelenea (Lasalle ikastetxe zaharra, 1964an eraitsi zutena) etxetzarraren zati bat antzematen da. Argazkiaren beste aldean, goran, ia erdian Elizalde edo Martiñenea etxea ikus daiteke, 2001ean eraitsi zena. Eskuinera Igartetxe etxea ikusten da. Haren 3. ataria Igarza etxea baserriaren gainean eraiki zen 1928-1929 bitartean eta, beranduago, 5. ataria eraiki zen. Azken bi eraikin horiek ere eraitsi egin ziren 2008an.

Irudi horretan bertan parrokiara sartzeko harbide zaharra adierazi dugu H1 ikurra ipinita; orobat, C bidea adierazten dugu, aurrekoarekin elkartzen zena, orduan bihurgune jarraikor bat eginez. Halaxe, hizki berak erabiliz, ikusten da 4. plano orokorrean eta baita 4g plano-zatian ere. Beranduago, bihurgune hori ia Iturrondo eraikin zaharretik abiatzen zen horma batek egiten zuen. Eraiki hori 1881-1882 bitartean eraiki zuen Jose Martin Aranak bere familiarentzat. Gaur egun, eraikina zaharberritua dago eta Kale Nagusiko 1 eta 3 zenbakidun atariak hartzen ditu.

Gaur egun, oraindik oso ongi antzeman daitezke bide horiek guztiak, izan ere, asfaltatutako bide bihurtu badi ere, sarbide berriak antzinako bideen gainean eraiki dira oro har. 141. irudian, azpialdean, eskuinera Igartetxe baserriko estalpea hartzen zuen orubearen kokapena adierazi dugu G hizkiarekin, eta 4. planoan ere hizki berarekin markatu dugu. 137. argazkian ere G hizkiarekin adierazten da eta, horrez gain, gezi bertikal bat marraztu dugu haren teilatuan.

Leku Alaieko intxaurrondoa aipagai dugula, auzoko zuhaitz enblematiko horren izena hartu zuen taberna ere aipatu behar dugu ezinbestean. Dena den, "Ferminaren taberna" modura ere ezagutzen zen, Fermina Aranburuk zuzentzen baitzuen, udalerriko abere-hiltzaile zen Jose Antonio Adurizen emazteak. Auzoko taberna tipiko horretan (urte haietako txikiteroek bestelako izen batzuekin ere ezagutzen zutena) elkartzen ziren auzoko zahar zein gazteak basoerdi, gaileta eta "patxintxien" inguruan. Udako sasoian, arratsaldearen freskotasunean, Leku Alai etxeko etxabean lekututako taberna horretako bezeroak intxaurrondoaren gerizpean ere eseri ohi ziren, zahatoa edo ardo-botila hartuta.

Jende asko aipatzeke uzteko beldurrez, auzoko zenbait abizen "ospetsu" emango ditut hemen: Artolain, Donazar, Ibisate, Arsuaga, Gorrotxategi, Unanua, Baztarrica, Ortega, Mendizabal, Igartua, Perez, Imaz, Muruamendiaraz, Larrañaga, Castellanos, Lasa, Zubillaga, Mendia, Aranburu, Esnaola, Korta, Paredes, etab.

Agapito Oyarbideren semea zen Manuel Oyarbidek esan zigunez, 1928an Tirso de Olazabalen alargunaren eskutik Igartetxe baserria eta hartako zenbait lur bereganatu zituen pertsona bere familiarekin hara iristekorako, aipatu intxaurrondoa jadanik landatuta zegoen. Txintxurreta baserritik iritsi ziren, orduan Galardi muinoaren oinean kokatuta zegoena, Senpere eta Lazkaibar auzoen artean. Beranduago deskribatuko dugu hori, "Fabrika Handiko" zonaldeari dagokion 6. sektorean.

Irudi bidez izan arren, 1962an, hau da, trenbideari dagozkion plano hauek taxutu eta ehun urte beranduago, Leku Alai eta "Igartetxe" etxeen zonaldeak zuen itxura begiztatzeko aholku ematen dugu, izan ere, 2008an jadanik ez zen geratzen 141. argazki polit horretan ikus daitezkeen eraikinetako bakar bat ere.

PLAZA-MUTURRA ETA HILTEGI ZAHARRA

Udalerriko hiltegi zaharraren argazkia gainbegiratzeko modukoa da, horrenbestez, besterik gabe hari helduko diogu (hala ere, ez da nahi genukeen bezain ongi ikusten); gainera, ikusgai dugun irudi apal horren arabera, uste dut bikain ipinita dagoela "zahar" hitza. Aurrez zenbait idatzitan adierazi dugunez, hiltegi zahar horrek Kale Nagusitik zuen sarbidea, Udaletxe zaharraren eta Aranberriazpikoa etxearen (antzina Telleria etxea) arteko kalezulotik barrena.

Gerora, XX. mendearen lehen erdialdera, 1924an Udaletxeko eraikin berriak altxa ostean, kalezulo horrek kartzela berrira (herritarren artean "perrera" (txakurtegi)) ematen zuen eta baita udal-garbitoki publikoetara ere.

Esku artean dugun planoa 1862koa denez eta Aranberri azpikoa etxea 1853an eraiki zenez, trenbidearen plano hau idatzi zen garaian aipatu eraikinak bederatzi urte baino ez zituen. Ez dugu etxe horri buruzko xehetasun gehiago emango, izan ere, "Beasain, leiho bat iraganari" izeneko liburuan hari buruzko xehetasun ugari eman ziren. Hala ere, aipagarri deritzogu lehen jabeak, Jose Francisco Aranak soilik 15 urtez izan zuela jabetza hori, izan ere, 1868ko urtarrilaren 18an Ignacio Maria Telleriari saldu zion.



142. argazkian, etxeen artetik, XIX. mendeko udal-hiltegi "trauskil eta miserablea" ikus daiteke, ezin itsusiagoa. Ezkerreko eraikina Udaletxearen hegoaldeko fatxada da, 1922-1923 artean eraitsia; eskuinekoa, berriz, Aranberriazpikoa etxearen zati bat (Telleria etxe zena, 1979an eraitsia). Eraikin horiek A1 eta A2 hizkiz adierazi ditugu eta horien artetik hiltegiaren teilatua eta aipatu kalezuloari begira (Kale Nagusirantz) zegoen albo-horma antzematen dira, metro gutxira. Hiltegi zaharra M hizkiarekin adierazi dugu eta, horrez gain, gezi bertikal zuri bat paratu dugu haren gainean.

4. sektoreko plano orokorraren egileak oso ongi islatu du hiltegia etxeen artean, X hizkiaren gainean; eskema modura emanda, gainerako eraikinak bezalaxe. Apur bat atzera eginez, guk ere 4b plano-zatian Beasaingo hiltegi "miserable" hori adierazi dugu beste gezi bertikal marroi txiki batekin. Horrez gain, Udaletxea eta Aranberri azpikoa etxea ere adierazi ditugu A1 eta A2 ikurrekin, hurrenez hurren, 142. argazkian bezalaxe.

143. argazkia planoak baino ehun urte geroagokoa da. Bertan Udaletxeko eraikin berrien ekialdeko hormak eta 1924an inauguratutako Eskola Publikoak ikus daitezke. Bi eraikinen artean osatzen den kalezulo horretatik barrena (antzinako Udaletxea bota aurretik) sartzen ziren XIX. mendetik indarrean zen udal-hiltegi zahar horretara baserritarrak beren azienda hartuta.

Irudi horretan Telleria familiaren eraikina ikus daiteke, lau uretako teilatua zuena. Eraikin hori ere gezi bertikal zuri batekin adierazi dugu. Halaber, etxeko lorategiaren zati bat ere ikus daiteke, magnolia handia bertan duela. Lorategi hori, zati batean, antzinako kotxe-tokiak paratzeko erabili zen orubearen gainean landu zen. Jarraian ikusiko dugu hori. Lehen kotxe-toki horiek, Aranberri azpikoa etxearen alboan zeudenak, Abaria etxearen baitakoak ziren 1862an, hau da, Olazabal Olaso sendiarenak; Kale Nagusira begira zeuden, 4. plano orokorrean eta 4b plano-zatian bederen halaxe kokatzen dira, X hizkiarekin adierazita.

Arestian esan dugunez, Telleria etxea igaro ostean, 4. sektoreko plano orokorrean ikusten diren gainerako eraikinak idatzietan kotxe-toki izendatzen ziren eta horietan ez zen inor bizi. Hortaz, eraikin horien funtzioa asmatzea ez da lan zaila. Azkenik, jakin dugunez, 1862an hiru familiren baitakoak ziren kotxe-toki horiek:

Lehenengoa, Abaria familiarena, Aranberriazpikoa etxea igaro eta beherantz egiten zuena zen, hain justu, "estrata" delakoa (Floreaga edo Mutegi enea eta Abarinea etxeetara igotzeko harrizko kalezuloa) abiatzen zen lekuraino. Abaria etxeko jabeek "Cochera Nueva" (Kotxe-toki Berri) izendatzen zuten hura 1862an. Gaur egun, Kale Nagusiko 9. atariaren luzera hartuko luke, gutxi gorabehera.

Haren ostean Maiz familiaren kotxe-tokia izango genuke (aurrerago aipatuko dugu haren historia laburra xehetasun gehiagorekin), harrizko "estrata" horren eskuineko aldean hasiko zena. Gaur egun Kale Nagusiko 7. atarian kokatuko litzateke.

Kalean behera joanez topatuko genukeen azken kotxe-tokia Maricruz Mugicaren baitakoa izango zen. Etxaluze berri tabernako Juan Bautista Bengoechearen alargunaren kotxe-toki hori aipatu tabernaren parean zegoen. Kale horretako 5. atariak hartzen duen Urteaga etxea dagoen tokian kokatuko litzateke. 144. argazkian kotxe-toki horren teilatua ikus daiteke. Azken kotxe-toki hori 1912. urtera arte izan zen toki horretan, Urteaga sendiak etxebizitza-etxe berria eraiki zuen arte, beheko solairuan okindegiko lantegia zuelarik. Estalpea zirkulu zuri txiki batekin adierazi dugu eta, horrez gain, gainerako eraikinak ere bertan ko-

katu ditugu. Lehenik eta behin, irudi hori 1897koa dela argitu behar dugu. Horrenbestez, haren eskuinera ikusten dugun eraikina trenbidearen plano hauek sinatu ziren urtean, 1862an, eraikitzeke zegoen artean. Arana familiaren Iturrondo eraikina da hori, egun Kale Nagusiko 1 eta 3 atariak hartzen dituena. 1881ean eraiki zen, 4. sektoreko plano orokor hau taxutu eta ia 20 urtera.

144. argazkiko lehen planoan Etxeberri etxetxoak ikusten dira kolore hori marroixkaraz margotuta. Gaur egun, oraindik zutik daude ibaiaren altzoan; kalearen alde horretan bertan, etxetxo horien ezkerrera, Etxaluze berri eraikinaren zati bat ikus daiteke. Kotxetokiko teilatuaren gainean parrokiara zihoan harbidea ikusten da, XIX. mendearen azken urteetan Kale Nagusitik hartzen zena, "cercas" (hesiak) zirelakoen barrena, zeintzuk Mugicaren kotxe-tokiaren eta Iturrondo etxearen artean kokatzen baitziren. Azken etxe hori ere ikus daiteke argazkian, eskuinaldean.



4. sektoreko plano orokor horretan eta 1862ko 4h plano-zatian ikus daitekeenez, K hizkiarekin adierazten den orubearen gaineko (20 urte beranduago Iturrondo etxea lekutu zen bertan) lur-eremu hori libre zegoen artean eta ez da eraikin bakar bat ere ikusten "Burdina-fabrikarekin" topo egiten dugun arte. Aurrez aipatutako hesiak hartzen zituen kalezulo horretatik zehar (egun Martina Maiz kalea dena) igo ohi zen normalean parrokiara, hain justu, Kale Nagusiko zonalde horretatik barrena. Beranduago azalduko dugu hori guztiori.

Kale Nagusiko zonalde horretatik gora, Maricruz Mugicaren kotxe-tokia pasa ostean, Maiz familiaren teilape/kotxe-tokia lekutzen zen. Beste bi kotxe-tokien artean zegoen hura, aurreko lerroaldeetan azaldu dugunez. Maiz familiaren kotxe-toki horrek badu historia labur bat, ezagutu beharrekoa, izan ere, argigarri da 1862an Kale Nagusiaren iparraldeko ertzean egoilerik gabe finkatutako eraikin zahar guztien jabetzei buruzko datuak ezagutzeko. Honatx, bada, aipatu kotxetokiari buruz ematen den deskribapen argigarria:

> *"…estaba situada pegante a la calle Mayor, en cuyo frente tiene su entrada junto a la cuneta; a su espalda se encuentra el muro de contención de la casa Floreaga; a su derecha linda con otra tejabana-cochera, propiedad de Dª Mari Cruz Mugica; y a su izquierda se sitúa el camino empedrado de subida hacia las casas Floreaga y Abarinea…"*

Testu bereko beste lerroalde batean zera aipatzen da:

> *"…la cochera mantenía una superficie de 151 m², su estructura constaba de solar con cubierta, y la armadura de la tejabana, que se hallaba en estado ruinoso en el año 1.900, se valora en 1.700 pesetas…"*

Eraikuntza horrek badu beste historia triste bat, izan ere, dokumentu horretan bertan irakur daitekeenez, Jose Miguel Iturrioz Arinek (orduan 35 zituen, ezkondua zen eta jabeduna), Arrasateko Santa Agedakoa zen Micaela Iñarra Maiz alargunaren tutore modura, 1900eko azaroaren 30ean aipatu andrea erregistratu behar izan zuen ezgaitu modura Tutoretzako Erregistroan. Beranduago alkate ere izan zen gizon hori 1900eko azaroaren 8an izendatu zuten tutore "Familia-kontseiluz", izan ere, aipatu andrea ezgaitutzat jo zuten.

Micaela Iñarra Maiz zen lursail haren jabea azken 40 urteetan, zendutako bere izeba Martina Maiz Bagazgoitiaren eskutik jaso ostean. Kurioski, teilape/kotxetoki hori, hasiera batean, Jose Martin Maiz (Martina Maiz Bagazgoitiaren aita) eta Ignacio Maria Mugicaren (orduan Etxaluze etxean bizi zen Maricruz Mugicaren aita) jabetzakoa izan zen. Aipatu guztia Hipoteken Kontularitzari buruzko hirugarren liburu zahar partikularrean agertzen da. Horrenbestez, hasiera batean inskripzio hori bertan behera geratu zen, kontu hori argitu arte.

Micaela hil zenean kotxe-toki hori enkantean jarri zuten eta Francisco Telleria Ayestak eskuratu zuen 1903ko uztailaren 15ean, 1.700 pezeta ordainduta. 1906ko maiatzaren 6an erregistratu zuen, eskuratu eta ia hiru urtera. Telleria sendiaren Aranberriazpikoa etxea horien alboan zegoenez, aipatu familiak, beranduago, alboko lurrak bereganatu zituen Abarinea etxeko jabea zen Tirso de Olazabal y Lardizabalen es-

kutik. Modu horretan, lur-eremu zabal hori osatu zuen eta, gerora, bertan paratu zuen etxeko lorategia magnolia handia bertan finkatuta.

1862. urtean zonalde horretan deskribatu ditugun eraikinen hurrenkera honakoa izango litzateke, 4 eta 4b planoek islatzen dutenez:

1) Udaletxeko A1 alboa, Kale Nagusira begira. Gezi bertikal marroi batekin eta M hizkiarekin adierazten da hiltegi zaharra, 142. argazkian bezalaxe.
2) Aranbarriazpikoa etxea, 1862an Jose Francisco Aranaren jabetzakoa zena, artean. Plano horietan eta 142. argazkian ere A2 hizkiz adierazi dugu.
3) Abaria familiaren kotxe-tokia, 4b plano-zatian C3 hizkiz adierazi duguna.
4) Micaela Iñarra Maizen kotxe-tokia, Martina Maiz Bagazgoitia izebak lagatakoa, 4b plano-zatian C4 hizkiz adierazi duguna.
5) Maricruz Mugicaren kotxe-tokia, 4b plano-zatian C5 hizkiz adierazi duguna; 144. argazkian zirkulu zuri batekin adierazi dugu.

1862an errepideko alde horretan, kalean behera ez zegoen beste eraikinik, Ezkiabaso parera iritsi arte. Horrenbestez, argituta geratzen da marrazkiaren egileak planoan islatutakoa. Hiltegi zaharraren dokumentuari buruzko 142. argazkiaren inguruan ez dugu beste ezer aipatuko. Hala ere, gogoan izan argazki hori dela hari buruzko irudi bakarra, nahikoa eskasa eta soila izan arren. Gainera, informazioa osatze aldera, aipagarri da (batez ere gazteenentzat) 145. argazkian ikusten dena dela eskualdeko hiltegi "itzela", 1930eko abenduaren 31n inauguratu zena. Azkenik, esangarri da, goiko lerroaldeetan paratu dugun guztia ezagutzen ez zutenentzat, Urbieta izeneko zonaldean, hain justu, Oria ibaiak eta Agauntza errekak bat egiten zuten lekuan, kokatutako eraikin berezi hori 1994an eraitsi zutela.

1862ko 4. plano orokorrean eta 4b eta 4c plano-zatietan beste xehetasun bitxi bat ere ikusten da, 146. argazkian ikusten diren plazako arkupe zaharrak urte hartan artean eraikitzeke zeudela alegia; izan ere, plano hori sinatu zuen ingeniariak soilik linealki eman du orduan orokorki plazako "espolón de piedra" (harrizko muturra) izendatzen zutena. Gezi bertikal banarekin adierazi dugu guk 4b eta 4c plano-zatietan.

146. argazkian beste gezi horizontal batekin adierazi dugun mutur edo espoloi hori goiko plazaren eta errepide nagusiaren artean zegoen ezponda handia eusten zuen horma da. 4, 4b eta 4c planoetan ikus daitekeenez, egileak ez zituen islatu bi teiladun estalpe handi horiek, aipatu arkupea irudikatzekoak. Aitzitik, aurrez aipatu ditugun gainerako teilape edo kotxetoki hondatuak argi eta garbi marraztu zituen, plazaren eta Andre Mari kalearen artean kokatutako besteak bezalaxe. Modu horretan, zonalde horretan egoilerik gabe zeuden gainerako eraikinek jarraikortasun eskematikoaren sentsazioa sortzen dute plano horretan. 1897ko 147. irudian ere bi zirkulu zuriz adierazi eta erakutsi ditugu aipatu arkupeak, izan ere, airetiko bista horretan hobeto ikusten da haien antzinako egitura eta azalera.

146. argazkian zirkulu zuri batekin adierazten dugun iturria 1912an espoloiaren alboan zegoen jadanik. Hori dela eta, XX. mendearen erdialdera ateratako 148. argazkian iturri hori dugu ikusgai, plaza egitura modernoarekin berreraiki ostean. Bertan Tomasa Torres arrain-saltzaile ezaguna ikusten da, Esteban Mugicarekin ezkonduta zegoena eta Joaquin eta Ramon Mugicaren ama zena. Kasu horretan uraska berri bat ageri zuen aurrekoa zegoen leku berean.

Iturri zahar hark, hasiera batean, Jose Martin Aranak Ugartemendiko zonaldean eraikitako lehen deposituko urak jasotzen zituen eta, XX. mendearen bigarren erdialdean, artean, maiz erabiltzen zuten auzotarrek, plazako merkatariek eta arrain-saltzaileek. Hala

ere, ordurako, Letemendiko depositu berriko urak jasotzen zituen. Arrain-saltzaileen postuak Zubimusu plazan ("Arrainaren plaza" izenez ere ezagutzen zena) kokatu ohi ziren. Plaza hori 1927an eraiki zen aipatu iturriaren parean ia. Aurrerago hitz egingo dugu hari buruz, hari dagokion atalean.

Irakurle gehienek ez dute ezagutuko Ugartemendiko depositu zahar hori. Horregatik, merezi du esatea XX. mendearen erdialdera hartako horma guztiak artean ia aire zabalean zeudela lurrazalaren gainean; hori dela eta, 149. argazkian ere oroitu dugu hura. Gaur egun oroimenetik baztertua dago erabat, Institutuaren goiko hormaren alboan, lurrak eta landarediak hartuta. Jende gehienak beste depositu berriago batekin nahasten du hura, hain zuzen, Indar fabrikara bidean mendi-mazela guztia asfalto gainetik zeharkatzen duen bide zahar eta ederraren goiko aldean dagoenarekin. Bide hori Iurreraino iristen da Basozabal errekatxoa zeharkatuz, zeinak, aldi berean, Olaberriarekin muga egiten duen.

URBILEKO MENDI-MAZELA

Arestian esan bezala, 1862ko plano horretan zonalde horretako lur-eremu gehienak libre daudela ikus daiteke, eraikinik gabe. Hemen "Urbil" mendia izendatzen dugun leku hori 4. sektoreko plano orokorrean eta 4h plano-zatian K eta H hizkien artean ageri den lur-eremu hori izango litzateke.

Iturrondo etxea izan zen parrokiara igotzeko K erpin horretan altxatu zen lehen eraikina. Edonork ikus dezake Kale Nagusitik abiatzen den Martina Maiz kalearen hastapena dela aipagai duguna, orduan "zona de las cercas" (hesien zonalde) modura ezagutzen zutena. 1880an, plano hau taxutu eta 18 urtera, Jose Maria Aranak eskuratu zituen Abariako maiorazkoaren titular zen Tirso de Olazabal y Lardizabalen eskutik K hizkiarekin adierazita ikusten dugun lekuan paratzen diren lurrak. 1881ean amaitu zituzten Iturrondo etxea eraikitzeko lanak "Autoen Errepide Nagusiaren" alboan. Arana sendiaren etxe hori oraindik Kale Nagusian ikus daiteke.

Aurrera jarraitu aurretik, irakurleak 4h plano-zatia ikustean nahastu ez daitezen, esan dezagun K hizkiak hartzen duen mendialde guztia legokeen lekuan, egun errepidearen goiko aldean, Martina Maiz kalearen inguruan eta beherantz, Telefonicako eraikinera iritsi arteko lurrak paratzen direla.

Hau da, Iturrondo etxea, gerora planoko K hizkian kokatu zena, egun Kale Nagusian dagoen eta 1 eta 3

atariak hartzen dituen eraikina da; ondoren, Lorategi izeneko kale malkartsua paratzen da, Igarza etxea eta Esteban Lasa aldera igotzen dena; eta, jarraian, egun Iturrioz Kale modura ezagutzen duguna abiatzen da, 1, 3, 5, 7, 9 eta 11 zenbaki bakoitiak dituzten etxeak hartzen dituena. 4h plano-zati horretan bi lerro zurirekin kokatzen dugu Lorategi kaletik "Igartetxe" izeneko etxe orratzera eta Esteban Lasa kalera iristeko sarbide malkartsua.

Letemendiko depositu zaharraren beheko zonalde horretan kokatutako lur-eremu gehienak 1862an Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Olasoren jabetzakoak ziren artean, besteak beste, aipatu baserria eta Abarinea edota Igarzaetxea bezala; hurrengo urtetik aurrera, haren semeak, Tirso de Olazabal y Lardizabalek eskuratu zituen haiek. Hori aurrez aipatu dugu eta, horrez gain, 84b irudian pertsona hori identifikatu ere egin dugu. Hauek ziren orduan parrokiaren aldameneko zonalde zabalean zeuden etxetzar bakarrak:

Floreaga, Mutegienea edo Mintegienea (gerora Esteban Lasaren etxe izendatu zena); Abarinea edo Doñamarinea (Karmeldarrak); Elizalde etxea, gerora Martiñenea eta "Amerikarraren Etxe" izenez ere ezagutuko zena; eta, azkenik, Igarza etxea baserria (2008. urtera arte 3 eta 5 atariak hartzen zituen Igartetxe izeneko etxe zaharrak "zapaltzen" zuen orubearen gainean). Urbietan ezarri berria zen San Martin Burdina-fabrikara bidean zegoen hurrengo eraikina Ezkiabasokoa, Ezkiabasoa edo Ezkiabaso baserria zen, 1862an Villafuerteko kondearen (beste zenbait tituluren artean, Cerroko bizkonde ere bazena) baitan zegoena artean. Konde hark, jabetza asko zituen bere baitan, horien artean Ordiziako Zabala jauregia eta Tolosako Aranburu jauregia nabarmendu behar dira.

Hori Fabrikari dagokion kapituluan azalduko dugu, izan ere, aipatu etxea hor barneratzen da, hura izan baitzen Urbietan eraiki zuten F.H.S.M. fabrika zaharra ezartzeko lurrak saldu zituen lehen baserri beasaindarra, 6. sektorean ikusiko dugunez.

Orain 150. argazkian erakusten diren lurretara itzuliko gara. 1950-1960 hamarkadetan ez zegoen Iturriotz kaleko atzealdeko zonalde horri "Monte Urbin" (Urbin Mendi) izendatuko ez zuen neska-mutikorik, izan ere, ezjakintasun hori guztion kontua zen. Izendapen horrekin nagusiki Jose Miguel Iturriotz kaleko atzealdea hartzen zuen basoberaren zonaldea aipatu nahi zen orduan, hain zuzen, egun 1, 3, 5, 7, 9 eta 11 atariak hartzen dituen zonaldea.

Aurrez aipatutako Iturrondo eraikina alde batera utzita (egun Kale Nagusiko 1 eta 3 atariak hartzen dituena), Iturrondotik behera hurrengo 30 urteetan eraiki zen lehenengoa Iturrioz kaleko 1 zenbakidun ataria da; hori 1920-1930 bitarteko hamarkadaren hasieran izan zen. Gero hamarkada horren erdialdera 3 zenbakidun ataria eraiki zen. Azkenik, 5 zenbakidun ataria eraiki zen 1928 inguruan. Alboko eraikina, kale horretako 7. atarian lekutzen zena Zinema aretoa izan zen, eta hogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdialdera itxaron behar izan zen hura eraikita ikusteko.

Gehiegi pentsatzeko joera zuen lagun batek esan zidanez (ez zuen nahi bere izena hemen aipatzerik), bere ustez, "Monte Urbin" izendapenaren jatorria **"monte urbil edo monte cercano"** izen mistoari (gaztelania eta euskara erabiliz) zegozkion bi hitzetako baten erabilera akastunean bilatu behar da.

150. argazkian leku horretako orografiari erreparatzen badiogu eta baita 151. argazkiko goiko aldean, eskuinera, hiltegiko zonaldea dagoen lekuari dagokionari ere, zera ikusiko dugu, XX. mendearen hastapenean Murumendi-Usurbe mendigune luzexkaren atzealdeko luzapena errepide nagusiraino iristen zela. Hori dela eta, ez da harritzekoa XX. mendearen hastapenean sortutakoek mendiaren atzealdeko zonalde hori hala izendatu eta zati bat gaztelaniaz ematea. Beranduago, hizkuntzaren erabilera okerraren ondorioz, "Urbil" forma aldatu egingo zen apur bat "Urbin" izendapena hartu arte. Gure ustez, Euskal Herriko toponimia-arazo askotan gertatzen dena aintzat hartuz, hori egia izan daiteke edo, behinik behin ez da planteamendu desegokia.

Aurreko ataletan iragarri dugunez, ez dugu ezer aipatuko Floreaga, Abarinea eta Igarza etxea etxeen gainean. Izan ere, aurrez aipatutako lehen hiru etxe horiek nahikoa sakon deskribatu ziren "Beasain, leiho bat iraganari" izeneko liburuan, herrigunean kokatutako 40 etxeen barruan. Aitzitik, Ezkiabaso edo Ezkiabasokoa baserriari buruz badugu zer aipatu, izan ere, 1897ko herrigune zaharraren barruan zeuden 40 etxeen artean ez zen barneratzen, argazki panoramiko enblematikoan ez baitzen agertzen. Dena den, dagokion atalean hitz egingo dugu hartaz.

Hori guztiori 150. eta 151. argazkiak eta 4h plano-zatia (ustez "monte Urbil" izena zuen zonalde horri dagokiona) apur bat azaltzearren aipatzen dugu. 1862an 4. sektoreko plano orokorrean H hizkiarekin adierazten den bidea ikus daiteke marraztuta. Era berean, XX. mendearen erdialdera ateratako 139. argazkian bide hartako ibilbide zaharra antzeman daiteke oraindik, dagoeneko zabaldu eta eraldatuta, "Urbil" mendi horretako goiko aldea pixkanaka kolonizatzen ari den urbanizazio berriak eraginda.

150. irudi horretan errepide izan zena adierazten dugu, kasu horretan gezi marroiak baliatuz. Gezi horien bidez errepidearen norabidea adierazten da Madril-Irun errepide nagusi zaharrarekin elkartu arte, egun Telefonica kokatzen den lekuan. Urte horietan zonaldeak zuen itxura hobeto ulertze aldera, 137. argazkia hartuko dugu berriro. Bertan oso ongi antzematen da errepideak orduan egiten zuen ibilbidea. H hizkiarekin adierazten da argazki horretan bidea, Igarza etxea baserriaren eskuinera.

Baina itzul gaitezen 4h plano-zatira, hain zuzen, zabalgune berriari dagokion zonaldera. Marrazkiaren eskuinera H hizkia ipini dugu berriz ere, aurrez aipatutako errepidea adierazteko. 151. argazkian, goiko ertzean, errepide hori eta errepide nagusia elkartzen ziren gunea gezi horizontal zuri batekin adierazi dugu.

150. irudiari berriro helduz, hobeto uler daiteke etxe horien hurrenkerari buruz esandako guztia; ikus dezagun ikur bidez:



K hizkiarekin adierazi dugun teilatua Arana sendiaren Iturrondo etxeari dagokio; ondoren igoera dator, Lorategi izeneko kale malkartsuan barrena; puntu zuri batekin eta 1 zenbakiarekin adierazi dugun teilatua Aranburu sendiaren egungo etxea da, Jose Miguel Iturriotz kaleko 1 zenbakidun atarian lekutzen dena; noski, hurrengoa 3 zenbakidun ataria da, Usabiagak eraikitako etxea hartzen duena eta desagertzear dagoena; ondoren 5 zenbakidun ataria dago, duela gutxira arte Beasain Kirol Elkartearen egoitza hartzen zuena, 2006an eraitsi zen arte; bi gezi bertikal zurirekin adierazi dugun hutsunean Zinema areto zaharra kokatzen zen. Hartako teilatua ez da ikusten, izan ere, solairu bakarreko eraikina zen. 1990ean eraitsi zuten; hurrengo etxea Urbina sendiaren eraikina da, zeinaren alboko fatxada ikusten baita. Egun kale horretako 9. atarian lekutzen da; azkenik, Murgiondo etxe ezohikoa dago, 1950eko hamarkadan gizon hark eraiki zuena.

IBAIAREN IPARRALDEKO ERTZETIK BIDEARTETIK BIDELUZEKO MAKALDIRA ARTE

Orain Oria ibaiaren iparraldeko ertzetik jarraituko dugu, 4j plano-zatian X, J eta LL hizkiek adierazten duten lerroari jarraituz. Plano horretan Bidearte handitik ibaiaren alboan kokatutako lur-eremu horien amaierara arteko tartea erakusten da.

Aurrez esan dugun moduan, 1862an Jose Joaquin de Olazabal Arbelaiz y Olaso zen artean lur horien jabea. X hizkiarekin adierazitako orubetik LL tartearen muturreraino hedatzen ziren, izan ere, 1930ean hiltegiko zubi zaharra kokatu zen puntura arte iristen ziren. Gaur egun, Kale Nagusiko 10. atariko etxea hartzen duen orubetik aldameneko Jose Miguel Iturriotz kaleko 12, 14 eta 16 atarietan kokatutako garaje berrien sarrerarainoko tartea hartuko lukete gutxi gorabehera; zehazki esatera, 1977. urtera arte Tinta Fabrika zaharra zegoen lekuan eraikitako blokeetaraino (pabilioiak sei urte beranduago eraitsi ziren 1983an).

4j plano-zatian X hizkiaren ezkerrera paratutako eraikinak Bidearte chiqui eta Bidearte aundi dira, izan ere, Zubiondo artean ibaiaren alboan eraikitzeke zegoen. Azken hori forma irregularreko eraikina zen, XX. mendearen erdialdera arte "Casa del Barquillero" (Barkilo-egilearen etxea) izendatzen genuena. Barkilo-egile hori Jose Cea zen. Zufiaurreazpikoa ere beranduago eraiki zen haren parean, mendebaldera begira, ibaiaren ertz berean baina Zaldizurreta zubiaren beste aldean. Zubi horri "del Herrero" (errementariarena) ere esaten zioten. Hori hobeto ikusiko dugu 4. plano orokorrean, izan ere, zubiaren aldamenean dagoen hutsunea ederki ikusi arren, 4j plano-zati horretan mozketa egin dugu puntu horretatik.

1862an ibaiaren ertz horretan eraikitako etxeak, zubia hasten den puntutik LL hizkiekin adierazten den lur-eremuaren amaierara arte, hauek baino ez dira: Bidearteandi, Bidearetxiki, Etxeluze eta azken etxeko baratzearen barnean kokatutako beste eraikin txiki bat. Hori ere aurrerago azalduko dugu.

Begiratu arretaz 4j plano-zatian adierazten den oro, gerora baliagarri izango baita aurrerago erakutsiko ditugun irudiak behar bezala kokatzeko. Jakina, zonalde hau guztiau 2002an argitaratutako liburuan ere ongi deskribatuta ageri da. Dena den, jarraian ikusiko dugun planoan eta orain eskuragarri ditugun beste dokumentu batzuetan lehen ezagutzen ez genituen zenbait xehetasun ikus ditzakegu. Segidan xehetasun horiek interpretatuko ditugu idatzi berri horien eta udal-errolden laguntzaz. Horrez gain, beste zenbait data gaineratuko ditugu, etxeen eraikuntza eta eraisketari buruzkoak.

Bidearteandi eta txiki baserriak irudikatzeko ikurraren eskuinera, X hizkiarekin markatuta agertzen den hutsunea Azpikoetxea etxe zaharrak utzitako orubea da. Azken etxe hori ere Abariatarren baitakoa zen (egun Kale Nagusiko 10. ataria hartzen duen eraikina dago bertan). Ikus dezagun zer dioten Abariako maiorazkoaren Kontuen Liburuko oharrek etxe zahar horri buruz:

> ***"…esta casa se demolió en maio de 76 (1.776) por estar peligrosa…"***

Jarraian Etxeluze eraikina ikusten da; eta, ondoren, planoaren egileak lerro banatzaile bat marraztu zuen, Echeluce etxe horretako J baratzea zena inguratuz ia, 728 m²ko azalera zuena orduan. Baratze horren barruan eraikin txikin bat zegoen. Planoaren sinatzaileak, M. Ladamek, hura ere marraztu zuen; eraikin txiki hura biltegi-sagardotegi modura erabiltzen zen eta, esan bezala, Etxeluze etxearen baratzeko lurretan kokatzen zen. Hau guztiau irakurtzean kontuan izan behar dugu duela 150 urteko lur eta eraikuntzak deskribatzen ari garela, hots, 1862koak.

Gaur egun Usurbe Antzokiaren atzean etxetxo hori marroixka batzuk kokatzen dira. Horien mendebaldeko zatiarekin (plazara begira) bat etorriko litzateke biltegi-sagardotegiren kokapena. Igartza errekatxoa (bil erro horiek egungo kalezuloa islatzen dute) eta Etxeluze etxea dira marrazkian garai hartako Etxeluze etxeko baratzearen mugakideak errepidearen ertzeraino. Hala errekatxoa nola etxea gezi zuri banarekin adierazten dira 4j plano-zatian. Horrenbestez, biltegi-sagardotegia baratzearen barruan paratzen zen.

XX. mendearen hasieran Gure Etxeberria etxearen 198 m²ko barla deskribatzean, muga hauek aipatu ziren: Iparraldera, Gure Etxeberria etxea; hegoaldera *"un pequeño almacén sidrería"* (biltegi-sagardotegi txiki bat); ekialdera, Igartza errekatxoa; mendebaldera, "cercas" zirelakoak (hesiak) eta kalezuloa. Badirudi eraikin txiki horiek direla.

Planoan J hizkiarekin adierazten den lur-eremua dagoen tokian Esnaolatarren Gure Etxeberri etxeko orubea, hartako barla eta atzealdeko zonaldea daude egun, hain justu, Igartza errekatxoaren isurbidearen ezkerrera. Errekatxoak Igarza etxea edo Igartetxe baserri zaharrari zor dio bere izena. Egun errekatxo hori errepidearen eta Kale Nagusian abiatzen den kalezuloaren azpitik lurperatuta igarotzen da amaierara arte, hain zuzen, Esnaolatarren 4 zenbakidun etxearen eta Usurbe Antzokiaren atzealdearen artetik. Gezi horizontal zuri batekin markatu dugun igarobideak islatuko luke errekatxoa. 4j plano-zatiaren egileak bi lerro bertikal zehatz marraztuta islatu du hori. Errekatxoa lehendabizi "Autoen Errepide Nagusiaren" (hasiera batean animaliak bultzatutako ibilgailuek erabiltzen zutena eta, gerora, Madril-Irun errepidea izango zena) azpitik lurperatu zen eta proiektua Iberok gauzatu zuen, ehun metro gorago zegoen Muru errekatxoa bezalaxe.

152. argazkian argi ikusten dira 4j plano-zatian LL hizkiarekin adierazita dauden lur-eremu horiek, hain justu, aipatu planoan lurperatutako Igartza errekatxoaren gaineko kalezuloaren eskuinetik hasten direnak. 152. argazkian azpialdeko bi gezi zurietatik aurrera abiatuko litzateke errekatxoa. Honatx LL hizkiarekin adierazitako lur horien mugak: Hegoaldera, Oria ibaiaren ibilgua; iparraldera, Irun-Madril errepide nagusia; mendebaldera, Igartza errekatxoa; eta, ekialdera, Oria ibaia berriro, izan ere, gerora eskualdeko hiltegi berriaren (1930ean inauguratu zena) zubia izenarekin ezagutuko zen zonaldea baino apur bat lehenago errepidea, lurrak eta ibaia elkartu egiten ziren.

Lur-eremu horien azalera 7.440,96 m²koa zen eta XIX. mendearen erdialdera "kaleko zonalde" horretan Abariako maiorazkoak zituen onibar garrantzitsuenak ziren. Lursail horien gainean eraiki zituen Jose Martin Aranak 1877an "lurrunezko zerrategia" eta bi pilotalekuak. Hortaz, boteluzean eta errebotean aritzeko pilotalekuak zeuden lur horietan. Baina, XX. mendearen hastapenean lur horiek eta Oria ibairaino iristen ziren ekialdeko gainerako lurrak aukeratu zituzten Beasaingo "Zabalgune" berria egiteko, gerora Bideluze kalea eta Jose Miguel Iturriotz kalea hartuko zituena.

Planoa orain ikusten dugun airetiko 152. argazkiarekin (ehun urte beranduago atera zena) alderatzen badugu, planoaren egileak hura zehaztasun osoz marraztu zuenaz ohartuko gara berehala. 4j plano-zati hori 90º ezkerrera biratzea nahikoa da espazio hori eta ibaiak egiten duen kurba berdin-berdinak direnaz ohartzeko. 153. argazkian leku horrek XX. mendearen hastapenean zuen itxura ikus dezakegu. Bertan gezi bertikal marroi batekin adierazi dugu Gure Etxeberri etxe berria, 1905ean eraiki zena Etxeluzeko baratzearen gainean. Errepidearen eskuinera, ibaira iritsi arte ikusten ditugun gainerako eraikinak amaieran errepidearekin eta ibaiaren ibilguarekin bat egiten zuen lur-

eremu handi horretan altxa ziren. Lur-eremu horren azalera hektarea batekoa zen ia. Hori guztiori argi banatuta islatzen da 4j plano-zati horretan, hain zuzen, LL hizkiaren inguruan.

Halaber, ikusgai dugu Bideluzeko kalearen 154. argazki ederra, 1922koa. Bertan pasealekuko zuhaitzak ikusten dira, artean egurrezko babesgarriz inguratuta. Lur-eremu eztabaidagarri horiek hasiera batean Tirso de Olazabalen jabetzakoak izan ziren. Baina bi pilotalekuak eraiki zirenean Udaletxeak kontrolatzen zituen. 7.440,96 m²ko azalera hartzen zuten lur horietatik 3.197,69 m² banandu egin ziren (erdia baino apur bat gutxiago). Bereizitako lur horiek Bideluze izendatzen ziren eta S.E.C.M. fabrikari laga zitzaizkion langileentzako etxebizitzak egite aldera. Fabrikak ur-hornidurarekin arazoak izan zituen eta ez zuen gauzatu aipatu proiektua. Hori dela eta, orube horiek berriz ere Udaletxearen baitan geratu ziren.

Azkenik, 1904an Udaletxeak Jose Martin Aranari esleitu zizkion lur horietatik bereizitako 18 partzela. Kasu horretan ere langileentzako etxeak eraikitzea zen baldintza. Hiru urteren buruan gauzatu behar zen proiektua. Gainerako guztia aski azalduta dago hainbat liburu eta artikulutan. Hauek dira Bideluze eta Iturriotz kaleetako etxeak eraiki zituzten sustatzaileen izenak: Jose Miguel Iturriotz, Jose Lasa, Pedro Usabiaga eta, nagusiki, Jose Martin Arana.

Hori orain aipatzea egoki deritzogu, izan ere, Iturriotz kaleko 5. atarian zegoen etxea eraitsi zenez eta 3. atarikoa ere eraistear izan zenez (azken hau Pedro Usabiagak eraikia), ezinbestekoa da haren biloba batek kontatu zigun anekdota ekartzea:

Usabiagak Iturriotz kaleko 3 zenbakidun etxe hori eraiki zuenean, hau izan zen Jose Miguel Iturrioz alkateak ezarri zion baldintza bakarra: ***Que le daba permiso para levantar la casa con la altura necesaria pero sin quitar vistas a su propio piso ubicado enfrente.*** (Etxe hori eraikitzeko baimena ematen ziola, baina hark parean zuen pisuaren ikuspegiak mantentzea bermatuko zion altuera emanez). Horregatik, 3. atarian kokatzen den etxea inguruko eraikinak baino txikiagoa da; eta arrazoia bera dela medio eraikuntza hori sartuago dago mendian, izan ere, bertikalean altxatu ezin izan zena horizontalki mendirantz eramatea baimendu zuen alkateak. Jose Miguel Iturrioz orain bere izena duen kaleko 4. atarian bizi izan zen. 155. argazki maitagarrian Jose Miguel Iturrioz ikus daiteke bere emazte Mariana Urrestarazurekin eta haien hiru semeekin, Gil, Sandalio eta Policarpo.

Bada, 3.197,69 m²ko lur-eremu horien amaieran, Ezkiaga auzorantz, aurrez aipatu dugun makaldia lekutzen zen, atal honi izena ematen diona. Elena Legorbururen arabera, Bideluzen kokatutako makaldi ezagun horretan 83 makal paratzen ziren. Bakoitzak 40 besoko altuera zuen (12 beso 0,837 metroko zazpi kanaren baliokide ziren, beraz, beso bakoitza 0,488 metrokoa zen).

Lerro horiek irakurri ostean, berriz ere 4j plano-zatiko LL zonaldea eta ehun urte beranduago ateratako 152. argazkia hartzen baditugu, nahikoa lantegi erraza izango da irakurleentzat makaldi hori legokeen lur-eremua kokatzea. Ia amaieran kokatuko litzateke, ibaiaren alboko Tinta Fabrika zaharra eraiki zen lekuan. Lur horietan, artean, ez zegoen eustormarik Oria ibaiaren ertzetan eta, are, zonalde horretan ibaia zeharkatzeko zubia eraikitzeke zegoen. XX. mendearen hastapenean beasaindarrek arrantzarako zonalde gisa erabiliko zuten ziur aski, Bagoi Fabrika berrirako eraiki zen goiko presaren eraginez bertan pilatzen zen ur kopurua baliatuz. Halaber, ziurrenera denbora librean bertan izango ziren sarritan, hain zuzen, 1907tik aurrerako idatzi batzuetan "paseo público junto al río" (ibaiaren alboko pasealeku publiko) izen lerdenarekin deskribatutako ingurumaria horretan.

BIDEBURU, MURUAKO MENDIETARAKO BIDEAREN HASIERA

4c plano-zatian ere, Bideburu eta Simonanea etxeen artetik, ia Q hizkiaren gainetik, plazako espoloiaren ezkerrera, egileak etxe horien atzean lekututako ereiteko lurretaranzko hutsune edo igarobide zabal bat erakusten du. Ikus 156. irudian Bideburu etxea, beste gezi bertikal zuri txiki batekin adierazita.

Gezi zuri horren abiapuntuan aurrez aipatutako Sorobilletas edo Ubiako xendra itzela agertzen da, gune horretan Bideburu etxe zaharreko goiko zonalde hori horizontalki zeharkatzen duena. Beranduago eraiki zen etxeen arteko horma edo pareta, "barbacana de Simonanea" (Simonaneako itsu-leiho) izenez ezagutzen zutena orduan eta 156. argazkian zeiharreko gezi zuri batekin adierazten duguna, aipatu etxearen ezkerrera.

4. sektoreko plano orokorrean nahiz 4c plano-zatian ez da islatzen oraindik, Bideburu etxearen ezkerrera, Bideburuberri etxea, beranduago Manuel Mendiaren jabetzakoa (ondoren bere seme Jose Ramon Mendiak eskuratu zuen eta, azkenik, Leon Aramburu Gurruchaga izan zen hartako jabea, orduan plazako Aran txiki etxeko egoile zena); Erdikoetxea etxea ere ez da ikusten, 1866an eraiki baitzen. Azken hori Jose Ramon Mendia Ibarbiaren baitakoa izan zen hasiera batean eta, gero, haren anaiak, Martin Antoniok bereganatu zuen. Bonaetxe edo Bonetxea ere ezin da bertan azaldu. 1866an etxe hartako jabea ere Jose Ramon Mendia Ibarbia zen, urte horietan Aranezarra etxearen jabe ere bazena. Azken hori, gerora, Jose Ramonen semeak, Agustin Mendiak baitaratu zuen.

Planoan argi ikus daitekeenez, 1862an artean ez zegoen eraikinik Bideburu etxearen ezkerrera, zeina zeiharka lekututa ikusten dugun 4c plano-zati horretan, Q hizkiaren gainean. 156. irudian ikusten den Bideburu etxetzarrak ziur aski Arizmendi baserriari dagokion atalean izendatu dugun errepide publiko garrantzitsuari zor dio izena. Bide hori, hain zuzen, aipatu etxearen ondotik abiatzen zen Murua mendietara.

Hala ere, 4. sektoreko plano orokorra baino 35 urte beranduago ateratako 156. irudi horretan autoen errepide berriaren iparraldeko ertza betetzen hasi ziren

etxe berri zenbait ikus ditzakegu jadanik, Bideburu etxearen ezkerrera. Bonaetxe berria etxea oraindik ezin da agertu (XX. mendearen erdialdera "Carajas etxe" izenarekin ezagutzen zena), hots, Kale Nagusiko 21. ataria hartuko zuena, izan ere, 1904an eraiki zen eta, horrenbestez, XX. mendearen hastapeneko eraikuntza bat da. 2006an eraitsi zen 1936an inauguratutako Batzoki zaharrarekin batera. Rafael Oyarbide industria-harakina izan zen haren azken jabea.

Hainbat aldiz esan dugun moduan, Bideburu etxea "Beasain, leiho bat iraganari" izeneko liburuan deskribatuta dagoenez, hemen ez dugu hari buruz deus errepikatuko. Nolanahi ere, hari buruz ia ezer gutxi dakiten haientzat, esangarri da Bideburu etxea egun Olabe etxebizitza-etxeak hartzen duen orubean kokatuko litzatekeela, hau da, Kale Nagusiko 13. zenbakian. Kale horretako alde berean eraiki ziren hurrengo etxeak Kale Nagusiko 15, 17, 19 eta 21 zenbakidun atariak hartzen dituzten eraikuntzak izan ziren.

Hauek izango lirateke eraikin horiek, haien eraikuntza-dataren araberako hurrenkeran emanda: **Bideburuberri**, 15. zenbakian (etxe zaharra, izan ere, 1923an berreraiki egin zuten); **Erdikoetxea**, 17. zenbakian (egun pisu bat gehiago ageri duen horrek mantentzen du ondoen jatorrizko egitura); **Bonaetxe edo Bonetxea**, 19. zenbakian (haren berreraikuntza luzea berriki amaitu da); eta, azkenik, **Bonaetxeberria**, Kale Nagusiko 21. zenbakian, 1904an eraiki eta 2006an eraitsi zena Batzokiarekin batera. Etxe horiek guztiak Bideburu izeneko lur-eremuen gainean eraiki ziren hasiera batean. Lur-eremu horiek, hasiera batean, Jose Ramon Mendia Ibarbiaren jabetzako Arane zarra etxetzar zaharraren baitakoak ziren. XVI. mendearen amaieran etxearen jabeak ematen zion izena etxeari, izan ere, Juan de Arana zen hura. Pertsona hark Araneberri etxetzarra 1621ean saldu zion udalerriari, Udaletxe gisa erabil zedin. Ondoren, haren seme Esteban de Aranak hartu zuen haren lekua, aldi berean, Beasaingo parrokiako benefiziodun zenak.

157. argazkia hartuko dugu orain. Bertan aurreko lerroaldean aipatu ditugun bost etxe horiek adierazi ditugu. Horretarako, puntu zuriak paratu ditugu eta, era berean, haietako teilatuen gainean dagozkien zenbakiak ezarri, betiere, eraikuntza-dataren hurrenkera errespetatuz. Horrela egitea erabaki dugu haiek jatorrizko Bideburu etxearekiko nahikoa zehaztasunez kokatze aldera. Jatorrizko etxe hura, orduan (orain berria bezalaxe) plazatik parrokiarantz eta mendietarantz abiatzen den maldaren hastapenean lekutzen zen.

157. irudi horretako 1 zenbakidun teilatua eta plazarantz paratutako lehen puntu zuria dauden lekuan egongo litzateke jatorrian Bideburu etxea (156. argazkian ikusi duguna) hartuko lukeen orubea; hurrengoa, 2 zenbakiarekin adierazten dena, Bideburu berri izango litzateke, egin 15. atarian dagoena; 3 zenbakiarekin adierazten dena Erdikoetxea etxea litzateke, egun 17. ataria dagoen lekuan legokeena; Bonaetxe edo Bonetxea izango litzateke 4 zenbakiarekin adierazita dagoena, egun 19. ataria hartzen duena; eta, azkenik, teilatuaren gainean 5 zenbakia ageri duena Bonaetxe berria da, Batzoki zaharra baino apur bat lehenago, egun 21. ataria hartuko lukeena.

Batzokiko pilotaleku zaharra argi ikusten da kanpoaldean; San Inazio kalerantz sartzen den eraikin luzexka da, irudian azpialdean ikusten dena, ezkerrera. 157. irudiaren ia ertzean kokatutako eraikina, fatxada iluna duena, edonork dakien moduan Anselmo Garmendiaren etxea da, Antzizarreko zonaldea utzi eta inguru honetara etorri zena bizitzera. Etxe hori 1950-1960 bitarteko hamarkadaren amaiera aldera eraiki zen. Hartako etxabean Bazar Anselmo izenekoa finkatu zen, garai hartarako erronka handia zena merkataritzari zegokionez.

3. eta 4. sektoreko planoak aldi berean begiztatzen baditugu, argi ikusten da, 1862an Bidebururen inguruan zegoen eraikin bakarra, Ubia edo Urbi baserri zaharra zela, aipatu etxearen ezkerrera lekutua, kalean gora, tren-geltokirantz. Baserri hori Infanterriko etxearen baitakoa zen orduan.

Bi eraikuntzen artean 200 metroko distantzia zegoen gutxi gorabehera. 1862an larre-sail guztiak errepide nagusiraino jaisten ziren; 4c plano-zatian V hizkiarekin adierazten ditugu, izan ere, hutsik zeuden, inolako eraikuntzarik gabe. Zein txikia, sakabanatua eta, batez ere, luzea zen gure Beasain 1862an!

Orain 4f plano-zatia hartuko dugu ostera ere. Bertan, parrokiara igotzen zen bidearen ezkerrera plazako etxe horiek ikus ditzakegu eskema moduan emanda, hain zuzen, V hizkiaren eskuinera, Sorobilletas izeneko bidea hasten den gunera arteko tarte betez. Aipatu bidea ere E hizkiarekin adierazten da planoan. Honatx 1862an bertan zeuden etxeak.

Hurrengoa, eskuinera, Bideburu baino apur bat gorago gezi marroi batekin adierazita, etxeen artetik haien atzean dauden ereiteko lurretara igarotzeko ikusten den hutsunearen ondotik, Simonanea kokatuko litzateke, S1 hizkiz adierazi duguna; Ondoren, Mendiaenea txiki paratuko litzateke, M2 hizkiz markatu duguna; azkenik, plazako Mendiaenea lekutuko litzateke, M3 hizkiz adierazi duguna eta iparralderantz luzatzen den teilapea ageri duena. Teilape hori ere gezi horizontal zuri batekin adierazi dugu.

Sorobilletas edo Ubiako xendraren (4. planoan, ezkerrera, V hizkia baino apur bat goragotik irteten diren bi lerroak) abiapunturaino iritsi arte ikus daitezkeen hurrengo eraikuntzak ez dira etxeak, Mendiaenenea handi etxeko teilape-estalpea baizik. Etxe hori plazako Mendiaenea gisa ere ezagutzen zen, Kale Nagusian kokatutako izen bereko beste eraikinarekin bereizte aldera. Mendiaeneatxiki izeneko etxea, azken batean, antzina Mendiaeneandi etxe nagusiaren hegoaldeko teilapearen gainean egindako eraikuntza da.

Hain zuzen, plazako Mendiaenea etxearen iparraldeko teilapearen gainean Guridi etxea eraiki zen 1905ean, 158. argazkian parez pare ikusten dena; izan ere, beste dokumentu bateko zenbait lerro irakurrita plazako zonalde horretan lekutzen ziren teilape na-

hasgarri horien inguruan genituen zalantza guztiak, hainbat denboran argitzeke izan ditugunak, uxatu ahal izan genituen:

> ***"…en el solar que ocupaba la tejabana Norte de la casa Mendiaenea, se registró el 20 de Febrero de 1.905 Guridi enea, la cual constaba de planta baja, tres pisos y desván…"***

Etxe hori zirkulu zuri batekin adierazi dugu eta, aldi berean, gezi zuri batekin adierazi dugu 4f planozati horren azpialdean, hartako orubea izango zena. Dena den, aurretiaz ere ikusi dugu hori. Plazako Guridi etxea trenbidearen planoa sinatu eta 43 urtera eraiki zen. Aurreko dokumentuan Guridi etxeak hartzen zuen orubea argi kokatzen da eta, era berean, 1905. urtean haren inguruan zegoena egoki adierazten da, hala deskribatzen baitira hartako mugak:

> ***"…al Norte, antes limitaba con la tejabana Sur de Aranea (Arane zarra), ahora con la nueva Escuela de Párvulos edificada en el año 1.904…"***

Aranea etxearen hegoaldeko teilape hori 4f planozati horretan gorako zeiharreko gezi zuriarekin adierazi dugu, U hizkiaren eskuinera. Bada, hegoaldeko teilape horretan Aranezarra eraikinaren errementaritza-etxea lekutzen zen, Araneko Sutegi izenez ezagutzen zena. Sutegi hartan lan egiten zuen 1862an Jose Martin Ayestak. Gainera bertan bizi zen bere emazte Francisca Auzmendirekin eta Manuel, Martin eta Juan Bautista Ayesta Auzmendi semeekin. Arane zarra etxearen hegoaldera atxikitako errementariaren etxebizitza hark 70 m^{2}ko azalera zuen soilik. Horri beste 42 m^2 gaineratu behar zitzaizkion, lan egiten zuen sutegiko teilapeari zegozkionak.

Ayesta artisauak bazuen nolabaiteko sona 1862an eraikitzen ziharduten trenbidearen ibilbide horretarako egindako zenbait lan zirela medio. Dena den, ez dakigu artisau hark abizen horrekin ezagutzen ditugun pertsona ugariekin ahaidetasunezko harremanik ote zuen ala ez. Ezagutzen ditugun gehienek Andre Mari kale horretan zituzten sustraiak. Baliteke hala izatea, baina ezin izan dugu egiaztatu.

Bi eraikuntzak bota zirenean, haietako orubearen zati baten gainean arestian aipatu dugun Haur Eskola berria eraiki zen. 1904an sortu zen eskola hori. 1915ean berregituratu egin zuten eta Arte eta Lanbide Eskola izendatu zen ordutik aurrera. Atzealdean hainbat gela berri sortzeaz gain, urte hartan beste solairu bat eraiki zen gainetik. Eskola Guridi enea etxea baino urtebete lehenago eraiki zen, eta guztia nahikoa berria zenez, Guridi sendiaren etxe berriari zegozkion mugak deskribatzean bi eraikuntzen izenak aipatzen dira beti (gure zorionerako).

158a irudian eskola hori ikus daiteke eta, aldi berean, eskuinera Guridienea etxea adierazi dugu, 1905ean eraiki zena (kontuan izan, kasu honetan egungo San Inazio kalerantz begira dauden gelen atzealdeak ditugula ikusgai). Arte eta Lanbide Eskola XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera Eskola Sindikal izenarekin ezagutu zen. Urte horietan, beraz, entitate berriak ematen zituen eskola profesionalak. 158a irudian plazako Arantxiki etxea adierazi dugu 1 zenbakiarekin; 2 zenbakiarekin adierazi dugu Guridi etxea; eta, azkenik, 3 zenbakiarekin adierazten dira Arte eta Lanbide Eskolaren atzealdeko fatxadak, gerora San Inazio kale izango zenari begira.

Ez dago esan beharrik eskuinera antzematen den hutsunea "Casa del Pipero" (Zahagi-egilearen etxe) izenarekin ezagutzen zen eraikina hartzen zuen orubea dela. Etxe hori plazako Mendianea gisa izendatu dugu hainbat alditan, hots, egungo Andre Mari kaleko 5. atarian kokatzen den eraikin zaharraz ari gara. Eta, gazteenentzat, ezinbesteko deritzogu berriz ere azaltzea "ardo-pipa" bat aipatzean (agian etxe horretako etxabean egina) 158b irudian alondegi zaharraren sarreran dauden gizonen aldamenean dagoen zahagiaz ari garela.

Lehenik eta behin Zaballos ikusten da, Mikeleteen sarjentua; gero, identifikatu ezin izan dugun pertsona bat ikusten da. Ardo-zahagia eskuetan duen gizona, ordea, erraz identifikatu ahal izan dugu, Loinatz azpikoa baserriko Martin Aramburu da bera. Gerora gizon hori Udaletxeko funtzionario zorrotza izan zen, eta ur-hartunea ireki eta ixteko eginkizuna eraginkortasun handiz betetzen zuen ur eskasia zen garai horretan (kontuan izan behar da, urte horietan depositu zaharrak soilik hornitzen zuela udalerri osoa); azkenik, Modesto Aranburu ikusten dugu, "alondegitarra", Arriarango Itola baserrian sustraiak zituena.



"Casa del Pipero" delako hori 1958an eraitsi zen eta hark utzitako orubean (158a argazkian ikusten duguna), egun Andre Mari kaleko 5. atarian dagoen eraikina altxa zuten 1967an.

PLAZAKO ERAIKIN ZAHARRAK

4k plano-zatian, sarrera modura, Udaletxeko plaza zaharraren ekialdeko zatian eskematikoki ematen diren eraikinak adierazi ditugu. Plaza hori orduan estua eta luzea zen.

Herriguneko 40 etxeei buruzko liburuan Etxeberri, Hilarioenea edo Maizenea, Aranberri ostatua eta Udaletxe zaharrari buruz ere mintzatu ginenez, ez dugu liburu hartan esandakorik errepikatuko hemen.

Nolanahi ere, 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak erabiliz adierazi ditugu haiek, kokapen-hurrenkera errespetatuz. Zenbaki horiei buruzko xehetasunak aurreko lerroaldeetan eman ditugu. Halaber, M hizkiarekin adierazi dugu hiltegi zaharra hartu zuen estalpe trauskila ere. Hiltegi hori ere aurrez azaldu eta ikusi dugu. Aitzitik, etxe horien inguruan orain arte ezagutzen ez genituen zenbait datu ekarriko ditugu hona; esate baterako:

Liburuaren hasieran esan dugu harrigarria iruditzen zitzaigula Carrera arkitekto ezagunek (aitona, aita eta biloba) haien jaioterri honetan egin ahal izan zituzten eraikinei buruz deus ez aipatu izana. Halaber, aurrez aipatu dugu Pedro de Carrera y Aranak (sendi horretako aitona) ere Etxeberria Karrera izeneko etxea eraiki zuela (gerora Donjuanenea izenez ezagutu zena), parrokiaren igoeraren ezkerraldean; bada, orain badakigu, horrez gain, 159. argazkian bi gezi zuriren artean adierazten den Aranberri ostatu ezaguna haren semeak eraiki zuela, hau da, Martin de Carrera y Aranburu arkitekto joriak. Segidan emango dugu horren berri.

1721ean, udalerriko herritarrek udaletxe zaharra eskuratu eta ehun urtera, Aranberri ostatua eraikitzeke zegoen artean, izan ere, ez zegoen horretarako baliabiderik. Horrenbestez, Martin de Carrera y Aranbururi eskatu zitzaion ostatua eraiki zezala. 1737an amaitu ziren hura eraikitzeko lanak eta Udaletxe zaharraren alboan lekutu zen. Ostatu desiratu hori eraiki zenean (azkenik!) Martin de Carrerak bere anaia nagusi Juan Bautista de Carrera eta bere koinatu

Zumetarekin (biak oso goiz hil ziren) batera, udalerriko Udaletxea ere zaharberritu zuten. Aipagarri da, era berean, XVIII. mendearen hasierako Beasain ñimiño hartako herritarrek denbora asko behar izan zutela aipatu Udaletxea ordaintzeko.

Ez ditugu hona ekarri nahi arkitekto horiek beren ibilbide profesionalean egindako eraikin ugariak (Gipuzkoa soilik aintzat hartuta), izan ere, haien zerrendak orrialde asko hartuko bailuke. Dena den, agian irakurle zenbaitek jakingo ez duenez, zera gaineratuko dugu, Errekarteaundi baserrian jaiotako arkitekto hark ere parte hartu zuela Francisco de Iberorekin batera "Autoen Errepidearen" eraikuntzan. Animaliek bultzatutako autoentzat egindako bide hori Behobiatik Arlabaneraino luzatzen zen. Haren luzera 19 legoa eta 12.352 oinekoa zen (Gaztelako oinak ditugu hemen aipagai) eta haren zabalera berriz, 22 oinekoa. Urte horietan legoak luzera ezberdinetakoak izaten ziren, betiere, eskualdearen arabera. Kasu jakin honetan legoa bakoitza 20.000 oinen baliokide zen.

Ikus dezagun orain Martin de Carrera y Aranbururen bizitzari dagokion jazoera txiki hori, Jose Vargas Ponce historialariak ekarri zuena eta Jose Ignacio Telletxea Idigoras ikerlari joriak ezagutarazi zuena. Jazoera hori maisuaren azken momentuei buruzkoa da, egun apendizitis eta orduan "miserere koliko" gisa izendatzen zen gaixotasunak jota hil aurretik. Horrela agertzen da historialariaren idatzietan:

"…enfermó en esta villa (se refiere en este caso a la villa vizcaína de Orozko) y sacramentado y hecho testamento, quiso que le trajesen a la villa de Tolosa (en donde residía por esos años); pero no pudo pasar de Beasain, y en la casa nativa llamada de Recarte murió en el mismo aposento en que nació durante el 31 de Agosto de 1.768 del llamado mal de miserere…"

Aranberri ostatuaren eraikuntzara itzuliz, aipagarri da Udaletxe zaharrera atxikita eraiki ahal izateko bertan zegoen "labea" bota egin behar izan zutela, Udaletxearen eraiki zaharreko ezker albora edo iparraldeko hormara atxikita zegoena, 2002ko "Beasain, leiho bat iraganari" liburuaren 16. atalean Udaletxe zaharrari buruz ikusgai den planoaren kopiari jarraiki.

Urte horietan ohikoa zen etxeek beren "labeak" izatea ogia egiteko. Beasainen badakigu inguruko "kaleko etxe" zenbaitek bazuela labe hori, esate baterako, Bidearte handi etxeak. Kasu horretan kanpoaldean zegoen, ibaiaren ertzean, egun Bidearte txiki etxearen atzealdeko lorategia dagoen lur-eremuan. Kontuan izan behar da derrigorrezkoa zela labeak kanpoaldean ezartzea, izan ere, sutea izateko arriskua areagotzen zuten. Horrela, adierazi zen 1713ko Batzar Nagusietan:

*"…se cita a las Justicias y particulares para que **quiten del interior de las casas y a distancia proporcionada** los hornos que existen actualmente para cocción de pan" (pan de maíz era lo habitual entonces)*

Gure Udaletxe zaharrak, inguruko gehienek bezala, labe bat barneratzen zuen herritarrei zerbitzu emateko. Ikus 159 eta 159a irudietan 1924an Udaletxe txikiak zuen itxura. Lehen irudian, Aranberri ostatuaren eskuinera agertzen da, zeina bi gezirekin adierazi dugun; bigarrenean, gezi bertikal zuri txiki batekin adierazten da. 160. argazkian Udaletxea, Eskola Publikoa eta Maisuen etxeak hartzeko eraikin berriak zuten itxura ikus daiteke, urte hartan inauguratu ostean. Ikus azpiko plazatik igotzeko eskailerak artean egiteke zeudela; izan ere, azpiko plaza hori gerora birmoldatu egin zen egun dituen dimentsioak hartuz, baina orduan birmoldaketa hori egiteke zegoen eta egungo azpialde horren erdia baino ez zen (Gaur egun, halaber, azken egitura ere aldatu egin da, izan ere, 2010ean albotiko sarbide bat inauguratu da, azpialde hori berriz ere birmoldatu ostean).

160. argazkian apur bat eskuinerago dago kiosko zaharra, horregatik ez da irudi horretan ikusten. 160a argazkian ordea haren lehen planoa dugu ikusgai. Bertan bandako musikariak ikusten dira forma hexagonala duen egurrezko atrile handi baten inguruan. Zuzendaria, Pedro Jose Iguain, ia irudiaren erdian agertzen da; beheran, Salvador Zillan maisua ikus daiteke haurrekin batera; horiez gain, aguazila ikusten da, zeina Manuel Arce dela uste dugun oraindik, hori bai, Rafael Pikabearen liburuko Udal Korporazioaren argazkian baino urte gehiagorekin. Musikarien artean ere hainbat ezagunak zaizkigu, horien artean, Luis Serrano irudiaren erdian eta, Mariano Garcia, kamerari bizkar emanez agertzen dena, baxua joz.

Plazako Hilarionenea edo Maizenea etxea da ostatuaren ondorengo eraikuntza. Kasu honetan, ordea, 159. argazkian paratu ditugun bi gezi zurien ezkerrera dago. Ez dakigu zehazki noiz eraiki zen, baina badakigu Aranberri ostatua baino berantiarragoa dela. 159a argazkian bi puntu zuriren artean kokatzen da Hilarion etxea.

1786an artean haren jabea zena ikusten dugu, Jose Hilarion de Maiz Garaikoechea eskribaua (beranduago probintziako politikari garrantzitsua izan zen), Ubiñarte baserria sei urtez alokatzeko kontratu bat sinatzen. Gizon garrantzitsu hari zor dio bere izena plazan kokatutako Hilarionenea edo Maizenea etxeak.

Ubiñarte etxearen alokairuari dagokionez ikus dezagun zein baldintza ezarri zituen Maria de Abaria bertako jabeak (zeina, kurioski, haren ama besotakoa ere bazen): urtean 22 dukat eta sei gari-anega. Horrez gain, etxeari zegokion "Basakaitz" gaztainadiaren zati bat ere alokatu zuen, beste 26 erreal eta 14 marabediren truke; eta, gainera, "Fermadas" Etxeen Ermandadeen (Erretako Etxeen Ermandade) onuran beste 16,5 erreal ordaindu behar ziren.

Maiztarren familia mintzagai dugunez, jakingarri da 1773an Juan Antonio Maiz eta haren semeek (horien arten Jose Hilarion izenekoa) haien kapare izaera egiaztatzea lortu zutela. Dirudienez, Maiz abizena zuten pertsona horietako gehienak plazaren inguruko eraikinetan mugitzen ziren nagusiki, izan ere, beranduago Etxeberri, Hilarionenea edo Maizenea eta Aranberri ostatuan finkatu ziren. Juan Antonio Maizek ere plazako Arantxiki etxea errentan hartuta izan zuen hainbat urtez Maria de Abaria errentatzaile

zelarik. Hasieran herriko zirujau zen Joseph de Mugicarekin konpartitzen zuen etxe hori errentan. Dena den, aurrerago, emaztea eta biak bakarrik bizi izan ziren etxe hartan.

Urte batzuen buruan Jose Hilarion de Maiz y Garaikoechea garaiko giro politiko gaiztotuan nabarmentzen hasi zen hala etxean nola probintzian. XVIII. mendetik XIX. mendera bitarteko aldaketa gatazkatsua izan zen, izan ere, bi joera nagusiak, tradizional-forala eta liberala lehian ziren (egile zenbaiten arabera, azken hori ere forala zen, nahiz eta berezko eran izan). Hainbat historialari ezagunen arabera Euskal Herriak *"tradiziotik modernitaterako"* urratsa eman zuen garaia izan zen hura.

Hain zuzen, garai horretan izan zuen aipagai dugun pertsonaiak jardun politiko nabarmena probintzia barruan. 1794ko abuztuaren 4an Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalita Konbentzioko goi-kargu frantziarrekin Orioko liskarren amaiera negoziatzen izan zen Romero eta Lizeaur diputatuekin batera, tropa inbaditzaileek ibaia zeharkatu aurretik gera zitezen. Zenbait historialarik nolabaiteko garrantzia aitortu zioten Maizi gerra hartan, Aldamar, Lazcano eta Romero politikariekin batera, hain zuzen, Getariako Diputazioaren "kapitulazio eztabaidagarrian", Baionako espetxean preso sartu zituzten batzarkide guztien izenean jardun zutenean.

Jose Hilarion de Maizek izan bide zuen izaera setatsuari buruz, beste dokumentu batzuetan irakurri dugunez, "frantsestu" izana leporatu zioten berandugo, hau da, Frantziako politikaren jarraitzaile izatea aurpegiratzen zioten, baina gizarte-aldaketa sakon eta berriak nagusi ziren garaian (batez ere Frantzia iraultzailean) hitz horri eman ahal zitzaion zentzu zabalenean. Edozein kasutan ere, ukaezina da Frantziako ejertzitoen inbasioak etengabeak ziren urte haietan nabarmendu egin zela politikari gisa. Hortaz, Jose Hilarion de Maiz y Garaikoechea eskribaua ez zen herriko bizilagun arrunta izan.

Jo dezagun orain plazako Etxeberri etxean, "bost arkupedun etxean", bizi ziren Maiztarrena. 1856ko udazkenean Martina Maiz Bagazgoitia eta Jose Julian Blancek Etxeverri etxea eta hari atxikitako jabetzak eskuratu zituzten Jose Martin Maizen herentzian (haien aita eta aitaginarreba, hurrenez hurren). Jabetza horiek guztiak 1871ko abenduaren 7an erregistratu ziren. Maiztar horiekin jarraituz, beti ezagutu nahi izan dugu Martina Maiz Bagazgoitiak zuen aberastasun handiaren jatorria. Andre hura ongile eskuzabala izan zen Beasainen eta Gipuzkoako beste hainbat herritan, besteak beste, Bergara eta Donostian.

Azkenean jakin dugu, izan ere, jarraian kontatuko dugunak ederki azaltzen du Martina Maiz beasaindarrak zuen aberastasunaren jatorria. Gogoan izan behar da, Bergarara ezkondu zela, izan ere, bere senarra, Jose Julian Blanc 1846an **Fois Silva Blanc y Cia** enpresaren (gerora, Bergarako **San Antonio Kotoi-fabrika**) bazkide sortzaile izan zela. Enpresa hartan merkatuan "Bergarako urdin" izenez ezagutzen ziren

mahoizko ehunak fabrikatzen ziren. Gipuzkoako fabrika zaharrenetakoa zen Bergarakoa eta hari zor die herritarrek "mahoitar" ezizena. 160 urte igaro badira ere, antzinako fabrikaren jardunarekin jarraitzen duen enpresa ikus dezakegu oraindik, merkatuan lehian eta burtsan kotizatzen. Hala ere, egun beste izen bat dauka.

Blanc-Maiz senar-emazteek garrantzia eta eragin handia izan zuten Bergarako herrian. Bitxikeria modura eta horren erakusgarri aipa dezagun Bergarako herritarrek nola izendatzen zituzten, izan ere, nobletitulurik ez zutenez, Martina Maizi buruz mintzo zirenean "Blanquesa" (Blanc jaunaren emaztea) ezizenez izendatzen zuten errespetu osoz. Herri hartako beste familia garrantzitsu batekin gauza bera gertatzen zen, hain zuzen, Monzon de la Torre Olaso sendiarekin (Beasaingo Abariatarren adar batekin ahaidetua), izan ere, familia hartako andrea "Monzonesa" ezizenez ezagutzen zuten. Titulu "herrikoi" haren jabea, hain zuzen, Telesforo de Monzon politikari nazionalistaren amona zen. Politikariaren familiak, beraz, eskualdean maiorazko arras garrantzitsuak izateaz gain, aurrez aipatu dugun ehun-fabrika horretan ere bazuen interesa.

Beta hainbat kargu politiko izateaz gain, Jose Julian Blanc Bergarako alkate ere izan zen 1861eko urtarrilaren 1etik 1863ko urtarrilaren 1era.

ORIA IBAIAREN ETA HANDIZKAKO PLAZA BERRIAREN ALBOKO ONIBARRA

Gure bidaiariek 1862an trenbidetik zehar paseatuz ikusiko zituzten landutako lursailez ari gara, izan ere, orain Oria ibaiaren alboan lekututako lur-eremu zabalak ikusiko lituzkete. Orduan Zufiaurreandi eta txiki (Zufiaurreazpikoa artean eraikitzeke zegoen), Baraikoandi, Mendiaenea (Kale Nagusikoa) eta kotxe-tokia (egun Kantoikoa etxea) leudeke bertan.

Gaur egun, Kale Nagusiko 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30 eta 32 zenbakidun atariak hartzen dituen zonaldea dago bertan, "Las Barras Doradas" (Kantoikoa) izenez ezagutzen den dendaren ertzeraino. Hain justu, ertz horretatik aurrera abiatzen zen antzina trenbidearen beste aldean lekututako laborantza-lurretara zihoan errepide ezaguna. 3. sektorearen barneko atal batean ikusi dugu hori.

Lur-eremu horietan egun etxebizitza-etxeak, haurren jolaslekua, terrazadun tabernak eta Iturralde kaleko barne-plaza lekutzen dira. Antzina, ordea, 4. sektoreko planoan eta 4l plano-zatian P hizkiaren inguruan ikus daitekeen errepide zaharrak zeharkatzen zituen lur horiek, hau da, "La Calleja" (Kale estu) gisa ezagutzen zen bideak.

Eta etxe horien historia txikia hainbatetan aipatu dugun "Beasain, leiho bat iraganari" liburuan ere eman genuenez, ez dugu haiei buruz beste ezer gaineratuko, ez bada atzealdeko zonaldean kokatutako lur-eremu horiei buruz. Lur horiek ederki ikusten dira 161. eta 162. argazkietan, angelu ezberdinetatik.



Zonalde horrek gaurdaino izan duen bilakaera ezagutzeko Zubimusu plazari buruzko kontu batzuk ekarriko ditugu hona, zeinaren hutsunea Q hizkiarekin adierazi dugun 1862ko planoetan. Hutsunea diogu, izan ere, plaza askoz beranduago eraiki zen, zehazki esateko, trenbidearen ibilbideari dagozkion plano hauek taxutu eta 65 urtera.

Ehun urte beranduago ateratako 161. eta 162. argazkietan etxe horien atzealdean zegoen lur-eremu handia ikus daiteke, XX. mendearen bigarren erdialderako "gune desiragarri zalapartatsu" bilakatzen hasia zena jadanik, "kaleko zonaldean" lur premia zuten eraikitzaileentzat. Ibaiaren alboko lur horien gainean baziren antzina garai landatar hari zegozkion hainbat arau, onibar jakin batzuen erabilera itunduari zegokionez. XIX. mendearen amaieran, hala arautzen zen kolonoek haiei eman beharreko erabilera:

> ***"Se destinará del predio sirviente una faja de terreno de 0,5 metros de ancho para senda de paso de los usuarios. Podrán transitar por ella solo personas (no caballerías), propias o autorizadas del predio dominante"***

161. argazkian bide nagusia ikus daiteke oraindik. Era berean, landutako partzela zahar guztietako soroetara iristeko bidexka guztiak ere agertzen dira bertan. Kontuan izan behar da urte haietan etxebizitzari dagokionez urritasuna zela nagusi; hori zela eta, lur-eremu horien barnean ikusten diren atzealdeko zenbait eraikin txikitan baziren egoileak, horien artean, Beasaingo hainbat familia ezagun. Zehazki, gezi zuri batekin adierazi dugun erdialdeko zonaldeko etxetxoan Begue sendia bizi zen, zeintzuen arbasoak Cintruenigokoak ziren. Etxola horretara sartzeko Baraikoandi etxea hartzen zuen 28. ataria zeharkatu behar zen; gero, Iraola gozotegiaren lantegia igaro behar zen eta, azkenik, kanpora atera behar zen, atzealdera, handik etxebizitzara iristeko.

Zubimusu atzean kokatutako etxetxo horietako batean bizi ziren, besteak beste, Florencio Mendia eta bere familia. Zonalde horretara iristeko Zufiaurre-





txiki eta Zubimusu etxe zaharren artean zegoen kalezuloa zeharkatu behar zen, egun Iturralde plazara iristeko bidea dena eta Kale Nagusiko 20 eta 22 zenbakidun etxeen artean dagoena. Etxetxo, Zufiaurreandi eta Zufiaurretxiki etxeen aurrealdeko fatxaden parean eta Zubimusu etxearen ekialdera zegoen kale labur hori "Calle del Correo" (Posta Kale) izenez ezagutzen zen XIX. mendearen azken laurdenean.

Oraindik ez dakigu zein eraikinetan finkatu zen Posta Bulego zaharra. Hala ere, kontuan izanik 1909an lehen telefono-kabina publikoa Zufiaurreandi etxearen etxabetan finkatu zela, orduan, litekeena da lehen posta bulegoa ere bertan lekutu izana, bulegoak geltokiko zonaldean lekututako Untsain izeneko etxera eraman aurretik. Dena den, hori susmoa besterik ez da eta ezin izan dugu egiaztatu. Untsain etxe izendatu dugu, izan ere, Barrendain etxeko Unsain sendien ondorengoek altxa zuten oraindik tente dagoen eraikin eder hori.

162. irudian, goialdean erdiratuta, horizontalki ikusten diren etxeak "La Calleja" gisa izendatzen den zonalde berrian sartzen dira. Aipatu kalea geltokiko zamaketa-moilara zihoazen errailak desbideratzen hasten ziren gunean bertan kokatzen zen. Hori 3. sektorean ere aipatu dugu, Urbi baserriaren eta Geltokiaren zonaldeari dagokion atalean. 4. plano orokorrean nahiz 4l plano-zatian ikus daitekeenez, 1862. urtean errepidearen alboan, hots, P hizkiaren ezkerrera, gerora errailak lekutzeko erabiliko zen espazioaren eta errepide nagusi zaharraren bi ertzen artean ez zegoen deus eraikita.

161. airetiko argazkia ehun urte beranduago atera zen. Bertan ederki ikusten da Zubimusu, Baraikoatxiki, Baraikoandi, Mendiaenea eta Kantoikoa etxeek osatzen zuten lur-eremua. Nolanahi ere, 162. argazkian ere "La Calleja" izeneko bideak errepidearen azpiko tunelera sartzeko egiten zuen kurba berezia ikus daiteke.

163. irudia Venancio Iraolaren argazki maitagarria da. Gizon hori Kale Nagusian lekututako Baraikoaundi etxeko ondorengoa zen eta argazkian motor baten gainean ikusten da "La Calleja" izeneko bide baldar eta harritsuan barna, garaiko velosolex baten gainean alajaina! Are, belozipedo horrekin lotutako historia laburra ere aipatu digute. Dirudienez, motorra haren lehengusu Pedro Ibaibarriagarentzat erosi zen, zeinak 1957an 15 urte baino ez zituen. Estanda enpresa berrira erosoago joan zedin erosi zioten motorra, izan ere, enpresa hori errekak Ubillotz-Antzizar zonaldean egiten zuen meandro zabalean lekutu zen, 1. sektorean esan dugunez. Bere anaia txikiak, Jose Antoniok, inbidia sanoa bazion ere, azkenik Venancio lehengusuak heredatu zuen motor desiratu hori.

1862ko 4 eta 4l planoak ostera ere hartuz, Q hizkiarekin adierazi dugun hutsunea 276,36 m²ko azalera zuen orubea dela ikusiko dugu, zeinaren gainean eraiki zen beranduago Plaza de Abastos (Handizkako plaza) izenekoa, gerora, Zubimusu plaza izenez ezagutuko zena eta herritarren artean "Arrain plaza" gisa ezagutzen zena. Hura eraiki aurretiko idatzi batzuen arabera, herrigunean zegoen plaza txiki hura



"argi-bisten zortasuna" batekin grabatua zegoen, orube hori inguratzen zuten etxeekiko. Legezko baldintza hori zela eta, 1926an Udalak orube horretan udalerriari zerbitzu emango zion zerbait eraikitzea adostu zuen, partzela hori baitaratzen zuten etxeetako (orduan Zufiaurreandi eta Zubimusu) jabe "eragindunek" zuten eskubidea urratu gabe.

Orain plaza txiki hori egiteko obrak nola gauzatu ziren eta lur horien gainean egindako balioespena ikusiko dugu. 1926ko uztailaren 28an egin zen aipatu balioespena. Aipagarri da Zufiaurreandi (Egun Kale Nagusiko 20. zenbakidun blokeak hartzen du orube haren zati bat) eta Zubimusu (gaur egun kale bereko 22. zenbakidun beste eraikina kokatzen da etxe zahar hura zegoen lekuan) etxeetako jabeek artean 276,36 m2ko orube horren inguruko jabetza-eskubideen inguruko lehia zaharra mantentzen zutela.

Orubearen gaineko argi-bisten zortasun hori zela medio, errepidearen alboko partzela horretan ezin zen altuera jakin bat hartuko zuen ezer eraiki. Horregatik, 1926ko uztailaren 28an, Udalak hala eskatuta peritutza egin ostean, 1.381,80 pezetan balioetsi zen, hots, metro karratuko 5 pezetan. Urte horietan "kaleko" zonaldean lekututako lur-eremu eraikigarriak metro karratuko 10/12 pezetan balioetsi ohi ziren. Hori aintzat hartuta, lursail horrek kalifikazio hori ez zuenez, perituek merkatu-prezio horren erdia aplikatu zuten erabaki "salomoniko" batean.

164. argazkia hartuz, ikus dezagun eraikinen artean, zirkulu zuri batekin adierazita, Handizkako plaza hartako teilatua. Argazki horretan, era berean, Bidearteandi, Zufiaurreazpikoa, Etxetxo, Zufiaurreandi, Zufiaurretxiki eta Zubimusu etxeen atzealdeko zonaldeek 1961ean zuten itxura ikus daiteke. Gazteenek identifika ditzaten haietako teilatuetan etxe horien hasierako hizkiak paratu ditugu.

1926ko apirilaren 28an, Guillermo Eizaguirre arkitekto tolosarrak Udaletxera eraman zituen "Pabellón para la ampliación del Mercado de Beasain" (Beasaingo Merkatua handitzeko pabilioi) izendatzen zuen proiektuko planoak. 1927ko urtarrilaren 18an plaza hori eraikitzeko enkanteko baldintzak ireki ziren. Hasierako aurrekontua 13.000 pezetakoa bazen ere, Antonio Garmendia eraikitzaile tolosarrak kopuru hori %5ean hobetu zuen. Azkenik, kontratista haren alde esleitu zen obra. Aldi berean, hark obra eskatutako hirurogei eguneko epearen barruan amaitzeko konpromisoa hartu zuen, kontratua sinatu zen egunetik zenbatzen hasita.

165. argazkian 1927an inauguratu eta 1995ean eraitsi zen Handizkako plazaren zati bat ikus daiteke. Bertan "Joakintxo" tabernan eguneroko mokadua hartu aurretik lau pertsona hauek ikus daitezke pose atseginean: Ramon Mugica, aipatu tabernakoa; Jose Iraola, izen bereko gozotegikoa; Juan Etxaide, "Ayestaran Iturgintzako" langilea; eta, azkenik, Pascual Aranburu, hau ere udalerriko lanetako langilea, (eskubitik ezkerrera).

Pascual Aranburu izan zen Beasaingo harrizko kale zaharrak konpontzen aritu zen azken langilea. Horrez gain "edukiera handiko disko gogor batean informatizaturik" (bere txapelaren azpian paratzen zena) gordetzen zituen besteak beste, ubide, erregistro edota hartune zaharrekin lotutako sekretu guztiak eta, baita zabalgune berrietan sortzen zihoazen adarkatze ezberdinetakoak ere. 1980an, gerraren osteko lehen agintaldi demokratikoan zehar, Victor Guerra eta Jose Antonio Ibaibarriaga arduratu ziren ur-sare arras korapilatsu horri buruzko planoak emateaz, zeintzuk Pascual Aranburuk soilik gordetzen zituen.

NAFARROAKO ERREINURAKO BIDE ZAHARRA

Oso egoki jarri zioten "Bidearte" izena Frantzia eta Nafarroako galtzaden artean kokatutako etxeari. Beasaingo zonalde horretan Senpere-Lazkaora, Olaberriara, laborantza-lurretara eta herrigunearen hegoaldeko zonalde horretako mendietara zihoazen bideek norabide hori erakusten zuten 1863an trenbidearen ibilbidea amaitu baino askoz lehenagotik.

Urte batzuk geroago "Errementariaren edo Zaldizurretako zubi" izendatuko zenetik hasita gure oinezko ibiltariek ikusiko luketen ibilbide garrantzitsuena Nafarroarantz zihoan galtzada berria izango

zen, 800 metro baino gehiagoko altuera zeukan Bernoa mendatea zeharkatuz. Ataungo "Ergoiena" auzotik egun Lizarrustira doan errepidearen eskuinera igarotzen zen erdi aroko bidea zen hura. Ibilbide hori Ataungo aipatu auzoa zeharkatu ondoren, Agauntza errekaren gainean zegoen zubitik egin zitekeen edo, bestela, "Kasetako" atzealdeko zonaldetik igoz.

XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, zehazki esatera, 1885etik aurrera, zonalde horretan Lizarrustiko mendatetik barna egiten zen Nafarroarako sarbidea, jarraian ikusiko dugun moduan. Bidenabar esan hura eraikitzea ez zela lantegi erraza izan, ziur aski bi karlistaldiak tartean harrapatu zirelako obra hark izan zituen fase ezberdinetan. 31 urte behar izan ziren Lazkaibarreko zubitik Lizarrustirako gainera arteko bidea egiteko. Ongi bereizitako hiru puskatan gauzatu zen obra. Honatx hiru fase horiek:

- Galtzadaren lehen tartea, Lazkaibarretik Arrondo izeneko Ataungo jurisdikziorainokoa, 1854-1857 bitartean egin zen.
- Bigarren errepide-tartea, Ataungo Arrondotik Ataungo Erroiondoraino, 1868-1870 bitartean gauzatu zen.
- Azkenik, Gipuzkoako ibilbidea 1882-1885 bitartean amaitu zen, azken puntu horretatik Lizarrustiko gaina urratu arte.

Nafarroarantz zihoan errepide berri horren ondorioz, Berranoatik barna igarotzen zen erdi aroko galtzada zaharra alde batera geratu zen merkataritzari zegokionez (nahiz eta Gipuzkoa-Nafarroa kontrabandotan erabiltzen zen artean). Berranoako isurialdeen-banalerroa 200 metro gorago zegoen Lizarrustiko mendatekoa baino.

Azkenik egina zegoen Nafarroako ekoizkinak (ardoa, zerealak, baratzeko produktu ugariak, etab.) Gipuzkoako merkatuetara ekartzeko errepide desiratua. Errepide hori oso berandu amaitu zuten, izan ere, Autoen Errepide Nagusia Nafarroarekin komunikatuta zegoen 1851. urterako, Aizkorri mendikatearen mendebaldetik, Antzizarreko bidegurutzetik abiatu eta Etxegarate mendate berria igoz. Nafarroarekiko lotura Arkurutzeta (beranduago Irubide) izeneko gunean egiten zen. Modu horretan, desbideratze hori Iruñea-Gasteiz errepide nagusiarekin komunikatzen zen "Sakana" eskualdetik at kokatutako zonaldean. Orain, ordea, Altsasuko jurisdikzioan sartzen da.

Eta, hain zuzen, besteak beste, Lazkao, Ataun, Senpere, Lazkaomendi edota Ugartermendiko biztanleak Beasaingo Geltokira erosoago hel zitezen bidea errepide bilakatu zen, hain justu, Beasaingo Bidearteaundi etxetik aurrera, Senperen Lazkaibar-Lazkao-Ataun-Nafarroa galtzada berriarekin elkartu arte. Aldi berean, Beasain-Senpere ibilbide horretan Oria ibaiaren eta Agauntza errekaren gainean zeuden bi zubi zaharrak garai berrietara egokitu behar izan zituzten. Bi zubi horiek harrizkoak eta bi begikoak ziren. Azken desbideratze hori kilometro erdi eskasekoa zen eta Jose Francisco Aranak gauzatu zuen 1865-1867 bitartean. Harrizko bi zubiak ere denboratarte horretan berreraiki zituen pertsona berak. Gizon hark beste hainbat lanbide betetzen bazituen ere, Foru Aldundirako kontratista lanak egiten zituen eta obra zibil hori ere berari esleitu zitzaion hartarako deitutako enkantearen ostean. Urte horietan jadanik ez zen Burugorrienea baserrian bizi, Aranberri azpikoa (ondoren Telleria etxea) izeneko herri barruko etxean baizik. 1852-1853 bitartean eraikitako etxe hori gezi bertikal zuri batekin adierazten da 143. irudian.

Senpere-Lazkao-Ataun bide zahar hori Ubiñarte baserrira iritsi aurretik beste bi bide garrantzitsutan adarkatzen zen eskuinera; lehenengoak zubitik irten orduko egiten zuen eskuinera, Zaldizurreta baserriaren parean eta Zuntzunegi izeneko zonaldera abiatzen zen, angelu ezberdinetatik ateratako 98, 98a eta 166 argazkietan ikus daitekeenez. Zaldizurreta baserriari buruz ere ez dugu ezer gaineratuko, izan ere, 2002an argitaratutako "Beasain, leiho bat iraganari" liburuan sakon deskribatu genuen.

166. argazkiari dagokionez, aipagarri da ederki ikusten dela nola desbideratzen den aipatu bidea Zuntzunegiko zonaldean dauden mendietarantz, eta baita nola jarraitzen duen aipatu galtzadak Senpere aldera. Era berean, argazki horretan ahantzita genuen zerbait ikus daiteke, hots, XX. mendearen erdialdera Oria ibaiaren alboan lekututako baserriaren lurrak landuta zeudela. Bide hori gerora autobia izango zen sarbide bilakatzeko eustorma egin zutenean, behinbetiko ezabatu zen gure oroimenetik Zaldizurretak eskaintzen zuen ikuspegia, ibaiaren alboan baratzeak zituela. Gezi marroi txiki batekin adierazi dugu bide horretan baserrira eta Zuntzunegi izeneko zonaldera egindako desbideratzea. 166. irudiaren goialdean lekututako onibarrak eta trenbidearen beste aldean paratzen zirenak (horiek ere Zaldizurreta baserriari zegozkion), Senpereko zonaldeari buruzko 5. sektorean erakutsi eta deskribatuko ditugu hobeto. Sektore horretan, halaber, Ubiñarte, Ugartemendiazpikoa eta Ugartemendigaraikoa etxeak ikusiko ditugu.

1863-1864 urteetatik aurrera, Zaldizurretarantz egiten zuen desbideratzea pasa eta hirurehun metro eskasera, errailak eta trenbide-pasabidea zeharkatu ondoren, Olaberrira zihoan bidea abiatzen zen, herriaren ekialdeko zonalde horretan. Gaur egun, oraindik bide zaharraren ibilbidea egin daiteke Ugartemendi, Aierdiko zonaldea, Garitain eta Olaberria baserriak zeharkatu ostean. Horiek 5. sektorean ikusi eta deskribatuko ditugu sakonago, Agauntza errekaren beste aldean lekututako baserriekin batera, Senpere-Lazkao bidegurutzearen inguruan osatzen zen zonalde interesgarri horretan.

Bidearte-Senpere bide zaharrari dagokionez, Zaldizurreta baserritik igaro ondoren, 1862an gure irudizko bidaiariek ez zuten beste eraikinik ikusiko Ubiñarte baserrira iritsi arte (1863-1864 urteetatik aurrera beste etxola bat ere ikusiko zuten tartean), izan ere, Oria familiaren Bartoletxe etxea ez zen eraiki Senpereko Igeldegi baserria suak irentsi zuen arte.

Zaldizurreta zubiaren ezkerrera gure bidaiariek hainbat eta hainbat errekarri ikusiko zituzten Etxeluze etxeko baratzearen parera iritsi arte (Igartza errekatxoaren aldamenean). Horrela ikus daiteke XIX. mendearen amaierako argazki batean, zeina nahikoa egoera txarrean egoteagatik ezin izan dugu hona ekarri. Oria ibaiaren hegoaldeko zonalde horretan, gero, laboratutako lur zabal batzuk begiztatuko zituzten, nagusiki artasoroak, Urbieta izeneko gunera iritsi arte. Beranduago jakingo dugu nor zen Oria ibaiaren eskuinera, ibaian behera lekutzen ziren lur-eremu horien jabea. Gero lur horietan proiektatu zen eskualdeko hiltegia. Orobat, bertan eraiki zen herriko lehen "industrialdea", hasiera batean Muebles Eskisabel izeneko enpresa finkatu zelarik. Beranduago, apur bat gorago, ibaiaren ertz berean, lur gehiago erosi ziren 1934. urtean, kasu horretan Markesaren fabrika finkatzeko. Dena den hori guztiori Senpereko zonaldeari dagokion 5. sektorean ikusiko dugu.

5. sektorea

Ugartemendi - Senpere

5 zenbakidun planoa



PLANOAN IKUS DAITEKEENA

Hiru puntu zuri handirekin adierazten da proiektatutako trenbidearen ibilbidea.

A Beasain-Senpere-Lazkao galtzadatik abiatuz Olaberrirantz zihoan bide zaharra.

B Olaberrira zihoan bidearen desbideratzea Basakaitzeko zonalderantz (egun asfaltaturiko galtzada estua).

C Ugartemendigoikoa baserria.

D Ugartemendibekoa baserria.

E Agauntza errekaren ondoan kokatutako lurretara abiatzen zen bigarren mailako bidea.

F Ubiñarte edo Urbiñarte baserria.

G "Antigua" izeneko Ubiñarteko onibarra inguratzen zuen bidea.

H Senpere-Lazkao alderantz egiten zuen bidea.

I Agauntza errekaren ibilgua Lazkao eta Beasain arteko mugan, hain justu, errekaren erdian.

J Lazkaibar-Senpere-Lazkao errepidea, orduantxe eraikia.

K Senpereaundi edo Senpereburu baserri zaharra eta hartako baratzea.

L Errekalde baserri zaharra.

M Beltransagasti edo Betenasagasti baserria.

N Lazkaomendiko zonaldetik jaisten den Senpere errekatxoaren ibilgua

O Lazkaibar-Senpere bigarren mailako bide zaharra.

P Senpereberri baserria.

Q Beasain-Senpere bide zaharra zubia zeharkatuta Lazkaibar-Lazkao errepide berriarekin elkartuz.

R Agauntza errekaren gaineko trenbidearen burdinazko zubia, hiltegia kokatuko den zonaldean.

S Zaldizurreta baserriko lurretatik datozen bidexkek eta Ugartemendi-Olaberria bideak bat egiten duten gunea.

T Gezi zuri batekin adierazten den muga-lerro marroia; lerro marroi horretatik ezkerrera dauden lurrak Lazkaoko jurisdikzioaren baitakoak dira eta eskuinera daudenak Beasaingo jurisdikzioaren baitakoak.

U Beasain-Senpere-Lazkao bidean paratutako trenbide-pasabidea.

V Oria ibaiak eta Agauntza errekak bat egiten duten gunea Urbietako zonaldean.

X Senperen eraikitako bi begidun harrizko zubi zaharra, gezi zuri batekin adierazita.

Y Zaldizurretako bi familiei esleitutako lurren mugarenak egiten zituen lurrean egindako zuloa.

Z Bidearen desbideratzea Ugartemendibekoa baserri zaharrera (Ugartemendi izeneko beheko zonalde horretan orduan zegoen bakarra).

ORIATIK AGAUNTZAKO IBARRERA

4. sektorearen eta oraintxe hasiko dugun 5. sektorearen arteko ikusizko lotura modura, esangarri da 5. plano orokorrean Oria ibaiaren eta trenbide berriaren ibilbidearen artean kokatutako lurretan, hain justu, aipatu planoan U eta V hizkien artean dauden lur horietan (egun Zaldizurreta kaleko etxe berriak daude bertan, Oria ibaiaren gaineko bi zubi berrien artean) 1862an ereiteko lur-eremuak, belardiak eta lur-sailak baino ez zeudela. Leku hori inolako aldaketarik gabe mantendu zen 1930. urtera arte. Orduan zonalde horretan eskualdeko hiltegi berria eta Beasaingo lehen "industrialdea" finkatu ziren bertan.

Daniel Diez eta Jose Urizarrek bere garaian esan zigutenez, errebotean aritzeko pilotaleku zaharraren atzean (hain zuzen, 1930ean hiltegiko lehen zubia eraiki zen gunera arte) zegoen Oria ibaiaren hegoaldeko ertz hori toki kuttuna izan zen hainbat urtez kanaberaz aritu izan ziren arrantzaleentzat, izan ere, Oriako ertzetan artean ez zegoen eustormarik eta ibaiaren bazterretan zuhaizka itzelak zeuden. Hiltegiko lehen zubia zen hura, 1997an eraitsi zena, moderno eta zabalagoa izango zen beste bat eraikitzeko.

Eskisabel y Cia fabrika 1928an sortu zen. Hartako bazkideak Esnaola familiaren Gure Etxeberri eraikineko etxabetan finkatu ziren lehendabizi, Fernando Ezenarrok 2002an aipatu zigunez. Baina 1929ko uholdeek lantegi horiek suntsitu egin zituzten eta, horregatik, hiltegiko "industrialdean" instalatu ziren beranduago. Pixka bat beranduago, 1935ean enpresa hori handitzeko lanak burutu ziren industrialde berri horretan. Orduan Juan Eskisabel Barandiaran eta Pedro Irastorza Olazabal ziren artean hartako bazkide nagusiak.

Beste hamarkada bat igarota, 1945eko urriaren 15ean beste industria-lur batzuen eskriturak egin ziren leku horretan. Horiek 24.288,85 m²ko azalera hartzen zuten eta industria-jardun berdina mantentzen zuten. Juan Eskisabel zen hartako nagusia. Hark bakarka ekin zion jardunari, Muebles Loinaz izena hartuta.

Bost urte lehenago Zunzunegi familiak bere jabetzakoa zen Ugartemedibekoa baserriko lurrak saldu zituen, eskualdeko hiltegi berrian paratutako industria-zonaldean zeudenak. Salmentaren ondotik Marqués izeneko fabrika berria finkatu zen, altzairuen galdaketa eta ijezketarako. 1939ko abenduaren 19an gauzatu zen industria-lur horien salmenta, gerra zibil penagarria amaitu berri zela. 1968-1970 bitarteko urteak iritsi arte jardun betean mantendu zen altzairuaren sektoreko fabrika hura aipatu zonaldean. Hiru urte horietan enpresa Lazkao herriaren kanpoaldean, Atauneko norabidean, finkatutako fabrika berrira eraman zuten pixkanaka. Han amaitu zen haren jarduna 1988an, altzairu berezien sektorean gauzatutako berregituratze gogor baten ondotik.

Oria ibaiaren hegoaldera kokatutako Beasaingo zonalde horretan Ignacio Gorrotxategi Garmendiak ere bere txatartegia finkatu zuen Marqués fabrikaren eta Eskisabel eta Irastorzak zuten enpresaren artean. Dena den, berehala gero eta handiagoa zen Marqués edo Echeverria (hartako akziodun nagusiak) fabrikak bertako lurrak xurgatu zituen. Aipatu salmentaren ondotik, Ignacio Gorrotxategik Bidearteberri etxea eskuratu zuen, 1906an eraiki zena. Egun Arrano kokatzen da Kale Nagusiko 12. ataria hartzen duen eraikin zaharberritu horretan. 27.500 pezeta ordainduta gauzatu zuen erosketa Gorrotxategik.

Orain 171, 172 eta 172a argazkiak hartuko ditugu. Horietan fabrikak osorik ikusten dira XX. mendearen erdialdera zuten itxurarekin, hain zuzen, 5. sektoreko plano orokorra taxutu eta ehun urte beranduago. Argazki horietan ikus daiteke zer-nolako tamaina hartzen zuten aipatu enpresek horren garrantzitsua zen "industrialde" berri horretan. Industria-jardun beteko urteak ziren, ekoitzitakoa aise saltzen zen, izan ere, sortzen zen guztia beharrak irensten zuen, artean guztia egiteke baitzegoen. 171. argazkian, azpialdean, Eskisabel sendiaren txaleta ikus daiteke puntu zuri batekin adierazita. Garai hartan bi ziren inguruko altzari-fabrikatzaileak eta aipatu familia zen horietako bat.

4. eta 5. sektoreetako plano orokorren lotura modura azalpen labur hori eman ostean, Urbiñarte-Senpere zonaldera pasako gara zuzenean. Bertan Zaldizurreta baserriko etxaguntza batzuk ere aipatuko ditugu, izan ere, hartako lur gehienak bi aldeak ba-



natzen zituen trenbidearen beste aldean kokatzen ziren, jarraian ikusiko dugunez. Hona iritsita, berriro esango dugu ez dugula Zaldizurreta baserriari buruz aurrez aipatutako ezer errepikatuko, izan ere, baserri hori 2002an argitaratutako "Beasain, leiho bat iraganari" liburuan herriguneko zonaldean deskribatutako 40 eraikinen artean barneratzen da.

Hasteko, Zaldizurreta baserriaren airetiko 173. eta 174. irudiak ikusiko ditugu. Horietan ederki ikus daiteke baserri enblematikoa inguratzen zuten laborantza-lur itzelen kokapena. Hasiera batean lur horiek ekialdetik mendebaldera bi zatitan banaturik zeuden, 5. sektoreko planoan eta 5a plano-zatian ikusten den bezala, hain justu, Y hizkiarekin adierazi dugun erdikari horren bi aldetara. Bi irudi horietan, era berean, Y hizkiarekin adierazitako lerro erdikari hori ikus daiteke. Berez lurrean induskatutako zuloa zen hori, bi lursailak banatzen zituena. Beranduago, lursail horiek 1863an bereizi egin ziren trenbidearen eraginez eta 1955ean berriro ingurubide-errepideak eraginda. Aipatu berri duguna oso argi ikusten da 173. eta 174. irudietan.

Zaldizurreta baserria (beste izen batekin izan arren) Samaniego literato eta alegialariaren gurasoen ezkonsari ere izan zen, hain zuzen, Felix Ignacio de Samaniego eta Juana Maria de Zabala izan ziren ezkonsariaren onuradunak (azken hori, Joseph de Zabala eta Infanterri Etxeko Maria Rosa de Arteaga y Lazcanoren alaba). 1737an J. R. Larrinagak ezagutarazitako dokumentu batean deskribatzen denez, aipatu andreak bere alabari ezkonsari modura, beste jabetza eta ondasun askoren artean, aipagai ditugun bi etxeak (haietako lurrekin) utzi zizkion:

> *"…2.000 ducados de vellón y las caserías de Beasain llamadas **Ubia y Zaldirurren** con todos sus pertenecidos"*

Hala eman nahi izan dugu bertan topatu dugulako lehen aldiz baserri hori Zaldirurren izenarekin. Bi baserri horiek Infanterriaren jabetzakoak izan dira betidanik, eta gerora Lazkaoko etxe horretako maiorazkoaren baitara itzuli ziren.

Orain 173. eta 174. argazkiak ikusgai ditugun planoekin erkatzen baditugu, planoak taxutzeaz arduratu zen ingeniariaren lan ona ebalua dezakegu, izan ere, trenbidearen ibilbidean barneko irudizko bidaia honetan zeharkatzen ari garen sektore ugariak gure begiz ikusi ahal izatea ahalbidetu zuen 1862an. 5a planozatian trenbidearen beste aldean kokatutako lurretan aurrez deskribatu ditugun bi partzelak adierazi ditugu. Horretarako bereizirik agertzen diren partzela horiek Y1 eta Y2 hizkiz markatu ditugu.

Etxetik hurbil zeuden onibar horiek Infanterriko dukeak esleitu zizkion baserri horri (etxearen eta hartako etxaguntzen jabea baitzen) eta horrela banatzen ziren: Y2 hizkiz adierazitako lur-eremua orduan baserriaren ekialdeko hegalean bizi zen Zufiaurre familiaren egoileei zegokion; beste zatia, Y1 hizkiz adierazi duguna, Lasa sendiari zegokion lur-eremua da. Lasa sendia etxearen beste aldean bizi zen, hain zuzen, etxearen izen bera zuen iturrira begira zegoen aldean.

5. sektoreko plano orokorrean eta 5a plano-zatian ikus daitekeenez, formari dagokionez aipatu lursaila nahikoa irregularra bazen ere, plano-zatian ikus daitekeen antzinako banaketak logiko eta bidezkoa dirudi bi familientzat. Gazteenek haren kokapen zehatza ikus dezaten, puntu zuri batekin adierazi dugu baserriaren teilatua aurreko bi irudietan. Zaldizurreta baserria 1982an eraitsi zuten. Hark hartzen zuen orube berean kokatzen zen 2008ko otsailean eraitsi zuten anbulatorio zaharra. Urtebete lehenago "Osasun Zentroa" Bernedo fabrika zaharraren lurretara eraman zen, gerora, auto eta kamioientzako aparkaleku gisa ezagutu dugun eremura.

Daniel Diez eta Jose Urizarrek, atal honen hasieran izendatu ditugun bi arrantzaleek, eta Antonio Ventureira, Pedro Rebollar, Julio Arraiza eta Jose Maria Ortega Lekuek, goiko biekin zaletasuna partekatzen zuten lagunek esan zidatenez, 40ko hamarkadaren hasieran, Zaldizurretako puntu horretan, ibaiaren gaineko tren-zubira iritsi baino apur bat lehenago, ehunka arrain batzen ziren udazkenean, errunaldi garaia heltzean. Haien arabera, hainbeste ziren bertan pilatzen ziren arrainak, ezen leku horretan uraren sakontasuna txikia zenez, gorputza eta isatsa mugituz ibiltzen ziren

arrain kopuru izugarriak eraginda bazirudien ur hori irakiten zegoela.

Baina itzul gaitezen aipagai dugun baserriko lurretara. Zaldizurretaren baitako lursailen aurretik, hegoalderantz bidexka bat igarotzen zen lur haien kanpoaldera. S hizkiarekin adierazi dugu hori 5. planoan. Y hizkiarekin adierazitako banalerroaren zeiharka luzatzen zen aipatu bidexka. 5a plano-zatian ikus dezakegu aipatu banalerroa. Laborantza-lur horien kanpoaldetik igarotzen zen S bidexkak, aurrerago, Ugartemendi auzorantz zihoan eta handik Olaberrira iristen zen bidearekin bat egiten zuen.

Haren ibilbidea askoz hobeto ikus daiteke 5. sektoreko plano orokorrean. Kasu horretan aipatu bidearekin elkartzen dela ikus daiteke, zeina krokisean "mendirako bidea" izendatzen den orokorki. 5b plano-zatian ere Olaberrira iristen den bide hori kontrako noranzkoan ikus daiteke, Oria ibairaino iritsi arte. Kasu horretan beranduago eraikiko zuten trenbide-pasabidea zeharkatuz, zeina planoetan U hizkiarekin adierazi dugun. Olaberrira iristeko bide horretan beranduago egin zuten luzapen hori gezi zuri txiki batekin eta A´ ikurrarekin adierazi dugu 5b plano-zati horretan. Aldi berean, ehun urte beranduago, bi gezi zuri erabilita antzinako ibilbidea adierazi dugu 172. argazkian. Hori guztiori aurrerago aipatuko dugu 5. sektore honetan bertan.

Oria ibaiaren bi ertzak ferekatuz igarotzen ziren bideak, 5a plano-zatian gezi bertikal marroi banarekin markatu ditugunak, hala mantendu ahal izan ziren bizilagunek aspalditik zuten bide-zortasunari esker. Argi dago, beste ikuspuntu batetik ikusten badira ere, "La Calleja" izeneko bideaz eta Zaldizurretatik Zuntzunegiko mendietarantz abiatzen zen bideaz ari garela. 173. eta 174. argazkietan partzialki baino ez dira ikusten. Hala ere, Geltokiko zonaldeari dagokion 3. sektoreko 98a argazkian ia osorik ikus daitezke biak.

175. argazkian trenbidearen azpiko alboko bide hori ikusten da, Zaldizurretan kokatuta. Bidea 1990ean handitu egin zen motordun ibilgailuak bertatik igaro zitezen. Argazki horretan, era berean, oso ongi ikusten da oinezkoentzako lurrezko bidea ere. Zonalde horretan ibiltzen ziren ijitoek Zaldizurretako tunel zaharraren babespean kanpatzeko joera berezia izaten zuten. Zubiaren arku handiaren azpian, ibaiaren alboan, puntu zuri batekin adierazi dugu Zubiondo izen egokiz ezagutzen zen etxe zaharra, 1994an bota zena.

Institututik hurbil dagoen Zuntzunegi mendiko ezkerreko zonalde horren zati handi bat ere Infanterriko dukearen jabetzakoa zen garai hartan. Nolanahi ere, bidearen eskuinera, Zuntzunegi baserrirantz dagoen gunea idatzietan Basakaitz izendatzen zen lur-eremua izango litzateke nagusiki, zeina 1862an Abariako maiorazkoaren baitan zegoen artean. Basakaitz izeneko zuhaizti korapilatsu hori haritzek eta gaztainondoek osatzen zuten gehienbat. Etxaluze, Urbiñarte eta Nekola baserrietako etxaguntzen barruan zegoen Basakaitz. Hiru baserri horiek, aldi berean, Abariako maiorazkoaren baitan barneratzen ziren.

Zonalde horrek 1862an zuen itxura zehatza irudikatze aldera Geltokiari dagokion 3. sektoreko plano orokorra hartzea besterik ez dugu. Hala, 98. irudia harturik, orduan Oria ibairaino iristen ziren isurialde luze horien artean 1952-1955 bitartean egindako "ebaki" handia ikus daiteke. Leku horretan, oraindik irudika dezakegu nola zintzilikatzen ziren gaztainondoz betetako baso hostotsuak ia ibaiaren ertza ukituz.

Halaber, aise irudika dezakegu nola ikusten zuten gure bidaiari purtzilek Basakaitz parean lekututako meandro-gune hori, izan ere, Igartzatik Zaldizurretako bidean belardiak, baratzeak, ereiteko lur-eremuak, frutarbolak eta larreak baino ez zituzten begiztatuko. Halaber, gaztainondoz osatutako baso trinko bat ikusiko zuten zonalde horretako muinoetan landutako lautada zainduz. Francisco Iberok ehun urte lehenago marraztutako jatorrizko planoan ere orokorki bada ere ongi zehaztua adierazten da gerora autoen galtzada izango zenaren bi aldetara kokatutako lurretan landatutako laborantza- edo zuhaizti-mota hori; jakina, lur horien artean aipagai dugun hau lekutzen zen, aipatu galtzadaren eta trenbidearen hegoaldera.

Deskribatu berri duguna baserritik gertuen zegoen zonaldea zen eta, bertako egoile baten hitzetan, Zaldizurreta beti erdibidean izaten zen, ia beti "zerbaiten" alde batera edo bestera; lehendabizi, zubiaren beste aldean, Beasain eta Senpere artean; gero, hartako laborantza-lurrak erdibituta zituelarik, trenbidearen erruz iparraldetik hegoaldera bereiziak, nahiz eta In-

fanterriko etxeak etekin handia ateratzen zuen haietatik; eta, azkenik, Zuntzunegiko zonaldera zihoan bide nagusia ere erdibiturik 1955. urtean egindako ingurubide-errepide nagusiaren ondorioz.

Horrenbestez, baserriaren alboko partzelak bereiziak zeuden, baina, aldi berean, mendialde eta zuhaizti oso zabalak zeuden haren baitan, izan ere, 1862an 120.000 m2ko azalera osatzen zuten baserriko etxaguntzek. Garai hartan, lur horien balioa, baserria barne, 62.071 beloi-errealekoa zen.

Baina itzul gaitezen aurreko kontakizunera. Horrela, Senpere eta Lazkao aldera zihoan bidea jarraituz (egun errepide), apur bat aurrerago, eskuinera beste desbideratze bat izango genuke Olaberrirantz, hain justu, Zaldizurretarantz egiten zuen lehen adarkatzetik ehun metro eskasera. 5c. plano-zatian eta 5. sektoreko plano orokorrean oso ongi ikus daiteke bide hark Ugartemendiko beheko auzoan barna egiten zuen ibilbidea. A hizkiarekin adierazi dugun bide hori zen herritarrek Olaberriko udalerrira joateko herriaren zonalde horretan barna egiten zuten ohiko ibilbidea.

Igartzari dagokion 2. sektoreko planoan ikusi dugunez, besteak beste, Txintxurreta, Zuntzunegi, Atarieder eta Altamira baserrietatik igarotzen zen antzeko beste bide bat erabiliko zuten ziurrenik zonalde hartako herritarrek. Dena den, esan bezala, hori nahikoa sakon aipatu dugu Igartzari buruzko 2. sektorean. Eta, bide hori beste behin oroitzeko, on da berriz ere aipatu kapituluan erakutsitako 58. eta 59. argazkietan erreparatzea.

Orain, ordea, 176. irudi-plano txikia hartuko dugu. Bertan 1834ko mapa militar zahar bat ikus daiteke. Mapa horren kalitatea sekulakoa ez bada ere, oso ongi bereizten da garai hartan zegoen bide saltsa. Plano militar hori trenbidearen ibilbideko planoa baino 28 urte lehenagokoa da. Mapak erakusten duenez, Olaberrira joateko 4 bide nagusi zeuden, gutxi gorabehera lau puntu kardinaletan luzatzen zirenak: Ekialdetik, gutxi gorabehera Senpere eta Lazkaora zihoan adarraren desbideratzetik barna; hegoaldetik, Lazkaoko herritik bertatik; mendebaldetik, Idiazabaldik, hain zuzen, "Ojarbiko" bide zaharretik barna eta baita Segurako bide zaharretik ere; eta, iparraldetik, Igartzan Segurako "bide zaharren" alboan abiatzen zen bidetik, 2. sektorean aurrez ikusi dugunez. 1834ko plano horretan Be-

asain-Senpere bidetik ateratzen zen desbideratzea puntu zuri batekin adierazi dugu. Halaber, aipatu bideek Olaberria inguratzen dutela ikus daiteke. Egun auzo-bide bilakatu dira, Ugartemendi eta Igartzatik zetozen biak izan ezik.

Baina itzul gaitezen hemen mintzagai dugun Beasain-Senpere-Lazkao bidera. Gogoan izan behar dugu, aurrez esan bezala, 1865-1867 bitartean bidea errepide bihurtu zela. Obra hori Jose Francisco Arana industrialari eta eraikitzaile beasaindarrak gauzatu zuen. Ugartemenditik barna Olaberriara egiten zuen bideak, hain zuzen, 5. plano orokorrean eta 5b plano-zatian U hizkiarekin adierazten den trenbide-pasabidean adarkatzen zenak, bazuen beste berezitasun bat, haren ibilbidea Oria ibaian abiatu edo amaitzen zela alegia. Har dezagun berriro 5b plano-zatia. Bertan gezi zuri batekin eta A´ hizkiarekin adierazi dugu hura.

Duela ez hainbeste bide horren hainbat tarte ikus zitezkeen "Bartoletxetik" ibaiertzera joanez. "Bartoletxe" Oria familiaren etxea zen eta egun "irla" modura ezagutzen den 4 zenbakidun eraikina dago bertan. Zenbait herritarrek oraindik gogoratzen dute bide hark ibairaino egiten zuen ibilbidea. Horien artean, Juan Egurmendi (2006an 78 zituena) aipatu behar da. Zegamako baserri baten jaio bazen ere, Oria sendiaren jabetzako etxe horretako egoile izan da bizitza osoan. Hark esan zigunez, bidea Ugartemenditik (edo Ugartemendirantz) jaisten (edo igotzen) zen eta zonalde horretako baserritarrek erabili ohi zuten nahikoa maiz, abereek Oria ibaiaren hegoaldeko ertzean edan zezaten.

Orobat, esan zigun bide hori pilotaleku zaharraren erreboteko paretaren parera iristen zela. Orain 5b plano-zatia hartuz, bide hori ikus daiteke berriz ere, 172. irudiak erakusten duen ibilbidearekin, aurrez ikusi dugun moduan. Juan Egurmendik bidearen antzinako ibilbidea erakutsi zigun 177. argazkia hartuta. Guk gezi horizontal marroi txikiak paratuta adierazi dugu, izan ere, bi gezien artean ibaira zihoan bide zaharraren aztarnak ikusten direla uste dugu, hain justu, trenbide-pasabidean bertan. Era berean, 1955ean eraikitako ingurubide-errepidearen eraginez, trenbide-pasabide horretatik Oria familiaren etxerainoko tartean, bidearen aztarna oro desagerrarazi zela esan zigun. Aipatu etxea Ugartemendi eta Olaberrirantz joateko bidearen ertzean kokatu zen 1930ean.

Bide batez, aipagarri deritzogu trenbide-pasabidean lan egiten zuten langileak pixka bat lehenago zegoen etxe zaharrean bizi zirela, 177. irudiko azpialdeko ertzean ia. Irudi horretan trenbide-pasabidea kendu zuten arte guztiok ezagutu dugun etxetxo eskas hura ikus daiteke oraindik. Trenbide Konpainiaren jabetzako etxe zahar hartan 1862an bizi zen familia Francisco Etura eta Gregoria Garcia senar-emazteek eta haien semeak, Narciso Etura Garciak osatzen zuten.

177a argazkia XX. mendearen bigarren hamarkadaren hasieran aterea dago. Argazkia oso ezaguna da eta ederki ikus daiteke aipagai dugun etxebizitza, gezi bertikal zuri batekin adierazi duguna. Gazteak nahas ez daitezen, esan dezagun irudi osoa zeharkatzen duen lerro horizontal zuria trenbidea dela, izan ere, ingurubide-errepide berria artean eraikitzeke zegoen. Bideluze kalearen atzeko lurretan oso ongi ikusten dira, txukun antolatuta eta ongi bereizita, landutako zenbait onibar. Ibaiaren beste aldean lekutzen ziren, gerora 1939an Marqués fabrikak bereganatu zituen lursailen gainean. 1862an Oria ibaiaren hegoaldean lekutzen ziren lur horiek (ia Zaldizurretako zonaldetik hasi eta eskualdeko hiltegi berriraino hedatzen zirenak) Ugartemendiazpikoa, Zaldizurreta, Urbiñarte eta Burugorrinea etxeen baitakoak ziren nagusiki. Baserri horien jabeak garai hartan Igartza etxea, Infanterriko Lazkaoko etxea, Abariako maiorazkoa eta Jose Francisco Arana ziren, hurrenez hurren.

Baina utz dezagun kontu hori alde batera eta sar gaitezen Ubiñarte eta Ugartemendi baserrien auzoko zonalde berrian. Aurrez aipatu dugunez, Zaldizurreta baserri zaharreko egoile batek baserri hori betidanik erdibidean kokatu izan dela esan zigun. Gauza bera esango lukete Urbiñarte, Ugartemendigoikoa eta Ugartemendiazpikoa baserrietako egoileek ere, izan ere, Lazkaoko Senpere auzoaren eta Beasaingo herrigunearen artean kokatu izan dira betidanik.

Ugartemendi baserri biak aipatzen ditugu. Dena den, une hauetan Lazkaora bidean eskuineko mendimazelan lau eraikuntza daudenez (XXI. mendearen hastapenean eraikitako txaleta zenbatu gabe), ziur inor izango dela bi horiek soilik zergatik aipatzen ditugun jakin nahian.

Hori guztiori aurrerago azalduko dugu, 5. sektoreko plano orokorrean eta 5c plano-zatian Ugartemendiko zonalde horretan soilik bi baserri marrazten direla ikustean. Bi baserri horiek Olaberrirantz egiten zuen bide zaharraren ezkerrera lekutzen ziren.

SENPERE AUZORANTZ

URBIÑARTE da Senperera zihoan galtzadaren ezkerrera 1862an agertzen zen lehen eraikuntza. Lope de Isasti doktoreak Ugarte izenez aipatzen zuen 1625ean, 5. sektoreko plano orokorrean eta 5c plano-zatian ikusten diren Ugartemendi baserri bien ondoan lekututa.

Martin Mendizabal historialaren arabera, aipatu bi baserriek, hain zuzen, Ugarte edo Urbiñarte eraikuntza horri zor diote haien izendapena. Agauntza errekaren antzinako orubetan kokatutako hiru etxeek haietako arbasoen abizena mantentzeko gai izan dira eta horrek asko esanahi du arbaso haien alde. Guztiok ezagutzen dugun etxe horrek hainbat izendapen jaso izan ditu, esate baterako, **Oñarte (Onarte, Ugarte, Urbiñarte** edo **Ubiñarte**. Etxea behar bezala ezagutze aldera, aldez aurretik, ezinbestekotzat deritzogu hizkuntzalariek izen horien esanahiei buruz irizten dutena jakitea.

Zenbaitek adierazten duenez, **Oñarte** izena **Onarte** izenetik erator daiteke eta litekeena da haren esanahia "larre…toki, arteko, larre...gune, tarteko" izatea; **Ugarte**, "bi erreken arteko, bi uren arteko" (gaztelaniaz arrunki erabiltzen den "entrambasaguas" hitzaren pareko izan daiteke, baina -diotenez-, betiere, "irla" zentzua eman gabe).; **Urbiñarte, Ubiñarte**, "…bi uren arteko…". Azken horren interpretazioa bat dator **Ugarte** izenaren interpretazioarekin.



5. sektoreko plano orokorrean eta 5d plano-zatian Urbiñarte etxeari erreparatzen badiogu, ibaiak eta errekak bat egiten duten gunetik 500 metro ingurura dagoela ikus daiteke eta, aldi berean, ibilgu bakoitzetik antzeko distantzia batera. Plano horren laguntzarekin eta gure sena erabiliz zera ikus dezakegu, egileek etxe horren izendapenarekin lotuta ematen dituzten esanahi ezberdinak eta 1862an baserri hori hartzen zuen zonalde geografikoari dagozkion toponimikoak bat etor daitezkeela. Hori horrela dela egiaztatzeko Iparraldeko Trenbideen Konpainiako ingeniariek orduantxe marraztutako trenbidea mentalki baztertu eta inguruan bestelako eraikinik ez zegoela ikusi besterik ez dugu egin behar.

Orain ongi irudika dezakegu **"larre"** zabal hori nahiz **"bi erreka** edo **uren arteko"** kokapen argia. Halaber, bere kokapenari dagokionez **"larre toki…larre arteko gune…larre arte"** hori ere ongi irudika dezakegu. Azken hiru interpretazioak aski baliozkoak izan daitezke jakinik, Ugartemendiko mendi-mazelak Lazkaora zihoan bideraino jaisten zirelarik (duela ez hainbeste), zonalde horretan leudeken (eta dauden, denbora gutxirako izan arren) larre zoragarrien amaieran kokatzen zela etxea. Hala etxea inguratzen zuten lurretan (hala atzealdetik nola alboetatik) hedatzen zen beste espazio berde itzelaren **"…tarteko espazio…"** horretan lekutuko zen.

178. argazkia kalitate baxukoa bada ere, Ugartemendiko mendi-mazelak era naturalean Urbiñarte baserriraino iristen zirela ikus daiteke. Aipatu baserria F hizkiarekin adierazten da. Nahi izanez gero, ikusmuga handitu dezakegu, are ibai eta errekaren mugak eta haiek bat egiten zuten gunea gainditu, izan ere, urte horietan laborantza- eta larre-sailek osatzen zuten zonalde zabal hori.

Berriz ere, Euskal Herrian sarritan gertatzen den eran, tokiko toponimiak eman zizkion izen ezberdinak etxe horri. 179. argazkian baserriaren fatxada nagusi zaharra ikus daiteke, 1990ean txalet bilakatu aurretik.

XIX. mendearen amaieran Urbiñarte baserriaren kokapenari buruz egindako deskribapen zahar baten hasieran hau irakur daiteke: **"Se sitúa junto al río que va de Agaunza…"** (Agauntza errekaren alboan kokatzen da). Deskribapen hori oso egokia dela deritzogu, izan ere, urte horietan leku horretan ia ez zegoen beste erreferentziak baserria kokatzeko. 5d plano-zatia hartzen badugu berriz ere eta gure bidaiari koitaduak 1862an Beasaindik Lazkaora bide zahar horretatik joanez ipintzen baditugu, inguruetako bidaiari triste horiek Ubiñarte parera iritsita hau ikusiko lukete soilik:

Mendebaldera, arestian ikusi dugun Zaldizurreta baserria (300 metro ingurura); hegoaldera, orduan mendi-hegal horretan zeuden Ugartemendi baserri biak; ekialdera, Senpereaundi etxea (250 metro ingurura); ipar-ekialdera soilik Agauntza errekarekin mugatzen zuela ikusiko zuten, izan ere, noranzko horretan erreka etxetik 125/150 metro inguru eskasera igarotzen da eta garai hartan ez zegoen gertuago egon zitekeen beste etxe baten erreferentziarik.

Etxearen inguruan hainbat bide garrantzitsu igarotzen ziren. Hala, 180. argazkiari esker, Ugartemenditik igarotzen zen bide hori oroit dezakegu. Hainbestetan aipatu dugun bidea da hori, Olaberrirantz doana, 5. sektoreko plano orokorrean eta 5c plano-zatian A hizkiarekin adierazi duguna. Airetiko irudi horretan, era berean, egun dauden Ugartemendi lau baserriak eta haietako larre ederrak ikus ditzakegu, ia denak ekialdera begira.

XIX. mendearen erdialdeko erreferentzia zahar horri jarraiki, Ubiñarte Beasaingo Hegoaldeko Zatiko 2. zenbakian kokatzen zen; beheko solairuak, solairu nagusiak eta ganbarak osatzen zuten haren egitura eta 234 m²ko azalera zuen. Iparralde, hegoalde eta ekialdera hartako lurrak zituen mugakide eta sartaldera Lazkaora zihoan bidea. **"Antigua"** izenez ezagutzen zuten onibar bat barneratzen zuen, 6.756 m²ko azalera zuena eta muga hauek: Iparraldera, Iparraldeko Trenbidearen Konpainiak desjabetutako lursail bat; hegoaldera, Ugartemendi baserriko lursailak; ekialdera, Agauntza erreka; mendebaldera, Lazkaora zihoan Erret Bidea eta Ugartemendi baserriko beste zenbait lur.

Izenik gabeko beste onibar bat ere barneratzen zuen, 2.124 m²ko azalera zuena eta muga hauek: iparralde eta ekialdera, Ugartemendi baserriko onibarrak; hegoaldera eta mendebaldera trenbidearen baitako lurrak.

Halaber, izenik gabeko beste lur-eremu bat, 1.550 m² eta muga hauek zituena: Iparraldera, Oria ibaia; hegoaldera, trenbidea; ekialde eta mendebaldera, Ugartemendi baserriko etxaguntzak.

Basakaitz aldean (Zuntzunegiko beheko zonaldea) 14.102 m²ko azalera zuen lursail bat, muga hauekin: iparraldera, Nekola baserriari esleitutako lurrak; hegoaldera, Altamira baserriko lurrak; ekialdera, Etxaluze etxekoak; mendebaldera, Zuntzunegi baserriko lursailak eta **Basakaitz** izen bera zuen errekatxoa, Altamirako zonaldetik jaisten dena.

Urbiñarte baserriak zuen garrantzia dela medio, on da hari buruzko antzinako historiaren zati bat hona ekartzea: 1581eko uztailaren 5ean 500 beloi-dukateko kapitala zuen zentsu bat barneratzen zuen, urtean 35 dukateko korritu batekin, Juan Martinez de Aristizabal eta haren emazte Maria de Iribek eskritura bidez ezarria Gregorio de Izazagaren aurrean, Oñatiko Jesusen Konpainiako Ikastetxearen alde. Hori guztiori Beasaingo hipoteken eskriturei buruzko lehen liburu zaharrean jasotzen da, 98. folioan, 141. zenbakian.

Halaber, beste zentsu bat barneratzen zuen, urrezko 1.000 dukateko kapital batekin eta urtean urrezko 70 dukateko korritu batekin. Kasu horretan ere Juan Martinez de Aristizabalek ezarria 1577ko otsailaren 7ko eskritura bidez Antonio de Berasteguiren aurrean, berriz ere Oñatiko Ikastetxe horren alde.

Zentsu hori Beasaingo hipoteken lehen liburu zaharrean jasotzen da, 98. folioa iraulian, 142. zenbakian. 1784ko urriaren 8ko Errege Aginduz bi zentsuak besterendu egin ziren. Dena den, aipatu hipoteken liburu horretan ez da jasotzen hartzailea nor izan zen. Jakin dezagun, halaber, 1892an 5.605 pezetako balioa zutela Ubiñarte baserriak eta goran deskribatutako lurrek.

1722ko azaroaren 10eko eskritura bidez Martin de Abariak Beasaingo elizan urtero betiereko bederatzi urteurren-meza ospatuko zituela aitortu zuen Francisco Arizcorretaren aurrean; horietako bakoitzaren truke 2 liberako 11 ogi, laurden bateko argizari oker bat eta erreal bat eta 16 marabedi eskaini eta ordaindu zituen. Urteurren-meza horiek ezarri zituen bere jabetzako lursail ezberdinen gainean. Horien artean, urteko bat Ubiñarte edo Urbiñarte etxearen gainean. Horrela jasotzen da Beasaingo hipoteken liburu zaharreko 129. folio iraulian, 177. zenbakian. Aurkeztutako tituluaren arabera, horrek guztiorrek Abariako maiorazkoaren gainean ez zuela eraginik adierazten da, aipatu maiorazkoa erregistro horretan ez zelarik inskribatu.

Baserria eta Agauntza erreka bereizten zituen lurraren zati bat urte horietan Burugorrinea baserriko Jose Francisco Aranaren jabetzakoa zen artean; baserri hori errekaren beste aldean paratzen zen, Lazkaibartik Lazkaora igarotzen zen bidearen ertzean. Lureremu horretan kokatu zen beranduago, errekaren ondoan, Marques sendiaren txaletaren zati handi bat (egun IFA Merkataritza Gunea). Urte horietan, lureremu horretako zati handi bat ibaiaren inguruko zonaldetan hazten diren ibarreko zuhaizka eta zumez betetako zonalde eder eta basatiak "janzten" zuen.

178. eta 181. irudietan, ezkerreko ertzean, Marques sendiaren etxea ikus dezakegu, hartako lorategiaren zati bat ere antzeman daitekeelarik. 181. argazkian, era berean, gaztelu itxurako eraikin bitxi bat ikus dai-

teke errekako errekarriak etxearen alde batean paratzen zirelarik; horrez gain, Urbiñarte baserri zaharra alde orotatik inguratzen zuten errepide, galtzada eta bideak ikus daitezke. 181. argazki horretan bertan, goialdean, Antigua izeneko etxearen alboko lur-eremua inguratzen zuen bide zaharraren zati bat ikus daiteke oraindik. Etxe hori bi gezi bertikal zurirekin adierazi dugu argazki horretan. 5. sektoreko plano orokorrean eta 5d plano-zatian berriz, G hizkiarekin adierazi dugu.

Antzinako historiarekin jarraituz, XV. mendearen hasieran, zehazki esatera 1409an, Juan Lopez de Yarzak (gerora Urraca Velez de Guebararekin ezkondu zena) "Ubiñarteko errotaren" laurden bat eskuratu zuen jadanik. Beasaingo Yarza aipatzen duen lehen dokumentuetako bat 1397koa da, hain zuzen, Ondarreko zonaldean hainbat lur erosteagatik. Hori horrela izanik, litekeena da pertsona hori izatea Yarza leinuko lehen jaunetako bat. **Horrela bada, Ubiñarteko errota desiratu hark ba ote zuen zerikusirik gu hemen aipatzen ari garen baserriarekin?**

XVI. mendearen hasieran Igartza etxeko jaun ahaltsu bat agertzen da jadanik Ubiñarte eta Ugartemendi baserrien eta haietako lurren jabedun modura. Ziurrenik Yarzako Andrea (garai hartan Petronila de Zuazola, 1562an hil zena) izango zen Igartza etxeko etxaguntza ugari eskuratu zituena.

Orobat, Iruñeko Elizbarrutiko Artxibategian Martin Mendizabalek aurkitutako dokumentu batean ikus daitekeenez, 1567ko martxoan Ugartemendi etxeak aipatzen dira jadanik, Beasainen Errege Ogasunaren zergak ordaintzen zituzten baserrien artean. Etxe horiek ere, mintzagai dugun Ubiñarte baserria bezalaxe, Igartza etxearen baitakoak ziren garai hartan.

Bestalde, 1577ko otsailaren 7an Oñatiko Protokoloen Artxibategian Ugartemendi "garaikoa" baserria ere aipatzen da. Halaber, 1581eko uztailaren 5ean artxibategi berean Juan Martinez de Aristizabal eta Ubiñarte etxea aipatzen dira, etxe haren gainean zeuden zentsuak zirela-eta. Hogeita bi urte beranduago, 1603an, Lazkaon Martin de Lavaca Ubiñarte baserriko jabe izendatu zutela ikus daiteke. Halaber, Juan de Chinchurreta y Semper etxe hartako eta Lazkaon Semper izendatu zuten etxeko jabe gisa ageri da 1644an.

Beranduago, XVII. mendearen lehen erdialdearen eta 1670. urtearen artean Ubiñarte baserria agertzen da Abaria familiak Beasaingo jurisdikzioaren barruan zituen hamabi jabetzen artean. Eta, itzal handiko familia hori izan zenez etxea eta hartako lurrak bere baitan denbora gehienean izan zituena (XX. mendearen lehen laurdenera arte izan baitziren haien jabeak), baserriari eta 300 urteko jabego luze horri buruzko beste zenbait datu ikusiko ditugu orain. Ikus dezagun Ubiñarte etxeak Abariatarren menpe egindako ibilbide luzea:

Martin de Abaria Azkarate izan zen maisu eraikitzaile horien leinua abiarazi zuena. 1616. urtean errejidore izan zen Beasainen, behin hiribildu izaera erosita (1615), osatu zen lehen Udalean Halaber, urte haietan Igartzako burdinolako administrari izan zen eta, 24 urte beranduago, 1640an Beasaingo alkate gisa agertzen da.

Haren semea, Miguel de Abaria izan zen urte haietan aipatutako jabetza gehienak eskuratzea lortu zuena. Ondasun ugari bereganatu zituen, beste arrazoi batzuen artean, askotan alargun geratu (hiru aldiz ezkondu zen) eta hainbat jabetza eskuratu zituelako ezkontideen herentzian. 1642an bigarrenez ezkondu zen, baina 31 urte baino igaro ez zirelarik, Bergarako kolegio batean agertzen da hartako eliza eraikitzeko.

Martin de Abaria, Miguel de Abariaren semea, 1672an ezkondu zena. Martin de Abaria Azkarateren biloba zen (aitonaren izen bera hartu zuen) eta bera izan zen 1718an Abariako maiorazkoa sortu zuen pertsona. Lau urte beranduago, betiereko bederatzi urteurren-meza ezarri zituen Urbiñarte etxearen gainean, Beasaingo parrokian ospatzekoak; etxeari eta hartako etxaguntzei buruzko atalean ikusi ahal izan dugu hori.

Esteban de Abaria, hargin-maisu ospetsua izan zen. 1700 inguruan Beasaingo parrokiako gurutzeria-gangak eraiki zituen Carrera anaietako batekin batera.

1733an Maria de Abaria jaio zen, maiorazkoaren hurrengo jaraunslea, gerora Miguel Ignacio de Olasorekin ezkondu zena. Maria eta Miguelek bi alaba izan zituzten. Brigida de Olaso izan zen horietako bat. Berak heredatu zuen Abariako maiorazkoa; beste alabak Olaso sendiari zegokiona heredatu zuen. Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Murguiarekin ezkondu zen Brigida. Hura izan zen Abariatarren maiorazkoa ezkontzaz eskuratu zuen lehen Olazabaltarra.

Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Murguia 1804an hil zen, bera izan zen XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX. mendearen hastapenean maiorazkoaren titular zen Brigida de Olasoren ezkontidea.

Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Olaso, aurrez aipatutako senar-emazteen semea zen eta 1804an, aitaren heriotzaren ondotik, berak eskuratu zuen maiorazkoaren titularra. 1863. urtean hil zen eta ordura arte titulartasun hori mantendu zuen.

Tirso de Olazabal y Lardizabal aurrekoaren semea zen eta 1863an berak bereganatu zuen maiorazkoaren titulartasuna hil zen arte, 1921eko urriaren 25ean. Azken hori hiltzean etxea eta hartako etxaguntzak saldu egin ziren, jarraian ikusiko dugunez. Horrenbestez, joan den XX. mendeari dagokion ibilbideko zatia baino ez zaigu geratzen.

XX. mendearen hasieran, 1921ean Tirso de Olazabal y Lardizabal testamenturik eman gabe hil zenean, Jose Fantalo epaileak haren hamar seme-alabak "ab intestato" deklaratu zituen oinordeko modura, Pedro Buenechea idazkariaren aurrean. Nekola baserriaren jaraunsle modura agertzen diren hamar izenak dira oinordeko horiek. Nolanahi ere, ez ditugu hemen aipatuko, izan ere, Geltokiari dagokion 3. sektorearen barnean baserriari buruzko atalean aipatu ditugu aurrez. Esangarri da, dena den, Abariatarrak ere aipatu baserriaren jabedun zirela.

Seme-alaben artean herentzia banatu ostean, azkenik, Blanca de Olazabal y Eunate eta haren ahizpa Vicenta de Olazabal y Eunate geratu ziren Ubiñarte baserriaren jabedun modura. Lehenengoa ezkongabea zen eta Beasainen bizi zen; bigarrena, berriz, Donostian bizi zen, adin nagusikoa zen eta Julio de Urquijo e Ibarrarekin ezkonduta zegoen. Bi ahizpek etxearen banaezinezko erdi bana jaso zuten herentzian. Bigarrenak 1927ko urriaren 19an bere anaia Tirso de Olazabal y Eunateri saldu zion bere erdia.

1927ko urriaren 20an Blanca de Olazabal y Eunate (ezkongabea eta Beasainen bizi zena) eta Tirso de Olazabal y Eunate (Concepcion Jarraquemadarekin Donostian ezkonduta zegoena) ziren Ubiñarte baserriaren eta hartako lurren jabeak, erdibana.

Urte horietan etxea eta hartako etxaguntzak saldu zituzten. Cristina Arreguirekin ezkonduta zegoen Juan Manuel Esnaola Eliceguik gauzatu zuen erosketa 23.000 pezeta ordainduta. Etxea bereganatu zuenean, Juan Manuel Esnaolak 22.500 pezetako hipoteka bat gauzatu zuen Juana Amundarainekin ezkonduta zegoen Paulino Albisu y Sarasolaren alde. Hipoteka lau urtetan ordaindu behar zen, eskritura egin zen egunetik zenbatzen hasita eta urteko %5eko interesa ezarri zen. 1946ko maiatzaren 14ra arte ez zen hipoteka hura ordaindu.

Ubiñarte baserriaren jabe berriek, Juan Manuel Esnaola eta Cristina Arregui senar-emazteek hiru seme-alaba izan zituzten: Juana, Pedro eta Ramon Esnaola Arregui. Bigarrena, Pedro (Periko ezizenez), goiz hil zen, izan ere, beranduago, 1959ko azaroaren 10ean bere ama hil zenean, ez zuen herentziarik jaso.

Juan Manuel Esnaola ere bizirik zen emaztea hil zenean, izan ere, egiaztatu ahal izan dugunez, 1968an Ubiñarte etxean bizi zen artean. 82 urte zituen orduan. 1886an jaio zen parrokiaren ondoan lekutzen zen Igarza etxea "Igartetxe" baserrian.

Martin Esnaola Elicegui, Esnaola burdindegiaren sortzailea, Juan Manuelen anaia zen; biak "Igartetxe" baserrian jaio ziren, zeina urte horietan Abariatarren baitakoa baitzen.

Azkenaren semea, Ramon Esnaola Arregui Ubiñarte baserriaren jabea zen. Hala ere, ez zen aipatu baserrian jaio, "Igartetxe" etxetzar zaharrean baizik, nahiz eta gurasoek Ubiñarte baserrira eraman zuten artean egurrezko sehaskan lo egiten zuelarik.

Pedro Esnaola (Periko) izan zen nahigabe Agauntza errekari, Urbiñarteko lursailen aldamenetik igarotzen zelarik, izena eman ziona. Periko zen Agauntza errekaren ertzeraino luzatzen ziren artasoroak zaintzen zituena. Gerraondoan mutikoak artasoro horietara joaten ziren sabela berdintzera eta soro horiek horrenbesteko arduraz zaintzen zituen pertsonaren izenez izendatzen zuten aipatu erreka. Urte horietatik aurrera Agauntza errekari "Periko" ezizena ipini zioten (tarte horretan soilik).

Honatx 1862an Ubiñarte baserrian bizi ziren familiak: Manuel Aranburu eta Ignacia Iza senar-emazteak, lehenengoaren gurasoak, Tomas Aranburu eta Josefa Echeverria, Joaquina arreba eta bikotearen seme-alabak: Joaquina eta Jose Manuel Aranburu Iza; Josefa Ignacia Mugica eta bere seme Sebastian Garcianok osatzen zuten bigarren familia; hirugarren familia-unitatea Anastasia Munduate eta bere seme-alabek, Josefa Ignacia eta Jose Lasa Munduatek osatzen zuten; azkenik, Josefa Martina Jaca bizi zen Jose Martin eta Francisca seme-alabekin.

Orain 180. irudian ikus daitezkeen Ugartemendi baserriei buruz mintzatuko gara. Lehenik eta behin, ordea, 1862an zonalde horretan soilik bi baserri zeudela argitu behar dugu, 5c plano-zatian ere ikus daitekeenez. Ugartemendiazpikoa eta garaikoa dira baserri horien izenak. 180. irudiaren goialdean, ezkerreko erpinean ikus daitekeen eraikina XX. mendeko lehen hamarkadaren hastapenean eraiki zen. Horrenbestez, ezinezkoa da 1862ko plano zaharrean agertzea. Beste gezi zuri bat paratu dugu hura adierazteko.

Ugartemendiazpikoa 5c plano-zati horretan azpialdean marrazten den eraikina da. Hura baserri zaharra zen, izan ere, jatorrizko etxe hori suak hartu eta desagertu egin zen XIX. mendearen bigarren erdian (ziurrenera 1887. urtea iritsi baino apur bat lehenago). Erretako baserria berreraikitzeko lanekin batera sortu ziren Ugartemendi auzoaren azpiko zonaldean egun ikus daitekeen bi baserri berriagoak. Ordutik aurrera aipatu bi baserri horiek ere "azpikoa" adjektiboa paratuta izendatu ohi dira oro har.

UGARTEMENDIGARAIKOA izango zen gure oinezko ibiltariek auzo horretan 1862an ikusiko zuten beste baserria, Senpere-Lazkao aldera egiten zuen bidearen eskuinera. Garai hartan Hegoaldeko Zatiko 4. zenbakian lekutzen zen, Beasaingo Udalerriari zego-

kion zenbakikuntza zaharrari jarraiki, hain justu, 1. zenbakiarekin adierazten den Zaldizurreta etxea, 2. zenbakiarekin adierazten den Ubiñarte edo Urbiñarte baserria eta 3. zenbakiarekin adierazten den Ugartemendiazpikoa baserria igarota.

Hark zuen itxuraz jabetze aldera 182. argazkia har dezakegu. Bertan baserria haranera begira ikusten da. Aipatu baserria C hizkiarekin adierazi dugu 5. plano orokorrean eta 5c plano-zatian eta hauek izango lirateke garai hartan haren mugak:

Iparraldera, Ugartemendiazpikoa baserriko lurrak eta Floreagako gaztainadiak (zenbaitetan "Igartetxe" eta Abarinea eraikinen alboan kokatutako etxe hori Minteginea izenez ere ezagutzen zen, beranduago Mutegienea izena hartu bazuen ere); hegoaldera, Valmedianoko markesaren lurrak (Infanterriko etxea) eta Lazkaoko Ondarra baserrikoak; ekialdera, Lazkaotik behera egiten duen Agauntzaerreka eta Ayala ordiziarraren alargun zen Juana Yurritaren lurrak; mendebaldera, 1880ko urriaren 7ra arte Torrepinareseko kondearen jabetzakoa zen Beasaingo Floreaga etxeko lur gehiago.

Errekaren aldamenean lekutzen zen onibar horrek 29.567 m²ko azalera zuen. Zuhaizti mistoa eta gaztainadia barneratzen zen edukiera horretan. Garai hartan azalera hark 30 errealeko balioa zuen areako, hots, guztira 8.870 erreal eta 10 zentimo balio zuen.

Lurgarri izeneko lursailak, 2.516 m²ko azalera zuenak, 1.811 erreal eta 52 zentimoko balioa zuen, hau da, 72,5 erreal areako.

Bazen beste lursail bat, **Zelaitxiki** izenekoa, azpialdean belaze zerrenda bat ageri zuena eta Agauntza errekaren mugakide zena. 1.527 m²ko azalera zuen, 1.276 erreal eta 80 zentimoko balioa zuena, hots, 84 erreal areako.

Horrez gain, goialdean ezponda ageri zuen **Etxeaurra** sagastia, 7.500 m²ko azalera zuena. Haren balioa 4.800 errealekoa zen, hau da, 74 erreal areako.

Etxeondoa, 3.188 m²ko azalera zuen lursaila. Haren balioa 76 errealekoa zen areako, hau da, guztira 12.422 erreal eta 88 zentimo.

Malkorra, 504 m²ko azalera zuen lursaila, Agauntza errekaren mugakide hau ere. Garai hartan 120 erreal eta 96 zentimoko balioa zuen azken honek, hau da, 24 erreal areako.

1862an 24.950 erreal eta 25 zentimoko balioa hartzen zuen Ugartemendigaraikoa baserriak deskribatutako etxaguntza guztiak barne. Irakurleak hobeto uler dezan kopuru hori 6.237 pezeta eta 56 zentimoren baliokide dela esango dugu.

Dagoeneko badakigu zertxobait gehiago Ugartemendigaraikoa baserriaren inguruan; orobat, badakigu, antzina Igartza etxearen baitakoa izan zela. Dena den, orain, ziurrenik, galdera bat izango dugu buruan, hots, 1862. urte horretan nor zen hartako jabea eta nor bizi zen bertan?. Ikus ditzagun, bada, hari buruzko xehetasun gehiago:

Baserri hori eta Beasainen kokatzen zen beste bat (haren izenik ez dakigu) Jose Maria Ayerdik bereganatu zituen gurasoen eskutik, legez hari zegozkion 1.500 beloi-dukaten truke. Etxeak 26.000 erreal balio zuen. Hala ere, aldi berean, 10.300 errealeko karga ere bazuen. Gurasoek baldintza batekin laga zioten baserria semeari, hau da, gehienez bi urteko epean Jose Maria Ayerdik hautua egin behar zuen, aipatu bi etxeak eta haietako etxaguntzak ala haien balioespenari zegozkion 26.000 erreal, jakina, aurrez aipatutako 10.300 errealeko karga kenduta.

Halaber, zera zehazten zen, bi urte igarota Jose Maria Ayerdik diruaren alde egin ezean, aipatu bi etxeen eta haietako etxaguntzen aldeko hautua egin zuela ulertuko zela.

Dokumentu berean, gainera, baziren beste zenbait baldintza. Esate baterako, lehen bost urteetan 2.000 beloi-dukat ordaindu behar ziren eskudirutan. Horri guztiorri beste baldintza bat gaineratu behar zitzaion, hots, ordainketa horiek guztiak gutxienez 400 dukateko kopurutan gauzatu behar ziren. Aukera horren alde eginez gero, familia-sozietate baten barruan formalizatu beharko zen, zeina hala osatu beharko zen derrigorrez: Herena gurasoei eta bi heren Pedro Miguel anaiari. Gainera, 26.000 erreal erdibana. Horrela jasotzen da Banaketaren 6. Liburu Orokor zaharreko 13. folioan, 13. zenbakian.

Beranduago, Jose Francisco Ayerdik etxea eta hartako lursail guztiak saldu zizkion Jose Antonio anaiari. Salmenta 17.700 erreal ordainduta gauzatu zen (kargarik gabe). Hala ere, baldintza hauek ezarri ziren: 14.850 errealeko kopurua kontuan ordaintzea kreditu bidez eta, aldi berean, gainerakoa, 2.756 erreal inguru, 1851ko ekainaren 24a iritsi aurretik ordaintzea. Horrenbestez, azkenik, jabetza hori geroratutako 2.756 errealeko karga batekin geratu zen, kasu horretan, inolako hipotekarik ireki beharrik gabe. Hori guztiori aurreko lerroaldean aipatu dugun liburuan jasota geratu zen, 175. folioan, 384. zenbakian.

Gerora, Jose Antonio Ayerdi (Maria Antonia Aguirrerekin ezkonduta zegoela) Beasaingo Udaletxera bertaratu zen 1876ko maiatzaren 11ko idatzi bat eskuan zuela. Dokumentu horretan berrespena eskatzen zuen, jabetza hori bere baitakoa baitzen 1851z geroztik anaiari egindako erosketaren ostean eta, horrez gain, lurraldeko zergak garaiz ordainduak baitzituen. Azken zertzelada hori justifikatzeko ordaindutako azken zergaren ordainagiria erakutsi zuen eta, aldi berean, jabetzarekin lotutako titulurik ez zuela aitortu zuen. Hori dela eta, egiaztapena igor zezatela eskatu zien eskumeneko agintariei.

Indarreko legearen arabera dena egiaztatu ondotik, 1876ko abuztuaren 14an jasotako udal-aktan haren aldeko Jabetza Egiaztagiria igortzea adostu zen Ugartemendigaraikoa baserriaren jabe modura.

Jose Martin Aranak, Jose Manuel Goenak eta Jose Domingo Mugicak, hurrenez hurren, alkate-presidente, errejidore sindiko eta idazkari gisa, Jose Antonio Ayerdi Irazusta Ugartemendigaraikoa baserriaren (hartako etxaguntza guztiekin) jabea zela ziurtatu zuten goran aipatutako datan, behin zerga guztiak ordainduak zituela justifikatu ostean. Azkenik, 1876ko urriaren 23an erregistratu zen etxea, eskubide hobeko hirugarrengotzaren kalterik gabe. Nolanahi ere, oraindik ez dakigu Beasaingo beste etxearen izena, zeina hasiera batean anaiak eskuratu zuen herentzian.

Haatik, Lazkaoko beste zenbait jabetza arakatuz, 1862an pertsona hura bera Senpere-Lazkao bidearen ertzean (Kisanea edo Luisa enea etxea pasa eta bidean eskuinera) kokatzen zen Lopenea edo Lopene baserriaren jabe ere bazela jakin dugu. Lazkaoko Lopenea baserria 1972ko martxoan eraitsi zuten, ordurako Sarasola familiaren baitakoa zelarik.

Beranduago, Pedro Jose Garmendia Eleicegui zikiratzaile legorretarrak mailegu bidez hipoteka ireki zuen bere alde, Ugartemendigaraikoa etxeari zegokiona. Hipoteka hori 5.000 pezetakoa zen, hark idatzizko ohartarazpena eman eta hiru hilabetera ordaintzeko betekizunarekin. Halaber, bi aldeek adostu zutenez, mailegu horren iraupena mugagabea zen.

Azken buruan, baserria 5.000 pezetako hipotekaz kargatu zen, urtean %5eko interes finko batekin. Horrez gain, beste 1.000 pezetako karga ezarri zen, balizko berankortasuna zela medio hartzekodunari estraofizialki eragindako gastu, kostu eta galerengatik. Era berean, indarreko Hipoteka Legearen arabera, zordunaren kontura izango ziren eskriturak zirela-eta sor zitezkeen gastuak eta baita inskripzio edo erregistroari zegozkionak ere. Azkenik, 1893ko ekainaren 26an ezeztatu zen mailegua.

Aurrerago, senar-emazteen alabek eskuratu zuten aipatu jabetza herentzian, hots, Brigida eta Ana Antonia Ayerdi Aguirrek. Azkenik, Ana Antonia Ayerdi Aguirrek (Ataungo sakristaua zen Jose Maria Corta Berazarekin ezkondua) bereganatu zuen Ugartemendigaraikoa etxea (etxaguntza guztiekin) 1899ko abenduaren 9an.

Ia berrogeita hamar urte beranduago, 1942ko maiatzaren 12an, Maria Emeteria eta Bonifacia Corta Aguirrek eskuratu zuten jabetza herentzian; bukatzeko, 1942ko azaroaren 2an, Maria Emeteria geratu zen baserriaren jabedun bakar modura.

1862an, hau da, trenbidean zeharreko irudizko bidaia abiatu dugun urtean, hauek ziren Ugartemendigaraikoa baserriko egoileak: Jose Antonio Ayerdi eta Maria Antonia Aguirre senar-emazteak eta Brigida, Jose Ignacio, Antonio eta Ana Antonia Ayerdi Aguirre seme-alabak.

Baserri horri buruz zehetasun horiek azalduta, 1862an Ugartemendi auzoaren azpiko zonaldean zegoen baserri bakarra hartuko dugu orain.

UGARTEMENDIAZPIKOA izango zen gure ibiltariek urte horietan Ugartemendi auzoko azpiko zonaldean ikusiko zuten baserri bakarra. Beheko zonalde horretan, horrenbestez, ez ziren bi baserri paratzen, bakarra baizik, hain zuzen, 5. sektoreko plano orokorrean eta 5c plano-zatian D hizkiarekin adierazten duguna. Egun ia elkar besarkatutako bi etxe lekutzen dira baserri hark betetzen zuen espazioan. Ugartemendiazpikoa baserri zaharrari buruzko irudirik erakusterik ez dugunez, 183. argazkia azaltzen dugu. Bertan egun bertan paratzen diren baserri bikiak ikusten dira Institutuaren aldamenean.

1862an zehar, Ugartemendiazpikoa baserri bakartu eta zaharrean lau familia bizi ziren. Jarraian aipatuko ditugu horiek. Garai hartan hartako etxaguntzak zituen mugakide eraikinak alde guztietara; etxearen orubeak 463,29 m^2ko azalera zuen eta, hala eta guztiz ere, 487,13 pezeta eskasekoa zen eraikinaren balioa.

Jarraian ikusiko dugu zergatik balioesten zen horren modu eskasean Ugartemendiazpikoa baserria 1887an, hau da, hogeita bost urte beranduago. Ikus dezagun zer irakur daitekeen hari buruz dokumentu zahar batean:

> *"...dicha casa había sufrido casualmente un incendio en otro tiempo, por lo que quedaron solamente paredes en ruina, y unos aditamentos para los colonos de las cuatro viviendas que constaba…"*

Lerro horiek aintzat hartuz, aipagai den sutea 1887. urtea baino lehen gertatu zen, eta eraikina oso kaltetuta geratu zenez, baserria oso kopuru apalean balioetsi zen. Hala ere, sekula ez dugu ezagutuko tamaina itzel hori zuen etxetzarraren egitura. Aurrez esan dugun moduan, hartarako sarbidea 180. irudian A hizkiarekin adierazitako bidean barna egiten zen, hots, Olaberrira zihoan bide zaharretik, zeina horrela deskribatzen zen dokumentu berean:

> *" el acceso se hacía desde la calzada que iba hacia Lazcano, cogiendo a la derecha un poco más adelante del puente de Beasain, el camino carretil que llevaba hacia los caseríos Ugartemendi y a los montes "*

Horrela jarraitzen du:

> *" los pertenecidos contiguos al lugar que ocupaba la construcción se hayan* ***todos bajo un perímetro****, pero atravesados en distintas direcciones por el referido ramal de la calzada a Lazcano, el camino de hierro de la Compañía Ferroviaria del Norte, y el carretil hacia Olaberria…"*

Izenik aipatu gabe adierazten diren lursail horiek bi partzela handitan banatzen ziren. Horietako lehenak 49.060 m²ko azalera zuen ereiteko lurretan; besteak, 54.524 m²ko azalera zuen eta dokumentuari jarraiki, lur mistoa, larre-saila, gaztainadia, irasaila, otadia eta ezpondak barneratzen ziren. Azken azalera horretan, era berean, suak jandako baserri zaharraren ataurreak ere barneratzen ziren.

Honatx lursail horien guztien mugak:

Iparraldera, Oria ibaia, Zufiaurre etxeko etxaguntzak eta Valmedianoko markesaren lursailak; ekialdera, Lazkaotik jaisten den erreka, Ubiñarte etxearen baitako lurrak eta trenbidea; hegoaldera, trenbidea, Ugartemendigaraikoa baserriko lurrak eta Minteginea baserrikoak (hala izendatzen zen Floreaga edo Mutegienea etxea, XIX. mendearen erdialdera Torrepinareseko kondearen jabetzakoa zena, aurrez Abariatar baten baitan egon ostean, maiorazko horretatik at); mendebaldera, Mintegienea etxeko lursail gehiago, Senpereko zonaldean lekututako Igeldegi baserriko lurrak, bide-zorra eta Aristi errekatxoa. Etxaguntzen balioa nahiko handia zen, hain zuzen, 16.392 pezeta eta 45 zentimokoa.

Tamaina handiko onibar horiez gain, etxearen baitakoak ziren, halaber, Beasaingo parrokiaren alboan lekututako bi onibar txiki, haien mugei buruzko deskribapenean ikus daitekeenez nahikoa kokapen ona zutenak: Elizburu izeneko otadi-lurra, zuhaiztia ere barneratzen zuena eta Loitzeneara zihoan bidea (Erauskin auzorako bide zaharra, parrokiaren atzealdean dagoena) zuena mugakide hegoalde nahiz ekialdera; iparraldera, Igartza etxearen (1928an eraitsi zen "Igartetxe" baserri antzinakoa) etxaguntzak; eta, mendebaldera, Martorena baserriko (Erretoretxearen atzean lekutzen zena, zeina XX. mendearen hastapenean desagertu baitzen suak janda, 4. sektorean aipatu dugunez) lurrak.

2.011 m²ko azalera hartzen zuen eta bere balioa 114 pezeta eta 20 zentimokoa zen. Azkenik, beste larresail bat, hau ere Elizburua izenekoa, 9.271 m²ko azalera zuena eta 492 pezeta eta 50 zentimoko balioa.

Ezin izan dugu zehaztu lau egoile familia horiek etxe kaltetu horretan bizitzen eman zuten denbora, izan ere, 1887. urtean *"…que habiendo sufrido en otro tiempo un incendio…"* (…beste garai batean sute batek kiskali zuela…) eta *"…solo quedaron algunas paredes en ruina…"* (…aurri modura horma batzuk baino geratu ez zirela…) aipatzen denean, badirudi *"…esos aditamentos para los colonos…"* (…egoileentzako osagarri horietan…) bizitzen jarraitu zutela esan nahi zutela, atal honen hasieran aipatu dugun moduan.

Bestalde, haren benetako egoera zein zen jakite aldera, oso adierazgarria da baserria soilik 487 pezeta eta 13 zentimotan balioetsi izana; eta, aitzitik, eraikinaren alboan kokatutako lur-eremu handia (iparraldetik Oria ibairaino eta ekialdetik Agauntza errekaraino jaisten zena), urte horietan 16.392 pezeta eta 45 zentimotan balioetsi izana.

Guk uste ez genuena zera da, Igartza etxeak Ugartemendiazpikoa baserriaren gaineko jabegoa 1919. urtera arte mantendu zuela. Urte horietan Montcabrierreko bizkondeak Zunzunegi familiari saldu zion baserria hartako etxaguntza guztiekin batera. Hori aurreko ataletan ikusi dugu eta, batez ere, 2. sektorean, Igartza auzoari buruzkoan.

Igartzako jauregiaren baitakoa izaki, Ugartemendi azpikoa baserriak ere aurreko sektoretan aipatu dugun Etxe horren baitako jabetza guztiek zuten kapilautza zaharra mantentzen zuen. Maria de Yarza andre ospetsuak sortutako kapilautzaz ari gara, 3.850 pezetako kapitala zuena. Halaber, mintzagai dugun baserriaren baitan Igartza Jauregiari buruz arestian aipatutako atalean adierazi dien bi urteurren- eta eskaintza-mezak ere ageri ziren grabatuta. Karga horiek guztiek, 3.882 pezeta eta 60 zentimoko kapitala osatzen zuten, aurrekoa barne.

Igartzako jauregiarekin baitako jebetzekin lotuta hainbat kontu aipatu dira lehenago, esate baterako, jabetzen egiaztatzea, onarpen-autoak, Pilar de Idiaquezen heriotza, testamentuak, oinordekoak, kontularitza eta Pablo Javier Peites de Montcabrier e Idiaquez bizkondeak egindako salmentak. Horiek guztiak baserri horri buruz ere esan daitezke, izan ere, Ugartemendiazpikoa Igartza etxearen baitako 23 etxe (eta haietako etxaguntza) horietako bat izan zen.

Aurrez esan dugun moduan, Igartzako maiorazkoaren jabe berriak, herrian "frantsesa" ezizenez ezagutzen zenak, Zunzunegi familiari saldu zizkion azkenik Beasaingo 23 jabetzak haietako lurrekin batera. Horiez gain, Endrio, Igartzaola eta Bentazarra baserriak eta haietako etxaguntzak saldu zituen Matxin-

bentako zonaldean. Orotara 26 etxe haietako onibarrekin batera, 250.000 pezetan salduak, 1919ko dirutan alajaina!

Azkenik, Ugartemendi azpikoa baserri zaharrari buruz ari garelarik, aipagarri dira sute baten eraginez jatorrizko eraikina suntsitu aurretik han bizi ziren lau familietako kideen izenak. Ezin dugu segurtasunez esan haiek izan zirenik gero berreraiketa gauzatu zutenak egingo bi baserriak eraikiz. Dena den, oso litekeena da hala izatea, izan ere, halaxe gertatu izan da modu horretan desagertutako beste baserri batzuen kasuan. Honatx 1.862n baserrian bizi ziren familiak:

Martin Ignacio Chinchurreta eta Micaela Mugica senar-emazteak, haien semea Francisco eta azken honen emaztea, Dolores Amundarain. Haiekin batera bizi ziren Ignacio Maria, Paulo eta Micaela Chinchurreta Amundarain bilobak.

Juan Antonio Aranburu eta Josefa Martina Sarriegi senar-emazteak eta haien seme-alabak, Juan Bautista, Juan Martin eta Laureana Aramburu Sarriegi.

Juan Antonio Apalategui eta Maria Martina Aranburu senar-emazteak eta haien seme-alabak, Juan Ignacio, Martin Ignacio eta Jose Antonio Apalategui Aranburu.

Azkenik, Jose Martin Arrese eta Josefa Ignacia Lasa senar-emazteak eta haien alaba, Josefa Arrese Lasa.

Esan dezagun berriz ere, 1862. urtean gure oinezko ibiltariek larre eta ereiteko lurrez betetako zonalde zabal eta bakarti horretatik pasatzean soilik bi baserri horiek ikusiko zituztela, Lazkaora egiten zuen bidearen eskuinera: Ugartemedigaraikoa egun dagoen leku berean kokatuta eta Ugartemendiazpikoa zaharra, 463,29 m²ko azalera zuena. Bigarrena kokatzen zen lekuan, gaur egun, esan bezala, bi eraikin paratzen dira antzinako baserriaren izen bera hartuta. Bi eraikin horiek Institutu ondoan daude egun.

SENPERE IZENARI DAGOKIONEZ

Senpere izenaren jatorria, agian inoiz argituko ez den misterio txiki bat izango da. Hori dela eta, gure ibiltariek 1862an ibilbidetik ikusiko zutena deskribatzen hasi aurretik, leku horri buruzko historia laburra aipatuko dugu sarrera gisa. Sarritan jakin nahi izan dugu Beasain eta Lazkaoko herriguneen arteko erdibidean zabaltzen den zonalde horrek duen izenaren zergatia.

Kontu jakina da Gipuzkoako kostako zenbait herrik eragin gaskoi handia zutela, esate baterako, Donostia, Hondarribia, Pasaia edo Errenteriak. Hainbeste non zonalde horietako zenbait herritarrek hartako dialektoa hitz egiten baitzuten XIX. mendeko azken laurdenera arte. Bestalde, Serapio Mugica eta beste autore ospetsu batzuek adierazten dutenez, herri horietan oso ugariak dira jatorri gaskoia ageri duten toponimoak.

Hizkuntzalariak bat datoz Senpere izena gaskoitik erator daitekeela esatean. Dena den, zenbait autorek Lapurdiko Senpere herritik (ofizialki Saint-Pée) mai-



legatutako izena izan daitekeela irizten dute eta, agian, Lazkaoko Senpereaundi edo Senpereburu izeneko baserria hartu zuen pertsona bertakoa izan zitekeela. Mugica izen horren jatorria aztertzen aritu zen eta idatziz dokumentatu zuen lekua 1611n. Euskal Herriko beste hainbat txokotan maiz gertatu izan denez, litekeena da zonalde eta baserri zaharraren izena jabearen jatorri edo izenetik eratortzea.

Bestenaz, esangarri da Lazkao etxearen adar bat Iparraldeko Saint Pere etxearekin ahaidetu zela ezkontzaz. Hala, aipatu etxearen kredentzial handia eskuratu zuten, bere garaian beste titulu ugari lortzeaz gain. Horren harira, agian lotura hori zela medio, baliteke etxe hartako kideren bat, edo beste inor leku horretan finkatu izana Saint Pée, Saint Pere (fonetikoki Senper), Senpere edo Senper izena hartuta. Duela 400 urte baino gehiagoz geroztik halaxe idatzita agertzen baita sarritan.

Esate baterako, mintzagai dugun zonalde horretan Senpereaundi edo Senpereburu baserria izen horrekin aipatu izan da idatzietan XVII. mendearen hastapenetik, haren alboko Igeldegi baserria bezalaxe. Bi baserriak Senper izeneko gizon baten jabetzakoak ziren. Beranduago agertu ziren Senpereberri eta Senperetxiki etxeak. Bigarren hori, ordea, arras beranduago, XIX. mendearen amaieran.

Agian horrela azal daiteke zonalde horri esleitutako izen bitxia, izan ere, ikertzaileek, logika egokia erabiliz, bertan gaskoia inoiz ez dela mintzatu uste dute. Eta sekula ez da bertan eraiki San Pedroren (Saint Pere, Sen Per ahoskatua, eta baita Senper, Senpere edo Sanperio ere) ohorezko ermitarik. Orobat, "Peru edo Pero" ere izenaren sinonimo izan daitezke.

Badu, apika, halako antzekotasunik guztiok ezagutzen dugun Salbatore auzoarekin (beste izen bitxi bat, leku-izen bilakatu dena). Hala ere, kasu jakin horretan historialarien iritziz San Salbador izeneko monasterio tenplarioan bilatu behar dugu izenaren jatorria, zeina Erdi Aroaz geroztik leku horretan paratzen zen.

Senpere izenarekin jarraituz, hala ere, aipagarri da (gai horretan ezjakinak izan arren) goran aipatutako moduan gertatzekotan oso garrantzitsu bilakatu behar izan zuela (edo jadanik hala izan) lekura iritsitako pertsonak, gerora zonalde horretan izan zuen eraginari so, Senpere izena duten baserri kopurua aintzat

hartuz, edo hark interesa azaldutako beste baserri batzuk kontuan hartuz.

Trenbidearen planoak taxutu ziren urteetan izen horretatik eratorritako baserri horiek guztiak Bernarda Garmendiaren jabetzakoak ziren (beste baserri batzuk ere bazituen haren baitan). Horregatik, aipatu andreak Senpere izeneko zonalde horretan zituen etxe eta eraikinei dagozkien zenbait datu aztertuko ditugu jarraian.

Honatx XIX. mendearen erdialdera Garmendia sendiak Senperen zituen baserri garrantzitsuenak: Igeldegi, Senpereaundi edo Senpereburu eta Senpereberri. Gainera, azken etxearen alboan egoilerik gabeko eraikin interesgarri bat zegoen, oso antzinatik "La Tejería" (Teileria) izenarekin ezagutzen zena. Arestian esan dugu Senperetxiki izeneko eraikina askoz berriagoa zela, izan ere, Garmendia familiak zuen orube baten gainean eraiki zen XIX. mendearen amaiera aldera. Eraiki eta 25 urtera eraikin hura ere Garmendia familiaren jabetzara eskualdatu zen. Aurrerago azalduko dugu hori xehetasun gehiagoz, Lazkaibar-Lazkao galtzadaren ekialdera, hain justu, Senpere aundi edo Senpereburu izeneko etxe zaharraren parean kokatutako etxe txikiari buruzkoan.

Gipuzkoako probintzian, diotenez XVII. mendearen hastapenean agertu zen idatzita Senpere izena leku horretan (guk dakigula 1611. urtean gutxi gorabehera, aurrez aipatu dugunez). Orduan, baserrietako estalpe zaharrak egin eta konpontzeko teilagin lanbidea ez zegoen artean begi onez ikusita garaiko gizarte zorrotzean. Agian, horregatik teilagin artisau gehienak lapurtarrak ziren.

Aita Larramendik Corografía de los Pueblos de Guipuzcoa izeneko lanean aipatu zuenez, ***"los tejeros solían ser normalmente vascofranceses"*** (teilaginak iparraldekoak izaten ziren normalean). Bestalde, Miguel Angel Lopez autorea hartuta, ikusiko dugu Beasain, historia de un municipio guipuzcoano izeneko liburuko kapituluren batean Arriaranen zegoen Itolako teilerian lan egiten zuten lau behargin aipatzen dituela. Langile horien izen-abizenei erreparatuz, argi geratzen da haien Iparraldeko jatorria. Horrela aipatzen du autore hark, teileriaren izenak eta urteak ere adierazita:

> *"…Martín de Segarra, año 1.609 en la de Itola; Juanes de Acanca (Azanza), durante 1.616 en la tejería de la casa de Igartza; Pierres de Jauregui, año 1.617 en la misma anterior; Juanes de Beconart (Besonarte, durante 1.628 igualmente en la nueva tejería de la casa Igartza…"*

Itxuraz, teileriek garrantzia handia izan zuten garaiko gizartean, hainbeste non kasu batzuetan gerora udalak eskuratu eta enkante publikoa deitzen baitzuen. Kontuan izan behar da garai hartan etxe askok jadanik teilatua erabiltzen zutela estalpe gisa, horregatik eskaria nahiko handia izango zen ziurrenik. Halaber, leku batzuetan teilerien alokairua enkantean ateratzeaz aparte, ekoizpen jakin bat ezarri nahi izaten zitzaion enkantearen errematatzaileari; eta, zenbaitetan, baldintza zorrotzak ezartzen ziren alokairuaren pleguan, aurrerago Senpereko kasuan ikusiko dugunez.

Teilerietan normalean teilak, adreiluak eta lauzak fabrikatzen ziren eta, zenbaitetan karea ere bai. Eskuarki, moldeak erabiltzen zituzten haiek fabrikatzeko, betiere, agintariek ezarritako neurri jakin batzuk betez. Udalerri batzuetan egurrezko molde horiek herrietako horma edo fatxada jakin batzuetan landutako patroi batzuekin erkatu behar izaten ziren, hala, egurrezko molde hori zegokion tokian paratutako patroian sartu behar zen egokiro. Prozedura berezi hori jarraitzen zen neurrietan balizko azpikeriak egin ez zitezen. Beste produktu batzuekin ere berdin jokatzen zen eta haien pisua edo edukiera aintzat hartuz egiten zen erkaketa, izan ere, neurri horiek aldatu egiten ziren eskualde edo bailaren arabera.

Herritarrek behatu ahal izateko leku ikusgarri eta iraunkor batean patroi bat paratu behar bazen, harlanduzko fatxada eder baten kanpoaldean zizelkatzea zen egokiena inondik ere! Patroi horiek hartzeko fatxada egokienak herriguneetan izaten ziren normalean, oso maiz Eliza edo Udaletxeen kanpoaldean. Zenbaitetan herri ezberdinetako pertsona garrantzitsuen fatxadetan (harri landuz egina) ere paratzen ziren.

Aurrez esan dugun moduan, Zegamako parrokiako iparraldeko fatxadan neurtzeko zenbait patroi ikus daitezke oraindik, zehazki esatera, kana, kana erdia eta oina (hiruak ebakidura bakarrean). Luzera-neurri modura erabiltzen ziren horiek, izan ere, Sistema Metriko Hamartar delakoa ez zen erabili XIX. mendeko azken laurdenera arte. Bergarako Udaletxeko fatxadan ere hainbat patroi publiko daude grabaturik, horien artean, teilak eta adreiluak neurtzeko ugari eta baita edukiera neurtzeko bat edo beste ere. Zegaman bezalaxe, hor ere gaztelar kana izeneko luzera-neurria dago grabatua, hori baitzen eskuarki Gipuzkoan erabiltzen zena.

Martin Mendizabalek iradokitzen duen moduan, Lazkao, Beasain eta Ordizia artean sortutako Senpere eta Lazkaibar auzoen sorrera kontu nahasi edo lausoa da tokiko historiari dagokionez. Ez soilik hainbat gertakari oraindik ezezagunak zaizkigulako, baizik eta auzo bakoitzak hartzen dituen zonalde zehatzak ere ez daudelako argi, izan ere, oro har muga natural jakin batzuk ez ziren bertan antzematen. Bestalde, kontu jakina da, konplexutasun hori zela medio, jatorrizko antolakuntzari zegokionez, hala hiru jurisdikzioen arteko banaketa nola haien arteko mugena ez zela era hertsian gauzatu.

Erakusten zaila bada ere, aurrera begira egiteko balizko lanketa modura, Senpere izeneko bilbadura horri dagokionez, uste dugu garai hartan Ramon Mendizabal Azkueren (Ibarrako burdinola berri izenekoaren jabe ere bazena) eta beranduago, haren alarguna zen Bernarda Garmendiaren (Jose Maria

Lardizabal Oriarrek baitaratu aurretik, zeina Mendizabal Azkue horien adar baten tutore eta zaindari baitzen) jabetzakoa zen teileriak bazuela nolabaiteko lotura leku horretan finkatu ziren Senper izeneko pertsonekin. Beranduago azaleratuko ditugu Senpere auzoan kokatutako teileria garrantzitsu eta ezezagun horri buruzko datuak.

Aurrez esan dugu XVII. mendean teilak egin eta baserrietako estalpeetan jartzen zituzten behargin ia guztiak iparraldekoak zirela. Hemen ezbaian jarri nahi dugu Iparraldetik eratorritako Senpere toponimoa hartuta oso antzinatik auzo horretan ezarritako teileria hori kasualitate hutsa delako kontua. Bestalde, litekeena da Lapurdiko abizena zuen pertsona bat leku horretan kokatutako baserri batera etorri (Senpereaundi apika), bertan bizitzen geratu eta gizartean etxe eta jabetza horiek guztiak eskuratzeko adina ospe eta diru lortu izatea; eta horretan, agian, teilagintzaren industriaren funtzionamenduak eragin zuzen edo zeharkakoa izan dezake. Soilik hipotesi modura bada ere, pentsatzen dugu Iparraldeko jatorria zuen Senper abizeneko pertsona bat izan zitekeela teileria ezagun hori abiarazi zuena Senpereko zonalde horretan.

Orobat, badakigu Igartzako burdinola zaharraren estalpean egindako azken teilaberritzea Lazkaon egindako teilekin gauzatu zela, ziur aski Senperen kokatutako teileria zahar horretan fabrikatutako teilekin, izan ere, jurisdikzio horretan ez da ezagutzen ospe handia zuen beste teileriarik. Teileria Lazkaomenditik jaisten den errekastoaren eta bidearen alboan kokatzen zen, aurrerago dagokion atalean ikusiko dugunez. XVIII. mendean lantegi horren ekoizpena oparoa zen artean eta XIX. mendeko amaierara arte iraun zuen oparotasun horrek itxuraz. Amaiera aldera, ordea, lantegiko horma eta instalazioak nahikoa kalteturik zeuden.

Trenbidea zonalde horretatik oso gertu eraiki zen eta 1862an trenbide horretatik hiru eraikin baino ez ziren ikusiko Senpereko zubitik Lazkaibar aldera joz (egun C.A.F. enpresaren lantegi berriak hartzen dituen zonalde zabal horretan). Teileria izango zen errekatxotik eta bidetik hurbilen zegoen eraikina, ondoren, Senpereberri baserria ikusiko zen eta, azkenik, Igeldegi.

Atzerago, Agauntza errekaren gaineko zubiaren ondoan, Senpereaundi izeneko etxe nagusia geratuko zen eta, baita Errekalde eta Beltransagasti edo Betenasagasti baserriak ere, azken horiek aurrekoaren ondoan kokatzen ziren baina bidearen ezkerrera, Lazkao aldera. Halaxe ikus daiteke 5. sektoreko plano orokorrean eta 5f plano-zatian K, L eta M hizkiekin adierazita, hurrenez hurren. Altune baserria plano horrek erakusten duen ikuspegitik at lekutuko zen, mendirantz. Hortxe kokatzen da gaur egun ere, gasolindegi berriaren gainean.

Goiko guztia 5. sektorearen azterketari dagokion sarrera gisa aipatuta, leku horretan zegoen baserrien sare korapilatsua osatzen jarraituko dugu orain. Igeldegi atzean utzita, Lazkaibar aldera eginez Burugorrinea eta Txintxurreta baserriak leudeke, bakoitza bidearen alde



batean kokatuta. Denboran atzera eginez, elkarren ondoan zeuden baserrien artean izen aldetiko halako nahaspila edo trukea izan zela ikus daiteke, izan ere, Mendizabali kasu eginez, ikus dezakegu Senper eta Burugorri artean baserriren bat ***"…pasó a llamarse después Chinchurreta…"*** (Txintxurreta izena hartu zuela); eta 1669ko idatziren batean, kasu honetan Aguirre Sorondo etnologoari jarraiki, beste Txintxurreta bat aipatzen da, era berean, ***"alias Burugorri"*** (Burugorri goitizenez) ere izendatzen zena. Horrek zer pentsa ematen du eraikin horien inguruan.

Urte ezberdinetan baserri horietako jabe eta egoile izan zirenei dagokienean, esan dezagun 1603an Joanes de Chinchurreta y Senper (berriz ere izen horiek agertzen dira hemen) izeneko pertsona bat izan zela Senper baserriaren (pentsatzen dugu Senpereaundi izango zela) jabea. 1644an ere Juan de Chinchurreta y Senper zen hartako jabea. Dena den, ez dakigu goran aipatutako pertsona bera zen ala ez, izan ere, 40 urte igaro ziren orduz geroztik.

Azkenik, aipagarri da, Ramon Mendizabal Azkueren (Ibarra eta Tolosako zonaldean ere jabetza garrantzitsuak zituena) alargunak, Maria Bernarda Garmendiak, XIX. mendearen erdialdera Burugorrinea baserriaren laurden bat eta hartako zenbait etxaguntza baitaratzen zituela artean. Arestian esan dugunez, azken etxe hori Beasain-Lazkao arteko mugan kokatzen zen zehazki, Txintxurreta baserriaren bidez beste aldean. Fabrika Handiari dagokion 6. sektorean sakon deskribatu eta kokatuko dugu hura.

Oñatiko Protokoloen Artxibategian ere Martin de Chinchurreta izeneko pertsona bat agertzen da 1611n, Igeldegi baserriaren gaineko zentzu baten ezarle gisa. Baserri hori, Senpereko auzoan lekutzen bazen ere, Burugorrinea eta Txintxurreta etxeetatik gertu zegoen; Igeldegi baserria ere Bernarda Garmendia alargunaren

baitakoa zen 1862an. Ez dakigu nola eskualdatu ziren Senpereaundi, Senpereberri, Igeldegi, Maizberri (baserri hori ere oso hurbil zegoen, nahiz eta Lazkaomendiko jurisdikzioan sartu), teileria edota Burugorrinea baserriaren zati bat Jose Maria Lardizabal Oriarren jabetzatik Ramon Mendizabal Azkue eta Bernarda Garmendiaren baitara iritsi arte.

Bestalde, badirudi Burugorri baserriak hartako jabe edo egoile ilegorri bati edo teila gorriz estalitako eraikin bati zor diola bere izena. Joanes de Chinchurreta y Senper, antzina Senper baserriaren jabe izan zena, ote zen Iparraldetik etorritako balizko gizona? Edo, apika, haren arbasoren bat izan ote zen zonalde honetara arribatu zena? Eta nor zen Martin de Chinchurreta, Igeldegi baserriaren gaineko zentsua Lazkaoko kabildoaren alde ipini zuen pertsona? Egiaz teilagina ote zen horietakoren bat? Merezi luke adituren batek Senpere auzoaren gaineko historia bitxi horretan sakontzea, Senpere izena leku horretara nola iritsi zen jakiteko baino ez bada ere.

Sarrera luze baina ezinbesteko horren ondotik, ikus dezagun orain zer-nolakoak ziren 1862an aipatu ditugun eraikin guztiak.

5. PLANOAN SENPEREKO ZONALDE HONETAN AGERTZEN DIREN BASERRI ETA ERREFERENTZIEI BURUZKOAK

1862an gure irudizko bidaiariek Senpereko zubi zaharra zeharkatu ostean, Lazkaoko jurisdikzioan leudeke. Gaur egun ere halaxe egiten da jurisdikzio aldaketa. Ongi koka gaitezen, 5f plano-zatian agertzen diren erreferentzia zaharretan erreparatuko dugu lehenengo. Aldi berean, 184. argazkia begiratuko dugu bi herrien artean nabarmentzen zen "kolore berde gardeneko muga naturala" ikusteko. Irudi horretan oso ongi ikusten da Agauntza erreka eta baita haren gainean bi begiko harrizko zubi zaharra ere, 1980an eraitsi zena.

XX. mendearen hastapenera arte Ugartemendi-Senpere zonalde horretan aldaketa gutxi izan ziren. Irudian Senpereko zubia ikus daiteke baranda berriz hornitua. Baranda horiek XX. mendearen lehen erdian finkatu ziren zubiaren zabalera handitzeko lanen barruan. Horri begira gaudelarik, ezin aipatu gabe utzi hara bertaratzen ziren arrantzaleak. Gogoan izan zubiaren alde batean, hain zuzen, errekak beherantz egiten zuen aldean, putzu handi bat sortzen zela. Zenbait arrantzale ezagun bertaratzen ziren hara XX. mendearen erdialdera, esate baterako, Victoriano Laborde eta haren semea, Pedro Mari. Aita Bionako presaren eta Beneditarren Komentuaren artean ere aritzen zen arrantzan, baita "Gaztañaundi" aldera egiten zuen Agauntza errekaren ertzean ere; betiere, berak eraikitako metalezko aulkitxo baten gainean eserita. 184a eta 184d argazkietan Agauntza errekan aritzen ziren arrantzaleak ikus daitezke. Pablo Rebollar zen zonalde hartan sarri ibiltzen zen beste arrantzale bat, abizen hori duten egungo kideen aitona. Hark sare bidezko arrantza-mota berezi bat erabiltzen zuen, "esparabel" izenekoa. Haren funtzionamendua 2005ean argitaratutako "Beasain jaietan" liburuan azaldu genuen.

Denboran atzera egingo dugu berriz, 1862. urtean paratzeko ostera. Orain Lazkaoko jurisdikzioan kokatuko gara. Herriak 43 etxe eskas izango zituen herrigunean eta 73 baserri inguruetan. Beasainen baino biztanle gutxiago zituen nabarmen, izan ere, Lazkaok 1.079 biztanle zituen soilik, 187 familiatan banatuta.

Orain 184b eta 184c irudi txikiak hartuko ditugu. Hala, Senpereko zubiak eta Beasaingo Zaldizurreta zubiak antzeko egitura zutela ikusiko dugu, erdiko zutabean zubi-branka bera ageri zutelarik. XX. men-

dearen lehen erdialdean zubi horien zabalerak handitu egin zituzten. Horren ondotik, harrizko barandak kendu eta modernoago batzuk kokatu zituzten, 184b irudian ikus dezakegunez. Zaldizurretako zubiaren irudian, ordea, ez da halako barandarik ageri, izan ere, bi argazkien artean 35 urteko aldea dago gutxi gorabehera. Azken irudia 1927koa da eta zubi hori aldatu gabe zegoen artean.

Antzekotasun hori ez da harrigarria (Lazkaibar eta Katea inguruko zubi zaharren artean dagoen antzekotasuna, aurrerago ikusiko duguna, harrigarria ez den bezala), izan ere, Pello Joxe Aranburuk aipatu bezala, Jose Francisco Arana izan zen Beasain-Senpere bide hori errepide bihurtu zuen kontratista eta, era berean, bera izan zen bi zubi horien eraldaketa gauzatu zuena zetozen garai berrietara egokitzeko xedez.

Senpereko zubia eta Zaldizurretakoa 1862an aparteko dirdirarik gabeko zubiak zirela pentsatzen dugu, izan ere, Serapio Mugica eta Carmelo Echegarayk Lazkaibar-Senpere-Lazkao errepidearen eraikuntzari buruzko kontakizunean zonaldeko zenbait Udaletxek eraikin horiei buruz pentsatzen zutena gogoratu zuten. Aipagarri da probintziako agintariek Beasaindik abiatuta Lazkao-Ataun errepidea lehenik eta behin Senpere aldetik zabaltzeko asmoa zutela, Ordizia-Lazkaibar-Senpere bidea ireki beharrean, nahiz eta, azkenik, bigarren aukera gauzatu. Eta, eskualdeko zenbait alkatek, Ordiziarekin bat etorriz, argudio hau eman zuten:

> *"…se expuso a la Diputación el 1 de Febrero de 1.852 que era mucho más ventajoso y más breve el trazado desde Lazkaibar, puesto que si se prefería el que se iniciaba en Beasain se aumentaría su coste, toda vez* ***que exigiría la construcción (reconstrucción) de dos puentes, uno sobre el río Oria y otro sobre el Agaunza…"***

Argi geratzen dela dirudi Lazkaibar-Lazkao bidea 1854an abiatu zela, aurrerago esango dutenez. Eta, horrez gain, argi geratzen da orduko zubiak egoera kaskarrean zeudela, izan ere, erabat desegokiak ikusten zituzten Nafarroa aldera egiten zuen errepide berriaren trafikoari eusteko. Sei urte baino igaro ez zirelarik San Martin de Urbieta Burdin Fabrika lekutu zen bertan. Horrenbestez, garraio zentzudun, jarraikor eta handiagoa beharko zen aurreko urteetan zegoena baino.

Hirugarren karlistaldian izandako gorabeheren erruz Lazkaibarretik Ataunera arteko errepide-tarte modernoa eten egin zen Erroiondoko zonaldean. Hamarkada bat beranduago, 1865. urtearen hastapenean, Beasain-Senpere desbideratze berria abiatu zen, bertako bi zubiak eraberrituta. Baina, zer-nolako itxura izango ote zuten Oria eta Agauntza gainean eraikitako zubi horiek berreraiki aurretik?

Urte horietan zubiek zuten itxura ezagutzen ez badugu ere, badakigu XVIII. mendearen amaiera aldera eta XIX. mendearen hastapenean Senperen kokatutako zubiak jadanik bi begi zituela eta "kare eta harkoskorrez" eraiki zela. Zeharka dezagun, gure gogoan bada ere, zubi hori 1862an zonaldeak zuen itxura ezagutu eta bestaldean, dagoeneko Lazkaoko jurisdikzioan sartuta, zeuden eraikin urriei buruzko zalantzak argitzeko.

Arestian esan dugu Lazkaoko jurisdikzio horretatik ere igarotzen zela 1862an eraikitako trenbidea, 5. sektoreko plano orokorrean eta 5e plano-zatian ikus dai-

tekeenez. 152 metroko luzera duen tarte bat baino ez da igarotzen Lazkaotik (hala ere, litekeena da luzera 155 edo 115 metrokoa izatea, 4. sektorean aipatu dugunez). 582,215 kilometro-harritik aurrera abiatzen da tarte hori, 2.862 m² inguruko azalera soilik hartuz. Iparraldeko Trenbideen Konpainiak jabetza modura erregistratu zuen 1876ko azaroaren 14an, irudizko bidaia egiteko oinarritzat hartu ditugun trenbideko plano hauek sinatu eta 14 urte ingurura, hots, haren inaugurazioa baino urtebete lehenago.

Beste dokumentu batzuetan bestelako zenbaki batzuk ikusi ditugu eta, beraz, nahiko lauso ageri zaigu Lazkaoko jurisdikzio barruan trenbideak egiten duen tartearen luzerari dagokion auzia. Erregistroan agertzen dena ere ez dator bat gainerako zenbakiekin, izan ere, hor 152 metroko luzera onartzen zaio. Tarte hori Agauntza errekaren gaineko burdinazko zubiaren erditik abiatzen da, hau da, Beasaingo eskualdeko hiltegi zaharra lekutzen zen zonaldean dagoen zubitik aurrera. 5e plano-zatian A-A´ hizkiekin adierazi dugu tarte horren gutxi gorabeherako bidea.

Plano horretan R hizkiaz trenarentzat egindako burdinazko zubia adierazten da, I hizkiarekin adierazten da Agauntza errekaren ibilgua, V hizkiarekin, berriz, Oria ibaiak eta Agauntza errekak bat egiten duten gunea, Urbieta izeneko zonaldean. T hizkiarekin Beasain eta Lazkaoko jurisdikzioak bereizten dituen irudizko lerroa islatzen da.

Hori guztiori argiturik, esangarri da Agauntza errekaren erditik behera, eskuinaldera Beasaingo lurrak leudekeela eta ezkerrera Lazkaoko jurisdikzioa legokeela. Suposa dezakegun moduan, erreka horren erditik gora Beasaingo jurisdikzioa litzateke oro. Horrenbestez, Lazkao eta Beasainen arteko muga errekaren erditik luzatzen da Lazkaoko hiltegi zaharra zegoen zonaldera eta Albisu eskuilategi zaharrera iritsi arte. Gune horretatik aurrera, irudizko beste lerro zuzen bat luzatzen da, errekaren perpendikularki ia. Laurogeita hamar graduko itzulbira egiten du eskuinera Ugartemendi-Garitain zonalde garai aldera. Lerro horrek adierazten du Beasain eta Lazkaoren arteko muga zonalde berri horretan hegoalderantz.

1862an, gure oinezkoek Senpereko zubia zeharkatu ostean ikusiko zuten lehen eraikina Senpere aundi edo Senpere Buru etxetzar zaharra izango litzateke, gutxi gorabehera, 185. irudian Agauntza etxea ikusten den lekuan paraturik. Zubi zaharretik ezkerrera, hogei metro eskasera egongo litzateke, Lazkaibar-Lazkao errepidearen alboan. Hori dela eta, ezinbestekoa da ari buruz zerbait gehiago esatea. Nolanahi ere, aurrez beste zenbait irudi ikusiko ditugu, horien artean 185. argazkia, XX. mendearen erdialdera ateratakoa, eta 5f plano-zatia. Horiei esker, zonalde horretan 1862an nahiz ehun urte beranduago zeuden eraikin ezberdinak adieraziko ditugu.

Bi irudiak batera ikustea komeni da, horietan agertzen diren erreferentzia ugariak erkatzeko. K hizkiarekin adierazi dugu Agauntza izeneko txaleta, 1904az geroztik C.A.F. enpresaren baitakoa. Hain zuzen, leku horretan kokatzen zen antzina Senpereaundi edo Senpereburu baserria. Hala ere, 5f plano-zatian ikus dezakegunez, baserriak 1862an beste orientazio bat zuen. Azkenik, Agauntza izeneko txalet hori 2007ko abuztuan eraitsi zuten.

Argazki berean B hizkiarekin Senperetxiki etxetxoa adierazten da, XIX. mendearen amaiera aldera eraiki zena. Etxetxo hori 186. argazkian ere ikus dezakegu parez pareko ikuspegi batean, 1953ko urriaren 15ean jazotako uholdea bisitari zuelarik; L hizkiarekin adierazten den bi solairuko etxea Errekalde izeneko eraikina da, 187. argazkian parez pare ikus dezakeguna eta 1980ko amaiera aldera eraitsi zutena; haren atzean, L´ hizkiz adierazita dagoen eraikina, eraikin zaharraren zati bat baino ez da, Olano de Beltransagasti ahizpek oraindik Errekaldezar izenez ezagutzen dutena. Azken hori Errekaldeberriaren atzean kokatu zen. Hain justu Errekaldeberri hori zen errekatxorantz kokatutako lehen eraikina (bere izenak adierazten duen bezalaxe), 5f plano-zatian L´ hizkiz adierazten dena; azkenik, argazkian M hizkiarekin adierazi dugu Beltransagasti edo Betenasagasti baserria, Infanterriko dukearen jabetzakoa. 2007ko urrian eraitsi zen baserri hori 5f plano-zatian ere M hizkiarekin adierazten da.

Dagoeneko Senpere-Lazkao-Ataun saihesbide berriaren alboan ez dugu etxetzar hori ikusteko parada, baina airetiko 188. argazkian M hizkiz adierazita ikus dezakegu oraindik. Bidearen beste aldean, halaber, haren estalpe zaharrak ikus daitezke, errepidearen ertzean lekututa, Agauntza errekarantz. Aldi berean, errekaren isuri berdea ere ikus dezakegu argi. Urte horietan Senpereko zonalde horretan zeuden eraikuntza guztien kokapena osatzeko ezinbestekoa da 189. argazkia hartzea. Bertan egun Altunes (pluralean) izendatzen diren eraikinak ikus daitezke. Haien azpialdeko zelaietan C.A.F. enpresaren aparkalekuak eraiki dira.

Argazkietan ikusten diren Altunes eraikuntzak hartzen dituen eremua 1862ko planoetan agertu balitz (ez da hala, izan ere, puntu horretan planoa moztu egiten da), gezi bertikal zuri txiki batekin adierazi dugun baserri zaharra eta etxe hartako egoilearen bizilekua zen atzealdeko eraikin eranskina baino ez genituzke ikusiko, izan ere, garai hartan ez zegoen beste eraikinik Altune izeneko zonalde horretan. Gaur egun, beste biak eraitsi ondotik, aipatu berri dugun Altune etxe zaharra da Senpereko beheko zonalde horretan mantentzen den garai hartako eraikin bakarra. Hala ere, erabat eraberriturik dago egun, aurrerago azalduko dugunez.

190. argazkian Agauntza errekak Oria ibaiarekin bat egin aurretik ageri zuen ibilgu itzela ikus daiteke. Halaber, errekaren erdialdeko zonaldean, azpialdean, errekaren alboko gaztainadia ikus daiteke, Infanterriko dukearena. Lazkaon "apaizaren bidea" izenez ezagutzen zuten gaztainadi hori.

191. argazkian azpialdean, ezkerrera ikusten diren beste etxeak (190. argazkian aipatu ditugun horien gainean, eskuinera ageri direnak) C.A.F. enpresaren txalet zaharrak dira, XX. mendearen lehen laurdenean eraiki zirenak S.E.C.M. enpresa berriarekin batera. Horiei buruz ere aurrerago mintzatuko gara.

Azkenik, 192. eta 193. argazkietan Beltransagasti edo Betenasagasti baserriko sagasti bikainak izan zirenak ikus daitezke. Aipatu irudietan azpialdeko zonaldean ikusten dira. 193. argazki estuan, goialdean, Txintxurreta izeneko etxebizitza-etxea ere ikus deza-

kegu, bere orientazioa zela-eta "Cuatro Vientos" (Lau Haize) ezizenez ezagutzen zena. Etxe hori 1929an eraiki zen, C.A.F. enpresako labe-zonaldean zegoen izen bereko baserri zaharra eraitsi eta berehala. Fabrikari dagokion 6. sektorean luze eta zabal hitz egingo dugu hari buruz.

SENPEREAUNDI da 5. sektoreko plano orokorrean eta 5f plano-zatian K hizkiarekin agertzen den eraikina. Plano horretan baserri zahar horrek bestelako orientazioa zuela ikus daiteke, gerora eraiki zen bi familiako txaletak (XX. mendearen hastapenaz geroztik fabrikaren baitakoa) hartu zuen orientazioarekin alderatuz. Fatxada handiagoak zituen baserriak eta antzina ekialde-mendebalde orientazioan kokatu ziren ia. Modu horretan, ekialdera begira zegoen fatxadaren eta Lazkaibartik zetorren bidearen artean distantzia handi samarra mantentzen zen artean. Hartako baratze nagusia sartaldera begira zegoen, Agauntza errekaren alboan. Hori argi ikus daiteke 5f plano-zatian.

Ikus 5f plano-zati horretan Lazkaomenditik jaisten den N errekatxoa. Aldi berean, J hizkiarekin adierazi dugun Lazkaibar-Lazkao errepide berriaren azpitik igarotzen dela ikus daiteke. Ondoren, errekatxoak Q hizkiarekin adierazi dugun bidearen azpitik jarraitzen zuen aurrera. Bide hori, X hizkiarekin adierazi dugun Senpereko zubitik abiatzen zen eta puntu horretan kurba handi bat eginez Lazkaibar-Lazkao-Ataun errepide berriarekin elkartzen zen. 1980ko 193a argazkian oraindik antzeman daiteke kurba handi hori. Hain zuzen, urte horretan egungo ingurubide-errepidera egiteko zubi berria eraikitzen ari ziren. Arrantzari dagokionez horrenbeste oroitzapen on ekartzen dizkigun harrizko zubi zaharra ere ikus daiteke irudi horretan, urte hartan bertan eraitsi baino lehen.

1862an Senpere izeneko errekatxoa lurrazaletik igaroz ikusten zen Agauntza errekarekin besarkatzen zen arte. 75 urte beranduago lurperatu zen errekatxo hori Senpere aundi etxearen parean lekututako lur-

eremu horretan. 194. irudi-planoan ikusten denez, 1930. urtean errekatxoaren erdia baino ez zen lurperatu, izan ere, N hizkiaren azpian lurrazaletik igaroz ikusten da oraindik, Agauntza erreka jomuga duela.

Plano-zati horretan K hizkiarekin adierazten den etxetzarra Senpere aundi da, 185. irudian ere hizki bera baliatuz adierazi duguna; Errekalde da irudi berean L hizkiarekin adierazten den eraikina. Dena den, etxe berria orain errepidearen alboan lekutzen da, izan ere, jatorrizko eraikinaren zati bat 187. irudian ikus daitekeen etxe berriaren atzealdean kokatu zen azken urteetan.

Senpereaundik historia luzea gordetzen du; uste dugunez etxeak bere jabeari zor dio izena. Era berean, pertsona hark halaxe bataiatu zuen zonalde osoa eta baita inguruan zeuden ia baserri guztiak ere. XX. mendearen hasierako 195. argazkian monumentu ezagun bat dago ikusgai, hain zuzen, 1813ko ekainaren 23an leku horretan hil ziren soldadu frantziar guztien omenez altxatu zena. Monumentu hori aipatu dugu, izan ere, bide ematen digu esateko 1719an izandako gudaldian baserri hori Errege Ospitale ere izan zela, San Jose izena hartuta. 1793an frantsesen aurkako Konbentzio gerretan ere Ospitalea izan zen, kasu horretan Suitzako Errejimentuko lehen batailoiaren zerbitzura. Tomas Lopez kartografo eta historialari ospetsuak esandakoa aintzat hartuz, Senpereaundik berezko hilerria ere izan zuen urte horietan. Hilerria etxearen atzealdean lekutzen zen Agauntza errekara bidean, hain justu, 5f plano-zatian "baratze" hitza irakurtzen dugun lekuan.

Senpere buru izenez ere ezagutzen zen eraikin horri 1862an Iparraldeko Zatiaren 8. zenbakia esleitu zion Lazkaoko Udalak. Garai hartan beheko solairuak, lehen pisuak eta ganbarak osatzen zuten haren egitura. Ertz eta kofadurak harlanduzkoak zituen, harlangaitz-hormak eta teilaz jositako estalpea. 1862an hauek ziren eraikinaren mugak:

Iparraldera, atzeko fatxadaren ataurreak; hegoaldera, sarrerako ataurreak; ekialdera, Lazkaibar-Lazkao-Ataun errepidea; mendebaldera, hartako baratze nagusia. Halaxe ikus daiteke 5. sektoreko plano orokorrean eta 5f plano-zatian.

Eraikina 385,86 m²ko orube gainean altxatu zen, etxearen atzeko fatxadara erantsitako teilapea kontuan hartu gabe. Teilapeak beheko solairua baino ez zuen eta 131 m²ko azalera zuen. Etxeak 8.200 pezetako balioa zuen, teilapea barne.

Honatx fatxada nagusiko ataurrearen mugak:

Iparraldera, eraikina; hegoaldera, Senperetik Beasainera zihoan bidea; ekialdera, Ordiziatik Lazkaora zihoan errepidea; mendebaldera, etxeko baratzea. Guztira 256 m²ko azalera hartzen zuen eta 15,36 pezeta balio zuen, hots, 6 pezeta areako. Atzeko teilapearen alboan kokatutako ataurreak hartako etxaguntzak zituen mugakide iparralde nahiz mendebaldera; hegoaldera,



teilapea; ekialdera, Ordiziatik Lazkaora zihoan errepidea. Guztira 178 m²ko azalera hartzen zuen eta 10,68 pezeta balio zuen, hots, 6 pezeta areako.

Axolazko etxe hori Ramon Mendizabal Azkueren (Tolosa eta Ibarrako jurisdikzioetan Azkueko maiorazkoaren jabe ere bazena) alargunaren jabetzakoa zen jadanik XIX. mendearen lehen erdialdearen amaieran. Haren emaztea, Maria Bernarda Garmendia izan zen gerora etxearen jabedun, onibar hauek ere barneratzen zituena:

Bekosoroa, 984 m²ko azalera zuena; izen bereko beste lursail bat, kasu horretan 19.980 m²ko azalera hartzen zuena ereiteko lurretan. Horiez gain, 710 m²ko beste onibar txiki bat, zuhaiztiz betetako belardi bat barneratzen zuena. Baratzeko area bakoitza 80 pezetan balioetsi zen, itxiturazko hormak barne. Ereiteko lur-eremua 50 pezetan balioetsi zen eta belardia 4,5 pezetan, hartako zuhaitzak barne. Horrenbestez, guztira 10.759 pezetako balioa hartzen zuen lursailak.

Sagastitxo, 2.570 m²ko azalera zuena eta 1.156,5 pezetako balioa, hau da, 45 pezeta areako. Aurrez aipatutako onibarrean kokatutako etxeak 160,8 m²ko azalera zuen, hartako ataurreekin. Bere orduko balioa 1.500 pezetakoa zen.

Goikosoroa izeneko lurrak 18.788 m²ko azalera zuen eta 8.830,36 pezetako balioa, hau da, 47 pezeta areako.

Altunaldea, sagarrondo eta pagoz jantzitako mendialdea, 5.650 m²ko azalera zuena eta 109,35 pezetako balioa, hau da, 4,5 pezeta areako.

Lurbarrialdea, harizti eta otalurrez betetako 2.000 m²ko onibarra; 90 pezetako balioa zuen, hau da, 4,5 pezeta areako.

Pozueta, 2.880 m²ko azalera zuen eta 216 pezetako balioa zuen (7,5 pezeta areako) lursaila.

Aurretiaz esan dugunez, Joanes de Chinchurreta y Senper zen 1603an Senpereaundi eta Urbiñarte baserrietako jabea. 1644an Juan de Chinchurreta y Senper ageri zen haietako jabedun gisa. 1810ean Jose Maria de Lardizabal Oriar zen Senpereaundi baserriaren jabea eta Jacinto de Arrese, Juan Francisco de Aranburu eta Jose Prudencio de Ayestaran ziren bertako egoileak.

Beranduago, Juan Venancio Araquistain, jabetzako erregistratzailea, Isabel Garmendia Lasquibarren senar eta administrari izaki, Tolosako Epaitegian bertaratu zen esanez andre hark bere izenean zuela zenbaki hartako lursaila, zendutako Maria Bernarda Garmendia (1888ko ekainean hil zen) izebaren herentzian jaso ostean. Ohikoa zen moduan, ez zuen idatzizko titulurik, baina Lazkaoko Udaletxean andre hura etxeko jabedun modura ageri zen. Hori zela eta, Lazkaoko bi bizilagun jabedunek lekukotza eman behar izan zuten, onibar horiek egiaztatu ahal izateko.

Eskumeneko agintariek aipatu andreak zerga eta kontribuzio guztiak garaiz ordaindu zituela egiaztatu ondotik eta kasu horietan legeak ezartzen zituen baldintzak betez, azkenik onarpen-autoa eman zen,

modu horretan, jabetza horiek bere izenean erregistratu ahal zitzan. Onibar horiez gain, 1881eko abuztuaren 12an beste 20 ondasunen jabetasuna onartu zen aipatu andrearen alde.

Isabel Garmendia Lasquibar hil zenean haren senarrak, Juan Maria Venancio Araquistain y Lamadridek bereganatu zituen jabetza horiek herentzian. Halaxe jasotzen da 1884ko azaroaren 26an bi ezkontideen artean egindako testamentuan. 1904ko urtarrilean aipatu gizonak S.E.C.M. fabrikari saldu zion aipatu baserria. Eta hortik aurrera Senpereaundi baserriaren gainean jazotako kontu guztiak aski ezagunak dira, izan ere, eraitsi eta 2007ko abuztura arte guztiok ezagutu dugun txaleta berreraiki zen haren gainean.

SENPEREAUNDI BASERRIAREN ANTZINAKO JABEAREN BAITAKO BESTE ZENBAIT ETXE

IGELDEGI, 1888tik aurrera Isabel Garmendia Lasquibarren jabetzakoa. Senpereko zonaldean kokatzen ziren baserrien artean ezezagunena da, agian duela urte asko desagertu zelako, XX. mendearen bigarren laurdena hasi berri zela; eta, hain zuzen horregatik ahantzitako etxe horretatik hasiko dugu gure deskribapen-sorta.

Suteak maiz gertatzen ziren baserrietan eta asko eta asko desagertu ziren horrela. Igeldegi izan zen horietako bat. Senpere auzoan kokatzen zen, Lazkaoko jurisdikzioan, Iparraldeko Zatiaren barruan eta Lazkaibar auzotik gertuen zegoen eraikina zen gainera zonalde horretan.

Lazkaibar auzorantz errepidearen eskuinera hainbat baserri lekutzen ziren. Igeldegi baserria Senpere berri eta Txintxurreta baserrien artean zegoen. Azken bi horiek ere XX. mendean desagertu ziren, aurrerago ikusiko dugunez. Bien artean bazen alde garrantzitsu bat, hau da, lehena Lazkaoko jurisdikzioan lekutzen zela eta bestea, hurbil egon arren, Beasaingo jurisdikzioan lekutzen zela argi eta garbi, baina Lazkaibar eta Senpere auzoetatik gertu.

Tokiko pertsona helduek diotenez, gaur egun Igeldegi baserria 1955ean inauguratu zen N-1 errepide berriko lehen tuneletik oso hurbil legoke, Senper berri baserritik ehun metro ingurura tunel horietarako noranzkoan. Tunel horiek Galardi izeneko mendialde guztia gurutzatzen dute zeharka.

196 eta 196a argazkiak Senpereko futbol-zelai zaharretik daude atereak. Jokalarien nahiz zelaiaren ekialdera begira dagoen atearen atzean Igeldegi baserriaren soslai iluna ikus daiteke.

1962ko 197. argazkian ere egun baserriak hartuko lukeen eremua agertzen da, zirkulu zuri batez adierazita. Bidenabar esan 196. argazkian ezkerretik hasita agertzen den lehen jokalaria Agustin Cacho dela. Beste biak ezin izan ditugu identifikatu. 197. argazkian C.A.F. enpresaren "Lantegi Berriak" ikus daitezke eta eskuinera Igeldegi baserriak hartuko lukeen eremua puntu zuri batez adierazita. Halaber, Senpere berri baserria ere ikus daiteke. Irudiaren ikuspegitik at, azken baserriaren eskuinera, "Behitegi edo Esnetegia" legoke bost urte lehenago. Horri buruz ere aurrerago hitz egingo dugu. Orain badakigu Senpereko futbol-zelaiaren irudi zaharretan gerora "hondakindegi" ezagunerantz orientatu zen atearen atzean ikusten den eraikina Igeldegi etxe ahantzia dela.

Haren kokapen zehatza ere ezagutu ahal izan dugu, XX. mendearen lehen laurdenaren amaieran C.A.F. enpresak egindako plano zahar batzuen laguntzari esker. Plano horietan oso ongi marraztuta ageri dira Lazkaibartik Senperera zihoazen bide zaharrak. Hala ere, kokapen zehatza ezagutze aldera, plano horien laguntza ezinbestekoa izateaz gain, Oria eta Beristain familiek emandako datuak ere oso lagungarri izan zaizkigu.



Senpereko zubiaren alboan kokatutako zonalde hori igaro ostean, Senpereberri baserria zen, Lazkaibar aldera, Senpere auzoaren eskuineko zonaldean (1862an ingeniari frantziarrak marraztu zuena) populaturik zegoen eraikin bakarra. Baserri hori ere aurrerago deskribatu eta ikusiko dugu. 5. sektoreko plano orokor honetan P hizkiarekin adierazi dugu.

Trenbideko teknikari hark ez zuen plano horretan hedadura gehiagorik islatu, izan ere, proiektatzen ari ziren trenbideak ez zuen inolako eraginik izango islatu gabeko zonalde horretan. Guk, hala ere, urte horietan Senperek zuen itxura ezagutzeko ezinbestekoa dela iritzita, sakontasunez aipatuko dugu, izan ere, zonalde hori guztiori oso hurbil ikusten da trenbidetik beha. 1862an leku hori larre eta laborez betetako lautada zabal bat zen, dozena erdi baserri bakartuz zipriztindua.

Esan dugu C.A.F. enpresak Senpere auzoaren eskuineko zonaldearen (Lazkaibar aldera) planoak marraztu zituela, izan ere, 1901ean eskuratu zituen lur horietako gehienak S.E.C.M. enpresa berria finkatzeko, nahiz eta 1961/1962 arte ez zien erabilera industriala eman. Fabrikari dagokion 6. sektorean gero ikusiko dugunez, 1901ean ia 300.000 m2 lur erosi bazituzten ere, hasiera batean 120.000 m2 baino ez zituzten erabili. Modu horretan, deskribatzen ari garen Senpere auzoko eskuineko zonalde hori Fabrikako Kooperatibaren Granjarako larre-zonaldea zen ***("zona de pasto para la Granja de la Cooperativa de la Fábrica").***

Hori guztiori aurrerago azalduko dugu, XX. mendearen hastapeneko eraikinari, "Granja" delakoari (beranduago "Behitegi edo Esnetegi" ere izendatu zuten hura) dagokion atalean, izan ere, oso historia bitxia gordetzen du eraikinak, 1862an Lazkaibar-Senpere errepidearen ekialdera kokatutako eraikinen kokapen eta eginkizuna argitzen duena.

198. plano orokorrean XX. mendearen hastapenean leku horretan kokatutako hiru eraikinen (Igeldegi, Senpereberri eta Granja) sekuentzia ikus daiteke. Senpereberri 1955ean inauguratutako errepidetik 250 metroa legoke eta Igeldegi baserria berriz, Senpereberri baserriaren eta errepide berriko lehen tunelaren artean.

Plano horretan 1 zenbakiarekin markatutako zirkulu marroiak N-1 errepideko lehen tunelaren irteera adierazten du; 2 zenbakiarekin adierazten den eraikina Igeldegi litzateke; 3 zenbakia izango luke Senpereberri baserriak; Granja edo "Behitegi edo Esnetegiak" (antzina baita "teileria" ere) 4 zenbakiarekin adierazten da; 5 zenbakiak Lazkaomendiko mendietara egiten duen bidea erakusten du; 6 zenbakiarekin adierazten da Altune etxea zegoen zonaldera abiatzen zen bidea; azkenik, 7 zenbakiarekin Senperen Fabrikak eraiki zituen txalet ederrak adierazten dira. Granja izeneko eraikinaren azpialdetik maila apalagoko beste bide bat igarotzen zen eta halaxe islatu nahi da planoan ere. Dena den, hori ere aurrerago aipatuko dugu Granjaren mugak deskribatzean.

C.A.F. enpresak editatutako planoetan oso argi ikusten da aipatu bide nagusia, Lazkaibar-Senpere errepidetik irten ondotik ezkerrerantz luzatzen zena Senpere futbol-zelai zaharra (planoetan "Kirol Zonaldea" izendatzen da) inguratuz. Aipatu bi etxeen aurretik igaro ondoren, gerora Behitegi edo Esnetegi izenez ezagutu zen eraikinaren (plano horretan Granja) atzetik pasatzen zen.

Bide hori, era berean, Senperetik Lazkaomendira eta mendietara igotzen zen beste bide batekin elkartzen zen, auzoaren izen bera hartzen duen errekatxoaren albotik. Granja izeneko azken eraikinaren kokapenari buruzko azalpenak ematean, halaber, eraikin horiek guztiak ere aipatuko ditugu orokorki bada ere. 199. irudian, erreferentzia modura, Galardi izeneko muinotik jaitsiz, zonalde horretan Beasain eta Lazkaoko jurisdikzioak bereizten dituen lerroa ikus dezakegu. Dagoeneko ez da ageri Beasaingo jurisdikzioan kokatutako Burugorrinea baserri zaharra, Lazkaibar-Lazkao errepidearen ertzean lekutu zena; izan ere, or-

durako eraitsia zegoen. Zonalde horretan ijezketatailer "beroak" eraiki ziren, zeintzuk errepidearen ezkerrera kokatu ziren hasiera batetik, Lazkaibar alderako norabidean.

1904ko martxoan S.E.C.M. enpresari saldu zitzaion baserria eta, 6. sektorean azaldu eta ikusiko dugunez, beranduago "Bandaje-trenaren" instalazio zaharrak finkatu ziren lekuan kokatu zen enpresa. Aipatu trena 1905. urtean hasi zen funtzionatzen, gutxi gorabehera. Nolanahi ere, gerora, 30eko hamarkadan, hartako instalazioak lekuz aldatu, modernizatu eta handitu egin ziren lantegiaren barruan.

Lazkaomendirako bide zaharraren alboan, errepidearen eskuinera, Lazkaibarrerako norabidean, ia lerro bat osatuz pixkanaka sortu ziren zortzi txalet ederrak XX. mendearen lehen laurdenean eraiki zituzten, 1905ean S.E.C.M. enpresa inauguratu ostean. 200. eta 201. argazkietan bikain lerrokatuta ikus daitezke.

191. irudian Senpere auzoko zonaldean zeuden txalet guztiak ikusi ahal izan ditugu, Lazkaibar-Lazkao errepidearen bi aldeetara kokatuak dagoeneko. 194. planoan ere C.A.F. enpresaren eskuinaldeko zortzi txalet zahar horiek ikus daitezke; N hizkiarekin Lazkaomenditik jaisten den Senpere errekatxoaren ibilgua adierazi dugu; K hizkiarekin, berriz, antzina Senpereaundi baserria hartu zuen orubearen gainean eraikitako txaleta adierazi dugu; X hizkiarekin Senpereko zubi zaharra adierazi dugu; I hizkiak Agauntza erreka erakusten du eta J hizkiak Lazkaibar-Lazkao-Ataun errepidea.

Igeldegi baserriari buruzko atal honen hasieran "diotenez" aipatu dugu, izan ere, garai hartako beste baserri asko bezala, Igeldegi ere desagertu egin zen, gutxi gorabehera 1930ean; gainera, haren historia luze eta apala erakusten duen taxuzko argazki bakarra ere ez da gorde. Oria familiaren zenbait arbaso Igeldegi baserrian bizi izan ziren egoile modura. Gerora Bartoletxe izeneko beren etxea eraiki zuten, trenbide-pasabidearen alboan. 75 urte baino gehiago igaro diren honetan bigarren baserri hori kokapen berean mantentzen da oraindik. Beasaingo institutuaren eskaileren alboan 4 zenbakia duen etxebizitza-etxea da, egun hiru errepideren arteko "irla" modura lekutua, hain justu, trenbidearen eta egungo A-1 errepidearen azpian dagoen lurrazpiko oinezko pasabidearen aldamenean. Oria familiako aita zena izan zen, hain zuzen, baserri ahantzi horretan bizi izan zen azken pertsonetako bat. 1935ean Bartoletxe izeneko etxebizitza-etxea Ugartemendi eta Olaberrira joateko bide zaharraren "zaindari iraunkor" modura altxatu zen, aurrez aipatu dugun eran.

Igeldegi baserrira itzuliz, bere izenak eman digu arreta. Baserria Luis Maria Mugicak Lazkaoko toponimoekin osatutako liburuan jaso eta sakonki aipatzen da. Bertan autoreak **"igel toki edo igel leku"** gisa itzultzen du. Hizkuntzalariak dioenez, Lazkaoko Igeldegi baserria izen horrekin aipatzen da Oñatiko Protokoloen Artxibategian ageri den Gipuzkoako zerrendan, 1611ko otsailaren 13koan. Garai hartan, era berean, Martin de Chinchurreta aipatzen da, lazkaotarra, zeinak bi dukateko zentsu bat ezarri zuen Igeldegi baserriaren gainean Lazkaoko parrokiako kabildoaren alde. Haatik, 1819ko abuztuaren 5ean Juan Bautista de Muxica eta haren semea bizi ziren Igeldegi baserrian.

Juan Angel Achon Insaustiren arabera, 1810ean Jose Maria de Lardizabal Oriar zen elkarren gertu zeuden lau baserrietako jabea, hau da, Senpere, Senpereberri, Maizberria (hau Lazkaomenditik gertu dagoen zonaldean kokatuta, baina Senpere auzora begira) eta Igeldegi baserrien jabea; eta azkenak 3.566 beloi-erreal balio zuela ere aipatzen du. Dena den, 1862an, etorkizuneko trenbidean zehar irudizko bidaia egiten ari garen garaian, Maria Bernarda Garmendia zen Senpere auzoan paratzen ziren eraikin horien jabea. Ez dakigu zehazki nola eskualdatu ziren jabetza horiek guztiak Bernarda Garmendiaren senarra zen Ramon Mendizabal Azkueren baitara. Nolanahi ere, badakigu Jose Maria Lardizabal Oriar jatorriz Ibarra eta Tolosakoak ziren Mendizabal Azkuetarren adar baten tutore eta zaindari izan zela.

Beste dokumentu zahar batean ikusi dugunez, XIX. mendearen erdialdera, Garmendia andrea, jadanik Mendizabal Azkueren alargun zela, Tolosan bizi zen ordurako, Francisco de Sales Mendizabal seme bakarrarekin.

1851ko urtarrilaren 17an Jose Francisco Aranari saldu zion Burugorrinea baserriaren laurdena eta, horrekin batera, 6,5 ondoko lursail bat ere saldu zion. 6.000 beloi-erreal eta 17 marabedi ordainduta gauzatu zen salmenta. 1862ko eskala-planoari esker zehaztasun osoz kokatu ahal izan dugu Burugorrinea baserria. Beasaingo jurisdikzioaren barruan zegoen, Igeldegi baserritik hurbil, baina orduan Nafarroara egiten zuen Errege Bide izendatzen zen galtzadaren beste aldean.

Burugorrinea baserria Txintxurreta baserritik oso hurbil zegoen era berean, izan ere, Senpere aldera lekutzen zen hartatik ehun metro eskasera, galtzadaren beste aldean. Hots, Igeldegi eta Txintxurreta ezkerreko ertzean lekutzen ziren, Lazkaoko norabidean. Fabrikako zonaldeari dagokion 6. sektorean askoz argiago ikusiko dugu hori guztiori, plano eta irudien laguntzaz.

Azkenik, adierazgarria da Martin Garmendia y Lasquibarren ahalordedun zen Daniel de Ilarrazak ere Tolosako Lehen Auzialdiko Epaitegira jo zuela, hark ordezkatzen zuen pertsona jabetza horren jabedun zela adieraziz. Bere esanetan, herentziaz jaso zuen zendutako Maria Bernarda Garmendia izebaren eskutik, hain zuzen, haren heriotza egunean, hots, 188ko ekainean. Garai hartan ohikoa zenez, ez zuen jabetza horiekin lotutako idatzizko titulurik. Horrenbestez, halakotzat aitortzea eskatu zuen kasu horietarako legeak adierazten zuena betez. Aipatu jabetzen zergak garaiz ordaindu zirela egiaztatu ostean, onarpen-autoa eman zen. Horri esker, 1891ko abuztuaren 12an erregistroa burutu ahal izan zen.



Martin Garmendia alargun gelditu zen 1912ko irailaren 1ean Josefa Larrañaga Larrañaga emaztea Burgosen hil ostean. Aipatu gizona Elorrion bizi zen orduan. Emazteak Jesusa Garmendia de Gaytan de Ayala alabaren eskuetan utzi zituen jabetza guztiak herentzian. Horrez gain, senarra eta Jose Maria de Urquijo e Ibarra abokatua hautatu zituen testamentualbazea modura. Testamentu horren bidez aurrez egindako emakida guztiak baliogabetu egin ziren. Jesusa Garmendia y Larrañagak bere senarraren zegokion lizentzia zuen, hots, Bilbon bizi zen Antonio Gaytan de Ayala y Artazcoz (Tola de Gaytaneko markesa) abokatuaren lizentzia.

Martin Garmendia y Lasquibar alargun ezkontideari, bikotean aurrez egindako ekarpenengatik, 1912an berari zegokion irabazpidezko erdiarekin ondasun batzuk aitortu zitzaizkion, 1.416.938 pezetan balioetsi zirenak. Ordainketa kontzeptuan zenbaki horretako lursailak eta beste batzuk esleitu zitzaizkion, azkenik bere izenean inskribatu zituenak Tolosako Jabetza Erregistroan. 1920ko urtarrilaren 11n hil zen eta bere alabak jaso zituen herentzian etxea eta aurrez deskribatutako jabetza guztiak. Horrekin guztiorrekin, dagoeneko badugu Igeldegi baserriko lehen egoileen gorabeherekin lotutako sekuentzia luze bat, oraindik guztiz osatugabea bada ere.

Bestalde, atseginez hartu dugu 219 metroko garaiera baino ez duen Galardi muinoaren azpian "mendiko igelak" egon zitezkeelako kontua. Are, dirudienez, igel horiek paisaia horretan erruteko nahimena zuten, izan ere, bertako biztanleek azkenik Igeldegi (igel toki edo igel leku) ezizena paratu zioten eremu horri. Hain zuzen, tontor horren ingurumarian banatzen dira Beasain, Lazkao eta Ordiziako jurisdikzioak. Beranduago, ezizen hori hartu zuten hala baserriak nola Galardi muinotik jaisten zen erreka txikiak.

Honatx izen horrekin lotuta egileak aipatzen dituen beste toponimo batzuk, aurreko izenetik eratorriak: **Igeldegierreka, igeldegikoiturrialdea, igeldegikomintegitxikia, igeldegikomuntegia** eta **igeldegilangaondoa**. Toponimo horiei esker, zertxobait gehiago dakigu Igeldegi baserria lekutzen zen zonaldean duela ez hainbeste urte zegoenari buruz.

Ingurubide-errepideko nahiz lehen tuneleko lanekin eta 1956an azpi-zentral elektrikoa (202. irudian ikus daiteke) eraikitzeko lanekin hasiko ziren ezabatzen XX. mendearen lehen erdian eraikin zahar horretatik geratu ahal ziren azken aztarnak. Ziurrenik, bi urte beranduago, C.A.F. enpresaren lantegi mekanikoak eraikitzen hasi zirenean ezabatuko ziren aztarna horiek erabat. Orain, gutxienik, badakigu baserria non kokatu zen zehazki, hain zuzen, Senpere futbol-zelai zaharrean ekialdera begira zegoen atearen atzean. Futbol-zelai hori, gaur egun, C.A.F. enpresaren "Lantegi Berri" horietako lehen nabetik apur bat ezkerrera egongo litzateke.

Zonaldeak zuen itxurari buruzko ideia argi bat izan dezagun komeni da berriz ere 198. irudi-planoa hartu

eta 197. eta 191. argazkiekin erkatzea. Azken irudi horretan Senpereberri baserria "isolaturik" agertzen da, jadanik enpresako nabez inguratua alde guztietatik; etxe hori 198. planoan 3 zenbakiarekin adieraz'i dena izango litzateke. Horren ondorioz, ez da lan nekeza izango desagertutako beste bi eraikinak buruz kokatzea. 191. irudian, halaber, oso argi ikusten dira C.A.F. enpresaren zortzi txaletak, Lazkaibar aldera egiten duen Senpere auzoko eskuineko zonaldean kokatuta.

196. irudian Igeldegi baserria belztuta ikusten da erabat, agian, aurrez izandako suteak eraginda. Baserria 1930/1940 bitarteko hamarkadan eraitsi zen. "Granja edo Behitegi" izeneko eraikina, berriz, 1957an eraitsi zen, hain justu, lantegi mekaniko berriak eraikitzen hasi zirenean. Eta noski, Senpereberri baserriak ere patu bera izan zuen. 25 urte beranduago eraitsi zen, alde guztietatik lantegiz inguraturik zegoela, 191. irudian ikus daitekeenez. Kasu horretan C.A.F. enpresako lantegiak ekialderantz, Lazkaomendi alderantz, zabaltzeko aitzakia erabili zen eraisketa gauzatzeko. Lazkaibarrera egiten zuen bidearen eskuinera kokatzen zen hurbileko beste baserria, Txintxurreta izenekoa, ere desagertu egin zen 1928an. Apur bat beherago Siemens labeko nabeak kokatzen ziren eta haiek isuritako kez itota zegoen baserria.

Baina jarrai dezagun Igeldegi baserriarekin. Hala, XIX. mendearen erdialdera Udalek erabiltzen zuten argot burokratikoa errespetatuz Igeldegi Lazkaoko Iparraldeko Zatiaren 10. zenbakian kokatzen zela esan behar dugu. Senpereaundi edo Senpereburu zegoen 8. zenbakian eta Senpereberri baserria 9. zenbakian. Logikoa eta normala denez, Lazkaoko jurisdikzioaren barruan baserriek zuten kokapena aintzat hartuz, segida bati jarraiki ematen ziren zenbaki horiek, hegoaldetik iparraldera, betiere, Lazkaibarrerako norabidean. Baina hori horrela izanik, zergatik ez da azaltzen XX. mendearen hasieratik Beristain familia hartzen zuen beste etxetzarra (Andramendi), 198. irudian 4 zenbakiarekin adierazten dena eta "Granja edo Behitegi" izenez ezagutzen zena? Hori ere aurrerago azalduko eta ikusiko dugu, dagokion atalean.

Orain Igeldegi baserriaren mugei erreparatuko diegu, lagungarri baitira, halaber, hura kokatzeko: Iparralde, hegoalde eta ekialdera hartako etxaguntzak zituen mugakide; mendebaldera bide publikoa (191. irudian eta 198. eta 199. planoetan oso argi ikusten da bide publiko hori baserriaren mendebaldetik igarotzen zela).

Igeldegi etxea hartzen zuen orubea nahikoa handia zen, izan ere, 304 m²ko azalera zuen. XIX. mendearen amaieran eraikinak eta orubeak 3.477 pezeta eta 12 zentimo balio zuten.

Etxeko etxaguntzen zerrenda ematean izenak egungo grafiaz idazteko joera izaten dugu beti. Hala ere, beti jatorrizko idazkera errespetatzen saiatzen gara. Haietako mugak ere lagungarri dira haren kokapenerako. Honatx:

Etxeazpiko soroak, iparralde eta ekialdera bide publikoa zuena mugakide; hegoaldera, gertu zegoen Senpere berri baserriko eta Errekaldezar etxeko lurrak; mendebaldera, Errege Bidea. Lursail horrek 11.760 m²ko azalera zuen eta 2.778,20 pezeta balio zuen.

Etxaburuak lursail mistoa, ereiteko lur-eremuak, haritzez osatutako txaraka, basobera, sagastia eta belardia baitaratzen zituena eta muga hauek: iparraldera, Beasaingo jurisdikzioan lekutzen ziren etxeko lurrak eta ondoan zegoen Txintxurreta baserriko lurrak (Lazkaibar aldera); hegoaldera, Txintxurreta baserriko gaztainadia eta bidea; ekialdera, Arranomendia (gerora San Isidro Granja) baserriko lurrak; mendebaldera, etxea bera eta lehen aipatutako bide publikoa.

Lursail horrek 19.506 m²ko azalera zuen. Horietatik 9.754 m² ereiteko lur ziren eta beste 9.752 m²ak hariztiz osatutako txarakaz, sagastiz eta belazez osatzen ziren. Lursail osoak 2.690,86 pezetako balioa zuen.

Gainerea, muga hauek zituen onibarra: iparraldera, alboan zegoen Senpereberri baserriko lurrak; hegoaldera, Lopenea eta Senpereaundi (biak Lazkaon) baserriko lursailak; mendebaldera, Altune eta Senpere berri etxeetako etxaguntzak; mendebaldera, aipatu bide publikoa eta Senpereaundi etxeko lur gehiago (C.A.F. enpresaren bi familiako txalet berreraikia, Agauntza errekaren gaineko Senpere zubiaren aldamenean lekutzen zena 2007ko abuztuan eraitsi zen arte.

Basotxikie, Iztuetari (Lazkaomendi aldera) zegokion barrutian lekutzen zen gaztainadia, muga hauek zituena: iparraldera, Altune eta Arranomendia (beranduago San Isidro Granja) baserrietako lurrak; hegoalde eta mendebaldera, Altune baserrikoak; ekialdera, Iztueta eta Senpereaundikoak. Gaztainadi horrek 3.930 m²ko azalera zuen eta 275 pezetako balioa. Prezio horren barruan gaztainadiaren barruan zeuden zuhaitzak ere sartzen ziren.

Goiko gastainadie, beste gaztainadi bat, muga hauek zituena: iparralde eta mendebaldera, Lazkaomendiko Iztueta baserriko lurrak; hegoaldera, Beasaingo Tirso de Olazabal y Lardizabalen etxaguntzak; mendebaldera, Ordiziako Pedro Bahamonderen lurrak. Lursail horren azalera 5.049 m²koa zen eta bere balioa 302 pezeta eta 84 zentimokoa.

Zaldibibasoa lursaila, iparraldera Zaldibiko barrutian lekutzen zen Saronbe etxeko lurrak zituena mugakide; hegoaldera, Lazkaomendiko Maizaundia etxeko etxaguntzak; ekialdera, Lazkaomendiko Okobio baserrikoak; mendebaldera, Albisu eta Maizaundia etxeetako lursailak. Igeldegi baserriko azken etxaguntza horrek 5.740 m²ko azalera zuen eta garai hartan 347 pezeta eta 4 zentimoko balioa, hartako zuhaitzak barne. Azken lursail horrek, halaber, hainbat zentsu zituen Lazkaoko parrokiako kabildoaren aldekoak.

Eta, arestian ikusi dugunez, Senpere aldera Igeldegi igaro ostean zegoen hurrengo etxea Senperebe-

rri zen, hain zuzen, 198. planoan 3. zenbakiarekin adierazi duguna. Ezagut dezagun bada etxe hori, Lazkaibar-Lazkao-Ataun errepidearen ekialdera, Senperen kokatutako hiru eraiki horien artean azkena izan zena desagertzen.

SENPEREBERRI baserri hori 191, 203a eta 203b irudietan ikus dezakegu, angelu ezberdinetatik. Azken bi irudietan agertzen den zirkulu zuriak eraitsi berria zen "Behitegi edo Esnetegi" izenekoaren hondakinak adierazten ditu. Ikus, halaber, Igeldegi eta Senpereberri baserrien aurretik igarotzen zen bide zabala, nondik antzina, ere berean, saihesbide bat igarotzen zen Lazkaibarretik abiatu eta Txintxurreta baserriaren gainetik pasatzen zena. Hori guztiori, Lazkaibarri dagokion 7. sektorean ikusiko dugu.

Berriz esango dugu Senpereaundik Iparraldeko Zatiari zegokion 8. zenbakia zuela eta Senpereberri baserriak, berriz, 9. zenbakia. Aurrerago azalduko dugu zergatik zituzten segidako zenbaki horiek aipatu bi baserriek, beren artean beste eraikin bat egon arren (1957an eraitsi zena), hain justu, 203a eta 203b irudietan zirkulu zuri batez adierazi dugun puntuan. "Behitegi edo Esnetegiari" buruzko atalean, orobat, aipatu eraikina erakusten duen irudi eder bat ikusiko dugu, C.A.F. enpresako "Lantegi Berriak" eraikitzeko lanen ondorioz desagertu baino apur bat lehenago aterea.

Senpere berri baserriak hartako etxaguntzak zituen mugakide lau aldeetara. Baserria hartzen zuen orubea Igeldegi baserria hartzen zuena baino handiagoa zen erruz; izan ere, 368 m2ko azalera zuen eta bere balioa 5.213 pezeta eta 10 zentimokoa zen 1862an. Honatx Senpere berri baserriaren etxaguntzak:

Etxeazpikosoroa, iparraldera Igeldegi etxeko lurrak zituena mugakide; ekialdera, lehen aipatu dugun bidea eta etxea bera; hegoaldera, bide hori eta Senpere izeneko errekastoa, Agauntza errekarekin bat egiten duena zubiaren alboan; eta mendebaldera, Errekalde zar eta Senpereaundi etxeetako lurrak (biak bidegurutzean lekutuak, Senpere izeneko gunean). Lursail horrek, etxea hartzen zuen orubea aparte, 16.924 m^{2}ko azalera zuen eta 3.384 pezetako balioa.

Altunaldekosoroa, 8.844 m^{2}ko azalera zuen beste lursail bat. Horietatik 7.500 m^2 ereiteko lur-eremuak ziren, 620 m^2 otadia eta gainerako 324 m^{2}ak ezpondez osatzen ziren. Lursail osoaren balioa 794 pezetakoa zen.

Basoaldea, 9.650 m^{2}ko azalera zuen onibarra; horietatik 5.504 m^2 ereiteko lur-eremuak ziren, 3.426 m^2 gaztainadiz osatzen ziren eta gainerako 720 m^{2}ak belazez. Lur horren balioa 723 pezeta eta 75 zentimokoa zen.

Iztinga, 2.970 m^{2}ko azalera zuena eta 296 pezetako balioa.

Iztuetabasoa, zuhaizti itzelez betetako lursaila, 5.160 m2koa. Haren balioa 474 pezeta eta lau zentimokoa zen, bertako zuhaitzak barne.

Maizberribasoa, 2.178 m2ko azalera zuen lursaila eta 239 pezeta eta 5 zentimoko balioa.

Kasu honetan, Senpere berri etxearen balioa 11.115 pezeta eta 27 zentimokoa zen, hartako etxaguntza guztiak kontuan hartuta.

Aurreko eraikinekin gertatu bezala, Jose Maria de Lardizabal y Oriar zen etxearen jabea 1810ean. Garai hartan Jose Antonio Imaz eta Juan Domingo de Muxica eta semea ziren baserriko egoileak. XIX. mendearen lehen erdia amaitzear zela agertzen da Maria Bernarda Garmendia hartako jabedun gisa, hau da, aurrez deskribatutako etxeen jabe bera. Horiez gain, Burugorrinea baserriaren laurden bat ere berea zen.

XIX. mendeko erroldan ez zen agertzen gerora "Granja, Esnetegi edo Behitegi" izenez ezagutu zen eraikina, Beasaingo Beristain familia hartu zuena eraitsi zen arte. Ez agertze horren arrazoia azaltzen saiatuko gara jarraian. Hainbat zalantza izan ostean, azkenik baserri horren kokapen eta bilakaera ezagutu ahal izan dugu 1957an desagertu zen arte, C.A.F. enpresako "Lantegi Berriak" eraikitzeko lanak hasteko lurrak mugitu behar izan zituztelako.

"BEHITEGI" izendatzen zuten Senpereko biztanleek Beristain familia hartzen zuen eraikina. Hari buruz lortu ahal izan ditugun argazki bakarrak 204 eta 204a zenbakidunak dira. Halaber, 203a eta 203b irudietan zirkulu zuri batez adierazten dira hartako hondakinak. Modu horretan, alboan zuen Senpere berri baserriarekiko zuen kokapen zehatzari buruzko erreferentzia bat izango dugu. Aurreko bi irudietan oso ongi ikusten da bidea puntu horretan nola desbideratzen zen. 198. eta 199. planoek ere oso ongi adierazten dute Senpereko zonalde zabal horretan aipagai dugun baserriak zuen kokapen orokorra.

Kasu zehatz horretan, "Granja" izendatzen da, hori izan baitzen eraikinak izan zuen azken-aurreko funtzioa urte horietan (plano zaharrean ere halaxe izendatzen da). XX. mendearen hastapeneko plano horietan 4 zenbakiarekin adierazi dugun eraikinaz ari gara, aurrez aipatu bezala.

Ikus dezagun orain zergatik ez zen XIX. mendeko Lazkaoko erroldan eraikin hori aipatzen, izan ere, 8 zenbakiarekin Senpereaundi edo Senpereburu (gerora Agauntza etxea) agertzen zen; 9 zenbakiarekin Senpere berri baserria; eta, azkenik, 10 zenbakiarekin Igeldegi baserria. Baina "Granja edo Behitegi" izenez ezagutzen zen etxeak, Beristain familia hartzen zuen etxeak zein zenbaki izango zuen? Logikari jarraiki, Senpereaundi eta Senpereberri artean kokatutako eraikin horri Iparraldeko Zatiko 9. zenbakia zegokion. Baina, zenbaki hori Senpereberri baserriari esleitu izan zitzaion beti.

Bada honatx arrazoi bitxia: garai hartan eraikin horretan ez zen inor bizi; izan ere, zonalde horretan izan zuen lehen funtzioa ez zen baserriarena izan, ezta "Granja edo Behitegiarena" ere; aitzitik, teileria izan zen hasiera batean. Askoz beranduago bilakatu zen "Granja, Esnetegi edo Behitegi" eta, azkenik, 204 eta 204a irudietan ikus daitekeen baserri bilakatu zen. Baserri izaera hartuta, Bagoi Fabrika zaharraren baitakoa izan da betidanik. Lehenik eta behin, enpresako "Granja" modura erabili zuten, Kooperatibak zuen azienda sartzeko; eta, beranduago, "Behitegi" modura, eraitsi zuten arte.

Denboran atzera egin behar dugu ezinbestean egiaz gertatu zena ikusi ahal izateko. Izan ere, jadanik XVIII. mendearen erdialdera Francisco Iberok "Teileria" izeneko eraikin bat kokatu zuen leku horretan. Guztiok ezagutu dugun "Granja edo Behitegia" lekutzen zen toki berean kokatu zuen hark, hau da, Beristain familia hartzen zuen familia bakarreko baserria, "Andramendi" ezizenez ere ezagutzen zena (kasu horretan aipatu Beasaingo egoileen jatorria adieraziz), eta teileria leku berean zeuden.

Bada, egia da leku horretan teileria bat egon zela eta duela ez hainbeste gainera, izan ere, 1890ean artean eraikin osoa mantentzen zen, nahiz eta zenbait teilape ez egon egoera onenean, jarraian ikusiko dugunez. 205. irudian Francisco de Iberok marraztutako plano horri erreparatuko diogu, haren izena idatzita eta haren kokapena ere ikus dezagun. Halaber, kokapen zehatza ezagutzeko erreferentzia gisa lagungarri zaigu Senpereko zubiaren alboan Agauntza errekarekin bat egiten zuen errekatxoaren ibilbidea, nahiz eta dagoeneko lurrazpitik igaro hodi artean.

Hori izango litzateke, beraz, sektore honen hasieran aipatu dugun 300 urte baino gehiagoko (idatzita jasota) eraikina. Segidan xehetasun osoz mintzatuko gara hartaz. Askotan gertatzen den moduan, zera gertatu zen, ahaztu egin zutela bertan teileria ezaguna paratu zela urte askoan. 1904an S.E.C.M. enpresak lur horiek bereganatu zituen Senpere aundi baserriarekin batera, bertan Fabrika handia finkatzeko xedez. Lur horien barruan teila eta adreiluen fabrika ere kokatzen zen, jadanik utzia eta ia erortzeaz egon arren. Lazkaibar aldera egiten zuen errepidearen ekialdeko aldean zeuden lur horiek guztiak, 100.000 m2ko azalera baino gehiago hartzen zutenak, libre eta inolako eraikuntzarik gabe mantendu ziren 1961. urtera arte. Orduan inauguratu baitziren C.A.F. enpresaren "Lantegi Berriak".

Lur horiek libre eta erabili gabe zeudenez, Fabrikak 1919an Senpere Futbol-zelaia eratu zuen leku historiko horretan, planoetan "Kirol Zonaldea" izen orokorrarekin izendatzen dena. Haren ondoan Fabrikaren baitako lur asko artean "soberan" zeudenez, Bagoi Fabrikaren Kooperatibak zuen aziendarentzat larre modura utzi zuten eremu hori. Kontuan izan behar da, garai hartan aipatu fabrikak garrantzia ekono-



miko eta sozial handia zuela eskualdean. Eta, hain zuzen, Granja horretako behien babeserako, antzina teileria izan zen eraikin zaharra eraberritu egin zuten zonalde estali modura. Ordutik aurrera eraikin horrek "Granja" ezizena hartu zuen eta beranduago baitaratu zituen "Behitegi edo Esnetegi" ezizenak.

Azkenik, urte batzuen buruan, Granjak Fabrikako Kooperatibaren azienda hezteko funtzioa betetzeari utzi zion. Gerora, instalazioak berriztatu egin ziren eta, azkenik, C.A.F. enpresaren baitako etxe bilakatu zen, 204 eta 204a argazkietan ikus daitekeen itxura hartuta. Baserri horretan bizi izan zen Beristain familia 1957an eraitsi zen arte.

Teileria, Granja, Behitegia, Esnetegi. Hainbat funtzio eraikin bakarrean. Hastapeneko teileriari zegozkion teilapeak kendu behar izan zituzten lehenengo, izan ere, hedadura handia hartzen zuten eta egoera txarrean mantentzen ziren. Hortik aurrera, eraberritzeko lanak hasi ziren egoileentzako etxebizitza bilakatzeko. Eta, XX. mendera arte etxebizitza funtzioa betetzetik urrun, teila eta adreiluen fabrika izan zenez (garaiko estiloan atondua), ezinezkoa zen XVII. , XVIII. eta XIX. mendeetan Lazkaoko udalerriko errolda eta nomenklaturetan baserri modura agertzea.

Senpereko teileria ahaztu baina garrantzitsuak izan zuen inportantzia gogorarazteko, Juan Garmendia Larrañaga etnologo tolosar ospetsuak idatzitako lerro labur hauek ekarriko ditugu hona:

> *"…D. José María Lardizabal y Oriar, como dueño entonces de la casa Senpere de Lazcano y de la Tejería, el 12 de Abril de 1.792 firmó una escritura con el vecino de Ataun D. Francisco Antonio Urrestarazu, como arrendamiento de la misma por un tiempo determinado…"*

Horrela jarraitzen du:

> *"…dicho señor todavía en 1.796 adquiere la obligación con el citado propietario para proveer de ladrillos a la reconstrucción de su casa Senpere. Por ello, el arrendatario deberá afianzar con sus propios bienes, la correcta entrega en cuanto a calidad y plazos de 20.000 ladrillos…"*

Eta amaitzeko:

> *"…10.000 ladrillos se entregarán de la hornada que hiciese este año y otros 10.000 en la primera que hiciera en 1.797 sin excusa ni pretexto alguno…"*

Kopuru horiei so ikus daitekeenez, "Senpereko Errepublikan" kokatutako teileria ospetsuak bazuen bai bere garrantzia. Ikus dezagun orain nola mantentzen zen eraikina XIX. mendearen bigarren erdialdean zehar, ordurako Ramon Mendizabal Azkueren alargun Maria Bernarda Garmendia andrearen baitan.

Horrela deskribatzen da:

Lazkaoko Kontzejuan lekutzen zen, iparraldera Igeldegi baserriko lurrak zituelarik mugakide; hegoaldera, Senpereberri baserrikoak; ekialdera, Txintxurreta eta Lazkaibar baserrietako lurrak; mendebaldera, bidea. Garai hartan (1890. urtean), egosteko

labea eta hartako bi teilape atxikiak hartzen zituzten orubeak barne, 1.052 m²ko azalera hartzen zuen. Haren balioa, labea eta teilapeak barne (azken hauen egoera erdipurdikoa zen), 1.832 pezeta eta 64 zentimokoa zen.

Haren balioa ikusirik eta haren egoerari buruz aipatzen dena irakurrita, ez da ausarkeria urte haietan nahiko egoera kaskarrean zegoela pentsatzea. Eraikin hura zela medio, Daniel L. de Ilarrazak Tolosako Lehen Auzialdiko Epaitegira jo zuen Martin Garmendia y Lasquibarren ahalordedun modura, esanez urte haietan berak ordezkatzen zuen pertsonaren izenean zegoela teileria hura, 1888ko ekainean zendutako Maria Bernarda Garmendia izebaren herentzian jaso ondotik. Halakoetan ohikoa zenez, Lazkaoko bi jabedunek eman zuten lekukotza eta, kontribuzioak eta zergak garaiz ordainduta zeudela ikusirik, 1891ko abuztuaren 12an eraikina erregistratzeko onarpen-autoa eman zen.

Horixe da eskualdean oso antzinatik garrantzia handiko teileria izan arren, denboraren poderioz ahanzturan itota geratu zen eraikinaren historia.

SENPERETXIKI izena zuen Maria Bernarda Garmendiak auzoan zuen beste eraikin batek. XIX. mendearen amaiera aldera zonaldean sortu ziren eraikin urrietako bat izan zen, hori dela eta, 1862an etorkizuneko trenbidean zehar bidaiatzen paratu ditugun oinezko ibiltariek ez zuten ikusiko. 185. irudian B hizkiarekin adierazten den etxetxoaz ari gara, 186. argazkian ere parez pare ikus daitekeena. Bigarren argazki horretan bi pertsona ikusten dira eraikinaren lehen solairuan 1953ko urriaren 15ean zonaldean izandako uholde handitik babestu nahirik. 1862an etxetxoa Errekaldezar etxearen eta Lazkaomendiko zonalde garaitik Agauntza errekaraino jaisten den Senpere errekatxoaren artean lekutzen zen.

Segidan aipatuko dugunez, etxetxo hori modu bitxian sortu zen Senpereaundi baserriaren aldamenean, hain justu, Lazkaibar-Lazkao galtzadaren beste aldean. Aurrez aipatu dugun Garmendia andrearen lurretan eraiki zen. Horregatik parean zegoen etxe nagusitik hartu zuen izena, biak bereizteko izenaren txikigarria erabili zelarik. Gazteek leku hori behar bezala lekut dezaten 206. irudia hartuko dugu. Bertan gezi bertikal batekin adierazi dugu etxeak Senpere auzoko gune horretan zuen jatorrizko kokapena. Halaber, 206a eta 206b irudiak hartuko ditugu. Horiekin zonaldeak izan zuen aldaketa ezinbestekoa islatu nahi dugu, hots, landa-eremuak izan zuen aldaketa fabrika-zonalde bihurtzeraino. Dena den, industria izaera hori berrogeita hamar urte lehenago erabakita zegoen berez, hain zuzen, 1901ean S.E.C.M. fabrika finkatzeko egindako inbertsio handiaren ondotik.

Jatorrizko Senperetxiki eraikinak **"40 oin zituen alde bakoitzera"**. Beraz, hasiera batean oin karratukoa zen eta beheko solairuak, bi pisuk eta ganbarak osatzen zuten haren egitura. Honatx haren mugak:

Parean, Lazkaibar-Lazkao-Ataun errepidea zuen mugakide; eta ekialde, mendebalde eta hegoaldera, Senpereaundi edo Senpereburu baserriko lurrak. XIX. mendearen amaieran, etxetxoa eraiki zen garaian, 4.029 pezeta balio zuen. Ikus dezagun nola sortu zen eraikuntza hori.

Bernarda Garmendia, Mendizabal Azkueren alarguna, urte horietan Ibarran bizi zen jadanik. Lur horiek bere seme bakarra, Francisco de Sales Mendizabal Garmendia, hil zenean eskuratu zituen, hainbat jabetza banatzen zituen eskrituran bere alde jasotzen baitzen. Senpereko gune horretan andre hura zen jabedun nagusia eta ez zuen leku horretan beste eraikuntzarik egiteko asmorik. Nolanahi ere, Jose Joaquin Irastoza lazkaotarrak errepidearen puntu horretan etxe bat eraikitzeko parada aipatu zion. Horrela, bien artean eraikuntza gauzatzea erabaki zuten modu bitxi honetan:

Iraztorzak bere kabuz eraikiko zuen etxea Maria Bernarda Garmendiak doan utziko dizkion lurretan. Eraiki ostean, Irastorza izango zen etxearen jabea lehen 25 urteetan, eraikuntza-lanak amaitzen ziren egunetik zenbatzen hasita. Egun horretatik aurrera, etxea eta hartako lur guztiak Bernarda Garmendiaren baitara igaroko ziren berriz ere, edota haren ondasunen legezko hartzaileen eskuetara, kostu gehigarririk eta kalte-ordainik gabe.

Hogeita bost urte horien barruan, Jose Joaquin Irastorzak ere ez zuen errentarik ordainduko eta, are, hura errentan emateko, kargatu edo hark egokien zeritzon

moduan erabiltzeko aukera askea izango zukeen. 1882. urtean gaude, hau da, ikergai ditugun trenbideko plano hauek taxutu eta hogei urte eskasera; modu horretan, bien arteko akordio-kontratuaren arabera, Maria Bernarda Garmendiak 1907ko urtarrilaren 1ean eskuratuko zukeen jabetza hura, aipatu etxean egindako obra edo hobekuntza guztiekin, haiengatik deus ordaindu gabe.

Kontratu hartan barneratutako beste klausula baten arabera, eraikinaren balioa 16.118 errealekoa izanik eta Joaquin Irastorza jabedun modura izango zen hogeita bost urte horietako bakoitzean 644,71 errea egokituz, Garmendia andreak edo haren ondasunen hartzaileek eraikitako lursaila berreskuratu ahal izango zuten, kargarik gabe eta edozein izanik orduan hartako jabea. Horretarako, nahikoa izango zatekeen aldi batez higiezinaren jabea zenak soilik hogeita bost urteko balioa zuen kontratua betetzeko geratzen ziren urte bakoitzeko 644 erreal eta 71 marabedi jasotzea.

Ikus dezakegun moduan, lur eta higiezinen espekulazioa ez da gure garaiei datxekion zerbait, izan ere, orduan ere lurrei balio handia aitortzen zitzaien eta aldeen arteko kontratuak nahikoa konplexuak izaten ziren (ia beti jabearen alde).

Azkenik, ondasunen hartzaile ezkontide batek, Venancio Araquistain Lamadridek 4.250 pezetan saldu zion aipatu jabetza Pedro Antonio Begiristain lazkaotarrari 1912ko apirilaren 26an. Aipatu higiezina erosi zuen pertsona Jose Begiristain apaizaren aita zen.

Apaiz hura Beasaingo parrokiako apaiza izan zen hil artean eta XX. mendearen erdialdera eta hainbat urtez "La Calleja" izenekoan bizi izan zen. Pertsona askok ahaztuta izango dute haren itxura, hori dela eta, 207. argazkia paratu dugu. Halaber, aipagarri da Senperetxiki izeneko etxe horretan jaio zela.

Eraikuntza horiek guztiak elkarren segidan izendatu ditugu, izan ere, Maria Bernarda Garmendia zen guztien jabedun. Andre hark, era berean, beste onibar batzuk zituen, Fabrikari dagokion 6. sektorean aipatuko ditugunak. Urte horietan, beraz, Garmendia andrea zen zonaldeko jabedun nagusia (inolako zalantzarik gabe Senpere auzoko jabedun nagusia). Dena den, jarraian, auzoak orduan zuen itxurari buruzko kontakizuna osatzeko, beste hiru etxeren historia laburra ere ekarriko dugu hona. Horietako bi 5. sektoreko plano orokorrean agertzen dira eta bestea 5f plano-zatian. Beltransagasti edo Betenasagasti eta Errekaldezar etxeez ari gara, biak Lazkaoko etxeko Infanterriko dukearen jabetzakoak; beste eraikina, esan bezala, ez da 5. sektoreko plano orokorrean agertzen, izan ere, planoaren ikusangelutik at geratzen da. Dena den, hura ere deskribatu egingo dugu, auzoaren gizarte-egituran bere garrantzia zuelako. Altune baserriaz ari gara, eta baserria esango dugu, singularrean; izan ere, aurrez Ugartemendi azpikoa baserriekin gertatu bezala, kasu ho-

netan ere, 1862an eraikin bakarra zegoen izen horrekin, hurbileko beste eraikina garai hartan bertako egoilearentzako gehigarria baitzen soilik.

ALTUNE, hori zen leku horretan kokatutako baserri zaharra, 189. eta 208. irudietan gezi zuri batekin adierazten duguna. 1862an Txintxurreta abizena topatu dugu etxe horretan, jatorrizko Altune etxearen jabetzarekin zerikusia zuena.

Baserria Lazkaoko Iparraldeko Zatian kokatzen zen. Garai hartan eraikinak ez zuen identifikaziozenbakirik leku horretarako. Jatorrizko eraikinak bere baitako lurrak zituen mugakide lau aldetara eta 324 m2ko azalera zuen orube baten gainean zegoen eraikia. Garai haien gogortasuna islatzen duen datu bat dago, hain zuzen, urte horietan baserri horietako askok erakusten zuten egoera deitoragarriari dagokiona. Esate baterako, aipagai dugun eraikinari buruz azpian azaltzen den deskribapena eman zuten 1856ko urtarrilaren 22an, ikergai ditugun trenbidearen planoak taxutu baino sei urte lehenago:

> *"…la construcción está amenazando ruina por desplome de una armadura y se encuentra inhabilitada esperando la construcción de una nueva…"*

Dokumentuan aurrerago irakur daitekeenez, antzinako Altune etxearen egitura sotoak, beheko solairuak eta ganbarak osatzen zuten. Egoera arras kaskar horietan eraikinaren balioa 1.120 pezetakoa zen soilik. Halaber, dokumentu horretan bertan irakur daitekeenez, etxetik gertu baziren zenbait gehigarri, bertako egoilearen bizileku modura (Ugartemendi azpikoa baserrian bezalaxe), 96 m²ko azalera baino ez zutenak eta 1.620 pezetako balioa (aurri egoeran zegoen Altune etxe nagusiak baino gehiago beraz). Denbora hartan etxetxoak ere ez zuen inolako kokapen-zenbakirik Lazkaoko jurisdikzio horretan, izan ere, deskribatu ditugun bi eraikinak "zenbakirik gabe" agertzen ziren udal-erroldan, agian haien egoera zela medio.

Orduan 96 m²ko azalera zuen hurbileko gehigarri zahar hori zegoen lekuan, hau da, lehen esan bezala, egoilearen bizilekua zen gehigarriak hartzen zuen eremuan, gaur egun, apur bat gorago, ia Galparsoro gasolindegi berriaren gainean dagoen etxeari dagokion eraikin txikia dago.

Jarraian Altune etxe nagusiak 1862an zituen etxaguntzak deskribatuko ditugu:

Etxeaurre, 10.010 m²ko azalera zuen ereiteko lur-eremua, 1.502 pezetako balio zuena.

Etxeazpia, hau ere ereiteko lur-eremua, 9.345 m²ko azalerakoa eta 1.614 pezeta eta 68 zentimo balio zuena.

Etxeburua, ereiteko beste lursail bat, 6.182 m²ko azalera zuena eta 1.421 pezeta eta 86 zentimoko balioa.

Izenik gabeko lursail mistoa, sagasti eta belardiz osatua, 10.504 m²ko azalera zuena eta 945 pezeta eta 36 zentimoko balioa.

Izenik gabeko beste lur-eremu bat, zehazki esatera, gaztainadiz, hariztiz eta pagadiz osatutako larre-sail mistoa, 37.183 m²koa. Haren balioa 2.992 pezeta eta 16 zentimokoa zen, bertako zuhaiztia barne.

Mariategibasoa, mendialde mistoa, 7.592 m²ko azalera zuena eta 1.373 pezeta eta 76 zentimoko balioa.

Baserriaren balioespen osoa, hartako etxaguntzak (etxe nagusia aurri egoeran zegoelarik) eta egoileari esleitutako eraikina barne, 14.801 pezeta eta 52 zentimokoa zen.

Baserri zahar hori ez zegoen karga eta zergetatik salbu, izan ere, 1879ko uztailaren 1ean hainbat zentsu zituen, hauek zirelarik onuradunak: Tolosako Santa Klara Komentua, Herriko parrokiako kabildoa, Lazkaoko San Prudentzio ermita eta Santa Ana Bernardako Mojen Komentua, azken hori Lazkaoko klausurako mojei zegokiona.

1655eko urtarrilaren 3an ere bazuen zentsu bat Altune baserriak, Maria de Lazcanok ezarria. Horrek erakusten du baserria benetan zela zaharra. Emakume hori Lazkaoko Andrea zen orduan, Oquendo Almirantearen alarguna, hau da, 1640. urtearen bueltan Jauregi berria eta Santa Ana eta Santa Teresa komentu biak eraiki zituena bere kabuz (azken hori egun Beneditarrek erabiltzen dute). Multzo historiko horretako eraikin zibil eta erlijiozkoak eraiki berritan, andre hori jadanik, urte asko zirela hildako Oquendo Almirantearen alarguna zen. Aipatu Almiranteak Donostiako Manteo etxean bazituen sustraiak eta gaur egun Oquendo Museoa dago bertan.

Hori guztiori Lazkaoko herriko bigarren liburu errepikatuan jasotzen da, 119. folioan, 97. zenbakian.

1856ko urtarrilaren 22ko eskrituran irakur daitekeenez, XIX. mendearen bigarren erdiaren hasieran Maria Antonia Chinchurreta e Izaguirrek, orduan Lazkaon bizi zenak, Altune etxea eta hartako etxaguntza guztiak bereganatu zituen Maria Concepcion Albuseñarekin ezkonduta zegoen Fermin Larroderren eskutik. Emakume hori 1859ko apirilaren 18an hil zen, hiru urte beranduago. Horrenbestez, bere senarrak, Justo de Ibasetak eskuratu zituen ondasun guztiak.

Chinchurreta andreak, orduan Altune eta hartako etxaguntzen jabe zenak, horrela banatu zituen testamentuan: Herentziaren bostena Justo de Ibaseta senarrari, zeina, aldi berean, gaitu egiten zuen, egokitzat joz gero, bere ondorengoetako edonori zegokion herena hobetu ahal izateko, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Probintzietako Legeak xedatzen zuen moduan. Senarra berriz ezkonduko balitz hari esleitutako bostena lehenengo senar-emazteen lau seme-alabengana eskualdatuko zen beti. Herentzia horretako gainerako lau bostenak (4/5) kasu guztietan senar-emazteen seme-alabentzat (Enrique, Jose, Isabel eta Lucia Ibaseta Chinchurreta) izango ziren beti.

Oraintsu kontatu dugun oro gure oinezko bidaiaren jomuga den etorkizuneko trenbidearen planoak taxutu baino hiru urte lehenago gertatua da.

Eta, nola ez, Senpere auzoko beste lurdun nagusia aipatuko dugu jarraian. Edonork pentsa zezakeen moduan Infanterriko dukeaz ari gara. Garai hartan, Errekaldezar eta Beltransagasti edo Betenasagasti (halaxe izendatzen dute Olano ahizpek, 2007. urtean eraitsi arte bertan bizi izan zirenak) ziren hark auzo horretan zituen lurrak.

ERREKALDEZAR 1862ko 5. sektoreko plano orokorrean eta 5f plano-zatian L hizkiarekin adierazten den etxola da. Igar dezakegun moduan, eraikin zahar hori ez da 1980ko hamarkadaren amaierara arte guztiok ezagutu dugun etxea. Ikus dezagun zer-nolako itxura zuten, alde batetik 1862an zegoen baserri zaharrak eta, beste alde batetik, leku berean paratuta guztiok duela urte gutxi arte ezagutu dugun eraikin berriak.

Etxe zaharrari 15. zenbakia esleitu zitzaion Kontzejuaren zenbakikuntza zaharrean. Izenean "zahar" adjektiboa ageri zuen etxeak, izan ere, garaiko baserri zaharren egitura ageri zuen, hau da, beheko solairua, "oholez itxitako" goiko pisua eta teiladun estalpea. Gainerako baserrietan bezala, beheko solairuan ezkaratza, aleak pilatzeko geletako bat eta atalondoa lekutzen ziren, animalientzako ukuiluarekin batera. Oholez itxitako goiko solairuan beste bi logela lekutzen ziren eta, horiez gain, zonalde zabal, libre eta irekia. Zonalde hori aziendari emateko belar ondua edo lastoa gordetzeko erabiltzen zen nagusiki. Laborantzan erabiltzeko etxe hartan egoile bakarra bizi zen 1862an. Beheko solairuko hormak erdipurdiko kalitatedun harlangaitzez eginak ziren eta 157 m^{2}ko azaleradun orube baten gainean altxatzen ziren.

Honatx etxeak garai hartan zituen mugak:

Mendebaldera, baserriaren ataurreak; hegoaldera, Agauntza errekarekin bat egiten zuen Senpere errekastoa; iparraldera, errekastoa eta etxeari zegokion lursail bat; ekialdera, halaber, etxearen baitako etxaguntzak. Etxearen ataurreak 120 m^{2}ko azalera hartzen zuten eta 12 pezetan balioesten ziren orduan.

Argi ikus daiteke, eraikin zaharra errepidetik aldendua zegoela, barnerantz sartua hamar bat metroz, Lazkaomendira aldera. Halaxe ikus daiteke 5. planoan eta 5f plano-zatian. Ataurreek hartzen zuten 120 m^{2}ko azalera horrek erakusten digu, hain zuzen, etxearen eta Lazkaibar-Senpere-Lazkao galtzadaren artean zegoen lur librea. 1862an Errekalde zar eraikin zaharrak soilik 1.875 pezeta balio zuen.

Hasiera batean Infanterriko dukearen baitakoa zen baserri hark ere bazituen hainbat lur. Segidan deskribatuko ditugu horiek:

Etxeondo, 2.512 m^{2}ko azalera zuena eta 753 pezeta eta 60 zentimoko balioa.

Altunaldea, 4.900 m^{2}ko belardia, 1.470 pezeta balio zuena.

Soraluze, 2.410 m2ko lursaila, 720 pezeta balio zuena.

Bekosoroaundi, 5.860 m^{2}ko azalera zuena ereiteko lurretan eta 1.755 pezetan balioesten zena.

Burugorrialdea, beste ereiteko lursail bat, 2.360 m^{2}ko azalera zuena eta 708 pezetako balioa.

Arginzanoaldea, Lazkaomendiko zonalderantz lekututako lursaila, 2.975 m^{2}ko azalera zuena eta 327 pezetako balioa.

Errekaldezar izeneko baserriak 1862an ez zuen inolako karga edo zergarik eta garai hartan 7.623 pezeta eta bost zentimotan balioesten zen, aurrez deskribatu ditugun etxaguntza guztiak barne.

1919an Igartza etxeak Beasaingo jabetza asko saldu zituen, garai hartako 250.000 pezetaren truke. Montcabrierreko bizkondea izan zen aipatu Etxea ordezkatuz salmenta gauzatu zuena. Era berean, aurrez, 1898ko abuztuaren 8an, Infanterriko etxeak hainbat jabetza saldu zituen premia ekonomikoak akuilaturik; saldutako jabetzen artean ageri zen Errekalde zar etxea, hartako etxaguntza guztiekin.

Ikus dezagun urte horietan Errekaldezar izeneko eraikin zaharrarekin gertatu zena:

Lazkaoko etxeak aipagai dugun etxea eta hartako etxaguntza guztiak eta beste lursail eta onibar asko saldu zizkion Lazkaoko Bernardako Mojen Komentuari (klausurako mojak) 1898ko abuztuaren 8an. Salmenta 190.500 pezeta ordainduta gauzatu zen, kopuru ikaragarria garai hartan. Hain zuzen, erosketa horri esker, Santa Ana Komentua herriko jabego nagusienetakoa izatera pasa zen.

Beranduago, 1902ko martxoaren 13an, besterentze horretatik hamaika larre-sail handi banatu ziren. Honatx Ordena horren baitako onibarren izenak:

Negusaroia, izen zehatzik gabeko beste bi aurrekoaren eremu berean, izenik gabeko beste lursail bat **Otamotxeta** zonaldean, beste bat **Belategi** inguruan, onibar bat **Otamendi** zonaldean, izenik gabeko beste lursail bat aurreko eremu berean, beste lursail bat **Txestakadi** inguruan, **Amibiburua** izeneko beste bat eta, azkenik, izenik gabeko beste bi lursail **Amibiburua** izeneko eremu horretan bertan (Lazkao herriaren irteeran, Ataun aldera).

1902ko martxoaren 13an, Jose Antonio Ayestaran Nazabalek Errekaldezar baserria eta hartako zenbait etxaguntza erosi zizkion Lazkaoko Bernardako Mojen Komentuari. Kasu horretan 9.250 pezeta ordainduta gauzatu zen salmenta. Erosle hark jabetza hipotekatu behar izan zuen eskuratutako etxea eta lurrak ordaintzea ahalbidetuko zion mailegu bat eskuratzeko. Horrez gain, saltzaileek derrigorrezko beste baldintza bat ezarri zioten erosleari, hau da, salmenta osoa urre edo zilarrezko monetak erabiliz gauzatu beharko zen. Jose Antonio Ayestaranek mailegua lortu zuen, urtean %4ko interes batekin. Horrez gain, beste 1.000 pezeta ordaindu behar izan zituen salmenta-eragiketatik eratorritako kostuengatik.

Hurbil dugu Errekaldezar etxearen amaiera, izan ere, 1906ko urriaren 5ean Jose Antonio Ayestaran Nazabal lazkaotarrak eraikin berri bat erregistratu zuen leku horretan, hain zuzen, duela urte gutxi arte guztiok ezagutu dugun etxea. 187. argazkian ikus dezakegun eraikin berriaren egitura beheko solairuak, bi pisuk eta ganbarak osatzen zuten. Harlangaitza erabiliz eraiki zen eta oinplanoaren azalera 156 m²koa zen, hau da, eraikin zaharrak zuen azalera bera baliatu zen berria altxatzeko.

Etxe berriaren ataurreek, ordea, 24 m2ko azalera zuten, eta ez 120 m2koa. Datu hori oso argigarria da eraikin berria Lazkaibar-Senpere-Lazkao errepide aldera zenbateraino gerturatu zen jakiteko. Ordurako etxe berriaren balioa 8.600 pezetakoa zen. Kopuru handia eraitsitako etxe zaharrak 1.875 pezeta baino ez zuela balio kontuan hartuz.

1905-1906 bitartean Errekalde eraikin berri horren ikusleetako bat Olano ahizpen aita izan zen ezinbestean, alboko Beltransagasti baserrian bizi baitzen; eta, ahizpek diotenez, eraikin berria kalitate eta arreta handiz eraiki zen, izan ere, halaxe esaten zien aitak: "XX. mendearen hastapenean erosteko moduko etxerik izatekotan, Errekaldeberri etxea zen hori, oso ongi eraikita baitzegoen".

Bukaerarako utzi dugu Beltransagasti edo Betenasagasti etxe enblematikoa, eraisten azkena izan zena, hain justu, 2007ko udazkenean. Ikus dezagun bada, 1862tik eraitsi arte urratu zuen bidea.

BELTRANSAGASTI edo Betenasagasti Infanterriko Etxeak Senpereko auzoan zuen jabetza enblematikoena zen. Jarraitu dugun dokumentuan irakur daitekeenez, etxe zahar horri 8. zenbakia esleitu zitzaion Lazkaoko Iparraldeko Zati horretan. Ikus arreta handiz etxea 209. argazkian, ezinezkoa izango baita berriz ikustea. Hura eraitsi zelarik, 1862an Senpere auzoko zonalde zabal horretan 1862an zeuden etxeen artetik Altune etxea eta hari atxikitako egoilearen etxola baino ez ziren geratuko, baina biak ere berreraikita.

Irakurritakoaren arabera 658 kana karratuko azalera gainean eraikitako Betenasagasti etxeak urte horietan bi solairu zituen, behekoa eta lehenengoa. Hormak harlangaitza erabiliz altxa ziren eta bi uretako teilatua zuen. Garai hartan 27.460 erreal balio zuen etxeak bakarrik. Orduan, Gipuzkoan gaztelar kana aldeetarako 0,837 metroko karratu baten parekide zen. Horrenbestez, 460,97 m²ko azalera zuen etxetzar horrek.

Honatx eraikinaren mugak 1862an:

Iparralde, hegoalde eta ekialdera, Valmedianoko markesaren (Infanterriko etxea) lurrak; eta, mendebaldera, etxearen ataurreak. Jarraian Lazkaoko Jaunak baserriari esleitutako etxaguntzak deskribatuko ditugu:

Erloaundia, etxetik hurbil lekutzen zen laborantzarako lur-eremua, 1.162 ondoko edukiera zuena (39.880 m2ko azalera) eta muga hauek: iparraldera, Lazkaoko Santa Ana Mojen Komentuaren baitako onibar bat eta errekatxoa; hegoaldera, Francisco Zufiria eta Ignacio Maria Aranaren etxaguntzak; ekialdera, ondoan zegoen Altune etxeko Justo Ibacetaren lursailak eta Ugartemendi garaikoa eta Lopenea baserrietako Jose Antonio Ayerdirenak; mendebaldera, Lazkaibar-Lazkao errepidea eta Betenasagasti etxea bera. 1862an 52.290 erreal balio zuen, hau da, etxeak halako bi ia.

Lurgorrialdea, 114,75 ondoko edukiera (3.938,32 m²ko azalera) zuen lursaila, muga hauekin:

Iparraldera, Jose Antonio Ayerdiren lurrak; hegoaldera, bidea; ekialdera, Justo de Ibaceta eta Valmedianoko markesaren (Ordiziako Barrena jauregikoa, urte horietan Infanterriko dukea ere bazena) lur gehiago; mendebaldera, Jose Antonio Ayerdiren lursailak, Ugartemendigaraikoa eta Lopenea baserrietakoak. Lursail horien balioa 803 beloi-errealekoa zen orduan.

Luberrialdea, 23,25 ondoko edukiera (797,94 m²) zuen lursaila, muga hauekin: iparralde eta ekialdera, Justo de Ibacetaren onibarrak; hegoaldera, bidea; mendebaldera, bidea eta Valmedianoko markesaren (urte horietan Infanterriko Etxea) lurrak. Haren balioa 110 errealekoa zen.

Luberrialdea izeneko beste bat, 157,75 ondoko edukiera (5.413,98 m²) zuena eta muga hauek: Iparraldera, Ignacio Maria Aranaren lursailak; hegoaldera, Lurberri aldera zihoan bidea; ekialdera, Lazkaoko bikarioaren lurrak; mendebaldera, Rafael Zuazolaren lursailak. Haren balioa 1.419 beloi-errealekoa zen.

Altunealdea, 51 ondoko edukiera (1.750,32 m²) zuena eta muga hauek: Iparraldera, bidea; hegoaldera, errekatxoa; ekialdera, Justo de Ibacetaren onibarrak; mendebaldera, Maria Bernarda Garmendiaren lurrak. Haren balioa 255 errealekoa zen orduan.

Bideazpia, 32 ondoko edukiera zuen ereiteko lursail batez eta 33,5 ondoko edukiera zuen belardi batez (orotara, 2.247,96 m²) osatutako lur-eremua, 1.476 erreal balio zuena.

Etxeaurragastainadie, zenbait intxaurrondo tartekatzen zituen gaztainadia, 419,5 ondoko edukiera (14.397,24 m²) zuena eta muga hauek: Iparraldera, Valmedianoko markesaren lursailak; hegoalde eta mendebaldera, Agauntza erreka; ekialdera, errepidea.

Lur-eremu hori gaur egun Pingon garabiak eta Renault etxearen zati bat hartzen dituen gaztainadia da, hots, Lazkaoko biztanleek "Apaizaren bidea" izendatzen zuten Agauntza alboko gaztainadia. Ezizen hori ipini zioten toki lasaia zelako eta Agauntza errekaren aldamenean zegoelako. 1862an 5.034 errealeko balioa zuen.

Ereiteko lurrez eta otalurrez osatutako beste lursail bat Lazkaibar-Lazkao errepidearen alboan, 9 ondoko edukiera zuena ereiteko lurretan eta 4,75 ondoko edukiera otalurretan (orotara 471,9 m²ko azalera). 1862an 396 errealekoa zen haren balioa.

Aierdi, 2.331 ondoko edukiera (79.999,92 m²) zuen hariztia, muga hauekin: Iparraldera, Valmedianoko markesaren etxaguntzak; hegoaldera, bidea eta Ignacio Maria Arana, Jose Antonio Ayerdi eta Manuel Berroetaren lursailak; ekialdera, Ignacio Maria Arana, Jose Antonio Ayerdi eta Torrepinareseko kondearen (Beasaingo Floreaga edo Mutegienea etxekoa) lurrak; mendebaldera, Nicolas Olaranen lursailak. Haren balioa 979 errealekoa zen orduan.

Abado, gaztainadia zena nagusiki, 619,25 ondoko edukiera (21.252,66 m²) batekin. Garai hartan haren balioa 6.192 errealekoa zen.

Etxearen ataurreek 8,5 ondoko edukiera (291,72 m²) hartzen zuten eta haien balioa 17 errealekoa zen.

Etxea eta deskribatutako etxaguntzak 116.440 beloi-errealeko kopurura iristen ziren.

Lazkaoko Infanterriko jauregiaren baitako etxea zenez, bazen haren gainean karga bat, Etxearen jabetzako beste hainbatek bezalaxe. Kasu honetan 342.332 errealeko zentsu bat zegoen haren gainean, urtean 6.846,21 errealeko korritu batekin, Raimundo de Arteaga y Palafoxek ezarria Francisco Ignacio Leturiondoren alde. Zentsu hori Lazkaoko liburu zaharreko 3. folio iraulian jasotzen da, lehen zenbakian.

Bazen 177.780 erreal eta 3 marabediko beste zentzu bat. Kasu horretan zorduna Ordiziako Barrena jauregia zen kopuru berean, eta zentsu hori 1777an gauzatu zen Torreseko Kondetzako tituluaren eskutik, Ordiziako Barrena Jauregia banatuta geratu zelarik (Urte horietan jadanik elkartuta zeuden Lazkaoko dukearen etxea eta Ordiziako Barrena jauregia).

Halaber, Infanterriko Jaunak urtean 88 beloi-erreal ordaintzen zizkion Lazkaoko kabildoari, Meza nagusiaren ostean Jauregiko jaunen arimen alde egunero abesten zen errespontsuarengatik, zeinaren kapitala ezezaguna zenez, beste 2.993 erreal jasotzen ziren Lazkaoko kabildoaren baitako San Miguel parrokian, ogi eta argizaridun beste hainbat Eskaintzekin batera.

Infanterriko dukeak bere baitan zituen jabetza ugariak erregistratu ahal izateko, Manuel de Egoscozabalek, Ordiziako Barrena Jauregiko ordezkari eta administrari gisa, kasu horretan hauek ordezkatuz:

Andres Avelino Arteaga y Silva, Lazkaoko Jauna, Valmediano, Ariza eta Estepako markesa, beste hainbat tituluren artean, 30 urteko ezkongabea; **Josefa Arteaga y Silva**, Narciso Salazar y Pinedorekin ezkondua, 32 urtekoa; **Isabel Arteaga y Silva**, 25 urtekoa, Torre Cabrerako kondea zen Ricardo Martelekin ezkondua; eta **Fernando Arteaga y Silva,** ezkondua. Guztiak Madrilen bizi ziren. Manuel de Egoscozabalek Beasaingo bake-epailearengana jo zuen goran aipatutako guztien izenean, Andres Avelino de Arteaga y Silvaren jabetza egiaztatzeko xedez. Gizon hark esan zuenez, haren aita, Ignacio Ciro de Arteaga izan zen Beltransagasti baserriaren jabea 1817an zendu zen arte. Horren ondorioz, Andres Avelino Arteaga y Silvak herentzian jaso zuen eraikina; hori dela eta zera adierazi nahi zuen: ***"gizon hark aipatu jabetza jaso zuela herentzian, horretarako inolako dokumenturik osatu gabe, izan ere, Beltransagasti etxearen titulua galdu egin zen Infanterriko dukearen artxiboarekin batera Independentziako Gerran izandako gorabehera politikoen ondorioz"***

Lazkaomendiko Zeberionea etxeko Jose Antonio de Zeberio eta auzo berean zegoen Iztueta etxeko Jose Antonio de Iztueta izan ziren lekuko modura deklaratu zuten lazkaotar jabedunak. Haiek adierazi zutenez, jabetza horiek Lazkaoko etxearen baitakoak izan ziren gutxienez 1817az geroztik, eta ordutik Andres Avelino Arteaga y Palafoxen baitan izan ziren hil zen arte. Azkenik, 1865eko uztailaren 24an erregistratu zituzten.

Halaber, aipagarria da Betenasagasti etxean sagardo asko ekoizten zela, hainbeste non Arranomendia edo San Isidro Granjaren ondotik hura baitzen zonaldean sagardo gehien ekoizten zuena ezbairik gabe. Betenasagasti baserriko dolareak Granjakoak baino indar eta ahalmen handiagoa zuen; hain zuzen, dolare ho-

rren goialdeko zatia Senpereko biribilgune berrian ikus daiteke egun, 15.000 litroko hainbat kupela eta edukiera gutxiagoko beste zenbait alboan dituela. Granjan zegoen zonaldeko kupela handiena, 30.000 litroko edukiera zuena. Betenasagasti baserriak ere bazuen kupela handi bat, hain zuzen, 24.000 litrokoa. Betenasagastiko dolarea, aldi berean, modernoena zen, izan ere, Joaquin Arteaga Etxague Infanterriko XVII. dukeak egin zuen (agian C.A.F. enpresako lantegietan) 1935ean Lorenzo Olano egoilearen laguntzaz, aipatu jabeduna artean Donostian eta Zarautzen bizi zela.

Etxe horrekin lotutako azken bitxikeriak Lazkaoko Jaunak zonalde horretan zituen jabetzen barruan Betenagasti etxeak zuen garrantziarekin du zerikusia, izan ere, Infanterriko XIX. dukea zen Iñigo de Arteaga y Martinen semeetako bat Madriletik etorri zen etxe hura eta hartako egoileak agurtzera, 2007ko abuztuan eraitsi zenean.

Atal honekin amaitzeko, esangarri da gure oinezko ibiltariek 1862an Urbiñarte-Ugartemendi-Senpere zonaldeari dagokion 5. sektore horretatik igarotzean etxe hauek baino ez zituztela ikusiko:

Urbiñarte, Ugartemendi garaikoa, Ugartemendi azpikoa (bakarra), Senpere aundi edo Senpere buru, Errekalde zar, Beltransagasti edo Betenasagasti eta Altune (hari atxikitako eraikina barne, egoileak erabiltzen zuena eta zenbakirik ez zuena); Lazkaibar aldera joanez, Teileria (hartako teilape eta egosteko labeekin), Senpere berri eta Igeldegi ikusiko zituzten hurrenez hurren, izan ere, norabide berean zeuden hurrengo etxeak, hots, Burugorrinea eta Txintxurreta hurrengo atalean deskribatuko ditugu.

1902an S.E.C.M. enpresa ezartzeak eragindako "iraultzaren" ondorioz, sektore horrek ere bilakaera nahiko goiztiarra ukan zuen, izan ere, urte horretatik aurrera Fabrika berriko 11 txaletak eraikitzen hasi ziren pixkanaka; zortzi galtzadaren ekialdeko aldean eta beste hiru mendebaldeko aldean (horiez gain, XX. mendearen erdialdera beste bat ere eraiki zen errepidearen alde horretan). Aurrez azaldu dugunez, zonaldean izandako eraldaketa-ziklo hori mende bat igarota burutu zen, hau da, 1961-1963 bitartean, C.A.F. enpresako "Lantegi Berri" horietan muntaketarako sei nabe txiki eta hiru handi eraiki zirenean. Hortik aurrera gertatu zena ia guztiok dakigu.

Irakurleari berriro gogoraraziko diogu 1862ko planoan islatzen diren etxeez gain beste eraikinen bat aipatu badugu, orain arte deskribatu ditugun sektoreetan 1862-1962 bitartean igarotako mende horrek utzitako bilakaera azaldu nahi dugulako izan dela. Horregatik, Beasain eta Lazkaoko herriguneen artean zintzilik, "aldendutako auzo" honen eraldaketari buruz luze eta zabal mintzatu gara.

Segidan Fabrikari dagokion 6. sektorea deskribatuko dugu. Bertan, era berean, beste baserri garrantzitsu batzuk ikusiko ditugu, Oria ibaiaren iparralde zein hegoaldera, Lazkaibar auzotik hurbil.

6. sektorea

FABRIKA HAUNDIA

6 zenbakidun planoa



PLANOAN IKUS DAITEKEENA

Bi puntu zuri handirekin adierazten da proiektatutako trenbidearen ibilbidea.

A Letemendi baserrirantz luzatzen den bidea.

B Ezkierdi edo Ezkiagaerdikoa baserria.

C Bide zaharra.

D F.H.S.M. enpresa zaharra 1862an.

E Lazkaibarretik Fabrikara sartzeko erabiltzen zen alboko bide zaharra.

F Burugorrieneaundi baserria.

G Txintxurreta baserria.

H Lazkaibar-Senpere-Lazkaorako errepide berria.

I Oria ibaiaren alboko errepide nagusia.

J Lazkaibar eta Senpere batzen zituen bide zaharra.

K Oria ibaiak eta Agauntza errekak bat egiten duten Urbietako gunea.

L Trenbide-pasabidearen alboko eraikina.

M Lazkaoko jurisdikzioan kokatutako laborantza-lurrak.

N Ezkiabasokoa baserrirantz luzatzen zen bidea (gaur egun, auzo berriko zonalde horretara sartzeko eskailerak), errepide nagusian abiatzen zena.

O Ibaiaren alboko makaldia, Burugorrienea baserriaren baitakoa. Lazkaoko lurretan kokatua.

P Galardi muinotik jaitsi eta Lazkao eta Beasain jurisdikzioak bereizten dituen lerroa.

Q Lazkaibartxiki baserritik Oria ibaiaren ertzeraino luzatzen zen bidea.

R Lazkaibartxiki baserria.

S Lazkaibar auzoko trenbide-pasabide zaharra.

T Oria ibaia.

U Etorkizuneko trenbidearen ibilbidea.

V Agauntza errekaren gaineko burdinazko zubiaren akabera, hiltegi zaharraren zonaldean.

X Gezi bertikal txiki batekin Ezkiabasokoaren baitako onibar estua adierazten da, beste lursail batzuekin batera Fabrikari saldua.

Y Ezkiabaso edo Ezkiabasokoa baserria.

Z Letemendi zonaldean eta Usurbe mendiaren beste ingurumaria batzuk, gerora ur-depositua eraikitzeko erabiliko zirenak tarteko. Plano orokorrean, puntu marroi txikiak erabiliz, hasiera batean F.H.S.M. enpresa zaharra finkatzeko baliatu ziren lurrak ertzatu ditugu. Gerora, lur gehiago hartu ziren, urteen poderioz enpresa gehiago finkatu ahala. Hori guztiori jarraian ikusiko dugu xehetasun gehiagoz.

FABRIKAKO LEHEN BAZKIDEAK

Enpresa horri buruz gogaitu arte hitz egin denez, edonork daki, sarritan entzun eta irakurrita, San Martin de Urbieta Burdin Fabrika 1860an hiru bazkideren artean sortu zutela.

Bazkide gehiengoduna Domingo Goitia y Sarriegi izan zen, izan ere, enpresaren hastapenean akzio guztien %75 zuen bere baitan. Gainerakoa, hots, %25a Jose Francisco Arana eta Martin Usabiagak ezarria zen. Azken bi horiei buruz ere aurrerago hitz egingo dugu indibidualki. Dena den haiei buruz hitz egiten hasi aurretik, esangarri da Domingo de Goitia eta Martin Usabiaga, burdinolen azken sasoian jadanik industrialariak izateaz gain, bazutela ahaidetasunezko lotura bat lehenengoaren emaztea zela medio.

Domingo Goitia 1860-1862 bitartean pertsona garrantzitsua izan zen Fabrikan; baina, nor zen gizon hori? Kontu jakina da Ordizian jaio zela. Hala ere, normalean horretara mugatzen da bere jatorriari buruzko xehetasuna, izan ere, jende gutxik daki enpresari hori Goitinetxeberri baserrian (Eperbide izenez ere ezagutzen zena) jaio zela, zeina Mariaratz errekatik metro gutxira kokatzen zen (eta da). 250 metroko garaieran paraturik dago eta aipatu errekak eta Oria ibaiak bat egiten duten gunetik 500 metro eskasera, eskuineko isurialdean, Oriako ibar horri bizkar emanez.

Goitinetxeberri edo Eperbide baserri horrek egun Basokotxe (Basoko etxe) ezizen "okerra" du, hain zuzen, Mariaratzeko amildegiaren eskuineko mazela pikoan dagoen arboladian lekutzen delako, Ordiziako jurisdikzioan. Ordiziako hipoteken hirugarren liburu zaharreko 216. zenbakian, 138. folio iraulian eta 139. folioan Goitinetxeberri izenarekin erregistratzen da baserria.

Antzina Mendebaldeko Zatiko laugarren zenbakia zuen eta sotoak, logela batek eta ganbarak osatzen zuten eraikinaren erdia. Beste erdian berriz, ukuilua eta ganbara batek hartzen zuen solairu bat kokatzen ziren. Gaur egun ere egitura bera mantentzen du, izan ere, piko handiko mazela batean kokatzen da.

Etxea 110 m²ko orube baten gainean dago eraikia eta haren eraikuntza-balioa 9.999 beloi-erreal eta 90 zentimokoa zen. Balioespen hori 1840ko urriaren 10ekoa da.

Ikus ditzagun orain 220. eta 221. argazkiak, Mariaratzeko ekialdeko mendi-mazela horretan zehaztasunez koka gaitezen. Halaber, tarte batez haranean gora egiten duen galtzada hartu dugu bigarren argazki horretan, baserriak zuhaitz artean, irudi horretako eskuinaldean, zuen kokapena hobeto antzematen aldera Gaur egun paisaia hori goitik behera aldatu da, izan ere, AHTa egiteko lanen ondorioz, haranaren beheko zonaldea eta baserriko zenbait lursail errotik aldatu dira. 221a eta 221b irudietan Goitinetxeberri edo Eperbide baserria eta AHTa egiteko lanen ondorioz izandako lur-mugimenduak ikus daitezke.

Garai hartan Goitinetxeberri edo Eperbide etxe "aberatsa" zen, etxaguntza ugari zituena, nahiz eta gehienak lantzen zailak izan, inguruko amildegi malkartsu eta basatiari zegokion piko handi hartan zaila baitzen lanean jardutea. Hedadura handiena zutenen artean ereiteko lurrez osatutako 8.500 m²ko lursail bat eta 9.800 m²ko gaztainadi bat aipatuko ditugu, muga hauekin:

Iparraldera, onibar bat eta Arantzegi baserriko beste gaztainadi bat; hegoaldera, Juan Ibarbiaren oinordekoen lurrak (Goitia etxeko onibarren eta Gasteluzar jauretxekoaren artean kokatuta); ekialdera, Catalina de Estalaren jabetzako bidea eta mendialdea; mendebaldera, igoera-bidea eta Mariaratz errekatxoa. Aurrez aipatutako garaian 60 erreal balio zuen ereiteko lursailak. Gaztainadiak, berriz, 15 erreal balio zuen. Horrenbestez, lursail horien gutxi gorabeherako balioa, haietako zuhaitzak barne, 7.420 beloi-errealekoa zen.

Goitinetxeberri edo Eperbide baserriak ere 7.700 m²ko ereiteko lursail bat zuen bere baitan eta, baita 5.070 m²ko lursail bat otadi eta sagastiz betea. Honatx horien mugak:

Iparraldera, Juan Ibarbiaren oinordekoen lurrak (hauek ere Goitia baserriko onibar eta lurren eta Gasteluzar jauretxekoen artean lekutuak); hegoaldera, Arantzegi baserriko lurrak; ekialdera, Jose Joaquin de Gasteluzarren baitako mendialdea; mendebaldera, igoera-bidea eta Mariaratz errekatxoa. Garai hartan horien balioa 6.404 beloi-errealekoa zen gutxi gorabehera.

Bazen beste lursail bat, **Errekailunekomuntegiondora** izenekoa, gaztainondo eta "haritz mardul" helduz betea, 9.400 m²ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera, errekatxoa eta Goitia etxeari zegokion mendialdea; hegoaldera, Gaztañaga familiaren baitako larre-saila; ekialdera, Errekailuna izeneko bidea; mendebaldera, Mariaratz errekatxoa. Garai hartan haren balioa 2.914 beloi-errealekoa zen gutxi gorabehera.

24.200 m²ko partzela bat, gaztainadiz, hariztiz eta otalurrez betea. Haren barruan, era berean, **Errekailuna** izeneko lur-zatia paratzen zen. Honatx aipatu partzelaren mugak:

Iparraldera, Gainzarbe aldera zihoan bidea; hegoaldera, Errekailunara eta Goitinetxeberri baserriaren baitako gaztainadiz betetako mendialdera egiten zuen bidea; ekialdera, Francisco Javier Loinazen baitako otadi-lurra; mendebaldera, Goitinetxeberri baserriko gaztainadi horren beste zati bat. Haren balioa 3.630 beloi-errealekoa zen orduan.

35.600 m²ko azalera zuen zonaldea, gaztainadiz, hariztiz eta otalurrez betea, zeinak, era berean, I**geretxikia** izeneko lursaila barneratzen zuen. Honatx zonalde horretako mugak:

Iparraldera, Catalina Estalaren eta Sagastizabal garacoa (orain Potxo ezizenez ezagutzen dena) baserriaren baitako mendialdea; hegoaldera, Arantzegi baserriko gaztainadia; ekialdera, Iturzaetako bidea; mendebaldera, Mariaratz errekatxoa eta izen bereko bi-

dea. Lur-eremu horren balioa 4.272 beloi-errealekoa zen orduan.

Irakurri dugunez, era berean, lursail horrek urtean 11 errealeko urteurren-meza bat zuen beregain, Maria Antonia Sarriegi Mendizabalek ezarria eta 1864ko urtarrilaren 9an Jose Antonio Goitia y Sarriegik, 43 urte zituelarik (ordurako alargun zegoen Domingoren anai zaharra) onartua, Ordiziako parrokiako kabildoaren alde.

Pertsona horren sorlekuari buruz zerbait gehiago badakigunez, orain berari buruzko zenbait datu emango ditugu, Domingo de Goitia Sarriegi nor zen eta negozioetarako grina nondik zetorkion jakite aldera.

DOMINGO DE GOITIA Jose Joaquin de Goitiaren eta haren lehen emaztearen, hots, Maria Antonia Sarriegiren semea zen. Guztira bost seme-alaba izan zituzten: Jose Antonio, Maria Ignacia, Domingo, Francisco eta Francisca de Goitia Sarriegi.

Herentzia antolatzean, aitaren nahimena ondasun guztiak Jose Antonio semearen baitan uztea izan zen, haren azken borondateari jarraiki hura zelako:

> *"…el que había sentido más predisposición por aprender el manejo del comercio de la hacienda y demás granjerías industriales por él practicadas…"*

Aitak ondasunak bost seme-alaben artean zehaztasun osoz ez banatzeko nahimena zuenez, anai-arrebek onartu egin zuten ondasun guztiak Jose Antonio anaiak jaso zitzala herentzian. Lau anai-arreba horiek (tartean zela Domingo), halaber, onartu egin zuten anai onuradunaren eskutik bakoitzak 3.000 beloi-dukat jasotzea aitarengandik legez zegozkien kopuru modura. Zenbateko horren ordainketa aitak egindako testamentuari zegokion eskrituran ezarritako modu eta epeen barruan egingo zen.

Deskribatu berri duguna zonaldean Goitiatarrek zuten garrantziaren inguruko zertzelada txiki bat baino ez da, XIX. mendearen erdialdera Eperbide edo Goitinetxeberri etxeak zuen indarra aipatze aldera egindakoa. Dena den, ez da hori izan deskribapena emateko arrazoi bakarra. Ordurako familiak zuen on-

dare handia islatzeaz aparte, Goitinetxeberri baserrian jaiotako hirugarren anaia zen Domingo de Goitia y Sarriegiren familia-adarrak izan zuen bilakaera eman nahi dugu; izan ere, Domingo izan zen 1860an sortutako F.H.S.M. enpresaren sortzaile eta bazkide nagusia. 1866an "Goitia y Compañía" izena zuen jadanik, eta 1892an "La Maquinista Guipuzcoana" bilakatu zen, jarraian azalduko dugun eran.

Ordutik aurrera industriaren ikuspegitik fabrika horrek izan zuen bilakaera ere ikusiko dugu aurrerago, izan ere, 1917an C.A.F. enpresa finkatu zenerako, aipatu fabrikak jadanik 57 urteko ibilbidea egina zuen hainbat izen hartuta, hots, industria-ibilbide luzea zuen ordurako.

Arestian aipatutako testamentu-dokumentuan aipatzen dena gogora ekarriz berriro ere, ikus dezakegu anai-arrebek aitaren borondatea onetsi eta bakoitzak 3.000 dukat (33.000 beloi-errealen baliokide) jasotzea onartu zutela. Garai hartan kopuru izugarria zen hori, izan ere, aitarengandiko legezko "ondaretxo" hori lau pertsonek jasotzekoa zenez, guztira 12.000 dukat jasoko zituzten. Jakina, onuradun edo legatu-hartzaileak ez zuen hari zegokion zatia hartuko, izan ere, hark herentzia bereganatuko zuen, ondoren anai-arreba bakoitzari zegokion kopurua ordaintzeko betebeharra izanik.

Balio horren inguruko erreferentzia bat izate aldera, esan dezagun Ordiziako Zabala jauregiak garai hartan 17.000 beloi-dukateko balioespena zuela, hau da, gutxi gorabehera baserri hark hartako etxaguntzekin zuen balioespen bera.

1840an, aipagai duguna gertatu zen urtean, Domingo de Goitiak 29 urte baino ez zituen. Badakigu burdinarekin lotutako negozioetan ibiltzen zela sasoi horretan, bere ahaide politikoa zen Martin Usabiagarekin batera zonaldean artean irauten zuten bi burdinolak (Iurre eta Igartzakoak hurrenez hurren) ustiatuz. 1860an, jadanik 49 urte zituela, sortu zuen Martin Usabiagarekin eta Jose Francisco Arana beasaindarrarekin aipatu Fabrika. Horretarako, Lazkaibarraundi, Burugorrienea, Txintxurreta eta Ezkiabasokoa baserrietako lurrak bereganatu zituzten, dagokion atalean xehetasun osoz azalduko dugunez.

Martin Usabiaga, bere ahaide politikoa ere, ordiziarra zen izatez. Dena den, ezin izan dugu jakin bere sorleku izan zen etxe edo baserriaren izena. Hala ere, badakigu herriko alkate izan zela. Orobat, badakigu XIX. mendeko hirugarren laurdenean bi solairuko etxe eder bat eraiki zuela eta bertan bizi izan zela bere familiarekin 1864an hil zen arte. Urdaneta kaleko 6. zenbakian dagoen eraikinaz ari gara, gaur egun berreraikita dagoena, hau da, Villar burdindegia hartzen zuen etxetik behera hurrengo eraikina, oraindik Banco Guipuzcoano bankuko bulegoak hartzen dituena. Era berean, zonalde horretan lursail ugari bereganatu zituen errepidearen bi aldeetara. Horien artean XX. mendearen bigarren erdian Torresol delakoa eraikitzeko erabili zen errepidearen alboko orubearen zati bat.

Sarrera hau gehiegi ez luzatzeko, esan dezagun Domingo de Goitia y Sarriegi 1880ko urriaren 25ean hil zela Beasainen, enpresako Atari nagusiaren aldamenean kokatutako Burdin Fabrikako bere etxebizitzan. Haren semea, Francisco de Goitia y Ostoloza abokatua, industria munduarekin lotutako Ajuria sendiko Guadalupe de Ajuriarekin ezkondu zen. Familia horrek, beste negozio askoren artean, Forjas y Fundiciones Ajuria izeneko enpresa zuen Arabako herri horretan. XIX. mendearen azken laurdeneko 222. argazkian Goitia-Ajuria senar-emazteak ikus daitezke.

Francisco de Goitia y Ostolazak 39 urte zituen 1888an eta artean Atari nagusiaren aldamenean kokatutako Fabrikako etxebizitzan bizi zen. Beasaingo udal-erroldan Sortaldeko Zatiko 14 zenbakia esleitu izan zaio Goitia y Compañía enpresaren baitako etxebizitza horri hainbat urtez.

Urte horietan, jadanik La Iberia sormen-prozesuan zen. Enpresa berri hori aitzindaria zen estatuan latorria lantzen. Material berritzaile hori Europako herrialde garatuenetan eta Ingalaterran erabiltzen zen ordurako. Material hori erabiliz industria-salmenta handia zuten gailuak egiten ziren, esate baterako, kazolak, zartaginak, eltzeak edota beste hainbat gailu, eta baita kontserbak ontziratzeko lata-produktuak ere. Tresna horiek guztiak orduan "kontsumo handiko gai" izendatzen ziren erreminten artean barneratzen ziren.

Hasiera batean ez genekien zenbaterainoko garrantzia izan zuen aipatu enpresak. Baina hura finkatzeko prozedurari buruzko zenbait idatzi ikertu, proiektua burutu ostean hari buruzko irudi kolorge zenbait ikusi eta harekin lotutako hainbat datu (enpresa-ekoizpena, eratu zenean zuen kapital soziala, etab.) gainbegiratu ostean, haren benetako neurri eta tamainaz ohartu ginen. Erreferentzia modura esangarri da enpresaren hasierako kapitala 2,5 milioi pe-

zetakoa zela (Goitia y Compañía fabrikaren kapitala halako bi ia), 1.000 pezetako akzio izendatutan harpideturik. Blas de Onzoño notarioak izendapena onartu zuen 1890eko uztailaren 25ean.

Enpresa berriko lehen Gobernu Batzordea (gerora Bizkaiko Labe Garai enblematikoan barneratu zena La Vizcaya delakoarekin batera) segidan aipatuko ditugun bazkide-sortzaileek osatu zuten, ordurako "Euskal Herriko Industriaren Goi Burgesia" izendatzen zenean barneratzen zirenak. Hauek izan ziren enpresako lehen kontseilariak:

Federico eta Jose Echevarria Rotaeche, Francisco de Goitia y Ostolaza, haren koinatu Alfredo de Ajuria y Urigoitia eta Cosme Palacios. 1890. urtearen amaiera aldera, enpresa eratu zen urte berean, La Iberia enpresak eguneko 20 tona latorri sortzen zituen (hilean 500 tona, hilean hogeita bost egunez lan egiten zela kontuan izanik). Eta, zenbait egilek aipatu bezala, produktu berritzaile hori izan zen garai hartan:

> *"…el principal avance tecnológico de la siderurgia vasca en las primeras etapas de la industrialización…"*

Irakurgai ditugun dokumentu horien arabera, produktuaren lanketa kontu konplexua zen oso, izan ere, eskulan arras espezializatua, kalitate oneko lehengaia eta instalazio oso garestiak behar ziren hura lantzeko, hari buruz ekarri ditugun lau irudietan ikus daitekeen moduan.

223, 224, 225 eta 226 irudietan La Iberia enpresako kanpoaldea eta bertako ekoizpena ikus daiteke. Irudi horien kalitatea ezin hobea ez bada ere, industria-instalazio horien kostuari buruzko ideia argi bat egin dezakegu. Ikusgai ditugun instalazio horiek XIX. mendearen amaierako testuinguruan kokatu behar ditugu. Dirudienez, garai hartan latorria oso produktu errentagarria zen, izan ere, kobrearen, letoiaren eta ordura arte halako produktu eta gailuak egiteko erabilitako bestelako materialen (eskuz fabrikatzez ziren) gainetik kokatzen zen abantaila handiz (batez ere, salneurriari so).

Francisco de Goitia y Ostolaza eta Guadalupe de Ajuria senar-emazteek hamabi seme-alaba izan zituzten. Horietako sei oso goiz hil ziren.

Francisco de Goitia 1914ko abuztuaren 25ean hil zen 65 urte zituela, bere enpresa-bizitza gorabeheratsuko azken urteetan zartako ekonomiko handiak hartu ostean.

Bitxia da oso Francisco Goitiak eta Jose Martin Aranak (Domingo Goitiaren eta Jose Francisco Aranaren semeak hurrenez hurren) izandako bizitzen arteko antzekotasuna. Izan ere, biek bizitzan familia aldetiko arazo handiak izan bazituzten ere (biek hamabi seme-alaba izan zituzten eta biek galdu zituzten sei oso goiz), egoera iraultzen asmatu zuten eta industria-proiektu eta -errealitate handiak garatu zituzten.

Jose Antonio Goitia y Sarriegi (Domingo Goitiaren anaia) izan zen Goitia echeverri eta hartako etxaguntzak herentzian hartu zituen pertsona 1840an. Dena den, 1917ko apirilaren 24an hil zen Urdains izeneko herrian (Iparralden), 97 urte zituelarik alajaina! Ondoren, haren semeek, Evaristo eta Francisco Goitia Zuaznabarrek heredatu zituzten hasieran deskribatu ditugun baserria eta jabetzak. Horietako batek, zehazki esatera, Evaristo Goitia Zuaznabarrek baserriaren zati bat eta hartako jabetzak saldu zizkion Jose Maria Garmendia e Irastorzari 1922ko urtarrilaren 13an. Erosketa 43.000 pezeta ordainduta gauzatu zen.

Gau egun, Josefa Lasa Gorrotxategi bizi da baserrian bere semeetako batekin. Aipatu andrea Ezkion jaio zen eta Prudencio Garmendia Urretabizkaiaren (Jose Maria Garmendia e Irastorzaren semea) alarguna da. Eta hark esandakoaren arabera, Mariaratzeko ibar horretan AHTa egiteko lanak arreta handiz begiratuz ematen ditu egunak, izan ere, biaduktua bere lurretatik eta baserriaren aldamenetik igarotzen da, 221a eta 221b argazkietan ikusi dugun moduan.





Hemendik aurrerako lerroaldeak Fabrikari buruzkoak izango dira. Tartean beste bi bazkide gutxiengodunei buruz hitz egingo dugu, hau da, Jose Francisco Arana Echeverria eta Martin Usabiagari buruz.

Sarrera luze hau egin ostean, 1866an enpresak zuen itxura ikusiko dugu orain, izan ere, ordukoak baitira aipatuko ditugun dokumentuak. Halaber, sei urte lehenago, fabrika zaharra finkatzeko erabili ziren lurrei buruz hitz egingo dugu zertzelada bakarra bidean utzi gabe.

FABRIKA ZAHARRAREN ITXURA

F.H.S.M. da M. Ladame ingeniariak modu eskematiko samarrean Fabrikako zonaldeari dagozkion 6. sektoreko plano orokorrean eta 6a plano-zatian (biak 1862an sinatuak) marraztu nahi izan zuen enpresa. Orduan enpresak bi urte inguruko ibilbidea izango zuen, hori dela eta, hari buruzko zenbait xehetasun azaleratzen hasiko gara, orain arte ezagutzen ez genituenak.

Badira F.H.S.M. enpresa zahar horri buruz betidanik ezagutu nahi izan ditugun zenbait datu, esate baterako, hasiera batean enpresa hori finkatzeko erabili ziren lursailei buruzko kontuak, hartako dimentsioak, hartako jabeei buruzkoak, haien izenak, industriarako erabili ziren lehen lur horiek zein baserrikoak ote ziren, Oria ibaiaren hegoaldeko ibarrean zuten kokapen zehatza, etab.

Fabrikari buruz ikerketa asko eta txukunak egin dira. Dena den, guk haren hasierako hedadurari, hasierako lantegien dimentsioei, haien banaketari edota funtzioei buruzko kontuak ere jakin nahi genituen, besteak beste. Horrekin lotutako zenbait kontu eta beste zenbait 1866ko idatzi hauek irakurriz jakin ditugu. Orobat, fabrika erakusten duten argazki berriak ekarriko ditugu hona, ezagunak diren beste irudi batzuetako zenbait xehetasun nabarmentzeaz gain. Segidan ikusiko dugu hori guztiori.

San Martin de Urbieta Burdin Fabrika (F.H.S.M.) izenez ezagutzen zen enpresa (egungo CAF enpresa "arbaso" urruna) hasiera batean Beasaingo jurisdikzioan kokatutako lurren gainean eraiki zen; lursail bat salbuetsita, zeina Burugorrinea baserriaren baitakoa izan arren, Lazkaoko jurisdikzioan sartzen zen. Ez da lan nekeza izan lur-eremu hori kokatzea, izan ere, Agauntza errekaren alboan lekutzen zen, hain justu, Lazkao eta Beasain herrien arteko mugan. Jabetzari buruzko dokumentu horietan deskribatzen denez, muga argi eta zehatzak zituen aipatu eremuak. 6. sektoreko plano orokorrean eta 6b plano-zatian O hizkiarekin markatu dugun lur-eremu txiki hori izango litzateke, ziri forma duena (hiruki angeluzuzena bailitzan). Airetik ateratako 227. argazkian ere, goialdean, lur-eremu hori ikus daiteke, O hizkiarekin adierazita ostera ere.

6b plano-zatian ere Ezkiabaso aldera igotzeko bidea (Urbieta izen egokiarekin ezagutzen dena) adierazten da N hizkiarekin, ia K espoloiaren parean; trenbideak eta Agauntza errekak bat egiten duten gunea, V hizkiarekin adierazten dena, aldi berean, trenbidearen burdinazko zubiaren muturra izango litzateke. Lerro marroiekin, ia angelu zuzen bat osatuz, Beasain eta Lazkao arteko udalerrien muga islatzen da. Muga hori M hizkiarekin adierazten da. Ikus, era berean, trenbidearen ibilbidean zehar, hura neurtzeko ehun metroz behin agertzen diren zenbakiak. 227. irudian agertzen diren hiru zirkulu zurien artean banatuko lirateke Fabrikako lursail zaharrak, hegoaldera trenbideak izanik mugakide eta Oria ibaiertza iparraldera.

Jarraian, planoetan eta 227. irudian O hizkiarekin adierazi dugun lursailak, Lazkaoko jurisdikzioan kokatuta dagoenak, muga hauek zituela ikusiko dugu, betiere, dokumentuetan agertzen denari jarraiki:

Iparraldera, Oria ibaiak eta Agauntza errekak bat egiten duten gunea; hegoaldera, trenbidea, mende-

baldera, Beasaingo hiltegi zaharra kokatzen den zonaldean Trenbidearen Konpainiak eraikitako burdinazko zubiaren mutur bat; eta, ekialdera, M hizkiarekin adierazi dugun irudizko lerroa, leku horretan Lazkao eta Beasaingo jurisdikzioak banatzen dituena. Apur bat aurrerago, halaber, 1860an Fabrikari zegokion lursail txiki hori zer-nolakoa zen ikusiko dugu.

6. sektoreko plano orokorrean puntu marroi txiki batzuekin laukitu dugun lursail handi horren gainean eraiki zen fabrika zaharra eta, aldi berean, lursail hori baliatu zen 1862an egur-ikatzezko Gipuzkoako lehen Labe Garai modernoa finkatzeko. Hori guztiori aurrerago azalduko dugu. Ingeniariek liburu honetan jarraitzen ari garen planoa sinatu zuten urtean izan zen hori. Hiru urte beranduago bigarren Labe Garai bat ezarri zen. Fabrika zaharra hartu zuten lursailak zazpi onibar haiekin osatzen zen. Idatzietan agertzen diren hurrenkeran emango ditugu hemen:

LEHEN JABETZA.- 92 ondoko edukiera zuen onibarra (12.630 m^2) ereiteko lurrez eta belardiz osatua, Chinchurreta baserriaren baitakoa. Urte horietan baserri hori Ordiziako Gazteluzar jauretxearen baitakoa zen. Jauretxe hori orduan plazaren ezkerrera, goialdean lekutzen zen, betiere, plaza Udaletxeko arkupetik behatuz. Gerora Ibarbia Etxe izendatu zuten.

BIGARREN JABETZA.- Antzeko beste lursail bat, 122 ondoko edukiera (16.748 m^2) zuena, ereiteko lurrez eta belardiz osatua hau ere. Urte horietan Torretagleko markesaren zen Lazkaibarraundi baserriaren baitakoa zen jabetza hau. Lazkaibarri dagokion 7. sektorean pertsona hori hobeto ezagutuko dugu, Gipuzkoan hainbat maiorazko eta Peruko Errepublikan ere jabetza garrantzitsuak zituena. Beste jabetza askoren artean, Ordiziako Muxika etxearen (Dorrea izenez ezagunagoa) zati handi bat ere berea zen orduan.

HIRUGARREN JABETZA.- Antzeko beste lursail bat, hau da, ereiteko lurrez eta belardiz osatua, eta 28,5 ondoko edukiera (3.912 m^2) zuena. Dokumentuen arabera, Villafuerteko kondearena zen Ezkiagabasoa (Ezkiabaso edo Ezkiabasokoa) baserriaren baitakoa zen jabetza hau. Konde hori, orduan, Ordiziako Zabala jauregiaren (Jauregi Zaharra izendatzen dena) eta Tolosako Aranburu Jauregiaren jabea zen. Horiez gain, hainbat maiorazko, noblezia-titulu eta jabetza zituen probintzian sakabanatuta.

Eskuratutako hiru lur-eremu horiek Beasaingo Liburuan erregistratuta daude, 141, 174 eta 194 zenbakiekin, hurrenez hurren.

LAUGARREN JABETZA.- 828 m^{2}ko azalera zuen makaldia, orduan Burugorrinea baserriaren baitakoa.

BOSGARREN JABETZA.- 3.899 m^{2}ko azalera zuen ereiteko lursaila. Hau ere Burugorrinea baserriaren baitakoa.

SEIGARREN JABETZA.- Alde batetik, ereiteko beste lursail bat, 32 ondoko edukiera (4.393 m^2) zuena eta **Kaminazpia** izenez ezagutzen zena. Beste alde batetik, beste belardi bat 18 ondoko edukiera (2.471 m^2) zuena. Hauen antzinako jabearen berririk ez dugu, izan ere, dokumentu horietan ez da ezer aipatzen onibar honetako jabeen inguruan. Ikusi ditugun beste datu batzuei kasu eginez, hasiera batean garai hartan Villafuerteko markesarena zen Ezkiabaso baserriaren baitakoa zela esan dezakegu.

ZAZPIGARREN JABETZA.- 705 m^{2}ko beste makaldi bat. Hau ere Burugorrinea baserriaren baitakoa. Hartako mugei erreparatuz egiaztatu ahal izan dugunez, Agauntza errekak Oria ibaiarekin bat egiten duen gunearen eta trenbidearen artean zegoen lursaila izango litzateke, hau da, 6. sektoreko plano orokorrean, 6b plano-zatian eta 227. argazkian O hizkiarekin adierazi dugun lur-eremua.

Jabetza horri buruz hitz egitean, aurrerago, antzeko mugak aipatzen dira, baina azaleraren kasuan aipamen berantiarrago hori ez dator bat hemen adierazten denarekin. Dena den, haren azalera 705 m^{2}koa izan ala aurrerago adierazten den 828 m^{2}koa izan, gauza bat ziurra da lur-eremu horri dagokionez, duela 150 urte makaldi ederra izango zela alegia; non arrain eta aingira itzelak harrapatuko ziren, horren gune emankorra izaki.

Hain zuzen, Oria ibaiaren eskuineko ertzean, ibaian gora soilik 150 metro eginez, 3.197,69 m^{2}ko beste makaldia kokatuko litzateke. Azken horren barruan 83 zuhaitz heldu leudeke. Nolanahi ere, ez gara gehiegi luzatuko makaldi horren inguruan, herriguneari da-

gokion 4. sektorean deskribatu baitugu dagoeneko. Oria ibaiaren iparraldeko ertzean, Tirso de Olazabalen lurretan paratutako partzela handia litzateke, beranduago hiltegiko zonaldean, Oria ibaiaren gainean eraikiko zen zubitik oso gertu. Zoritxarrez ezin izan dugu XIX. mendearen amaieran leku horiek zuten itxura erakutsiko zukeen argazkirik topatu.

Fabrika zaharra finkatzeko baliatu ziren lur horietako zenbaiten gainean karga handiak zeuden orduan. Jose Francisco Arana eta Martin Usabiagak bereganatu zituzten horietako batzuk partikularki, gerora, 1860an sortutako sozietate berriari lagatzeko. Lurren lagapen hori izan zen aipatu gizonek enpresa berriari akzio modura egindako ekarpenaren zati bat.

Lazkaibar auzotik hurbil dagoen zonalde horretako lursail, muga eta jabe ezberdinen inguruan zehaztasunez hitz egin ostean, fabrika zaharra argi koka dezakegu 227. argazkia erakustean deskribatu dugun lur-zerrenda horretan. Iparralde eta hegoaldera mugak oso argi geratzen dira Oria ibaiarekin eta trenbidearekin. 1863tik aurrera ere muga hori argia da mendebaldetik, izan ere, Beasain eta Lazkao bereizten dituen lerroa bera litzateke mugakide, Lazkaoko jurisdikzioan Agauntza errekaren alboan zegoen 705 m²ko makaldi txiki hori salbuetsita. Beasain eta Lazkaoko herrien arteko muga hori Galardi muinotik (errepide berriko tunelean gainean dagoen mendialdea) jaitsi eta, gutxi gorabehera, Oria ibaiak eta Agauntza errekak bat egiten duten guneraino iristen den irudizko lerroak markatzen du.

Ekialdetik Manuel Sixto Lasaren lurrak lirateke orain mugakide, izan ere, Fabrika zaharraren teilapeen bidez oso ongi bereizten dira, bi jabetzen arteko bereizketa egitean. Lur horiek 229. eta 230. irudietan ikusiko ditugu. Bi irudietan, eskuinera lur horiek zeiharreko bi gezi zuri txikirekin adierazten dira.

Aurreko argazkiekin batera, ildo beretik, 228. irudia ekarri dugu hona, idatzitako erreferentzia ezberdinak argiro ikuste aldera. Aurrerago hiru argazkien arteko aldea ikusiko dugu xehetasun osoz. Hiru argazkien artean 21 urteko bidea baino ez dago.

Manuel Sixto Lasak Perun ere jabetza garrantzitsuak zituen. Dena den, guk haren hemengo jabetzak adierazi ditugu Q hizkiarekin 229. eta 230. argazkietan. Beranduago, Lazkaibarreko zonaldeari dagokion 7. sektorean Perun jaio arren ingurumaria hauetako arbasoak zituen pertsona hori ezagutuko dugu. Lasaren onibar horiek 6. sektoreko plano orokorrean Q hizkiarekin adierazi dugun bidearen eskuinera kokatzen ziren, izan ere, bide horren aldamenean Fabrika berriko teilapeak paratu ziren beranduago, 229. eta 230. argazkietan ikusten ditugunak. Estalpe horien gerizpean Lazkaibarreko bigarren mailako atari (izan ere, garai hartan jadanik bi sarbide zituen enpresak) izenekoa zatekeen errepidetik hurbilen zegoen eraikuntza, 27 m²ko azalera zuena.

Bide zahar hori oso garrantzitsua izan zen Lazkaibar auzoarentzat 7. sektorean ikusiko dugunez. Garai hartan, bide hori Lazkaibar txiki baserritik Oria ibaiertzeraino jaisten zen zuzenean. Halaber, bide hori ibilguaren beste aldean kokatutakoaren ia parean amaitzen zela ikus daiteke, ibaiak berak moztutako bidearen jarraipena bailitzan. Bestaldeko bide hori Beasain-Ordizia-Irun galtzadatik adarkatzen zen, Ezkiaga erdikoa (Ezkierdi) baserrira iristeko. Planoetan B hizkiarekin adierazi ditugu bide horiek eta Lazkaibar auzoaren historia laburraren barruan azalduko ditugu.

1862. urtea igaro eta ehun urtera ateratako 227. argazkia hartu behar dugu ostera. Hala, 228, 229 eta 230 argazkietan agertzen diren zenbait leku aipatu berri dugun argazkiarekin alderatuko ditugu, izan ere, oraindik aspaldiko zonaldeak antzeman daitezke, horri buruzko atalean ikusiko dugunez.

Fabrika zaharra hartzen zuen lur-eremua osatzen zuten zazpi jabetzetara itzuliz, deskribatu ditugun jabetza gehienak ereiteko lur-eremuak eta belardiak direla ikusi dugu, Oria ibaiaren hegoaldeko ibar horretan laborantzarako lur onenak zalantzarik gabe. Hantxe finkatu zen enpresa, hasiera batean 45.586 m²ko azalera zuena. Hala ere, segidan bertan ezarri ziren enpresen eraginez, azalera hori handituz joan zen aroz aro.

Ikus ditzagun lehen sei urteen ondotik Fabrikaren baitan zeuden instalazioak. Instalazio horiek Sozietatearen lehen Estatutuen barruan deskribatzen dira, atal ezberdinetan. Fabrikaren banaketari buruzko

plano zaharra hamar atal nagusi eta bigarren mailako beste zenbait ataletan banatzen zen. Horietan barneratzen ziren jarraian deskribatuko ditugun instalazioak.

A) Fabrikaren iparraldera atari nagusia (25 m²koa zen orduan) zegoen, ekoizpeneko instalazioak eta bulegoak zeuden zonaldean. **Halaber, alde horretan zeuden enpresara sartzeko zubia, presa eta hura eusteko hormatzarrak**; egur-ikatzezko bi labe garai eta hiru sitseko labe batzuk tximini eta guzti; pudelatzeko lau labe haien tximiniekin eta beste bi labe, materiala berotzekoak, haien hargintza eta aroztegi-obrekin.

Lantegi horien azalera osoa ez da zehazten. Dena den, enpresa zaharreko lantegi handienak ziren, inolako zalantzarik gabe. Ekarri ditugun argazki zaharretan bi labe garaidun dorreak bereizten dira oraindik, Sestaoko La Vizcaya eta Labe Garaietako fabriken irudi zaharretan ikusten direnen antzekoak.

Hori guztiori aurrerago errepasatuko dugu, XIX. mendearen amaiera aldera, data ezberdinetan ateratako hiru argazki lerrokatu horietan (228, 229 eta 230) agertzen diren xehetasunak deskribatzean. Argazki horietan xehetasun interesgarri asko ikus daitezke, normalean oharkabean alde egiten digutenak ezinbestean ezagutu beharreko bestelako erreferentzia batzuk izan ezean. Ikusten diren xehetasunak garrantzia handikoak direnez, atal oso bat eskainiko diogu hiru argazki horien azterketari.

B-C-D) "Ijezketa eta pudelaketarako" eraikinak, 1.016 m2ko azalera hartzen zutenak.

E) Egur-ikatza gordetzeko biltegia, 200 m²ko azalera zuena.

F-G) Birkonponketarako sutegia, 73 m²ko azalera zuena; halaber, ekialdera zegoen beste ataria (Lazkaibarreko trenbide-pasabide zaharra zegoen zonaldea), 27 m²koa. Era berean, teilape edo estalpen bat zegoen, hondakinak garbitzekoa. Azken horrek 284 m²ko azalera zuen, bertako komunak barne.

H) Aroztegiko lantegia, idazmahai eta guzti, 57 m²koa.

I) Makina putz-egilea, Labe Garaiak eta mea edo mineralak garbitzeko zonaldea hartzen zituen eraikina, 544 m²koa.

J) Burdinaren biltegia, 263 m²koa.

Orobat, lursail horren barnean "aisialdirako" zenbait lur barneratzen ziren, Beasaingo jurisdikzioan lekutuak. Lur-eremu horietan fabrikaz aparteko jardunak egiten ziren eta muga hauek zituzten:

Iparraldera, Oria ibaia; hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Perun bizi zen Manuel Sixto Lasaren lurrak; mendebaldera, Fabrikaren baitako lur gehiago. Lur-eremu horien azalera 8.650 m²koa zen eta 21.625 errealeko balioa zuten. Hain zuzen, lur horietan gauzatu zen Goitia y Compañía enpresaren lehen handitze garrantzitsua, 229. eta 230. irudiak deskribatzean ikusiko dugunez.

Aurrerago ikusiko dugun eran, osoa erraza da fabrikaz aparteko jarduna zuten "aisialdirako" lur horiek kokatzea, izan ere, 6. sektoreko plano orokorren E hizkiaren gainean ikusten diren lurrak dira aipagai ditugunak. Aipatu hizkiarekin, era berean, Fabrikara sartzeko bide zahar eta interesgarri bat adierazten da.

Honatx "aisialdiko" izendatzen zen beste lursailaren mugak:

Iparraldera, Oria ibaia eta Fabrikako Zentralera bideratzen zen hartako ibilgua (elektrizitatea sortzeko kanal zaharra); hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Fabrika bera; mendebaldera, Fabrikaren baitako lur gehiago, Lazkaoko jurisdikzioan kokatzen zirenak eta 525,84 m2ko azalera zutenak. Azken lur-eremu horiek zuhaiztiz beteta zeuden eta, horiez gain, baziren zenbait ezponda. Haien balioa 8.943 errealekoa zen.

Fabrikaren beste muturrean gaude, haren mendebaldeko mugan, hain justu, 6. sektoreko plano orokorrean eta 6b plano-zatian O hizkiarekin adierazi dugun ibai ondoko makaldia dagoen lekuan. Dena den, kasu honetan haren azalera berriro aldatuta ageri zaigu.

Erraza da aisialdirako modura ezagutzen zen beste lur-eremu hori kokatzea, izan ere, aipatu planoan trenbideari dagozkion 15 eta 16 zenbakidun kilometro-harrien gainean lekutzen den lursaila zatekeen hura. Gaur egun, txalet zaharrak eta guztiok CAF enpresan ezagutu dugun ostatua hartzen zituen gunea litzateke hura, hots, errekaren alboko pasealekua, non beranduago trenbidearen azpitik lurpeko pasabidea eraiki baitzen. Pasabide horren bidez aipagai dugun zonaldeak eta Senperen kokatutako lurrek bat egiten zuten.

Bazen biltegi modura erabiltzen zen beste lursail bat, muga hauek zituena:

Iparraldera, Errege Bidea (Ordizia-Irun errepide nagusia); hegoaldera, Oria ibaia; ekialdera, Fabrikarako sarrera ("Ezkiaga" auzoko ate nagusia); mendebaldera, ibaira jaisten zen bidea. Onibar horrek 810 m²ko azalera zuen eta garai hartan 698 errealeko balioa. Mendebaldera **"ibaira jaisteko bide"** gisa deskribatu dugun hori, antzina inguruko baserrietako animaliak ibaira eramateko ohiko bide modura erabiltzen zen. Guardia Zibilaren antzinako kuartelaren parean, ibaiaren eta pasealekuaren artean osatzen zen bihurgune zabal horretan, hots, **ibaira jaisteko bideak eta ibaiak bat egiten zuten lekuan**, halaber, elkarguneko zonalde horretan tarteka erabili ziren bi ontziak aparkatu ohi ziren (XX. mendearen hastapenean).

Lurrazalera horretako zati handi batean finkatu ziren XX. mendearen hastapenean Ezkiaga auzoko lan-







gileen etxeak, ibaiaren alboko pasealekua, etab. Eustorma berrien eta bertan ezarritako baranden "erruz", ibaiari zenbait lur "lapurtzeaz" aparte, ibaira sartzeko bide hori desagertu egin zen. Hori guztiori behar bezala ulertzeko gure burua garai hartan kokatzeko ahalegina egin behar da, modu horretan, errepide nagusia lehen aldiz XIX. mendearen bigarren erdialdera asfaltatu zela gogoratzeko. Ezkiagako zonalde horretan eustormak eta espaloiak 1915-1919 bitartean gauzatu ziren.

231. irudian gezi zuri batez adierazi dugu antzinako presa zegoen lekua, non oraindik Guardia Zibilaren kuartel zaharra ikus daitekeen (1914an bertan finkatua) eta baita egun botatzear diren Olaran enpresaren zati bat ere. Irudi horretan presak hartzen zuen altuera jadanik beheratua ageri zaigula ikus dezakegu, jatorrizko presak hartzen zuen altuerarekin erkatzen badugu. 231a argazkia nahikoa berria da eta bertan erreparatuz urak zonalde horretan zer-nolako sakonera izango zuen irudika dezakegu, dikeak lau metroko altuera gainditzen zuelarik. Aurrez bi errekek bat egiten zuten gunea ikusi dugu, bada presa errekagurutze horretatik 120 metrora lekutzen zen.

Honatx Fabrikari elektrizitatea ematen zion ibilgu edo kanalaren mugak:

Iparralde eta mendebaldera, Oria ibaia; hegoaldera, "aisialdirako" lur horiek eta burdinaren biltegia; ekialdera, dokumentuetan "burdin lantegi" modura agertzen den eraikina. Orobat, badakigu 1866an kanal horrek zein dimentsio zuen, izan ere, badakigu Argin-

darraren Zentraleraino 244 metroko luzera zuela, ibilguaren batez besteko zabalera 4 metrokoa zela eta 896 m2ko azalera gainetik igarotzen zela. Haren balio, garai hartan (kanalean eta presako kontrahormetan egindako hargintza-lanak barne) 8.064 beloi-errealekoa zen.

Datu horiekin eta beste dokumentu batzuetatik ateratakoekin, nahikoa zehaztasunez koka daiteke ekoizpen-multzo handi hau. Halaber, idatzi batzuetan irakurri dugunez, 1866an hauek ziren **"fabrika osoaren"** mugak: **Iparraldera, Oria ibaia; hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Manuel Sixto Lasaren jabetzak; mendebaldera, Fabrikaren baitako aisialdirako lurrak.** Lursail horien artean, berebat, Agauntza errekaren gainean eraikitako burdinazko zubiraino iristen zen makaldia ere barneratzen zen. Beranduago, errekaren alboko txalet-zonalde ezaguna eta Fabrika berriaren ostatua lekutuko lirateke hor, aurrez esan bezala.

Goitia y Compañía enpresaren balioa, deskribatu ditugun instalazio guztiekin, 4.046.370 erreal eta 87 zentimokoa zen 1866ko maiatzaren 7an. Sei urteko ibilbidea egin ostean, hurrengo sei urteetan enpresa gidatuko duten Estatutuak deskribatzen dira dokumentuaren amaieran. Horrez gain, ordutik Sozietatea zuzentzeaz arduratuko diren kargu berriak aipatzen dira. Enpresako Estatutu eta kargu horiek 1866ko maiatzaren 7an erregistratu ziren. Abiatu berri zen seiurteko horrekin hirugarren karlistaldiraino iritsiko gara, zoritxarrez 1877an gatazka amaitu arte ekoizpena geldiarazi zuen gertakizun iluna.

Ikus dezagun orain 1867an atari nagusiaren gainean kokatuta zeuden Fabrikako etxe horietan eta Fabrikako etxean bertan bizi zirenen zerrenda.

Atari nagusiko etxebizitzak artean ez zuen Beasaingo udalerriak esleitutako zenbakirik eta hauek ziren bertako egoileak: Juan Tolosa eta Maria Josefa Beraza senar-emazteak eta haien semeak, Vicente eta Guillermo Tolosa Beraza. "Burdin Fabrika" izendatutako etxean hauek bizi ziren orduan: Carlos Hickman eta Juana Olaran senar-emazteak eta haien semea, Carlos Hickman Olaran. Horiekin batera bizi zelarik Micaela Arizmendi neskamea. Hain zuzen, gizon hori zen Fabrikako Zuzendari Tekniko berria.

FABRIKAREN IRUDI ZAHARRAK

EKOIZPENERAKO LANTEGI ZAHARRAK.- Aurrez 228, 229 eta 230 irudiak erakutsi ditugu bate bestearen azpian paratuta, haien arteko erkaketa egin ahal izateko. Irudi horiek sarritan argitaratu dira bertsio grafiko ezberdinak erabiliz. Nolanahi ere, ez dugu uste argazkien urteak abiapuntutzat hartuz haietan agertzen diren erreferentzia ugariak aztertu direnik, izan ere, "Fabrika Handiko" argitalpen zahar batean argazki-oin bakoitzean agertzen diren datei kasu eginez, ohatuko gara oso lagungarri zaizkigula adierazten ari garena ulertu ahal izateko:

228. irudiari 1873ko data ematen zaio Fabrikako argitalpen horretan. Grabatu hori aski ezaguna da Beasainen, izan ere, Fabrikari buruzko zerbait idatzi duten guztiek baliatu dutela esango nuke. Enpresak Goitia y Compañía izena zuen ordurako eta, uste dugun moduan data hori zuzena bada, hirugarren karlistaldia hasi berria zen.

Irudi horretan Labe Garaietako bat ikus daiteke oraindik eta, baita bigarren ere ziur aski. Dena den, bigarren horren inguruan gure zalantzak ditugu, apur bat ezberdina baita beste irudi batzuetan ikusi dugun egiturarekin alderatuz. Bi gezi bertikal zuri nahiz AH1 eta AH2 ikurrekin adierazi ditugu, hurrenez hurren; izan ere, lehenengoa aurrez ikusi dugunaren (La Vizcaya S.A.ren baitakoa) berdin-berdina da.

Lehen planoan agertzen diren eraikinak Goitia y Compañía enpresak bertako langileentzat eraikitako etxeak dira. Trenbidearen eta Lazkao-Ataun errepidearen artean lekutzen ziren, 1997an eraitsitako trenbidepasabide zaharretik ehun metro eskasera. Ikusgai dugun grabatuan errepide hori ez da agertzen, baina trenbideak bai; errepidea azpialdean egongo litzateke, grabatu horren ikusangelutik at. Oso argi ikusten da artean trenbide bera erabiltzen zela bi noranzkoetan, izan ere, ibilbidean bi errail baino ez dira ikusten. Garai hartan, errail horiek burdinazkoak ziren, trenbidea inauguratu eta 20 urtera ordeztu baitziren altzairuzko errailekin. Halaber, trenbidea eta Goitia y Compañía fabrika hesi txiki batekin bereizten direla ikus daiteke. CO hizkiak erabiliz langileen etxeak adierazi ditugu, 229. eta 230. argazkietan bezalaxe.

CO hizkiekin adierazten diren langileen etxeak kokatzeko baliatu ziren lur horietako asko Francisco Goitia y Ostolazak hartu zizkion, Goitia y Compañía enpresaren izenean, Lazkaibartxiki baserriko jabeari 1876ko urriaren 11n. Modu horretan, enpresa trenbidearen hegoalderantz era hedatu zen pixkanaka. 6. sektore honetan ere esango dugu lurren eskualdatze horri buruzko zerbait, Burugorrineaundi eta txiki etxeei dagokien atalean. Lazkaibartxiki baserria, ordea, Lazkaibarreko zonaldeari dagokion 7. eta azken sektorean ikusiko dugu.

CL hizkiak baliatuz adierazi dugun eraikina da Fabrikako eraikuntza ezberdinak eta enpresa ezberdinen artean iraun duten erreferentzia zaharrak zehaztasunez kokatzeko ezinbestekoa izango zaigun eraikina. Eraikin hori askotan berreraiki izan da eta, gerora, CAF enpresako klinika finkatu zen bertan. 1873an soilik beheko solairuak eta lehen solairuak osatzen zuten haren egitura. Hori dela eta, aurrerago urteetan zehar jasan dituen aldaketak ikusiko ditugu, horretarako, hainbat irudi baliatuz.

Urteetan zehar Fabrika ezberdinetan ikusi ahal izan diren eraikuntza ugariak behar bezala erkatu eta kokatu nahi baditugu, eraikuntza hori da, hain zuzen, aztertu beharreko erreferentzia nagusietako bat. Leku berean mantendu izan da funtzio, konponketa eta berreraiketa anitz izanik. Dena den, oro har, jatorrizko egitura mantendu izan da. Beste eraikina, CL1 hizkiz adierazi duguna, atari nagusitik behatuz lehenengo ikusten zen txaleta izatera pasa zen S.E.C.M. enpresa iritsi zenean. Eraikin hori, beraz, barnealdeko pasealekuaren eta Oria ibaiaren hegoaldeko ertzean paratutako zentralerako kanalaren alboan zegoen.

Langileen etxeak, irudietan NCO hizkiekin adierazi ditugunak, ez dira, irudi lukeen moduan, 1991n eraitsi ziren "Ezkiaga" auzoko langileen etxeak, izan ere, azken horiek 1902an eraiki ziren. Ez dakiguna zera da, azken horiek irudian ikusten ditugun etxeetatik abiatuz berreraiki ote ziren. Haien gainean Y hizkiarekin adierazita ikusten dugun etxea, Ezkiabaso baserri zaharra da, artean Villafuerteko kondearen jabetzakoa.

229. irudia aurrekoa baino berantiarragoa da, baina 230. irudia baino zaharxeagoa; azken irudi horren oinean CAF enpresak 1894. urtea paratu zuen. Oraintxe aztergai duguna, beraz, bi irudien artean kokatzen da denboran, jarraian ikusiko dugunez. 230. irudia baino zaharxeagoa dela diogu (nahiz eta bere data zehaztasunez ez jakin), beste gauza batzuen artean, 229. argazki horretan artean zenbait tximini eta Labe Garaietako bat ikusten direlako. Labe garai hori AH1 hizkiz adierazi dugu, Goitia y Compañía enpresaren 228. grabatu zaharrean bezalaxe.

229. irudian, eskuinera, ordurako Maquinista Guipuzcoana zenaren ekialderantz pabilioi berriak eraiki zirela ikus daiteke, NT hizkiz adierazi ditugunak. Aldi berean, lehen sasoitik luzeetara eta oso altuera urriz eraikita zeuden teilape eta estalpen zaharrak jadanik desagertu egin zirela ikus daiteke; Goitia y



Compañía enpresaren 228. irudia hartuko dugu berriz ere, izan ere, bertan ezkerretik eskuinera aipatu teilapeak ikus daitezke sei puntutxo zuriz markatuta. 228. irudi zahar horretan ezin dira 229. eta 230. argazkietan ikusten diren hiru NT pabilioi berriak agertu, izan ere, 1892ko apirilaren 16an eraiki ziren Goitia y Compañía enpresa zaharraren gainean, hain zuzen, Maquinista Guipuzcoana zelako hori eraiki zenean. Dirudienez, pabilioi horietako bakoitzak 480 m2ko azalera zuen. Datu horiek aintzat hartuz, 229. irudia 1892-1894 bitartean koka dezakegu, ia ziurtasun osoz.

229. eta 230. irudietan NT hizkiekin adierazten diren pabilioi berriak eraikitzeko erabili ziren lurrak, arestian Fabrika zaharraren deskribapenean aipatu dugun ekialdeko "aisialdirako zonalde" hori lekutzeko erabilitako lur horiexek lirateke, 8.650 m²ko azalera zutenak. NT pabilioi berri horien eskuinera, era berean, bi geziz adierazitako zenbait teilape ikus daitezke. Teilape horiek Manuel Sixto Lasa "perutarraren" eta Maquinista Guipuzcoana enpresaren baitako lurren arteko bereizketa egiten zuten artean. 229. eta 230. irudietako azpialdeko zatian Lazkaibar-Lazkao errepidea ikus daiteke, 6. sektoreko plano orokorrean baliatu dugun H hizkiarekin adierazita.

228, 229 eta 230 irudietan CO hizkiak erabiliz adierazi dugun langileen etxe ziren horietaz ikus daitekeena. Irudi horretan Txintxurreta, Burugorrineaundi eta Burugorrineatxiki baserriak CO hizkiekin markatutako langileen etxeetatik oso ezkerrera kokatuko lirateke. Horrenbestez, hau izango litzateke etxe horien kokapena: Txinxurreta CO hizkiekin markatutako etxeen arteko txikienetik ezkerrera eginez ehun eta berrogeita hamar metrora kokatuko litzateke, Senperera bidean; Burugorriaundi eta txiki etxeak (azken hori 1862an eraiki baitzen) berriz, CO hizkiekin markatutako etxeen arteko txikienetik berrehun eta be-



rrogeita hamar metrora kokatuko litzateke, baina errepidearen eskuinera. Hiru etxe horiei dagozkien ataletan irudi eta erreferentzia zehatzekin emango dugu haiei buruzko ikuspegia eta azalpena.

229. irudian B hizkiarekin adierazi dugu Ezkiagaerdia baserria. Aldi berean, Lazkaibarri dagokion 7. sektorean deskribatuko dugun Ezkiagatxikia baserria puntu zuri batekin adierazi dugu irudi horretan. Halaber, trenbidea eta errepidea adierazteko 6. sektoreko plano orokor honetan erabili ditugun U eta H hizkiak erabiliko ditugu aipatu irudian ere. Modu horretan, argi geratzen da 229. eta 230. irudiak "La Maquinista Guipuzcoana" izeneko enpresa berriari buruzkoak direla jadanik.

230. irudia objektibo angeluhandia erabiliz atera dela dirudi, izan ere, eremu-sakonera handia erakusten du. Irudi horretan, ezkerrera, Y hizkiarekin adierazi dugu Ezkiabaso baserria; Ezkiagaerdia (Ezkierdi) B hizkiarekin markatu dugu. Orobat, argazkiaren azpialdean CO hizkiekin adierazitako langileen etxeetako bi ikusten dira. Alabaina, Goitia y Compañía enpresaren 228. grabatuko irudiarekin erkatuz, grabatuan bi etxeen artean ikusten zen eraikuntza luzexka desagertu egin dela asma daiteke. Etxe horiek guztiak CO hizkiekin adierazi ditugu.

"Klinika" izendatu dugun eraikina (hori baitzen gerora izan zuen funtzioa), CL hizkiekin adierazi duguna, 230. irudian ere agertzen da, baina jadanik birmoldaketa nabariak antzematen zaizkio eraikuntzan. Eraikin horri beste solairu bat gaineratu zaio. Horrez gain, eraikinaren eskuinaldean hartako sarrerako atari edo estalitako zonalde nahastezina izango denaren "aurrerapen" bat nabari da. 1910ean atari horrek jadanik itxura hori zuen 232. irudian gezi horizontal zuri txiki batekin adierazita ikus daitekeenez. 230. irudian C1 eta C2 hizkiekin adierazita agertzen diren bi etxeak hizki berdinekin markatuta ageri dira 232. irudi txikian. 239. irudi berriagoan ere hizki horiek erabili ditugu; azken horretan, ordea, itxura berri batekin ikus ditzakegu, urte asko igaro baitira.

Irudiaren erdipurdiko kalitatea dela-eta nahiko lauso ikusten bada ere, 232. argazkian Txintxurreta baserri zaharra azaleratzen ikus dezakegu, TX hizkiz adierazita. Lehenago esan dugun moduan, apur bat aurrerago erreferentzia zehatzekin adieraziko dugu Txintxurreta eta Burugorrinea baserri bien kokapena. Horrela egingo dugu, izan ere, modu horretan argi geratuko da 228, 229 eta 230 irudietan CO hizkiz adierazitako langileen etxeak ezin direla izan, zenbaitek ziurtatzen duen moduan, Burugorri aundi eta txiki baserriak, behin horiek Fabrikako langileak hartzeko alokairuzko etxe bilakatuta.

232. irudian Klinikari buruz ikus dezakegun erreferentziak, atzean paratutako Bandaje-lantegi berriaren parean, Goitia y Cia enpresak eraikitako langileen etxadi nagusiaren kokapen zehatza adierazten digu, hain zuzen, 228. eta 230. irudietan CO hizkiz adierazi dugun lekuan. Langileen etxe horren kokapena lauki zuri batekin adierazi dugu 233. irudian, 1905ean eraikitako Bandaje-lantegiari eta klinikari buruz ditugun irudi ugarien erreferentziak baliatuz. Bi eraikin horiek CO eta CL hizkiekin adierazi ditugu berriro 233. irudian, aurreko argazkietan bezalaxe. Lazkaora egiten duen errepidea eta trenbidea ere aurreko hizkiak baliatuz markatu ditugu, hau da, H eta U hizkiak paratuta.

LANTEGI ZAHARREN BARNEAN.- Euskal Herrian 1841. urtean hasi ziren lanean egur-ikatzezko lehen Labe Garaiak. Gipuzkoako lehena, hogeita bat urte beranduago, 1862an, hasi zen jardunean Beasainen eta, ziur aski, 1873ko 228. grabatuan AH1 eta AH2 hizkiekin adierazita ikusten ditugun horietako bat izango zen.

Altzairua lortzeko hurrengo prozedurak, Labe Garaietan lortzen ziren karbono ugaridun lingoteetatik abiatuz, edo txatarra lehengai modura hartuta, ez ziren oso berantiarrak izan; eta, jakina, Beasaingo Fabrikak ere ezin zien berrikuntza horiei muzin egin. Ikus ditzagun orain XX. mendearen lehen hamarkadako hiru argazki-postal zahar, S.E.C.M. enpresak editatuak. Horietan altzairua lortzeko lehen labeak ikus daitezke, kasu horretan Fabrikak merkaturatzen zituen produktuetan aplikatzeko, forja, ijezketa eta galdaketa bidez lortua.

XIX. mendearen azken laurdenean enpresan jadanik Bessemer bihurgailua erabiltzen hasi ziren, 234. irudi-postalean ikusten dena. Kubiloteetako altzairuak eta, agian, Bessemer labekoak ura eroateko ho-

dien moldeak betetzeko erabili ziren (horietako zenbait oraindik erabiltzen dira eskualdean); halaber, altzairu horiek, besteak beste, iturrietan, erretenen babesetan, Goitia y Compañía enpresa zaharrari halako ospea eman zien burdin sareetako urasketan edota Zaragozako "Ambos Mundos" kafetegi erraldoiaren zutabe artistikoetan erabili ziren. 234. irudian gezi horizontal batekin adierazi ditugu Bessemer labe horiek. 234a irudian, berriz, aipatu kafetegiaren barrualdea ikusten da, Goitia y Compañía enpresan fabrikatutako burdinurtuzko 27 zutabe artistikoz sostengatua. Horiek izango lirateke Fabrikan altzairua lortzeko erabilitako lehen labeak, izan ere, jarraian deskribatuko ditugunak berantiarragoak dira.

Txatarretik abiatuz altzairua lortzeko metodo berria Martin Siemens izeneko sistema da. Fabrikan sistema horrekin ezarritako lehen labeak galdaketa bakoitzeko 16 tonako gaitasuna zuen eta cock erako ikatza erabiliz fusio-erregaia lortzeko sistema "berritzaile" bat eskaintzen zuen, "gasogeno" metodo izenekoa. S.E.C.M. enpresan XX. mendearen lehen hamarkadaren hondar urteetan hasi ziren labe hori erabiltzen, 235. irudian ikus daitekeen eran. 1933an, aurreko labea txiki eta zaharkituta geratu zenez, beste Siemens labe bat ezarri zen, galdaketa bakoitzeko 35 tonako gaitasuna zuena.

"Bagoi Fabrikan" ezarritako azken eredua elektrodo bidezko Labe Elektrikoa izan zen. Espezialitate hori XX. mendearen bigarren hamarkadako hastapen urteetan ezarri zen S.E.C.M. enpresako Fundizio modernoan. 236. argazki-postalean lantegi horietan 2 tonako labe elektriko zahar bat ikus daiteke. Haren egitura zola eta kupulazkoa zen eta artean errematxe bidez mihiztatua zegoen, izan ere, artean soldadura ez zen erabiltzen.

Altzairua lortzeko modalitate ezberdinen ezarpen horrek badu bere logika denboran, izan ere, sistema zaharrena Bessemer labea da, 1855-1856 inguruan asmatu zena. Erabili zen bigarren modalitate zaharrena Martin Siemens labea izan zen, 1860-1865 bitartean erabiltzen hasi zena, Bizkaiko Labe Garaiena izan zelarik Euskal Herrian sistema hori erabiltzen lehen enpresa, izan ere, 1889. urtean sistema horren bidezko lehen galdaketa atera zuen.



Energia nahikoa ez zegoenez prozesua ezin zen geldiarazi eta, agian energia elektrikoa halako berme batez lortzeko zailtasunak eragin zuen hemen altzairua lortzeko elektrodo bidezko Labe Elektrikoa nahikoa berandu erabiltzea. Nolanahi ere, sistema hori baliatuz Euskal Herrian proba modura egin ziren lehen galdaketak 1878-1879 bitartekoak dira.

GARAI HARTAN ZONALDEAN ZEGOENA

Ehun urte igarota Fabrikari dagokion 6. sektoreko lurrazalera handi hori airez ikusten ari gara. 1860an gauza bera egin ahal izan balitz, ikusiko genuke gure oinezko ibiltariek soilik eraikuntza hauek ikusiko zituztela:

Senperen **Igeldegi** baserria atzean utzi ostean, Lazkaibar aldera egiten zuen bidearen eskuinera, **Burugorriaundi** baserria ikusiko lukete berehala, ezkerraldera behatuz. Baserri hori zehaztasunez kokatze aldera, apur bat aurrerago paratuko dugu, errepide horren altzoan. Burugorrinea igaro eta ehun metro eskasera, Lazkaibar aldera jarraituz, **Txintxurreta** baserria kokatuko litzateke bidearen eskuinera so eginez. Dena den, baserri hori ez zegoen bidearen altzoan, baizik eta Galardi mendi-mazela aldera, 50/60 metroko distantzian. Baserrirako sarbide nagusia Lazkao-Lazkaibar bidetik adarkatzen zen bide zabal batetik urratzen zen. Dena den, Lazkaibar auzotik eta baserriaren atzealdetik, urte horietan bazen beste bide zahar bat, Senpereko zonaldera egiten zuena.





XX. mendearen lehen laurdenean ateratako 237. plano linealean hobeto ikusten da hura. Ordurako, etxe hori Fabrikako instalazioek inguratzen zuten alde guztietatik. Plano horretan bikain marraztuta dago errepidetik baserriko sarbidera abiatzen zen bidea. 6d plano-zatian ere oso ongi ikusten da bi etxe horien kokapena, beste angelu batetik so. 6d eta 237 planoetan G eta F hizkiekin adierazi ditugu hurrenez hurren Txintxurreta eta Burugorrinea aundi baserriak. 6d eta 237 planoetan agertzen diren lerro marroien bidez, edo 238. irudian P hizkiarekin adierazten den puntudun lerroaren bidez Lazkao eta Beasaingo jurisdikzioak bereizten dira.

Halaber, 1962an ateratako airetiko 239. irudia (nahiko berria) ekarri dugu hona, hots, 1862an trenbideari dagozkion planoak taxutu eta ehun urtera aterea. Bertan Txintxurreta eta Burugorrineaundi baserrien nahiz Goitia y Compañía enpresako langileen etxe handiaren (azken hori 233. irudian CO hizkiz adierazten da) antzinako kokapenak adierazi ditugu lauki zuri batez. Hori guztiori berehala ikusiko dugu, Burugorri aundi baserri hori deskribatzean, dagokion atalean.

Eraikuntzak beti hizki berdinekin adierazi dira irudi guztietan. 1862an 6. sektore honetan ez zegoen egoiledun beste eraikuntzarik Oria ibaiaren hegoaldeko ertzean Lazkaibar txiki baserrira iritsi arte. Arestian aipatutako galtzada hartuz, baserri hori Txintxurreta baserriaren alde berean lekutzen zen, Lazkaibarreko trenbide-pasabidearen alboan. Burugorrinea txiki eraikina (Andaluza enea ezizenez ere ezagutzen zena eta 1862an eraiki zena) Burugorri aundi baserriaren ondoan zegoen, galtzadaren beste aldean, hau da, Txintxurreta baserriaren beste aldean.

6. sektore honen barruan, baina Oria ibaiaren iparraldeko ertzean, Beasain-Ordizia galtzadaren ezkerrera, Frantziarako norabidean, bi baserri baino ez genituzke ikusiko: Ezkiagabasoa edo Ezkiabaso eta Ezkiagaerdikoa, izan ere, Ezkiagatxikia (Ezkia galtzada edo Ezkiagaberria izenez ere ezagutzen zena) eta Mariaratz 7. sektoreko plano orokorraren barruan deskribatuko ditugu, Lazkaibar auzoaren barruan lekutzen ziren eraikin artean, Oria ibaiaren bi aldeetara.





1862an Ezkiagako goi zonaldearen inguruko deskribapen onenak 240 eta 288a irudietakoak dira (azken hori 7. sektorean ikusiko dugu), biak ere 1862. urtetik ehun urtera atereak. Irudi horietan, ezkerrera, azpialdean Ezkiaga basoa etxea (Ezkiabaso edo Ezkiabasokoa) ikusten da, artean bakarturik. Haren inguruan larre izurtu zenbait ikusten dira inolako eraikuntzarik gabe. Eremu hori, gaur egun, Goierriko sustatzaile guztien "desiragarri" izango litzateke zalantzarik gabe. 288a irudian beren izenak Ezkiaga izeneko eremu horretatik hartu zituzten hiru baserriak ikus daitezke: Ezkiabaso, Ezkierdi eta Ezkiatxiki; hirurak puntu zuriz adierazita.

240. argazkian oso ongi ikusten da eraikin gabe azaltzen den Usurbe mendiaren atzealdeko mendialdea (oro har Murua izenez ere ezagutzen dena). Dena den, argazki horretan hamabi baserri antzeman daitezke:

1-Ezkiabaso; 2-Letemendi; 3-Murugoena; 4-Arteta; 5, 6, 7 eta 8 Saletxe, Zelaieder, Loitzenea eta Ferminenea baserriek osatutako multzoa; 9-Bideaurre; 10-Usoiturrieta, egun aurri egoera dagoena; 11-Erauskinzar; eta, 12. zenbakiarekin "Santu egilearen" San Andres baserria, izen bereko ermitaren aldamenean. Trenbidearen planoak taxutu eta mende batera ateratako irudi eder horretan paisaia hori bikain ikus daiteke, XXI. mendearen gaudelarik hura gordetzeko dugun euskarri bakarra erabiliz jasoa, hots, argazki bidez. Egun irudi bera leku beretik jasoko bagenu, lehen "Ezkiaga" (Ezkien gune) izendatzen zena egun "Etxeaga" litzateke, izen hori burla-haizez erabilita, izan ere, leku hori oso gaizki antolatu eta tratatu da. Irudi zaharrean ikusten den belar pikor bakoitzaren errentagarritasunari baino ez baitzaio begiratu.

1862an, XIX. mendeko bidaiariek 6. sektore honetako behe zonaldetik paseatzen zutelarik, honako lau baserriak baino ez zituzten ikusiko: Oria ibaiaren iparraldeko ertzean Ezkiabaso eta Ezkierdi; eta, hegoaldeko ertzean Burugorrineaundi eta Txintxurreta. 7. sektorean azalduko zaizkigu Ezkiatxiki eta Mariaratz, eta baita Lazkaibarreko zonaldean lekututako beste baserriak ere. Segidan xehetasunez deskribatuko ditugu.

Zein txiki, luze eta sakabanatua zen gure herria garai hartan! Nork esango luke, 150 urte igaro diren honetan!

LAZKAO ETA BEASAIN ARTEKO ERDIBIDEAN

BURUGORRINEA, Burugorriaundi baserri zaharri buruz, gutxienez, 1673az geroztik ageri dira idatzizko erreferentziak. Etxea Lazkaibar aldera zihoan errepidearen ezkerreko ertzean zegoen eta 400 m²ko azalera eraikia zuen. Hori izango zen gure bidaiariek Senpereko 5. sektoretik Lazkaibar aldera bidetik jaitsiz ikusiko zuten lehen baserria.

6. sektoreko plano orokorrean F hizkiarekin bikain kokatuta ikus daiteke, eta baita 237. irudian ere. Burugorrinea aundi baserriaren antzinako kokapena 239. argazkian ere 3 zenbakiarekin adierazten da, argazkian bertan zuriz ertzaturik. Eta ikuspegi horrekin, badugu eraketarako beste erreferentziarik, aurrerago pixkanaka azalduko dugun moduan.

Arestian F.H.S.M. enpresa zer-nolakoa zen, Fabrika zein lurretan finkatu zen eta hartako sortzaileak nor izan ziren ikusi dugu eta, aldi berean, hartako akziodunetako baten profil txiki bat deskribatu dugu. Orain, bertako hirugarren bazkide eta lehen Gerente izan zenaren txanda da, hots, Beasaingo Burugorri aundi baserriaren jabe zenaren txanda.

Burugorriena baserriaren historia ere hasi zuen pertsona hori buruzko sarrera gisa, lehenik eta behin Jose Francisco Arana Echeverria baserri horretan jaio zela esan behar da, Beasain eta Lazkao artean, erdibidean, kokatzen zena ia. 241. irudian aipatu pertsonaren garaiko erretratu bat ikus daiteke. Ezkontza-hitzarmena 1842ko ekainaren 2an sinatu zuen Itxasoko herrian, Manuel Unsain beasaindarra izan zelarik lekuko.



Itxason jaiotako Micaela Ignacia Arreguirekin ezkontzeko izan zen aipatu hitzarmena. Ezkonberriaren aita Juan Martin Arana zen, urte horietan Burugorrinea baserrian bizi zena, zeinak adinez txikiko beste hiru seme-alaba izan zituen bere emazte bakarrarekin: Jose Maria, Maria Micaela eta Francisca Antonia Arana Echeverria. Juan Martin Arana aitak 500 beloi-erreal ordaindu zizkien adinez txikiko seme-alaba horietako bakoitzari eta seme zaharrena, Jose Francisco Arana, izendatu zuen bere ondasun guztien oinordeko modura. Maiorazkoari ere bere aberastasun eta errenten erdia laga zion.

Ia bederatzi urte beranduago, 1851ko urtarrilaren 17an Jose Francisco Aranak Burugorrinea baserriaren jabetza osoa eskuratu zuen, izan ere, urte hartan Ramon Mendizabal Azkueren alarguna zen Bernarda Garmendiari (ordurako Tolosa inguruko Ibarran bizi zena) zegokion zatia erosi zion. Gogoan izan behar da, XIX. mendearen bigarren erdiaren hastapenean baserri horren hiru herenak Arana familiaren baitakoak zirela, baina artean laurden bat Bernarda Garmendiarena zen, etxearen parean kokatutako 6,5 ondoko edukiera zuen lursail batekin batera. Jose Francisco Aranak 6.000 erreal eta 17 marabedi ordainduta erosi zuen zati hori, modu horretan, etxe osoa bere baitan geratu zelarik. Hor hasi zen bere ibilbidea Euskal Herrira iritsi berria zen "Lehen Industria Iraultza" berantiarrean barna, izan ere, soilik bederatzi urte beranduago F.H.S.M. enpresa berria eratu zuen Goitia eta Usabiaga bazkideekin Beasaingo Urbietan.

5. sektorea azaletik irakurri dutenentzat, komeni da gogoratzea Bernarda Garmendia Ibarra-Tolosan bizi arren eta Burugorrinea baserri horretan laurden bat baino ez bazuen ere, Senpere auzoko jabedun nagusia zela, izan ere, bereak ziren Senpereaundi, Senperetxiki, Senpereberri, Teileria zaharra (gerora Behitegi edo Esnetegi) eta Igeldegi baserria. Aipatu eraikin horiek guztiak Senperen lekutzen ziren, Lazkaoko jurisdikzio barruan.

Baina utz dezagun alde batera hori guztiori, esan bezala, aurrez eman baitugu haren berri. Eta gatoz berriz ere hemen aipagai genuen auzira, izan ere, XIX. mendearen erdialdeko zenbait dokumentutan jabedun, industrialari eta merkatari gisa deskribatzen zuten Jose Francisco Arana; azken bi ogibide horien barruan, merkantzia eta pertsonen garraioan aritzen zen, horrekin lotutako guztiarekin, izan ere, zenbait dilijentzia ere bazituen eta, horrez gain, zalgurdiak alokatzen zituen.

Artean Burugorriaundi baserrian bizi zen, garai hartan Beasaingo Ekialdeko Zatiko 8. zenbakia zuena. Dena den, 1853. urtera arte bizi izan zen bertan, urte hartan bukatu baitzituen Aranberriazpikoa etxe berria eraikitzeko lanak. Etxe eder hori Beasaingo Udaletxe zaharraren atzealdean lekutzen zen, Autoen Errepide Nagusiaren ondoan. Ikus aipatu etxea 242. argazkian, zeina 1977an etxea eraitsi baino bost urte lehenago atera zen.

Ikus dezagun orain Burugorrinea eta hartako etxaguntzek 1862an zuten itxura. Haren egiturari buruz dakigun bakarra harlangaitza erabiliz eraikia eta teilaz estalia zegoela da. Urte horietan beheko solairua, solairu nagusia eta ganbara zituen 400 m2ko azalera eraiki gainean. Etxearen balioa 28.000 beloi-errealekoa zen, hartako etxaguntzak barne.

Eraikinaren orduko mugak oso argigarriak dira bere kokapen zehatza ezagutzeko:

> *Iparralde, ekialde eta mendebaldera hartako etxaguntzak eta hegoaldera Errege Bidea* ***(horrek guztiorrek baserria Lazkaibartik Lazkaora zihoan galtzada ukituz lekutzen zela adierazten du argi eta garbi, 1862ko planoan adierazten den moduan).***

1851n lortu zuen Jose Francisco Aranak Burugorrienea baserriaren jabetza osoa. Urte hartan errepidea eta Lazkaibarreko zubi zaharra (2003an eraitsi zutena) artean eraikitzeke zeuden, izan ere, haiek eraikitzeko lanak 1854an abiatu ziren. Hori dela eta, Lazkaibar-Senpere errepidea Errege Bide modura aipatzen zen artean. Garai hartan Locker bidaiariak 1813an **"puente de forma pintoresca"** (forma bitxiko zubia) modura deskribatu zuen zubia lekutzen zen inguru horretan, zeina Lazkaibarri dagokion 7. sektorean ongi marraztuta ikusiko dugun.

Orain, ordea, 1862an kokatuko gara, urte hartan sinatu baitziren gure ibiltariak jarraitzen ari diren trenbideko planoak. Garai hartan baserria Beasaingo lurraldean zegoela ikus dezakegu, aurrerago ikusiko dugunez, baina Lazkaoko jurisdikzioan ere baziren hartako zenbait lursail. Horien artean 1.752 m²ko azalera zuen bat, 4.349 beloi-erreal balio zuena eta izen zehatzik ez zuena.

Halaber, Lazkaoko barrutian zegoen arestian aipatu dugun makaldia, 828 m²ko azalera hartzen zuena. Haren mugei erreparatuz ere oso ongi koka dezakegu eremu hori:

Iparraldera, Agauntza erreka; hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Goitia y Cia enpresako lurrak; mendebaldera, aurrez Lazkaoko jurisdikzio barruan aipatu dugun 1.752 m²ko lur-eremua; horrek, era berean, zera adierazten digu, beste onibar hori segidan lekutzen zela, Agauntza errekako hegoaldeko ertz horretan bertan, trena igarotzeko burdinazko zubiaren ondoren, hots, gutxi gorabehera egun CAF enpresako pilotaleku estalia eta igerilekua dauden zonaldean.

Halaber, apur bat gehiago kostatzen bada ere, ongi koka daitezke jarraian izendatuko ditugun lur-eremu hauek: **Soroaundia**, 5.920 errealeko balioa zuena eta muga hauek:

Iparraldera, Oria ibaia; hegoaldera, trenbidea; ekialdera, Francisco Aranaren beste lursail bat; mendebaldera, Goitia y Compañía fabrika.

Sagastia izeneko beste bat, 2.964 errealeko balioa zuena eta muga hauek:

Iparraldera, Mendizabal Azkueren alargunaren jabetza bat (Senpere aundi baserriko Bernarda Garmendiaz ari gara); hegoaldera, orduan Ordiziako Gazteluzar jauretxearen jabea zen Pedro Bahamonderen onibarrak; ekialdera, Mendizabal Azkueren alargunak zituen lur gehiago; mendebaldeko mugak ez dira aipatzen, ziurrenik zegokion izkribu-kopiatzaileari ahaztu egin zitzaiolako. Azken onibar horrek 1.281 m²ko sagasti eder bat eta 5.610 m²ko txaraka barneratzen zituen. Onibar horren balioari buruz ere ez da deus aipatzen.

Badakigu, orobat, zonalde horretan beste bost lursail zeudela Burugorrinea baserriaren baitan. Dena den, haien izenak baino ez ditugu emango, deskribapenetan luzatu gabe. 1866ko urtarrilaren 22an horrela izendatzen ziren: **Jozategi, Lapitza, Agioaldea, Koetaburua eta Trikutxeta**. Lursail guztien artean ia 50.000 m²ko azalera hartzen zuten. Etxearen balioa 28.000 beloi-errealekoa zen 1866an, hartako etxaguntzak barne.

Orain Goitinetxeberri eta Burugorrienea baserrietako ondasunen arteko aldea ikusiko dugu azaletik. Gogoan izan bi baserri horiek F.H.S.M. enpresako bi bazkideenak zirela. Lehenengoa Domingo Goitia Sarriegiren baitakoa zen eta hemen deskribatzen ari garena Jose Francisco Arana Echeverriaren baitakoa. Goitinetxeberri baserriko ondasuna 15.000 beloi-dukatekoa zen gutxi gorabehera (165.000 erreal). Burugorrinea baserriko ondasunak soilik 28.000 beloi-errealetan balioesten ziren, hartako etxaguntza guztiak barne. Argi dago Burdinolen negozioak urte oparoak izan zituela Goitia sendiarentzat, etxearen ondasuna nabarmen areagotu baitzen.

Hori, era berean, anai-arrebei zegozkien seniparteetan ere islatzen da, izan ere, baserriarekiko loturatik at geratu ziren Goitia lau anai-arrebetako bakoitzak 3.000 dukat jaso zituen (33.000 beloi-erreal) eta Arana

anai-arrebetako bakoitzak 500 beloi-erreal baino ez zituen jaso. Hori guztiori, Goitinetxeberri baserria urrunago egon eta lursail txarragoak izan arren, izan ere, Mariaratz izeneko amildegi horretako ekialdeko isurialdean lekutzen zen bete-betean. Burugorrienea, ordea, errekaren ondoan zegoen, haraneko zatirik beheratuenean, laborantza-lur onenez inguraturik, zonaldeko ibar lau eta emankorrenean.

Jose Francisco Arana trenbideak eskaintzen zuen abagunea merkataritza salerosketak arrakastaz egiteko probestu zuten "industrialari eta merkatarietako bat" (halaxe izendatzen zuen bere burua) izan zen; izan ere, beste lan batzuen artean, era guztietako merkantzien garraioan aritzen zen. 1883ko ekainaren 29an hil zen 76 urte zituela. Haren emaztea, berriz, Micaela Arregui 1897ko martxoaren 14an hil zen Zumarragan, bere alabetako baten etxean (ez dakigu noren etxean zehazki, izan ere, bestea Erauskin auzoko Ferminenea baserrian bizi zen, orduan Jose Francisco Aranarena baita ere), 80 urte zituela.

Garai hartan ohikoa zen moduan, andre hori hil zenean ez zuen bere jabetzak egiaztatzen zituen titulurik. Hori dela eta, beranduago Beasaingo hainbat pertsonek lekuko modura deklaratu behar izan zuten. Kasu horretan Jose Antonio Goya, errementaria, eta Jose Maria Aldanondo izan ziren lekukoak. Bestalde, Narciso Crehuet, Juan Maria Lasa eta Jose Domingo Mugica izan ziren Beasaingo alkate, errejidore eta idazkari modura jardun zutenak.

Aipatu gizonek sortutako kontribuzio guztiak garaiz ordaindu zirela egiaztatu zuten. Horrenbestez, eta Beasaingo Epaitegiak legeak halakoetan eskatzen zituen jardunbide guztiak bete zirela onartu ostean, aldeko autoa ebatzi zen. Modu horretan, azkenik, Jose Martin Arana Arregi semeak aurreko lerroaldeetan aipatu ditugun jabetza guztiak erregistratu ahal izan zituen.

Gizartean atsekabea eta asaldura ziren nagusi garai hartan. Espainiako azkeneko kolonietan hainbat arazo sortzen ari ziren eta itsasoz harainditik asko herrira itzultzen ari ziren aberastuta. Horren ondorioz jende asko sorlekura itzuli zen eta atzerrian pilatutako aberastasunarekin inbertsio handiak gauzatu zituzten. Euskal Herrian gauza bera gertatu zen, izan ere, "indiano aberats" asko kapital askorekin itzuli ziren. Horietako zenbaitek pixkanaka sortuz zihoazen industrietan inbertitu zuen. Bestalde, maiorazkoak baliogabetu egin ziren garaitsu horretan eta horrek ere aurreko egoera bizkortu egin zuen, izan ere, jabetza handi horietako asko saldu egin zitezkeenez, kapitalmugimendu horiei esker, azaleratzen ari zen industria berantiarrean inbertsioak egin zitezkeen.

Berebat, 1877an azken karlistaldia amaitu zenez, gizarteko zati batek eskatzen zuen giro liberal berria arnasten zen. Klase nagusi berria ari zen loratzen, Euskal Herriko Industriaren Goi Burgesia, alegia. Klase edo sektore horrek aberastasun izugarria pilatu zuen industrializazioaren lehen aroan. Hori zela kausa, indar eta aginte geldiezina bereganatu zuten. Azaleratzen ari zen klase berriaren bultzadaren aurrean (beren industrietan sortzen zuten diruarekin edozer eros baitzezaketen), garai berrietara egokitzen asmatu ez zuen aristokrazia ahultzen ari zen apurka. Hala ere, aristokrazia horretako alderdi batek garai berrietara egokitzen asmatu zuen. Horrenbestez, industria-iraultza berantiarraren gerizpean sortzen ari zen industrian inbertitu zuten (horietako askok, hain zuzen, aipatu maiorazkoak saldu ostean). Umore tanto batez idatzitako dokumentu batean zera irakur daiteke:

> *"…Algunos de ellos sabrán pasar con **matrícula** de simples rentistas, alquiladores de propiedades, caserías, ferrerías y molinos durante siglos, a la administración y gestión de las nuevas industrias que están emergiendo…"*

Lehenago esan dugun eran, 1862an Jose Francisco Arana jadanik ez zen Burugorrinea baserrian bizi. Eta erreskadan Zentsu eta Fidantzen zerrenda luze bat emango dugunez, orobat, beranduago azalduko dugu zergatik kargatzen zituzten Arana aita-semeek etengabe Burugorri aundi eta hartako etxaguntzak karga horiekin guztiekin. Arana aita-semeak aipatu dugu, izan ere, Jose Francisco Arana Echeverria semeak eta Jose Martin Arana Arregi bilobak Juan Martin Arana aitonaren lanbide bera izan zuten.

Ikus ditzagun baserriaren orduko kargak:

Hasiera batean, Burugorrienea baserria 1.100 beloidukateko kapitala batzen zuen zentsu batekin kargatuta zegoen, urtean 22 dukateko korritu batekin, herriak eta herritarrek ezarria, tartean zela Arangoiti baserriko Juan Iraola. Loinazko San Martin basilikaren alde gauzatu zen eta halaxe jazo zen Beasaingo hipoteken lehen liburu zaharreko 28. folioko 41. zenbakian.

Beste hipoteka bat ere bai, 842 erreal eta 3 marabediko kapitala batzen zuena, kasu horretan korriturik gabe. Hori ere Juan Iraolak ezarria Jose Maria Lardizabalen (aurrez Lazkao, Lazkaomendi eta Senperen jabetza garrantzitsuak izan zituena) alde. Hori Beasaingo hipoteken bigarren liburu zaharrean jaso zen, 146. folioko 163. zenbakian.

60.000 errealeko beste hipoteka bat, korriturik gabe. Juan Martin eta Jose Francisco Arana aita-semeek ezarria Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde.

47.200 beloi-errealeko beste hipoteka bat, hau ere korriturik gabea eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldekoa.

52.000 beloi-errealeko beste bat, korriturik gabea. Jose Francisco Aranak ezarria, Lehen aipatutako liburu bereko 498. folioko 461. zenbakian erregistratutako obra jakin batzuei erantzuteko xedez.

16.200 errealeko kapitala batzen zuen beste bat, korriturik gabea. Jose Francisco Aranak ezarria, kasu horretan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde.

30.200 errealeko beste bat, korriturik gabea. Lehen aipatutako pertsonak ezarria, berriz ere, Foru Instituzio berdinaren alde.

3.500 beloi-errealeko zentsu bat, fidantza modura, urtean %3ko interes batekin, kasu horretan Maria Rita Gorosabel andrearen alde.

3.793 errealeko kapitala batzen zuen beste hipoteka bat. Juan Martin Arana eta Jose Francisco Aranak ezarria, San Millan eta Vistalegreko markesaren bi lursailen trukeengatik sortutako ondorioei erantzuteko xedez (aurrerago ikusiko ditugu bi lursail horiek, 6. sektore honetan bertan Ezkiaga erdikoa baserriko jabetzak deskribatzen ditugunean).

22.000 errealeko kapitala batzen zuen beste kreditu bat, fidantza modura, korriturik gabea. Jose Francisco Aranak ezarria Felipe Echeverria zaintzeko (bere ahaidea zen, ziur aski bere amaren anaia).

38.000 errealeko beste zentsu bat, kasu horretan Ordiziako Juana Maria Yurritaren alde.

2.000 beloi-errealeko kapitala batzen zuen beste bat, urtean %4ko interes batekin. Jose Francisco Aranak ezarria Igartzako Maizenea edo Muruena etxeko Matias Iztuetaren alde.

40.000 beloi-errealeko beste zentsu bat, urtean %5,5eko interes batekin, Jose Gonzalezen alde.

160.000 beloi-errealeko beste hipoteka bat, urtean %6ko interes batekin, Jose Antonio Albisuren alde.

Beste hipoteka bat, 35.200 beloi-errealekoa, urtean %5eko korritu batekin, Billabonako Jose Antonio Gaiztarroren alde. Gizon hori, beranduago, bere guraskidea izan zen, izan ere, bere semea, Jose Martin Arana Arregi, aipatu pertsonaren alaba zen Petra Gaiztarrorekin ezkondu zen.

Zentsu eta Hipoteka horiek guztiak 1866ko urtarrilaren 23 artekoak dira, hots, egun horren aurretik erregistratuak.

Aranatarren jardun eta lanbideak ezagututa, irakurle askok dagoeneko pentsatuko zuten deskribatutako Zentsu eta Hipoteka horiek nora bideratzen ziren. Jose Francisco Arana "Jabedun, Merkatari eta Industrialari" modura ezagutzen zuten garai hartan; dena den, pertsona ausarta izanik, zirt edo zart egiteko erraztasuna zuenez, herrian eragin handia zuen; horrela, sarritan herritarrek harengana jotzen zuten edozein arazo ebazteko itxaropenez. Beste jardun batzuen artean, kontratista eta harrobiko harrien, egurrezko zamen edota ikatzen garraiolari lanetan aritzen zen, horrek guztiorrek ustiapeneko kontratuetan, mozketetan, garraioetan, soldatetan, datetan edota epeetan zuen eraginarekin; eta ez dugu ahantzi behar garai hartan materialen garraio nagusiak idiak uztartuz egiten zirela.

Halaber, etxe eta obra zibilen, errepideen, murruen, galtzadetako harbideen edota zubien eraikitzaile izan zen. Beranduago, Jose Martin Arana Arregi semeak ere eraikitzaile lanbidea hartu zuen. Sarritan Foru Aldundiak sustatutako probintziako proiektuak baitaratzeko lizitazioetan parte hartzen zuten, esate baterako, probintzian gauzatu zen Irun-Madril errepidearen berreraikuntzaren zati bati zegokion lizitazioan.

Pello Joxe Aranburuk dokumentutako artikulu batean irakur daitekeenez, beste proiektu askoren artean, Jose Francisco Aranak Beasaindik Senperera zihoan bidea errepide bihurtzeko lana ere gauzatu zuen 1865-1867 bitartean. Gerora jakin dugunez, 517 metro eskaseko luzera baino ez zuen langintza horren barruan, Oria ibaiaren eta Agauntza errekaren gainean paratzen ziren bi zubien berreraikuntza ere barneratzen zen.

Obra horiek guztiak finantzatzeko diru asko behar zen eta, dirua mailegatuko zuten Banku eta Aurrezko Kutxa gutxi zeudenez, normalean dirua mailegatzeko prest azaltzen ziren pertsona edo entitateetara jotzen zuten behar zutenek, esate baterako, Komentu, Kabildo, parrokietako benefiziodun edota pertsona dirudunengana; eta, beti gertatu izan den moduan, diru hori ez zuten interes edo fidantzarik gabe mailegatzen, modu horretan, inbertsio errentagarri eta ziurra sortuz.

Bada, hainbat dokumentutan irakurritakoaren arabera, Zentsu eta Hipoteka gehienak merkataritza edo industria arloko eragiketa jakin batzuen arrakasta finantzatu eta ziurtatzeko erabili ohi ziren. Horretarako, Aranatarrek, normalean, Burugorrieneaundi eta

hartako etxaguntzak ipintzen zituzten abal modura. 1862. urtetik aurrera, Burugorrieneatxiki etxe berria ere barneratu zuten abal horretan. Orduan, bi eraikinak Goitia y Compañía fabrikako langileei alokatzen zizkieten nagusiki, izan ere, esan dugun moduan, gutxienez 1853-1868 bitartean Jose Francisco Arana Beasaingo Kale Nagusian lekututako Aranberri azpikoa etxe berrian bizi izan zen.

Ikus dezagun orain Burugorrineaundi etxeak orduan zuen itxura, hartako jabea F.H.S.M. fabrika zaharreko bazkide-sortzailea ere izan zela aipatu ostean. Beasainen ez dago etxe zahar horren argazkirik. Hala ere, orain, ehun urte beranduago, Burugorri baserri zaharraren kokapen zehatza jakitea lortu dugu behinik behin. Modu horretan, inguru horretako beste erreferentzia ezagun batzuekin erkatu ahal izango dugu.

S.E.C.M. fabrikaren lehen faseak hartzen zuen eremu eraikiaren barruan kokatzen zenez, aipagai dugun baserria "Errodaje Lantegien" eraikina altxatu zenean desagertu zen airetiko 239. argazkian ikus dezakegunez. Irudi horretan Txintxurreta eta Burugorriaundi baserrien kokapen irudikatuak ageri dira, eta baita Goitia y Compañía enpresak Lazkaibartxiki baserriko lurretan langileentzat eraikitako etxebizitza-etxe bat ere. Horrela adierazi ditugu:

2. zenbakiarekin Txintxurreta baserriaren antzinako kokapena; 3. zenbakiarekin Burugorrineaundi baserriarena; eta CO hizkiekin trenbidearen eta Lazkaibar-Senpere-Lazkao errepidearen artean langileentzat altxatu ziren etxeetako bat. Halaber, aurrez erabilitako hizkiak baliatuz, CL hizkiz adierazi dugu Klinika, H hizkiarekin errepidea eta U hizkiarekin trenbidea. Hiru eraikuntza horiek lauki zuriz adierazitako eremuetan lekutzen ziren artean XIX. mendearen amaiera aldera. Eta, jakina denez, Txintxurreta baserriak beste hogeita hamar urte egin zituen leku horretan lantegiz inguratuta eta keak ito beharrean, hain justu, 1928-1929 urteak iritsi arte.

Ia Senpere auzoaren eraginpeko zonaldean lekutzen ziren Burugorriaundi eta Txintxurreta baserriek azkenik ezin izan zieten eutsi Fabrika handiaren presioari. Aitzitik, 5. sektorean deskribatu dugun eremu horretan lekutzen ziren eraikinak (esate baterako, Igeldegi, Senpereberri, Senperetxiki, Teileria (gerora Behitegia), Senpereaundi, etab.) urte horietan Fabrikaren eraginpeko eremutik at zeudenez, denbora gehiagoan iraun zuten. Are, horietako zenbaitek 1958. urtea ere gainditu zuen, hau da, "Lantegi Mekaniko" berriak eraikitzen hasi ziren urtea. Ordurako, ingurubide-errepide berriak Fabrikako bi sektoreak iparraldetik hegoaldera bereizi zituen 1952-1955 bitartean. Dena den, orduan galtzadaren azpian arku handiko sistema burutsu bat ezarri zuten. Horri esker, Fabrikak XX. mendearen hastapenean bereganatu zituen lur zabal horietan barrena joan-etorriak egin zitezkeen aparteko arazorik gabe.

Ikus dezagun orain nola finkatu zen S.E.C.M. enpresa XX. mendearen hastapenean. Orduan Maquinista Guipuzcoana (nagusiki Goitia y Compañía enpresaren baitakoa) zegoen lekuan enpresa handi bat sortzearen kontua bolo-bolo zebilen. 6. sektore honen hasieran esan dugun moduan, ordurako, Francisco Goitiak, Alfredo de Ajuria Urigoitia koinatuarekin eta beste bazkide batzuekin batera, La Iberia izeneko fabrika handia finkatua zuen Sestaon.



Hari buruzko atalean esan bezala F.H.S.M. fabrika zaharrak hasiera batean 45.586 m²ko lurrazalera hartzen zuen eta azalera hori pixkanaka handituz joan zen trenbidearen bestaldean lur gehiago erosita. 1892an Maquinista Guipuzcoana fabrikak 70.000 m²ko azalera zuen jadanik. S.E.C.M. enpresa fabrika zaharra zegoen lurretan ezartzea erabakiz gero, hartutako lurren azalera 290.000 m²koa izango litzateke. F.H.S.M. enpresa zaharraren segida izaki, Maquinista Guipuzcoana (hartako bazkide gehiengoduna Goitia y Compañía zelarik) izenekoak arrazoi asko zituen proiektu erraldoi hori gauzatzearen alde, batez ere ordurako eremu horretan zituen azpiegitura handiak aintzat hartuz. Honatx aipatu azpiegiturak:

Energia elektrikoa sortzeko instalazioak, esate baterako, Oria ibaiko presa handia, isuri handia zuena Agauntza errekako uren laguntzaz; bihurgailu-turbinara eta "Ezkiaga" auzoko zonaldean kokatutako zentral elektrikora (243. argazkian ikus dezakegu) bideratzen zen kanal eroalea. 243. irudian ubidea Zentral horretaraino iristen dela ikus daiteke. Eta irudia gerturatuz gero, zentralaren pareko horman B hizkia erakusten duen kartel bat irakur daiteke FUERZA hitzaren aldemenean (Kontuan izan behar da urte horietan hori zela Fabrikarentzat energia elektrikoa lortzeko ia modu bakarra). Halaber, aipagarria da trenbide-azpiegitura egokiak zituela, izan ere, kilometroa gainditzen zuen errail partikularra zuen, Iparraldeko Trenbidearen Konpainiaz apartekoa. Modu horretan, produktuak Fabrikatik Beasaingo geltokira zuzenean eraman zitezkeen.

Hala ere, industria-lan handi hori gauzatzeko saldu beharreko lur guztiak oso epe laburrean saldu behar izan ziren. Jose Martin Arana zonalde horretako lursailen jabea eta Beasaingo alkatea izaki, ezarpen hori gauzatzeko beharrezkoak ziren lur guztiak xehetasun osoz ezagutzeaz aparte, horietako jabe eta egoileak ere oso ondo ezagutzen zituen.

1901ean gauzatutako erosketaren ostean, S.E.C.M. enpresak xurgatuta, Burugorrienea baserria desagertzen ikusi aurretik, ezinbestekoa da 1862an, hots, gure irudizko ibiltariek artean inauguratzeke zegoen trenbidean barna bidaiatu zuten urte berean, etxetzar horretan bizi ziren pertsonak aipatzea. Honatx, bada, pertsona horiek:

Jabedun modura Jose Francisco Arana ageri zen bere emazte Micaela Arregi eta bien seme-alabak ziren Jose Martin, Micaela, Pedro Martin eta Petra Gregoria Arana Arregirekin. Horiez gain, haien lehengusuak, Jose Joaquin eta Martina Esnaola eta, baita Maria Teresa Ocariz neskamea ere.

Ondoren Jose Ignacio Basañez eta Vicenta Echeverria senar-emazteak eta haien seme-alabak, Andres, Jose Ignacio, Josefa eta Ceferina Basañez Echeverria, horiekin batera bizi zelarik Jose Goicoechea iloba; Leon Basañez eta Eugenia Lazaro senar-emazteak haien seme-alaba ziren Jose Manuel, Tiburcio eta Agapita Basañez Lazarorekin; Genaro Ayet eta Maria Dargos senar-emazteak Juan Bautista, Francisco, Rosa eta Maria Vicenta Ayet Dargos seme-alabekin; Martin Larriant eta Catalina Labrot senar-emazteak Juan Luis eta Estela Larriant Labrot seme-alabekin; Luis Muñoz eta Feliciana Abalcisqueta senar-emazteak Casimira, Catalina eta Maria Petra Muñoz Abalcisqueta alabekin; Pedro Gaztañaga bere seme-alaba ziren Enrique, Manuela, Pedro, Pio eta Demesia Gaztañagarekin; Domingo Mugica eta Florentina Orbegozo senar-emazteak Isidro, Saturnino, Josefa Ignacia, Juana Maria eta Juliana Mugica Orbegozo seme-alabekin, emaztearen ama zen Francisca Ignacia Usabiaga eta Domingo Uria ilobarekin batera.

Hori ikusi ostean, esangarri da zonalde horretan zeuden Txintxurreta, Burugorrinea, Lazkaibarraundi, Lazkaibartxiki, Errekalde, Agirre, Upabia, Gurutze, Senpereaundi, Senpereberri edota Igeldegi etxeak Beasain, Ordizia eta Lazkaoko etxeak zirela. Guztiek zuten lurrak galtzeko mehatxua "Fabrika Handi" izeneko instalazioa finkatzeko aukeraren aurrean.

Proiektuaren sustatzaileek abantaila handi bat zuten, izan ere, nahasitako etxeak asko izan arren, guztietan egoileak bizi ziren; horrez gain, jabedun batzuek bizpahiru etxe zituzten zonalde horretan.

Horixe zen Portocarreroren alarguna zen Torretagleko markesaren (Lazkaibarreko Andrea) kasua. Egoera berean aurkitzen zen Ramon Mendizabal Azkueren alarguna zen Bernarda Garmendia, izan ere, ordurako Ibarran bizi arren, Senpere auzoko jabedun nagusia zen bera.

Jose Martin Arana Arregi zonalde horretako lurren jabedunetako bat zenez, proiektu horretan nahasi zen, hala alkate modura, nola Fabrika Handia ezartzeko interesa zuen jabedun gisa. Beste gauza batzuen artean, industria-proiektu erraldoi horretan eragindun eta interesdun ziren pertsona guztien adostasuna lortu behar izan zuen. Eragindun eta interesdun bereizi ditugu, izan ere, etxe horietan bizi ziren egoileak eragindunak ziren, baina ez zuten inolako interesik proiektu horretan; aitzitik, jabedunak interesdun ziren lur eta eraikuntza horien salmentatik gainbalio handiak eratorriko zirela aurreikusten baitzen. Hori guztiori, aurrerago azalduko dugu xehetasun gehiagoz.

Zonaldean hainbat lur-truke garrantzitsu egin ostean, azkenean jabetza horiek enpresa berriari saltzea erdietsi zen, modu horretan, proiektua abiatu ahal izateko. Ikus jadanik abian zen S.E.C.M. enpresa berriaren 244. eta 245. argazki zoragarriak. 245. argazkian arestian aipatutako kanala ikus daiteke, urez beteta, "Zentral Elektrikora" iritsi aurretik. Halaber, 246. eta 247. argazkiak ekarri ditugu. Bertan 1902. urtearen bueltan enpresa handi berriarekin batera eraikitako etxe berriak ikus daitezke. Lehen irudia XX. mendearen lehen hamarkadakoa da eta bigarrena haien eraispen-urtean atera zen, hots, 1991n.

Ezkiaga auzoan kokatutako Fabrikako etxeak erakutsi ditugu oso adibide onak direlako ekoizpen-guneen inguruan langileentzat sortu ohi ziren **lotarako etxeak** begiztatzeko. Garai hartan gailentzen zen "etxe merkeen" filosofia alde batera utziz, oso logiko deritzogu enpresa handiek bertako langileak fabrikatik gertu eduki nahi izatea, izan ere, orduko komunikabide eta lokomozio-bideak aintzat hartuz, ez zegoen irtenbide gehiegirik.

Nolanahi ere, aurrez aipatu bezala, urte asko igaro behar izan ziren Fabrikak eskuratutako lur guztiak erabil zitzan. Hasiera batean, soilik Lazkaibarreko zonaldean kokatutako onibarrak erabili zituzten. Horrela, XX. mendearen bigarren erdialdera arte itxaron behar izan zen enpresak Senpereko auzoan eskuratutako lur guztiak ekoizpen-baliabide gisa erabiltzeko. Oraindik orokorki "Lantegi Berri" izenez ezagutzen diren ekoizpen-lantegiez ari gara.

Horrenbestez, enpresa berriak XX. mendearen hastapenean eskuratutako lurren erdiak ere ez ziren erabili hasiera batean. 1925ean, azkenik, C.A.F. enpresak aipatu fabrika bereganatu zuenean, arazo juridikoak zirela medio hura alokairuan zegoenez, honakoa zen, gutxi gorabehera, hiru udalerriek lur horietan zuten partaidetza:

Beasaingo jurisdikzioan 99.260 m^2 barneratzen ziren; Lazkaoko onibarretan 108.000 m^2 barneratzen ziren (Senpereko zonaldean); eta, azkenik, 34.690 m^2 ziren Ordiziako jurisdikzioan zeudenak.

Aitak hogeita hamar urte lehenago urratutako bideari jarraituz, Jose Martin Aranak jadanik Iturrondo izeneko etxe berria eraikia zuen Beasainen. Etxe hori Kale Nagusiko 1 eta 3 zenbakidun atariak hartuz ikus dezakegu oraindik. Dena den, 1970ean zaharberritu egin zen hartako zati bat. Horretarako, 1880an Tirso de Olazabalen (Abariatarra, Arbelaitzeko kondea, eta Irunen izen hori duen jauregiaren jabea) lurrak bereganatu behar izan zituen. Aipatu gizona orduan Donibane Lohizunen bizi zen, azken karlistaldian erregegaiaren alde aritu zelako aktiboki.

Zumarragan ama hil ondotik, Burugorri aundi baserriaren eta hartako etxaguntzen oinordekoek Jose Martin Arana izendatu zuten adjudikaziodun modura. Hori dela eta, familia-etxetzarraren oinordeko guztien ahalmenak aitortu zizkioten. Egia da Jose Martin izendatu zutela ahalordedun gisa, baina ikus dezagun zein baldintzekin:

> ***"…es nombrado apoderado para vender las propiedades familiares a la Fábrica, quedando obligado a pagar desde luego en metálico a todos los demás herederos, las cantidades que a cada uno de ellos les haya correspondido en esta liquidación, así como a distribuir entre él mismo y los demás coherederos y en las mismas proporciones en que se han dividido los bienes inventariados.***
>
> ***Las cantidades que se reciban en exceso sobre el valor que se ha dado en un principio en este testamento por la casa Burugorrinea y sus pertenecidos de Beasain y Lazcano, el día en que se realice la venta concertada a la Sociedad Española de Construcciones Metálicas, se deberá pagar a los herederos en el plazo de un mes"***

Bigarren lerroaldea irakurriz asma daitekeen eran, S.E.C.M. enpresari azken salmenta egitean gainbalio ziurrak aurreikusten ziren, aldez aurretiko jarauns-pen-banaketan egindako tasazioei zegokienez. Azkenik, 1901eko urtarrilaren 12an gauzatu zen aipatutako guztia.

NOIZ ETA NOLA SORTU ZEN BURUGORRIENEATXIKI

BURUGORRIENEATXIKI osorik berreraiki zen Burugorrieneaundi baserri zaharraren baitako etxaguntza txiki baten gainean. Aipatu bi etxeak Beasaingo jurisdikzioan lekutzen ziren, bata bestearen ondoan, Lazkao udalerriaren mugan. Hori aurrez ere azaldu dugu, Burugorri aundi baserriaren deskribapen laburrean.

Arestian baserri nagusiaren historia banakatzean hainbat kontu aipatu ditugu Jose Francisco Arana Echeverriaren inguruan, esate baterako, bere ezkontza-hitzarmenarekin, hiru anai-arrebei egindako ordainketekin eta Juan Martin Arana aitaren herentziarekin lotutako kontuak. Horrek guztiorrek eraikin berri honetarako ere balio du, izan ere, Burugorrienaundi baserrira atxikitako baratze baten gainean eraiki zen.

Ikus dezagun zer zioten etxetzar zaharraren alboan eraikitako etxe txikiaren kokapenaz:

> ***"…entre los pertenecidos de Burugorrinea aundi hay una huerta situada en dicho Cuartel del Este sobre la cual D José Francisco de Arana y Echeverria construyó en 1.862 una casita de nueva planta que se conoce con el nombre de Burugorrinea chiquia…"***

Lerro labur horiek irakurrita badakigu etxetxo zahar hori 1862an eraiki zela, hain zuzen, trenbidearen plano hauek sinatu ziren urtean. 1862ko plano horietan ez da artean eraikin txiki hori ageri Burugorrinea aundi baserriaren eskuinera. Etxe handia soilik marraztu zuten, bakarturik eta errepidearen ondoan. Halaxe egiazta dezakegu 6. sektoreko plano orokorrean nahiz 6d plano-zatian erreparatuz. Hainbat aldiz esan dugun moduan, plano hori 1862an egiaztatu eta sinatu bazen ere, aurretik marraztu zen pixkanaka. Horregatik, Burugorrineatxiki etxetxoa ez da marrazkian agertzen, haren eraikuntza-urtea eta planoen sinadura-urtea bat datozen arren.

Aukera hau baliatuko dugu Burugorrineaundi baserriaren baratze nagusiaren gainean, Beasaingo jurisdikzioan, kokatutako eraikin horri buruz gauza gehiago jakiteko. Etxe nagusia erreferentziatzat hartuz, Udalak 8. zenbaki bikoiztua eman zion Beasaingo Ekialdeko Zatian. Hasiera batean beheko solairuak, solairu nagusiak eta ganbarak osatzen zuten haren egitura eta muga hauek zituen:

Iparraldera, eraiki berria zen etxeari esleitutako baratze txikia; hegoaldera, Lazkaibarretik Senpere-Lazkao aldera egiten zuen Errege Bidea; ekialdera, Torretagleko markesaren (besteak beste, Lazkaibarraundi eta Agirre baserrien jabea) baitako onibar bat; mendebaldera, aurrez aipatutako baratzearen zati bat, etxetxo hau eraikitzeko banatu zutena. Ikus dezagun orain Burugorrineaundi baserritik bereizitako baratze horrek kokapena, modu horretan, jabetza hori hobeto kokatu ahal izango dugu Lazkaoko jurisdikzioarekin muga egiten zuten lurretan.

Banatutako lursail horretan barneratzen zen etxea besarkatzen zuen baratze bat, muga hauek zituena:

Iparraldera, trenbide berria; hegoaldera, Senpere-Lazkao aldera egiten zuen Errege Bidea; ekialdera, aipatu dugun etxetxoa eta Torretagleko markesaren jabetza bat; mendebaldera, Torretagleko markesaren beste jabetza bat.

Ikus dezagun dokumentu batzuetan zer aipatzen den Jose Francisco Arana Echeverriak Burugorrineatxiki etxetxo berrira esleitutako etxaguntzei buruz:

> *"…Contiene la totalidad de esta finca 15 Áreas y 6 ca. (1.506 m²),* ***con inclusión también del <Juego de Bolos>*** *que hay en ella perteneciente a la casa Burugorrinea aundi…"*

Urte horietan baratzera bideratutako lursail horri 3.765 errealeko balioa eman zioten. Deskribapen horrekin oso ongi koka daitezke etxetxo berria eta hari atxikitako baratzea. Horiek aurrez aipatu dugun liburuan erregistratu ziren 211. folioko 45. zenbakian. Liburu horretan erregistratu zuten, halaber, Burugorrinea aundi etxe nagusia.

Deskribapen horretan gaineratzen zenez, berriki eraiki zen etxetxoak 51 zentiareako azalera hartzen

zuen (51 m² baino ez) eta 3.366 beloi-errealeko balioa eman zitzaion. 1862an etxe berria eta etxe nagusitik bereizitako lurrak tasatu eta 7.131 beloi-errealeko kopuruan balioetsi zen guztia. Badakigu, bada, etxetxoari eta hartako lurrei buruzko beste zerbait; hala, 1862an iparraldera mugakide trenbidea zutela aintzat hartuz, hori norabide horretan zuen kokapenari buruzko erreferentzia modura erabili ahal izateaz gain, Beasain-Donostia trenbide-tartea inauguratu baino urtebete lehenago ibilbide hori ia prest zegoela asma dezakegu.

Ziur aski bola-jokodun etxe gehiago ere izango ziren Beasainen. Dena den, etxetxoaren baratzean zegoen bolatokiak garai hartako gustu bakunen berri ematen digu (eta, pobre eta apalak ere bi, esango nuke). Beste zenbait herri-kirol eta pilota-jokoarekin batera (azken hau hainbat modalitatetan jokatzen zena, esate baterako, erreboteko hormarekin eta gabe), bolo-jokoa ere XIX. mendearen amaieran ohiko kirola zen zinez. Guk dakigunez, garai hartan "etxaguntzen barnean bolatoki" bat zuen Beasaingo laugarren etxea zen hura; honatx besteak:

Herrigune erdian zegoen Zubimusu bentan, urte horietan Martin de Arreguiren baitakoa. Benta horretako atzeko baratzean paratzen zen bolatokia, Zufiaurre txikia eta Oria ibaiari begira; Tirso de Olazabal y Lardizabalen Abarinea edo Doñamarinea etxean, Abariatarrek (Etxeberri) izenez ezagutzen zutena. Kasu horretan, bolo-jokoa parrokiara zihoan harbidearen ezkerrera lekutzen zen sarrera-atearen alboan zegoen. XX. mendearen bigarren erdialdera artean "bolaleku" izenez ezagutzen zuten eremu hori "Leku alai" etxearekin batera; azkenik, Ubiñarte edo Urbiñarte etxean zegoen beste bolatokia, Senpere-Lazkao aldera zihoan bidearen ezkerrera.

Kasu jakin honetan ez dugu aipatuko zentsu, kapilautza eta hipoteken erretolika, izan ere, kasu gehienetan Burugorri aundi etxekoak errepikatzen ziren. Arestian aipatu dugu etxe nagusiaren gainean deskribatutako zentsu eta hipoteka gehienen arrazoia.

Irakurri dugunaren arabera, Burugorrieneatxiki etxea garai hartan "Andaluzaenea" ezizenez ere ezagutzen zen; ez dakigu zein izango zen izendapen horren egiazko jatorria, baina pentsa dezakegu, izan ere, urte batzuk aurrerago etxea handitu eta etxebizitza-etxe gisa gaitu zutenean, Goitia y Compañía fabrikako langileentzat alokatu zen. Dena den, aurrerago aipatuko dugu kontu hori.

Kontu jakina da, halako etxebizitza batean, beranduago, hainbat fatxadetan teilapeak erantsi ohi zirela eta, gerora, teilape horiei horma gehiago gaineratu eta altuera handiagoa eman ohi zitzaiela, erantsitako osagarri horiek etxeko zati bilakatzeraino. Ikus dezagun hasiera batean 51 m²ko azalera baino ez zuen etxetxo txiki horrek denbora gutxian izan zuen bilakaera:

Soilik bost urte beranduago, zehazki esatera, 1867ko abenduaren 27an, Jose Francisco Aranak Burugorrienea txikia etxea Domingo Goitia Sarriegi y Ciari (irakurrita bezala eman dugu hemen) saldu zion. Eroslea ezkondua, adin nagusikoa eta jabeduna zen eta urte horietan Jerez de la Fronteran bizi zen (agian hortik dator "Andaluzaenea" ezizena), izan ere, bertan osaba baten ardo-enpresa bat kudeatzen zuen. Egun horretan erregistratu zuen salerosketa titulua Goitia y Compañía sozietatearen izenean. Horretarako, 2.000 beloi-zortzerleko ordaindu zituen, hots, 5.000 pezeta inguru (hain zuzen, hurrengo urtean agertu zen ofizialki pezeta moneta ofizial modura, zortzerlekoa ordezkatuz).

Etxearen baratze modura deskribatu dugun lur-eremuak hainbat aldaketa jasan zituenez, eta horrek Fabrikako lurren muga eta kokapenei buruzko zenbait zalantza sor zitzakeenez, ezinbestean erreferentzia osagarri batzuk gaineratu behar izan ziren etxe horren lehenengo salmenta-eskrituretan. Jose Francisco Aranak aurkeztu zituen, enpresa horretako Gerente gisa, 51 urte zituelarik. Nolanahi ere, artean, Goitiatarrak ziren enpresako bazkide gehiengodunak. Ikus dezagun Burugorri txiki etxeak izan zuen bilakaera azkarra, izan ere, hura eraiki eta hamar urte baino igaro ez zirenean honakoa idatzi zuten hari buruz:

> *"…en 1.872, se ha construido un edificio de nueva planta destinado a los trabajadores, sito al Sur de la Fábrica en el Cuartel del Este de la misma, aunque todavía sigue la casa sin número asignado por el municipio de Beasain…"*

Idatzi horietan irakur daitekeenez, Burugorritxiki baserria eta hartako etxaguntzak hartzen zituen orubearen gainean eraikitako etxebizitza-etxe berriak azalera handiagoa zuen eta bere egitura ere aldatu egin zen, jadanik beheko solairuak eta bi pisuk osatzen baitzuten etxea. Horrenbestez, hartako mugak ere aldatu egin ziren:

Iparralde eta ekialdera, Goitia y Compañía enpresako lurrak zituen mugakide; hegoaldera, Ordiziatik Senpere-Lazkaora zihoan errepidea; mendebaldera, Torretagleko markesaren aipatu onibarrak, bere etxea

zen Lazkaibarraundiri zegozkionak. Etxetxoa zegoen lekuan berreraiki zen etxe berriak 413 m2ko azalera zuen, 1872ko martxoaren 12an erregistratu zelarik.

Horrenbestez, 1872an jadanik eraikia zegoen Goitia y Compañía enpresako langileentzat egindako etxebizitza-etxe berria; baina ikus dezagun, bost urte lehenago Burugorrienea txikia izeneko etxetxo horretan nor bizi zen, artean aurreko lerroaldean azaldu dugun etxebizitza-etxe bilakatu aurretik (ondotik ere Jose Francisco Arana Echeverria izan zen jabea):

Lehenik eta behin Agustin Fernandez eta Basilia Echeverria senar-emazteak Leon, Jacinto, Elvira eta Pilar Fernandez Echeverria seme-alabekin. Horiez gain, etxean bizi ziren apopilo hauek: Juan Gogorza, Cecilio Usaola, Fermin Ochandiano, Gregorio Bergareche, Jose Maria Larrañaga, Jose Antonio Atecini, Ramon Arizmendi, Antonio Vergara, Vicente Celaryaran, Modesto Ajuria, Claudio Ochandiano, Jacinto Ochoa eta Modesto Ajuria.

Guztira 19 pertsona; ez dago beste ezer gaineratu beharrik apur bat geroago "Andaluzaenea" ezizenez ezagutuko zen etxe horrek izan zituen erabilerei buruz, ezta 1872an, azken karlistaldia hasi baino apur bat lehenago, Beasainen etxebizitzarekin zeuden arazo handiei buruz ere.

GALARDI MUINOAREN OINEAN

TXINTXURRETA izango zen 1862an Burugorrinea pasa ostean Lazkaibar aldera zegoen hurrengo baserria. Burugorrinearen eta Lazkaibartxiki izeneko etxearen artean lekutzen zen, Burugorrineaundi baserritik ehun metro eskasera, baina galtzadaren beste aldean. Haren kokapen zehatza oroitzeko 237. eta 239. irudiak hartuko ditugu ostera ere. Era berean, Txintxurreta baserriaren 248. argazkia begiztatuko dugu, non baserria aipatu muinoaren oinean ageri baita.

248. irudian Txintxurreta baserria ikusi dugunez, 6. sektoreko plano orokorrean J hizkiarekin adierazi dugun bidea gogoratu behar dugu ezinbestean. 6. plano horretan Lazkaibartxiki baserriaren albotik abiatzen den bide hori, Txintxurreta baserriaren eta mendi-mazelaren gibeletik Senpereko atzeko zonaldera ere iristen zen, 249. irudian J hizkiarekin adierazi dugun eran. 1854-1857 bitartean Lazkaibar-Lazkao galtzada nagusia errepide berri bilakatu aurretik bideak ibilbide bera jarraitzen zuen. 5. sektorean ere hainbat aldiz agertu zaigu, Igeldegi eta Senpereberri etxeen aurretik eta Teileria (beranduago Fabrikako "Granja-Behitegia") izenekoaren atzetik igaroz.

Lazkaibartxiki baserriari dagokionez, Fabrikaren eraginpeko eremuan kokatzen bazen ere, zentzuzkoago deritzogu Lazkaibarreko zonaldeari dagokion 7. sektorean deskribatzea. Txintxurreta eta Lazkaibartxiki baserrien arteko distantzia 250 metro ingurukoa izango zen. Bigarren hori ere Txintxurreta baserria lekutzen zen galtzadako alde berean paratzen zen, Lazkaibarreko trenbide-pasabide zaharraren alboan. 6. sektoreko plano orokorrean R hizkiarekin adierazten da Lazkaibartxiki baserriaren kokapena.

1862an Beasaingo Udalak esleitutako zenbakikuntza kontuan izanik, Txintxurreta baserria Ekialdeko Zatiko 8. zenbakian lekutzen zen orduan. Gutxienez, 1549az geroztik topatu dira etxe zahar horri buruzko idatziak. Erdipurdiko harlangaitza erabiliz eraiki zen, silarrixkaz egindako leiho eta eskantzuekin eta bi uretako teilatu batekin. Garai gartan beheko solairuak, goiko solairuak eta ganbarak osatzen zuten etxearen egitura; hartako etxaguntzak zituen mugakide alde guztietara. Etxaguntza horiek guztiak etxetik hurbil paratzen ziren, Beasaingo jurisdikzio barruan, Erauskin auzotik gertu zegoen etxaguntza bat izan ezik, hura baserritik urruti samar baitzegoen.

Baserria hartzen zuen orubeari eraikinera atxikitako teilape edo estalpe gehigarriak gaineratzen badizkiogu, etxearen azalera 352 m^2koa zen orduan. Honatx etxearen inguruan lekutzen ziren laborantzalur nagusiak: **Etxeburua, Etxeaurrea** eta **Erlotxo**. Dena den, **Etxeburua** izen berdina zuen beste onibar bat ere bazegokion etxeari. Azken onibar hori lursail mistoa zen, sagastiz eta hariztiz betea, eta muga hauek zituen:

Iparraldera, Segurako Braulio Alustizaren (garai hartan Errekarte aundi baserriaren jabea, Lazkaibarreko zonaldean lursail ugari zituena) lursail bat; hegoaldera, aipatu gizonaren lursail gehiago eta Senpere auzoko jurisdikzio barruan kokatutako "Errekalde" baserrikoak; ekialdera, Galardi izeneko gaztainadia eta bide publikoa; eta, mendebaldera, Braulio Alustizaren lursail gehiago eta Lazkaibar-Senpere-Lazkao errepidea.

Braulio Alustiza izena hainbat aldiz agertu zaigunez, aipagarri da (hurrengo atalean ere hainbatetan azalduko delako) gizon horrek Lazkaibarraundi baserria eta hartako etxaguntza guztiak bereganatu zituela Torretagleko markesaren eskutik; eta, lur horiek aurreko jabedunak etxe horri esleitu zizkionez, Braulio Alustiza zonalde horretako etxaguntzen jabedun gisa agertzen zaigu. Igartzari dagokion 2. sektorean ere ikusi dugu Braulio Alustizak Errekarteaundi baserriaren zati bat jaso zuela herentzian. Gizon horren jatorria Zurbanotarren adar batean bilatu behar dugu, zeintzuk izen bereko Segurako jauregiko arbasoak zituzten. Beranduago bereganatu zuen Alustizak Lazkaibarraundi etxea Torretagleko markesaren semearen eskutik.

Txintxurreta baserrira itzuliz, etxearen orubea aparte utzita, esangarri da **Erlotxo, Etxeaurre** eta **Etxeburua** izeneko ereiteko lur-eremuen azalera 11.000 m²koa zela orotara. Horrez gain, 6.500 m²ko beste lursail misto bat barneratzen zen haietan, harizti eta sagastiz betea. Azken hori ere **Etxeburua** izendatzen zen, haren kokapena aintzat hartuz.

Bazen **Erlotxo** izen bera zuen beste onibar txiki bat, etxetik bereizia, apur bat hegoaldera. Honatx haren mugak:

Iparraldera, Braulio Alustizaren lurrak; hegoalde eta ekialdera, Igeldegi baserri hurbileko lurrak, 5. sektorean aipatu dugun eran, Senpere auzoko iparraldeko aldean kokatzen zena; eta, mendebaldera, lerroalde batzuk lehenago aipatu dugun bide publikoa. Azken lursail horren azalera soilik 500 m²koa zen.

Bekosoroa izeneko onibarra, muga hauekin:

Iparraldera, Braulio Alustizaren lurrak; hegoaldera, gizon horren onibar gehiago eta Burugorri aundi baserriko Jose Martin Arana Arreguirenak; ekialdera, Lazkaibar-Lazkao-Ataun errepide nagusia; mendebaldera, Iparraldeko Trenbidearen Konpainia berriko lurrak. Lur horren azalera 8.300 m²koa zen.

Arestian esan bezala, orain aipatuko dugun onibarra Erauskin auzoko goiko zonaldean lekutzen zen. Onibar horrek **Goikobarrutia** izena zuen eta otalurra zen gehienbat. Honatx haren mugak:

Hegoaldera, bide publikoa (Murumendi aldera egiten zuen bide nagusia); ekialdera, Erauskin auzoko Ferminenea baserriko onibarrak (Jose Francisco Arana zen orduan haren jabea ere); mendebaldera, Arteta, Ezkiaga txikia eta Usurbe baserrietako lursailak; iparraldera, Ferminenea eta Usurbe baserrietako zenbait etxaguntza. Onibar horrek 14.300 m²ko azalera zuen eta urte horietan ez zen inolako kargarik ageri haren gainean.

Azken informazio horiek XIX. mendearen bigarren erdialdekoak dira. Orduan Ordiziako Gazteluzar jauretxeko jauna, Bahamonde y Gazteluzar abizenekoa, zen artean Txintxurreta baserriaren jabea. Gizon hark, beste jabetza asko zituen eskualdean zehar, horien artean, Itsasondoko Lukusain eta San Juan etxeak eta baita azkenaren izen bereko ermita ere. Halaber, berea zen Ordiziako Arranomendia baserria (egun San Isidro Granja). San Juan de Letran ermita zaharra eta izen bereko etxea 1862. urtean eraitsi ziren gutxi gorabehera. Biak elkarren ondoan zeuden, gaur egun bezalaxe, baina orduan proiektatuta zegoen trenbidearen erdian kokatzen zen, Itsasondo herriaren sarreran, Ibares igaro ostean, zehazki esatera, Sarasolatarren egungo txaletaren parean. Gaur egun trenbidearen azpian dagoen bide zaharraren tarte batek ematen digu haren antzinako kokapenaren erreferentzia. Gerora, San Juan de Letran baserria eta ermita egungo kokapenean eraiki ziren, Itsasondoko auzo horretan, errepide zaharraren ezkerrera, hain justu, Ordizia eta Itsasondoko udalerrien arteko mugan.

Txintxurreta baserria eta hartako etxaguntzak hartuko ditugu berriro. Hala, aipagarri da, Antonio de Lazcano ordiziarrak (adin nagusikoa, ezkondua eta merkataria) 1898ko abenduaren 9an Beasaingo Epaitegira jo zuela berak ordezkatzen zuen pertsona aipatu baserriaren jabea zela adierazteko, izan ere, urte horietan Juan Uriarte Gazteluzarren administrari eta ahalordeduna zen. Garai hartan gizon hori ezkonduta zegoen eta Zumaian bizi zen. Bere izenarekin jardun zuen eta jabetza haren gaineko jabedun oso modura, izan ere, bere ama Petra Gazteluzar y Ceberio zenaren (Ordizian kokatutako izen bereko oinetxekoa) herentzian jaso zuen, 20 urte lehenago hil baitzen. Ordutik inolako etenaldirik gabe jabetza haren

gaineko edukitze baketsu eta iraunkorra izan zuela aipatu zuen, nahiz eta jabetzari zegokion idatzizko titulurik ez izan.

Horregatik, Epaitegira jo zuen lekuko-informazioa eskatzeko, azkenean haren jabetza-egiaztapena jasotzeko xedez; horretarako, Beasaingo Udalaren ziurtagiria aurkeztu zuen, Francisco Telleria, Martin Lasa eta Domingo Mugicak bere garaian sinatu zutena, udalerriko alkate, errejidore eta idazkari gisa, hurrenez hurren. Juan Uriarte Gazteluzarrek garaiz ordaindu zituen kontribuzioak baserriaren eta hartako etxaguntzen jabedun gisa. Horrenbestez, aurreko egiaztapena onartu ondotik, Beasaingo jabedun ziren Eusebio Aranburu eta Jose Maria Aldanondok lekuko modura jardun behar izan zuten. Gazteluzar jaunak deklarazio horretan argudiatutakoak beren kabuz egiazta zitzaketela deklaratu zuten.

Joaquin Urteagak Udal Fiskal modura eta Vicente Iraolak Epaile modura jardun zutelarik, kasu horretan Legeak xedatutako bete zela adierazi zuten. Hori dela eta, 1898ko abenduaren 22an, azkenik, Domingo Mugica idazkariak akta egin zuen, non espediente hori onetsi egiten zen, eskubide hobeko hirugarren pertsonen kalterik gabe.

Orobat, aipagarri da 1901eko maiatzaren 23an Txintxurreta baserrian egindako lur-banaketa bat, kasu horretan Erlocho izeneko lursaila hartzekoa. Orduko hartan S.E.C.M. fabrika berrian hizkera profesionalean "bero" modura ezagutzen ziren lantegi batzuk (galdaketako labeak) ezartzeko egin zen aipatu bereizketa. 1929ko ekainaren 19an, azkenik, Txintxurreta baserriko lursail guztiak bereizi ziren hartatik. Ikus aipatu datak eta garai hartan jadanik Compañía Auxiliar de Ferrocarriles izeneko enpresak (CAF) egindako jabetza horien erosketa-data bat datozela.

Orduan etxearen gainean 100 beloi-dukateko zentsu bat zegoen eta kapital modura dukat baten bi heren, Zegamako Francisco Javier Arzak (Martin de Carreraren aitaginarreba) ezarria Francisco de Murguiondok Mutiloko parrokian sortutako kapilautzaren alde, Pedro Ignacio de Idoeta zelarik bertako ugazaba. Hori guztiori Beasaingo bigarren liburu zaharrean jaso zen 88. folioko hirugarren zenbakian.

Ebikzio eta saneamenduaren gainean ezarritako hipoteka bat, Echeverri garaicoa etxearen salmentari buruzkoa, kasu horretan Lazkaoko Bernardako Mojen Komentuaren alde. Azken hau Beasaingo liburu horretan jasotzen da 99. folioko 113. zenbakian.

20.000 errealeko beste hipoteka bat, Joaquin Uriarte eta Petra de Gazteluzar Ceberio senar-emazteek ezarria, haien biloba zen Juan Bautista de Uriarteren tutore eta zaintzaile modura izendatu zuten Antonia Yurritari erantzutekoa. Halaxe jasotzen da Beasaingo seigarren liburu partikular zaharrean, 60. orrialdeko 44. idazpenean.

Kontuan hartzen badugu, Beasaingo Urbieta izeneko eremuan Burdin Fabrika zaharra finkatu zutenetik zazpi urte baino ez zirela igaro, jakin-minez begiratuko diegu 1867an Txintxurreta baserrian bizi ziren bi familiei:

Baserriaren erdi bat Juan Bautista Sarriegi eta Magdalena Iturrioz senar emazteek hartzen zuten. Harekin bizi zirelarik, alde batetik, Felipe Sarriegi semea eta Josefa Aldanondo erraina eta, beste alde batetik, Francisca Sarriegi alaba eta Jose Garmendia suhia. Horiez gain, seme-alaben seme-alabak eta lehenengoen bilobak, Magdalena eta Juan Bautista Garmendia Sarriegi. Halaber, etxean bizi ziren, Ramon Osinalde morroia eta Matias Rodriguez, Ignacio Echezarreta, Jose Manuel Echezarreta eta Jose Maria Elias apopiloak.

Baserriaren beste erdian Francisco Echeverria eta Maria Antonia Gabilondo senar-emazteak eta bien alaba, Francisca Antonia Echeverria bizi ziren, Martin Sarriegi suhiarekin batera. Horiez gain, alabaren seme-alabak eta lehenengoen bilobak, Juan Bautista, Josefa Martina eta Juan Felipe Sarriegi Echeverria izenekoak. Bestalde, Juan Ignacio Furundarena, Jose Alberdi eta Silvestre Iturbe apopiloak ere baserriaren erdi horretan bizi ziren.

Fabrika zaharretik gertu zegoenez, baserri hori ostatu modura ere erabili zela pentsa daiteke, izan ere, apopilo gisa zerrendatu ditugun zazpi pertsonak, ziurrenik, Goitia y Compañía enpresako langileak izango ziren ordurako.

Halaber, jakin dugunez, Sarriegitarren arbasoak Usoiturrieta baserriko egoileak izan ziren urte batzuk lehenago. Baserri hori Artetako zonaldean kokatzen zen, Txintxurreta baserriari esleitutako Goikobarrutia izeneko (14.300 m²ko azalera zuena) lursailetik oso hurbil. Usoiturrieta izeneko baserri hori (egun aurri egoeran dagoena) orduan ez zen Ordiziako Gazteluzar jauretxearen baitakoa; aitzitik, Abariako maiorazkoaren jabetzekin lotzen zen.

Aipatu baserriaren historiaren amaieran gaude ia, izan ere, 1901eko maiatzaren 23an Uriarte jaunak etxea eta arestian deskribatutako etxaguntzak saldu zizkien Felipe Sarriegui Iturrioz eta Juan Bautista Sarriegui Echebesteri. Erosle horiek ezkonduta zeuden, nekazariak ziren eta Beasainen bizi ziren. Erosketa zati berdinetan gauzatu zen, "pro indiviso" modura, edozein karga eta aurrera begirako erantzukizun orotatik libre. Aipatu erosleek 20.000 pezeta ordaindu zituzten.

Gainerako guztia kontu jakina da, izan ere, hiru hamarkada beranduago, 1929ko urtarrilak 25 eta azaroak 23 bitartean jabetza horren inguruan zintzilik geratu zen guztia legez arautu zen. Aldi berean, baserria, hartako lursail batzuekin batera, C.A.F. enpresaren baitara eskualdatu zen. Bitartean, baserriaren jabedun ziren bi familietako batek Txintxurreta etxea eraiki zuen bere kabuz Senpereko zonaldean; orduan, baserriaren beste alde jabedunak Igarza etxea (Igartetxe) eta hartako etxaguntzak bereganatu zituen Abariako maiorazkoaren azken titularraren eskutik, hots, Tirso de Olazabalen alargun eta familiaren eskutik.

GERTUKO IRAGANEAN PIXKA BAT SAKONDUZ

Ez dugu egun Fabrika denari buruzko ezer aipatuko, ezta tarteko nagusi guztiek egun ezagutzen dugun C.A.F. enpresa egituratzeko eman zituzten urratsei buruzko ezer ere, izan ere, luze eta zabal aipatu dira kontu horiek idatzi askotan eta baita "Fabrika Handiari" buruz bilduma honetan taxututako liburuan ere. Irudika dezagun egoera alderantziz, apur bat atzera eginez: Nolakoak izango ote ziren lur horiek 1860 inguruan, Urbietan lekutu zen F.H.S.M. enpresa zaharra finkatzeko erosi aurretik?

Atal honen hasieran emandako deskribapenen arabera, badakigu lursail horietako gehienak ereiteko lur-eremuak eta belardiak zirela eta, horrez gain, badakigu bi makaldi eder zeudela, bata Agauntza errekako ertzean eta bestea Oria ibaiko ertzean. Zalantzarik gabe horiek izango ziren urte horietan Beasainen laborantzarako zeuden lur egokienak, Oria ibaiaren eta orduan eraiki berria zen tren-geltokiaren artean zeudenekin batera. Bi zonalde horiek ziren herriko lursail lau eta zabalenak. Horregatik, aise irudika dezakegu 1862an izango zuten itxura, finkatzear zegoen trenbiderik gabe, egun bertan dagoen ingurubide-errepiderik gabe eta inolako eraikin, lantegi edota biltegirik gabe.

150 urte atzera eginez gertuko iraganera itzuliko gara, izan ere, Lazkaibarreko zenbait herritar zaharrek behin baino gehiagotan aipatu digute auzo horretako bitxikeria bat, hots, auzo horretako herritarrek Lazkaibarretik Beasainera Fabrikaren barrenetik eguneko edozein ordutan eta gauezko zenbait ordutan joateko (edo alderantzizko bidea egiteko) eskubidea zutela.

Hau zen, herritarren arabera, derrigorrez egin beharreko ibilbidea:

> ***Atari nagusia, trenbidearen azpitik igarotzen zen oinezko tunela eta Lazkaibar-Lazkao errepidera irteera (hain justu, 2005ean eraitsitako galdaketa-lantegi zaharren parean).***

Behin enpresa barruan, ezin ziren muntaketako atariraino joan eta handik auzoko etxetara iritsi, baizik eta galdaketa-lantegien parean zegoen trenbide-pasabide zaharrera heldu aurretik irten behar ziren derrigorrean.

Aurrez esan dugun moduan, XX. mendearen amaiera aldera, artean eraikuntza eta baserri ugari zeuden trenbide-pasabidearen beste aldean, Lazkaoko norabidean. Lazkaibartxiki, Burugorrieneaundi eta txiki, Txintxurreta, Goitia y Compañía enpresako langileen etxe zaharren bat, etab.

Etxe horietan bizi zirenek trenbide-pasabidearen alboan lekutzen zen bigarren atariko zonaldetik errailak gurutzatu besterik ez zuten egin behar fabrikan sartzeko. 229. irudian eta 6e plano-zatian ikus daiteke hori.

Baina, 6. sektoreko plano orokorrean eta 6e planozatian "alboko bide" argi adierazita marrazten den bidexka hori? Ziur aski zonalde horretako herritarrek ez zuten bertatik igarotzeko ohitura utziko, batez ere Iparraldeko Trenbideen Konpainia zaharrak ez zuelako bertan lurrazpiko pasabiderik egin behar izan, trenbidearen ibilbideko beste gune batzuetan ez bezala.

1863an Beasain-Donostia tren-linea martxan jarri zenean (artean errail bakarrarekin), fabrika osoa trenbidearen iparraldera lekutzen zen, 6. sektoreko plano orokorrean puntu marroi txikiz ertzatuta ikus daitekeenez. 1863an Fabrikak hartzen zuen eremua zenbaterainokoa zen jakite aldera, 227. argazkian fabrikaren antzinako azalera adierazi dugu, gutxi gorabehera hiru zirkulu zurien barruan.

6. planoko "alboko bidea" ikustean, beti fabrikako mugak markatuz, pentsatzen dugu 1863tik aurrera Lazkaibarren bizi ziren herritarrek bide hori baliatuko zutela arrunki Beasain aldera joateko. Horretarako, gerora hiltegia hartuko zuen zonaldean zegoan burdinazko zubi berria (Agauntza errekaren gainean eraiki zena) gurutzatuko zuten. Planoan ikusten dugun bidea trenbidea ia ukituz luzatzen zen, izan ere, bere garaian Iparraldeko Trenbidearen Konpainiarentzat desjabetutako lurretan zegoen, horrenbestez, lur-eremu hori aipatu konpainiaren jabetzakoa zen.

6. sektoreko plano orokorrean eta 6e plano-zatian ikusten dugun "alboko bide" hori ere erabiliko zuten zonaldeko herritarrek, izan ere, fabrika zaharrera sartzeko beste ataria aipatu trenbide-pasabidearen alboan paratzen zen, 1866ko fabrikaren deskribapenean adierazten den bezala. Fabrikara sartzeko bigarren atariaz ari garenez, errepideak eta errailek bat egiten zuten gunean erreparatuko dugu jarraian, S hizkiarekin adierazi duguna (6. plano orokorrean trenbide-pasabidea adierazteko erabili dena). 229. irudian ere beste gezi zuri batekin eta S hizkiarekin adierazi dugu leku hori. Irudi horretan lau pertsona ikusten dira nahikoa urrun. Gune horretan zegoen orduan Lazkaibar auzotik fabrikara barruratzeko sarrera zaharra. Irudia handituz askoz hobeto ikusten da.

6. sektoreko plano orokorrean eta 6e plano-zatian sinbolikoki adierazten den moduan, aipatu "alboko bide" hori ez zen leku horretan amaitzen; aitzitik, paraleloki luzatzen zen trenbidearen ondotik, gerora hiltegia paratuko zen zonaldean zegoen burdinazko zubiraino iristeko. XX. mendearen erdialdera Lazkaibar auzoko zenbait herritarrek artean bide hori erabiltzen zuten Agauntza errekaren gainean eraikitako burdinazko zubian barna Beasainera iristeko, ordurako puntu horretan kokatutako Fabrikako zaindariaren baimenarekin. Halaber, bide horretan zehar ibiltzen ziren gaueko iluntasunean zainketa-garitan egoten ziren Fabrikako zaindariak. Aipatu garita burdinazko zubia igaro eta metro gutxira lekutzen zen, txaletak eta enpresako ostatua zeuden aldera eginez.

S.E.C.M. enpresak hartako zuzendarientzat lehen txaletak eraiki zituenean (jakina, zainketa behar zutenak) jarri ziren leku horretan zaindariak. Dena den, 6. planoan "alboko bidea" marraztu zenetik berrogeita hamar urte paseak ziren jadanik. XX. mendearen hastapenean S.E.C.M. finkatzean, trenbidearen bi aldeetara lantegi berriak ireki zirenez, trenbidearen azpitik oinezkoen tunel edo pasabide estua eraiki behar izan zuten, hain zuzen, gaur egun Fabrikako Bulego Nagusien parean ikus daitekeena. Arras beranduago

beste tunel bat eraiki zuten, ostatua eta errekaren alboko pasealekua zeuden inguruan, Senpereko norabidean. Gaur egun, tunel hori Agauntza errekaren hegoaldeko ertzean paratzen da, Oria ibaiarekin bat egiten duen gunetik oso gertu.

Hau guztiau sarrera modura azaldu dugu, Lazkaibarreko auzotarrek zonalde horretako beste bide publiko baten gainean zituzten eskubideak ikusita, izan ere, azkenean eskubide horietatik eratorri baitzen Lazkaibarreko herritarrek enpresaren barnetik ibili ahal izateko zuten antzinako eskubidea. Segidan ikusiko dugunez, eskubide hori 1920-1930 bitarteko hamarkadaren amaiera aldera negoziatu zen, zonaldeko lantegi berriak eraiki eta eraldatu zirenean.

Lazkaibarreko auzotar batek esan zidanez, XX. mendearen erdialdera, artean bazen aldeek (auzotarrek eta enpresak) sinatutako dokumentu bat Beasaingo Udalean. Egun galduta dagoen dokumentu horretan Fabrikan barna ibiltzeko akordio hori aipatzen da, dagoeneko inork oroitzen ez duena. Bitxia izango litzateke dokumentu hori ikustea, besterik ezean, aldeen arteko akordio horri zegozkion xehetasun guztiak ezagutzeko. Lazkaibarreko auzotarrek Fabrikan barna egunean zehar eta gaueko 24ak arte ibiltzeko zuten eskubide hori 1978. urte inguruan geratu zen bertan behera.

Ezagut dezagun akordioa eragin zuen bidexkari zegozkion ñabardura oro. Gogoan izan orain aipagai dugun bidexkak ez zuela zerikusirik arestian aipatutako "alboko bidearekin", ez bada bien hurbiltasuna.

1866. urtean San Martin de Urbieta Burdin Fabrika zaharrarekin lotuta aipatzen ziren etxaguntzen artean, Oria ibaiaren gainean Fabrikara sartzeko zubia, kontrahormaz hornitutako presa eta energia elektri-

koa sortzeko ubidea aipatzen ziren. Ziurtasun osoz esan dezakegu Fabrikako sarbide nagusi hori berria zela. Dena den, ba ote zen orduan Lazkaibar inguruko auzotarrek Beasaingo herrigunera jotzeko laburbide gisa ohikotasunez baliatuko zuten bide zirtzilen bat? Gaur egun Fabrikako zubia dagoen eremu hori da, agian, fabrikak hartzen duen ibaiaren segida luze horretan hura paratzeko punturik onena. Ziurrenera, ibai-tarte luze horretan (Lazkaibarreko zubiraino iritsi arte) altuera gehien hartzen zuen ezpondaren gainean eraikiko zuten. Modu horretan, nekez ureztatuko zuen ibaiak zubia udaberri edo udazkenean ibaiko urek gainezka egiten zutenean.

Zonalde horretan Autoen Errege Bide berria zelaeta proiektatutako ibilbidea ezagutzeko asmoz, arreta handiz aztertu dugu gutxi gorabehera 1765. urtean Francisco de Ibero arkitektoak marraztu zuen Beasaingo ingurumariei buruzko planoa. Urbietako zonalde horretatik ibaiak Mariaratz errekarekin bat egiten duen guneraino ez da Oria ibaiaren gaineko zubirik aipatu edo marrazten. Aitzitik, Iberok argi islatu zituen plano horretan Lazkaibarreko zubia, Lazkaoko norabidean eraikitako Zaldizurretakoa eta baita Igartzako erdi aroko zubia ere.

Arestian Antzizarri buruzko 1. sektorean ikusi dugunez, ez da Oria ibaiaren gainean beste zubirik marrazten, ez 1862ko trenbideko planoetan ezta Iberok taxututakoetan ere. Tolosako Artxibategi Probintzialean Ibero maisuaren jatorrizko planoa (ia 250 urte dituena) ikusi nahi izan dugu, berezko tamainan; modu horretan, gure kopietan, askoz txikiagoak izateagatik, ikusten ez diren xehetasunek ihes egin ote diguten ikusteko.

Jatorrizko planoan ere ez da laborantza-lur horiek (gerora, San Martin Burdin Fabrika finkatzeko baliatu zirenak) zeharkatuz Lazkaibarreko zonaldetik Ibairaino luzatzen zen bide edo bidexkarik antzematen. Agian, horrek zera esanahi du, bide horrek beste ertzetik jarraitzen zuela aurrera, Oria ibaia gurutzatu ostean.

Hala ere, esku artean ditugun 1862ko 6. sektoreko plano honetan eta 6c plano-zatian, arestian aipatu dugun trenbide-pasabidearen ondoko "alboko bideaz" gain, beste bidexka bat ere marrazten da ongi ertzatuta; hain zuzen, Lazkaibartxiki baserritik abiatuz Oria ibairantz jaisten zena zuzenean, orduan Manuel Sixto Lasa "perutarraren" baitan zeuden lurrak zeharkatuz. Ikusgai dugun 6c plano-zatian erreparatzen badugu, badirudi aipatu bideak nolabaiteko ikusizko jarraipena duela, Oria ibaiaren beste aldean kokatutako bidexkarekiko.

Itxura batean, Lazkaibartxiki etxean abiatzen zen bide horrek bat egiten du parez pare duela urte gutxi arte guztiok ezagutu dugun sarbidearekin, izan ere, errepide nagusitik Ezkiagaerdia edo "Ezkierdi" baserrirantz abiatzen zen bidea da. Etxe horri buruz esan, Beasaingo zenbait biztanlek "Baserri beltza" ezizenez ezagutzen zutela. 6c plano-zatian Ezkiaga erdia etxea B hizkiarekin adierazten da, Lazkaibartxiki baserritik Oria ibairaino luzatzen zen bidea, berriz, Q hizkiarekin adierazten da, Beasain-Ordizia-Irun errepide zaharra I hizkiarekin adierazten da eta T hizkiz markatzen da Oria ibaiaren ibilgua. Gainera, aipatu dugun sarbidea gezi zuri batekin eta CA hizkiz adierazi dugu 7. sektoreko 288a irudian.

Idatzizko gogoeta horren ostean, oraindik galdera bat darabilkigu buruan: Nola joaten ziren Lazkaibarreko auzotarrak Beasainera trenbidea iritsi aurretik? Antzizarreko zonaldean bezala, ibaiaren gaineko egurrezko zubi taxugabe bat erabiliko ote zuten? Ibaia zeharkatuko ote zuten horretarako egokia zen guneren batetik? Ala itzulinguru bat egin eta Senpere eta Lazkaibarreko zubi zaharrak erabili beharko ote zituzten ezinbestean?

Zenbait irudi zaharretan ikus daitekeenez, XIX. mendearen amaieran, Beasain-Ordizia errepidean artean ez zegoen egun ibaia gordetzen duen murru altua, izan ere, murru eta espaloiak 1915-1919 bitartean eraiki ziren pixkanaka. Hori dela eta, ez zen aparteko zailtasunik izango uda partean ibaia gurutzatzeko. Nolanahi ere, 6c plano-zatiko marrazkian arreta jartzen badugu, ezin dezakegu esan Lazkaibarretik abiatzen zen bideak ibaia gurutzatzen zuenik. 1. sektorek lehen marrazkian, ordea, ingeniari hark bestela jokatu zuen, Anzizar etxearen parean Eztanda erreka zeharkatzen zuen bidea marraztu baitzuen.

Bada, Lazkaibar auzoko "Unanue tabernako" Maria Dolores Unanuek (familia hori auzo horretan zegoen Olaran etxearen jabeduna zen) aipatu zidanez, bere aitak ibairaino jaisten zen bide zahar bat aipatzen zuen, baina Fabrikako lantegi berriak eraiki eta beste lantegiak aldatu zirenean, bide hori Fabrika barruan gelditu eta azkenean desagertu egin zen. Halaber, Ezkiagako errepidearen inguruan pasabide baten inguruko kontuak ere entzun izan zituela aipatu zidan; dena den, egurrezko zubi horren kokapen zehatzari buruz ez omen zuen ezer entzun. 6. sektoreko plano orokorrean eta 6c plano-zatian Q hizkiz adierazitako bidean arreta jarriz zalantza batek hartzen gaitu, hau da, aipatu marrazkietan trazatzen den bidea bidezortasuna zuen bidexka zaharra ote zen ala ez.

Bestalde, aurrerago irudien laguntzaz ikusiko dugunez, 1905ean S.E.C.M. fabrika berria inauguratu zutenean lur-zati zabal bat eraiki gabe utzi zuten eta

halaxe mantendu zen 1920/1930 bitarteko hamarkadako erdialdera arte. Bada, litekeena da, ibaira heltzeko bide hori lur-zati horretatik igarotzea. 244, 245 eta 295 irudietan Q hizkiz adierazi dugu ibaira abiatzen zen bideak izango zuen gutxi gorabeherako kokapena. Orobat, 229. eta 230. irudietan Q hizkiz markatu dugu oroimenetik ahantzitako bide hori, zeina bat datorren Fabrika zaharraren mugekin. Ezkierdira iristeko bidearen egoera zela-eta, litekeena da Fabrika zaharraren mugarri modura paratutako teilapeen azpian aipatu bidea ezkutatzea. 1905ean S.E.C.M. fabrika handitzeko lanak egin ziren eta orduan hartu zituen enpresak Sixto Lasa "perutarraren" lurrak, nahiz eta bide horri zegozkionak hogeita bost urte beranduago ibili ziren.

1920/1930 bitarteko hamarkadako amaiera aldera Lazkaibarreko auzotarrek fabrikan barrena egunean zehar eta gaueko 24ak arte ibiltzeko eskubidea negoziatu zuen Fabrikarekin eta, hain zuzen, bide ahantzi horrek izan zuen negoziazio horren "errua". 244, 245 eta 295 argazkietan ikusten den lur-zati horretan lantegi berriak eraikitzeko premia zegoen eta, baita muntaketako lantegi zaharrak aldatzekoa ere. Premia hori izan zen ziurrenik auzoko bizilagunekin igarotze-eskubide hori adostea eragin zuena.

Arestian aipatu dugun trenbide azpiko lehen pasabidetik (jarraian ikusiko duguna) igaroko ziren ordutik auzotarrak, halaxe adostu baitzuten aldeek. Ordura arte, ordea, auzotar horiek aurrez aipatutako bideak erabili izango zituzten "betidanik". Lehenik eta behin, Oria ibaiaren hegoaldera kokatutako laborantza-lurretara iristeko; eta, beranduago, leku horretan eraikitako fabrika zaharrera joateko. Bide horiek 229. eta 230. irudiak nahiz 6 eta 6c planoak begiztatzean ikusi ditugu.

Bidearen bi aldeetara lekutzen ziren fabrikako zonaldeak lotzen zituen trenbide azpiko pasabidea lerro zuri batekin adierazi dugu 239. irudian, azpialdean ageri den U hizkiaren azpitik trenbidea gurutzatuz. Era berean, 239a, 239b, 239c eta 239d irudietan bandaje, gurpil eta forjaketako lantegi zaharrak ikusten dira eta baita 1907an lantegi horietan aritzen ziren langileak ere. Beste bitxikeria bat aipatzearren, esangarri da, "paralelo" izeneko muntaketako zonaldea erakusten duen 239e argazkian GE 547 serieko tranbia ezagunetako bat ikusten dela, Madrileko hirian zehar ibiltzeko fabrikatu zena. Tranbia horiek izan ziren "faro elektriko finko modernoz" hornitutako lehenak, kolore ezberdineko bi gezi bertikalez adierazi ditugunak.

Kapitulu honetan Lazkaibar auzoa Beasainekin lotzen zuen bideari dagozkion kontuekin amaitzeko, aipagarria da ez zela ulertzen zenbait herritarrek herrigunera iristeko pasabiderik ez zutenik. Horrela, inguruko bi herritako jurisdikziotik ibili behar zuten Udaletxera iristeko. Guk behintzat ez dugu halako egoera ageri duen auzorik ezagutzen Gipuzkoa osoan.



GIPUZKOAKO BIDE NAGUSIA BEGIZTATUZ

EZKIAGABASOA edo EZKIABASOKOA, gerora Ezkiabaso izen soilez izendatu zen baserria herrigunetik "oso urrun" zegoen. Hala ere, Fabrikako atari nagusira iritsi baino apur bat lehenago kokatzen zen, trenbidetik eta Autoen Errege Bidetik ezkerrera. Garai hartan Udalak esleitzen zuen zenbakikuntzaren arabera, Ekialdeko Zatiko lehen zenbakian paratzen zen, herrigunearen ekialdera lekutzen zen lehen eraikina baitzen. Gutxienez 1567az geroztik ageri dira etxe zahar horri buruzko idatziak. 6. sektoreko plano orokorrean, 6g plano-zatian nahiz 250 eta 288a argazkietan baserri hori ikus daiteke Y hizkiz adierazita. Azken argazkian, era berean, zirkulu zuri batekin markatu dugu, irudiko azpialdeko eremuan, ezkerrera.

6g plano-zati horretan Ezkiagabasoa baserria marrazten da; halaber, errepidetik baserrirantz adarkatzen zen N bidea (egun auzora iristeko eskailerak paratzen dira bertan); A hizkiz adierazi dugu bide horren jarraipena, Letemendi aldera, aipatu baserriaren ezkerretik; azkenik, errepidearen eta ibaiaren artean kokatzen zen lur-zati estua ikus daiteke. Lur-zati horren azalera erabilgarria handitu egin zen ibaiaren alboan eustorma eraiki zutenean eta, gerora, kotxetokiak eta Ezkiaga auzoko langileen etxeak eraiki ziren. Garai hartan Ezkiabaso baserriaren baitakoa zen lur-zati hori gezi bertikal marroi batekin eta X hizkiarekin adierazi dugu 6g plano-zatian.

1866an Beasaingo Hipoteken 4. liburu zaharrean, hirugarren folio irauliko 5. zenbakian idatzitako oharpen batean, jabetzari dagokion idatzi bat paratu zen. Halaxe dio:

> *"…en la Contaduría de división y partición de bienes que fueron de D. Manuel José de Zabala Idiaquez Alzolaras y Aramburu, III Conde Villafuerte, que falleció en Tolosa el 6 de Octubre de 1.842 bajo testamento de hermandad con su esposa Dª Escolástica Salazar, se adjudicó para pago de sus legítimas a su hijo D. Ladislao de Zabala y Salazar el citado caserío Ezkiaga basoa con todos sus pertenecidos…"*

Idatzi hori 1843ko urriaren 10ean sinatu zen Beasainen. Dena den, aurrezarritako idatzian legez eskatzen ziren zenbait baldintza betetzen ez zirenez, Jose Francisco Arana Echeverria beasaindarrak eta Ladislao de Zabala y Salazar tolosarrak aurkeztutako eskrituraren arabera ebatzi zituen Beasaingo eskribaua zen Manuel de Unsainek. Aipatu bi gizonak ezkonduak, jabedunak eta adin nagusikoak ziren, aurrerago ikusiko dugunez. Ezkiaga basoa etxeak (hari esleitutako zenbakirik ez dugu topatu) muga hauek zituen:

Iparraldera, bide publikoa; hegoalde eta ekialdera, etxearen onibarrak; eta sartaldera, sarrerako ataurrea. 1866an, trenbidearen plano hauek sinatu eta lau urtera, 9.678 erreal eta 24 zentimo balio zuen etxeak.

Etxearen aurrealdean zeuden onibarrak haren baitakoak ziren baina zedarriztatze bakarrarekin. Aipatu onibar horietan, alde batetik, ereiteko lur-eremuak eta, beste alde batetik, belardi eta sagastiak barneratzen ziren. Ereiteko lur-eremuen edukiera 551 ondokoa zen (18.895 m^2) eta belardi eta sagastiena, berriz, 62,5 ondokoa (2.145 m^2), hauek zirelarik mugak:

Iparraldera, etxea eta bide publikoa; hegoaldera, Autoen Errepide Nagusia; ekialdera, Ordiziako Valmedianoko markesaren lurrak; sartaldera, autoen galtzada berritik baserriraino adarkatzen zen bide publikoa. Haren balioa 25.846 beloi-errealekoa zen garai hartan.

Kaminazpia izeneko onibarra, 32 ondoko edukiera zuena ereiteko lurretan eta 18 ondokoa belarditan (1.716 m^2), muga hauekin: iparraldera, Valmedianoko markesaren lurrak, hegoalde eta ekialdera, Oria ibaia; sartaldera, Autoen Errepide Nagusia. Haren balioa 2.564 beloi-errealekoa zen (horixe da, hain justu, gerora, besteak beste, kotxe-tokiak, C.A.F. enpresako etxeak edota haurren eskola eraikitzeko baliatu zen lursaila).

Gaztainadiz hornitutako beste lursail bat, Ezkiaga basoa baserriaren goiko zonaldean kokatua, 510 ondoko edukiera zuena (17.503 m^2) eta muga hauek:

Iparraldera, San Millaneko markesaren Ezkiaga erdia etxeko lurrak; hegoaldera, Irunen bizi zen Tirso de Olazabal y Lardizabalen (Abariatarren leinukoa) onibarrak; ekialdera, bide publikoa; sartaldera, Ezkiaga erdia etxeko lur gehiago. Haren balioa 6.630 beloi-errealekoa zen.

Etxeko ataurreek hartzen zuten lur-eremua 60 m^{2}koa zen soilik eta muga hauek zituen:

Iparralde eta sartaldera, bide publikoa, hegoaldera, baserriko onibarrak; ekialdera, baserria bera. 17,5 beloi-erreal balio zuen.

Ezkiaga basoa etxearen balioa 44.375 erreal eta 74 zentimokoa zen orotara 1866ko martxoaren 22an.

Garai hartan ez zegoen inolako kargarik etxearen gainean eta ez zegoen harekin lotutako betebeharrik ere. Villafuerteko kondea zen Ladislao de Zabala y Salazarrek, Ordiziako Zabala Jauregiko jabedun zenak, Juan Francisco Aldanondo Aldasorori saldu zion jabetza hura. Eroslea beasaindarra zen, 34 urte zituen eta ostalari eta harakina zen herrian. 37.000 errealen truk gauzatu zen erosketa, derrigorrez urre eta zilarrezko monetak erabiliz ordaintzekoak

Azken pertsona horren gainean zertxobait gehiago jakite aldera, esango dugu Micaela Arsuagarekin ezkonduta zegoela eta bost seme-alaba izan zituztela: Jose Manuel, Jose Antonio, Maria Antonia, Marcelina eta Severiana Aldanondo Arsuaga. Garai hartan aipatu gizonak Aranberri ostatua Udalari laga zion alokairuan. Horrenbestez, haren funtzionamendua Udalak arautu behar zuen. Ostatua alokairuan hartu zuen errematatzailea arduratzen zen, era berean, udalerria haragi, olio, ardo eta bestelako salgaiez hornitzeaz, aldeen artean aurrezarritako tasak errespetatuz. Alokairu-kontratu hori lau urtean behin agortu ohi zen.

Ezkiabaso etxearen salmentari dagokionez, Jose Maria Furundarena notarioak salmentan aurrezarritako baldintzen arabera baliozkotu zuen eragiketa, arestian izendatu dugun Villafuerteko kondearen ahalordedun zen Manuel de Egoscozabal Alzamendik egikaritutako izapidearen arabera. Aipatu ahalordeduna ezkondua, maisua, peritu lur-neurtzailea, adin nagusikoa eta ordiziarra zen.

Juan Francisco Aldanondo ostalariak aipatu eragiketako titulua erregistratu zuen, salerosketa-kontratuan baldintza hauek ezarrita:

> *"…que la venta efectuada sea libre de todo gravamen, y que serán por cuenta del comprador las reclamaciones que pudieran hacer los inquilinos del caserío acerca de las mejoras que hubieran podido efectuar en la citada casa y dentro de sus pertenecidos"*

Hori guztiori Sebastian Muguerza notarioaren aurrean 1867ko uztailaren 19an Ordizian egikaritutako eskrituran ageri da. Kontua ez zen, ordea, horrela amaitu, izan ere, astebete beranduago, Aldanondo ostalariak etxea eta hartako etxaguntzak Jose Maria Izaguirre Oyarbide zegamarrari saldu zizkion. Azken hori ezkondua eta jabeduna zen, eta 55 urte zituen. Orduko horretan 47.000 erreal ordainduta gauzatu zen salmenta. Kopuru hori eskritura berria sinatzean ordaindu zen, 1867ko uztailaren 27an.

Dokumentuan ez da zehazten salmenta hori beloi-errealetan ala urre eta zilarrezko monetatan gauzatu zen. Hala ere, dokumentuan horri dagokionez ezer aipatzen ez denez, pentsatzen dugu astebetean lortutako %27ko gainbalio horren arrazoia, neurri batean, bi monetek merkatuan balio ezberdina zutelako izango dela.

Jose Maria Izaguirre Maria Mendiarekin ezkonduta zegoen eta zazpi seme eta alaba bat izan zituzten: Josefa, Ignacio, Lucas (zendua), Francisco, Jose Ignacio, Julian, Juan Jose eta Pablo Izaguirre Mendia. Testamentua egiteko garaian, familiako aitak seme-alaba bakoitzari entregatutako kopuru eta hornidurak ere deklaratu zituen. Erreinuan indarrean ziren legez zegozkion ahalmenak erabiliz Maria Mendia emazteari laga zion ondasun higigarrien, higiezinen eta akzio guztien bostena.

Halaber, testamentuan emaztea ahalmendu zuen ondasun horien herena aipatu semeetako bat edo gehiagori lagatzeko. Eta, gainerako ondasun guztiei zegokienez, Josefa, Francisco, Francisco Ignacio, Julian, Juan Jose eta Pablo seme-alabak eta Esteban Izaguirre biloba ezarri zituen oinordeko bakar eta unibertsal modura. Azkena zendutako Lucas semearen ordezko gisa, izan ere, seme beraren aldetik izan zituen beste bi bilobak ere hilik zeuden ordurako.

Ondasunen kontularitza Juan Jose Elorza lizentziatuari agindu zitzaion. Hainbat puntu jarraituz osatu zuen hark kontularitza eta, besteak beste, laugarrengoan honakoa aipatu zuen:

> *"…a Dª Josefa, 5.500 reales y el menaje de boda que viene expresado en su contrato matrimonial; a D. Lucas, padre de su nieto D. Esteban Izaguirre, la cantidad de 31.470 reales, dado que se le dieron anteriormente otras partidas y se recogieron igualmente el mantenimiento de los tres niños que inicialmente dejó; a D. Francisco, 4.300 reales; a D. Francisco Ignacio, 8.550 reales; a D. Julián, 8.550 reales; y a D. Pablo, el padre dejó a deber 4.320 reales al señor D. José Otegui, por haber substituido éste último a su hijo Pablo en el reemplazo militar del año en que le correspondió…"*

Kopuru horren erdia herentzian banatu zen, bere garaian amarengandik jasotzekoa zen beste erdia banatzeko eskubidea gordez.

Bosgarren puntuan zera irakur zitekeen laburbilduta:

> *"…Que su hijo D. Julián Izaguirre falleció el 21 de Noviembre de 1.880, intestado y sin dejar sucesión, heredando por tanto la madre Dª María Mendia…"*

Seigarren puntuan adierazten zenez, alargunak eta Juan Jose semeak, zendutako Izaguirre jaunaren testamentuzko jaraunsle izaki, ondare aktibo eta pasiboen deskribapenari buruzko eskritura eman zuten. Guztien artean hainbat zuzenketa egin zituzten. Hala, besteak beste, jabetza 11.750 pezetatan balioetsi zuten, egindako tasazioan agertzen zen zenbatekoa handiagoa izan arren. Etxeari eta hartako etxaguntzei esleitutako zorrari zegokionez, 4.320 errealeko kopurua aintzat hartzea adostu zuten, horrela ezarri baitzen hasiera batean, Jose Otegi jaunak soldadutzan semeetako bat ordeztearen truke.

Halaber, ondasun guztiak Maria Mendia alargunaren alde geratuko zirela adostu zuten. Horrenbestez, 18.611 erreal eta 96 zentimo jaso zituen, horrela ordaindu zirenak:

> *"…a Dª Josefa, 891 reales con 24 céntimos; a D. Francisco, 1.041 reales con 24 céntimos; A D. Francisco Ignacio, 509 reales con 99 céntimos; a D. Pablo, 1.038 reales con 74 céntimos; a D. Juan José, 1.578 reales con 74 céntimos; y por último quedaría, las 13.552 pesetas a la que ascendían las deudas…"*

Hori aitarengandiko legezko ondasunei zegokion eta horiei esker etxearen gaineko kargak ordaindu ahal izan zituen. Jabetza, beraz, Maria Mendia amak bereganatu zuen 1881eko uztailaren 4an. Urte horietan Ezkiagabasoa, Ezkiabasokoa edo Ezkiabaso (hiru modu horietara izendatzen baitzen) baserriak 266 m²ko azalera zuen, etxearen kanpoaldean ogia egiteko zegoen labea barne.

Etxearen beheko aldean artean ereiteko lur-eremu bat mantentzen zen, 551 ondoko edukiera zuena (18.900 m²) eta baita 62,5 ondoko beste bat ere (2.145 m²). Etxearen goiko aldean, berriz, lursail gehiago, 510 ondoko edukiera osatzen zutenak (17.500 m²) eta, horiez gain, ataurrea, 60 m2koa.

1884ko uztailaren 23an Maria Mendiak etxea eta hartako etxaguntzak saldu zituen berriz ere. Juana Bautista Arin ataundarrarekin ezkonduta zegoen Antonio Zabala y Rezolak erosi zituen, Prudencia Zabala Arin alabarentzat. Sei urte beranduago, 1890eko uztailaren 2an, ostera era hainbat lur bereizi ziren:

Mariaratzeko amildegitik gertu zegoen Labin gaztainadia, 7.053 m2koa, Isidro Maria Aizpuru Goitia ordiziarrari saldu zitzaion. Kurioski, 1917ko urtarrilaren 27an pertsona berak eskuratu zuen Ezkiabaso etxea hartako etxaguntza guztiekin. Kasu horretan 17.000 pezeta ordainduta gauzatu zen salerosketa. Garai hartan gizon hori San Isidro Granjaren jabea zen (antzina Arranomendia baserria zegoen haren lekuan), 1892an bereganatu baitzuen Ordiziako Gazteluzar familiaren eskutik.

Aurrez gertatu bezala, Julian Sarasola Dorronsorok (adin nagusikoa, ezkondua, laboraria eta beasaindarra) Ezkiabaso etxea eta hartako etxaguntzak bereganatu zituen; Ordiziako Isidro Maria Aizpuru Goitiak eskuratu eta bi egunera izan zen hori. Horretarako, salerosketa-kontratua osatu zen, kopuru jakinik zehaztu gabe. Dena den, eskudirutan kopuru jakin bat ordaintzeaz gain, bi hipoteka ireki behar izan zituen ordainketa burutzeko. Alde batetik, Pablo Txintxurreta Amundarain beasaindarraren alde, 3.000 pezetakoa; beste hipoteka, 2.500 pezetakoa, Jose Antonio Echave Goya zaldibiarraren alde. Horrez gain, 1917ko urtarrilaren 29an beste 1.000 pezeta ordaindu behar izan zituen gastu eta kostuen truke.

Hala ere, lehenago aipatu dugun Kaminazpia izeneko baserriko lursaila Villafuerteko kondeak Jose Francisco Arana 41 urteko fabrikatzaileari saldu zion 1866ko martxoaren 17an. Kasu horretan 5.128 beloierreal ordaindu zituen bigarrenak. Hori Autoen Errepide Nagusiaren alboan, errepide horretako iparraldeko ertzean zegoen izen bereko beste lursaila zen, 1916an Serafin eta Pedro Arana anaiek baliatu zutena zumezko altzarien fabrika zaharra finkatzeko. Hogei urte beranduago, 1936an, Olaran Manufakturak zurrategia eraiki zen leku horretan. Hortik aurrerakoa guztiok dakigu.

251. argazkian beste lursail horren zati bat ikus daiteke, non oraindik Olaran enpresa zenaren aztarnak ikusten baitira (dagoeneko eraitsita egon arren). Iru-

diaren azpialdean, halaber, ibaiaren alboko pasealekua ikus daiteke. Hori ere Ezkiabaso baserriaren baitakoa zen XIX. mendearen erdialdera, ibaiaren alboan lehen aipatu dugun eustorma eraiki baino askoz ere lehenago. 252. argazkian 1991n eraitsi zen CAF enpresako langileen etxeko patio-zonaldea ikus daiteke. Auzo horretako bizilagunek oso ongi gogoratuko dute. Ibaiaren ondoko zonalde horretan zenbait auzotarrek, horien artean Victoriano Labordek, butroiak botatzen zituzten presaren azpialdera, hurrengo goizean soka baten laguntzaz jasotzeko.

Zerrenda ditzagun, azkenik, 1862an Ezkiabaso baserrian bizi ziren pertsonak:

Alde batean Juan Bautista Esnaola eta Rafaela Garmendia senar-emazteak bizi ziren, Pedro, Jose Francisco, Josefa Ignacia eta Santiago Esnaola seme-alabekin. Horiekin batera Jose Ignacio Peña apopiloa ere bizi zen.

Etxearen beste aldean Jose Maria Esnaola eta Juana Bautista Otamendi senar-emazteak bizi ziren, Jose Cruz eta Jose Miguel Esnaola Otamendi semeekin batera.

Ezkiabaso etxea ere eraitsi egin zuten 1973an. Kasu horretan, antzinako orubearen gainean etxe eder bat eraiki zuten Sarasola familiarentzat, hain justu, Letemendi eta Erauskin aldera zihoan bide zaharraren alboan.

EZKIAGAERDIA edo EZKIERDI jendartean "Baserri beltza" izenez ezagutzen zen baserria zen. 1862an etxea Beasaingo Ekialdeko Zatiko 2. zenbakian kokatzen zen; 1. zenbakia Ezkiabaso etxeari zegokion, Ezkia calzada edo Ezkiatxikia 3. zenbakian zegoen eta 4. zenbakian Mariaratz kokatzen zen. Ezkiatxiki etxea "Baserri zuri" izenez ere ezagutzen zen. Azken bi etxeei buruz Lazkaibar inguruan, Oria ibaiaren bi aldeetara kokatutako zonaldeari dagokion 7. sektoreko plano orokorrean hitz egingo dugu.

1997ko 253. irudian Ezkiaga erdia baserria ikus daiteke, eraitsi baino urtebete lehenago eta, dagoeneko eraikuntzaz inguratua alde guztietatik. 6. sektoreko plano orokorrean eta 6c plano-zatian ere haren kokapena ikus daiteke, B hizkiarekin adierazita. Halaber, 288a irudiaren erdialdean CA hizkiz adierazita ikusten da, ezkerraldean. Etxe zahar horri buruz, gutxienez 1567az geroztik jasotzen dira idatzizko aipamenak. Haren jabetasuna ikertzean ezusteko bat ukan dugu, segidan azalduko dugunez.

Ezkiagabasoa edo Ezkiabaso Villafuerteko kondearen jabetzakoa zen eta aipagai dugun eraikina, berriz, Villaalegre eta San Miliango markesa zen Luciano Porcel y Valdiviaren baitakoa zen 1862an. Bitxia irudi badezake ere, gizon hori Beasainen jaio zen 1813ko urtarrilaren 8an, hala dio bederen bere jaiotza-agiriak. Dena den, ez dakigu hori izan ote zen bere jaiotetxea. Harrigarri samarra da Villaalegre eta San Miliango markes hori gure herrian jaio izana, izan ere, bere gurasoen oinetxea eta haien jabetza gehienak ez zeuden Beasainen.

Rafaela de Valdivia y Bravorekin ezkonduta zegoen Trinidad Antonio Porcel y Aguirreren semea zen aipagai dugun Luciano Porcel y Valdivia; haren alaba, Blanca de Porcel y Guirior, San Milian eta Vistaalegreko VII. markesa izan zen. San Miliango markesa idazten jarraituko dugu, izan ere, halaxe idazten da irakurri ditugun dokumentu guztietan, nahiz eta zenbait iturritan San Millango markesa ere irakurri dugun. Jakin-minak bultzatuta, atzera egin dugu bere genealogia arakatzeko (zeina, bide batez, berria baita Beasainen, orain arte ez baitugu topatu). Horrela, hemen 1696an abiatu zela ikus dezakegu, Oquendo eta San Millan abizenak ahaidetu zirenean.

Oquendo hori Antonio Oquendo almirantearen ondorengoa zen. Gizon hori Maria de Lazcanorekin ezkondu zen. Azken horrek, jadanik alargun zela, 1640. urtearen bueltan Lazkaoko Jauregia eta Santa Teresa eta Santa Ana Komentuak eraiki zituen herri horretan. Zer gertatu izango zen Oquendo-San Millan familiako ondorengo batek Beasainen Ezkiaga erdia izeneko jabetza hori izateko? Oquendo eta San Millan familien Gipuzkoako jabetza ugari Usurbil, Billabona, Zizurkil

eta Lasarte inguruan sakabanatzen ziren, horien artean, haien dorretxe ezaguna eta haren inguruko ohiko multzoa, hots, burdinola, errota eta Las Brigidas izeneko komentu ezaguna. Guk zera pentsatzen dugu (hori berresten duen dokumenturik ez izan arren), agian Lazkaoko Infanterriko etxearen eskutik jaso zuela aipatu gizonak herentzian.

Orobat, Ezkiagaerdian bizi izan zen Oquendo sendiko azken andreak, orduan San Miliango VII. markesa zen Blanca de Porcel y Guiriorrek Manteo izeneko oinetxea laga zion Donostiako hiriari 1939an. Lehenengo aldiz 1950. urtean zaharberritu zen etxetzar hori Ulia mendiaren oinetan, Gros auzoaren bihotzean, dagoen dorretxea da. Bertan Oquendo Almirantearen museoa ezkutatzen da.

Ezkierdi baserrira itzuliz, esan dezagun 1862an beheko solairuak, goiko solairuak eta ganbarak osatzen zutela haren egitura aldeetako batean. Iparralde, hegoalde, ekialde eta mendebaldera hartako etxaguntzak zituen mugakide. Eraikinaren azalera eraikia 250 m²koa zen eta haren balioa 1.710 pezetakoa. Orobat, etxearen sartaldera 50 m²ko teilape edo estalpen bat zegoen, etxearen etxaguntzak zituena mugakide iparralde, hegoalde eta mendebaldera. Ekialdera, berriz, etxea zen aipatu teilapearen mugakide. Teilape horren balioa 130 pezetakoa zen orduan.

Etxearen alboko lursail nagusiak, **Etxeburua** eta **Etxeazpia** izenekoak, zedarritze bakarraren baitan zeuden, haien azalera 23.045 m²koa zelarik ereiteko lurretan; beste onibarrak 12.400 m²ko azalera hartzen zuen eta gaztainadia, belardia, otalurra eta otadia barneratzen zituen.

Honatx etxeko ataurreen mugak urte horietan:

Iparraldera, Ezkiaga errekastoa eta **"Zapirikoa"** baserriko lurrak (sic); ekialdera, Oria ibaia eta "Maiaz" baserriko lurrak (sic); hegoaldera, Ezkiabasoa, **"Maiaz"** eta Letemendi baserrietako lurrak; sartaldera, Letemendi baserriko lurrak eta iparraldetik hegoaldera hura zeharkatzen duen galtzada. Haren balioa 3.952 pezeta eta 75 zentimokoa zen.

Idatzita bezala eman dugu deskribapena. Dena den, aipatzen diren izen horiek arrunt bitxiak iruditzen zaizkigu, orain arte ez baikenituen ezagutzen. **"Zapirikoa"** eta **"Maiaz"** baserriak Ordizia eta Lazkaon ere ez dira agertzen, nahiz eta haietako lurren kokapenari so, jurisdikzio horietako batean sar zitezkeen. Bigarren izenarekin Mariaratz esan nahiko zuten ziurtasun osoz, batez ere, hartako lurren kokapenari so, izan ere, fonetikoki antza handia dute bi hitzek. Aitzitik, dokumentu horietan behin baino gehiagotan agertzen den "Zapirikoa" izena entzuten dugun lehen aldia da.

Onibarrekin jarraituz, mintzagai dugun baserriaren baitan **Mintegialdea** izeneko larre-saila ere agertzen zaigu, 12.046 m²koa. Lur-eremu horretan hariztia, irasaila eta otadia barneratzen ziren eta hauek ziren haren mugak:

Iparraldera, **"Maiaz"** baserriko lurrak; ekialdera, Sagastizabal eta Ezkiatxipia baserrietako etxaguntzak; sartaldera, Errekalde baserriko lurrak; hegoaldeko mugak ez dira aipatzen. Bere orduko balioa 481,84 pezetakoa zen. Kasu zehatz honetan Ordiziako Sagastizabalgaraikoa ("Potxo") eta Errekalde baserriak aipatzen dira. Bigarrena herri hartako Sanperio jauna bertako jabedun zelarik desagertu zen.

Beste dokumentu honetan segidan irakur daitekeenez, 1856ko uztailaren 7an truke bidez Burugorrienea baserriko Juan Martin Aranaren eskutik jasotako lurrak mantentzen zituen artean aipagai dugun baserriak. Truke bidez jasotako lur horiek Txintxurreta baserriko atalari dagokion deskribapenean aipatu ditugu. Juan Martin Arana Jose Francisco Arana Echeverriaren aita eta Jose Martin Arana Arregiren aitona zen. Bietako lehena zen garai hartan Erauskin inguruko Burugorrinea aundi, Burugorrinea txiki eta Ferminene baserrien jabeduna. Honatx, beste lursail batzuekin trukea egin ostean, eskuratutako lur horien deskribapena:

San Andresazpia izeneko gaztainadia, muga hauekin:

Iparraldera, Tirso de Olazabal y Lardizabalen baitakoa zen Igartza etxea baserriko etxaguntzak; ekialdera, Lazkaibartxiki baserriko (hasiera batean Torretagleko markesaren baitakoa eta beranduago Manuel Sixto Lasaren jabetzakoa) onibarrak eta bidea; hegoaldera, "Maiaz" eta San Andres baserrietako etxaguntzak; sartaldera, San Andres baserriko lur gehiago. Aipatu gaztainadiak 6.446 m²ko azalera zuen eta bere balioa 515 pezeta eta 68 zentimokoa zen.

Ezkiburu izeneko beste gaztainadi bat, muga hauekin:

Iparraldera, Igarza etxeako lur gehiago eta Francisco Arana Echeverriaren onibarrak; ekialdera, Letemendi baserriko etxaguntzak; hegoalde eta mendebaldera, Ezkiaga basoa baserriko lurrak. Onibar horrek 2.846 m²ko azalera zuen eta 227 pezeta eta 68 zentimoko balioa zuen orduan.

Ezkiaga erdia eta hartako etxaguntzen balioa, orotara 7.017 pezeta eta 95 zentimokoa zen.

1883ko uztailaren 21ean jabetza horrek hipoteka bat zuen beregain (ez dugu harekin lotutako kapital eta korrituaren berririk) San Miliango markesak eza-

rria Beasaingo 5. liburu partikular zaharreko 27. folioko 34. zenbakian erregistratutako lur-truke bati aurre egiteko, bestelako betebeharrik gaineratu gabe.

Beranduago, Jose Maria Furundurena y Sos 71 urteko beasaindar ezkondua agertzen da Vistalegre eta San Miliango markesaren ondasunen ahalordedun modura, Ramon de Altarriba y Villanuevak (Sangarrengo baroia eta orduan Vistalegre eta San Miliango markesa zen Luciano Porcel y Valdiviaren albazea) emandako ahalmen hirukoitzaren arabera. Era berean gizon hori zen 1883an Basilia Maria de la Blanca Porcel y Guirior emaztearen ondasunen legezko administraria, bera baino gazteagoak ziren bi ezkonarreben (Josefa eta Maria de los Dolores Porcel y Guirior andereñoak) ondasunen zaindari izateaz gain, Granadako notarioa zen Abelardo Martinez Contrerasek hala egiaztatu ostean. Jose Maria Furundurena y Sos Beasaingo Epaitegian bertaratu zen honakoa azaltzeko:

Vistalegre eta San Miliango markesa zen Luciano Porcel y Valdivia izan zela Ezkiaga erdia finkaren jabeduna Trinidad Antonio Porcel y Aguirre aitarengandik herentzian jaso ostean, baina horri buruzko idatzizko titulurik ez zuela. Jabetza haren gaineko edukitze baketsu eta iraunkorra izan zuela hartako jabedun modura azken 30 urteetan, inolako eta inoren eragozpenik izan gabe, hain zuzen, 1877ko azaroaren 13an zendu zen arte. Azkenik, lekukoen informazioa aurkeztu zuen eta, era berean, alkateak, errejidoreak eta idazkariak sinatutako ziurtagiria, zeina azken horrek, Jose Domingo Mugicak, igorri zuen. San Miliango markes hori "Probintziako Aberastasunen Erregistroan" aipatu jabetzaren jabedun modura agertzen zen. Gainera, azken hogeita hamar urteetan onibar horien jabetzatik eratorritako kontribuzio guztiak ordainduak zituen.

Lekukotza onartuta, herriko jabedun ziren Jose de Ibarrolaburu (Bidearte aundi etxekoa) eta Juan Francisco Aldanondok (herriko Aranberri ostatukoa) deklaratu zuten esanez ziurta zezaketela aipatu gizona deskribatutako jabetzen jabeduna zela. Horrenbestez, 1879ko apirilaren 14an Joaquin Urteaga udal epaileak aldeko autoa eman zuen, eskubide hobeko hirugarren bat agertzearen kalterik gabe. Hori guztiori 1883ko uztailaren 21eko Aldizkari Ofizialeko 13. liburukian, 134 folio iraulian, 479 idazpenean agertzen da. Urte horietan Vistalegre eta San Miliango markesa jadanik Granadako hirian bizi zen. Emaztea hil zenean bigarrenez ezkondu zen Maria Javiera de Guiriorrekin eta alaba bat izan zuten, Maria Dolores Porcel y Guirior. Bere alaba gazteenen zaindari gisa izendatu zuen Ramon Altarriba (Sangarrengo baroia) suhia eta bere hiru alabak ezarri zituen jaraunsle unibertsal modura: Basilia Maria de la Blanca, Josefa Gregoria eta Maria de los Dolores Porcel y Guirior. Horren ostean, kontularitza eta banaketak egin ziren. Juan Maria Mascaro Lopez eta Abelardo Martinez Contreras arduratu ziren eginkizun horretaz. Horiek eginda, Sangarrengo baroiak onartu zituen, bera baitzen testamentu-albazea bakarra. 1881eko uztailaren 4an gertatu zen hori, Gipuzkoako Lasao (Azpeitia) herrian.

1881eko uztailaren 18an onarpen-autoa eman zen Granadako Epaitegian, Luis Camilo Martinez aktuarioak emandako lekukotzari esker. Lekukotza horren ondorioz, Maria Dolores Porcel y Guiriorren ondasunak 1.196.335 pezeta eta 48 zentimotan balioetsi ziren, haren aitarengandikoak soilik kontuan hartuz. Ondasun higigarri horiei zegozkion zati txiki baten ordainketa modura, andereño horri Beasainen lekutzen zen Ezkiagaerdia jabetza esleitu zitzaion. 1881ean etxea eta aurrez aipatutako etxaguntzak 7.017 pezeta eta 95 zentimotan balioetsi ziren. Baserria, beraz, aitarengandiko ondasunengatik orotara egokitu zitzaionaren %0,59 baino ez zen.

Aipatu esleipendunak, Dolores Porcel y Guirior ezkongabeak, azkenik, bere izenean erregistratu zuen jabetza 17 urte besterik ez zituela. Aipatu liburukia osatzen duten beste 12 finkak (liburuki horretatik jaso baita aipatu berri dugun idazkuna), aurrez aipatutako idazpeneko zenbaki ezberdinetan erregistratuta daude. Hogeita hamazazpi urte beranduago, Dolores Porcel y Guirior Zestoan bizi zen eta Justina Agerta Aguirre zen bere ordezkaria, 1918ko urtarrilaren 6an Bartzelonan onartutako ahalmenaren arabera. Azken hori alarguna zen eta orduan Donostian bizi zen.

Baserriaren historia laburraren amaierara iristen ari gara, izan ere, 1918an etxea eta hartako etxaguntzak Martin Iturrioz Aguirre eta Jose Mugica Aguirre egoileek erosi zituzten. Aipatu egoileak adin nagusikoak eta laborariak ziren eta Teodora Iturrioz eta Maria Irastorzarekin ezkonduta zeuden, hurrenez hurren. Egoileek zati berdinetan gauzatu zuten erosketa, pro indiviso modura, bakoitzak 16.250 pezeta ordainduta. 1937ko urriaren 15ean erregistratu zituzten jabetza horiek. Beranduago, Martin Iturriozek berari zegokion zatia Teodora Irastorzari laga zion herentzian. 1945eko uztailaren 6an gertatu zen hori.

Deskribatu ditugun gainerako etxeen kasuan egin bezala, 1867an "Ezkierdi" etxean bizi ziren hiru sendiak aipatuko ditugu:

Pedro Iturrioz eta Maria Martina Mugica senar-emazteak Juan Bautista eta Martin Ignacio Iturrioz Mugica semeekin batera; Francisco Arregui eta Maria Bautista Trecu senar-emazteak; eta, azkenik, Meliton Juindo eta Francisca Antonia Arrieta senar-emazteak, Juan Jose Juindo eta Jose Maria Azkoitia apopiloekin.

Eta kontatzen ari garen historia gehienetan gertatu bezala, etxe horren ibilbidea eraisketa baten ondorioz amaitu zen, 1998. urtean.

Herriguneari dagokion 4. sektorearekin eta Geltokiari dagokion 3. sektorearekin batera, hau da 1862tik hona aldaketa gehien izan dituen zonaldea, bete-betean sartu baitzen lehen industria-iraultzan. Zer geratzen ote da XIX. mendeko Beasain horretatik!

7. sektorea

Lazkaibar

7 zenbakidun planoa



PLANOAN IKUS DAITEKEENA

Bi puntu zuri handirekin adierazi dugu gerora trenbidea izango denaren ibilbidea.

A Ezkiaga galtzada edo Ezkiatxiki baserria.

B Mariarats baserria.

C Lazkaibar txiki baserria.

D Upabia edo Upabi etxea.

E Beasain eta Ordiziako jurisdikzioen arteko muga teorikoa.

F Trenbidearen gaineko zubia Upabiako zonaldean.

G Agirre edo Agirretxiki baserria.

H Zubiaurre edo Bentazuri etxe zaharra Lazkaibarreko zubiaren aldamenean.

I Lazkaibarreko zubia.

J Lazkaibar-Senpere-Lazkaorako errepidea.

K Upabiatik Oria ibaiertzeraino zihoan bide zaharra.

L Trenbidea.

M Upabia-Arranomendiarako (egun San Isidro Granja) bide zaharra, egun autobian dauden tunelen beheko zonaldean.

N Lazkaibar auzoko trenbide-pasabide zaharra.

O Lazkaibar txikitik Oria ibairaino zihoan bidea Fabrikako zonaldean.

P Upabia-Agirre-Arranomendir

ko bidea, mendi-mazelaren erdialdetik igarotzen zena Galardi muinoaren gibelean.

Q Beasain-Ordizia-Irun-Frantziarako errepide zaharra.

R Oria ibaiaren ibilgua.

S Mariaratzeko errota zaharraren kokapena, planoaren arabera.

T Mariaratz baserriko estalpe zaharra.

U Fabrikara sartzeko alboko bide zaharra, orain bigarren mailako beste ataritik, Lazkaibarreko trenbide-pasabidearen alboan kokatua.

V Galardi muinoaren mendi-mazelaren erdialdetik igarotzen zen bide zaharra, Lazkaibartxiki-Txintxurreta-Igeldegi eta Senpere auzoko iparraldeko zonaldea zeharkatzen zituena.

X Mariarats errekaren ibilgua.

Y Eraikuntza txikia, izan zitekeenari buruzko erreferentzia ziurrik gabea. Agian “hesi-zainaren” etxebizitza izango da (gerora hartu zuen kokapenean egon ez arren).

Z Bide nagusiaren (egun errepidea) jarraipena Arranomendia (egun San Isidro Granja) baserrirantz.



LAZKAIBARREKO LURRAK

Luis Maria Mugica filologoak Beasaingo toponimoei buruzko bere liburuko atal batean leku jakin bateko ezaugarri fisikoen inguruan erabiltzen duen logikari jarraiki, hidrografiarekin lotutako atalean esaten duenez, Lazkaibar izenak gutxi gorabehera esanahi hau izango luke: **"Latsaren ibarra"**, lats- (edo erreka) -ibar. Zonaldeak oraindik erakusten duen itxura eta jarraian deskribatuko duguna aintzat hartuz, esanahi hori zentzu onez aplikatu dela esan daiteke.

Aurrez esan bezala, XIX. mendearen lehen erdialdean Beasaingo laborantza-lur onenak Lazkaibarreko ibar zabal eta emankorrean kokatzen ziren. Aise irudika daiteke garai hartan Oria ibaiak eta Agauntza errekak bat egin ostean sortutako lur emankor horrek zuen itxura, izan ere, bertan Beasaingo lautada zabalenetako bat eratzen zen, Geltokiko zonaldean zegoenarekin batera (azken hori lehenago deskribatu dugu, 3. sektorean).

Horretarako, gogo-ariketa pixka bat egin eta 280. argazkitik Lazkao eta Ataun aldera egiten zuen errepidea (gutxi gorabehera 1854. urtean abiatu zena Lazkaibarreko zubiaren ondotik), 1860an Oria ibaiaren alboan finkatutako "Fabrika Handi" zaharra eta trenbidea (tarte hori 1863an inauguratu zen) ezabatu baino ez ditugu egin behar. Beranduago, Galardi muinoaren azpitik igarotzen zen ingurubide-errepide berria (1955ean burutu zena) ere ezabatu egin beharko genuke. Aurreragoko lerroaldetan 1910ean ateratako argazkiari buruzko xehetasun gehiago emango ditugu.

Jatorrizko paisaiatik eraikuntza horiek guztiak eta "gehigarriak" ezabatu ostean, irudimenean zehar bidaiatzen badugu, 400.000 m²ko lautada izugarri bat baino ez genuke ikusiko, landutako zonalde ugariz hornitua eta hamar bat baserriz zipriztindua (Senpere auzotik oso hurbil zeuden batzuk barne, 5. eta 6. sektoreetan aipatu ditugunak).

Leku horrek orduan erakusten zuen errealitatera are gehiago hurbildu gaitezke, soilik argazki horren erdialdean kokatutako Senpereko zonaldean erreparatzen badugu. Eremu hori landuta dagoela ikus daiteke, irudiaren eskuinaldean agertzen den zonalde guztia xurgatu duen industriak artean irentsi gabe.

Segidan ikusiko dugun bezala, Lazkaibarraundi etxeak zituen Lazkaibar auzoko lur on eta handienak. Arestian ikusi dugunez, 1860an San Martin Burdin Fabrika lur horietan finkatu zenean, enpresak 45.586 m²ko azalera baino ez zuen baliatu lantegiak finkatzeko. Horien artean, azalera handieneko onibarra, hain zuzen, Lazkaibarraundi etxeari zegokion bat zen, hain justu, gaztainondoz betetako 16.748 m²ko azalera. Azalera aintzat hartuz, haren ostean Txintxurreta baserriko lursail bat aipatu behar da. Ondoren, azalera txikiagoa ageri zuten zenbait lur, Burugorrienea eta Ezkiagabasoa (Ezkiabaso) etxeetakoak.

LAZKAIBAR AUZOAREN GARAI HORRETAKO HEDADURA

Espasa entziklopediaren XX. mendearen hastapeneko liburuki zahar batean aipatzen denez, Beasaingo Lazkaibar auzoak bederatzi etxe eta 89 bizilagun zituen orduan. Halako obra dotore batean iradokitzen diren bederatzi etxeak aipatzera ausartuko ginateke, baina orduko Lazkaibar auzoaren hedaduraz zalantzak ditugunez, eta jurisdikzio ezberdinetan nahasita hainbat lur zeudela aintzat hartuz, nahiago dugu gehiegi ez arriskatu eta urrats ziurrak ematen jarraitzea.

280. argazkian 1. zenbakiarekin adierazi dugu Upabia baserria; 2. zenbakiarekin markatu dugu Galardi muinoa; Lazkaibar berri etxeari (Estanko Etxea) 3. zenbakia eman diogu; 4. zenbakiarekin paratu dugu Lasa-Garin etxebizitza-etxea; 5. zenbakiarekin Lazkaibarraundi etxe berriaren teilatua azaleratzen ikus daiteke (artean bigarren solairua burutzeke zegoen); 6. zenbakia ipini diogu Lazkaibartxiki etxeari; eta 7. zenbakiarekin adierazi dugu Txintxurreta, jadanik altzairua ekoizteko labe berodun lantegi berriz inguratuta.

Edozein modutara, 1867ko Beasaingo udal-erroldan agertzen diren herritarren zerrendan erreparatzen badugu, auzo horretan bizilagun asko zeudela ikusiko dugu, hainbeste non zenbaitetan koitadu horiek non sartzen ote ziren galdetzen baitiogu gure buruari. Ikus dezagun Beasaingo errolda horretan aipatzen diren etxeetan zenbat jende bizi zen:

Lazkaibarraundi, zazpi familia eta 45 bizilagun, horien artean bederatzi apopilo; **Lazkaibartxiki,** hiru familia eta 16 bizilagun horien artean hiru apopilo; **Burugorrieneaundi**, zortzi familia eta 51 bizilagun, apopilorik gabe; **Burugorrieneatxiki**, familia bat eta 19 bizilagun, horien artean 13 apopilo; **Txintxurreta**, bi familia eta 23 bizilagun, horien artean zazpi apopilo. **Upabia eta Agirretxiki (Agerre edo Agarre)** baserrietan ere antzeko "jendetza" pilatuko zen, baina ez dugu horiei buruzko daturik, izan ere, Ordiziako jurisdikzioan lekutzen ziren (eta Upabia oraindik bertan lekutzen da, nahiz eta bertan inor ez den bizi eta ia aurri egoeran dagoen).

Orotara soilik bost etxetan (artean Lazkaibar berri ez zen bertan agertzen, 1880an eraiki baitzen) 148 bizilagun bizi ziren, 21 familiatan banatuta; eta, aipatu dokumentuan ikusi dugunez, 148 horietatik 32 apopiloak ziren.

Lazkaibarberri etxea, beraz, 1880an eraiki zen eta hurrengo urtean erregistratu. Dena den, "Estanko etxea" izenez ezagutzen zen auzotarren artean, auzoari zerbitzu hori ematen ziolako. Lasa-Garin etxebizitza-etxea haren ostean eraiki zen, Lazkaibar berritik gorantz eginez. Hala denboraz, nola espazioz haren segidan zegoen beraz. Azkenik, beranduago eraiki ziren Olaran eta Olaranberri izeneko bi etxebizitza-blokeak, beranduago Unanue eta Arregi izenekin ezagutu zirenak. Zehazki esatera, XX. mendearen lehen eta bigarren hamarkadetan eraiki ziren, hurrenez hurren.

Nahiko argi dago 1867rako Lazkaibar auzoa ireki berria zen fabrika berriko (urte horietan jadanik Goitia y Compañía izena zuena) langileentzat ostatu hartzeko leku egokia zela; enpresa horretako bigarren mailako ataria zenez, era berean, jarduera sozial handia nabari zen bertan, Bagoi Fabrikak izan zituen ia 3.000 langileei esker, izan ere, txanda ezberdinen joan-etorriak etengabeak ziren eta antzinako auzotarrek esaten zuten moduan, "martxa handia" zegoen.

Lazkaibar auzoan urte horietan nabari zen dinamismo nabarmena hobeto ulertze aldera, datu argigarri bat emango dugu, hots, auzoan lau taberna eta hiru sagardotegi ireki zirela, modu honetan sakabanatuak: Upabia, sagardotegia zen esklusiboki; Lazkaibar berri etxeko estankoa taberna ere bazen eta atzealdetik sagardotegia ere bai; Lasa taberna, sagardotegi eta taberna zen eta bolatokia ere bazuen; Garin ahizpek zuten taberna; eta, azkenik, Unanue taberna, trenbide-pasabidearen alboan, azken taberna hori hartzen zuen eraikina hasiera batean Olaran etxebizitza-etxe modura ezagutzen zelarik.

Auzoari izena eman zion Lazkaibar aundi baserriari dagokionez, 281. eta 282. argazkietan angelu ezberdinetatik ikusten den etxea lehen eraikuntzaren ondorengoa dela esan daiteke, izan ere, sarritan eraitsi, eraiki, berritu eta berreraiki da. Horrenbestez, jatorrizko eraikuntzarekin zerikusi gutxi dauka, baina, baserriaren lehen kokapena mantendu egin da, segidan azalduko dugunez.

Zaila da zehazten antzina auzoak hartzen zuen hedadura, hots, non hasi eta non amaitzen zen, izan ere, Martin Mendizabal historialariak Senpere eta Lazkaibarri buruz osatu dituen idatzietako batean honakoak aipatu zuen:

> *"…sus límites como terrenos nunca han estado bien definidos…"*

Iparraldera, badirudi nahiko argi dagoela Oria ibaia eta Lazkaibar zubia dituela mugakide, baina, orduan non amaitzen zen Lazkaibar auzo hori Senpererako norabidean? Eta ekialdera, Agerre eta Arranomendia baserriak lekutzen ziren zonaldera bidean? (azken baserri hori San Isidro Granja bilakatu zen gerora).

Galdera horien erantzuna ematea ez da kontu erraza, izan ere, zonalde horretako zenbait baserriren lurrak sakabanatuta ageri ziren, are, zenbaitetan Beasain, Lazkao eta Ordiziako jurisdikzioetan nahasirik. Hori zen, besteak beste, Txintxurreta, Burugorrinea, Lazkaibarraundi, Lazkaibartxiki, Upabia edota Agerre baserrien kasua.

Adibide batera, Upabia baserria Ordiziako jurisdikzioan egon izan da betidanik (garai hartan, hartako zenbait lur Beasainen izan arren); hala ere, auzotarrek Lazkaibar auzokotzat jo izan dute inolako zalan-

tzarik gabe. Hartako lursail bereizgarrienetako bat errepidearen alboan lekutzen zen, zati bat Ordizian eta beste bat Beasaingo jurisdikzioan. Hain zuzen, azken zonalde horren gainean eraiki zen 1880an Lazkaibarberri etxebizitza-etxea. Errepidearen alboan altxaturiko eraikin zaharrak soilik bi solairu eta ganbara zituen orduan, atzealdean estalpe edo teilapea zuelarik.

280. argazkian Upabia etxea ikus daiteke bidearen aldamenean lekututa, Beasain eta Ordizia banatzen dituen irudizko lerroaren ezkerrera (guk okre koloreko lau zirkulu paratu ditugu muga horien gutxi gorabeherako kokapena erakusteko eta arretaz begiratzen badugu badirudi mendi-mazelaren gainera heltzen direla). 280a argazkian ere okre koloreko beste zirkulutxo batzuk paratu ditugu muga horiek adierazteko. Argazki horretan muga jarraituz agertzen den bidearen norabidea antzeman daiteke. Halaber, gezi bertikal zuri bat erabiliz markatu dugu Agirre txiki edo Agerre baserria.

Baina, Arranomendia? (gerora San Isidro Granja) eta Agirretxiki? Biak oso gertu egon arren eta Ordiziako jurisdikzioan sartzen baziren ere, Lazkaibar auzokotzat ote zituzten?

Beasain, Lazkao eta Ordiziako jurisdikzioen arteko mugak horrela zedarritzeko zeuden interesak eta arrazoiak jakin nahi genituzke eta baita noiz hartu zen banaketa egiteko erabakia ere, izan ere, nagusiki Senpere eta Lazkaibar auzoek hartzen duten eremu zehaztugabean hiru jurisdikzio horiek sartzen dira (zehaztugabea, jurisdikzio bakoitzaren baitako lurren anabasari dagokionez). Hori diogu, izan ere, XIX. mendearen erdialdera lursail horien %75 guztiok ezagutzen ditugun lauzpabost familien artean banatzen ziren, Senpereko zonaldeari eta Fabrikari buruzko 5. eta 6. sektoreetan hainbat aldiz izendatu baititugu.

Mintzagai dugun eremua Nafarroa eta Aragoira joateko ohiko ibilbidean kokatzen zen eta, era berean, antzina leku garrantzitsua izan zen merkataritza-galtzada modura. Horren harira, esangarri da Aranzadi Elkarteko kideek duela zenbait urte zainketa-dorre izan zitekeenaren aztarnak topatu zituztela Galardi (280. argazkian 2. zenbakiarekin adierazi dugu) izenez ezagutzen dugun muinoaren goi-zonaldean. Lazkaibar auzoko neska-mutikoek (horietako zenbait muino horretan jostatzen baitziren) XX. mendearen erdialdera ezagutzen zituzten aipatu eraikinaren aztarnak, belaunaldiz belaunaldi igaro baitzen kontua; hainbeste non, haien esanetan, "parapeto" guda-izenez ezagutzen baitzuten jolasean aritzen ziren bitartean. Bazekiten eraiki horrek garrantzizko zerbait izan behar zuela antzina, baina inork ez zien argitu askotan haien jolaserako eszenategi bilakatzen ziren eraikinaren aztarna zaharrak zeri zegozkion.

2003ko udaberriko egun batez aipatu muinora jo genuen, komunikazioetarako antena berrien albora eta muino bakartu hori talaia paregabea dela ikusi genuen (Aranzadiko kideek halaxe zela esaten zuten arren), batez ere, egun lekua hartu duen sasitza ugaria kentzen bada. Bertatik bikain ikus zitezkeen oso antzinatik zonaldea zeharkatzen zuten bi galtzada nagusiak, oso tarte luzez ikusi ere.

Berranoako mendi-lepotik barna Nafarroatik (edo Nafarroarantz) zetorren (edo zihoan) galtzadatik ia ibilbide guztia ikus zitekeen, Lazkaibarreko zubitik egun "Hiribarrena" izen egokiz ezagutzen den behezonaldetik Lazkaora sartu arte. Irun igaroz Frantziara abiatzen zen errepide zaharrari dagokionez, zeina zenbait historialarik "Camino Padre de Guipúzcoa" (Gipuzkoako Bide Nagusia) ere izendatzen zuten (garai hartan zegoen garraiobide garrantzitsuena baitzen), Beasaingo herrigunetik Ordiziako beste muturrera egiten zuen ibilbide osoa ikus zitekeen.

XIX. mendearen erdialdera horren garrantzitsuak ziren Errege Bide horiez gain, muino horretatik orduan erabiltzen ziren bigarren mailako beste zenbait bide ere begizta zitezkeen, eskualdeko mendi eta auzoetara iristekoak. Harrigarri egiten da garai hartan Galardi muinoa landuta irudikatzea, egun bertatik igarotzea oztopatzen duen landaretzarik gabe. 280. argazkian muino hori ikus daiteke, ia landaretzarik gabe eta landutako lurrez osatutako azalera zabalez hornitua.

EGOKIRO LAZKAIBARREKO ZUBI IZENDATUTAKOARI BURUZ

Lazkaibarreko zubi zaharrari buruz sakon mintzatu ziren Serapio Mugica eta Carmelo Echegaray 1908ko monografian. Egile horien arabera, Ordiziako udale-

rriak 1538an Lazkaibarren "kare eta harkoskorrez" zubi berria eraikitzeko asmoa zuen jadanik, bertan zegoen egurrezko zubiaren ordez paratzeko, izan ere, Oria ibaiak gora egiten zuenean Udaleko patrika txiroek nahi baino gehiago kaltetzen zen hura.

Edward H. Locker aristokrata eta pintore ingelesak Lazkaibarreko zubi zaharra marraztu zuen Ezkiagako zonaldetik 1813ko urrian (Wellington Jeneralari gerrako dokumentu garrantzitsuak entregatzeko Nafarroako Berara eraman zuen misio garrantzitsutik itzuli zenean). 283. irudian marrazkiaren zati bat dakusagu.



Abuztuaren 31n Donostiako hiri harresituari su eman ostean, Wellington jeneralaren tropak Nafarroako zonalde horretan zeuden, hain finkatu baitzuten Kuartel Nagusia. Postari lanak egin zituen pintore horrek liburu eder bat eta 40 marrazki eta akuarelaz osatutako bilduma bat utzi zituen. Horietan bidaiatu zuen bitartean igarotako leku interesgarrienak deskribatu zituen. Bidaia Tarragonan hasi eta Beran amaitu zuen (Belateko mendatea zeharkatuz, hori baitzen Bidasoako zonaldera joateko bide naturala). Tartean Lleida, Zaragoza eta Iruñea ere pasa zituen. Itzulerako bidaia, ordea, Irun, Hondarribia, Donostia, Bilbabona, Tolosa edota Lazkaibarretik barrena egin zuen, Madrilen amaitu arte. Ordukoan Gasteiz, Miranda de Ebro eta Burgos pasa zituen.

Autoreak utzi zigun zubiaren marrazki polit hori (283. irudian ikusten duguna), marrazkiaren zati bat baino ez da. Zubi horri buruz beste bi argazki polit ere erakutsiko ditugu ia 150 urtez bertan izan zela oroitzeko, izan ere, 2002ko apirilean zubi hori eraitsi egin zuten egun dagoena eraikitzeko.

284. zenbakiarekin adierazi dugu lehenengo argazkia eta XX. mendearen bigarren hamarkadako irudi bat da (ustez 1912koa); bigarrena 285. zenbakiarekin adierazi dugu eta XX. mendearen erdialdera egindako irudi-postal bat da. Marrazkiaren egileak liburuan eraikuntza zaharrari buruz mintzatzeko erabiltzen dituen hitzak errepikatuz, esango dugu 1813an autore ingelesak marraztutako ***"…antiguo puente de forma pintoresca…"*** (forma bitxiko zubi zaharra), Lazkaibar-Senpere-Lazkao-Ataun errepidea egiten hasi zirenean eraitsi zela, 1854-1857 bitartean.

Antzizarreko zonaldeari dagokion 1. sektorean adierazi dugunez, 1813ko marrazkian islatzen zen zubiaren ordez (duela urte gutxi arte guztiok ikusi ahal izan duguna) eraiki zen zubia Beasaingo Antzizar kiroldegiaren atzean ikus daitekeen zubiaren berdina zen erabilitako harriari, diseinuari eta adinari dagokienez. Ezberdintasun bakarra honakoa zen: Lazkaibarreko zubiak soilik bi begi zituen eta Antzizarrekoa hiru arkurekin eraiki zen 1851n, ziur aski sarritan gainezka egiten zuten Oria ibaiak eta Estanda errekak bat egiten zutelako bertan.

1. sektorean esan dugun moduan (hemen berriz esango dugu, inork kapitulu hori begiztatu ez badu), Antzizarreko zubia Beasaindik, Idiazabal herrigunetik gurutzatuz, Etxegarate aldera zihoan errepide berria eraiki zenean altxatu zen, izan ere, galtzada hori Antzizarreko gune horretan abiatzen zen. XIX. mendearen erdialdera zubi aldapatsuen antzinako disei-



nua jadanik alboratu egin zen, Lazkaibarreko zonalde horretan itxuraz zegoena bezalakoa, Edward H. Locker artista ingelesak marraztu zuena. Ingeniari berriek piko askoz ere gutxiagoko beste batzuk egitea lortu zuten. Modu horretan, arkuetatik argi gehiago lortzeaz gain, bertatik zama handiagoak garraiatzea ahalbidetzen zen. Gainera, aldapa piko eta estuak zeharkatzean zamatutako gurdien joan-etorri baldarra desagertu egiten zen.

284. eta 285. irudietan ikusten dugun Lazkaibarreko zubi zaharra egun dagoena eraikitzeko eraitsi aurretik, ibaiak ur gutxi eramaten zuenean hartako erdiko zubi-brankan ikus zitekeenez, zubia eraikitzeko oinarri modura erabili ziren harriak ez ziren 2002an zubia eraitsi zenean ikusi ahal izan genituen mota eta tamainakoak. Oso litekeena da erdiko zubi-branka zaharraren oinarria egiteko antzinako zubiaren (marrazkian ikusten duguna) zimenduak aprobetxatu izana, izan ere, bietan hiruki formako zubi-brankak oso antzekoak dira oinarrian. Hori 283. marrazkia 284. eta 285. argazkiekin erkatuz ikusi ahal izango dugu.

Bidaiari ingelesak 1813an egindako oharpen interesgarria jarraitzen ari garenez, 286. marrazkiko beste zatian, halaber, zonalde horretan Muru mendiaren mendialdeak Oria ibaiertzeraino jaisten zirela ikus dezakegu. Idealizatutako marrazkian ikusten dugun mendi-mazela garai horretan gaur egun Zubiaurre edo Bentazuri etxe zaharra kokatuko litzateke gutxi gorabehera. 287. argazkian ikus dezakegu hori, artista ingelesak hartutako ikusangelu beretik. 1862an Benta zuri Txintxurreta familiaren baitakoa zen eta orduan bi solairuk eta ganbarak osatzen zuten haren egitura, 79,6 m^{2}ren gainean. Hartako baratzeak, bestalde, 949 m^2 zituen. Etxearen balioa 3.500 pezetakoa zen orduan, hartako lurrak barne.

Trenbidearen ibilbidetik barna egiten ari garen irudizko bidaia honetan ikusten dugunarekin jarraituz, Benta zuri ostatuak ere merkatarien aldarri nagusia jarraitu zuen, hots, "galtzada berriari benta berria bidegurutzean". Hori dela eta, oso litekeena da Lazkaibar-Lazkao-Ataun errepide berria eraiki zenetik bertan izatea, hain justu, XIX. mendearen erdialdetik aurrera. 7. sektoreko plano orokor honetan eta 7a plano-zatian ere marraztuta ageri dela ikus dezakegu. Guk H hizkiz adierazi dugu Benta hori bi planoetan, Mariarats baserria B hizkiarekin adierazi dugu, T hizkia paratu diogu haren estalpeari, X hizkiz markatu dugu Mariarats erreka eta Oria ibaiaren gainean eraikitako bi begiko zubia, berriz, I hizkiarekin.

Aristokrata, pintore eta postari militar ingeles horrek kontu arras bitxiak kontatu eta pintatu zituen Lazkaibarri buruz. Kontu horiek oso lagungarriak zaizkigu duela soilik berrehun urte leku eder horrek zuen itxura jakiteko, baldin eta, jakina, marraztu eta

deskribatu zuena bat badator orduko errealitatearekin. Bere liburuan, beste hainbat konturen artean, honakoa aipatzen da zonaldeari buruz:

> *"…el puente está bellamente situado en las márgenes del río Oria, que son escarpadas y rocosas…"*
>
> *"…el camino cruza un puente antiguo, que, como otros que habíamos atravesado anteriormente,* ***tiene una forma pintoresca****…"*
>
> *"…árboles de distintas variedades cubrían los precipicios a cada lado y el paraje quedaba cerrado por las altas y grises montañas que se veían a lo lejos (la sierra de Aralar)…"*
>
> *"...en las orillas del río se enlazaban acerías (ferrerías) y molinos de agua; los diques (las presas) de estos molinos ofrecían pequeñas cascadas de agua que alegraban mucho el paisaje…"*

Marrazkiari begiratuz argi geratzen da ***"forma bitxiko zubi zaharra"*** ez dela 2002ko apirilera arte guztiok ezagutu duguna, baizik eta bertan aurrez egon zen zubia, 283. marrazkian erakutsi duguna. Antzinako zubi hark ere bi begi zituen, nahiz eta apur bat malkartsua eta asimetrikoa izan, artistaren begi idealizatuetatik so eginez ikusten dugunez. Adituen arabera, halako zubiak jadanik ez ziren ohikoak, garai hartan erabiltzen zirenak baino teknika zaharragoak erabiliz eraikia baitzegoen. Marrazkian ikusten dugun zubia XIX. mendearen erdialdea baino askoz lehenagotik erabiliko zuten Lazkaibarreko auzotarrek, are, agian "egurrezko zubi izatetik kare eta harkoskorrez egindako zubi izatera" pasa zenetik, 1908ko monografian aipatzen denez.

Lazkaibar izen logikoari buruzko sarrera egin dugu dagoeneko. Orain beste izen batzuekin zergatik ezagutzen zuten jakitea baino ez zaigu geratzen. Nahikoa zabalduta dauden bertsio herrikoi batzuen arabera, Malkasko izenaz gain, "Tarragonako zubie eta Txarraonako zubie" izenez ere ezagutu ohi zen.

LEKUARI ESLEITUTAKO IZEN UGARIEI BURUZ

XX. mendearen hastapenean soilik bi etxe lekutzen ziren Lazkaibar zubiaren parean, errepidearen bazterrean eta mendia besarkatuz. Zubiaurre edo Bentazuri (zaharrena, bi etxeen artean igarotzen zen bidearen ezkerrera, planotan H hizkiz adierazi duguna) eta Bentaberri. Ikus orain 288. irudian Nafarroa eta Aragoa aldera zihoan bidearen bidegurutzean kokatutako bi "ostatu-etxe" zaharrak, XX. mendearen hastapenekoak. 288a eta 288b argazkietan Mariarats izeneko zonaldeak Ezkiabaso baserriraino XX. mendearen erdialdera zuen itxura ikus dezakegu.

Izenak adierazten duen moduan, Bentaberri etxea Zubiaurre edo Bentazuri etxea baino beranduago eraiki zen; izan ere, azken hori 1862an bertan zegoen jadanik planoetan ikus dezakegun moduan; Benta berri, ordea, 1880. urtera arte ez zuten bukatu.



Aurrerako azalduko dugun eran, Bentaberri amoroski "Txarraona" izendatzen zuten Juan Usabiaga Zabala beasaindarrak eraiki zuen. Juan Antonio Lasaren eskutik **Galzadaburua** izena zuen 261,60 m²ko lursail bat eskuratu zuenean, Beasaingo Andre Mari kaleko Aranezarra baserriko egoilea zen artean. Aipatu baserria Jose Ramon Mendia Ibarbiaren jabetzakoa zen orduan. Azkenik, Bentaberri etxea 153,40 m²ko orube baten gainean eraiki zuen eta beheko solairuak bi pisuk eta ganbarak osatzen zuten haren egitura. Eraikuntza berria Juan Antonio Lasaren eskutik bereganatutako lurrez inguraturik geratu zen lau puntu kardinaletan.

Honatx goran aipatu dugun lursailaren mugak: Iparraldera, Jose Icetaren lursail bat; hegoalde eta mendebaldera, Autoen Errepide Nagusia; ekialdera, Juan Antonio Lasaren beste lursail batzuk. Juan Usabiaga Zabala "Txarraona" Benta berri eraikitzen hasi zenean, Arriarango Juan Juan Ignacio Iparraguirre Garmendiak eta Ordiziako Miguel Aurquia Gaztañagak aurreratu zioten eraikuntza egiteko dirua baldintzapean. Hasiera batean, 6.500 pezeta baino ez zizkioten aurreratu. Horietatik lehenengoak 3.625 pezeta utzi zizkion eta bigarrenak gainerako 2.875 pezetak.

Kopuru horrekin artean egiteke zeuden arotzeria eta igeltserotzako azken lanak amaitzea ezinezkoa izango zenez, aipatu gizonek gainerako guztia eraikuntza amaitu arte aurreratzea erabaki zuten. Azkenik, 12.409 pezeta eta 25 zentimo behar izan ziren eraikuntza osoa amaitzeko. Bi mailegu-emaileek aurreratutako kredituen zenbatekoak honakoak izan ziren azkenean:

Juan Ignacio Iparraguirre arotzak 4.206 pezeta eta 25 zentimo aurreratu zituen eta Miguel Aurquiak laga zizkion gainerako 8.203 pezetak. Gizon horiek kreditu hori onartu zioten, urtebeteko epean ordaintzekoa, etxea entregatzen zen egunetik zenbatzen hasita. Eraikuntzari aipatu zenbatekoa ordaindu arteko hipoteka finkatu zitzaion, %5eko interesarekin. Aipatu jabetza 1880ko ekainaren 9an erregistratu zen.

Gaur egun, bi etxeak leku berean ikus ditzakegu oraindik. Dena den, egun eraberriturik daude eta hainbat solairutako eraikin berriz inguratuta. XX. mendearen lehen erdialdean Benta berri etxea (zubiaren parean dagoena) handitu egin zen eraikita zegoenaren antzeko modulu batekin. Etxeko hegal bikiaz ari gara, Ordiziako Urdanetako aldaparantz dagoena.

1862ko 7. sektoreko plano orokorrean eta 7a planozatian eraikin bakarra marrazten da Eperbide edo Goitiaetxeberri (egun "Basokoetxe" izen okerrarekin ezagutzen dena) baserrira zihoan bidearen ezkerrera. Bide hori, aldi berean, Lazkaibarreko zubitik igarotzen zen bide zaharraren luzapen naturala zen, aipatu planoetan I hizkiz adierazten dena. Bide horrek, ondoren, Mariarats errekaren eskuineko ertzean altxatzen ziren mendietarantz jarraitzen zuen.

Hortaz, Zubiaurre edo Bentazuri ere modu estrategikoan eraiki zen bi bideen arteko bidegurutzean, ziur aski, "inbertitzaileek" 1854an egiten hasitako

galtzada berritik Nafarroa eta Aragoa aldera (edo aldetik) zihoazen (edo zetozen) bidaiari eta merkatari ugariei zerbitzu ematean egingo zuten negozioan pentsatu ondoren.

Ahozko tradizioari jarraiki, ikusiko dugunez, zonalde horretan bizi ziren zenbait pertsonek zonalde horri eta aipatu zubiari ezizen bitxiak ezarri zizkieten, ia nahigabe. Lehenik eta behin **Malkasko** substantiboa aipatu behar da, oraindik sarritan lekua izendatzeko erabiltzen baita; bigarrenik, **Tarragonako zubie eta Txarraonako zubie** aipatu behar dira, izan ere, 2002an eraitsi zuten Lazkaibarreko zubia izendatzeko adin nagusiko batzuek horrela esaten zuten, apika Benta berri baserriko jabeari erreferentzia eginez.

Zubi hori (egun dagoenaren aurrekoa) Ataunera zihoan Lazkaibar-Senpere-Erroiondo errepidearekin hasi ziren eraikitzen 1854-1857 bitartean. Kontu jakina da zubia izendatzeko izen egokiena Lazkaibar dela (horrela idazten baitzen duela 500 urte), nahiz eta zonaldea eta zubia oraindik **"Malkasko"** izenez izendatu ohi den sarritan; duela oso gutxi arte zubia "**Tarragonako zubie eta Txarraonako zubie** izenekin ere ezagutzen zen, hala ere, forma hauek aurrekoa baino anitz gutxiago erabiltzen ziren. Ez dugu hemen sinetsarazi nahi izen horien jatorriari buruz emango ditugun bertsioak direnik egiazkoak, izan ere, bestelako bertsiorik ere ezagutzen dugu, orain kontatuko duguna bezain egiazko edo zuzenak izan daitezkeenak. Dena den, hainbat pertsonek kontatu digutena azalduko dugu hurrengo lerroetan.

MALKASKO IZENAZ, eskualdeko bizilagunek sarritan erabiltzen baitute izen hori, hau da entzun dugun bertsioa:



XIX. mendearen bigarren erdian Autoen eta Posten Errege Bidearen tarte horretatik igarotzen ari zen dilijentzia batek geldialdia egin behar izan zuen Lazkaibarreko zubian, hain zuzen, Nafarroa eta Aragoa aldera joateko ohiko bidea abiatzen zen gunean, izan ere, gurditik tira egiten zuen animalietako batek herren egiten zuen nabarmen.

Ibilgailuaren gidariak, dirudienez, bazekien egun oraindik Zubiaurre edo Bentazuri eta Bentaberri baserriak dauden zonaldean errementaldegi bat zegoela (Patxi Usabiagak, Bentaberriko jabeak, adierazi zidanez, gaur egun oraindik etxeen artean ikus dezakegun estalpe zaharrean -egun garajea- lekutzen zena), izan ere, hara abiatu zen zauritutako animaliarentzat laguntza bila (ikus orain XX. mendearen hastapeneko 289. irudi handituan aipatu estalpea, gezi zuri batez adierazita).

Ferratokira inguratu ziren bertako adituak animalia beha zezan, izan ere, animalia urrikalgarriak herren egiten zuen moduagatik oso egoera txarrean behar zuen egon. Ferratzaileak (jasotako bertsioaren arabera, gaztelania ez zuen ongi menderatzen) animalien hatzapar kaltetuei erreparatzean esaldi hau bota ohi omen zuen gaztelania traketsean: "¡Qué **mal casco** tiene…, que **mal casco** tiene…!" (zein apo txarra duen, zein apo txarra duen!), behatu eta "sendatu" ohi zituen animalien gorputz-adarren egoera penagarria deskribatzeko asmoz.

Liburuaren amaieran aipatuko ditugun pertsonek emandako bertsio horren arabera, ezinez hori hartu zuen, lehenik eta behin, Benta berri etxeko estalpean esaldi hori esaten duen errementariak eta, gero, haren kokapena kontuan izanik, ferratzailearen (diotenez jatorriz galiziarra zena) lanlekua baitaratzen zuen zonaldeak ere ezinen hori hartu omen zuen. Aipatu errementariaren "erruz" hartu omen zuen "**Malcasco**" (Malkasko) izena zonaldeak eta baita, geroago, zubiak ere.

"TXARRAONAKO ZUBI" IZENDAPENARI BURUZ, horrela izendatzen baitzuten duela ez hainbestera arte inguru horretako nagusienek zubi zaharra, segidan ematen dugun hau da hainbat pertsonek eman diguten bertsioa:

XIX. mendearen azken laurdenetik Bentaberri etxean (non Simona Usabiagaren sagardotegi zaharra ere lekutzen zen garai batean) bizi izan zen Juan Usabiaga Zabala, zonaldean oso ezaguna zen pertsona, arrunki **"Juan txiki"** eta **"Txarraona"** ezizenez ere ezagutzen zena. Bere semea, Jose Antonio Usabiaga, Simona eta Manuelaren aita zen, beste anai batzuen artean eta etxe horretan bizi izan zen hil arte (290. argazkian ikus dezakegu bera).

Bada, Usabiaga familiako kide ugarik **"Txarraona"** ezizenari buruz eman diguten bertsioaren arabera, bi adjektiboren baturaz sortu zen: **"Txarra"** (beti oinez ibiltzean hankak arrastan eramanez zuen ibilera **"txarrari"** erreferentzia eginez) eta **"ona"** (bere izaerari zegokionez, lasaia eta gizon ona baitzen). Gaztelaniaz halako zerbait izango litzateke: "el bueno de txarra".

Baina, nor zen Txarraona ezizena hartu zuen gizon hori? Ezagut dezagun, izan ere, aita-semeak Beasaingo Andre Mari kaleko Aranea baserrian bizi izan ziren:

Jose Antonio Usabiaga (herentziaz Juan aitaren ezizenak ere jaso zituena) Beasainen lekututako Arane

zarra baserrian jaio zen 1874an, azken karlistada hasi eta gutxira. Orendaingo Maria Luisa Irastorzarekin ezkondu zen eta zazpi seme-alaba izan zituzten: Josefa Martina, Juan Maria, Manuela, Mercedes, Maria, Simona eta Patxi Usabiaga Irastoza.

Jose Antonio Malkaskoko Bentaberri etxean hil zen 1963ko urtarrilaren 29an, 89 urte zituela. Herriko hilerrian ehortzi zuten. Bertatik jakin du Patxi semeak aitaren heriotzaren data zehatza. Hark esan zidanez, bere "amatxok", Maria Luisa Irastorzak oso zorte txarra izan zuen, izan ere, oso gazte hil zen Bentaberri etxe horretako ukuiluetan (mendian zeudenak) lanean zebilela sarda bat sartu ondoren hasi zitzaion gangrena baten ondorioz.

"Juan txiki", Jose Antonioren aita, itzaina zen lanbidez (nagusiki idiek bultzatutako gurdi bidezko merkantzien garraiolaria) eta bere iraulki-gurdiak, orgak eta konponketak egiteko tresnak Bentaberri etxeko estalpe-garajeko sotoan gordetzen zituen. Aipatu etxea Goitiaetxeberri edo Eperbideko bide izenez ezagutzen zen gurdibidearen eskuinera zegoen. Errepidean gurdibidea abiatu eta 20 metro eskasera zegoen atzealdeko ukuiluan lau behi, bi idi eta zaldi bat ere bazituen. Zaldia harrotasun osoz puntakoa esaten zitzaien horietakoa zen, aldaparik zailenak zama gehiegiz igo behar zirenean buruan jarri ohi zirelako.

Patxik umorez kontatzen zuenez, merkantzia pisutsuz (esate baterako, zahatoak, barrikak, kaxak, etab.) betetako bagoiak kargatu eta deskargatzeko esku onak behar zituztenean, ez zen "arraun" hoberik herriko bizilagun sendo eta ezagunenak baino: "Andramendi eta Cristolargo", biak ere oso ezagunak haien indar fisikoa zela-eta. Patxik esan zidanez, ez zegoen haiei itzal egingo zienik, di-da batean kargatu eta deskargatzen baitzuten halako lanetarako baliatzen zuten lau gurpildun orga. Halaber, irribarre txiki batekin esan zidanez, sagardotegian ere ez zen erraza haiei jarraitzea, berak gazte zela frogatu ahal izan zuenez, izan ere, berak nahi izan gabe, sarritan "deskuidatu eta gaua etorri zitzaion" (sagardo gehiegi edan zuela, alegia).

Orobat, aipatu zidan Juan txikik esaten ziola Beasainen karlisten eta liberalen artean (orduan ere elkarren artean haserre eta grinatsu baitzeuden) izandako udal-hauteskunde gogor batzuen ondotik, Lazkaiba-

rreko zubiaren albora etorri zirela bizitzera. Gure pertsonaiak izaera nahikoa pragmatikoa izango zuen, izan ere, bere familia ugaria mantendu ahal izateko lana ematen zion alderdi politikoari bozkatzen jarraituko zuela esaten zuen beti (1917az geroztik CAF izenarekin ezagutu zen S.E.C.M. enpresak kontratatuta bere gurdiekin lan egiten zuen). Bere lantegi ohikoenak hauek ziren nagusiki: Ataungo harrobitik harriak ekartzea, Fabrikara orotariko merkantziak ekartzea, Lizarrako zonaldetik Goierrira ardo nafarra ekartzea, Tolosako eskualdetik tabakoa ekartzea eta Donostiako zonaldetik orotariko merkantzia eta enkarguak ekartzea.

Bost urte luzez enborrak garraiatzen aritu zen Lizarraustitik herriko beste bi itzainekin batera ("Markeseneatik" haien esanetan, pentsatzen dugu Argüeso eta Valmedianoko markesaren etxeak aginduta lan egiten zutela adierazteko). Bere senitartekoek entzun zioten bidaiarik luzeena Lapurdiko mugara artekoa izan zen, Endarlazako zubi zaharreraino, ia Nafarroako Bera herriko sarreran.

Aipagai dugun lekuaren argazki zaharra apur bat handituz gero, arestian aipatu ditugun garraiorako gurdi bitxi horietako asko ikus ditzakegu; Benta berri etxe zaharraren ataurreetan aparkaturik ageri dira. Halaber, zonaldeko hainbat bizilagun ikus daitezke errepidearen eta Oria ibaiaren arteko horma arrakalatuaren alboan. 289. argazkian aipatu gurdiak ikus daitezke berriro, etxeko atearen aurrean "utzita". Ordenagailua baliatuz irudia apur bat gehiago handituz gero, horma ezegonkorraren artetik pasabide txiki bat ere ikus daiteke. Pasabide horretatik bide bat hartzen zen, eskuinaldera desbideratu eta ibaiertzeraino



iristen zena, Mariarats errekak Oria ibaiarekin bat egiten duen gunearen alboan. Bertan arropa ere garbitzen zuten.

288. argazkian arreta eman digu artean ibaiaren eustorma sendo eta altua eraikitzeke zegoela; Oria ibaiko ertzetan Mariaratseko amildegi handiak markatzen zuen aldapa naturala nabari zitekeen artean. Amildegi hori Ezkiagako zonalderantz abiatzeko hura banatzen zuen galtzada estuak soilik ebakitzen zuen. 288. irudi zaharra hartuta, bertan ikusten ditugun eraikuntza urriak ezabatzeko gogo-ariketa egiten badugu, zonalde horrek antzina zuen itxura ederki irudika dezakegu. Orobat, egurrezko hesolaz egindako esekitoki zahar batzuk ikus daitezke, bertatik arropa zuriak zintzilikatzen direlarik eguzkia "hartzen".

Patxi Usabiagak bi gurdien argazkiak hunkituta ikustean ziurtatu zidanez, XX. mendearen amaierako itzain lasaiak ("Juan txiki" eta "Txarraona" ezizenez ezagutzen zutena) hain zuzen errepide zaharraren bazterrean aparkatuta ikusten ditugun iraulki-gurdi horiek erabiltzen zituen bere eginkizunetarako. Halaber, esan zidan "Juan Txiki" bere oharpen eta irteeretan pertsona oso burutsua izateaz gain, oso pertsona ona eta patxadatsua zela.

Duela urte gutxira arte tokiko zaharrenen oroimenean zegoen artean, izan ere, bere ibilera ezagunenak (eta orain ez gara ari ibiltzeko zuen era bitxiari buruz) XIX. mendearen amaiera aldera eta XX. mendearen lehen laurdenean gertatu ziren nagusiki.

Pertsona oso ezagun eta xelebrea behar zuen izan (Benta berri etxeko estalpean lan egin zuen erementariaren kasuan arestian ikusi dugun moduan), bizilagunek haren ezizena ezarri baitzioten zubiari. "Txarraonako zubie".

Orobat, aurrekoa bezain garrantzitsua den beste bertsio bat ere ezagutzen dugu, hain zuzen, "Tarragonako zubie" aipatzen duena. Kasu horretan, Errege Galtzada hori Nafarroa, Aragoa eta Tarragonara joateko ohiko bidea zela adierazteko paratu zen ezizen hori. Bertsio hori ere zilegi da, ahoz aho jasotako aurrekoa bezalaxe, izan ere, urte horietan Tarragonara joateko ohiko galtzada zen hura. Bi ezizenak oso antzekoa dira fonetikoki, hori dela eta, ez litzateke harrigarria izango bi izenak erabili izana.

Nolanahi ere, benetan egia dena zera da, "Tarragonako" ala "Txarraonako" ezizenez ezagutzen zen zubia zeharkatzean, deskribatzen ari garen Lazkaibar auzoan geundekeela.

LAZKAIBARRAUNDI ETXE ZAHARRA

Lekuaren izena mantentzen duen etxearekin hasiko gara. Lazkaibar etxe zaharra diogu, izan ere, Euskal Herrian hainbatetan gertatu den eran, egun ikusten den etxeak ez du inolako zerikusirik jatorrizko eraikinarekin, nahiz eta haren izenak zonaldean iraun duen 600 urte igaro ostean.

Beasaingo Udalak antzina emandako zenbakikuntzaren arabera, XIX. mendearen lehen erdialdean Lazkaibarraundi baserria Ekialdeko Landa-zatiko 5. zenbakian paratzen zen. Irakurle ikusbera dagoeneko ohartuko zen trenbidearen ibilbidea azaltzeko 7. sektoreko plano orokorrean egileak ez zuela Lazkaibarraundi baserria marraztu eta, aitzitik, Lazkaibartxiki etxea bikain marraztuta ageri dela, zeina guk C hizkiarekin adierazi dugun plano horretan, trenbide-pasabide berriaren alboan, 7b plano-zatian egin dugun antzera.

Lazkaibarreko trenbide-pasabide zaharra kokatzen zen zonaldeari dagozkion planoak deskribatzen ari garenez, 291. eta 292. argazkiak paratu ditugu aipatu, trenbide-pasabidea agertzen baita horietan. Argazki horiek 1997koak dira, beraz, ez zen denbora asko falta pasabidea desagertzeko. Marrazkiaren egileak 7. sektoreko plano orokorrean aipatu etxea zein lekutan islatu behar lukeen (urte horietan zutik egon balitz) adierazteko zirkulu marroi bat paratu dugu marrazkian.

Ez dakigu zergatik ez zuen islatu 1862ko planoan Lazkaibarraundi baserria, gutxienez 1399az geroztik bertan zegoela baitakigu. Litekeena da, beste baserri batzuekin gertatu izan den bezala, une hartan sute baten ondorioz desagertuta izatea, edo jatorrizko etxea eraitsita edo eraberritzen izatea, azkenik egun ikusgai dugun eraikina eraikitzeko, zeina, aldi berean, tokiko taberna garrantzitsua izan zen XIX. mendearen amaiera aldera. Egun dagoen eraikina 281. argazkian ikusi duguna da, edota 282. argazkian beste ikusangelu batekin begiztatu duguna.

Plano horietan islatzen ez diren beste eraikin batzuekin gertatu zena ikusita, planoetako egileek urte horietan Lazkaibarraundi baserria ez islatzeko arrazoiak zituztela pentsatzen dugu berriz ere, Piparrenea, Iurrita fonda, Vista Alegre etxebizitza-etxea, Ugartemendi bekoa baserri berrietako bat edota Benta berri islatu ez zituzten moduan (arrazoi osoz). Horietako zenbait, oso gutxigatik bada ere, artean eraikitzeke zeuden 1862an plano hauek sinatu zirenean. Hala ere, 1867an aipagai dugun baserria udal-erroldetan agertzen zen jadanik. Urte horietan **beheko solairuak, solairu nagusiak eta ganbarak** osatzen zuten haren egitura. Etxeko eskantzuak eta leihoetako kofadurak sillarrixkaz egin zituzten eta hormak, berriz, harlangaitza erabiliz. Jatorrizko etxearen orubeak 260 m²ko azalera zuen, hartako teilape edo estalpena barne. Lazkaibar aundi eraikin zaharrak muga hauek zituen orduan:

Iparralde, hegoalde eta ekialdera, hartako etxaguntzak; eta, mendebaldera, Lazkaibarreko zubitik Lazkao, Ataun eta Nafarroara abiatzen zen errege Bidea (antzina Lizarraustitik ez, ibilbide hori 1885ean hasi baitziren erabiltzen, baizik eta Berranoako galtzada zaharretik). Etxearen balioa 37.121 beloi-erreal eta 92 zentimokoa zen, orubea barne. 281. eta 282. argazkietan Lazkaibarraundi etxea eraberrituta ikus daiteke, egun duen itxurarekin. XX. mendearen lehen laurdenean egin zen egun duen itxura hartzeko zaharberritzea, hartako bi jabe berriei "pro indiviso" saldu ostean.

293. argazkian Lazkaibarraundi etxea ikus daiteke berriro, artean solairu nagusia eta ganbara zituela. XX. mendearen hastapeneko irudi horretan etxearen teilatua oso geldo azaleratuz ikusten da irudiaren ezker aldean. 293. irudi horretan gezi horizontal zuri txiki bat paratu dugu hobeto ikus dadin. Halaber, argazki berean, erdiko zonaldean eta eskuinerantz, S.E.C.M. fabrika berria ikus daiteke argi eta garbi, "Bandaje-lantegi" modernoak eta haien ezkerrera "Galdaketa Lantegiak eta Labeak" jadanik eraikita zeudelarik. Hondoan, goialdean, Senpereko lurrak ikusten dira, artean ukitu gabeak eta industria-eraikinik gabe, izan ere, ingurubide-errepide berria berrogeita hamar urte beranduago igaroko zen bertatik.

Juan de Isasaga Arrue y Muxica 1600. urtean, besteak beste, Isasaga (Itsasondon), Arrue (Zaldibian), Muxika (Ordizian), Mugerza, Lazkaibar, Ibarra edota Idoiaga oinetxeen Jauna zen jadanik. Kontu jakina da urte horietan familia aberatsenek komenentziako ezkontzen bidez haien boterea areagotzen zutela, modu horretan, funtsean, ezkontideen ondasuna areagotu egiten baitzen.

Bada, aurrerago ikusiko dugunez, orduan Lazkaibarren jabeduna zen andrearen (zeinak Torretagleko markesaren titulua ere bazuen) arbaso batek maila nabarmena eta aberastasun handia lotu zituen garai hartako goi-aristokraziaren barruan; eta, orduan maiz gertatzen zen gisan, itsasoz haratagoko Espainiako koloniek eskaintzen zituzten aukera berrien gerizpean. Aipatu Andreak nagusiki Gipuzkoa, Kantabria eta Errioxan zituen jabetza ugariez gain, ondasun garrantzitsuak zituen Peruko Errepublika berrian, jarraian ikusiko dugunez.

XIX. mendearen lehen erdialdean Torretagleko markesa Lazkaibar aundi etxearen eta hartako etxaguntza guztien jabeduna zen eta, aldi berean, Muxika etxeko (arkupetik begiratuz, parrokiaren eskuinera kokatzen den dorretxe eraberritua, Ordizian oraindik "Dorrea" izenez ezagutzen dutena) oinordeko eta ondorengo zuzena zen.

Segidan ikusi ahal izango dugunez, Lazkaibar aundi etxeko etxaguntzak garrantzitsuenak ziren Beasaingo baserrien artean. Gure udal-barrutietan (horietako zenbait Lazkaibar auzotik hurbil zeuden zo-

naldetan kokatuta, baina Lazkao eta Ordiziako jurisdikzio barruan) zuhaiztiz, otalurrez, irasailez, larresailez, ereiteko lurrez eta belardiz hornitutako lursail ugari hartzen zituzten aipatu etxaguntzek.

Josefa Manuela de Tagle y Echeverriak, Torretagleko markesak, 1825ean jaso zituen herentzian Lazkaibar aundi eta hartako jabetzak. Bere aita Jose Bernardo de Tagle y Portocarrero hil zenean gertatu zen hori (aurrerago ikusiko dugu nor zen pertsona garrantzitsu hori, zeinaren bizitza publikoa Peruko azken Erregeordearen agintaldian iragan zen nagusiki, herrialde horretan Errepublika ezartzen ari zirenean). Josefa Manuela de Tagle y Echeverriak bere jabetzak erregistratu nahi izan zituenean, ez zuen jabetzen inguruzko idatzizko titulurik. Ezkonduta zegoen, 42 zituen eta semearekin bizi zen Parisen, izan ere, semea diplomatikoa zen aipatu hiriburuan. Aurrez beste kasu batzuetan ikusi dugunez, badakigu zonalde horretan gehiegitan zera gertatu ohi zela: "jabedun errentadun" horietakoren batek zonalde horretan zituen jabetzak presaz erregistratu nahi zituenean, orokorrean, Trenbide Konpainiari berehala saldu nahi zizkiolako izaten zen, trenbidearen ibilbidean erabiltzeko. Horretarako, legez egiaztatu eta erregistratu behar zituzten jabetza horiek.

Azken karlistaldiaren amaieran sortu zen herri barruko jabetzak eta landa ingurukoak horretarako sortutako Erregistro batean sartzeko obligazioa; kasu jakin horretan, Beasaingo Jose Maria Urteaga eta Bernardo Altuna jabedunek ere deklarazioa eman behar izan zuten Gizon horiek deklaratu zuten ziurta zezaketela aipatu andrea zela Lazkaibarraundi baserriaren eta hartako etxaguntzen jabea gutxienez 1825az geroztik, urte hartan hil baitzen bere aita (aurrerago ikusiko dugu nor zuen aita, zer-nolako bizitza politikoa izan zuen eta nola hil zen Perun emaztearekin batera).

Beasaingo Epaitegiko arduradunari helarazi zitzaion deklarazioa. Hark, beranduago, legeak xedatutakoak bete zirela erabaki zuen eta, horrenbestez, 1864ko azaroaren 21ean onarpen-autoa eman zuen Venancio de Chinchurreta eskribauaren aurrean. Azkenik, 1864ko azaroaren 23an Lazkaibarraundi baserriari zegozkion eskatutako jabetza guztiak erregistratu ahal izan ziren.

1865eko urriaren 27an, etxea eta hartara esleitutako etxaguntzak erregistratu ostean jabedun berriak egin zuen lehen gauza zera izan zen, zonalde horretan Trenbidearen Konpainiari saldu gabe zituen onibar guztiak hipotekatzea. 66.500 zortzerleko edo 73.159 dukatetan hipotekatu zituen (kopuru izugarria) hipotekaren emailea zen Juan Bautista Lacosteren alde. Kopuru horri arreta pixka batekin begiratzen badiogu, ohartuko gara Lazkaibarraundi baserria eta hartako lursailak hipotekatzeko ezarritako dirua (66.500 zortzerleko) kopurua oso handia zela. Adibide batera, 6. sektorean ikusi dugun Goitiaetxeberri edo Eperbide "ondarezko etxe aberatsa" eta hartako etxaguntza guztien balioa aipatu kopuruaren bostena zen ia. Gogoan izan azken etxe hori Domingo Goitiaren sorlekua zela, San Martin de Urbieta Burdin Fabrika zaharreko akziodun nagusia izan zena 1860an.

Lazkaibarraundi etxeak orduan zituen lur eta mugak kokatze aldera guztiak banan-banan izendatzea gehiegi luzatzea izango litzateke. Dena den, interesgarri deritzogu aipatu etxeari esleitutako lursailen izenak ematea, haien azalera barne, modu horretan, haien tamaina handi samarra zela ikusiko baitugu. Ikus ditzagun bada, orduan lursail horiek zuten balioa ere adierazita:

Etxeazpia, 18.860 m²ko azalera zuena ereiteko lurretan eta 600 m² belarditan, orduan 26.464 beloi-errealeko balioa izanik.

Etxetxotxiki, 1.400 m²ko azalera zuena eta 1.974 beloi-errealeko balioa.

Etxetxoaundi, 3.124 m²ko azalera zuena eta 4.373 beloi-erreal eta hirurogei zentimoko balioa.

Galtzadaburua, harizti eta gaztainadiz hornitutako beste lursail misto bat, 8.600 m²ko azalera zuena eta 1.539 beloi-errealeko balioa.

Etxeburua, 1.100 m² zituena ereiteko lurretan eta belarditan, 2.000 m²ko azalera hartzen zuten ataurreekin, kasu horretan harkaiztiz eta belardiz beteta. Lursail osoaren balioa 1.262 beloi-errealekoa zen.

Urkialdapa, gaztainadi eta hariztiz betetako beste lursail misto bat, 5.154 m²ko azalera zuena eta urte horietan balioespenik ez zuena.

Etxeburua, 230 m²ko azaleradun ereiteko lur-eremua, 1.591 beloi-errealeko balioa izanik.

Mintegi, 3.542 m²ko harizti-saila, 637 beloi-erreal eta 57 zentimoko balioa zuena.

Luberritxikiazpia, 3.069 m²ko ereiteko lur-eremua, 184,14 beloi-errealeko balioa zuena.

Luberritxikia, 3.752 m²ko azalera zuena eta 225 beloi-erreal eta hamabi zentimoko balioa.

Luberriaundi, 11.960 m²ko lursaila, 717 beloi-erreal eta hirurogei zentimoko balioa zuena.

Lazkaibarraldea, 9.999 m²ko irasaila, 499 beloi-erreal eta 95 zentimoko balioa zuena.

Baserriaren eta hartako etxaguntzen balioa 86.027,63 beloi-errealekoa zen orotara, etxeak eta hartako lurrek inolako kargarik izan gabe. Oso litekeena da tokiko pertsona nagusiek lur horiek izendatzeko erabiltzen ziren toponimo horietako zenbait gogoratzea, izan ere, ez da hainbeste denbora igaro.

LAZKAIBARRAUNDIKO JABEDUN BERRIAK

1887an, hau da, Lazkaibarraundiko jabetza horiek erregistratu eta 23 urtera, Josefa de Tagle y Echeverria (ordurako Ortiz de Zeballosen alarguna) Liman bizi zen, Peruko Errepublikan, baina aurreko atalean deskribatutako etxe eta lursailen jabeduna zen artean.

Urte bereko uztailaren 27an bere semeak, Ricardo Ortiz de Zeballosek, etxearen eta hartako lursailen gaineko hipoteka guztiak kitatu zituen amaren argibideei jarraiki. Gizonak 43 urte zituen orduan eta Peruko Errepublikako Kanpo Harremanetako Ministroa zen eta Diplomatikoa ikasketaz (aurrerago ikusiko dugu Peruko Kanpo Arazoetako Ministerioa hartzen zuen –eta oraindik kokatzen duen- tokiarekin izan zuen harreman pertsonala).

Parisen bizi zelarik, aldi berean, Donostian ere bizi zelarik, ama ordezkatuz eta hark emandako ahalmenak erabiliz adierazi zuen aipatu andreak Gipuzkoako probintzian zituen jabetza guztiak saltzeko asmoa zuela.

Aurreko lerroaldean azaldutakoaren ondorioz, Jose Joaquin Aldanondo beasaindarrak ere izen-mailegatzaile bihurtu zuen ordurako Donostian bizi zen Braulio Alustiza y Aranburu. 1887ko azaroaren 18an aipatu izen-mailegatzaileak Lazkaibar aundi eta hartako etxaguntzak erosi zituen 22.500 pezeta ordainduta eta Braulio Alustiza y Aranbururen izenean erregistratu zituen. Beranduago, gizon hark Oria ibaiaren alboan lekutzen ziren hainbat lur saldu zizkion Maquinista Guipuzcoana enpresari. Lur horiek 22.000 pezetan balioetsi zituen. Braulio de Alustizak ordainetan 1.000 pezetako balio izendatua zuten 22 akzio jaso zituen. Modu horretan, Goitia y Compañía enpresaren ondorengoa zen Fabrikako akziodun izatera pasa zen.

Gizon berak, aurrerago, aipatu fabrikatik abiatuz 1901ean eratu zen S.E.C.M. (gerora C.A.F.) enpresa handiari jabetza gehiago saldu zizkion. "Bagoi Fabrika" berriari saldu zizkion lurretako batzuk gerora Muntaketa Lantegi berriak eraiki zituzten lekuan kokatzen ziren, Lazkaibarreko zubiaren alboan. 294. argazkian ikus dezakegu hori argiago. Auzoa hobeto ezagutze aldera, Lazkaibarberri, Lasa-Garin eta Lazkaibar txiki etxeak 3, 4 eta 6 zenbakiekin adierazi ditugu hurrenez hurren. Orobat, 295. irudian Lasa-Garin etxe hori erakusten dugu beste ikusangelu batetik, zenbaki berdinaz adierazita.

Orobat, airetiko 295a argazkia ere ekarri dugu hona. Argazki hori askoz berriagoa da eta Lazkaibar auzo errukarria ikus daiteke bertan, trenbidearen eta errepidearen artean zokoratua. Zenbaki berdinak erabiliz adieraziko ditugu aurrez aipatutako etxeak. Halaber, gezi zuri batez adieraziko dugu Lazkaibar aundi baserria eta puntu zuri batekin Lazkaibar txiki baserriak antzina izan zuen kokapena, zeina 1930-1940 bitarteko hamarkadako amaiera aldera desagertu baitzen.

Momentuz, 6. sektorean nahiz Igartzako zonaldeari dagokion 2. sektorean adierazi dugun moduan, Alustiza hori Errekarteaundi baserriaren herentziazko jabeduna ere bazela oroituko dugu. Aipatu baserria Loinazko San Martin basilikara zihoan bidearen eskuinera kokatzen da. Braulio Alustizari buruzko informazioa osatzeko, esan dezagun segurarra zela eta Juan Maria Alustiza Do-

merecq semea 1933. urtean Gipuzkoako probintziako hirugarren landa-jabedun nagusiena zela jadanik.

Jabetza ugari zituen hogei udalerritan banatuta. Guztira 1.120 hektarea zituen bere baitan, horietatik 472,8 hektarea (4,728 km^2) Tolosako zonaldean kokatzen ziren. Segura edota Zerain aldean XIX. mendearen hastapenean egindako desamortizazioetan, Braulio Alustizaren zenbait arbaso herri-lurren erosle garrantzitsuak izan ziren. Horrenbestez, mintzagai dugun arbasoak ez ziren Segurako ohiko biztanleak.

1902ko azaroaren 15ean, Alustizak Lazkaibar aundi baserriko gainerako jabetzak saldu zizkien Jose Francisco Lasa Altuna eta Silverio Echeverria Ayerdiri (Amerikarra). Kasu honetan "pro indviso" eran eta zati berdinetan gauzatu zen erosketa. Salmenta 7.800 pezeta ordainduta gauzatu zen. Azken lote horretan etxea bera eta jarraian aipatuko ditugun etxaguntzak sartzen ziren. Etxaguntza horiek aipatu baino ez ditugu egingo, aurretiaz deskribatu baititugu dagoeneko. Orduko horretan, bada, lur hauek saldu zituen:

Echaburu; berriz ere Etxaburu; Mintegi; Luberri chiqui azpia; Luberritxikia; Luberriaundia; Lazkaibarraldea eta Galtzadaburua lursaileko zati bat, azken hori 5.970 m^{2}koa. Salerosketa horretan, era berean, etxeko etxaguntzaz aparteko lur hauek sartu ziren: 6,20 Iturrialdeco soroa, 620 m^{2}koa; Txintxurreta aldea, 2.374 m^{2}koa; izen bereko beste lursail bat, irasailez eta otadiz betea, 1.207 m^{2}koa; eta, azkenik, Gantzarain erreca izeneko larre-saila, 57.000 m^{2}koa. Azken lursail zabal hori Mariarats amildegiaren goiko zonaldean zegoen, Mariarats errekaren adarra zen errekastoaren alboan, zeinak Gantzarain baserrietatik jaisten zenez, haien izena hartu zuen.

1903ko maiatzaren 6an Lazkaibarraundi etxearen bi jabedun berri horiek baserria eta goran aipatutako lurrak banatu egin zituzten bakarka erregistratu ahal izateko.

TAGLETARREN HISTORIA ARGIGARRI LABUR BAT

Ez da oso ohikoa zonaldearekin lotutako familia batek oso aspaldikoak ez diren garaietan atzerrian Maria Josefa de Isasaga Muxica Guevara Arrue Vazquez de Acuña, Torretagleko bigarren markesak ukan zuen sona izatea. Markesa izateaz gain Sajuelako Andrea (Errioxa) izan zen eta baita Isasaga etxekoa, Muxika etxekoa, Gebarakoa eta Zaldibian kokatutako Arrue etxekoa ere. Gainera Lazkaibar oinetxearen eta hartako etxaguntzen jabeduna zen, beste jabetza askoren artean.

Isasagako etxearen eta orubearen jabeduna zenez, 1543an erregearen ahalmenez sortu zen Itsasondoko herrian hartako maiorazkoa zuen; Muxika eta Gebarako etxeen andre modura, haien maiorazkoa ukan zuen 1515ean erregearen ahalmenez sortutako Ordiziako udalerrian; gainera, Errioxako Sajuelako Jaurerria bere baitan zegoen; eta, azkenik, Arrue etxearen eta orubearen andre modura, hartako maiorazkoa

ukan zuen 1551n errege ahalmenez sortu zen Zaldibiako udalerrian.

Hainbat dokumentutan familia horrek Peruko lurrekin lotura estua zutela ikusi dugu. Halaber, ikusi dugu familiako arbaso eta ondorengoek diplomaziako goi-karguak izan zituztela, horietakoren bat arestian aipatu dugularik. Hori horrela izanik, aipatu guztiaren sorburua non dagoen jakiteko desira daukagu. Horretarako, Tagletarren leinuaren hastapenera jo dugu, Maria Josefa de Isasaga Gipuzkoan pertsona arrunta ez zela izan ziurtatu ostean.

Torretagleko markesaren titulua Felipe V erregeak sortu zuen 1730eko azaroaren 26an. Torretagleko lehen markesa, jatorriz kantabriarra bazen ere, Perun bizi zen ordurako. Jose Bernardo de Tagle y Bracho zen gizon hori, Rosa Juliana Sanchez de Taglerekin ezkonduta zegoena. Gizon hori izan zen Limako hirian Torretagleko Jauregi ospetsua eraiki zuena, 87 urte zituela hasi zuena alajaina! 96 urterekin zendu zen, 1740ko abuztuaren 4an. Haren emaztea, berriz, 73 urterekin hil zen 1761eko azaroaren 11n, izan ere, bere senarrak baino 44 urte gutxiago zituen. 296, 297 eta 298 irudietan Limako Torretagle Jauregiko fatxada nagusia ikus daiteke eta baita barneko patioa eta Jauregiko goiko zonaldera sartzeko eskailerak ere. Arkitektura-tratatuetan ezartzen denez, Peruko sasoi kolonialeko egiazko harribitxia da jauregia.

Tadeo de Tagle y Bracho izan zen Torretagleko bigarren markesa, zeina Tagle Etxeko Maiorazko eta Patronatu guztien jabeduna baitzen. Bigarren markes hori izan zen **Maria Josefa de Isasaga Muxica Guevara y Arruerekin** ezkondu zena, zeina aurrez luze eta zabal aipatu dugun Lazkaibar Etxeko jabeduna baitzen.

Torretagleko hirugarren markesa Jose Manuel de Tagle e Isasaga Guevara Arrue y Urreamendi izan zen. Gizon hori (Lazkaibarreko Andrea zen Josefa de Isasagaren semea), aldi berean, Josefa Portocarrero y

Zamudiorekin ezkondu zen, zeina Monclovako konde eta Peruko hogeita hirugarren erregeordea zen Melchor Portocarreroren ondorengoa baitzen.

Azkenik, hasieran ikusi dugun moduan, pertsonaia ospetsuena geratzen zaigu. Jose Bernardo de Tagle y Portocarrero Isasaga Muxica Guevara Arrue Urreamendi y Zamudioz ari gara, Gipuzkoako Isasaga, Muxica eta Arrue Etxeetako Jauna zena eta Torretagleko laugarren markesa, azkena beraz. Tagle y Portocarrero hori, aldi berean, Mariana Micaela Echeverria de Santiago y Ulloarekin ezkondu zen. Senaremazte horiekin galdu zen behin-betiko Torretagle abizena, izan ere ez zuten semerik izan, bi alaba baino ez baitzituzten izan. Senar-emazteen alabetako bat, hain zuzen, Josefa Manuela de Tagle y Echeverria zen, Torretagleko markesa. 1825ean, beste jabetza batzuen artean, Lazkaibar etxeko jabetza eta lurrak heredatu zituena, aurreko atal batean islatu dugun eran.

Bukatzeko esangarri da Jose Bernardo de Tagle y Portocarrero pertsona oso garrantzitsua izan zela XIX. mendearen hastapeneko Peru kolonialean. 1779an jaio zen Liman eta 1825ean zendu zen. Gazterik hil bazen ere, bizimodu bizi eta gorabeheratsua izan zuen. Mariskal Nagusia izan zen, Peruko independentzia zin egin zuen 1820an eta, 1822ko urtarrilaren 19tik abuztuaren 21era agintea hartu zuen San Martin Jeneralak hala eskatuta, Delegatu Goren tituluarekin. 1823ko Kongresuak Riva Agüero kargutik kendu eta Sucreri eman zion agintea. Hark, aldi berean, Torretagleko markesaren eskuetan utzi zuen agintea 1823ko uztailaren 17an. Horren ondorioz, **Peruko Errepublikako Presidente izendatu zuten urte hartako abuztuaren 16an.**

Peruko Errepublikako Kongresuak 1824ko otsailaren 10ean haren agintea bertan behera utzi zuen eta, ondotik, Simon Bolivarrek hartu zuen ardura. Azken hori Libertadore gisa ezagutzen zuten ingurumaria haietan. Jose Bernardo de Tagle y Portocarrero negoziazio ilunetan (itxuraz, Errepublika berriari bizkar emanez) eta Canterac Jeneralarekin gerra amaitzeko hitz egiten atzituta, Callaoko Gazteluetan ezkutatu behar izan zen (garai hartan Espainiako ejertzitoaren mende). Bertan hil zen emaztearekin batera. Hori guztiori 1825ean gertatu zen, 46 urte baino ez zituela. Zenbakiek ziria sartu ez badigute, Josefa Manuela de Tagle y Echeverriak Lazkaibarreko aipatu etxea eta hartako etxaguntza guztiak herentzian jaso zituenean hiru urte baino ez zituen izango.

Beste bitxikeria bat aipatzearren, esango dugu familia horrek itsasoz haratago zituen jabetza ugarien artean Torretagleko Jauregi ospetsua zela enblematiko eta ezagunena. Jauregiak garrantzia handia zuen orduan (eta du oraindik ere), hainbeste non Limako "Eliza-Santutegi" batzuetan bezalaxe, jauregiaren ataurreetan kate bat baitzegoen garai hartan. Ez zen edozein kate, izan ere, hura gurutzatzen zuen edozein pertsonak babes-eskubide ukaezina erdiesten zuen. Onurabide hori Limako eliza gutxi batzuetan baino ez zen mantentzen.

Tagle familiaren Jauregia, era berean, Gobernuaren etxea izan zen Torretagleko laugarren eta azken markesa Errepublikako Presidente (1823-1824) izan zenean. Pertsonaia gorabeheratsu horren garrantzia historikoa Trujillon egin zuen independentzia-deklarazioan antzematen da neurri batean, haren bide san Martin Jeneralak Paracaseko badian lehorreratzea ahalbidetu baitzuen.

Beranduago Torretagleko IV. markesa izango zenaren botere ekonomikoa islatzen duen xehetasun bat emango dugu hemen. Dokumentuan irakurrita bezala idazten dugu:

> *"...Cuando en esos años de crisis y guerra por la independencia del Perú, Dª María del Carmen Echeverria y Ulloa contrajo matrimonio con D. José Bernardo de Tagle y Portocarrero, a dicho matrimonio aportó una dote de nada menos que 67.532 pesos (peruanos), suma por esos años considerada como muy superior al capital del comerciante más rico de la entonces próspera ciudad de Lima…"*

1821etik Liman Kanpo Harremanetarako Ministerioaren egoitza izan zen Torretagle Jauregi enblematikoaren inguruko beste datu arkitektoniko garrantzitsu bat emango dugu jarraian, izan ere, bigarren solairuko zenbait galeria, irudi antropomorfo dotorez apaindutako mentsula edo habez sostengatzen zirenak, "kolonizazioaren garaian" Hegoamerika osoan zutaberik gabe eraikitako lehen "galeria irtenak" ziren ustez.

Askoz beranduago, galeria horietako batzuk amildu egin ziren Limako hirian izandako lurrikara etengabeen ondoren. Hori dela eta, XIX. mendearen amaieran zutabeak paratu behar izan ziren ganga horien euskarri modura. Geroago, 1950eko hamarkadaren erdialdera, Andres Boyer arkitektoak egindako zaharberritze zorrotzaren ostean, sostengu horiek kendu egin ziren berriz ere eta eraikin enblematikoak hasiera batean izan zuen proiektura egokitu zen hartako egitura.

Torretagleko jauregi itzela kolonizazio-aro ilun horretako ondare artistiko eta kultural adierazgarrienetakoa da Liman eta horrelaxe mantentzen da hiriburuan. Hiri hori Erregeordeen antzinako hiri gisa ere ezagutzen da, urte haietan gune boteretsua baitzen erlijioari, politikari, kulturari eta ekonomiari dagokionez.

Lazkaibarraundi baserriko jabedun aberatsaren inguruko kontu horiek ikusita, ikus ditzagun Lazkaibarreko zonaldeari dagokion 7. sektorean barneratzen diren gainerako baserriak. Oria ibaiaren bi aldeetara kokatuak aipatuko ditugu. Honatx bada horiek, aipatu berri dugunarekin batera:

Oria ibaiaren iparraldera Ezkiaga calzada edo Ezkia txiki eta Mariarats (Ezkiagabasoa eta Ezkiagaerdikoa 6. sektorean ikusi baititugu); ibaiaren hegoaldera, berriz, Agirretxiki, Upabia eta Lazkaibartxiki, izan ere, ez dugu besterik gaineratuko Lazkaibarreko zubiaren alboan agertzen den "Benta zuri" etxe zaharraren inguruan, aurrez nahikoa sakontasunez aipatu baitugu. Usabiaga familiaren "Benta berri" etxeari dagokionez, aurrez esan dugun bezala, berantiarragoa da, 1880an amaitu baitzen haren eraikuntza.

Arranomendia baserriari (egun San Isidro Granja) buruz ere ez dugu ezer aipatuko, izan ere, 7. sektoreko plano orokorrean ez agertzeaz gain, etxea auzotik aparte samar geratzen da, muinoaren ekialdera. Hala ere, etxe haren ezarpenari buruz ere bada historia oso bitxi bat, 2009ko Santa Ana aldizkarian aipatu genuenez.

LAZKAIBARTXIKI 7. sektoreko plano orokorrean eta 7b plano-zatian C hizkiz adierazten den etxea da. Trenbide-pasabidearen alboan lekutzen da, 299. eta 300. irudietan ikus dezakegunez. 295a irudia berriagoa da eta bertan ere haren antzinako kokapena ikus daiteke, izan ere, zirkulu zuri batekin markatu dugu eraitsi arte mantendu zuen kokapena.

299. irudian etxearen aurrealdeko fatxada ikus daiteke, jadanik lantegiz inguratuta alde guztietara. Irudi horretan, halaber, bi gezi zuriz adierazi dugu bidearen hastapena, Galardi mendi-mazelaren erdialdetik, Txintxurretaren gainetik igaroz, Senpereko zonaldera iristen zena. 7. sektoreko plano orokorrean ere aipatu bidearen hasiera ikus daiteke eta 6. sektoreko plano orokorrean bide hori nola luzatzen den ikusi ahal izan dugu. J hizkiz adierazi dugu aipatu planoetan. 300. argazkian Lazkaibartxiki baserriaren atzealdea ikus daiteke XX. mendearen hastapenean. Ordurako, baserriaren ezker hegalak Bagoi Fabrikako Galdaketarako Lantegi berriak ukitzen zituen.

Beasaingo udalerriko zenbakikuntza zaharrean Lazkaibar aundi baserria Ekialdeko Zatiko 5. zenbakian kokatzen zen, Lazkaoko norabidean. Lazkaibartxiki baserriak, bestalde, 1862an 6. zenbakia izango zuen, izan ere, errepidearen alde horretan ez zegoen beste eraikuntzarik Txintxurreta baserrira iritsi arte; eta, azken horrek urte horietan Ekialdeko Zatiko 7. zenbakia zuen. Lazkaibartxiki baserria, hasiera batean, Torretagletarren baitakoa izan zen, Lazkaibarraundi baserria bezalaxe. Hala ere, XIX. mendearen hastapenean Lazkaibar txiki baserria Juan Pascual Lasaren baitakoa zen jadanik. Gizon horrek bazituen arbasoak Lazkaibar auzoan eta, baita Ordizian ere. Segidan ikusiko dugu nor zen aipatu gizona, kolonizazio garaiko Perun ere nolabaiteko garrantzia izan zuena.

Agian kasualitate hutsa izan daiteke, baina oso bitxia da Lazkaibarraundi baserriaren jabeduna XIX. mendearen hastapenean pertsonaia oso garrantzitsua izatea Perun eta, aldi berean, Lazkaibartxiki baserriko jabeak ere zeresana izatea itsasoz haratagoko kolonia hartan. Juan Pascual Lasak Perun bizi zela jaso zuen Beasaingo jabetza hori. Bere ahalordedun zen Jose Martin Sarasolaren eskutik baitaratu zuen baserria, hari jarraibideak eman ostean. Melquiades Matias de Goya jaunari erosi zion jabetza 1832ko maiatzaren 28an. Juan Pascual Lasak 17 urtez baino ez zuen gozatu jabetza hartaz, izan ere, 1849ko apirilaren 27an zendu zen. Jaenako hirian ehortzi zuten, Peruko Errepublikan.

Juan Pascual Lasa hil zenerako testamentua egina zuen Manuel Sixto Lasa semearen alde, zeina Peruko Cuzco hirikoa zen Cecilia Ladron de Guevararekin ez-



konduta baitzegoen (aurrerago ikusiko dugu nor zen andre hori, Tupac Amaru buruzagi inka arras ezagunaren ondorengo zena genealogikoki). Behin herentzian jasota, Sixto Lasa hitzez hitz emango ditugun testamentuko ondare hauetaz arduratu beharko zen:

> *"…4.000 pesos a un muchacho llamado Gabino, hijo de Dª Gregoria Siña, 2.000 pesos a D. Gregorio Centeno, 1.500 pesos a D. Juliano Nieves, vecino de la ciudad de Iquique, 3.000 pesos a las señoras Campanas, Dª Josefa y Dª Damirana, vecinas de Cuzco, 200 pesos a la hija de Dª Felipa Rospigliosi y 5.000 pesos a su sobrino, D. Mariano Otamendi…"*

Testamentuan agertzen ziren ondare horietan diru asko gordetzen zen. Hori guztiori 1875eko urriaren 15ean formalizatu zen Madrilen. Horrenbestez, egun horretan eskualdatu zen Lazkaibar txiki etxea Manuel Sixto Lasa y Ladron de Guevararen alde, zeina, arestian esan dugunez, aipatu bikotearen semea baitzen.

Aipatu egunez baserria legez gizon horren baitako izatera pasa zen, baina jarrai dezagun orain etxearekin eta hartako etxaguntzekin, geroago aipatuko baitugu luze eta zabal Manuel Sixto Lasa, zeinak, Peruko Errepublikan jaio bazen ere, Lazkaibar auzoan ere bazituen arbasoak. Gizon horri buruz aurrez ere aipatu dugu zerbait, 6. sektorean fabrika zaharreko etxaguntzak deskribatu ditugunean.

Garai hartan beheko solairuak, goiko solairuak eta goialdean zegoen ganbara bakarrak osatzen zuten Lazkaibar txiki baserriaren egitura. Eraikinaren eskantzuak eta leihoetako kofadurak harlandua erabiliz eraiki ziren eta hormak harlangaitza erabiliz. XX. mendearen lehen laurdeneko data ageri duen 301. planoko marrazkian ikus daiteke baserria, trenbidepasabidearen alboan 6. zenbakiarekin adierazita. Orobat, gari hartan auzoko etxeen kokapena zer-nolakoa zen ikus daiteke plano berean; ezkerrera, errepidearen alboan Upabia baserritik igaroz Granjara abiatzen den bidearen hastapena ikus daiteke, eta baita gutxi gorabehera 1863an eraiki zen trenbidearen gaineko zubia ere. Trenbidearen ondoan, Lazkaibar txiki etxearen aurrean ikusten den etxea "hesi-zainaren" etxola da, dena den, azken horren kokapena ez dator bat 7. sektoreko plano orokorrean Y hizkiz adierazita marraztu den eraikinaren kokapenarekin.

1862an baserriaren orubeak 219 m² zituen eta haren bi uretako teilatua teilaz egina zen. Bakarrik baserriak 2.580 pezetako balioa zuen.

Honatx 1862an hari atxikita zeuden lurrak:

Etxaburua, 4.636 m²ko ereiteko lur-eremu bat eta 5.037 m²ko beste lur-eremu bat, hariztiz betea, muga hauekin:

Iparraldera, Agerre baserrirantz zihoan bidea, **oinezko beste bide bat** eta Lazkaibarraundi baserriko lurrak; ekialdera, aurreko bidea; hegoaldera, Lazkaibar aundi baserriko etxaguntzak; mendebaldera, lehengo bide bera eta Lazkao-Senpere-Ataun errepidea.

302. planoan Upabia baserria ikus daiteke, Galardi muinoko ekialdeko bizkarraldera zihoan bidearen erdian lekutua ia. UP hizkiz adierazi dugu. Era berean, CP hizkiak paratu ditugu aurreko mugetan aipatu-



tako oinezko bidea adierazteko, Lazkaibarreko auzotarrek sarri erabiltzen zutena. Lursail horrek 1.500 pezeta balio zuen orduan.

Bekosoroa, 8.400 m²ko beste ereiteko lur-eremu bat, gehi 376 m²ko belardi bat, muga hauekin:

Iparraldera, Lazkaibarraundi baserriko lurrak; ekialdera, Trenbidearen Konpainiako erabili gabeko lurrak eta **atari horretan Goitia y Compañía fabrikara zegoen sarbidea** (7. plano orokorrean U hizkiarekin eta 7b plano-zatian gezi bertikal zuri batekin adierazi duguna); hegoaldera, fabrika; mendebaldera, ibai nagusia (Oriaren ibilgua). 2.567 pezetakoa zen haren orduko balioa (ia hektarea bateko azalera zuen lur-eremu handi hori 7 eta 7b planoetan O hizkiaren eskuinera lekutzen dena da).

Sorotxikia, 457 m²ko ereiteko lur-eremua, muga hauekin: iparralde eta mendebaldera, trenbidea; ekialdera, Lazkao-Ataun errepidea; hegoaldera, Lazkaibarraundi baserriko onibar bat. Haren balioa 126 pezetakoa zen garai hartan.

Luziaundia, 18.488 m² larre-saila, gaztainadiz eta haitzez betea, muga hauekin:

Iparraldera, Juan Muguerzaren etxaguntzak; ekialdera, "Maiaz" (izen hau erabiltzen da Mariarats errekatxoa eta etxea aipatu nahi direnean) errekatxoa; hegoaldera, Maiaz errekatxoa berriz ere eta Lapitzerreka izeneko errekastoa; mendebaldera Erauskin inguruko San Andres baserriaren baitako onibar bat. Mariarats amildegiaren ezkerraldera kokatutako onibar horrek 832 pezeta balio zuen orduan.

Sanandresaldea, 2.532 m²ko larre-saila, muga hauekin:

Iparraldera, Igartza etxea baserriko onibar bat; ekialdera, "Maiaz" (Mariarats edo Mariaras) baserriko beste lur bat; hegoaldera, Txintxurreta baserriaren baitako lursail bat; mendebaldera, Ezkiagako lurrak (ez da zehazten zein baserriri buruz ari den). Azken lursail hori urteurren-meza batekin kargatuta zegoen, Beasaingo parrokiako kabildoaren alde. Zentsu hori nork ezarri zuen eta zenbateko kapitala zuen kontu ezezagunak dira. Beasaingo udalerriko 3. liburu zaharrean jasotzen zen, 31. folioko 225. zenbakian. Bere orduko balioa 139 pezetakoa zen.

XIX. mendearen amaiera aldera Lazkaibar txiki baserriaren baitan zeuden lurrak deskribatu ditugu dagoeneko. Orain, bertako jabedun eta egoileak zerrendatzen hasi aurretik, Manuel Sixto Lasa y Ladron de Guevara ezagutuko dugu apur bat gehiago, Juan Pascual Lasaren lehen semea eta haren ondasunen legezko hartzailea.

Manuel Sixto Lasa Ladron de Guevara 1830ean jaio zen eta Peruko Errepublikako sarjentu nagusi izan zen. Liman bizi izan zen. Tupac Amaru buruzagi inkaren ondorengo zuzena zen Manuel Sixto Lasa, izan ere, bere ama, Cecilia Ladron de Guevara (beranduago, Juan Pascual Lasa hil zenean, berriro ezkondu ostean beste bi seme-alaba izan zituena) Felipe Tupac Amaru eta Juana Quispesisa senar-emazteen hirugarren belaunaldiko ondorengoa zen.

Manuel Sixto Lasak Kongresuan bere ondorengotza inka aldarrikatzeaz gain, bere amaren aldetiko arbasoen genealogia aztertu bat argitaratu zuen "Cuadernos de D. Manuel Sixto Laza (Lasa), 1858-1860)" idatzi ezagunetan. Idatzi horiek Cuscoko Departamentuaren Artxibategian gordetzen dira eta **"Exposición que D. Manuel Sixto Lasa hace en representación de su señora madre Dª Cecilia Ladrón de Guevara al Soberano Congreso de 1.860"** izeneko argitalpen batean eman zituen berak izango dira ziurrenik. Azken lan hori Liman inprimatu zen 1861eko apirilaren 17an.

Segidan emango dugun datuari jarraiki ikusiko dugunez, bere familia ere ez zen edozein familia urte horietako Peru kolonialean, izan ere, Manuel Sixtoren arrebaorde gazteena, Maria Trinidad Enriquez (1846-1891) izenekoa, lehen emakumea izan zen Peruko Errepublikan eta Hegoamerikan unibertsitate-ikasketak burutzen. 1876an Sociedad de Artesanos de Cuzco delakoa sortu zuen eta 1891n "La Voz de Cuzco" editatu zuen, aipatu hiriko artisauen artean ibili zen muturreko argitalpena. Halaber, emakumezko maistra gaztea izan zen, ideia eta kezka sozial berriak bultzatu zituena eta garai hartan emakumeen eskubideen aldeko borroka aldarrikatu zuena. Halaber, Europara bidaiatu zuen emakumeak gizarte modernoan zuen egiteko berriari buruzko ideia berritzaileak ezagutarazteko.

Manuel Sixto Lasa Ladron de Guevara (dokumentu batzuetan Laza idazten da) Emilia Zuñigarekin ezkondu zen. Emaztearen bigarren senarra zen Manuel, izan ere, lehenago Ricardo Vargas zenduarekin ezkondu zen eta alaba bat ere izan zen harekin, Elvira Vargas Zuñiga izenekoa. Hil ostean Vargas jaunak 6.000 pesoko herentzia utzi zion Elvirari eta idatzi batzuetan irakur daitekeenez, Manuel Sixto Lasak administratu, gorde eta xahutu zituen diru horiek. Kapital hori Elvira alabaordeari zegozkion interesekin legez itzultzeko, Lazkaibartxiki baserria salmentan jarri zuen

hartako etxaguntza guztiekin batera. Horiez gain, zonaldean zituen beste hainbat jabetza ere eman zituen salmentan, esate baterako, Ordiziako Bozunzamendi baserria.

Horretarako, aipatu finka neskatoaren ama zen Emilia Zuñigari eskualdatu zion, izan ere, neskatoa artean adin txikikoa zenez, ama zen legezko ordezkaria. Eskualdatzea baldintza bakarra ezarrita gauzatu zen, hots, salmentarekin zorra (interes guztiekin) kitatzeko behar zen 9.960 pesoko kopurua gainditzen bazen, jabetzaren saltzaileak ez luke aparteko kopurua eskatzeko eskubiderik izango. Aitzitik, salmentaren ostean behar adina diru lortzen ez bazen, saltzaileak adostutako kopuruaren eta salmentaren kopuru errealaren arteko diferentzia hori ordaindu beharko zion onuradunari.

Azkenik, aipatu jabetzaren eskualdatzea 1865eko apirilaren 4an gauzatu zen Liman. Zoritxarrez neskatoa 11 urte eta bost hilabete zituela hil zen. Horrenbestez, Elvira Zuñiga ama izendatu zuten bere bizilekutik 6.000 kilometro baino gehiagora zegoen Lazkaibar txiki izeneko jabetza arras urrun eta ezezagun hartako jaraunsle unibertsal.

Dagoeneko badakigu nor zen 1865ean baserriko eta hartako etxaguntzen legezko jabeduna. Beranduago, Elvira Zuñigak ahalmen eman zion Pedro Galvezi jabetza hori Leocadio Lopez Marotori Espainian zituen beste onibar batzuekin batera sal ziezaion 27.000 pezetatan. Azkenik, 30.976 beloi-errealeko balioespena egin zen Lazkaibartxiki eta hartako etxaguntza guztien salmentengatik. Gainera, Manuel Sixto Lasak beste 8.864 errealeko ekarpena egin zuen. Modu horretan, alabaordea hil zenean emaztearekiko zuen legezko zorra kitatu ahal izan zuen.

Jabetza Leocadio Lopez Maroto 52 urteko madrildarrak erosi zuen. Horrenbestez, transakzioa 1875eko urriaren 15ean legeztatu zen Madrilen Peruko Errepublikako Kontsula zen Marco del Ponten aurrean. Lazkaibartxiki baserri zaharraren historiaren amaierara iristen ari gara, nahiz eta beste urte askoan izan zen zutik, izan ere, 1876ko urriaren 11n aipatu erosleak jabetza saldu zuen berriz ere. Kasu horretan, azkenaurreko jabedunak erosi zuen jabetza, zeina XX. mendearen hirugarren hamarkadan eraitsi zuten. Ikus dezagun nola gauzatu zen salmenta hori eta nor izan zen eroslea:

Leocadio Lopez Marotok urtebete eskas eman zuen hartako jabedun modura, izan ere, esan bezala, 1876ko urriaren 11n Francisco Goitia Ostolazari (Domingo Goitia Sarrieguiren semea) saldu zion. Gizon hark ingurune horretan 15 urte aurrerago finkatu zen Goitia y Compañía enpresaren izenean gauzatu zuen erosketa. Francisco Goitia Ostolazak 26 urte zituen orduan, ezkongabea zen, fabrikatzailea eta Beasaingo biztanlea, izan ere, Fabrikako bere etxean bizi zen enpresako gerenteorde modura (Gerentea Jose Francisco Arana Echeverria zen orduan). 12.500 pezeta ordainduta eskuratu zituen Lazkaibartxiki baserria eta hartako etxaguntza guztiak.

Beranduago, 1878ko apirilaren 25ean, Goitia y Compañía enpresak **"Bekosoroa"** izeneko lurra eta aurrez aipatutako jabetza-sortako beste zenbait lursail saldu zituen. Jose Martin Ayestaran Gabilondok erosi zituen 4.500 ordainduta. Transakzioa egiteko gizon hark lehenengo 3.000 pezeta eman zituen urre eta zilarrezko monetatan, beste 1.500 pezetak geroago ordaintzeko utzi zituelarik. Gizon hori ezkonduta zegoen, 41 urte zituen, laboraria zen eta Lazkaibar txiki baserriko egoilea. Horrenbestez, Goitia jaunarekin gainerako 1.500 pezeten ordainketa bi urtez atzeratzea adostu zuen. Horrela, ordainketa egikaritzeko epemuga 1880ko apirilaren 25ean ezarri zuten.

1885eko abuztuaren 17an, Francisco Goitia Ostolaza jadanik Goitia y Compañía enpresako Gerente zela, Jose Martin Ayestaranen eskutik 1.500 pezeta horiek jaso izana deklaratu zuen. Doroteo Ayestaran Echeverriak, aurrekoaren semeak, aipatu lursailak jaso zituen 1905eko apirilaren 17an bere gurasoen testamentuzko dohaintzan. Ordurako, jabetza guzti horietatik 6.373 m²ko Etxaburua lursaila, Luziaundia izeneko larresaila eta Sanandresaldea onibarra baino ez ziren geratzen, etxeko etxaguntzak deskribatzean aipatu ditugunak. Gerora, Etxaburua lursaila Juliana Yurrita Echaveri eman zitzaion, zegokion hipoteka paratuta. Ordutik aurrera gertatu zenaren berririk ez dugu.

Irakurle batzuek asmatuko zuten dagoeneko Eustasio Ayestaran eta anai-arreben aitonez ari garela Ayestaran familia aipatzen dugunean. Eustasio Ayestaranen aita zen Doroteo Ayestaranek sasoi hartan Arana sendiaren baitan zegoen Iturrondo etxearen erdia eskuratu zuen 1927an. Martina Maiz kaleko 3. portalera begira dagoen zatia, hain justu.

Ikus ditzagun orain Lazkaibar txiki baserrian 1862an bizi ziren hiru familiak:

Alde batetik, Jose Martin Ayestaran Gabilondo eta Maria Jesus Echeverria senar-emazteak eta haien semea, Jose Ignacio Ayestaran Echeverria izenekoa, horiekin batera bizi zirelarik, Jose Francisco Ayestaran eta Maria Micaela Gabilondo aitona-amonak, Maria Rita Ayestaran izeba eta Jose Manuel Larrañaga, Jose Maria Gogorza eta Jose Julian Gogorza apopiloak; beste alde batetik, Indalecio Quintana eta Francisca Ajuria senar-emazteek eta Anselmo eta Ildefonsa Quintana Ajuria semeek osatzen zuten bigarren familia; azkenik, Juan Domingo Quintana (aurrekoaren anaia) eta Paula Loa senar-emazteek eta Jose Eguia morroiak osatzen zuten hirugarren sendia.

LAZKAIBAR AUZOKO ETXE BERRIAK

LAZKAIBARBERRI da, apika, eraikin modernoen artean zaharrena. Aurrekoak bezala, Beasaingo udalerriko Ekialdeko Zatian lekutzen zen. Dena den, XIX. mendearen amaierako "eraikin berria" zenez, artean ez zitzaion zenbakirik esleitu.

Hasiera batean, etxearen azalera 81 m² eta 48 "ehunenekoa" zen. 1881ean beheko solairuak, goiko bi pisuk eta ganbarak osatzen zuten haren egitura. 294 eta



295a argazkietan 3. zenbakiarekin adierazten da. Lehen argazkian XX. mendean zuen jatorrizko itxurarekin ikus daiteke, atzealdean, teilape-estalpea zuela; bigarren argazkian, egun duen itxurarekin, hots, etxebizitza-etxe bihurtuta.

Etxea Upabia etxeko etxaguntzetan txertatutako orube batean eraiki zen hasiera batean. Orube horren azalera, banantzea egin ostean, 420 m²koa zen eta hauek ziren XIX. mendearen amaiera aldera haren mugak:

Iparralde eta ekialdera, lur-eremu horretako beste zatiarekin, puska bat Ordiziako jurisdikzioan zuena; hegoaldera, Torretagleko markesaren onibar bat (Lazkaibarraundi etxeari esleitua); mendebaldera, Lazkao-Ataun aldera zihoan errepidea. Azken hartako lurra Upabia baserriko etxaguntza gisa ageri da erregistraturik. Hori guztiori liburuki honetako lehen inskripzioan, 180. folioko 211. lursail modura agertzen da, han banandu baitzen etxe berriko multzo osotik, modu horretan, lursail berri bat osatu zuelarik, beste zenbaki batekin.

Jose Antonio Aranburu Muñoa 64 urteko Ordiziako laborari ezkonduak eskuratu zuen aipatu lurra Jose Domingo Oyarzabalen eskutik, Martin Garinekin batera egindako banaketaren ostean. Segidan ikusiko dugunez, azken bi horiek izan ziren Upabia baserriko jabedun berriak, izan ere, Castrillo y Bernuy deiturak zituen Cuevas del Becerroko markesaren ondorengo baten (aldi berean, Mercedeko markesa alarguna zena) eskutik jaso baitzuten.

Jose Antonio Aranburu Muñoa izan zen Lazkaibarberri eraikin berriko lehen jabeduna, bere kabuz berreraiki baitzuen osorik. 1881eko apirilaren 4an erregistratu zuen etxe berria. Apur bat beranduago Domingo Elicegui Echeverriari saldu zizkion jabetza hori eta beste bi lursail. Kasu horretan 11.000 pezetatan gauzatu zen salerosketa, Lazkaibarberri etxe berria 5.625 pezetatan balioetsi zelarik. Domingo Elicegui Echeverria arotza zen ogibidez, beasaindarra eta ezkonduta zegoen. 1881eko maiatzaren 18an aipatu etxea eskuratu zuenean 52 urte zituen. Domingo Eliceguik, 1899ko irailaren 1ean etxea saldu zuen berriz ere. Kasu horretan, beste hiru lursail, okindegia eta eraikin berriaren sotoan kokatutako elikagai-denda ere saldu zituen. Javier Villar Ormazabal suhia izan zen eroslea, 27.000 pezeta ordainduta.

Gizon hori aurreko jabedunaren alaba zen Josefa Martina Elicegui Albisurekin ezkonduta zegoen eta 1904ko irailaren 6an zendu zen, testamentua utzita. Bikoteak lau seme-alaba izan zituen: Matias, Micaela, Victor eta Juana Villar Elicegui. Horietatik "pintore-karrozari" ospetsua, Victor Villar donostiarra izan zen, ziurrenik, ezagunena. Azkenik, alargunak bere suhiari saldu zion jabetza, hots, Micaela Villar Elicegui alabaren senarra zen Francisco Antonio Apalategui Ayerdiri. Salmenta 16.500 pezetaren truk gauzatu zen. 1910eko irailaren 28an gauzatu zen salmenta eta horrela mantendu zen 1946ko irailaren 6ra arte.

Hortik aurrerakoa, horren aspaldikoa ez denez, guztiok ezagutzen dugu; izan ere, etxeak zutik dirau oraindik eta ez hutsik gainera, baditu eta hainbat egoile. Dena den, tabako-denda ezaguna, Beasainen saltokilizentzia eskuratzen lehena, udalerriko herrigune berrian lekutzen da dagoeneko.

XIX. mendearen amaieran, beraz, Lazkaibarberri etxea eraikia zegoen jadanik. Bestalde, gainerako etxebizitza-etxeak, hau da, Lasa-Garin, Olaranberri (Arregi etxea) eta Olaran (gerora Unanue etxe izenez ezagutu zena) etxeak beranduago eraiki ziren, hurrenkera kronologiko honetan:

Lasa-Garin sendien etxea da hiruetan zaharrena, XX. mendearen lehen hamarkadan eraiki baitzen. Beranduago, Lazkaibarraundi baserriko 382 m2ko lursail baten gainean, zeina 1913ko uztailaren 23an bereizi zen, eraiki zen Olaran etxea, trenbidearen aldamenean. Azkenik, Olaranberri aurrekoaren ondoan altxatu zen.

294 eta 295a argazkietan 4. zenbakiarekin adierazi dugu Lasa-Garin etxea. 295. argazkian etxe hori ikus daiteke beste ikusangelu batetik. 295a argazkian ere gezi zuri batekin adierazi dugu Lazkaibarraundi etxearen kokapena. 303. argazkian ia ez da ikusten, izan ere, XX. mendearen hastapenean Lazkaibarraundi etxea artean etxebizitza-etxe bihurtzeke zegoen. Ia ikusten ez denez, gezi zuri batekin adierazi dugu ostera ere.

Gainerako eraikuntzak ere aurreko irudietan esleitutako zenbakiekin adierazi ditugu. Hogei urte be-



randuago ateratako 304. argazkian, dagoeneko aldaketa handiak nabaritzen dira auzoko etxeetan: Lazkaibarberri, irudiaren azpialdean dagoen etxea, hiru solairutako eraikina bilakatu da, mendirantz sartua; gezi zuri batekin markatu dugun Lazkaibarraundi baserria egun duen altuerarekin ikusten da dagoeneko; Lazkaibartxiki baserria eraisteke dago, horregatik, 6. zenbakiarekin adierazi dugu; azkenik, Olaran etxea, egun oraindik zutik dagoena, 8. zenbakiarekin eman dugu.

Olaran etxebizitza-etxea **Etxeburua** izeneko orube baten gainean eraiki zen, zeina 1862an Lazkaibar etxeko Andrea zen Torretagleko markesaren baitakoa zen. Jabedun hori izan zen, beranduago, etxe hori eta hartako etxaguntzak Braulio Alustizari saldu zizkiona, aurrez, Lazkaibarraundi baserriari buruzko atalean esan dugunez.

Azken hark bi gizoni saldu zien jabetza banaezinezko moduan eta, horren ondorioz, lur-zati hori Silverio Echeverria Ayerdik bereganatu zuen beranduago, hau da, bi jabedun berri horietako batek, auzoan "Amerikarra" ezizenez ezagutzen zenak. 382 m²ko azalera zuen lursail hori Etxeburua izeneko onibar horri "lapurtutako" zati bat baino ez zen. Honatx haren mugak:

Ekialde eta hegoaldera, Norteko Konpainiaren trenbideko lursailak; iparraldera, Etxeburua izeneko lursailaren gainerako lurrak; mendebaldera, Lazkao-Ataun-Nafarroa errepidea.

Beraz, Torretagleko markesak Braulio Alustizari saldu zion lurra eta azken horrek Jose Francisco Lasa eta Silverio Echeverria Ayerdiri "pro indiviso" modura, eta lur-eremua azken horren eskuetan geratu ostean, Jose Martin Altolaguirre Arreseri saldu zion. Azken hori gurdi-gidaria zen ogibidez, ezkonduta zegoen, adin nagusikoa zen eta Ataunen bizi zen. Salmenta 1.500 pezetatan gauzatu zen eta erosleak 1913ko uztailaren 23an inskribatu zuen Erregistroan.

Olaran etxearekin lotuta bada ohar bitxi bat dokumentuetan, hain zuzen, etxe hartako biztanle eta egoileak inplikatzen zituena; izan ere, garai hartan Galarditik bortizki eta kontrolik gabe jaisten ziren urei buruz honakoa aipatzen zen:

> *"…y respecto a las aguas que bajan del monte, cada vecino deberá conservar limpia la cuneta que le corresponde…"*

Errepidearen alboko auzoa deskribatu ostean, Galardi muinoaren ekialdeko mendi-mazelan kokatutako baserriei buruz mintzatuko gara. Bereizi egin ditugu, izan ere, Ordiziako jurisdikzioan sartzen baziren ere, bertako bizilagunek auzokotzat eduki izan dituzte beti. Gainera, Upabia-Agirretxiki-Arranomendia (beranduago San Isidro Granja) ibilbidea zen haien aisialdigune kuttunena.

BIDETIK UPABIA ETA AGIRRETXIKI ALDERA

UPABIA edo UPABI BASERRIA orduan zegoen lekuan dago oraindik, nahiz eta ia aurri egoeran egon. Hegoaldeko Zatiko bigarren zenbakian paratzen da, Ordiziako jurisdikzio barruan. Guk D hizkiarekin adierazi dugu baserria, trenbidearen gaineko zubia, berriz, F hizkiarekin markatu dugu eta bidea (egun errepidea) P hizkiz paratu dugu, bai 7. sektoreko plano orokorrean eta baita 7c plano-zatian ere.

Halaber, 305 eta 305a argazkiak ekarri ditugu; lehenengoan baserri zaharraren fatxada nagusia ikusten da eta, bigarrenean Vicente Aranburu eta Juana Mª Amundarain ikusten dira baserriko ataurrean, XX. mendearen hastapenean. Vicente Upabian jaio zen, hau da, Ordizian. Juana, aldiz, Beasainen jaio zen eta Barrendaingo Amundarain sendiaren ahaidea zen. 306. irudian bidea ikusten da, dagoeneko errepide bihurtuta, Upabia baserriaren aldamenetik igaroz eta trenbidearen gaineko F zubia zeharkatuz. 307. argazkian trenbidearen gaineko pasabide hori ikusten da. Zubi hori 2003ko apirilean Igartzako zonaldean eraitsitako zubiaren "bikia" zen. Ordiziako jurisdikzioan lekututako Upabia etxeko jabetasunari so beste ezusteko bat topatu dugu, izan ere, Ordiziako Gurutze, Imentzionea eta Garagartza nahiz Beasaingo Zelaetatxiki edo Zelaetaberri bezalaxe, sustrai andaluziarrak zituen familia aristokratikoaren baitakoa izan zen, jarraian ikusiko dugunez.

Baserria oraindik **Etxeazpikosoroa** izeneko lursailaren erdian paratzen da; haren egitura beheko solairuak, solairu nagusiak eta ganbarak osatzen zuten orduan, eskantzuak, leihoak eta ateburuak sillarrixkaz eginak zeuden eta hormak kalitate ertaineko harlangaitza erabiliz egin ziren. Teilatua, berriz, bi uretakoa zen. Haren balioa 5.000 beloi-errealekoa zen 1862an. Honatx baserri horretara antzina esleitzen ziren etxaguntza nagusiak:

Upabia, baserriaren izen bera zuen gaztainadia, 62.450 m²koa eta muga hauek zituena: iparraldera, Altamirako zonaldea, hegoaldera, Oianguren baserriko onibarrak; ekialdera, Jose Maria Lasaren txaraka; mendebaldera, Arranomendia (beranduago San Isidro Granja) baserriko zonaldetik jaisten zen errekatxoa.

Eduazpikosoroa, 16.426 m²ko ereiteko beste lur-eremu bat, muga hauekin: iparraldera, Oria ibaia; hegoaldera, Upabia baserria bera; ekialdera, Ordiziara egiten zuen aldaparen hasieran lekutzen zen "Gurutze" baserriko onibar bat; mendebaldera, Senpere-Ataun-Nafarroa autoen errepide berria.

Izenik gabeko beste ereiteko lur-eremu bat, etxearen albotik pasatzen zen bidearen ondoan, 2.529 m²ko azalera zuena eta muga hauek: Iparraldera, aipatu bide hori; ekialdera, Upabia etxea bera; hegoaldera, trenbidearen ibilbide berria; mendebaldera, Senpere-Ataun-Nafarroa auzo-bidea.

Lazkaibarraldea izeneko beste lursail bat, 21.879 m²koa, muga hauekin:

Iparralde eta mendebaldera, Oria ibaia; hegoalde eta ekialdera, Senpere-Ataun-Nafarroa errepide nagusia. Deskribatutako lau lur-eremuen balioa 23.160 beloi-errealekoa zen 1862an, Zabaleta izeneko jabetzarekin batera. Azken hori Zaldibiko jurisdikzioan barneratzen zen eta Ordiziako jurisdikzioan kokatutako Garagartza (Aizpuruetxeberri) eta "Gurutze" baserrien artean partekatzen zen gainera. Kopuru hori herri horretako liburu zaharreko 32. liburukian jaso zen, 6. zenbakian.

Kopuru horri baserriari esleitutako 5.000 beloi-errealeko prezioa gaineratzen badiogu, esan dezakegu 1862an 28.160 beloi-errealekoa zela orotara Upabiaren balioa. Garai hartan ez zegoen inolako karga edo betebeharrik jabetza horren gainean.

Jakin dezagun nor zen haren orduko jabeduna; eta ustekabean, etxe haren jabea Ordiziako Garagartza, Imentzionea eta Gurutze etxeen jabea ere bazela ohartu gara. Honatx baserri zahar horien orduko kokapena:

Gurutze Ordiziako Hegoaldeko Zatiko 3. zenbakian lekutzen zen, izan ere, Zubiaurre edo Bentazuri etxeari zegokion 1. zenbakia eta Upabia baserriari 2. zenbakia. Urdaneta aldapan gora eginez ezkerrera lekutzen zen Gurutze, egun kale horretan dagoen 32. zenbakiaren parean; Imincionea, ordea, kale horretako egungo 8. zenbakiaren parean kokatzen zen; eta, azkenik, oraindik zutik dagoen Garagartza baserria, Aizpuruetxeberri edo "Aizpurutxo" ere izendatzen dena, Zaldibian dago ia, ezkerrera eta errepidearen alboan.

Upabia baserriko jabeduna (eta aurreko lerroaldean izendatutako baserri guztiena) Maria Pastora Perez de Vargas y Castrillo zen. Adin nagusikoa zen, ezkonduta zegoen eta Andujarren bizi zen (Granada). Herentzian jaso zuen aipagai dugun jabetza, Maria Agustina Castrillo y Bernuy (Mercedeko Markesa alarguna izan zena) ama hil zenean. 1861eko urriaren 7an hil zen goran aipatutako jabeduna, hori dela eta, inbentarioan emandako ondasun guztien likidazio, zatiketa eta banaketaren arabera, azkenik, ondasunen gaineko eskubidea zuten haren hiru ahizpa bakarrei esleitu zitzaizkien aipatu ondasunak. Maria Pastora Perez de Vargas y Castrillorekin ezkonduta zegoen Antonio Candalija Uribe adin nagusiko jabeduna, emazte ohiaren ondasunen administraria ere bazen. Horrela, azkenik, bere emaztearen alde erregistratu zuen jabetzen titulua hainbat baldintza paratuta:

1.- Aipatu eskuartekoei dagozkien bestelako ondasunik agertuz gero, hiru ahizpen artean banatuko dira. Banaketa hiru herenetan egingo da eta proportzio berean. Halaber, Marcos Castrillo y Nava jaunak emandako testamentuan "pro indiviso" geratu diren elur-zuloetan haiei egokitu ahal zaiena ere berdin banatuko da.

2.- Orobat, une honetan, ez jakiteagatik, kontuan hartu ez diren ondasun horien gaineko karga edo zorrak ere hiru hereneko proportzio horretan banatuko dira.

3.- Inbentarioan sartutako lursailen bat hirugarren pertsona baten eskuetan egonez gero osorik edo zati batean eta testamentuko onuradunak esleipendunari eskatzen badio, haren zenbatekoa eta sor daitezkeen gastuena proportzionalki ordainduko dira.

4.-Zenbakuntza eta banaketa honetako ondasunen emaitzak administrazioak zenbatzekoak izango dira. Zenbakuntza horren arabera, interesdun bakoitzari heren bat dagokio Maria del Rosario Pastora Perez de Vargas y Castrillori aitortutako herentziazko eskubideekin bat etorriz.

Hori guztiori 1864ko abuztuaren 2an sinatu zen Andujarren. Arestian aipatu dugu bitxia iruditzen zaigula Andaluziako familia aristokratikoak gure zonaldean jabetzak izatea, izan ere, ez dugu gure ingurunean haien arbasorik topatu. Cuevas del Becerroko markesaren baitako onibar guztiak, nagusiki Galardi muinoaren ekialdeko mendi-mazelan lekutzen direnak, hain zuzen, Castrillo abizeneko Andaluziako familia horren jabetzako horiek dira. Kontu horrek nahasita izan gaitu denbora askoan, ez baikenuen ezagutzen markesarekin zuten harremana.

Hasiera batean baserria Cuevas Becerroko markesa zen Marcos Castrillo y Medinaren (Gorteetan biziarteko senataria zena) jabetzak ziren, 1.693ko otsailaren 22an Carlos IIak Cristobal del Castrillo y Fajardoren alde igorritako tituluaren arabera. Azkenik, ondasun horiek Maria Agustina Castrillo y Bernuyren alde eskualdatu ziren, zeina bere garaian Mercedeko Markesa ere izan zen ezkontzaz. Dena den, ez dakigu eskualdatze hori nola gauzatu zen, nahiz eta herentziaz izango zen ziurrenik.

1864an, hots, trenbidearen plano hauek sinatu eta soilik bi urtera, Maria Pastora Perez de Vargasek 32 urte zituen, ezkonduta zegoen eta Ecijan bizi zen. Urte horietan herentziaz jaso zuen finka, eta Antonio Candalija Uribe senarraren baimenarekin Joaquin Aizpuru jaunari ahalmena eman zion 1864ko abuztuaren 28an Ataungo herrian. Bertan eskribau zen Miguel Dorronsororen aurrean gauzatu zen aurrekoa, aipatu jabetza Jose Antonio Aranburu Muñoa eta Martin Garin Arini saltzeko xedez. Aipatu bi gizonak ezkonduta zeuden eta, 55 eta 32 urte zituzten, hurrenez hurren. Bi gizon horiek Upabia baserriko egoileak ziren orduan. Jabetza horren eta hartako etxaguntzen erosleek laborariak ziren ogibidez. Erosketa, "pro indiviso" modura gauzatu zen, 92.500 beloi-erreal ordaindu ostean. Ordainketa eskudirutan egin zen. Erositako onibar guztietako bat Beasaingo jurisdikzio barruan zegoen erregistratuta. Kasu horretan ere hainbat baldintza paratuta gauzatu zen salmenta:

1.- Erosleak, finka horretako egoile izaki, saltzaileari, andre jabedun modura, egindako hobekuntzak erreklamatzeko eskubiderik gabe geratzen dira.

2.- Vargas andreak salmentari dagokion kopuru osoa jasoko du, 1865eko azaroaren 11 baino lehen ordaintzekoa dena.

3.- Eskrituretan jasotako metro kopurua ez badator bat finkari berez dagokion metro kopuruarekin ez da erreklamatzeko eskubiderik izango. Halaber, erosleek ez dute zerikusirik dagoeneko ezarrita dagoen trenbidearen ibilbide berriak hartutako lurrekin.

Hori guztiori 1864ko azaroaren 22an eskrituratu zen behin-betikoz.

Geltokiko zonaldeari dagokion 3. sektorean, Zelaeta txiki etxeari buruzko atalean, aipatu dugu Antonio Candalija Uribe nor zen, hots, aipatu jaraunslearen administrari eta senarra, aldi berean. Orobat, ez dago esan beharrik gizon hura legegintzan oso jantzia zegoela, izan ere, Gurutze, Zelaetatxikia eta Upabia etxeen salmentan esku-hartu zuen eta modu zehatz

eta zorrotzean gainera, dokumentazio osoan ez zelarik zirrikiturik geratzen erosleen alde.

Garai hartan sarritan gertatzen zen moduan, dirua kudeatuko zuten nahikoa Banku eta Aurrezko Kutxa ez zegoenez, Ordiziako Jose Domingo Oyarzabal Sasiain zigarro-saltzaileak egin zituen mailegu-emaile-arenak salerosketa horretan. Gizon hori da, hain zuzen, 1864an, gutxi gorabehera egun horietan, Ordiziako Gurutze baserria (eta hartako etxaguntzak) erosi ziona aipatu andreari. Etxe hartako hainbat lur Upabia baserritik oso hurbil lekutzen ziren. Aipagai dugun gizona, era berean, Ordiziako alkate izan zen.

Vargas andreari ordaintzeko dirua eskuratzeko xedez, Jose Antonio Aranburu eta Martin Garinek Upabia baserrian zuten zatia hipotekatu behar izan zuten Oyarzabal jaunaren alde. Aurrerago, ordaintzerakoan atzerapenak izan zirenez, hasieran eskrituran ezarritako kopuruak berridatzi behar izan zituzten. Beranduago, Oyarzabalek Lazkaibar aldea lursaila ere eskuratu zuen, 21.879 m²ko azalera zuena. Modu horretan, 1878ko urtarrilaren 16an maileguari zegokion kopuru osoa ordainduta geratzen zen, erosketa egin eta 14 urtera. Berriz ere zegozkion oharpenak egin behar izan ziren aurreko eskrituran, kasu horretan Lazkaibaraldea lursailaren muga berriei buruzkoak. Honatx muga horiek:

Mendebalde eta iparraldera, Oria ibaia; hegoaldera, Beasaingo jurisdikzioan zegoen lur-zatia, gainerakoa aurrez erregistratukoarekin bat etorriz.

Azkenik, aipatu gizonak Upabia eta beste bi lursail ere eskuratu zituen, gerora, Jose Antonio Aranburu Muñoa eta Martin Garin Arini saldu zizkienak berriro. 1881eko martxoaren 4an gauzatu zen salmenta. Kasu horretan 21.000 pezeta ordaindu ziren.

Upabia baserriaren nondik norakoak jakin ostean, orain Lazkaibar auzoko hurrengo jabetzaren txanda da, eraitsi artean Ordiziako jurisdikzioan lekutu zena. Liburua inprimategian zela, 2011ko martxoaren 24an eritsi zen Upabia.

AGIRRETXIKIA BASERRIA da bidearen alboan kokatzen den hurrengo jabetza. Bide hori zen zonaldean zeuden bideen artetik garrantzitsuena eta Upabia igaroz Agirretxiki zeharkatzen zuen Lazkaora zihoan errepidetik eta, ondoren, Arranomendia (egun San Isidro Granjarantz egiten duen auzo-bidea) baserrirantz abiatzen zen. Baserria G hizkiaz adierazi dugu 7. sektoreko plano orokorrean eta baita 7d plano-zatian ere. 7d plano-zatian ikus daitekeenez, Arranomendia baserri zaharrerantz bi bide abiatzen ziren. Bata Galardi muinoaren mendi-mazelaren erdialdetik, egun Granjara doan auzo-bideak egiten zuen ibilbidean barna; bestea A-1 errepidean egun dauden tunelen azpiko zonaldetik igarotzen zen, aurrerago geronek taxututako 7e plano-zatian ikusiko dugunez.

1974an Iñaki Linazasorok argitaratutako "Caseríos de Guipuzcoa" liburuan "Agarre" izenarekin aipatzen du egileak baserria. Liburu horretan soilik 24





baserri izendatzen dira Ordiziako jurisdikzioan. Horien artean zegoen Lazkaibarreko auzotarrek "Agirretxiki eta Agerre" izenekin izendatzen zuten hau. Galardi muinoa (Lazkaibar auzoa eta zonaldea zaintzen duen muino banatzailea) ekialdeko alde horretako zenbait lurren zedarri naturala da. Alde horretako lur oro Ordiziako jurisdikzioan sartzen da.

XIX. mendearen amaierara arte Agirre txikia eta Arranomendia baserriak ekialdeko alde horretan kokatzen ziren; gainera, beste zenbait etxe eta jabedunen baitako lurrak kokatzen ziren bertan, esate baterako, Gurutze, Lazkaibartxiki, Upabia edota Lazkaibarraundikoak. Eraikuntza horietako zenbait leku horretatik urrun samar kokatzen ziren, hori da Gurutze etxearen kasua; izan ere, Urdanetako aldapatik Ordiziara dagoen sarbidean kokatzen zen, egun Diego Rivero "Escarabilla" izenarekin ezagutzen den kalerako sarbidearen parean. Modu batera edo bestera, baserrien eta egoileen banaketa feudal antzinakoa bailitzan, XIX. mendearen erdialdera eraikuntza oro Galardi izeneko muinoaren zaintzapean kokatzen ziren, modu honetan:

Mendebalderantz Txintxurreta eta Burugorrinea (1862tik aurrera Burugorrineatxiki ere izendatu zena); ekialde edo gibelera Agirretxiki eta Arranomendia; gutxi gorabehera iparraldera Lazkaibarraundi, Upabia eta Lazkaibartxiki; eta hegoaldera Igeldegi, Senpereberri eta Teileria zaharra (beranduago "Behitegi edo Esnetegi" izenez ezagutuko zena); eraikuntza horiek hurbilen zeudenak zirela ulertu behar da, muinoaren oinetan ia, hegoaldeko puntu gisa Lazkaomenditik jaisten den errekatxoa hartuz, zeina Senpere izendatu zen, leku horretatik igarotzen baita.

XX. mendearen hastapenean hamaika ziren muino horren inguruan altxatzen ziren eraikuntzak. Gaur egun, ordea, Lazkaibarraundi, berriagoa den San Isidro Granja baino ez dira zutik geratzen, azken hori Arranomendia baserri zaharra hartzen zuen orubearen gainean. 1862an hiru udalerritako lurrak barneratzen zituen zonalde berezi horretako jabedun nagusia Lazkaibarreko andrea zen, baserri horri buruzko atalean ikusi dugunez.

Bada, jakina, Lazkaibarreko andreak zituen jabetza ugarien artean "Agirretxikia, Agerre edo Agarre" (horrela izendatzen baitzuten Lazkaibarreko auzotar zaharrek) baserria ere barneratzen zen. Ordiziako zenbakikuntza zaharrari jarraiki, Mendebaldeko Zatiko 6. zenbakian paratzen zen. 280a eta 308 argazkietan haren kokapena begizta daiteke, antzinako bidearen altzoan (egun Goierriko Eskola berrirantz doan auzobide asfaltatua). Azken irudian bi gezi bertikal zurirekin adierazi dugu. Egun errepideak egiten duen ibilbidea da antzina bideak egiten zuena, izan ere, Lazkaora zihoan Lazkaibarreko galtzadan abiatzen zen, ondoren, Upabia ondotik pasatzen zen eta Agirre txiki baserriaren gainetik luzatzen zen Arranomendia baserrira (egun San Isidro Granja) iritsi arte. 308a irudian ere leku horrek XX. mendearen lehen erdian zuen itxura ikus daiteke.

Agirretxiki baserriak 132 m²ko azalera zuen eta beheko solairuak eta ganbarak osatzen zuten haren egitura. Iparraldera begira zegoen alboko fatxadan gehigarri edo luzapen bat zuen, aurrez erakutsi ditugun 280a eta 308 argazkietan ikus daitekeenez. 308. irudian urrunera, irudiaren eskuinera, goialdean marrazten den eraikuntza Letemendi baserria da, Beasaingo ur gordailu zaharraren gainean; izan ere, argazkia A-1 autobiaren alboan dagoen Ordiziako Suhiltzaileen Parke berritik aterea dago gutxi gorabehera.

Baserriak hartako etxaguntzak zituen mugakide iparralde eta mendebaldera; hegoaldera, Lazkaibar-Ataun errepidetik baserrira abiatzen zen bidea; ekialdera, Agirretxiki baserriko lur gehiago. Bide zahar horrek Upabia, Agirre eta Arranomendia (gerora "Granja") lotzen zituen 1862an, 280a eta 308 argazkietan ikusten den bezala. Halaber, bide hartako ibilbideak antzina ageri zuen bikoiztasuna ikus daiteke (azpitik eta gainetik), 7. sektoreko plano orokorrean eta 7d eta 7e plano-zatietan ikusten den eran. XIX. mendearen hirugarren laurdenean 14.728 beloi-erreal eta 90 zentimokoa zen Agirretxiki etxearen balioa.

Urte horietan baserri haren baitakoak ziren jarraian deskribatuko ditugun etxaguntzak, Lazkaibarreko pertsona zahar batzuek jatorrizko izenez gogoratuko dituztenak oraindik. 1862an hauek ziren baserriko onibarrak:

Hartako baratze nagusiak, izenik gabeak, 450 m2ko azalera zuen eta Cuevas de Becerroko markesaren lurrak zituen mugakide iparraldera (Markesautza hori Ecijakoa zen eta Garagartza edo Aizpuruetxeberri, Imentzionea, Upabia eta Gurutze baserrien jabea zen Ordizian, eta Beasaingo Zelaetatxiki edo Zelaetaberri ere jabetza hartakoa zen); hegoaldera, Agirretxiki etxea bera zen muga egiten zuena; ekialdera, baserriko beste lur batzuk; mendebaldera, aurrez aipatu dugun bidea, Upabia, Arranomendia eta Lazkaomendira abiatzen zena. Soilik baratze modura erabiltzen zuten lursail txiki haren balioa 828 beloi-errealekoa zen orduan.

Atariaurrea, 1.904 m^{2}ko azalera zuen lursaila, sagastiz eta belardiz betea, muga hauekin:

Iparraldera, Cuevas de Becerroko markesaren jabetzako lurrak; hegoaldera, Villafuerteko kondearenak (Zabala Jauregiaren jabeduna; Ordiziako "Jauregi Zahar" gisa ere ezagutzen zen eraikin hori); ekialdera, Agirretxiki baserriko lurrak eta Jose Maria Mendiarenak; mendebaldera, etxea bera eta Upabia baserrira eta Lazkaibar auzora abiatzen zen bidea. 1862an gutxi gorabehera 789 beloi-erreal eta 7 zentimokoa zen lursail horren balioa.

Etxaburua, 1.189 m2ko azalera zuen lursaila, muga hauekin: iparraldera, Cuevas de Becerro markesaren etxaguntzak; hegoaldera, Villafuerteko kondearenak; mendebaldera, Aguirretxiki etxea bera; ekialdera, Upabia baserrira egiten zuen bidea, aurrez aipatu duguna. Urte horietan 1.117 beloi-erreal eta 76 zentimokoa zen lursail horren balioa.

Sagastia, 1.231 m^{2}ko ereiteko lur-eremua, muga hauekin:

Iparraldera, Cuevas de Becerroko markesaren etxaguntzak; hegoaldera, Villafuerteko kondearen lurrak; ekialdera, Agirre txiki baserriko lurrak; mendebaldera, Lazkaoko Bernarda Klausurako Mojen etxaguntzak, Lazkaoko Infanterriko etxeari hartutakoak. Haren balioa 576 beloi-erreal eta 26 zentimokoa zen.

Etxeazpia, 4.400 m^{2}ko lursaila, muga hauekin:

Iparraldera, Jose Maria Mendiaren lurrak eta egungo trenbidea; hegoaldera, Mendia jaunaren jabetza gehiago; ekialdera, Oria ibaiaren ibilgua; mendebaldera, hartako etxaguntzak eta Jose Maria Mendiaren onibarrak. Haren balioa 8.490 beloi-erreal eta 24 zentimokoa zen.

Erloaundia, 6.612 m^{2}ko azalera zuen jabetza, muga hauekin:

Iparraldera, Ordiziako Gazteluzar jauretxeko (garai hartan Arranomendia eta Txintxurreta baserrien jabedunak ere bazirenak zonalde honetan, bigarren hori Beasaingo jurisdikzioan) Petra de Gazteluzar y Ceberioren senarra zen Joaquin Uriarteren etxaguntzak; hegoaldera, Esnarrizaga jaunaren ondorengoen lurrak; ekialdera, Ignacio Urteaga eta Joaquin Sarrieguiren jabetzak; mendebaldera, Villafuerteko kondea zen Ladislao Zabalaren jabetzak. 1862an 10.100 beloi-erreal eta 16 zentimokoa zen lursailaren balioa.

Ugailutx, 4.664 m2ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera, Oria ibaia; hegoalde eta ekialdera, Juan Bautista Aranbururen lurrak; mendebaldera, Esnarrizaga zenduarenak. 1862an 5.969 beloi-erreal eta bi zentimokoa zen lursail horren balioa.

Okorrokogaina, Agirre txiki etxeari esleitutako lursail zabalena, 10.596 m^{2}ko azalera zuena eta muga hauek:

Iparraldera, Ordiziako errementaria zen Jose Martin Ayestaren jabetzak; hegoalde eta mendebaldera, Villafuerteko kondearenak; ekialdera, Antonio Urretavizcayaren jabetzak. 635 beloi-erreal eta 76 zentimokoa zen lursail horren balioa.

"Okorrogaina" azpian kokatutako Okorro izeneko lurrei buruz, informazio interesgarria delakoan, esan orduan zonalde horretan zegoen gaztainadi-harizti garrantzitsu bat zela. Daukagun informazioaren arabera, XIX. mendearen hasieran jabetza hori Ordiziako herrilurra zen artean eta 322 ondoko edukiera zuen (11.050 m$^{2)}$. Ordiziako udalerriak 1810eko azaroaren 24an jabetza hori desamortizatu behar izan zuen, kasu horretan Maria Concepcion Maiz eta Jose Ramon Etxabe senar-emazteen alde. Azken hori zaldibiarra zen eta Araeta edo Areta baserriaren jabeduna garai hartan. Ez dakigu zein preziotan saldu zen herri-lur hori.

Torretagleko markesek 31.046 m^{2}ko azalera (hiru hektarea pasatxo) esleitu zien Agirre txiki baserriari. Garai hartan azalera hori normaltzat jotzen zen familia bakarreko baserri batentzat. XIX. mendearen azken laurdeneko hastapenean 43.226 beloi-errealekoa zen baserriaren balioa, deskribatutako etxaguntza guztiak barne.

Liburu osoan zehar ikusten ari garen gisan, 1862an oso ohikoa zen jabetzak erregistratu gabe egotea, nahiz eta jabedunek garaiz ordaintzen zituzten zegozkien kontribuzioak. Hori guztiori azken karlistaldia amaitzean hasi zen arautzen, Jabetza Erregistroak

sortu zirenean. Lurjabe horietako askok ez zuten beren jabetzen gaineko egiaztapen edo ziurtagiririk, izan ere, sarritan gurasoek uzten zizkieten seme-alabei jabetza-titulurik paratu gabe. Zenbait jabedunek bere garaian aldeen artean sinatutako salerosketa-dokumentu ziztrin bat baino ez zuten izango gehienera jota. Dokumentu horrekin alta ematen zuten Udal bakoitzak horretarako prestatzen zuen erregistro-liburu batean. Liburu hori, normalean, hiriko eta landa-inguruneko kontribuzioen ordainketak egiteko erabiltzen zen.

"Crédito Mobiliario Español" delakoari trenbideko bi tarte onartu zitzaizkionean titular askok beren jabetzak egiaztatzeko premia ikusi zuten, haietako zenbait lur Trenbidearen Konpainiari saltze aldera. Askotan irakurri dugunez, desjabetzen ondorioz ordaintzen ziren prezioengatik jabedun saltzaileentzat desiragarria zen oso lur horien salmenta. "Crédito Mobiliario Español" izeneko konpainiari Madrildik Valladolidera bitarteko tartea onartu zitzaion lehenengo; bigarren tartea Burgostik Iparraldeko mugara bitartekoa zen eta hori da, hain zuzen, guri dagokiguna. Horregatik, Trenbidearen Konpainiari egindako lurren salmentak eraginda, Manuela Josefa de Tagle y Echeverriak, Torretagleko markesak, eskualdean zituen jabetza ugariak antolatu behar izan zituen, izan ere, horietako zenbait trenbidearen ibilbidean kokatzen ziren, Lazkaibar auzoan gertatu bezala.

1862an Torretagleko markesak 40 urte zituen eta Parisen bizi zen. Zonaldean zituen lurrak egiaztatzeko Lehen Auzialdiko Epailearengana jo behar izan zuen. Egiaztatzeko jabetzen artean zegoen Agirretxiki baserria, hartako etxaguntza guztiekin. Zonalde horretan zituen etxe guztiei buruz epaitegian esan zuenez, 1825az geroztik horien guztien jabeduna zen Jose Bernardo de Tagle y Portocarrero aitak herentzian utzita, baina ez zuela jabetza horien inguruko idatzizko titulurik, haietatik eratorritako zergak garaiz ordaintzen bazituen ere.

Epaitegiko arduradunen arabera, indarreko legedian xedatzen ziren betekizunak betetzen ziren, Lazkaibarraundi etxean gertatu bezala; hori zela eta, Ordiziako jabedun ziren Pedro Antonio Imaz eta Manuel Garmendiak lekuko gisa jardun behar izan zuten. Azkenik 1864ko azaroaren 22an etxea erregistratu ahal izan zuen hartako etxaguntza guztiekin.

1893ko azaroaren 2an, ia 29 urte beranduago, Manuela Josefa de Tagle y Echeverriaren semeak (orduan Peruko Errepublikako Diplomatiko eta Enbaxadorea zena Parisen) jabetza gehiago saldu zituen bere amaren ahalordedun gisa. Horien artean Agirre txiki baserria, beste 16 finkekin batera. Salustiano Iturrioz y Aizpurua izan zen eroslea, Ordiziako merkataria, jabetza bereganatu zuenean ezkondua zegoena. Salustiano Iturrioz Ordiziako alkateordea zen orduan eta, gerora, alkate ere izan zen. XIX. mendearen amaiera aldera gizon horrek erloju-denda ezagun bat ere bazuen Ordizian.

Torretagletarrek bi partidatan gauzatu zuten salmenta: Alde batetik, jabetza horietako zenbait amaren izenean, 129.800 pezetatan; beste alde batetik, lursail txiki zenbait semearen izenean, 1.200 pezetatan. Salustiano Iturrioz y Aizpuruak, aldi berean, Agerre baserria saldu zuen berriro. Orduko horretan Tiburcio Gaztañaga izan zen eroslea. 1894ko urtarrilaren 8an gauzatu zen salerosketa. Baina aurrez aipatutako lursail horietatik hiru baino ez ziren kasu horretan eskualdatu. Aipatu erosleak 20.000 pezeta ordaindu zituen eskudirutan. Aurrekoaren semeak, Tiburcio Gaztañaga izen bera zuenak (bigarren deituraz Lizarribar izan arren) eta Ordizian bizi zenak, beranduago, aita hil ostean, onibar horiek eskuratu zituen herentzian. 1909ko urtarrilaren 1ean gauzatu zen herentziazko eskualdatze hori.

Ondoren, Tiburcio Gaztañaga Lizarribarrek bere iloba Jose Antonio Aguirre Gaztañaga arkitekto ezkongabea hautatu zuen bere jaraunsle unibertsal modura. Azken horrek 1910eko irailaren 26an erregistratu zuen jabetza bere izenean. Iloba 1953ko apirilaren 26an zendu zen. Ordurako Jose Angel Ercilla Echeverria eta Victoria Areso Aranburu senaremazte oriotarrak hautatu zituen jaraunsle unibertsal modura, zati berdinetan. Azken jabedun horiek 1958ko maiatzaren 5ean erregistratu zuten jabetza beren izenean.

Sei urte lehenago, 1952ko udaberrian laborantzalur horietako zenbaitetan hasiak ziren lehen aldaketa garrantzitsuak nabaritzen, jadanik ehun urte luze baitzituzten. Ordizia eta Beasain udalerrietan proiektatutako ingurubide-errepide berriak galtzada berria Galardi muinoaren azpitik igarotzea eskatzen zuen. Horretarako, tunel handi bat egin behar zen, ekialdetik mendebaldera 300 metro luze izango zituena.

7e plano-zatian errepide berriko lehen tunelaren (1955ean amaitu zutena) ibilbidea irudikatu dugu C eta T hizkiekin. Hobeto ulertze aldera, esan dezagun C hizkiak errepidearen kanpoaldeko tartea adierazten duela eta T hizkiarekin tunelaren barneko zatia adierazten dela. Bi E hizki erabiliz markatutako lerro bertikal zuriarekin zehaztasunez marrazten da lehen tunelaren sarrera Ordiziako zonaldetik. 5 zenbakidun bidea egun Upabia baserritik San Isidro Granjara abiatzen den auzo-bidea da. Hori 308a irudian ere ikusi dugu. 4 zenbakiarekin adierazten da dagoeneko desagertua dagoen azpialdeko bide zaharra, azpialdetik igarotzen zena, gutxi gorabehera, egun ekialdera begira agertzen diren tunel-ahoen paretik. Bide horrek bat egiten zuen goikoarekin berriz ere, egun Oiangurenera iristeko dagoen sarbidetik. Hori argi ikus daiteke 7d eta 7e plano-zatietan.

Galtzada horren eraikuntzak, noski, desjabetzeak ekarri zituen eta ibilbide osoan zehar aldaketa handiak egin ziren eta baita tunelaren ekialdeko zonaldean ere. Desjabetutako lur horietako batzuk, hain zuzen, antzina bideak azpialdeko tartean egiten zuen ibilbidean zehar sakabanatzen zirenak ziren. Bide horiek guztiek bat egiten zuten goiko beste batekin ar-

miarma-sare baten modukoa osatuz; izan ere, aurrerago, Galardi muinoaren ekialdeko aldetik barna Altamira, Oianguren, Oiangurentxiki, Lazkaomendi eta mendietara egiten zuen bidearekin bat egiten zuten. Ia Arranomendia (gerora San Isidro Granja) etxera iritsita, bideak Lazkaomendira eta mendietara egiten zuen. Bitartean, beste adarkadura bat jaisten zen Senpere auzoaren beheko aldera (egun bezalaxe).

Zonalde horretan ia ez zen aldaketarik izan ia mende oso batean, erreferentzia gisa 1862. urtea hartzen badugu, hots, gure irudizko oinezkoek egindako bidaiaren urtea. Izan ere, 1952an enkargatu zitzaion Cubiertas y Tejados S.A. enpresari errepide-tarte berriaren eta muinoaren azpiko lehen tunelaren eraikuntza. Biak 1955ean inauguratu ziren eta ia bost kilometroz luzatzen zen ingurubide-errepideak aldaketa handiak ekarri zituen paisaia honetara, ordura arte ia ukitu gabe baitzegoen.

Tunela eta ingurubide-errepidea egiteko aurrekontua 10 milioi pezeta pasatxokoa izan zen orduan bi udalerrientzat. Aurrekontu horren %52 muinoaren azpiko tunela zulatu eta eraikitzeko baliatu zen. Gerra ondoko urteetan baliabide tekniko oso gutxirekin gauzatu ziren obrak. Hori dela eta, muinoa zulatzeko egin ziren dinamita bidezko leherketetatik etengabe pilatzen ziren lur eta harri tona guztiak mandoak eta errail gaineko bagonetak erabiliz atera behar izan ziren, hots, garai hartan meatzetako galeriak ustiatzen ziren antzeko moduan.

Arestian esan dugunez, Agirretxiki baserria 1982ko udaberriaren bueltan eraitsi zuten.

7. sektoreko plano orokor honetan barneratzen den azalerari dagokion deskribapena amaitzeko, orduan Oria ibaiaren iparraldeko ertzean kokatzen ziren etxeak ekarri behar ditugu gogora. Horregatik, Ezkiagatxikia edo Ezkia galtzada eta Mariarats etxeak deskribatuko ditugu, Lazkaibarreko zubitik hurbil lekutzen zirenak, Autoentzako errepidearen altzoan eta Oria ibaiaren ezkerrera, betiere, uretan behera.

LAZKAIBARREKO ZUBITIK HURBIL ZEGOEN ORIA IBAIAREN IPARRALDEKO ERTZA

EZKIAGA GALTZADA, Ezkiagatxikia edo Ezkiatxiki zen Ordiziarako norabidean lekutzen zen Ezkiaga izeneko azken baserria. Halaber hiru baserrien artean "gazteena" zen, eraikuntza-urteari erreparatuz, are, zenbaitetan Ezkiaga berria izenez ere ezagutu izan da. 1567az geroztik ditugu hari buruzko idatzizko erreferentziak.

Beasaingo udalerriaren antzinako zenbakikuntzaren arabera, Ekialdeko Zatiko 3. zenbakian lekutzen zen. Guk A hizkiarekin adierazi dugu 7. sektoreko plano orokorrean, eta 309. eta 310. argazkiak ere ekarri ditugu hura begiztatzeko. Orobat, 288a eta 288b irudietan EC hizkiekin adierazita ikus dezakegu.

288a irudian puntu zuriz markatu ditugu hiru Ezkiaga baserriak eta gezi zuri bat paratu dugu Ezkierdi baserrirako sarbidea adierazteko. 309. argazkian bi gezi zuriz adierazi dugu San Andres baserrirantz igotzen zen bidexka, hau da, Ezkiagako zonaldean gehien erabiltzen zen bideetako bat; bestea, Ezkiabaso baserriko zonaldetik Letemendi baserrira eta Erauskin aldera igotzen zena zen, gaur egun, oraindik jarrai dezakeguna gutxi gorabehera, aurrez 124a irudian ikusi dugun eran.

"Ezkiaga" auzoko bizilagun zahar batek esan zidanez, C.A.F. lantegian lan egiten zuen Saldañatar batek, txandatik irten eta auzoan egiten zuen "derrigorrezko geldialdietan" luzatu eta beranduegi egiten zitzaionean, San Andres baserrira bidezidor horretan barna igotzen zen, jadanik gauaren iluntasunean.

Erauskin zar baserriko Esteban Sarriegi 1961ean hil zen Mariaratseko bidezidorretik San Andres baserrirantz abiatu zenean, C.A.F. lantegian egindako txanda amaituta. 311. argazkian beste gezi zuri bat paratu dugu aipatu bidearen mutur bat erakusteko, kasu horretan Erauskin zar eta San Andres baserriak lekutzen ziren mendialde goren horretara iritsiz ia. Halaber, egun "paralelo" izendatutako leku horretan zeuden Muntaketa Lantegi zaharrak ikus ditzakegu, Lazkaibar auzoaren bihotzean.

1862an Ezkiatxiki baserriaren egitura soilik beheko solairuak eta ganbarak osatzen zuten. Dena den, eraikuntzaren zati batean beheko solairua, solairu nagusia eta ganbara zituen etxeak. Hauek ziren etxearen mugak urte horietan:

Iparralde, hegoalde eta sartaldetik, hartako etxaguntzak; ekialdetik, ataurreak, zeintzuk, aldi berean,

Autoen Errepide Nagusia zuten mugakide. Etxearen azalera eraikia 142 m²koa zen. 1866ko maiatzaren 15ean 7.100 beloi-errealetan balioetsi zen eraikina, hura hartzen zuen orubea barne.

Honatx Ezkiagatxikia etxeari esleitutako lurrak:

Etxealdea, iparraldera etxeko lurrak zituena mugakide; ekialdera, Tirso de Olazabal y Lardizabalen lurrak eta lursailaren lurrak; hegoaldera, Autoen Errege Bidea; sartaldera, Juan Jose Goenaren onibarra. Aipatu lursailak 6.207 m²ko azalera zuen eta bere balioa 14.896 erreal eta 80 zentimokoa zen.

Ezkierdialdea, bertako lurrak zituena mugakide iparralde eta mendebaldera; hegoaldera, Autoen Errege Bide berria; sartaldera, Ezkiaga izeneko errekatxoa. Aipatu lursailak 6.425 m²ko azalera zuen eta bere balioa 15.420 beloi-errealekoa zen.

Izenik gabeko beste onibar bat, baratze modura, etxearen ondoan paratua, muga hauekin:

Iparraldera, etxea bera; hegoaldera, ataurrea keta gainerako lurrak. 28 m²ko azalera zuen eta 84 beloi-erreal baino ez zituen balio.

Ataurreko lursaila, muga hauekin:

Iparraldera, bertako etxaguntzak; hegoaldera, Autoen Errege Bidea; ekialdera, Tirso de Olazabal y Lardizabalen lurrak, Abariatarren maiorazkokoa eta "Casa Nueva" delakoaren eta Igartza etxearen jabeduna, beste askoren artean; sartaldera, etxea bera eta hartako baratzea. Ataurreko lursail txiki horrek 91 m² zituen eta 12 beloi-erreal eta 90 zentimoko balioa.

Barrutia, muga hauek zituen beste onibar bat:

Iparraldera, bidea; hegoaldera, etxeko etxaguntzak; ekialdera, Tirso de Olazabal y Lardizabalen lur gehiago; mendebaldera, Martin Sarrieguiren etxaguntzak. Onibar horrek 2.678 m² zituen sagastiz betetako lurretan eta beste 4.810 m² harizti eta otadiz betetako lurretan. Haren balioa 2.883 beloi-erreal eta 40 zentimokoa zen.

Gantzarainerreka, gaztainadi helduz beteriko lursail ona, muga hauek zituena:

Iparraldera, Gantzarain errekastoa, Mariarats errekara doana; hegoaldera, orduan Ataunen bizi zen Joaquin Labat y Ayerdiren onibarrak; ekialdera, Jose Lasaren etxaguntzak; mendebaldera, Upabia baserriko Juan Bautista Arambururen jabetzako lurrak. Aipatu lursailak 34.160 m²ko azalera zuen eta bere balioa 8.198 erreal eta 40 zentimokoa zen.

Usurbealdea, pagadi gaztez eta otadiz betetako onibar mistoa, muga hauek zituena:

Iparraldera, Abariako maiorazkoko Tirso de Olazabalen lurrak; hegoaldera, bidea; ekialdera, Juan Bautista Sarriegui eta Jose Francisco Echeverriaren jabetzak; mendebaldera, Erauskin auzoko Zelai eder etxeko etxaguntzak. Aipatu lursailak 18.963 m²ko azalera zuen eta bere balioa 2.275 beloi-erreal eta 51 zentimokoa zen. 1862an etxearen balioa 50.971 beloi-erreal eta 6 zentimokoa zen, hartako etxaguntzak barne.

Orain aipatuko duguna lehen aldiz hemen emango dugu, izan ere, arakatu ditugun dokumentu batzuetan Ezkiagatxikia etxeak garai hartan zituen karga handi samar batzuei buruzko lerro hauek topatu ditugu. Honatx, lerro horiek hitzez hitz ekarrita:

> *" Esta finca aparece gravada en concepto de fianza por 60.000 reales de capital sin réditos, impuesta por D. Francisco Antonio Ceberio a favor de la Real Hacienda para responder a la venta de tabaco emitida por la fábrica de San Sebastián…"*

Karga bitxia da inondik ere, izan ere, gizon horrek Donostiako tabakaleratik hartutako tabako-partida batzuei dagozkio, zeintzuen prezio nabarmena berdintzeko etxea eta hartako onibarrak jarri behar izan zituen abal modura. Interesgarria da azpimarratzea ondasun material horiek erosi eta ondoren berriz saltzeko fidantza modura ezarritako partida hori oso garrantzitsua dela, izan ere, etxearen eta hartako etxaguntza guztien balioa gainditzen zuen aipatu partidak. Fidantza hori Beasaingo hipoteken lehen liburu zaharrean jaso zen, 8. folioko 11. zenbakian.

Ezkiaga txiki etxearen gainean hainbat karga zeuden, horien artean 100 dukateko kapitala zuen zentsu bat, urtean %3ko korritu batekin, Ceberio jaunak ezarria Juan Ormaechearen kapilautzaren alde. Zentsu hori ere Beasaingo lehen liburu zahar horretan jasotzen da, 42. folioko 32. zenbakian.

Beste zentsu bat, hori ere fidantza modura, kasu horretan 214 dukat eta sei beloi-errealeko kapital batekin eta urtean 48 beloi-erreal eta sei marabediko korritu batekin, Ceberio jaunak ezarria Lazkaoko parrokiako kabildoaren alde.

Zentsu bat, 220 beloi-dukateko kapital batekin eta urtean %3ko korritu batekin, Ana Maria Loinaz eta bere seme Francisco Antonio Ceberiok ezarria Lazkaoko kabildoaren baitako San Miguel parrokian hainbat memoria- edo urteurren-meza ospatzeko.

Zentsu txikiago bat, 20 dukateko kapital batekin, urtean dukat bateko korritu batekin, Maria Ugarte eta bere alaba Magdalena de Isasagak ezarria Ordiziako kabildoaren baitako parrokian urteurren-meza bat ospatzeko.

Ezkia txiki etxea, azkenik, Manuel Unsaini saldu zitzaion; hark Manuel Goenari laga zion 150 beloi-dukateko kapital batekin kargatuta, inolako korriturik gabe, Beasaingo parrokiako kabildoan urteurren-meza bat ospatzeko. Berriro ere, Manuel Goenak hipoteka bat ezarri zion, 6.517 beloi-erreal eta 30 marabediko kapital batekin, kasu horretan Ordiziako Domingo de Gaztañaga ezkonanaiaren alde.

Beste zentzu bat, 400 beloi-dukateko kapital batekin eta urtean 12 dukateko korritu batekin, Manuel Goenak ezarria Martin Aztiriaren alde.

Eta, azkenik, beste gehigarri bat fidantza modura, 13.300 beloi-errealeko kapital batekin, kasu horretan ere Manuel Goenak ezarria eskubide hobeko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren alde.

Manuel Joaquin Goena eta Maria Martina de Mugica senar-emazte beasaindarrak ziren garai hartan deskribatutako finkaren jabedunak; eskubide hori baliatuz, haien semea, Juan Jose Goena Mugica laboraria Ordiziako Josefa Garmendiarekin ezkondu zenean, etxearen eta hartako etxaguntzen erdi partekatua laga eta eman zizkioten semeari. Beste erdia haientzat gorde zuten usufruktuan "azken hatsa hartu arte". Halaber adierazi zuten, haien beste bi alaba eta semearen arreba ziren Manuela eta Maria Micaela Goena Mugicaren kasuan, honakoa zegokiela bakoitzari seniparte gisa:

> *"…300 ducados de vellón, dos arcas y dos camas con cinco mudas para cada una de ellas…"*

Beranduago, Manuel Joaquin Goena eta Maria Martina de Mugica hil zirenean, 1852ko otsailaren 27an eta 1856ko urtarrilaren 23an hurrenez hurren, aipatu jabetzaren usufruktua sendotu behar izan zen deskribatutako etxaguntza guztiekin. Horretarako, Juan Jose Goenak, aurrez, 1835eko abuztuaren 24an aipatu lagapen-titulua erregistratu zuen.

Etxearen jabedun nagusia aurrez aipatutako 300 dukat horien arduradun gisa agertzen zen. Kopuru horri, gainera, gero ontza urre bat gaineratu zitzaion aitaren aldetiko nahiz amaren aldetiko seniparteengatik, Juan Jose Goenak ordaindu beharrekoak Maria Micaela arrebari. Azkenik, Juan Jose Goenak bere koinatuaren alde egin zuen ordainketa, aipatu arrebaren senarra baitzen; modu horretan, zorra kitatuta geratu zen. Hori guztiori 1854ko uztailaren 2an Beasainen sinatutako eskritura edo ordainketa-gutun batekin formalizatu zen, Sebastian Muguerza notarioaren aurrean. Azkenik, halaxe erregistratu zen 1866ko maiatzaren 16an.

Halaber, Jose Manuel Goena Garmendia, ezkondua, azienda-merkataria eta Beasainen bizi zena Epaitegira urreratu zen azkeneko hiru urteetan aipatu finkako jabeduna zela adierazteko, gurasoengandik jaso baitzuen herentzian. Idatzizko titulurik ez zuenez, era berean, jabetza horiek egiazta zitzaketen lekukotzak onar zitzala eskatu zuen Epaitegian. Martin Jose de Ibarrolaburu eta Martin de Lasak jardun zuten lekuko modura; beranduago Joaquin Ayestaranek alkate gisa, Jose Martin Aranak errejidore sindiko gisa eta Jose Domingo Mugicak udaletxeko idazkari gisa ere egiaztatu zuten interesdunak esana. Modu horretan, 1879ko irailaren 9an jabetza erregistratu ahal izan zen.

Brigida Ayerdirekin ezkonduta zegoen Jose Manuel Goenak Ezkia txiki ere hipotekatu behar izan zuen. Juan Elustondok emandako 5.000 pezetako mailegu batekin egin zuen hipoteka, horri maileguaren balizko berankortasuna gertatzekotan babeste aldera egindako gastu eta kostuei zegozkien kopuruak gaineratu zitzaizkion. Orobat, beste hipoteka bat egin zuten etxearen eta hari atxikitako beste hamabost lursailen gainean, kasu horretan 1.648 pezetako hipoteka gauzatu zuten. Kasu horretan Jose Joaquin Vicuñaren alde gauzatu zen eta 1879ko azaroaren 10ean erregistratu zen.

Dagoeneko Ezkiagatxikiaren historia apalaren amaierara urreratzen ari gara, izan ere, une honetan Matias Goena Garmendia aipatu behar dugu, 25 urteko harakin ezkondua. Gizon horrek etxearen eta hartako etxaguntzen gainean 2.464 pezeta eta 50 zentimoko partaidetza bat zuen. Partaidetza hori Jose Arancegui Iturriozi saldu zion 2.612 pezeta eta 41 zentimoren truke. Kopuru horren ordainketa 1882ko urriaren 31n gauzatu zen. Azkenik, aipatu partaidetzaren hartzaileak Maria Dolores Lasa e Izuzquizarekin ezkonduta zegoen Francisco Sarasolari laga zion partaidetza. Azken horren semea zen Antonio Sarasola Lasa Juana Albisurekin ezkonduko zela adostuta egonik, Ezkiatxiki etxea jaso zuen dohaintzan Francisco Sarasola berak. Sarasola abizenarekin amaitu zen Ezkiatxiki baserriaren (beasaindarren artean "Baserrizuri" gisa ere ezagutzen zena) historia 1975eko abuztuan, orduan eraitsi baitzen.

1862an, aztergai dugun trenbidearen planoa sinatu zenean, Ezkia galtzada edo Ezkiatxiki baserrian familia bakarra bizi zen:

Juan Jose Goena eta Maria Josefa Garmendia senar-emazteak eta haien seme-alabak, Jose Manuel, Nicola, Felix, Juana eta Matias Goena Garmendia, haiekin batera bizi zelarik Pedro Antonio Ayestaran, baserriko morroia.

MARIARATS edo MARIARAS BASERRIA, bi izen horiekin aipatzen baita (izan ere, "Maiaz" forma zegokion "izkribu-kopiatzaileak" fonetikoki antzekoa izateagatik egindako transkripzio oker baten ondorioa dela uste dugu), izen bereko amildegiaren sarreran lekutzen da. Halaxe ikus dezakegu, 288b argazkian, gezi zuri batekin adierazita. 312. eta 313. irudietan ere ikus dezakegu baserria.

7. sektoreko plano orokorrean B hizkiarekin agertzen da; T hizkiarekin adierazten da bidearen ezkerrera dagoen estalpea; eta, planoan Ordiziako jurisdikzioan paratzen zen Mariarats izeneko errota (errekaren eskuineko ertzean kokatzen baitzen) zaharra ere aipatzen denez, haren kokapena ere S hizkiz adierazi dugu. Mariarats etxeari buruz, gutxienez 1468az geroztik topa daitezke idatzizko erreferentziak.

Mariarats zen Ordiziara sartu aurretik, Autoentzako errepidearen ezkerrera, Beasaingo jurisdikzioan lekutzen zen azken baserria. Kuriositate hutsez adieraziko dugu puntu horretatik Matxinbentara (Beasain barneko eremu urrunena) 16 kilometro daudela errepidez.

312. argazkian mendira abiatzen den bidearen ezkerrera kokatutako estalpea ikus daiteke, 7. sektoreko plano orokorrean T hizkiarekin adierazi duguna. 1910-1920 bitarteko hamarkadan ateratako 313. irudiaren ezkerrerantz begiratzen badugu, bi neskato ikusten dira baserriko ataurreetan korrika. Iñaki Aramburuk esandakoaren arabera, lehenengoa Bernardina Aranburu da, baserri hartan jaio zena 1902an; atzetik segika korrika duen neskatoa, berriz, Fermina Esnaola da. Biak Mariarats baserriko egoileen alabak ziren.

Etxeari Ekialdeko Zatiko 4. zenbakia esleitu zion udaletxeak. Atzera eginez, Ezkiatxiki baserriari 3. zenbakia zegokion; Ezkiaga erdia baserriari 2. zenbakia; eta, azkenik, Ezkiabasori, Ekialdeko Zatiaren hastapena markatzen zuenez, 1. zenbakia zegokion.

Mariarats baserria hartzen zuen orubeak 400 kana karratuko azalera zuen, hots, 334,80 m²ko azalera, izan ere, Gipuzkoan kana karratu bat 0,837 m²ren baliokide zen. Beheko solairuak, lehen solairuak eta ganbarak osatzen zuten etxearen egitura eta muga hauek zituen:

Iparraldera, etxearen baitako ereiteko lur-eremuak; hegoaldera, bertako baratzea eta etxeko ataurrea; ekialdera, Mariarats errekatxoa; sartaldera, mendietara abiatzen zen bidea. Etxearen balioa 13.450 beloi-errealekoa zen 1862an, hura hartzen zuen orubea barne.

Ezkialdea izeneko lursaila ere etxeari zegokion. Lursail horrek 327 ondoko edukiera zuen ereiteko lurretan (11.222 m²) eta, horrez gain, 34,25 ondoko edukiera (1.178,90 m²) zuen txaraka ere barneratzen zen lursail horretan. Honatx aipagai dugun lursailaren mugak:

Iparraldera, San Milianeko (San Millan) markesak Ezkiaga erdia etxean zituen etxaguntzak; hegoaldera, Villafuerteko kondea zen Ladislao Zabalaren (Ordiziako Zabala Jauregikoa) lurrak; ekialdera, Autoen Errepide Nagusia; eta, sartaldera, Abariako maiorazkokoa zen Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Olasoren jaraunsleen lurrak. Aipatu lursailen balioa 14.000 beloi-errealekoa zen.

Makalez betetako izenik gabeko beste lur-eremu bat Ezkialdearantz, 17 ondoko edukiera (583,44 m²) zuena, muga hauekin:

Iparraldera, Autoen Errepide Nagusia; hegoaldera, Oria ibaia; sortalde eta sartaldera, Ezkiagako errekastoak. Haren balioa 119 errealekoa zen orduan.

Cerrabazo zuen izena etxearen baitako beste ereiteko lur-eremu batek, 157,5 ondoko edukiera (5.405,40 m²) zuena. Honatx haren mugak: iparralde eta ekialdera, Valmedianoko markesaren (Ordiziako Barrena Jauregikoa) jabetzak; hegoaldera, Autoen Errepide Nagusia; mendebaldera, Abariatarren maiorazkokoa zen Jose Joaquin Olazabal Arbelaizen lurrak. Haren balioa 6.300 beloi-errealekoa zen.

Etxeatzea zen etxearen baitako beste ereiteko lur-eremu bat, 28,25 ondoko edukiera (969,54 m²) zuena eta muga hauek:

Iparraldera, Valmedianoko markesaren (Ordiziako Jauregikoa) lurrak; hegoaldera, Mariarats baserria bera; ekialdera, izen bereko errekatxoa; sartaldera,

Mariarats izeneko amildegiaren azpialdetik mendietara abiatzen zen bidea. Haren gutxi gorabeherako balioa 1.186 beloi-errealekoa zen 1862an.

Ereiteko lurrez hornitutako beste baratze bat etxea eta hartako ataurreak ukituz, izen zehatzik gabea, 4,25 ondoko edukiera (145,86 m²) zuena. Horri, ataurreen edukiera gaineratu behar zaio, 1,5 ondokoa (51,48 m²). Honatx haren mugak:

Iparraldera, Mariarats etxea; hegoalde eta mendebaldera, etxearen eta estalpearen artean igarotzen zen bidea; ekialdera, etxearen izen bereko errekatxoa. 181 beloi-erreal balio zuen garai hartan.

Echeburua baserriaren baitako onibar misto handi bat zen, gaztainadiz eta hariztiz betea, 1.510,5 ondoko edukiera (51.840,36 m²) zuena. Halaber, izen berarekin 242,5 ondoko edukiera (8.322,60 m²) zuen beste lursail bat ageri zen, kasu horretan, otalurrez betea. Honatx azken horren mugak:

Iparraldera, Mariarats errekatxoa; hegoaldera, Valmedianoko markesaren lurrak eta Abariako maiorazkoko Jose Joaquin Olazabal Arbelaiz y Olasoren jaraunsleenak; ekialdera, berriz ere, Mariarats errekatxoa, lehen aipatu dugun bidea eta Autoen Errepide Nagusia; sartaldera, Jose Joaquin Olazabalen jaraunsleen lurrak eta Jose Francisco Arana eta Manuel Lasaren jabetzak. 15.347 beloi-erreal balio zuen garai hartan.

Sanandresaldea, harizti helduz betetako lur-eremua, 95 ondoko edukiera (3.260,40 m²) zuena eta muga hauek:

Iparraldera, berriro Valmedianoko markesaren (Ordiziako Jauregikoa) lurrak; hegoaldera, Zizurkilgo San Miliango markesak Ezkiagaerdia etxean zituen lurrak; ekialdera, Erauskin auzoan lekutzen ziren Burugorrinea eta Fermin enea baserrien jabeduna zen (beste askoren artean) Jose Francisco Arana Echeverriaren lurrak; sartaldera, autoen bidea. Bere balioa 660 beloi-errealekoa zen orduan.

Etxearen balioa 1862an 51.351 beloi-errealekoa zen, hartako etxaguntza guztiak barne.

Horiek ziren Barrena jauregiak Mariarats etxeari esleitutako lur guztiak. Aipatu baserria "Maiaz" izenarekin idazten zuten behin eta berriz Ezkiagaerdia, Upabia eta Lazkaibartxiki etxeetako etxaguntzak deskribatzean. Ziur aski, akats fonetiko bat da, bien ahoskera oso antzekoa baita. Amildegiaren goiko partean eta Erauskin auzorantz kokatutako baserri gehienak Infanterriko Dukearenak (Lazkaoko Etxekoa) ziren. Ordiziako Valmediano Etxea eta Lazkaoko Infanterrikoa jadanik pertsona beraren baitan zeuden; hain zuzen, horregatik Manuel Egoscozabalek jarraian aipatuko ditugun lau anai-arreben ordezkari modura jardun behar izan zuen:

Andres Arteaga y Silva, Valmediano, Ariza eta Estepako markesa, beste titulu askoren artean, Infanterriko dukea ere bai, ezkondua eta 31 urte; Josefa de Arteaga y Silva, ezkondua eta 33 urte; Isabel Arteaga y Silva, ezkondua eta 25 urte; Fernando Arteaga y Silva, Alicanteko probintzian dagoen Guadaletseko markesa, ezkondua eta 28 urte. Guztiak Madrilen bizi ziren. Aurrez aipatu dugun ahalordeduna Beasaingo Bake Epaitegira bertaratu zen jabetza hori ordezkatzen zituen lau anai-arreben izenean erregistratzeko eskatuz, izan ere, haien aita zena, Avelino Andres Arteaga y Palafox izan zen aurretiaz jabeduna 1817az geroztik eta hil zen arte, aldi berean, Ignacio Ciro y Arteaga aitaren herentzian jaso ostean.

Ordezkari hark, beste askotan bezala, zera adierazi zuen,

> *"…que carecía de documentación de propiedad del presente caserío, así como de otros de la comarca, al haber perdido los documentos de todos ellos durante las vicisitudes habidas en la llamada guerra de la Independencia a principios del siglo XIX…"*

Hori dela eta, Jose Francisco Arana eta Pedro Ignacio Leundak lekuko modura jardun behar izan zuten, aipatu jabetza egiaztatu ahal izateko. Biak jabedun beasaindarrak ziren eta adierazi zuten ziurta zezaketela aipatu gizona etxearen eta aurrez deskribatutako etxaguntzen legezko jabeduna zela. Kontribuzioak garaiz ordaindu zirenez, ez zegoen aurkako jardunbiderik. Horrenbestez, onarpen-autoa eman zuten jabetza hori 1866ko abuztuaren 6an haren izenean erregistratzeko, hots, aztergai dugun trenbideko planoa sinatu eta soilik lau urtera.

Azkenik, haien seme-alaba eta bilobek jaso zuten herentzian aipatu jabetza, lursail horiei zegokien baldintzarekin batera, izan ere, Lazcano, Arteaga eta Barrenako hiru maiorazkoarenak izaki, egindako kontularitzaren 11. zenbakian adierazten zenez, Lazkaoko Infanterriko jauregiko maiorazkoari zegozkion kargak ordaindu beharko zituzten. Honatx karga horien zenbatekoak:

> ***Francisco Leturiondo, y otros dos mil novecientos treinta y tres reales de capital a favor del Cabildo Parroquial de Lazcano…"***

1862an, aztergai dugun trenbidearen plano hau sinatu zen urtean, hiru familia hauek bizi ziren Mariarats etxean:

Ignacio Aranburu eta Maria Antonia Aranburu senar-emazteak, Manuel eta Pedro Joaquin Aranburu semeekin, lehenengoaren ama zen Maria Micaela Armendarizekin eta etxeko morroia zen Paulo Jose Aranbururekin.

Manuel Joaquin Aranburu eta Maria Martina Aranburu senar-emazteak, haien alaba zen Rafaela Aranburu Aranbururekin, lehengoaren ama zen Maria Bautistarekin eta etxeko morroia zen Francisco Aranbururekin.

Azkenik, Juan Olea eta Balbina Mugica senar-emazteak, haien seme-alaba ziren Antero eta Juana Olea Mugicarekin eta Domingo Elorza apopiloarekin.

NEKEZ ERANTZUN DAITEZKEEN GOGOETAK LAZKAIBARRI BURUZ

Asko bururatzen zaizkigun arren, defuntuak haien azken jomugara eramateko antzina egiten zen bideak zuen garrantzia aintzat hartuz, hartan murgilduko gara (makabro samarra izan badaiteke ere); modu horretan, garai hartako hileta-usadioei buruzko kontuak ezagutu ahal izango ditugu.

Oso antzinako ohitura da Euskal Herrian hilerrira doan bidea hura bezala izendatzea. Halaxe aipatu ziguten Arizmendi baserriko Paulino Aranburu eta Pilar Arratibelek 4. sektorean. Sektore horretan ikusi genuenez, baserritik jaisten ziren bide jakin batzuk "Eliz bide" eta "Kanpu Santo aldea" izendatzen zituzten (garai hartan hilerria elizaren atzealdean lekutzen zen), ziurrenik, heriotzari buruzko errito eta sinesmenekin eta defuntuak parrokiara eta hilerrira eramateko egiten zen segizioarekin lotuta. Leku batzuetan, jabedun batzuk defuntuak azken jomugara eramateko segizioa beren lurretatik edo beren jabetzako bideetatik ohikotasunez igaro ez zitezela nahi izaten zuten, izan ere, haien esanetan, horrek zortasun-eskubide bat sortzea eragin zezakeen, igarobide gisa kargatutako bide horren balio ekonomikoa urrituz.

Lazkaibar auzoaren berezitasunetako bat da beti kokatu izan dela hainbat herriren erdibidean. Hori ikusirik, honako galdera darabilkigu buruan: Nondik igaroko ote ziren antzina Lazkaibarreko auzo horretan gertatutako heriotzen segizioak? XX. mendearen erdialdera hilotza ehorztera eramateko segizioak artean ibilbide hau burutu behar zuen derrigorrez (zendutakoa Beasainen ehortzi behar bazen):

Lazkaibar, Senpere, Senpereko zubia, Zaldizurretako zubia, Beasaingo herrigunea, Santa Maria kalea, Parrokia eta Zelaeta hilerri berria.

Baina beti egingo ote zuten derrigorrezko bide hori? Pentsatu nahi dugu arrazoi nagusiak ibilbidearen luzerarekin izango zuela zerikusia, izan ere, segizioak beti zendutako beasaindarrarena ez zen jurisdikziotik igaro beharko zuen ibilbideko tarteren batean. Ziurtatu didatenez, defuntua ez zen sekula Lazkaibarreko zubitik igarotzen, baldin eta hildakoaren nahia Ordizian "lur hartzea" ez bazen; beraz, herri horretako udal-barrutitik igarotzen ez baziren, kontrako aldetik igaro beharko ziren ezinbestean, hots, Lazkaoko jurisdikziotik.

Kontuan izan behar dugu 1917ko uztailaren 16ra arte (data horretan inauguratu zen elizaz kanpo zegoen bigarren hilerria, Zelaetako zonaldean) defuntuak Beasaingo parrokiaren atzean zegoen hilerrian ehorzten zirela. Baina, egun horretatik aurrera, elizkizuna burutu ostean segizioak "Zelata" izeneko hilerri berriraino (egun Jose Miguel Barandiaran parkea dago bertan) jarraitu behar zuen. Eta Lazkaibarreko auzotarrek hiru kilometroko "osteratxoa" egin behar izaten zuten, ibilbidean defuntua sorbalda gainean eramanez. Hori dela eta, auzo horretan segizioetan zortzi pertsonako taldea antolatzen zen eta ez lau pertsonakoa ohikoa zen moduan, izan ere, egin beharreko distantzia ikusita, hilkutxa sorbaldan eramaten zuten gizonak txandatu egin behar izaten ziren ezinbestean.

Kontuan izan behar da, Zaldizurretako zubia igaro ostean segizioa plazako aldapatik parrokiara abiatzen zela elizkizunak burutzeko eta, ondoren, berriro hilkutxa sorbaldan paratuta, segizioak "Zelata" hilerriraino jarraitzen zuen, XX. mendearen hastapenean artean "Kalbario Zelaia" izendatzen zuten (halaxe ikusi ahal izan dugu orduan alkate zen Jose Miguel Iturriozen zenbait idatzitan) parajearen atzealdean lekutzen zena. Zein bide urratuko zuten auzotarrek Fabrika ezarri aurretik, Oria ibaia Lazkaibar eta Ezkiaga inguruko lurren arteko muga naturala zenean? Fabrikan zehar auzotarrek "zuten" ibilbidean (6. sektorean ikusi duguna) barna egingo ote zuten?

Litekeena da Gipuzkoan ez egotea halako isolamendua pairatzen zuen beste auzorik, izan ere, ez zuten herrigunerako igarobiderik ez bazen aparteko bi jurisdikzio gurutzatuta.

Eta "lur amaiera" horren deskribapenarekin udalerriko trenbidean barna egin dugun irudizko bidaia amaitutzat emango dugu, hor aurkitzen baita Ordiziako muga. 1863ko irailaren 1ean hasi zen Beasain-Donostia tartean trena ibiltzen, 41 kilometro eta 402 metroko distantzia eginez. 1.864ko abuztuaren 2an Olazagutia-Beasain tartea zabaldu zen, 47 kilometroko eta 472 metrokoa. Orain abiadura handiko trena noiz abiatuko den jakitea baino ez zaigu geratzen.

ARAKATUTAKO ITURRI ETA EGILEAK

- Valladolideko Chancillería Errege Artxibategia
- Oñatiko Protokoloen Artxibategia
- Beasaingo Udaleko Artxibategia
- Ordiziako Artxibategia
- Tolosako Artxibategia
- Tolosako Erregistroa
- Azpeitiko Erregistroa
- "Beasain 1900-2000.- Ehun urteko historia irudietan" liburua (Beasaingo paperak)
- Martin Garcia Garmendiaren "Beasain, leiho bat iraganari" liburua.
- "Beasain, 1840-1940" liburua (Beasaingo paperak)
- "Fabrika Haundie" liburua (Beasaingo paperak)
- "Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen" (Beasaingo Paperak)
- Koldo Mitxelenako Funtsak
- Liburutegi Nazionala- "La Ilustración Española y Americana"
- Elizbarrutiko Artxibategia
- "Geográfica de Guipuzcoa" liburua
- "Monografía de Villafranca de Guipuzcoa" liburua
- RENFEko Ondare Artxibategia
- CAFeko Katalogo zaharra
- Euskal Leinuak Perun
- S.E.C.M. enpresako Katalogo zaharra
- "Vascos en el Archivo de Indias" liburua
- Elizbarrutiko Museoko "Andra Maria" liburua
- E. H. Lockerren liburua
- Pablo Gorosabel
- Juan Garmendia Larrañaga
- Sebastian Insausti Treviño
- Luis Maria Mugica
- Leandro Silvan
- Serapio Mugica
- Pello Joshe Aranburu
- Luis Maria Intza
- Jose Garmendia Arruebarrena
- Isabel Astiazarain
- Jose Angel Atxon Insausti
- Susana Truchuelo
- Luzia Alberro
- Ignacio Iparragirre

INFORMAZIOA EMAN DUTEN PERTSONAK ETA HAIEN JATORRIA

- Olano ahizpak, “Betenasagasti”
- Andres Telleria, “Makinetxe”
- Jose Maria Iraola, “Muxica”
- Ayestaran Familia, “Angio”
- Maria Jesus Ruiz de Egino, “Makinetxe”
- Jose Antonio Ibaibarriaga, “Usabiaga Etxea”
- Pilar Lasa
- Mikel Dorronsoro, “Gaztelumuno”
- Maria Jesus Mendia, “Kantoikoa”
- Juan Egurmendi, “Bartoletxe”
- Venancio Iraola, “Baraikoa”
- Beristain familia, Senpereko “Andramendi/Behitegia”
- Patxi Usabiaga, Ordiziako “Benta berri”
- Juan Ayestaran
- Paulino Aramburu, “Arizmendi”
- Javier Ibisate, “Leku alai”
- Pilar Arratibel, “Arizmendi”
- Manuel Oyarbide, “Igartetxe”
- Juan Jose Oyarbide, “Igartetxe”
- Juan Mendia
- Martina Irizar, “Igartzako errota”
- Jesus Zufiaurre, “Zaldizurreta”
- Miren Olabarrieta, “Plazazo Arantxiki”
- Josetxo Aristi
- Ramon Mugica
- Unanue familia, Lazkaibarreko “Olaran enea”
- Oria familia, “Igeldegi” eta “Bartoletxe”
- Francisco Albisu, “Muruena/Matias enea”
- Milagros Peñagarikano, “Zelaeta zar”
- Juan Lasa, “Basarte azpikoa”
- Juan Maria Irizar, “Majoenea”
- Ramon Esnaola, “Urbiñarte”
- Angel Garmendia, “Iturrazpe bekoa”
- Enrique Sanchez
- Cesareo Ugarte
- Rafael Oyarbide, “Bonaetxe berria”
- Jose Martín Imaz, “Elizalde edo Martiñenea”
- Telleria/Gaztañaga familia, “Anzizar”
- Aitor Garmendia, “Anzizar berri”
- Pedro Maria Zentol, “Lazkaibar berri”
- Roberto Begue, “Ezkia txiki”
- Martin Azurmendi, “Nekola”
- Iñaki Aramburu, “Mariaratz”
- Juan Valdivieso
- Carlos Kortaberria
- Florencio Mendia
- Jose Mendia, “Erdikoetxea”

AZALEKO IRUDIAK

Euskal Herriko postal zaharrak, Martin Garcia Garmendiarenak. Irudi horiek posta-txartela euskarrian editatu ziren, Arrue (3) eta Landi (1) pintoreen obrak hartuta.

AZALEKO IRUDIEN DISEINUA

Martin Garcia Garmendia

XIX. MENDEKO GIPUZKOAKO JANZKERA

Martin Garcia Garmendiaren postal zaharra

TRENBIDEKO ZAZPI SEKTOREETAKO PLANOAK

Bilboko RENFEko Ondare Artxibategiak helaraziak

ARGAZKIAK - Egilearen artxibategikoak, honakoek helarazita:

A.P.R.B 46
Beasaingo Udala 39
Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles.(CAF) 38
Martin Garcia Garmendia 31
Egilearen postal zaharrak 20
Fernando Laborde 18
C.M.V 18
Martin Garcia Garmendiaren artxibategitik, egile ezezaguna 18
Santiago Urdanpilleta 12
Javier Jauregi 6
Juan Mendia 5
Mari Carmen Aranburu 4
Urdanpilleta Familia 4
"Beasain Jaietan" Artxibategia 4
Miren Olabarrieta 4
Teresa Lasa 4
Foto Aygües 3
Foto Alzuri 3
Historias del Perú 3
Luis Juan Unanua 3
Maria Jesus Ruiz de Egino 2
Senpereko Olano ahizpak 2
Bodegón Goierri 2
Venancio Iraola 2
"Santa Ana" aldizkaria 2
Marisa Mendizabal 2
Pilar Aduriz 2
Maria Luisa Pagola 2
Ricardo Cornejo Arkonada 2
Francisco Sarriegi ("Botxo") 2
Martin Azurmendi 2
Felipe Abentin 2
Jesus Maria Fernandez 2

Jesus Lopez Zulueta 2
E. H. Lockerren marrazkiak. 2
"La Ilustración Española y Americana" 1
Muxicako Iraola Familia. 1
Isabel Urteaga. 1
Martina Irizar. 1
Javier Garcia Bergara. 1
Belen Azpeitia. 1
Jose Antonio Ibaibarriaga 1
Maria Jesus Mendia 1
Construcción Caminos Reales de Guipuzcoa 1
Geográfica de Guipuzcoa 1
Ramon Mugica 1
Tranvías de Madrid 1
Aitor Garmendia 1
Arantxa Sarriegi 1
Pedro Maria Laborde 1
Roberto Begue 1
Pedro Maria Zentol 1
88-IV 1/25.000 Mapa Topografikoa 1
Lore Aldaregia 1
Pedro Uranga 1
Jose Maria Ortega Lekue 1
Patxi Usabiaga 1
Joseba Mugica 1
Esnaola Familia 1
Martin eta Federico Ugarte 1
Pepita Ugarte 1
Maria Barcenilla 1
Ana Mari Ibañez de Opakua 1
Roman ahizpak 1
Juanita Cacho 1
Lourdes Briñas Zaldua 1
Mikel Dorronsoro 1
Maria Jesus Agirre 1
Koldo Mitxelenako funtsak, Angel Piralaren marrazkia 1
Natividad Razkin 1
Pako Sarriegi 1
Manuel Imaz. 1
Bereziartu Familia 1
Gipuzkoako Kartografia Dokumentu Historikoak 1
Jose Usabiaga 1
Rafael Pikabea 1
Ibero Arkitektoaren "Plano txikia" 1
Garaje Moderno 1
Jose Luis Vergara Insa 1
Maria Dolores Unanue 1